“Azken arau-aldaketa: 2026/10/21”

Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena (BAO Abustuaren 28koa)

Abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, erregelamendu bidez garatzeko bi foru dekretu onartu dira orain arte: batetik, abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretua, Bizkaiko toki entitateen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onartzen dituena, eta, bestetik, abenduaren 18ko 255/2007 Foru Dekretua, toki entitateen Kontabilitate Instrukzioa eta Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren hainbat xedapenen aldaketa onartzen dituena.

International Accounting Standards Board (IASB) erakundeak onartutako Nazioarteko Kontabilitate Arauek (NKA-IFNA) berekin ekarri dute Europa kontinentalean orain arte erabili den kontabilitate eredua alde batera uztea eta herrialde anglosaxoietan indarrean dagoen moldera hurbiltzea.

Izan ere, balorazio irizpideetan sartu diren aldaketak -merkatuekiko konparazioak kostu historikoak baino lehentasun gehiago du orain, eta aktiboak erregistratzean erabilera da orain irizpidea, eta ez da jabetza- arrazoi izan dira, beste aldaketa askoren artean, operadore ekonomikoei eskura jartzen zaien informazio ekonomiko eta patrimonialaren filosofia aldatu dadin.

Sektore pribatua osatzen duten enteen kasuan, haien kontabilitatea nazioarteko arauetara egokitzeko bi errege dekretu onartu ziren: batetik, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena, eta, bestetik, azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretua, Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra eta mikroenpresetarako berariazko kontabilitate irizpideak ezartzen dituena.

Herri administrazioen esparruan, beharrezko gertatzen da orain arte erabilitako kontabilitate arauak kontabilitate eredu berrira egokitzea informazioa sektore pribatuarekin alderatu ahal izan dadin, eta egokitzapen hori foru dekretu honen bidez egiten da.

Gainera, tokiko sektore publikoaren informazio ekonomikoan interesa duten guztiek modu integralean izan dezaten eskura kontabilitate arau-esparrua, hala aurrekontukoa nola partida bikoitzekoa, ahalegina egin da hura dokumentu bakar batean, foru dekretu honetan hain justu, bildu eta homogeneizatzeko.

Horrela, dekretuan onartzen dira bai toki entitateen kontabilitate instrukzioa eta bai Toki Administraziora egokitutako Kontabilitate Plan Orokorra, oraingoen aldean berrikuntza garrantzitsuak dakartzatenak nazioarteko kontabilitate arauetara egokitu beharrak eraginda. Toki entitateetara egokitutako kontabilitate instrukzio berriak dituen atal desberdinetan datoz azalduta berrikuntza horiek.

Bestalde, foru dekretu honetan toki entitateen aurrekontu egitura ere jasotzen da, zeina hobetu eta araztu baita zenbait alderditan, haren aplikazioan izandako eskarmentua aintzat hartuta.

Erregulazioa testu arauemaile bakar batean aurkezteko egiten den lan hau koherentea da herri administrazioen jardunari buruzko datuak ahal den gardenen eta eskuragarrien eskaintzeko joerarekin.

Toki entitateek 2016ko ekitalditik aurrera aplikatuko dute foru dekretu honetan xedatutakoa. Horri dagokionez, araubide iragankor bat ezartzen da aipatu dugun 2016ko ekitaldiko

kontabilitatearen irekiera errazteko eta 2015eko ekitaldiko informazioarekin bidezko konparazioak egiteko.

Foru dekretu honek hiru artikulu ditu. Lehenengoak toki entitateen kontabilitate instrukzioa onartzen du, bigarrenak toki entitateen aurrekontu egitura, eta hirugarrenak Toki Administraziora egokitutako Kontabilitate Plan Orokorra.

Orobat, xedapen gehigarri bat du, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, eta amaierako bi xedapen.

Abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzkoak, hirugarren xedapen gehigarrian baimena ematen dio Foru Aldundiari foru arauan jasotzen diren xedapenak garatu ditzan, lurralde historikoan hedapen zabalenekoa den udalen elkarteak txostena eman ondoren.

Alde horretatik, esandako udal elkarteak aldeko txostena eman dio foru dekretu honen proiektuari.

Horiek horrela, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposaturik, Diputatuen Kontseiluak 2015eko uztailaren 28ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau.

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Toki entitateen kontabilitate instrukzioa onartzea.

Onartzen da toki entitateen kontabilitate instrukzioa, foru dekretu honetan 1. eranskin gisa jasotzen dena.

Toki entitateek eta haien menpeko organismoek aplikatuko dute instrukzio hori, 1. erregelan ezartzen dituen terminoei jarraituz.

2. artikulua. Toki entitateen aurrekontu egitura onartzea .

Onartzen da toki entitateen eta aurrekontu mugatzailea duten menpeko organismoen aurrekontu egitura, foru dekretu honetan 2. eranskin gisa jasotzen dena.

3. artikulua. Toki Administraziora egokitutako Kontabilitate Plan Orokorra onartzea.

Onartzen da Toki Administraziora egokitutako Kontabilitate Plan Orokorra, foru dekretu honetan 3. eranskin gisa jasotzen dena.

Toki entitateek eta aurrekontu mugatzailea duten menpeko organismoek aplikatuko dute plan hori.

4. artikulua. Toki-erakundeen urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onartzea.

Onartzen dira Bizkaiko toki-sektore publikoaren esparruan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak; foru-dekretu honen 4. eranskinean txertatu dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Udalerria baino eremu txikiagoko entitateak.

Foru dekretu honetan xedatutakoa udalerria baino eremu txikiagoko entitateei aplikatuko zaie, dagokien araudian jasota dauden berezitasunak kontuan hartuta.

Bigarrena. Bizkaiko toki-sektore publikoko erakunde jakin batzuen bateratzeko betebeharra.

Enpresa-entitate publikoek, eta kontabilitate-arloan merkataritza-araudiaren pean dauden eta merkataritza-sozietateak ez diren toki-sektore publikoko beste entitate batzuek, zeinek araudi horren peko beste entitate batzuk menpean izanik taldea osatzen baitute (osatu ere, irailaren 17ko 1159/2010 Errege-dekretuaren bidez onetsitako urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetan ezarritako irizpideekin bat) urteko kontu bateratuak formulatuko dituzte, dagokion toki-erakundearen egoera-orri bateratuak egiteko, arau horietan ezarritako irizpideekin bat.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. 2016ko ekitaldiko kontabilitatearen irekiera.

1. Foru dekretu honen bidez onartutako instrukzioa aplikatzen duten entitateek irizpide hauen arabera egingo dute 2016ko kontabilitatearen irekiera idazpena:

   a) 2015eko ekitaldiko kontabilitatearen itxiera idazpenean ageri diren saldo guztiak jaso behar dira bertan, haren barruan beste ezein saldorik sartu gabe.

   b) Saldo horiek dagozkien kontuetan egotzi behar dira, foru dekretu honetan onartzen den Toki Administraziora egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezartzen denari jarraituta.

2. 2016ko ekitaldiko kontabilitatea irekitzeko idazpena egin ondoren, beharrezkoak diren doikuntza idazpenak egingo dira Toki Administraziora egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrak exijitzen dituen aktibo eta pasibo guztiak 2016ko urtarrilaren 1ean erregistraturik geratzeko, eta planaren arabera onartu ezin diren partida guztiei (aktibo eta pasibo guztiei) baja emateko.

   Edonola ere, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik entitatean dauden eta 2004ko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritakoarengatik aktibatu ez diren azpiegituren, ondare historikoko ondasunen eta bestelako ondare elementuen kasuan, ez da beharrezkoa izango horiek aktiboan sartzea, haien balorazioa ezin bada modu fidagarrian egin.

3. Ondare elementu guztiak 2015eko ekitaldia ixtean duten kontabilitate balioaren arabera baloratuko dira, salbu eta «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako aktibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» eta «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako pasibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» kategorietan sailkatzen diren aktibo eta pasibo finantzarioak, eta «Aktibo finantzario salgarriak» kategorian sailkatzen diren aktibo finantzarioak, horiek guztiak 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratuko baitira.

   Interes tasa efektiboa kalkulatzeko, 2016ko urtarrilaren 1a izango da erreferentziazko hasiera data.

   Era berean, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen inbertsioak egin badira zuzenbide publikoko taldeko entitateen, talde anitzekoen edo entitate elkartuen ondarean, eta haien kostuari dagokion kontabilitate balioa zein den ezin bada zehaztu, data horretan duten balio berreskuragarriaren arabera baloratuko dira. Ebidentzia hoberik ezean, balio hori zehazteko kontuan hartuko da entitate partaidetuaren ondare garbia, balorazioaren egunean dauden gainbalio tazituek zuzendua.

Bigarrena. 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jaso beharreko informazioa.

2016ko ekitaldiko urteko kontuak honako hau aintzat hartuta osatuko dira:

1. Balantzean, ondare emaitza ekonomikoaren kontuan eta informazio konparatiboa duten gainerako egoera-orrietan ez da jaso behar aurreko ekitaldiko edo ekitaldietako zifrarik.

2. Memorian ohar bat gehitu behar da, hain zuzen ere eduki hau izango duena:

> «25. Kontabilitate arau berrietara aldatzearen inguruko alderdiak.
>
> 2015eko ekitaldiko kontabilitatetik 2016ko ekitaldiko kontabilitatera aldatzeko prozesua argitzearren, informazio hau aurkeztu beharko da:
>
> 1. 2016ko kontabilitatearen irekiera idazpenean ageri diren saldoen eta 2015eko kontabilitatearen itxiera idazpenean jasotakoen artean zer korrespondentzia dagoen erakusten duen kontziliazio egoera-orria.
>
> 2. 2015eko ekitaldiko kontuetan sartutako balantzea, ondare emaitza ekonomikoaren kontua, eta diruzaintzako gerakina.
>
> 3. Aurreko xedapen iragankorreko 2. apartatuan ezarritakoa betez egindako doikuntzen deskribapena, haietako bakoitzerako honako hau adieraziz:
>
> a) Idazpenaren identifikazioa.
>
> b) Idazpena egiteko arrazoia.
>
> c) 2016ko kontabilitate ekitaldirako aplikatutako kontabilitate irizpideak eta aurreko ekitaldian aplikatutakoen aldean dauden diferentziak.
>
> d) Kontabilitate irizpideak aldatzeak entitatearen ondare garbian duen eraginaren kuantifikazioa.
>
> e) Idazpenaren zergatia gehiago zehazteko garrantzitsutzat jotzen den beste edozein zirkunstantzia.».

Hirugarrena. 2016ko ekitaldia baino lehenagoko kontuak osatzea eta haien berri ematea.

2016ko ekitaldia baino lehenagoko kontuak osatzeko eta haien berri emateko, aplikatuko dira kasuan kasuko ekitaldian tokiko kontabilitate instrukzioan aurreikusita zeuden arauak.

Xedapen indargabetzaile.

Bakarra. Araudia indargabetzea.

Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen edo bateragarriak ez diren maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak. Zehazki, indarrik gabe geratzen dira abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretua, Bizkaiko toki entitateen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onartzen dituena, eta abenduaren 18ko 255/2007 Foru Dekretua, toki entitateen Kontabilitate Instrukzioa eta Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren hainbat xedapenen aldaketa onartzen dituena.

Amaierako xedapenak.

Lehenengoa. Arauak emateko almena.

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

1. ERANSKINA.

BIZKAIKO TOKI-ERAKUNDEEN KONTABILITATE INSTRUKZIOA

ATARIKOA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua erregelamendu bidez garatu zuen 255/2007 Foru Dekretuak (2007ko abenduaren 18koa, toki entitateen Kontabilitate Instrukzioa eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren hainbat xedapenen aldaketa onartzen duena).

Jarraibide honen bidez, kontabilitate-araudia eguneratu nahi da, sektore publikoaren kontabilitatean aplikagarriak diren nazioarteko arauak kontuan hartuta, eta, horrenbestez, gehitu nahi dira Kontabilitate Plan Orokorrean toki-administrazioari egokituta jasotako berritasunak, betiere 235/2004 Foru Dekretuaren bidez (abenduaren 15ekoa, Bizkaiko toki-erakundeetako aurrekontuen egitura eta kontabilitate publikoko plan nagusia onetsi dituena) onartutako aurreko planari dagokionez.

Era berean, EAEko sektore publikoko herri-administrazioetako kontabilitate-araudiaren edukia homogeneizatu nahi da.

Jarraibide hau aurrekoaren oso antzekoa izan arren, laburragoa da, beste arau batzuetan jasotako edukiak kendu direlako. Adibidez, aurreko kontabilitate-jarraibidean zeuden edukien artetik, toki-administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikorako Plan Orokor berrian nolabait garatuta daudenak kendu dira.

Kontabilitate-jarraibide hau toki-erakundeetan, haien erakunde autonomoetan, atxikitako partzuergoetan, tokiko merkataritza-sozietateetan eta tokiko enpresa-erakunde publikoetan izango da aplikagarria, bertan honi dagokionez adierazitakoaren arabera.

I. tituluan zehaztutako kontabilitate-eredua zentralizatua da, eragiketak atzematen diren leku fisikoa edozein dela ere, eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra toki-administrazioari egokituta aplikatzen da.

Era berean, berariaz aipatzen dira kontabilitate-informazioaren hartzaileak; hau da: kontrol-organoak, kudeaketaren ardura duten organoak, tutoretza finantzarioaren eginkizuna betetzen duten administrazio-organoak, erakundearen hartzekodunak, analista finantzarioak eta ekonomikoak, eta baita, oro har, edozein erakunde, elkarte eta herritar; horrenbestez, kontabilitate publikoaren ikuspegi tradizionala gaindituko da, batez ere, aurrekontu-gauzapenaren eta kontu-ematearen jarraipena egitea baitzuen xede.

Era berean, kontabilitate-esparruari dagokionez, esaten da zer eskumen eta eginkizun dagozkien Udalbatzari, kontu-hartzailetzari edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-erakundeko organoari; izan ere, indarreko legedian jasotzen dira, baina, batzuetan, sakabanatuta daude.

II. tituluan, kontabilitateko informazio-sistemaren oinarrizko ezaugarriak jasotzen dira; hau da, toki-erakundeek kontabilitate-ekitaldian zehar garatutako jarduera ekonomikoari, finantzarioari eta aurrekontukoari buruzko erregistro, elaborazio eta informazioaren komunikazio-sistema da.

Eragindako azpisistemetako kontabilitate-eragiketa bakoitzean, erregistroen bat-etortzea, zehaztasuna eta automatismoa bermatu behar ditu kontabilitateko azpisistemen edo eremuen multzo integratuak, hala nola behar bezalako koherentzia egotea informazio-maila guztien artean (erantsiak izan ala xehetasunezkoak).

Gainera, kontabilitateko informazio-sistemaren xedea eta helburuak deskribatzen dira, eskakizun informatikoak zehazten dira, eta kontabilitate-erregistroak arautzen.

Hala, kontabilitate-entitatearen esparruko aurrekontu-, ekonomia-, finantza- eta ondare-eragiketak erregistratu behar dira.

Aurreko jarraibideak zehatz-mehatz arautzen zuen nola kontabilizatu behar ziren eragiketak. Orain, jarraibide honetan, eragiketa bakoitzaren kontabilitate-trataera (nola, noiz eta zenbatean kontabilizatu) toki-administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean soilik bermatzen da, bereziki haren lehen («Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua»), bigarren («Aintzatespen- eta balioespen-arauak») eta bosgarren («Kontabilitate-definizioak eta -erlazioak») zatietan, askoz garapen handiagoa dutelako aurreko planetan baino.

Aurreko jarraibidean arautzen zen bezala, garrantzi bereziko arlo moduan hartzen dira «Kreditu-gerakinak», «Gastu-proiektuak» eta «Atxikitako finantzazioa duten gastuak». Era berean, komenigarritzat jo da ekitaldi bakoitzaren hasieran eta amaieran egin behar diren

kontabilitate-eragiketen sistematizazioari eustea jarraibide berrian, eta, gainera, haien kontabilitate-trataera toki-administrazioari egokitutako kontabilitate-plan orokorrean jasota geratu da.

Hala ere, «Ibilgetua», «Zorpetzea», «Justifikatu beharreko ordainketak» eta «Kutxa finkoko aurrerakinak» arloek kalifikazio hori galtzen dute.

«Ibilgetua» eta «Zorpetzea» arloei dagokienez, zehatz arautzen dira kasuan kasuko aintzatespen- eta balioespen-arauetan eta toki-administrazioari egokitutako kontabilitate publikoaren plan orokorreko kontabilitate-definizio eta -erlazioetan.

«Justifikatu beharreko ordainketak» eta «Kutxa finkoko aurrerakinak» arloei dagokienez, lehen zeukaten garrantzi berezia galdu izanaren arrazoia hau da: justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-horniduren kontabilitate-trataera lehen zeukaten bera da, bai justifikatu beharreko funts libratuak bai kutxa finkoko aurrerakin moduan libratuak orain ere funts publiko gisa hartzen direlako, eta entitatearen diruzaintzaren parte izan behar dutelako, gaituak edo kutxazainak azken hartzekodunei ordaindu arte.

Azkenik, aurrekontu-magnitudeen arauketa toki-administrazioari egokitutako kontabilitate-plan orokorreko «Urteko kontuak» hirugarren zatira aldatu da.

Baliabideak administratzea beste erakunde publiko batzuen kontura» sekzioan bi egoera bereizten dira. Batean, erakunde kudeatzaileak baliabideen titularra den erakundeari kontabilitate-erregistroa egiteko beharrezkoa den kudeaketa-eragiketei buruzko informazio guztia ematen dio; bestean, ordea, erakunde kudeatzaileak ezin dio informazio hori eman erakunde titularrari. Azken kasu horretan, bada, baliabideen titular diren erakundeei egiten dizkien bilketa likidoaren ordainketen xehetasunezko datuak behintzat eman beharko dizkie.

Lehenengo egoeran:

Erakunde kudeatzaileak, 45. azpitaldeko kontuetatik («Zordunak eta hartzekodunak baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura administratzeagatik»), erakunde titularrarekin dituen harremanak islatzen dituztenak soilik erabiliko ditu, hau da 453 kontua («Erakunde publikoak likidatzeko dauden sarrerengatik») eta, konturako entregarik egonez gero, 456 kontua («Erakunde publikoak, eskud. k/k»).

Bigarren egoeran (erakunde kudeatzaileak ez dionean ematen erakunde titularrari kudeaketa-eragiketei buruzko informazio guztia):

Erakunde kudeatzaileak 45. azpitalde guztia («Zordunak eta hartzekodunak baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura administratzeagatik») erabiliko du.

Erakunde titularrak honako hauek soilik erregistratuko ditu bere kontabilitatean: bilketaren entrega zuzenak, konturako entregak, eta kudeatzen dizkioten baliabideen behin betiko likidazioa.

III. tituluak eragiketen frogagiriak, datuak sisteman sartzea eta kontabilitate-informazioa artxibatzea eta kontserbatzea arautzen ditu.

Eragiketen frogagiriei dagokienez, jarraibideak esaten du berekin kontabilitate-oharrak egin beharra dakarren egitate orok behar bezala egiaztatuta egon behar duela frogagiri egokiaren bidez, eta haren euskarria paperezko dokumentuak nahiz bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak izan daitezkeela.

Datuak sisteman sartzeari dagokionez, askatasuna ematen da eragiketaren frogagirian dauden datuak zuzenean atzemateko, edo, hala egokituz gero, kontabilitate-dokumentu egokian daudenak, bai eta prozedura elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz sartzeko ere. Toki-entitateak berak finkatuko ditu erabiliko diren kontabilitateko agiriak, bere informazio-beharren arabera eta eragiketen tramitazioan darabilen eragikera kontuan hartuta.

Eragiketen frogagiriak eta kontabilitate-oharren euskarriak artxibatzeari eta kontserbatzeari dagokienez, onartutako euskarri motak arautzen dira, bai eta kontserbazio-epea ere, alde batetik, izan daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izateko, eta, bestetik, haiek galdagarriak ez direnean informazioa desegin ahal izateko.

Erregistratzen diren egitateen frogagiriak bitarteko edo euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoetan kontserbatu ahal izango dira, jatorrian zeukaten euskarri mota edozein izanda ere, betiere haien egiazkotasuna, osotasuna, kalitatea, babesa eta kontserbazioa bermatuta egonez gero.

Eragiketen frogagiriak, hala nola dagozkien kontabilitate-agiriak, hala egokituz gero, sei urtez gordeko dira, urteko kontuak kanpoko kontrol-organoetara igortzen direnetik kontatzen hasita, arau batek beste epe batzuk ezarri ezean, edo litekeen kontabilitate-erantzukizunaren preskripzio-epea eten ezean, edo balantzean agertzen diren aktibo eta pasiboei egotzitako balioespenak justifikatzen dituen dokumentazioa izan ezean. Kontabilitate-erregistroak ere sei urtez gorde beharko dira.

Berritasuna da bidezkoa ez izatea dokumentuen artxibo historiko batera igorri behar diren kontabilitate-erregistroak eta frogagiriak desegitea.

IV. titulua kontabilitate-informazioari buruzkoa da. Horrenbestez, toki-entitateak, haren erakunde autonomoek eta aurrekontu murriztaileko partzuergoek eman beharreko kontuak egiteko arauak eta haien egitura eta edukia zehazten dira.

Berria da urteko kontuetan sartu izana ondare garbiko aldaketen egoera-orria eta eta diru-fluxuen egoera-orria.

Urteko kontuak egitean, kontuan hartu beharko dira toki-administraziora egokitutako kontabilitate publikoaren plan orokorraren hirugarren zatian haiek egiteko bildutako arauak, eta kontuek zati horretan jasotako ereduetara egokitu beharko dute.

Eutsi egiten zaio kanpoko kontrol-organoei, kontu orokorrarekin batera, diruzaintzako frogagiriak igortzeko obligazioari.

Gardentasun-printzipioa aplikatuta, kontu orokorrean txertatzen ez diren kontuak dituzten mendeko unitate guztien urteko kontuak kontu orokorrari eransteko dokumentazio osagarri gisa jasotzen dira.

Azpimarratzen da Udalbatzak kontu orokorra onartzeak ez duela zerikusirik kontu horretan jasota dauden erabakiak hartu edo egintzak egin dituzten Udalbatzako kideei egoki dakiekeen erantzukizunarekin. Era berean, bereizi egiten dira, alde batetik, ematen diren kontuetan jasotako erabakiak hartu edo egintzak egiten dituzten kudeaketa-arduradunei, kontu-emaile gisa zentzu materialean, egoki dakiekeen erantzukizuna eta, bestetik, kontu-emaile gisa zentzu formalean kontuak eman behar dituenari dagokion erantzukizuna, kontuen egiazkotasunaren erantzule izatea baino ez baita.

Amaitzeko, Udalbatzarentzako aldizkako informazioa arautzen da, hala nola barneko kudeaketa- eta kontrol-organoentzako informazioa, eta beste herri-administrazio batzuentzakoa.

I. TITULUA.
TOKI-KONTABILITATEAREN JARRAIBIDE OROKORRAK.

I. KAPITULUA.
JARRAIBIDE OROKORRAK.

1. erregela. Aplikazio-eremua.

1. Jarraibide honetan jasotako arauak Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-entitateei, haien erakunde autonomoei eta aurrekontu mugatzailearekin atxikitako partzuergoei aplikatuko zaizkie (Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 3. artikuluko 3. idatz-zatian aipatuak).

2. Jarraibide hau aplikatzen duten tokiko enpresa-erakunde publikoek, toki-erakundeen mendeko merkataritza-sozietateek eta gutxi gorabeherako aurrekontua duten atxikitako partzuergoek (Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 3. artikuluko 3. idatz-zatian aipatuak) Merkataritza Kodearen xedapenetara eta bestelako merkataritza-legedira egokituko dute beren kontabilitatea, bai eta Kontabilitate Plan Orokorrera ere, edo haren egokitzapen sektorialetara; hartara, jarraibide hau kanpoko kontrol-organoei kontuak emateari dagokionez baino ez zaie aplikatuko.

2. erregela. Kontabilitate-entitateak.

Jarraibide honen aplikazio-esparruan sartutako toki-entitate edo erakunde autonomo eta aurrekontu mugatzaileko partzuergo bakoitza kontabilitateko entitatea da jarraibidean bertan aurreikusitako ondorioetarako.

3. erregela. Kontuak eman beharra.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 59. artikuluan ezarritakoarekin bat, jarraibide honen aplikazio-esparruan sartutako entitateek bere eragiketen berri eman behar diote, eragiketak direnak direla, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari. Horretarako, kontuak organo eskudunak onartuta izan behar ditu.

2. Aurreko atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako, jarraibide honen IV. tituluko II. kapituluan adierazitakoak izango dira kontuak eta haien berri emateko prozedura.

4. erregela. Kontabilitate-ekitaldia.

Kontabilitate-ekitaldia bat etorriko da egutegiko urtearekin, entitatea desegiten edo sortzen denean izan ezik. Erakunde bat desegiten denean, urteko kontuek urtarrilaren 1etik desegiten den egunera arte doan epea hartuko dute kontuan; erakunde bat sortzen denean, berriz, urteko kontuek sortzen den unetik abenduaren 31ra arte doan epea hartuko dute kontuan.

5. erregela. Kontabilitate-eredua.

Kontabilitate-entitate bakoitzak kontabilitate-eredu zentralizatu bat aplikatu beharko du, hurrengo erregelan adierazitakoaren arabera, eta honako printzipio hauek kontuan hartuta:

a) Eragiketa guztien erregistroa kontabilitate-entitatearen Kontabilitate Unitatean zentralizatuko da, eragiketa horiek atzematen diren toki fisikoa edo kontabilitateko informazioa lortzen den tokia dena dela.

b) Urteko kontuak unitarioak izango dira, eta ondare- nahiz finantza-egoera, ekonomia- eta ondare-emaitza eta, oro har, kontabilitate-entitatearen aurrekontuaren gauzapena erakutsiko dituzte.

6. erregela. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra toki-administraziora egokituta aplikatzea.

Kontabilitate-entitateen kontabilitatea partida bikoitzeko metodoaren bidez eramango da, jarraibide honetan jasotako arauekin eta hura garatzeko ematen diren bestelakoekin bat; eta toki-entitateen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari egokitu beharko zaio, ondoren jasotzen diren baldintzetan betiere:

a) Kontabilitate-eragiketen erregistroa kontabilitate publikoaren kontzeptuzko esparrua kontuan hartuta egingo da, bai eta haren lehen eta bigarren zatietan jasotako aintzatespen- eta balioespen-arauak kontuan hartuta ere.

b) Kontabilitate-eredu zentralizatua aplikatuko da, aurreko arauan definituta geratu den moduan, eta indar lotesleaz erabili beharko da laugarren eta bosgarren zatietan aurreikusitako taldeen, azpitaldeen, lehen mailako kontuen (hiru digituz kodifikatuak), bigarren mailako kontuen (lau digituz kodifikatuak) eta hirugarren mailako kontuen (bost digituz kalifikatuak) garapena.

   Dauzkan kudeaketa- eta informazio-beharren arabera, kontabilitate entitateak aukera izango du:

   b.1) Lehen mailako bere kontuak garatzeko, Planean berariaz aurreikusitako kasuetan.

   b.2) Planean aurreikusi gabeko bigarren eta hirugarren mailako kontuak erabiltzeko, beste sail-kontu batzuk bezalaxe.

c) Kontabilitate-entitate bakoitzaren urteko kontuak planaren hirugarren zatian eta jarraibide honetako IV. tituluan xedatuaren arabera eratu eta emango dira.

7. erregela. Kontabilitate-informazioaren hartzaileak.

Kontabilitate-entitateek prestatzen duten kontabilitateko informazioaren hartzaileak honako hauek izango dira:

a) Udalbatza.

b) Kudeaketa-organoak, bai politikoak, bai administratiboak.

c) Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta toki entitatearen Kontuetarako Batzorde Berezia.

d) Kontabilitate-entitateen barne-kontrolaren ardura duten organoak: bai kontu-hartze eginkizuna bai finantza- eta eraginkortasun-kontrola betetzen dutenak

e) Herri-administrazioetan, kontabilitate-entitateari dagokionez, finantzen tutoretza-eginkizuna betetzen duten organoak.

f) Europar Batasuneko administrazio- eta kontrol-organoak.

g) Kontabilitate-erakundearen beraren hartzekodunei zuzenduta.

h) Analista finantzarioak eta ekonomikoak.

i) Beste erakunde publiko eta pribatu batzuk, elkarteak, kontabilitate-entitateak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileak eta herritarrak oro har.

II. KAPITULUA.
ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK.

8. erregela. Udalbatzaren osoko bilkura.

Korporazioko Batzari dagokio:

a) Toki-entitatearen kontu orokorra onartzea.

b) Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna izendatuta daukan toki-erakundeko organoak txostena egin ondoren, toki-entitatearen kontabilitate-kudeaketan jarraitu beharreko administrazio-prozedurak erregulatzeko arauak onartzea, eragiketa guztiak kontabilitatearen informazio sisteman ordena kronologiko egokian eta ahalik eta atzerapen txikienarekin behar bezala erregistratzen direla bermatzeko.

c) Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna izendatuta daukan toki-erakundeko organoak proposatuta, zehaztea zer irizpide baliatu behar dituen entitateak kontabilitate publikoaren eta toki-administraziora egokitutako kontabilitate publikoaren plan orokorrean bildutako aintzatespen- eta balioespen-arauen kontzeptuzko esparruaren aplikazioan.

   Besteak beste, zehaztu beharko da zer irizpide erabili kalkulatzeko zalantzazko edo ezinezko bilketa duten kobrantza-eskubideen zenbatekoa, hala nola zer irizpide izan ibilgetuko elementuak amortizatzeko, eta, hala egokituz gero, errebalorizazioaren eredua aukeratu beharko da, ibilgetua geroago balioesteko.

d) Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna izendatuta daukan toki-erakundeko organoak proposatuta, beste edozein arau ematea entitatearen kontabilitatearen antolaketari buruz, indarreko araudiak xedatuaren babesean.

e) Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna izendatuta daukan toki-erakundeko organoak proposatuta, erabakitzea zer prozedura erabili behar diren erakunde autonomoen, toki-entitatearen mendeko merkataritza-sozietateen eta haren enpresa-entitate publikoen kontabilitatea ikuskatzeko.

f) Epeak eta aldizkakotasuna erabakitzea, kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna izendatuta daukan toki-erakundeko organoak igor dezan Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 64. artikuluan aipatutako informazioa (jarraibide honetako IV. tituluko III. kapituluan zehaztua).

9. erregela. Kontu-hartzailetza edo kontabilitateko funtzioa esleituta duen toki-erakundeko organoa.

Kontu-hartzailetzari edo kontabilitateko funtzioa esleituta duen toki-erakundeko organoari dagokio:

a) Kontabilitate finantzarioa eta toki-erakundearen aurrekontua betearazteari buruzkoa eramatea eta garatzea, eta eginkizun horretan kontuan hartzea jarraibide hau, foru-organo eskudunak emandako gainerako arau orokorrak eta Udalbatzak emandakoak.

b) Toki-entitatearen kontu orokorra osatzea.

c) Bizkaiko toki-sektore publikoan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetan ezarritakoarekin bat egitea urteko kontu bateratuak.

d) Mendeko entitateei, talde anitzeko entitateei eta elkartuei eskatzea urteko kontuak aurkez ditzatela eta, beharrezkoa bada, gestio-txostena eta, hala badagokio, auditoria-txostena, bai eta kontu orokorra prestatzeko eta —hala badagokio— urteko kontu bateratuak egiteko beharrezko iritzitako beste edozein informazio.

e) Toki-entitatearen kontabilitate-eginkizunak edo -jarduerak koordinatzea, eta, horretarako, jarraibide tekniko egokiak ematea eta haien aplikazioa ikuskatzea.

f) Kontabilitate-dokumentazio eta -informazio guztia artxibatzeko eta gordetzeko sistema egokia antolatzea, kontrol-organoen eskura jartzeko behar diren epeen barruan haiek eskatzen dituzten kontabilitateko informazio-sistemako erregistroak, kontuak, dokumentuak eta frogagiriak.

g) Erakunde autonomoen, toki-entitatearen mendeko merkataritza-sozietateen eta haren enpresa-entitate publikoen kontabilitatea ikuskatzea, Udalbatzak erabakitako prozeduren arabera.

h) Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 64. artikuluak aipatu eta Jarraibide honetako IV. tituluko III. kapituluan garatutako informazioa prestatzea, eta Udalbatzari igortzea toki-entitatearen buruaren bidez, erabakitako epeen barruan eta aldizkakotasunarekin.

i) Urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoerak (Bizkaiko Lurralde Historikoko Lurralde Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 6.3.d) artikuluan aipatuak) egitea.

j) Aurreko i) letran aipatutako informazioaren egitura zehaztea, erakundearen osoko bilkurak erabakitakoaren arabera.

II. TITULUA.
TOKI-ADMINISTRAZIORAKO KONTABILITATEARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMA.

I. KAPITULUA.
ARAU OROKORRAK.

10. erregela. Definizioa.

Toki entitateen, haien erakunde autonomoen eta aurrekontu murriztuarekin atxikitako partzuergoen kontabilitatea (1. erregelan aipatuak) kontabilitateko ekitaldian zehar garatutako jarduera ekonomikoari, finantzarioari eta aurrekontukoari buruzko erregistro, elaborazio eta informazioaren komunikazio-sistema gisa eratzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan eta jarraibide honetan aurreikusitako printzipioekin bat.

11. erregela. Xedea.

1. Toki-administraziorako kontabilitatearen informazio-sistemaren xedea kontabilitate-entitatearen eremuan egiten diren aurrekontu-, ekonomia-, finantza- eta ondare-eragiketa guztiak erregistratzea da; horretaz gain, egoera-orrien eta txostenen bidez, erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta aurrekontuaren gauzatze-egoeraren irudi zehatza eman behar du, ondoren datorren erregelan deskribatutako helburuak betetzera begira.

2. Toki-administraziorako kontabilitatearen informazio-sistema kontabilitateko azpisistema edo arloen multzo integratu gisa eratzen da, eta kontabilitateko eragiketetako bakoitzarentzat eragiketak berak ukitzen dituen azpi-sistemetako bakoitzean egin behar diren erregistroen bat etortzea, zehaztasuna eta automatismoa bermatu behar ditu, informazio-sistema agregatu zein xehetasunezkoetan informazio-mailen artean behar den koherentziarekin batera.

3. Aipatutako ondorioetarako, toki-administraziorako kontabilitatearen informazio-sistema antolatuta dagoen moduak honako hauek ahalbidetu beharko dizkio, gutxienez, kontabilitate-entitateari:

a) Balantzea lortzeko unean eta ekonomia- nahiz ondare-emaitzaren zehaztapenean eragina izango duten eragiketak erregistratzea, 6. erregelan jasotako irizpideekin bat.

b) Kredituen egoera, aurrekontuko aldaketak, gastu-aurrekontua gauzatzeko eragiketak, sarrera-konpromisoak eta sarrera-aurrekontua gauzatzeko eragiketak erregistratzea, aurrekontuaren emaitza agerian jarriz. Era berean, kreditu-gerakinen jarraipena eta kontrola egiteko aukera eman beharko du.

   Era berean, itxitako aurrekontuetatik datozen obligazio eta eskubideen zein geroko ekitaldietako aurrekontuen kargurako aurreikuspen, baimen eta gastu- eta sarrera-konpromisoen ondoriozko eragiketak erregistratzea ahalbidetu beharko du, hala nola finantzaketa lotua duten gastuen eta gainerako gastu-proiektuen jarraipena eta kontrola egitea, eta, gainera, aukera eman behar du diruzaintzako gerakina lortu eta kontrolatzeko, une bakoitzean jakin ahal izateko zer zati erabiltzen den gastua finantzatzeko, eta zein den erabili gabe dagoen zatia, diruzaintzako gerakin likidoa.

c) Aurrekontu-izaerakoak ez diren eragiketak erregistratzea.

d) Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideen administrazio-eragiketak erregistratzea.

e) Diruzaintzako mugimenduak eta egoera erregistratzea eta agerian uztea, kontabilitate-entitatearen diruzaintza osatzen duten kontuen kontrola ahalbidetuta.

f) Ibilgetu material eta ukiezinaren, ondasun higiezinetako inbertsioen, lurzoruaren ondare publikoaren, inbertsio finantzarioen eta zorpetzearen kudeaketa eta kontrolarekin zerikusia duten eragiketak erregistratzea, erakundeak emandako abalak barne.

g) Kontabilitate-entitatearekin harremana duten hirugarrenei buruzko informazioa erregistratzea.

h) Justifikatu beharreko ordainketen eta kutxa finkoko aurrerakinen jarraipena eta kontrola egitea.

i) Kontabilitate entitateak gordailuan jasotako baloreen jarraipena eta kontrola egitea.

12. erregela. Helburuak.

Toki-administraziorako kontabilitatearen informazio-sistemak honako helburu hauek betetzea ahalbidetu behar du:

a) Maila politikoan zein kudeaketarenean erabakiak hartzeko behar den informazio ekonomiko eta finantzarioa eskaintzea.

b) Informazioa ematea zerbitzu publikoen kostua eta errendimendua zein diren jakiteko.

c) Toki-entitatearen kontu orokorra egin ahal izateko eta haren berri emateko behar diren datuak ematea, hala nola gauza bera egitea kanpoko kontrol-organoetara igorri edo egin behar diren kontuekin, egoera-orriekin eta dokumentuekin.

d) Legezkotasun, finantza eta eraginkortasun kontrolak egitea ahalbidetzea.

e) Herri-administrazioen arloa osatzen duten unitateen kontu nazionalak prestatzeko behar diren datuak eta bestelako aurrekariak ematea.

f) Ekonomi eta finantza estatistikak prestatzeko behar den informazioa ematea.

g) Informazio baliagarria ematea beste hartzaile batzuentzat; adibidez, elkarteentzat, erakundeentzat, enpresentzat eta, oro har, herritarrentzat.

13. erregela. Sistemaren konfigurazio informatikoa.

Entitate bakoitzak kontabilitate-informazioari dagokionez ezartzen duen sistemaren konfigurazio informatikoak honako irizpide hauek bete behar ditu:

a) Aurreko erregeletan ezarritako xedea eta helburuak betetzera bideratuta egongo da, jarraibide honetan jasotako bestelako arauekin bat.

b) Kontabilitate-eragiketa bakoitzaren kasuan, eragiketak ukitzen dituen azpi-sistemetan egin behar diren oharren osotasuna, koherentzia, zehaztasuna eta automatismoa bermatu beharko ditu.

c) Sisteman ezartzen den informazio agregatuaren maila guztien eta eragiketa-mota bakoitzarentzat sisteman sartzen den informazioaren artean premiazkoa den bat-etortzea egongo da.

d) Kontabilitateko prozedurak pixkanaka erraztea bultzatu behar du, prozedura eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak modu intentsiboan aplikatuz, hain zuzen ere haien bidez bermatzeko kudeaketa-zentroetatik eragiketen kontabilitate-erregistrorako jasotako informazioaren balio eta eraginkortasun juridikoa, baliabide horiexen bidez hartzaileei igorritako kontabilitateko informazioarenarekin eta sistemak artxibatutako eta gordetako kontabilitateko dokumentazioarenarekin batera.

e) Datu pertsonalei buruzko fitxategien arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen segurtasun-neurriak aplikatu behar dira.

14. erregela. Kontabilitate-erregistroen euskarria.

1. Toki-administraziorako kontabilitatearen informazio-sisteman jasotako eragiketen eta bestelako informazioen erregistroek euskarri informatikoa izango dute, aurreko erregelan ezartzen den prestaketaren arabera, eta horixe izango dute, gainera, euskarri bakar eta behar bestekoa kontserbaziora begira, 42. erregelan ezarritakoarekin bat.

2. Kontabilitateko erregistroak dauden sistema informatikoaren datu-baseak behar besteko euskarria izango dira kontabilitate-entitatearen kontabilitatea eramateko; hortaz, ez da derrigorrezkoa izango kontabilitate-libururik paperez edo baliabide elektroniko, informatiko edo telematiko bidez mantentzea.

3. Eragiketen kontabilitateko erregistroan, balioak eurotan adierazi beharko dira.

II. KAPITULUA.
GARRANTZI BEREZIKO KONTABILITATE-ARLOAK.

1. SEKZIOA.
KREDITU-GERAKINAK.

15. erregela. Definizioa.

Kreditu-gerakinek, aurrekontuko aplikazio bakoitzari dagokionez, jaso egiten dute obligazioaren onartze-fasera iritsi ez diren onartutako kredituen saldoa.

16. erregela. Kreditu gerakinen kontabilitateko jarraipena eta kontrola.

1. Kreditu-gerakinen kasuan banakako jarraipen eta kontrola egingo da, hurrengo ekitaldiko aurrekontuko kredituetan txertatzeko aukerarri begira.

2. Jarraipen eta kontrola kontabilitateko informazio-sistemaren bidez egingo da, eta unean-unean honako hauek erakutsi beharko ditu:

   a) Hasierako kreditu-gerakinak.

b) Zuzenketak.

c) Txertatzeko aukerarik ezari buruzko erabakiak.

d) Guztizko kreditu-gerakinak.

e) Emandako kreditu-gerakinak izateari buruzko ziurtagiriak.

f) Ziurtatzeko dauden kreditu-gerakinen saldoak.

17. erregela. Hasierako kreditu-gerakinak.

1. Hasierako kreditu-gerakinak aurrekontuaren likidazioaren ondorioz zehaztu behar direnak dira.

2. Kreditu-gerakin horiek sailkapen hau izango dute: konprometituak eta konprometitu gabeak; eta haien barruan, berriz, hauek egongo dira: txertagarriak eta ezin txertatuzkoak.

18. erregela. Kreditu-gerakinen zuzenketa.

Egoki bada Itxitako aurrekontuetako obligazioen saldo berriaren zuzenketen ondorioz hasierako kreditu-gerakinak zuzentzea, haiek zenbateko egokietan aldatuko dira.

19. erregela. Kreditu gerakinak izateari buruzko ziurtagiria.

1. Kreditu-gerakinak txertatzeko espedienteak tramitatzen direnean, aurreko ekitaldiko behar adina kreditu-gerakin badelako ziurtagiria beharko da.

2. Kreditu-gerakin hori badelako ziurtagiria aurrekontuko aplikazio bakoitzerako beharko da, gerakinek sorburu duten ekitaldian indarrean zegoen kredituen lotura juridikoaren mailan.

3. Txertatze ondorioetara begira, kreditu-gerakina izateari buruzko ziurtagiriak bakar-bakarrik txertagarri gisa sailkatutako kreditu-gerakinen saldoen gainean eman ahal izango dira.

4. Emandako ziurtagiriak baliogabetu ahal izango dira, bai bidegabeak direlako bai datuetan akatsak daudelako. Sekula ezin izango dira baliogabetu dagozkien kreditu-gerakinen txertaketak eragin dituzten ziurtagiriak, aurrez txertatze horiek baliogabetu ez badira.

20. erregela. Kreditu-gerakinak txertatzeko ezintasuna.

Kreditu-gerakinak txertatzeko ezintasuna gerakinen saldoa osorik edo zati batez txertatu ezintzat deklaratzen duen erabakia da, saldo horren kontra ziurtagiririk eman ahal izatea eragoztearren hartua.

2. SEKZIOA.
GASTU-PROIEKTUAK.

21. erregela. Azalpena.

1. Gastu-proiektu bat modu generikoan edo espezifikoan argi eta garbi identifika daitekeen aurrekontuko gastu-unitate bat da; haren exekuzioa aurrekontuko aplikazio bateko edo batzuetako kredituen kargura egiten da, ekitaldi batera edo gehiagotara heltzen da, eta banakako jarraipen eta kontrola behar du.

2. Gastu-proiektutzat hartuko dira:

   a) Aurrekontuko inbertsio-eranskinak jasotzen dituen inbertsio-proiektuak.

   b) Kapitulu honetako 3. Sekzioak aipatzen dituen finantzaketa lotuko gastuak.

c) Aurrekontuetako beste edozein gastu-unitate, erakundeak banan-banakako jarraipena eta kontrola egin nahi badizkio.

22. erregela. Egitura.

1. Gastu-proiektu oro kode bakar eta aldaezin batez identifikatuta egongo da, proiektuak irauten duen artean, eta kodea toki-erakundeak berak ezarritakoaren araberakoa izango da.

2. Gastu-proiektu bakoitza beheragoko mailetan xehekatu ahal izango da: espedientea, azpi-espedientea, eta abar.

3. Era berean, toki entitateak egoki iritziz gero, superproiektu-maila ezarri ahal izango du.

   Maila horrek osatzen du helburu bera edo helburu multzo bera lortzen lagun dezaketen proiektuak elkartu ahal izateko behar den unitatea.

23. erregela. Lotura juridikoa.

1. Gastu-proiektuei esleitutako kredituei Aurrekontua Gauzatzeko Arauan erabakitako lotura juridikoko mailak egokituko zaizkie, haiek gauzatzeko aurreikusi diren aurrekontu-aplikazioez den bezainbatean.

2. Hala ere, gastu-proiektu bati esleitutako kreditua loteslea izan ahal izango da berez, eta horren ondoriozko muga kualitatiboak eta kuantitatiboak izango ditu.

3. Gastu-proiektu batzuek lotura juridikoaren muga kualitatiboak soilik izan ahal izango dituzte, eta aurreikusitakoa baino gastu handiagoa egin ahal izango da, esleitutako kredituen aldaketa formalik egin behar izan gabe.

24. erregela. Gastu-proiektuen kontabilitateko jarraipena eta kontrola.

1. Gastu-proiektuen jarraipena eta kontrola kontabilitateko informazio-sistemaren bidez egingo da, eta bere gauzatze-epean zehar eragiten dieten aurrekontu-kudeaketako eragiketa guztiak barne hartuko ditu, gutxienez, gauzatze-epea ekitaldi batekoa izan zein batzuetakoa.

2. Gastu-proiektuen jarraipen eta kontrolak, beste batzuen artean, honako helburu hauek izango ditu:

   a) Proiektuetarako ezarrita dauden lotura juridikoak betetzen direla ziurtatzea.

   b) Proiektu bakoitzaren aurrekontu-gauzapena kontrolatzea, fase bakoitzaren zenbatekoek aurreko faseetakoak gaindi ez ditzaten.

   c) Beharrezkoa denean, inbertsio-proiektuen inbentarioa ahalbidetzea.

3. Aipatutako helburuak betetzearren, gastu-proiektuen jarraipen- eta kontrol-sistemak, gutxienez, honako informazio hau eman beharko du:

   a) Proiektuari buruzko datu orokorrak:

      a.1) Gastu-proiektuaren identifikazio-kodea eta izena.

      a.2) Hasiera-urtea eta gauzatzeak hartuko dituen urtekoak.

      a.3) Urteko bakoitzari dagokionez, gauzatzeko unean erabiliko den/diren aurrekontuko aplikazioa/k.

      a.4) Hasieran zenbatetsitako gastuaren guztizko kopurua.

b) Aurrekontu-kudeaketari buruzko informazioa: bai urteko aurrekontuari buruzkoa, bai itxitako nahiz etorkizuneko aurrekontuei buruzkoa.

4. Gastu-proiektu bat behe-mailetan xehakatzen denean (espedientea, azpi-espedientea, etab.), haietako bakoitzaren banakako jarraipena eta kontrola egin beharko da.

5. Gastu-proiektu bat hainbat urtekotan zehar eta aurrekontuko aplikazio bat baino gehiagoren kargura gauzatzen denean, urteko eta aplikazio bakoitzaren jarraipen eta kontrola egin beharko da.

3. SEKZIOA.
FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUAK.

25. erregela. Azalpena.

1. Atxikitako finantzaketa duen gastua hau da: baliabide jakin batzuei esker, osoki edo hein batean, finantzatzen den edozein gastu-proiektu, gastua egin ezean, baliabideak jasotzeko aukerarik ematen ez duena, edo jaso izanez gero, eman zituzten eragileei itzularaztea eskatzen duena.

2. Gastu-proiektuak direnez, aurreko Sekzioan aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkie finantzaketa lotua duten gastuei.

26. erregela. Egitura.

Finantzaketa lotua duen gastu oro kode bakar eta aldaezin batez identifikatuta egongo da, irauten duen denbora osoan zehar. Toki-entitateak berak ezarritakoaren araberako kodea izango da.

27. erregela. Finantzaketa lotua duten gastuen kontabilitateko jarraipena eta kontrola.

1. Finantzaketa lotua duten gastuen jarraipen eta kontrola kontabilitateko informazio-sistemaren bidez egingo da, eta haiei gauzatze-epean zehar eragiten dieten aurrekontu-kudeaketako eragiketa guztiak hartuko ditu barruan, gutxienez, gauzatze-epea ekitaldi batekoa izan zein batzuetakoa. Halaz, korrelazio egokian jarri beharko dira eginiko gastuak eta haiek finantzatzen dituzten sarrera espezifikoak.

2. Edonola ere, finantzaketa lotua duten gastuen jarraipen eta kontrolak bermatu egin beharko du hainbat helburu betetzea; hain zuzen honako hauek:

   a) Finantzaketa lotua duen gastu ororen gauzatzea, ekonomia- eta aurrekontu-mailan, erabatekoa izan dadin ziurtatzea, hain zuzen ere lotutako baliabideak jaso ahal izateko kasuan-kasuan adostutako baldintzak bete daitezen.

   b) Finantzaketa lotua duten gastuek ukitzen dituzten aurrekontuetako bakoitzaren likidazioan kalkulatzea gastuaren gauzatze-erritmoan eta haiek finantzatzeko sarrera espezifikoenean izandako desfaseak direla eta gertatutako finantzaketa-desbideraketak, horrelakorik izan bada behintzat, desfaseen sorburua dena dela.

   c) Atxikitako finantzazioa duen gastu bakoitzaren aurrekontu-gauzatzea kontrolatu, gastuena zein atxikitako diru-sarrerena.

3. Aipatutako helburuak betetzearren, finantzaketa lotua duten gastuen jarraipen- eta kontrol-sistemak, gutxienez, honako informazio hau eman beharko du:

   a) Proiektuari buruzko datu orokorrak:

      a.1) Gastu-proiektuaren identifikazio-kodea eta izena.

      a.2) Hasiera-urtea eta gauzatzeak hartuko dituen urtekoak.

a.3) Urteko bakoitzari dagokionez, gauzatzeko unean erabiliko den/diren aurrekontuko gastu-aplikazioa/k.

a.4) Urteko bakoitzari dagokionez, baliabide lotuak lortuko direla aurreikusten den aurrekontuko sarrera-aplikazioa/k.

a.5) Hasieran zenbatetsitako gastuaren eta aurreikusitako sarreren guztizko kopurua.

b) Aurrekontuko gastuaren kudeaketari buruzko informazioa, bai urteko aurrekontuari bai itxitako eta etorkizuneko aurrekontuei buruzkoa.

c) Aurrekontuko sarrera lotuen kudeaketari buruzko informazioa, bai urteko aurrekontuari bai itxitako eta etorkizuneko aurrekontuei buruzkoa.

4. Finantzaketa lotua duen gastu bat behe-mailetan xehakatzen denean (espedientea, azpi-espedientea, etab.), haietako bakoitzaren banakako jarraipen eta kontrola egin beharko da.

5. Atxikitako finantzazioa duen gastu bat zenbait urtekotan gauzatzen bada, aurrekontu-aplikazio batean baino gehiagotan zordunduta badago, eta atxikitako finantziazioaren jatorrian agente finantzatzaile bat baino gehiago badaude, urteko, aplikazio eta agente bakoitzaren jarraipen eta kontrola egingo da.

   Horretarako, atxikitako baliabide bakoitzaren jatorrian dauden hirugarrenetako bakoitza izango da agente finantzatzaile. Hau da, agente finantzatzailea honako hauek zehazten dute: hirugarrenak eta hark ekarritako baliabide bakoitzari dagokion aurrekontu-aplikazioa.

   Gastu baten finantziazio lotuaren jatorria zenbait hirugarrenek ekarritako baliabide bera bada, haiek guztiak agente finantzatzaile bakarra izango dira.

28. erregela. Finantziazio-koefizientea.

1. Finantzaketa-koefizientea da aurrekontuko gastu bat egiteari lotutako aurrekontuko sarrerak (onartuak eta onartzeko daudenak) aurrekontuko gastu horren guztizko kopuruaz (egindakoa eta egitekoa) zatitzetik ateratzen den emaitza.

2. Aurrekontuko sarreren guztizkoan koefizientea kalkulatzeko data arte onartutako eskubide garbi guztiak sartzen dira, finantzaketa lotuko gastu horri dagozkionak, une horretatik gastua amaitu arte lortzea aurreikusten den beste guztiekin batera.

3. Aurrekontuko gastuen guztizkoan koefizientea kalkulatzeko data arte onartutako obligazio garbi guztiak sartzen dira, finantzaketa lotuko gastu horri dagozkionak, gastu-unitatea erabat gauzatu arte esleitzea edo txertatzea aurreikusten den kredituekin batera.

4. Finantziazio-koefizientea globala izango da, gastu batek berari lotutako sarrera guztiekin estalita duen zatia adierazten duenean; eta partziala izango da, berriz, irizpide jakin baten arabera (zer eragilerengandik datozen, aurrekontu-aplikazioa eta abar) aukeratutako sarreren zati batez estalita geratzen den gastuaren zatia adierazten duenean.

29. erregela. Finantziazio-desbideratzeak.

1. Finantziazio-desbideratzea atxikitako finantzazioa duen gastu bat egitean sortutako desoreka adierazten duen magnitudea da: denbora-tarte jakin batean aitortutako aurrekontuko diru-sarreren artean eta atxikitako diru-sarrerak aurrekontu-gastuarekin batera gauzatuko balira, denbora-tarte horretan aitortuta behar luketenen artean dagoen desoreka.

2. Finantziazio-desbideratzeak, atxikitako finantzazioa duen gastu bakoitzarentzakoak, honela kalkulatuko dira: atxikitako diru-sarrerengatiko eskubide onartuen kopuru garbiari kenduta finantziazio-koefizientea bider guztirako obligazio onartuen kopuru garbia; biak edo biak kontuan hartzen ari garen denbora-tartekoak.

3. Ekitaldiaren amaieran, aurrekontu-emaitza doitzeko eta gertatutako finantzaketa lotuaren soberakina kuantifikatzeko kalkulatu behar diren finantzaketa-desbideratzeak hauek dira, hurrenez hurren: ekitaldiko finantzaketa-desbideratzeak eta finantzaketa lotuko gastua gauzatzeko aldian metatutako finantzaketa-desbideratzeak. Urteko desbideratze positiboek edo negatiboek negatiboki edo positiboki doituko dute aurrekontu-emaitza.

4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira, alde batetik, agente finantzatzaile bakoitzaren finantziazio partzialaren koefizientea, eta, bestetik, kasuan kasuko agenteari dagozkion eskubide aintzatetsiak, eta hura zein azken horiek aurrekontu-ekitaldikoak izango dira.

5. Metatutako finantza-desbideratzeak ekitaldiari egotz dakizkiokeenak bezalaxe kalkulatuko dira, baina kontuan hartuta atxikitako finantzazioa duten gastuak gauzatzen hasi direnetik ekitaldiaren amaiera arte onartutako obligazio eta eskubideak.

4. SEKZIOA.
BALIABIDEAK ADMINISTRATZEA BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUEN KONTURA.

30. erregela. Mugaketa.

1. Kontabilitate-erakundeek, beste erakunde publiko baten edo batzuen titulartasuneko baliabideen likidazioari eta bilketari lotutako kudeaketa-jarduketen ondorioz, beste erakunde publikoen kontura egiten dituzten baliabideen administrazio-eragiketen kontabilitate-trataera sekzio honetan aurreikusitakoaren araberakoa izango da, bai eta egindako gestioaren ondorioz azken horiei dagozkien zenbatekoen entrega ere.

2. Era berean, baliabideen titularra den erakundeak sekzio honetako arauen arabera tratatu beharko ditu aipatu eragiketak, erakunde hori kontabilitate-erakundea bada Jarraibide honetako 2. erregelan aurreikusitakoaren arabera.

   Horretarako, bilketaren emaitza legez esleituta daukana hartuko da baliabideen erakunde titulartzat; hau da, aipatu baliabidea jaso behar duen sarrera-aurrekontua daukana.

31. erregela. Baliabideak kudeatzen dituen erakundearen eta baliabideen jabe den erakundearen arteko harremanak.

1. Erakunde batek baliabideak administratzen baditu beste erakunde publiko batzuen kontura, aldian behin behar den informazioa emango dio erakunde horietako bakoitzari kasuan kasuko gestioaz, aurrekontuan egotz ditzaten egin diren eragiketak, jabe diren baliabideez den bezainbatean.

   Baliabide horietako bakoitzean, eta informazioa dagokion aldi bakoitzean, honako eragiketa hauek bereiziko dira:

   - Aribideko ekitaldian aintzatetsitako eskubideak.

   - Aurreko ekitaldietan aintzatetsitako eskubideen zuzenketa posibleak.

   - Eskubide-ezeztatzeak, baldin eta eskubide horiei lotutako baliabideen eskubide-aintzatespena urteko ekitaldian gertatu bada, likidazioen ezeztatzeak eta atzerapenak edo zatikapenak bereizita.

   - Eskubide-ezeztatzeak, baldin eta eskubide horiei lotutako baliabideen eskubide-aintzatespena aurreko ekitaldietan gertatu bada, likidazioen ezeztatzeak eta atzerapenak edo zatikapenak ere bereizita.

- Eskubide-baliogabetzeak, baldin eta eskubide horiei lotutako baliabideen eskubide-aintzatespena urteko ekitaldian gertatu bada, espezietan kobratzeak, kaudimen gabeziek edo beste arrazoi batzuek eragindako baliogabetzeak bereizita.

- Eskubide-baliogabetzeak, baldin eta eskubide horiei lotutako baliabideen eskubide-aintzatespena aurreko ekitaldietan gertatu bada, espezietan kobratzeak, kaudimen gabeziek, preskripzioak edo beste arrazoi batzuek eragindako baliogabetzeak bereizita.

- Aribideko ekitaldian aintzatetsitako eskubideen bilketa.

- Aurreko ekitaldietan aintzatetsitako eskubideen bilketa.

- Baliabideak biltzea autolikidazioengatik edo beste sarrera batzuengatik eskubidea aurrez aintzatetsi gabe.

- Ekitaldian aintzatetsitako sarrera-itzulketak.

- Aurreko ekitaldietan aintzatetsi diren eta ordaintzeko dauden sarrera-itzulketen zuzenketa eta ezeztatze posibleak.

- Aintzatetsitako sarrera-itzulketen preskripzioak.

- Sarrera itzulketen ordainketak.

- Kasuan kasuko eragiketen kontabilitate-erregistro egokia egiteko behar diren datu guztiekin osatu beharko da aurreko informazioa.

2. Aipatu informazioaren bidaltze-maiztasunak bilketa likidoaren emaitza baliabideen titularra den erakundeari ordaintzeko ezarritakoa edo txikiagoa izan beharko du, aipatu ordainketa zuzenean egin, edo konturako entregen prozeduraren bidez.

3. Baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura administratzen dituen erakundea ez badago aipatu informazioa emateko moduan, baliabideen titular diren erakundeei egiten dizkien bilketa likidoaren ordainketen xehetasunezko datuak behintzat eman beharko dizkie erakunde horiei, jasota gera dadin zer baliabideri dagozkien ordainketa horiek, entrega zuzenak izan edo bilketa horren kontura egindako entregak izan.

   Informazioa ematea eragozten duten arrazoiak desagertzen direnean, baliabideak kudeatzen dituen erakundeak aurreko idatz-zatietan adierazitako moduan eman beharko du informazioa, eta kontuan hartu beharko da informazioa emateko prozeduraren aldaketak ezinbestean kontabilitate-ekitaldi oso bati erreferentzia eginez gertatu beharko duela, eta ezingo diola soilik eragin ekitaldiaren zati bati. Horretarako, informazioa emateko prozeduran aldaketa gertatzen denean, prozedura-aldaketa hori gertatzen den kontabilitate-ekitaldia hasi ondoren egindako eragiketei buruzko datuak ematen diren lehen aldian, baliabideak kudeatzen dituen erakundeak baliabideen jabe diren erakundeetako bakoitzari jakinarazi beharko dio zein diren aurreko ekitaldietan aintzatetsitako eskubideei dagozkien eta kobratzeko dauden saldoak, hala nola zein diren ekitaldi horiexetan aintzatetsitako sarrera-itzulketei dagozkien eta ordaintzeko dauden saldoak.

4. Aurreko idatz-zatietan aipatu informazioa oinarri hartuta, baliabideen titular diren kontabilitate-erakundeek erakunde kudeatzaileak egindako eragiketak erregistratuko dituzte beren kontabilitatean, eta aurrekontuan gehituko hala dagokionean.

32. erregela. Baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura administratzeko eragiketen kontabilitate-trataera erakunde kudeatzailean.

1. Baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura administratzen dituzten erakundeek baliabide horiei dagokienez egiten duten kudeaketaren ondoriozko eragiketak beren

ondare-kontabilitatean erregistratuko dituzte, ondoren adierazten diren irizpideak kontuan hartuta:

a) Aurreko erregelako 1. zenbakian aipatutako informazioa baliabideen titular diren erakundeei ematen zaienean, kudeatutako baliabideei lotuta izandako kobrantzen eta ordainketen ondorioz erakunde horiekin dauden zorrak eta kredituak baino ez dira jasoko erakunde kudeatzailearen balantzean.

   Horretarako, «Erakunde publikoak, likidatzeko dauden sarrerengatik» 453 kontua eta «Erakunde publikoak, eskud. k/k» 456 kontua soilik erabiliko dira, Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean kontu horietarako jasotakoaren arabera.

b) Aurreko erregelako 1. zenbakian adierazitako informazioa ez bada ematen, eta erregela horretako 3. zenbakiaren lehen paragrafoan aipatutakoa gertatuz gero, aurreko kasurako adierazitako zorrez eta krediuez gain, beste erakunde publiko batzuen baliabideei dagokienez egindako kudeaketa-jarduketen ondoriozko kredituak eta zorrak ere jaso beharko dira erakunde kudeatzailearen balantzean.

   Egoera horretan, baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura administratzen dituzten erakundeek aipatu kontabilitate-planeko «Zordunak eta hartzekodunak baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura administratzeagatik» 45 azpitaldeko kontu guztiak erabiliko dituzte.

2. Azaldu den kontabilitate-tratamendua alde batera utzita, beste erakunde publiko batzuen kontura baliabideak administratzen dituzten erakundeek banan-banan erregistratuko dituzte baliabide horien gestioaren ondoriozko eragiketa guztiak. Hala, kontabilitatean sartuko dira eta datuen egiturak tokiko administrazioari egokitu ostean, kontabilitate publikoari buruzko plan orokorraren hirugarren zatian dagoen memoriak «beste erakunde publiko batzuen kontura baliabideak administratzeagatik eragiketak» 20 oharrean eskatutako informazioa lortzen ahalbidetuko du. Halaber, aurreko arauaren 1. atalean azaldutakoa ere lortzeko aukera izango da.

33. erregela. Beste erakunde publiko batek erakunde titularrean administratutako baliabideei dagozkien eragiketen kontabilitate-trataera.

1. Beste erakunde publiko batek kudeatutako baliabideen titular diren erakundeen kontabilitatean egin beharreko idazpenak gauzatzean, erakunde kudeatzaileak, baliabide horien kudeaketaz den bezainbatean, eta informazioa emateko erabakitako aldietako bakoitzean, emandako datu agregatuak hartuko dira oinarritzat.

   Kontabilitate-idazpen horiek erakunde titularrak daukan informazioaren arabera aldatuko dira, erakunde kudeatzaileak emandako informazioa kontuan hartuta, eta bi egoera gerta daitezke:

   a) Eskura dagoen informazioak egindako eragiketa guztiak jasotzen ditu, 31. erregelako 1. idatz-zatian aurreikusi bezala.

   b) Eskura dagoen informazioak ez ditu jasotzen egindako eragiketa guztiak, eta, gutxienez, erakunde kudeatzaileak, 31. erregela horretako 3. idatz-zatiaren lehen lerrokadan aurreikusi bezala lortutako bilketa likidoari dagozkion entregen ondorioz, baliabideen titularra den erakundeari egindako ordainketei buruzkoa da.

   Erregela horretako hurrengo idatz-zatietan adierazten da zer irizpide erabili egoera horietako bakoitzean, baliabideen titular diren erakundeek eragiketak erregistra ditzaten.

   Nolanahi ere, baliabideen titularra den erakundean gertatzen den kontabilitate-trataera edozein izanda ere, baliabide horien gestioaren ondorioz gertatutako eragiketen bana-banako erregistroa kudeaketaren ardura duen erakundearen kontabilitatean jasota egongo da.

2. Beste erakunde publiko batek kudeatutako baliabideen titular diren erakundeek informazioa badute erakunde kudeatzaileak egindako eragiketa guztiei buruz, kasuan kasuko eragiketak kontabilizatzean irizpide hauek kontuan hartuko dira:

   a) Eskubideak biltzeari lotutako eragiketek erakundearen aldeko kreditu bat sortuko dute, «Erakunde publiko zordunak bildutako baliabideengatik» 4420 kontuan jasoko dena, eta kreditu hori sarrerako itzulketak ordaintzeko eragiketen zenbatekoan gutxituko da.

      Erakunde kudeatzailek zuzenean entregatu ondoren lortutako bilketa likidoaren sarrerak kreditu hori baliogabetzea ekarriko du. Era berean, erakunde kudeatzaileak bildutako baliabideen behin betiko likidazioa egiten denean ere baliogabetuko da kreditu hori, erakunde kudeatzaileak kasuan kasuko bilketaren konturako entregak egiten dituenean.

   b) Eragiketetako sarrerak aurrekontuari egoztean, Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean aurrekontu-sarreretarako aurreikusitako modua erabiliko da, inolako berezitasunik egon gabe erakundeak berak kudeatzen dituen baliabideez den bezainbatean egiten dituen eragiketekin alderatuta. Bilketa aplikatzeko unean aurrekontuzkoak ez diren egozpenak egin beharko balira, kasuan kasuko idazpenak aipatu kontabilitate-planean horretarako aurreikusitakoaren arabera egingo dira.

      Era berean, erakunde kudeatzaileak erabakitako sarrera-itzulketak erakundeak berak zuzenean kudeatutako baliabideen kasuan izapidetuak bezala erregistratuko dira.

   c) Baliabideak kudeatzen dituen erakundeak bilketaren konturako entregak egiten dituenean, konturako entrega horiek baliabideen titular diren erakundeen kontabilitatean adieraziko dira, «Kontu korronte ez-bankarioak erakunde publikoekin, baliabideak administratzeagatik» 5500 kontuan jasoko den zordunketa baten bidez. Bildutako baliabideen behin betiko likidazioa egiten denean, zordunketa horrek «Erakunde publiko zordunak bildutako baliabideengatik» 4420 kontuan bildutako kredituarekin egindako kontabilitate-konpentsazioa izango du; likidazio horretatik baliabideen titularra den erakundearen alde ateratzen diren saldo zordunak edo, hala egokituz gero, hartzekodunak aipatu 5500 kontuan jasoko dira.

3. Beste erakunde publiko batek kudeatutako baliabideen titular diren erakundeek informaziorik ez badute egindako eragiketa guztiei buruz, eragiketa horiek kontabilizatzean honako irizpide hauek erabiliko dira:

   a) Baliabideen titular diren erakundeek baliabideak kudeatzen dituen erakundetik egiten diren ordainketen ondorioz bilketaren entrega zuzenengatik, bilketaren konturako entregengatik edo kudeatutako baliabideen behin betiko likidazioagatik jasotzen dituzten zenbatekoetan, kasuan kasuko sarreren aurrekontu-egozpena egingo da, eta, aldi berean, eskubidearen aintzatespena eta berorren kobrantza erregistratuko dira. Hala ere, erakunde titularrak kobratu baino lehen aintzatetsi ahal izango du aurrekontu-sarrera, ziur badaki zein den haren zenbatekoa; konturako entregetan, entrega horiek dagozkion aldiaren hasieran aintzatetsi ahal izango du aurrekontu-sarrera erakunde titularrak, entregen zenbatekoaren agiri bidezko ziurtasuna izan ondoren.

      Aurreko lerrokadan aipatutako idazpenak Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean aurrekontu-sarreretarako aurreikusitako moduan egingo dira, inolako berezitasunik egon gabe eragiketa horiekin berekin alderatuta, erakundeak berak kudeatzen dituen baliabideei badagozkie.

      Aurrekontuzkoak ez diren egozpenak egin beharko balira, kasuan kasuko idazpenak aipatu kontabilitate-planean horretarako aurreikusitakoaren arabera egingo dira.

   b) Deskribatutako eragiketak alde batera utzita, baliabideen titular diren erakundeek ez dute erregistratuko baliabideak kudeatzen dituen erakundearen esparruan gertatutako beste eragiketarik.

4. Baliabideak kudeatzen dituen erakundeak informazioa ematean prozedura aldatzea (31. erregelako 3. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan aipatua) kontabilitate-irizpidearen aldaketatzat hartuko da, «Aldaketak kontabilitate-irizpideetan eta -zenbatespenetan eta erroreak» 21 aintzatespen- eta balioespen-arauan xedatuari jarraikiz. Horretarako, aurreko ekitaldietan aintzatetsitako eskubideengatik kobratzeko dauden saldoei eta ekitaldi horiexetan aintzatetsitako sarrera-itzulketengatik ordaintzeko daudenei buruzko datuak, aipatu erakunde horrek emandakoak izanda, baliabideen titular diren erakundeen kontabilitatean jasoko dira, kobratzeko dauden eskubideen hasierako saldoa edo ordaintzeko dauden itzulketena aldatzeko eragiketa egokiaren bidez, kasuaren arabera.

5. Bilketa-gestioa iraunkorra bada, baliabideen titular diren erakundeek informazioa emate hori gertatzen denean egin ahal izango dute aipatu eragiketen kontabilitate-erregistroa, kasuan kasuko eragiketak sortu diren aldia edozein izanda ere. Horretarako, bilketa-gestioa iraunkortzat hartzeko, beharrezkoa izango da gestio hori gutxienez elkarren ondoko bi ekitaldi osotan egin izana, edo egingo dela aurreikustea.

5. SEKZIOA.
EKITALDIAREN AMAIERAKO ETA HASIERAKO ERAGIKETAK.

34. erregela. Ekitaldiaren amaierako eragiketak.

1. Kontabilitate-ekitaldia amaitzean, erregularizatze- eta ixte-eragiketa hauek egin beharko dira:

   a) Erregularizatze-eragiketak:

      a.1) Sareren aurrekontuaren kontabilitatea erregularizatzea.

         Sarreren aurrekontuaren kontabilitatea erregularizatzeko eragiketek aukera emango dute «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Urteko ekitaldia» 430 kontuaren eta «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Itxitako ekitaldiak» 431 kontuaren saldoak kobratu gabeko zenbatekoak adierazteko, eta toki-entitateen Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoarekin bat kontabilizatuko dira.

      a.2) Ekitaldiko emaitza erregularizatzea.

         Erregularizatze hau aldiko ekonomia- eta ondare-emaitza zehazteko eragiketa multzoa da, eta bere xedea 6. eta 7. taldeetako sail-kontuak kitatzea da, «Ekitaldiko emaitza» 129 kontua kontrakontu gisa erabilita.

      a.3) Ondare garbia erregularizatzea.

      Erregularizatze horretan 8 eta 9 taldeetako sail-kontuak likidatzeko eragiketak sartzen dira, kontrakontu gisa 13 azpitaldeko kontu koerlatiboa erabiliz.

   b) Kontabilitatearen itxiera.

Ekitaldiaren azken egunean, eta beste edozein idazpenaren ondoren, kontabilitatea itxi egingo da. Eragiketa hori gauzatzeko idazpen bat egingo da, eta hartan kargatu egingo da saldo hartzekoduna duen kontu bakoitza, saldo zorduna duen kontu bakoitzean abonua eginez, bakoitzaren saldoen zenbatekoaz.

2. Erregularizatze- eta ixte-eragiketa horiek ekitaldian zehar egindako eragiketa guztiei dagozkien kontabilitateko ohar guztiak jaso ondoren egingo dira.

35. erregela. Ekitaldiaren hasierako eragiketak.

1. Kontabilitate-ekitaldia hastean, eta beste edozein eragiketaren idazpena egin baino lehen, kontabilitatea ireki beharko da.

2. Eragiketa hori idazpen baten bidez egingo da, eta idazpen horretan aurreko ekitaldia ixteko idazpenean abonatutako kontuak zordunduko dira, idazpen horretan zordundu zirenak abonatuta, honako salbuespen hauekin:

   a) Itxitako aurrekontuetatik datozen hartzekodunak:

      «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Gastuen aurrekontu itxiak» 401 kontua edo beraren sail-kontuak irekierako idazpenean agertuko dira, zenbateko honekin: aurreko ekitaldia ixteko idazpenean zeukaten kopurua gehi idazpen horretan «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuak edo beraren sail-kontuek daukatena.

   b) Itxitako aurrekontuetatik datozen zordunak:

      «Zordunak aintzatetsitako eskubideengatik. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontua edo beraren sail-kontuak irekierako idazpenean agertuko dira, zenbateko honekin: aurreko ekitaldia ixteko idazpenean zeukaten kopurua gehi idazpen horretan «Zordunak aintzatetsitako eskubideengatik. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuak edo beraren sail-kontuek daukatena.

   c) Urteko aurrekontuko hartzekodunak:

      «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontua edo beraren sail-kontuak ez dira agertuko irekierako idazpenean.

   d) Urteko aurrekontuko zordunak:

   «Zordunak aintzatetsitako eskubideengatik. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontua edo beraren sail-kontuak ez dira agertuko irekierako idazpenean.

III. TITULUA.

SISTEMAN TXERTATU BEHARREKO DATUAK.

I. KAPITULUA. ERAGIKETEN FROGAGIRIAK.

36. erregela. Justifikazioa.

Jarraibide honetako II.tituluan aurreikusitakoa aplikaturik kontabilitate-informazioko sisteman oharrak egitea ekarriko duen ekintza edo egitate orok behar bezala egiaztatuta egon behar du, hori egin dela agerian uzten duen frogagiriaz.

37. erregela. Justifikazio-baliabideak.

1. Kontabilitate-informazioko sisteman txertatzeko modukoak izan daitezkeen egitateen justifikazioak paperezko dokumentuak edo baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak izan ditzake euskarri; edonola ere, eragiketa mota bakoitzarentzat ezartzen diren baldintza eta bermeak bete beharko ditu, egitate horiek gauzatzen diren prozedura administratiboak arautzen dituzten erregelekin bat betiere.

2. Egitate horiek baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez frogatzen direnean, haien balio eta eraginkortasun juridikoa ziurtatuko da, datu pertsonalen babesari dagokionez aplika daitekeen araudia betetzearekin batera.

II. KAPITULUA.
SISTEMAN DATUAK SARTZEA.

38. erregela. Kontabilitateko oharren euskarria.

1. Kontabilizatu behar diren eragiketak garapen-mailarik handienaz sartuko dira kontabilitateko informazio sisteman; hartara, datuak behar bezala erregistratuko dira eragiketak, haren izaera dela eta, ukitzen dituen kontabilitateko arlo guztietan.

2. Eragiketak kontabilitateko informazio sisteman erregistratzeko, honako prozedura hauetako edozein erabili ahal izango da:

   a) Sisteman zuzenean atzemanez eragiketaren frogagirian bertan edo, bestela, dagokion kontabilitateko agirian jasota dauden datuak.

   b) Datu horiek prozedura edo euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez txertatuz sisteman.

   Prozedura biotan, eragiketak banan-banan erregistra daitezke kontabilitateko informazio sisteman edo, hala egokituz gero, eragiketa-multzoei buruzko datuak modu masiboan txertatuz.

3. Toki-entitateak berak finkatuko ditu erabiliko diren kontabilitateko agiriak, bere informazio beharren arabera eta uki ditzaketen eragiketa moten tramitazioan izaten diren eragiketak kontuan hartuta.

4. Kontabilitateko oharren euskarri gisa baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzen direnean, haien balio eta eraginkortasun juridikoa ziurtatuko da, datu pertsonalen babesari dagokionez aplika daitekeen araudia betetzearekin batera.

39. erregela. Baimena.

1. Eragiketak frogagirian bertan edo dagokion kontabilitateko agirian jasota dauden datuak zuzenean atzemanda txertatzen badira sisteman, txertatze horrek eragina izan dezan ezinbestekoa da agiri horiek (frogagiriak eta kontabilitateko agiriak) eskumena daukanak diligentziak, eskuzko sinadurak, zigiluak edo eskuzko beste baliabideren bat erabiliz behar bezala baimenduta egotea.

2. Eragiketak euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz txertatzen badira sisteman, diligentzia, eskuzko sinadura, zigilu edo eskuzko beste baliabideen bidezko baimen- eta kontrol-prozeduren ordez aplikazio informatikoetan beretan ezarritako baimenak eta kontrolak erabili ahal izango dira, baldin eta bermatzen badute eskumendunak berak baliatu duela eskumen hori.

40. erregela. Inskripzioa.

1. Kontabilitateko oharpenak eragin dituen agiri orotan, bai eragiketaren frogagiria bera bai eragiketa erregistratzeko kontabilitateko agiri espezifiko bat izan, inskripziorako diligentzia bat agertuko da, kontabilitatearen ardura duenak ziurtatua; horretan, gutxienez honako hauek egiaztatuko dira: data, idazpen-zenbakia, eta dokumentu horrek banaka erregistratu dutenean zeukan zenbatekoa. Kontabilitateko informazio sistemak euskarritzat duen ekipo informatikoak berak egindako ziurtagiri mekaniko baten bidez egin ahal izango da diligentzia hori.

2. Eragiketak euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoetan jasota dauden datuetatik abiatuta erregistratzen badira, inskripziorako diligentzia horren ordez sistemako baliozkotze-prozesuak erabiliko dira; prozesu horien bidez, eragiketa horiei eragin dituzten kontabilitateko oharrekin lotzen dituzten erreferentziak jarriko zaizkie.

III. KAPITULUA.
ARTXIBOA ETA KONTSERBAZIOA.

41. erregela. Eragiketen frogagiriak eta kontabilitateko oharren euskarriak artxibatzea eta kontserbatzea.

1. Erakundeak berak gorde beharko ditu III. titulu honetako I. kapituluak aipatzen dituen eragiketen frogagiriak, hala egokituz gero dagozkien kontabilitateko agiriekin batera, eta eskumena duten kontrol-organoen eskura egongo dira, egin beharra gerta daitekeen kontabilitatearen gaineko kontrol- eta egiaztapen-jarduerak ahalbidetu eta erraztearren.

2. Kontabilitateko informazioko sisteman erregistratzen diren egitateen frogagiriak eta, hala egokituz gero, dagozkien kontabilitateko agiriak baliabide edo euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoetan gorde ahal izango dira, hasieran jaso dituen euskarri mota dena dela, baldin eta haien egiazkotasuna, osotasuna, kalitatea, babesa eta kontserbazioa bermatzen badira. Kasu horietan, euskarri horietatik lortzen diren kopiak jatorrizkoak bezain baliozko eta eraginkorrak izango dira.

3. Paperezko dokumentuetan formalizatutako frogagiriak zein euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoetan formalizatuak sei urteko epeaz gorde beharko dira, kasuan kasuko eragiketak agerian jartzen diren urteko kontuak kanpoko kontrol-organoetara igortzen diren datatik kontatzen hasita, non eta kasuan kasuko frogagiriak beste kontserbazio-epe batzuk ezarrita ez dituen, edo kontabilitateko erantzukizun posiblearen preskripziorako epea eten ez den.

   Aurreko lerrokadan adierazitakoa baztertu gabe, aktiboei eta pasiboei lotutako balioespenen frogagiriak gutxienez aktibo eta pasibo horiek balantzean agertzen diren bitartean gorde beharko dira.

4. Frogagiriak suntsitu ahal izango dira, baldin eta aurreko idatz-zatiak jasotzen dituen epeak bete badira, betiere aurrez aditzera emanda jardutea zegokiekeen kanpoko kontrol-organoei, eta haiek suntsitze horren aurrean inolako eragozpenik jarri ez badute.

   Ez da bidezkoa izango frogagiriak suntsitzea, baldin eta agirien izaeraren ondorioz erabakita badago haiek agirien artxibo historiko batera bidaltzea.

42. erregela. Kontabilitateko erregistroen kontserbazioa.

1. Kontabilitateko informazio-sisteman oharpena egindako eragiketen erregistroak sei urteko epeaz gorde beharko dira, eragiketa horiei buruzko informazioa jaso duten urteko kontuak kanpoko kontrol-organoetara igortzen diren datatik kontatzen hasita, non eta informazio horrek beste kontserbazio-epe batzuk ezarrita ez dituen, edo kontabilitateko erantzukizun posiblearen preskripziorako epea eten dela aditzera eman ez duten.

2. Aurreko paragrafoak aipatzen dituen kontserbazio-epeak eta izan daitekeen kontabilitateko erantzukizunaren preskripziorako epea igaro ondoren, eragiketen erregistroak suntsitu ahal izango dira, non eta, beharrezko jakinarazpenaren bidez, jardutea dagokien kanpoko kontrol-organoek inolako eragozpenik jartzen ez duten.

   Ez da bidezkoa izango kontabilitate-erregistroak suntsitzea, baldin eta daukaten izaeraren ondorioz erabakita badago haiek agirien artxibo historiko batera bidaltzea.

IV. TITULUA.
SISTEMATIK LORTU BEHARREKO INFORMAZIOA.

I. KAPITULUA.
ARAU OROKORRAK.

43. erregela. Informazio motak.

Eregelan zerrendatzen diren kontabilitateko informazio-sistemaren helburuak betetzeko, eta informazio horren hartzaileen (7. erregelan zerrendatuen) kontabilitateko informazio-beharrak ase ahal izateko, kontabilitateko informazio-sistemak, gutxienez, honakoak jasoko ditu:

a) Kasuan kasuko kontabilitate-erakundearen urteko kontuak osatzeko behar dena.

b) Indarrean dagoen araudiaren arabera, kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-entitateko organoak Udalbatzari bidali beharrekoa.

c) Urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoerak (Bizkaiko Lurralde Historikoko Lurralde Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 6.3.d) artikuluan aipatuak) egiteko behar dena.

d) Kudeaketaren arloan erabakiak hartzeko eta mota guztietako barne-kontrola egiteko behar den informazio ekonomiko eta finantzarioa.

e) Beste herri-administrazio batzuetara bidali beharreko informazio ekonomiko eta finantzarioa.

44. erregela. Informazioaren euskarria.

1. Kontabilitateko informazioa kontabilitateko egoera-orrietan jaso behar da. Horiek zerrenda, txosten eta, oro har, paperezko agiriak izan ditzakete euskarritzat, edo beste edozein euskarri elektroniko, informatiko edo telematiko, baldin eta bermatzen badute informazioaren egiazkotasuna, osotasuna eta kontserbazioa, hartzaileak jasotzearekin eta horrek, ase behar dituen helburuak bete ahal izatearren, informazioari tratamendu egokia ematearekin batera.

2. Kontabilitateko egoera-orriak jasotzen dituzten euskarriak direnak direla, haien edukia eta lortzeko modua egokitu egingo zaizkie titulu honetan dauden arauei.

45. erregela. Kontabilitateko informazioaren bermea.

Hartzaileei eskainitako kontabilitateko informazioari dagokionez, kontabilitatearen ardura duen pertsonak gauza bakarra ziurtatu behar du: informazio hori eta sistemako datu-baseetan jasota dagoena bat datozela.

II. KAPITULUA.
TOKI-ERAKUNDEAREN KONTU OROKORRA.

1. SEKZIOA.
EDUKIA.

46. erregela. Kontu orokorraren mugak.

1. Toki-entitatearen kontu orokorrak zehatz erakutsiko du ondarearen, egoera finantzarioaren, emaitzen eta aurrekontuaren gauzatze-mailaren irudia.

2. Kontu orokorra honako hauek osatuko dute:

a) Entitatearen beraren kontua.

b) Erakunde autonomoen kontua.

c) Toki-erakundearen mendeko merkataritza-sozietateen urteko kontuak; hau da, erakundeak kapitalaren edo sozietate-funtsaren %50etik gorako partaidetza daukan merkataritza-sozietateenak.

d) Enpresa-entitate publikoen urteko kontuak.

e) Atxikitako partzuergoen kontua, edo, hala egokituz gero, kontuak, haien aurrekontuak erakundearen aurrekontu orokorretan sartuta badaude, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren arabera.

3. Aurreko atalak aipatzen dituen kontabilitateko subjektuetako bakoitzak bere urteko kontuak prestatu beharko ditu, ondoren datozen erregeletan aurreikusitakoarekin bat.

47. erregela. Toki-entitatearen beraren kontua, erakunde autonomoen kontua eta aurrekontu mugatzailea duten atxikitako partzuergoen kontua.

1. Honako hauek dira toki-entitatearen kontua osatzen duten urteko kontuak, haren erakunde autonomoetako bakoitzarenak eta aurrekontu murriztaileko partzuergo atxikienak:

a) Balantzea.

b) Ekonomia- eta ondare-arloko emaitzaren kontua.

c) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.

d) Diru-fluxuen egoera-orria.

e) Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.

f) Memoria.

2. Aurreko atalean aipatzen diren kontuak egitean, kontuan hartu beharko dira toki-administraziora egokitutako kontabilitate publikoaren plan orokorraren hirugarren zatian haiek egiteko bildutako arauak, eta kontuek zati horretan jasotako ereduetara egokitu beharko dute.

3. Toki-entitatearen beraren urteko kontuei, haren erakunde autonomo bakoitzak dituenei eta aurrekontu mugatzaileko partzuergo atxikiek dituztenei dokumentazio hau gehitu beharko zaie:

a) Ekitaldiaren amaierari dagozkion kutxako izakinen kontaketa-aktak.

b) Banku-entitate bakoitzak toki-erakundearen, erakunde autonomoen edo aurrekontu murriztaileko partzuergo atxikien alde dauzkan saldoei buruz egindako oharrak edo ziurtapenak, ekitaldi amaierakoak, eta banku-entitatearen izen sozialaren arabera multzokatuta. Kontabilitate-saldoak eta banku-saldoak bat etorri ezean, berdinkatzeko egoera-orri egokia aurkeztuko da, Kontu-hartzailetzak edo toki-entitatean kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan organoak baimenduta.

c) Aurrekontu-emaitza eta kontabilitate-emaitza berdinkatzeko egoera-orria.

48. erregela. Merkataritza-sozietateen urteko kontuak, mendeko enpresa-erakunde publikoenak eta gutxi gorabeherako aurrekontua duten atxikitako partzuergoenak.

1. Merkataritzako sozietateek prestatu beharreko urteko kontuak, betiere, kontabilitate-plan orokorrean edo haren egokitzapen sektorialetan aurreikusitakoak izango dira, baldin eta haien kapital sozialean toki-entitatearen partaidetza osoa edo gehiengoduna bada.

2. Toki-entitatearen mendeko enpresa-erakunde publikoek eta aurrekontu murriztaileko partzuergo atxikiek prestatu beharreko urteko kontuei aurreko lerrokadan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

2. SEKZIOA.
PRESTATZEA.

49. erregela. Kontu orokorra prestatzea.

1. Kontu-hartzaileak edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-entitateko organoak prestatuko du ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra.

2. Aipatu ondorioetarako, kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-entitateko organoak kanpoko kontrol-organoari aurkeztu behar zaizkion kontuak aurkezteko eskatu ahal izango du.

3. ...

50. erregela. Dokumentazio osagarria.

1. Kontu orokorrari hauek erantsiko zaizkio:

   a) 47.3 erregelan aipatutako agiriak.

   b) Toki-erakundearen mende eta aurrekontu-egonkortasunerako nahiz finantza-iraunkortasunerako araudiaren aplikazio-esparruan sartuta dauden unitateen urteko kontuak, kontu orokorrean integratu gabeak.

2. Halaber, kontu orokorrari kontuen egoera-orri integratu eta bateratuak gehituko zaizkio.

3. SEKZIOA.
ONARPENA.

51. erregela. Kontu orokorra onartzea.

1. Ekitaldi bakoitzeko kontu orokorrari dagokionez, hurrengo ekitaldiko maiatzaren 15a baino lehen txostena eman beharko du toki-entitatearen Kontu Batzorde Bereziak.

2. Kontu orokorra eta Kontu Batzorde Bereziaren txostena jendaurrean egongo dira hamabost egunez; denbora horretan zehar, interesdunek erreklamazioak edo oharrak aurkeztu edo eragozpenak aurkitu ahal izango dituzte. Kontu Batzorde Bereziak haiek aztertu ondoren, eta egoki ikusten dituen egiaztapen guztiak eginik, beste txosten bat emango du.

3. Kontu orokorra Udalbatzari aurkeztuko zaio, Kontu Batzorde Bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta eragozpenekin batera, hala egokituz gero uztailaren 31 baino lehen onar dezan.

4. Kontu Orokorraren onarpena funtsezko ekintza bat da, kanpoko kontrol-organoek fiskalizatu ahal izan dezaten. Ekintza horrek ez du kontuan jasotako jarduerekiko adostasunik eskatzen, eta ez du horiek direla eta inolako erantzukizunik sorrarazten.

4. SEKZIOA.
KONTUAK EMATEA.

52. erregela. Kontu-emaileak.

1. Kontu-emaileak kontuak emateko obligazioa duten erakunde eta organoen titularrak izango dira, eta, edonola ere, honako hauek:

   a) Toki entitatearen burua.

b) Erakunde autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta atxikitako partzuergoen buruak edo zuzendariak.

c) Toki-entitatearen mendeko merkataritza-sozietateetako administrazio-kontseiluen buruak.

d) Toki-entitatearen mendean eta likidazio prozesuan dauden merkataritza-sozietateak likidatzeko eginkizuna esleituta daukatenak.

2. Aurreko atalean aipatutako kontu-emaileak kontabilitate-informazioaren erantzuleak dira; hau da, haien ardura da egiazko informazioa ematea, eta urteko kontuek zehatz erakustea ondarearen, egoera finantzarioaren, ekonomia- eta ondare-emaitzaren eta kontabilitate-entitatearen aurrekontuaren gauzatze-mailaren irudia.

   Kontu-emaileei dagokie kanpoko kontrolerako organoetara bidali behar diren kontuak dagokien ekitaldiaren hurrengoan apirilaren 30a baino lehen eta behar bezala baimenduta ematea.

3. Kontuak emateak berekin dakarren egiazko informazioa eman beharraren erantzukizuna ez dago erabakiak hartu zituztenek edo kontu horietan islatutako ekintzak burutu zituztenek bere gain hartu zituzten erantzukizunei lotuta.

53. erregela. Kontuak emateko prozedura.

1. Kontu-emaileek, kontuak emateko duten obligazioa betetzeko, urteko kontuak bidali beharko dizkiote, 47.3 erregelan aipatzen den dokumentazio osagarriarekin batera, kontu-hartzailetzari edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-entitateko organoari, aurreko erregelako 2. atalean aurreikusitako epean.

2. Udalbatzak Kontu Orokorra onartu ondoren, toki-entitateko buruak eman egingo dio eskumena duen kanpoko kontrol organoari, indarrean dagoen araudiak aurreikusten dituen epeak betez.

3. Kanpoko kontrol-organoek bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz bidaltzeko prozedurak ezarrita badauzkate, kontu orokorra ematean bete egin beharko dira komunikazioak bitarteko eta aplikazio informatiko, telematiko eta elektronikoen bidez transmititu eta jasotzeaz datu pertsonalen babesari, herri-administrazioen araubide juridikoari, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari eta sinadura elektronikoari buruzko araudietan ezarritako baldintzak.

   Horrelakoetan, urteko kontuak erakutsi behar duten informazioa jasotzen duten fitxategiak sortuz lortuko dira, eta haien edukiak eta egiturak bat etorri beharko dute kanpoko kontrol-organoek erabakitako zehaztapen teknikoekin.

III. KAPITULUA.
BESTELAKO KONTABILITATE-INFORMAZIOA.

1. SEKZIOA.
ALDIAN ALDIKO INFORMAZIOA UDALBATZARENTZAT.

54. erregela. Prestaketa.

1. Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-entitateko organoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki-Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan aurreikusitakoa betetzeko, aurrekontuen betearazpenari, diruzaintzako egoerari eta mugimenduari buruzko informazioa prestatuko du, eta Udalbatzari igorriko dio burutzaren bidez, Udalbatzak erabakitako epeen barruan eta aldizkakotasunarekin.

2. Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna esleituta duen toki entitateko organoak zehaztuko du aurreko atalak aipatzen duen informazioa jaso behar duten egoera-orrien egitura, Udalbatzak ezarritakoaren ildotik.

55. erregela. Edukia.

Aurreko erregelak aipatzen duen informazioak jaso egingo ditu gastu- eta sarrera-aurrekontuaren gauzatzeari buruzko datuak, urteko ekitaldiko, itxietako eta geroagokoetako taldeei dagozkienak, diruzaintzako mugimenduekin eta egoerarekin batera.

2. SEKZIOA.
URTEKO AURREKONTUKO GASTUEN ETA SARREREN GAUZATZE-EGOEREN AURRERAPENA.

56. erregela. Prestaketa.

Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-entitateko organoak urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoeren aurrerapena (Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 6.3.d) artikuluan aipatua) egingo du, eta hura toki-entitatearen aurrekontuari erantsi beharko zaio.

57. erregela. Edukia.

3. Urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoeren aurrerapena aurrekontu orokorrean bildutakoen arteko aurrekontu egokiari gehitu beharko zaio, eta bi zati izango ditu:

   - Lehen zatia: urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoerak, gutxienez ekitaldiko sei hilabeteri buruzkoak.

   - Bigarren zatia: urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoeren zenbatespena, abenduaren 31ri dagokiona.

4. Kontu-hartzailetzak edo kontabilitate-eginkizuna esleituta daukan toki-entitateko organoak erabakiko du haren egitura, erakundearen osoko bilkurak erabakitakoaren arabera.

58. erregela. Lehen zatia: urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoerak, gutxienez ekitaldiko sei hilabeteri buruzkoak.

1. Lehen zati honek agerian utziko ditu hainbat zenbateko, hala nola:

2. Gastuen egoerari dagokionez, eta kapitulu mailan gutxienez:

   a) Hasierako kredituak, haien aldaketak eta behin betiko kredituak.

   b) Baimendutako gastuak.

   c) Konprometitutako gastuak.

   d) Onartutako obligazio garbiak.

   e) Egindako ordainketak.

   f) Ordaindu gabeko obligazioak.

   g) Kreditu gerakinak.

3. Sarreren egoerari dagokionez, eta kapitulu mailan gutxienez:

a) Hasierako aurreikuspenak, haien aldaketak eta behin betiko aurreikuspenak.

b) Sarrera-konpromisoak.

c) Onartutako eskubide garbiak.

d) Bilketa garbia.

e) Kobratu gabeko eskubideak.

f) Onartutako eskubide garbien eta behin betiko aurreikuspenen arteko alderaketa.

59. erregela. Bigarren zatia: urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoeren zenbatespena, abenduaren 31ri dagokiona.

Bigarren zatiak agerian jarriko ditu urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoerek, kalkuluen arabera, abenduaren 31n izango dituzten zenbatekoak. Informazio horrek, gutxienez, barruan jasoko ditu, kapitulu-mailan behintzat, behin betiko aurreikuspenak eta kredituak, hala nola aintzatetsitako obligazio eta eskubide garbiak.

3. SEKZIOA.
INFORMAZIOA BARNE-KUDEAKETA ETA -KONTROLA EGITEKO ORGANOENTZAT.

60. erregela. Informazioa barne-kudeaketa eta -kontrola egiteko organoentzat.

Kontabilitateko informazio-sistemak aukera eman beharko du erakundearen barne-kontrola egiteko ardura duten organoek eta kudeaketa-organoek beren eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen duten informazio ekonomiko eta finantzario guztia eskuratzeko.

Edonola ere, informazio honetarako sarrerak bete egin beharko ditu indarrean dagoen araudiak honi buruz ezartzen dituen aginduak.

4. SEKZIOA.

INFORMAZIOA BESTE HERRI-ADMINISTRAZIO BATZUENTZAT.

61. erregela. Informazioa beste herri-administrazio batzuentzat.

Kontabilitateko informazio sistemak aukera eman beharko du indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera beste herri-administrazio batzuei bidali behar zaien informazio ekonomiko eta finantzario guztia eskuratzeko.

2. ERANSKINA.
TOKI-ENTITATEEN AURREKONTU EGITURA.

Bizkaiko toki entitateen aurrekontuen egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra onartzen dituen abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuaren bitartez onartu ziren gaur arte indarrean izan diren aurrekontu egitura eta sailkapen irizpideak.

Dekretu hori uztailaren 29ko 96/2014 Foru Dekretuak aldatu zuen, programakako sailkapen berri bat arautzeko. Programa horiek lotuta daude aurrekontuko jarduera eremuek mugarritzen dituzten gastu politika publikoei.

Sailkapen honetan bere horretan utzi da indarrean den programakako sailkapena, eta aldaketak txertatu dira sailkapen ekonomikoan. Sarreren sailkapen ekonomikoan egindako aldaketa esanguratsuenak hauek izan dira:

- Lehenengo, sarrera arruntak, kapital sarrerak eta finantza sarrerak bereizi dira. Bereizketa bera egin da gastuetan ere.

- Bigarren, gastu itzulketa arruntak eta kapitalezkoak bereizi dira; kapitalezkoak jasotzeko artikulu berri bat sortu da.

- Hirugarren, diruzaintzako gerakina azpikontzeptuka bereizi da, bere bi osagaien arabera: gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta finantzaketa lotua duen gastuetarako diruzaintzako gerakina.

Gastuen sailkapen ekonomikoari dagokionez, kontzeptuak sortu dira honako eragiketak jasotzeko: finantza errentamenduko interesak, aplikazio informatikoak, hirigintzako aprobetxamenduen eskuratzeak, lurzoruaren ondare publikoan egindako inbertsioak, errentan hartutako ondasunetan egindako inbertsioak, beste ente batzuentzat kudeatutako inbertsioak eta ondare ekarpenak. Era berean, 5. kapitulua sortu da, kreditu globalarentzako eta ezusteetarako zuzkidurak jasotzeko xedez.

1. TOKI ENTITATEEN AURREKONTUKO SARREREN SAILKAPEN EKONOMIKOA.

Agiri honek garatzen du toki entitateen eta aurrekontu mugatzailea duten menpeko organismoen sarreren sailkapen ekonomikoaren egitura, kapitulu, artikulu eta kontzeptu bakoitzaren ondoren berauei egoz dakizkiekeen sarrera motak zerrendatuz, bakoitzari dagokion xehetasun mailarekin.

Eragiketa arruntak (1.tik 5.era bitarteko kapituluak), kapital eragiketak (6. eta 7. kapituluak) eta finantza eragiketak bereizi dira (8. eta 9. kapituluak).

Kode honek izaera itxia eta derrigorrezkoa du kapitulu eta artikulu mailetan. Kontzeptuari eta azpikontzeptuari dagokienez, irekitzat hartzen da. Horrenbestez, toki entitate bakoitzak beharrezkotzat jo adina epigrafe sor dezake maila horietan, bere premien arabera edo, hala egokituz gero, bere antolakuntza erregelamendu edo dekretuei jarraiki.

Hala eta guztiz ere, udal administrazioaren berezitasuna dela eta, erabilera orokorrekotzat jotzen diren kontzeptu eta azpikontzeptu batzuk tipifikatu eta kodetzen dira. Toki entitateak kontzeptu eta azpikontzeptu tipifikatu horien araberako sailkapena egitea erabakitzen badu, aurreikusitako kodeketa-zenbakiak esleitu beharko ditu derrigorrean.

A. ERAGIKETA ARRUNTAK.

Honen barruan biltzen dira aurrekontuko 1. kapitulutik 5.era bitartekoak, biak barne: lehenengo hiru kapituluek tributu izaera edo antzekoa duten sarrerak hartzen dituzte; 4. kapituluak transferentzia arruntengatik eta diru-laguntzengatik jasotako sarrerak hartzen ditu, gastu arruntak finantzatzera bideratuak edota helburu jakinik gabeak; eta 5. kapituluak ondare sarrerak hartzen ditu, gordailuetatik, dibidenduetatik edota ondasun higiezinen errentetatik datozenak, baita administrazio emakiden kanona eta azalera eskubidearen truke jasotako sarrerak ere, besteak beste.

1. KAPITULUA.
ZUZENEKO ZERGAK.

Kapitulu honetan sartzen dira kontraprestaziorik gabe eskuratutako baliabideak, horien zerga egitatea honakoek osatzen dutenean: subjektu pasiboaren kontribuzio ahalmena azaleratzen duten eta izaera juridiko edota ekonomikoa duten negozio, ekintza edo gertaerak, ondare baten jabe izatearen edota errenta eskuratzearen ondorio direnak.

11. artikulua. Kapitalaren gainekoak.

Ondare baten titulartasuna edo berau osatzen duten elementuen eskualdatzek agerian jarritako balio gehikuntzak kargatzen dituzten zergetatik eratorritako sarrerak biltzen ditu.

Hiru kontzeptu tipifikatzen dira:

112. kontzeptua. Ondasun Higiezinen gaineko Zerga.

113. kontzeptua. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

114. kontzeptua. Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga.

13. artikulua. Jarduera ekonomikoen gainekoak.

Egitate ezargarria enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea duen zergatik eratorritako sarrerak jasotzen ditu.

Kontzeptu bakarra tipifikatzen da:

130. kontzeptua. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

19. artikulua. Iraungitako zuzeneko zergak.

Udal Ogasunei buruzko Foru Arauak ezabatutako zuzeneko udal zergen etekina jasotzen du.

Bi kontzeptu tipifikatzen dira:

190. kontzeptua. Ekoizpenari loturiko zergak.

Landa edo hiri-ondasun higiezinak edukitzeak, merkataritza, industria, lanbide edo arte jarduerek, edo jarduera horiek lokal jakin batean burutzeak sortutako errenta kargatzen zuten zerga iraungietatik eratorritako etekinak biltzen ditu.

191. kontzeptua. Kapitalaren gaineko zergak.

Kontzeptu honetan kapitala, berau lur moduan edukitzea, edo lur honen eskualdatzearen ondorioz agerian jartzen den balio gehikuntza kargatzen zituzten zerga iraungien etekina sartuko da.

2. KAPITULUA
ZEHARKAKO ZERGAK

28. artikulua. Bestelako zeharkako zergak.

Indarrean diren zeharkako zergengatik eskuratutako bestelako sarrerak biltzen ditu, baita udal mugartearen barnean edozein eraikuntza, instalazio eta obra egiteagatik ordaindu beharreko zergaren bilketatik eratorritako sarrerak ere.

Hiru kontzeptu tipifikatzen dira:

282. kontzeptua. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga.

Udal mugartearen barnean edozein eraikuntza, instalazio eta obra egiteagatik ordaindu beharreko zergaren bilketatik eratorritako sarrerak biltzen ditu.

283. kontzeptua. Luxuzko gastuen gaineko zerga:

- 283.01 azpikontzeptua. Ehiza eta arrantza barrutiak.

Ehiza eta arrantza barruti pribatuen aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko zergaren bilketatik eratorritako sarrerak biltzen ditu, aprobetxamendu horiek ustiatu edo gozatzeko era dena delarik.

284. kontzeptua. Egonaldi turistikoen gaineko zerga.

Egonaldi turistikoen gaineko zergaren bilketatik eratorritako diru-sarrerak jasotzen ditu.

29. artikulua. Iraungitako zeharkako zergak.

Udal Ogasunei buruzko Foru Arauak ezabatutako zeharkako udal zergen etekina jasotzen du.

Bi kontzeptu tipifikatzen dira:

290. kontzeptua. Ekoizpenari loturiko zergak.

291. kontzeptua. Errenta, ondare eta kontsumoaren gaineko zergak.

3. KAPITULUA.
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK.

30. artikulua. Salmentak.

Ondasun materialak atera edo ematen diren transakzioetan jasotako sarrerak, ibilgetuaren zati direnean izan ezik, eta material baztergarritzat hartzen ez badira.

31. artikulua. Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasak.

Udal eskumeneko zerbitzu publikoak eskaintzeagatik edo administrazio jarduerak egiteagatik sortutako diru-sarrerak, baldin eta subjektu pasiboari bereziki erreferentzia egin, ukitu edo onura ekartzen badiote, ondorengo bi egoeretako bat ematen denean:

a) Administratuentzat borondatez eskatu edo jaso ditzaketenak ez izatea. Honen ondorioetarako, administratuek jasotzeko egindako eskaria ez da borondatezkotzat hartuko, baldin eta:

   - Legezko edo arauzko xedapenek ezarria bada.

   - Eskatutako ondasunak, zerbitzuak edo jarduerak ezinbestekoak badira eskatzailearen bizitza pribatu edo sozialerako.

b) Arlo pribatuak horrelakorik eskaintzen edo egiten ez baditu, indarrean dagoen legediaren arabera horiek arlo publikoarentzat erreserbatuta dauden ala ez alde batzera utzita.

Hiru kontzeptu tipifikatu dira:

310. kontzeptua. Zerbitzu orokorrak.

- 310.01 azpikontzeptua. Zaborra edo hiri hondakin solidoak etxez etxe biltzea.

- 310.02 azpikontzeptua. Estolderia zerbitzua eta azpiegitura hidraulikoak finantzatzeko kanonaren %a.

- 310.03 azpikontzeptua. Udal hilerriak eta bestelako hileta zerbitzuak.

- 310.04 azpikontzeptua. Agiriak egitea.

- 310.05 azpikontzeptua. Ibilgailuak bide publikotik jaso eta kentzea.

- 310.06 azpikontzeptua. Hiriko trafikoa arautu eta kontrolatzeko jarduera bereziak.

- 310.07 azpikontzeptua. Plakak, patenteak eta bestelako bereizgarriak.

- 310.08 azpikontzeptua. Suteen prebentzioa eta itzaltzea.

- 310.09 azpikontzeptua. Udalaren ur hornikuntza eta azpiegitura hidraulikoak finantzatzeko kanona.

- 310.10 azpikontzeptua. Udalaren kirol instalazioak.

- 310.11 azpikontzeptua. Irakaskuntza bereziak.

- 310.12 azpikontzeptua. Laguntza eta egonaldiak etxebizitza eta egoitzetan.

- 310.13 azpikontzeptua. Zaborren eta industriako zaborren hondakindegi kontrolatuak.

- 310.14 azpikontzeptua. Haurtzaindegiak.

- 310.15 azpikontzeptua. Etxez etxeko laguntza eta bestelako gizarte zerbitzuak.

- 310.16 azpikontzeptua. Kultur zerbitzuak.

- 310.17 azpikontzeptua. Udalaren gas hornikuntza.

- 310.18 azpikontzeptua. Udalaren argindar hornikuntza.

- 310.19 azpikontzeptua. Garraio publikoa.

- 310.99 azpikontzeptua. Zerbitzu orokorrengatiko bestelako tasak.

- 311. kontzeptua. Jarduera ekonomikoak.

Kontzeptu hau dela- eta jasotako diru-sarrerak zenbait azpikontzeptutan bereiziko dira, toki entitate bakoitzaren informazio beharrizanen arabera. Honela geratuko dira:

- 311.01 azpikontzeptua. Establezimenduak irekitzeko lizentzia.

- 311.02 azpikontzeptua. Auto-taxientzako lizentziak eta baimenak.

- 311.03 azpikontzeptua. Lonjak eta merkatuak.

- 311.04 azpikontzeptua. Hiltegiko zerbitzuak.

- 311.99 azpikontzeptua. Jarduera ekonomikoen gaineko bestelako tasak.

312. kontzeptua. Higiezinen jabetza.

Kontzeptu hau dela- eta jasotako diru-sarrerak zenbait azpikontzeptutan bereiziko dira, toki entitate bakoitzaren informazio beharrizanen arabera. Honela geratuko dira:

- 312.01 azpikontzeptua. Hirigintzako baimenak ematea.

- 312.99 azpikontzeptua. Higiezinen jabetzarengatiko bestelako tasak.

32. artikulua. Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak.

Tokiko herri jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren ordainetan jasotako diru-sarrerak.

Hiru kontzeptu tipifikatu dira:

320. kontzeptua. Zerbitzu orokorrak.

Kontzeptu hau dela- eta jasotako diru-sarrerak zenbait azpikontzeptutan bereiziko dira, toki entitate bakoitzaren informazio beharrizanen arabera. Honela geratuko dira:

- 320.01 azpikontzeptua. Ibilgailuak bide publikoan aparkatzea.
- 320.02 azpikontzeptua. Erretenen hustubideak eta antzeko instalazioak.
- 320.03 azpikontzeptua. Oholtzen edo tribunen instalazioa.
- 320.04 azpikontzeptua. Zerbitzu orokorrengatiko bestelako tasak.

321. kontzeptua. Jarduera ekonomikoari laguntzen edo eragiten diotenak.

Kontzeptu hau dela- eta jasotako diru-sarrerak zenbait azpikontzeptutan bereiziko dira, toki entitate bakoitzaren informazio beharrizanen arabera. Honela geratuko dira:

- 321.01 azpikontzeptua. Energia elektrikoa edo edozein fluido eramateko lineak, hodiak eta galeriak.
- 321.02 azpikontzeptua. Bide publikoko kioskoak.
- 321.03 azpikontzeptua. Bide publikoan jarritako hesiak, aldamioak, edukiontziak, eraikuntzako materialak etab.
- 321.04 azpikontzeptua. Mahaiak eta aulkiak.
- 321.05 azpikontzeptua. Postuak, barrakak eta zineko filmatze lanak.
- 321.06 azpikontzeptua. Portadak, erakusleihoak eta bitrinak.
- 321.07 azpikontzeptua. Kalikatak eta zangak irekitzea.
- 321.08 azpikontzeptua. Hodien, hari eroaleen, harien eta biltegien instalazioa.
- 321.09 azpikontzeptua. Hornikuntza enpresek lurzorua, zorupea eta hegalkinak okupatzea.
- 321.99 azpikontzeptua. Jarduera ekonomikoari laguntzen edo eragiten dioten bestelako tasak.

322. kontzeptua. Higiezinen jabetzari laguntzen edo eragiten dioten bestelako tasak.

Kontzeptu hau dela- eta jasotako diru-sarrerak zenbait azpikontzeptutan bereiziko dira, toki entitate bakoitzaren informazio beharrizanen arabera. Honela geratuko dira:

- 322.01 azpikontzeptua. Ibilgailuak espaloietatik edo bide publikoko erreserbetatik zehar sartzea aparkalekuetara.

- 322.99 azpikontzeptua. Higiezinen jabetzari laguntzen edo eragiten dioten bestelako tasak.

34. artikulua. Udal eskuduntzako zerbitzuak edo jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak .

Toki entitatearen eskuduntzako zerbitzuak egin edo jarduerak burutzeagatiko ordain gisa jasotako sarrerak, betiere 31. artikuluan -Tasak- galdatutako zertzeladak biltzen ez badira.

Hiru kontzeptu tipifikatzen dira:

340. kontzeptua. Zerbitzu orokorrak.

341. kontzeptua. Jarduera ekonomikoen onerako direnak.

342. kontzeptua. Higiezin jabetzaren onerako direnak.

36. artikulua. Kontribuzio bereziak.

Herri-lanak burutzearen edo udal izaerako zerbitzu publikoak ezarri edo zabaltzearen ondorioz onura bereziak edo ondasun jakin batzuen balio gehikuntzak lortzeagatiko ordain gisa jasotako sarrerak.

Bi kontzeptu tipifikatzen dira:

360. kontzeptua. Obrak exekutatzeko.

361. kontzeptua. Zerbitzuak jarri edo handiagotzeko.

Azpikontzeptu mailan xehatu beharko da, derrigorrean, jatorritzat duten obra edo zerbitzua.

38. artikulua. Eragiketa arrunten itzulketak.

Aurreko ekitaldietan zor ez zirelarik ordaindutako kopuruak itzultzeko egindako sarrerak, eragiketa arruntei dagozkienak.

Urteko aurrekontuko itzulketak gastuen aurrekontuari egotziko zaizkio, aurrez onartutako obligazioen zenbatekoa eta horien ordainketena gutxituz.

39. artikulua. Bestelako sarrerak.

Berez kapitulu honetakoak izanik, aurreko artikuluetan sartu ez diren sarrerak biltzen ditu.

Zazpi kontzeptu tipifikatzen dira:

391. kontzeptua. Isunak.

Indarrean dagoen legerian behar bezala tipifikatuta dauden ekintza edo ez-egiteengatik ezarritako zigorretatik eratorritako sarrerak. Jatorria zerga figura jakin baten kudeaketan duten zerga izaerako zigorrak ez zaizkio kontzeptu honi aplikatuko, dagokion zergarenari baizik.

392. kontzeptua. Epealdi exekutiboko errekargua, eta aurretiazko errekerimendurik gabeko aitorpena epez kanpo aurkezteagatik ezarritakoa.

Zorrak borondatezko epean ez ordaintzeagatik ezarritako epealdi exekutiboko errekargutik eratorritako sarrerak, eta aurretiazko errekerimendurik gabeko aitorpena epez kanpo aurkezteagatik ezarritako errekargutik eratorritako sarrerak.

393. kontzeptua. Berandutza interesak.

Berandutza interesetatik eratorritako sarrerak, indarrean dagoen araudiaren arabera Interes horiek bidezkoak direnean.

394. kontzeptua. Pertsonal prestazioa. Pertsonal prestazioa dirutan luditzetik eratorritako sarrerak.

395. kontzeptua. Garraio prestazioa.

Garraio prestazioa dirutan luditzetik eratorritako sarrerak.

396. kontzeptua. Konpentsazioak.

Dagokion araudiak hala ezartzen duen balizkoetan konpentsazio gisa jasotzen diren kopuruetatik eratorritako sarrerak.

399. kontzeptua. Beste hainbat sarrera.

Berez artikulu honi dagozkion arren, aurreko kontzeptuetan sartu ez diren sarrerak biltzen ditu.

4. KAPITULUA.
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.

Zerga izaerarik ez duten sarrerak, toki entitateak zuzeneko ordainik gabe jasotakoak, eragiketa arruntak finantzatzera bideratuak.

Agente emaileari dagokion lurralde eremua bilduko da, artikuluka, hori erakunde edo entitate publikoa denean. Kasu honetan, kontzeptuak adieraziko du zein den erakundea.

40. artikulua. Estatukoak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuaz kanpo dauden entitate publikoek egindako transferentziak biltzen ditu.

400. kontzeptua. Estatuaren administrazio orokorrarenak.

401. kontzeptua. Erakunde autonomoenak.

402. kontzeptua. Gizarte Segurantzarenak.

403. kontzeptua. Sozietate publiko eta enpresa-erakunde publikoenak.

404. kontzeptua. Autonomia erkidegoenak.

405. kontzeptua. Aldundienak.

409. kontzeptua. Beste erakunde publiko batzuenak.

41. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegokoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek eta erakunde publikoa kokatuta dagoen lurralde historikotik kanpo dauden erakunde publikoek egindako transferentziak biltzen ditu.

410. kontzeptua. Administrazio orokorrarenak.

411. kontzeptua. Erakunde autonomoenak.

412. kontzeptua. Erakunde publikoenak.

414. kontzeptua. Sozietate publiko eta enpresa-erakunde publikoenak.

416. kontzeptua. Foru Aldundi eta bestelako foru enteenak.

417. kontzeptua. Toki entitateenak.

419. kontzeptua. Beste erakunde publiko batzuenak.

42. artikulua. Lurralde historikokoak.

Foru erakundeek eta udal mugarteaz kanpo eta toki entitatea dagoen lurralde historikoaren barnean dauden erakunde publikoek egindako transferentziak biltzen ditu.

420. kontzeptua. Foru Aldundiarenak eta bestelako foru erakundeenak.

421. kontzeptua. Mankomunitate eta kontsortzioenak.

422. kontzeptua. Beste erakunde batzuenak.

43. artikulua. Udalekoak.

Udal mugartearen barnean kokaturik dauden entitate publikoek egindako transferentziak biltzen ditu.

430. kontzeptua. Udal entitatearen administrazioarenak.

431. kontzeptua. Erakunde autonomoenak.

432. kontzeptua. Enpresa-entitate publikoenak.

433. kontzeptua. Entitatearen sozietate publikoenak.

434. kontzeptua. Udalaz behetiko eremuko beste entitate batzuenak.

435. kontzeptua. Menpeko beste entitate batzuenak.

436. kontzeptua. Beste entitate batzuenak.

47. artikulua. Enpresenak.

Jabetza pribatuko enpresek egindako transferentziak biltzen ditu.

Kontzeptuka, entitateak ehuneko 50etik beherako proportzioko partaidetza duen enpresek (enpresa partizipatuek) eta partaidetzarik ez duen enpresek egindako transferentziak bereiziko dira.

470. kontzeptua. Enpresa partizipatuenak.

471. kontzeptua. Bestelako enpresenak.

48. artikulua. Familienak eta irabazizko xederik gabeko erakundeenak.

Familiek edo irabazizko xederik gabeko erakundeek toki entitateari emandako mota orotako diru-laguntza, dohaintza etab. biltzen ditu.

480. kontzeptua. Familienak.

481. kontzeptua. Irabazi asmorik gabeko erakundeenak.

49. artikulua. Kanpokoak.

Estatuko lurralde eremuaz kanpo dauden agenteek zuzeneko ordainik gabe egindako transferentziak biltzen ditu.

5. KAPITULUA.
ONDARE SARRERAK.

Toki entitateen jabetzaren edota ondarearen errentengatik eskuratutako sarrerak biltzen ditu, tributu izaera ez dutenean.

50. artikulua. Balore-tituluen interesak.

Balore-tituluetan egin finantza-inbertsioetatik eratorritako interesen ondoriozko sarrerak biltzen ditu.

Kontzeptuka, jaulkitzen dituen agenteari dagokion lurralde eremua bilduko da, hori erakunde edo entitate publikoa denean.

500. kontzeptua. Erakunde publikoek estatuan jaulkitakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuaz kanpo dauden entitate publikoek jaulkitako balore-tituluen interesak biltzen ditu.

501. kontzeptua. Erakunde publikoek Euskal Autonomia Erkidegoan jaulkitakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek eta toki entitatea dagoen lurralde historikoaz kanpo dauden entitate publikoek jaulkitako balore-tituluen interesak biltzen ditu.

502. kontzeptua. Erakunde publikoek lurralde historikoan jaulkitakoak.

Foru erakundeek eta udal mugarteaz kanpo dauden entitate publikoek toki entitatea dagoen lurralde historikoan jaulkitako balore-tituluen interesak biltzen ditu.

503. kontzeptua. Udaleko erakunde publikoek jaulkitakoak.

Beren lurralde eremuak udal mugartea gainditzen ez duten erakunde publikoek jaulkitako balore-tituluen interesak biltzen ditu.

504. kontzeptua. Enpresek jaulkitakoak.

Jabetza pribatuko enpresek jaulkitako balore-tituluen interesak biltzen ditu. Azpikontzeptuka bereizi egingo dira enpresa partizipatuek jaulkitakoak eta beste enpresa batzuek jaulkitakoak.

504.01 azpikontzeptua. Enpresa partizipatuenak.

504.02 azpikontzeptua. Bestelako enpresenak.

51. artikulua. Epe luzeko aurrerakinen eta maileguen interesak.

Epe luzerako diren eta balore-titulutan dokumentatu gabe dauden zor, mota orotako mailegu, aurrerakin, kreditu-poliza eta abarren interesak biltzen ditu.

Kontzeptuka, subjektu zordunari dagokion lurralde eremua bilduko da, hori erakunde edo entitate publikoa denean.

510. kontzeptua. Estatuaren erakunde publikoei.

511. kontzeptua. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei.

512. kontzeptua. Lurralde historikoko erakunde publikoei.

513. kontzeptua. Udalerriko erakunde publikoei.

514. kontzeptua. Enpresei.

- 514.01 azpikontzeptua. Partizipatutako enpresei.
- 514.02 azpikontzeptua. Beste enpresa batzuei.

515. kontzeptua. Familiei.

52. artikulua. Epe laburreko aurrerakin eta maileguen interesak.

Aurreko 51. artikuluaren eduki bera izango du, epe laburrekoak izanik kasu honetan.

53. artikulua. Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak.

Finantza inbertsioetatik edo legez ezarritako eskubideetatik eratorritako dibidendu eta mozkinetako partaidetzen ondoriozko baliabideak jasotzen ditu.

530. kontzeptua. Enpresa-erakunde publikoenak.

531. kontzeptua. Udal enpresenak.

532. kontzeptua. Beste enpresa batzuenak.

54. artikulua. Ondasun higiezinen errentak.

Udal titulartasuneko ondare-ondasun higiezinak beste batzuek aprobetxatu, erabili edo gozatzearen ondorioz lortutako sarrerak biltzen ditu.

540. kontzeptua. Hiri-finken errentamenduaren emaitza.

Hiri-ondasunak oro har alogerean lagatzearen ondorioz lortutako sarrerak.

541. kontzeptua. Landa-finken errentamenduaren emaitza.

Toki entitatearen jabetzako landa-finken errentamendutik eratorritako sarrerak.

542. kontzeptua. Negozio-lokalen eskualdaketako partaidetza.

Toki entitatearen jabetzako negozio-lokaletan errentaria aldatzearen ondorioz lortutako sarrerak.

543. kontzeptua. Negozio-lokalen esleipen eta enkantea.

Negozio-lokalak ustiatzeko lagatzearen ondorioz lortutako sarrerak.

544. kontzeptua. Zentsuak.

Toki entitateen ondasun higiezinen gainean ezarritako zentsu enfiteutikoen edo bestelako izaerakoen kontratuetatik eratorritako sarrerak.

549. kontzeptua. Bestelakoak.

Aurreko kontzeptuetan sartu ez diren ondare-ondasun higiezinen errentengatiko sarrerak biltzen ditu.

55. artikulua. Emakida eta aprobetxamendu berezien emaitzak.

Toki entitateek emandako ikerketa edo ustiapen eskubideetatik lortutako sarrerak eta, oro har, haiek jaso ditzaketen mota orotako emakida eta aprobetxamendu berezietatik eratorritakoak. Prezio publikoek sortutako sarrerak ez dira hemen sartuko.

550. kontzeptua. Emakida administratiboak.

Emakida administratiboetatik eratorritako sarrerak.

551. kontzeptua. Nekazaritza eta baso aprobetxamenduak.

Nekazaritza eta baso aprobetxamenduetatik eratorritako sarrerak.

552. kontzeptua. Aprobetxamendu bereziak.551.

kontzeptuan sartu hartu ez diren izaera honetako sarrerak, eta ondasunei dagozkienez gero prezio publikotzat jotzen ez direnak.

553. kontzeptua. Ustiapenak.

Toki entitateek emandako ustiapen-eskubideetatik eratorritako sarrerak. Aurreko artikuluetan sartu ez diren izaera honetako sarrerak.

56. artikulua. Gordailuen interesak.

Toki entitateek egiten dituzten diruzko gordailuek sortzen dituzten interesak sartzen dira honetan. Kontzeptuka bereizi egingo dira jasotako interesak, gordailuzain diren erakunde edo subjektuen arabera.

59. artikulua. Bestelako ondare sarrerak.

Aurreko artikuluetan bildu ez diren izaera honetako sarrera guztiak biltzen ditu.

B. KAPITAL ERAGIKETAK.

Kapital eragiketek beren barne hartzen dituzte sarreren aurrekontuko 6. kapitulua, «inbertsio errealak besterenganatzetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk», eta 7. kapitulua, «kapital transferentziak». Besteak beste, honakoak hartzen dituzte: higiezin eta ibilgetuak saltzean eskuratutako sarrerak, hirigintzako jardueretatik eskuratutako sarrerak, eta tokiko entitatearen alde kapitalezko gastuak finantzatzeko onartutako transferentziak.

6. KAPITULUA.
INBERTSIO ERREALAK BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK.

Toki entitateen jabetzako kapital ondasunak atera edo sartzen diren transakzioetatik eratorritako sarrerak, material baztergarritzat hartzen direnenak izan ezik.

60. artikulua. Lurrena.

Orube, landa-finka eta bestelako lurren salmentatik eratorritako sarrerak biltzen ditu.

600. kontzeptua. Orubeak.

601. kontzeptua. Landa-finkak.

Landa-finken salmentatik eratorritako sarrerak.

603. kontzeptua. Lurzoruaren ondare publikoa.

Lurzoruaren ondare publikoa osatzen duten lurren salmentatik eratorritako sarrerak.

609. kontzeptua. Bestelakoak.

Lur eraiki gabeen salmentatik eratorritako sarrerak, aurreko kontzeptuetan bildu ez direnak.

61. artikulua. Gainerako inbertsio errealena.

Aurreko artikuluan sartu ez diren inbertsio errealen salmentatik eratorritako sarrerak biltzen ditu. Gastuei buruzko 62. artikuluari dagokionaren antzeko edukia duten ondoko kontzeptu eta azpikontzeptuetan xehatzen dira.

612. kontzeptua. Eraikinena eta bestelako eraikuntzena.

- 612.01 azpikontzeptua. Lurzoruaren ondare publikoko eraikin eta bestelako eraikuntzena.

- 612.02 azpikontzeptua. Bestelako eraikin eta eraikuntzena.

613. kontzeptua. Makineria, instalazio eta tresneriarena:

- 613.01 azpikontzeptua. Makineriarena.

- 613.02 azpikontzeptua. Instalazioena.

- 613.03 azpikontzeptua. Barne-garraiorako elementuena.

- 613.04 azpikontzeptua. Tresna eta erremintena.

614. kontzeptua. Garraio-materialena.

615. kontzeptua. Altzari eta lanabesena:

- 615.01 azpikontzeptua. Altzariena.

- 615.02 azpikontzeptua. Bulego ekipamenduena.

- 615.09 azpikontzeptua. Bestelako lanabesena.

616. kontzeptua. Informazio-prozesuetarako ekipamenduena.

617. kontzeptua. Proiektu konplexuena.

618. kontzeptua. Funts bibliografikoena.

619. kontzeptua. Bestelako inbertsio errealena.

65. artikulua. Hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako sarrerak.

650. kontzeptua. Hiritartze kuotak.

Hirigintza jardueretatik eratorritako sarrerak, urbanizatu beharreko lurren jabeei toki entitateak eskatutako ekarpenei dagozkienak, urbanizazio gastu horiek finantzatu ahal izateko.

651. kontzeptua. Hirigintzako aprobetxamenduak.

Jabetze pribaturako izan daitekeena gainditzeagatik hirigintzako araudiaren arabera udalei dagokien aprobetxamendua kokatuta dagoen lurren jabeengandik datozen sarrerak jasotzen ditu.

68. artikulua. Kapital eragiketen itzulketak.

Aurreko ekitaldietan zor ez zirelarik ordaindutako kopuruak itzultzeko egindako sarrerak, kapital eragiketei dagozkienak.

Urteko aurrekontuko itzulketak gastuen aurrekontuari egotziko zaizkio, aurrez onartutako obligazioen zenbatekoa eta horien ordainketena gutxituz.

7. KAPITULUA.
KAPITAL TRANSFERENTZIAK.

Zerga izaerarik ez duten sarrerak, toki entitateak zuzeneko ordainik gabe jasotakoak, kapital eragiketak finantzatzera bideratuak. Kapitulu honetan bildutako artikuluen egitura 4. kapituluak duenaren antzekoa da, zenbakikuntza eta eduki aldeak salbu, eta transferentzia egiten duen agenteari dagokion lurralde eremua bilduko du, hori erakunde edo entitate publikoa denean. Kasu honetan, kontzeptuak adieraziko du zein den erakundea.

C. FINANTZA ERAGIKETAK.

Finantza eragiketak, bai epe laburrekoak (urtebeteko epea gainditzen ez dutenak), bai epe luzekoak (urtebeteko epea gainditzen dutenak), biltzen dira 8. kapituluan, «Finantza aktiboak», eta 9. kapituluan, «Finantza pasiboak». 8. kapituluak finantza aktiboen besterenganatzeak eta entitateak eman edo eratutako fidantza, gordailu eta maileguen itzulketak jasoko ditu. 87. artikuluak diruzaintzako gerakinaren aurrekonturako aplikazioak jasoko ditu ekitaldian zehar.

9. kapituluak, «Finantza pasiboak», hitzartutako edota jaulkitako finantza pasiboak jasoko ditu.

8. KAPITULUA
FINANTZA AKTIBOAK.

Epe luzerako eta laburrerako zor, akzio eta obligazioak besterenganatzetik eratorritako sarrerak biltzen ditu, hala barnekoenak nola kanpokoenak, bai eta emandako maileguen itzuleratik eta eratutako gordailu eta fidantzen itzuleratik eratorritako sarrerak ere. Kapitulu honetan diruzaintzako gerakina ere jasotzen da, aurrekontuan izan daitezkeen aldaketen finantzaketarako iturri gisa. Kapitulu honek, era berean, aurrekontua orekatzeko eragiketak jasotzen ditu, enpresa-erakunde publikoetan zein sozietate publikoetan aplika daitezkeenak.

80. artikulua. Epe laburrerako zorra besterenganatzea.

Artikulu honetan, 12 hilabeteko epemuga edo laburragoa duten era guztietako zor, obligazio eta bonuen salmentatik datozen sarrerak sartzen dira. Kontzeptu mailan, bereizi egingo da udal sektore publikokoa den ala ez.

81. artikulua. Epe luzerako zorra besterenganatzea.

Artikulu honetan 12 hilabetetik gorako epemuga duten era guztietako zor, obligazio eta bonuen salmentatik datozen sarrerak sartzen dira. Kontzeptu mailan, bereizi egingo da udal sektore publikokoa den ala ez.

82. artikulua. Epe laburrerako aurrerakin eta maileguen itzulera.

Artikulu honetan 12 hilabeteko epemugaz edo laburragoaz emandako mailegu eta aurrerakinetatik datozen sarrerak sartzen dira. Kontzeptu mailan, bereizi egingo da udal sektore publikokoa den ala ez. Azpikontzeptu mailan, bereizi egingo dira erakundeko pertsonalaren aurrerakin eta maileguak eta bestelakoak.

83. artikulua. Epe luzerako aurrerakin eta maileguen itzulera.

Artikulu honetan 12 hilabetetik gorako epemugaz emandako mailegu eta aurrerakinetatik datozen sarrerak sartzen dira. Kontzeptu mailan, bereizi egingo da udal sektore publikokoa den ala ez. Azpikontzeptu mailan, bereizi egingo dira erakundeko pertsonalaren aurrerakin eta maileguak eta bestelakoak.

85. artikulua. Akzioak besterenganatzea.

Artikulu honetan enpresen kapital jabetzaren ordezkatzaile diren tituluen salmentatik datozen sarrerak sartzen dira. Kontzeptu mailan, bereizi egingo dira udal sektore publikoarenak diren enpresak eta eremu honen barnean ez daudenak.

86. artikulua. Eratutako gordailu eta fidantzen itzulketa.

Artikulu honetan, erakundeak egindako gordailu eta fidantzen itzulketatik datozen sarrerak jasotzen dira. Kontzeptu mailan bereizi egingo dira gordailuak eta fidantzak, eta azpikontzeptu mailan, 12 hilabeteko epeaz edo laburragoaz eratutakoak.

87. artikulua. Diruzaintzako gerakina.

Kreditu-aldakuntzak finantzatzeko baliabide gisa erabiltzen den diruzaintzako gerakinaren zatia sartuko da. Gerakin horren aplikazio bakoitza azpikontzeptuka bereiziko da, gastu orokorrak finantzatzeko edota finantzaketa lotua duten gastuak finantzatzeko erabili den arabera. Baliabide honen izaera eta sarreren aurrekontuan aurreikusitako gainerako baliabideena desberdina da. Dagoeneko sortutako baliabideak dira eta, beraz, ez da bidezko eskubideak aitortzea eta are gutxiago horiek biltzea.

88. artikulua. Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak.

Artikulu hau bakar-bakarrik enpresa-erakunde publikoei eta sozietate publikoei dagokie. Erakunde horien eragiketa komertzialen saldoa jasotzen du. Enpresa-erakunde publiko eta sozietate publikoen kasuan, egoera-orriak abiapuntutzat hartuz aurrekontu administratiboa lortu, eta honetan ateratzen den sarreren eta gastuen arteko hasierako aldea egotziko zaio artikulu honi, dagokion zeinuaz.

9. KAPITULUA
FINANTZA PASIBOAK.

Kapitulu honetan toki entitateen finantzaketa biltzen da, zor publikoaren jaulkipenetik eta jasotako maileguetatik datorrena, haien izaera eta itzulera-epea dena delarik. Izaera honetako sarrerek, artikulu eta kontzeptutan zehaztuta, ondokoak jasotzen dituzte:

90. artikulua. Epe laburrerako zorraren jaulkipena.

Titulu-baloreetan dokumentatuta dagoen eta 12 hilabeteko epemuga edo laburragoa duen zorra jaulkitzetik datozen sarrerak jasotzen ditu.

91. artikulua. Epe luzerako zorraren jaulkipena.

Titulu-baloreetan dokumentatuta dagoen eta 12 hilabeteko epemuga baino luzeagoa duen zorra jaulkitzetik datozen sarrerak jasotzen ditu.

92. artikulua. Jasotako epe laburreko maileguak.

Jasotako maileguetatik eratorritako sarrerak, hamabi hilabeteko eperako edo laburragorako kontratatu direnenak.

Azpikontzeptu mailan, udal sektore publikoak eta bestelakoek kontratatutakoak bereiziko dira.

93. artikulua. Jasotako epe luzeko maileguak.

Jasotako maileguen bidez lortutako sarrerak, 12 hilabetetik gorako eperako kontratatutakoenak.

Azpikontzeptu mailan, udal sektore publikoarekin kontratatuak eta bestelakoak bereiziko dira.

Ikus Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 31ko 14/2023 Foru Dekretuaren artikulu bakarra, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuaren 2. eranskina aldatzen duena. Horren bidez, Bizkaiko toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua onartzen da (otsailaren 2ko «BAO»). Bertan, honako hau ezarri da:

«Ezaugarri bereziak dituen 112.03 azpikontzeptua sortzen da, eta toki erakundeen aurrekontuko sarreren azken sailkapen ekonomikoan txertatzen da (2. eranskina, toki erakundeen aurrekontu-egitura, 1. zenbakia), Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko toki erakundeen kontabilitateko arau esparrua onartzen duena.»

TOKI ENTITATEEN AURREKONTUKO SARREREN SAILKAPEN EKONOMIKOA

Kapitulua	Artikulua	Kontzeptua	Azpikontzeptua	Izendapenak
1				**1. KAPITULUA ZUZENEKO ZERGAK**
	11			**Kapitalaren gainekoak:**
		112		Ondasun Higiezinen gaineko Zerga:
			112.01	- Landa ondasunak.
			112.02	- Hiri ondasunak.
			112.03	- Ezaugarri berezikoak
		113		Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.
		114		Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga.
	13			**Jarduera Ekonomikoen gainekoak**.
		130		Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
			130.01	- Enpresa jarduerak.
			130.02	- Lanbide eta arte jarduerak.
	19			**Iraungitako zuzeneko zergak:**
		190		Produkzioari loturiko zergak.
		191		Kapitalaren gaineko zergak.
2				**2. KAPITULUA ZEHARKAKO ZERGAK**
	28			**Bestelako zeharkako zergak:**
		282		Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
		283		Luxuzko gastuen gaineko zerga:
			283.01	- Ehiza eta arrantza barrutiak.
		284		Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga.
	29			**Iraungitako zeharkako zergak.**

		290		Ekoizpenari lotutako zergak.
		291		Errenta, ondare eta kontsumoaren gaineko zergak.
3				**3. KAPITULUA TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK**
	30			**Salmentak.**
	31			**Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasak:**
		310		Zerbitzu orokorrak.
			310.01	- Zaborrak eta hiri hondakin solidoak etxez etxe biltzea.
			310.02	- Estolderia zerbitzua eta azpiegitura hidraulikoak finantzatzeko kanona.
			310.03	- Udal hilerriak eta bestelako hileta zerbitzuak.
			310.04	- Agiriak egitea.
			310.05	- Ibilgailuak bide publikotik jaso eta kentzea.
			310.06	- Hiriko trafikoa arautu eta kontrolatzeko jarduera bereziak.
			310.07	- Plakak, patenteak eta bestelako bereizgarriak.
			310.08	- Suteen prebentzioa eta itzaltzea.
			310.09	- Udalaren ur hornikuntza eta azpiegitura hidraulikoak finantzatzeko kanona.
			310.10	- Udalaren kirol instalazioak.
			310.11	- Irakaskuntza bereziak.
			310.12	- Laguntza eta egonaldiak etxebizitza eta egoitzetan.
			310.13	- Zaborren eta industriako zaborren hondakindegi kontrolatuak.
			310.14	- Haurtzaindegiak.
			310.15	- Etxez etxeko laguntza eta bestelako gizarte zerbitzuak.
			310.16	- Kultur zerbitzuak.
			310.17	- Udalaren gas hornikuntza.
			310.18	- Udalaren argindar hornikuntza.
			310.19	- Garraio publikoa.
			310.99	- Zerbitzu orokorrengatiko bestelako tasak.
		311		Jarduera ekonomikoen gainekoak.

			311.01	- Establezimenduak irekitzeko lizentzia.
			311.02	- Auto-taxientzako lizentziak eta baimenak.
			311.03	- Lonjak eta merkatuak.
			311.04	- Hiltegiko zerbitzuak.
			311.99	- Jarduera ekonomikoen gaineko bestelako tasak.
		312		Higiezinen jabetzaren gainekoak.
			312.01	- Hirigintzako baimenak ematea.
			312.99	- Higiezinen jabetzarengatiko bestelako tasak.
	32			**Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak.**
		320		Zerbitzu orokorrak.
			320.01	- Ibilgailuak bide publikoan aparkatzea.
			320.02	- Erretenen hustubideak eta antzeko instalazioak.
			320.03	- Oholtzen edo tribunen instalazioa.
			320.04	- Zerbitzu orokorrengatiko bestelako tasak.
		321		Jarduera ekonomikoari laguntzen edo eragiten diotenak.
			321.01	- Energia elektrikoa edo edozein fluido eramateko lineak, hodiak eta galeriak.
			321.02	- Bide publikoko kioskoak.
			321.03	- Bide publikoan jarritako hesiak, aldamioak, edukiontziak, eraikuntzako materialak etab.
			321.04	- Mahaiak eta aulkiak.
			321.05	- Postuak, barrakak eta zineko filmatze lanak.
			321.06	- Portadak, erakusleihoak eta bitrinak.
			321.07	- Kalikatak eta zangak irekitzea.
			321.08	- Hodien, hari eroaleen, harien eta biltegien instalazioa.
			321.09	- Hornikuntza enpresek lurzorua, zorupea eta hegalkinak okupatzea.
			321.99	- Jarduera ekonomikoari laguntzen edo eragiten dioten bestelako tasak.

		322		Higiezinen jabetzari laguntzen edo eragiten dioten bestelako tasak.
			322.01	- Ibilgailuak espaloietatik edo bide publikoko erreserbetatik zehar sartzea aparkalekuetara.
			322.99	- Higiezinen jabetzari laguntzen edo eragiten dioten bestelako tasak.
	34			**Toki eskuduntzako zerbitzuak edo jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak:**
		340		Zerbitzu orokorrak.
		341		Jarduera ekonomikoen onerako direnak.
		342		Higiezin jabetzaren onerako direnak.
	36			**Kontribuzio bereziak.**
		360		Obrak exekutatzeko.
		361		Zerbitzuak jarri edo handiagotzeko.
	38			**Eragiketa arrunten itzulketak:**
		380		Eragiketa arrunten itzulketak.
	39			**Bestelako sarrerak:**
		391		Isunak.
		392		Epealdi exekutiboko errekargua, eta aurretiazko errekerimendurik gabeko aitorpena epez kanpo aurkezteagatik ezarritakoa.
		393		Berandutza interesak.
		394		Pertsonal prestazioa.
		395		Garraio prestazioa.
		396		Konpentsazioak.
		399		Beste hainbat sarrera.
4				**4. KAPITULUA TRANSFERENTZIA ARRUNTAK**
	40			**Estatukoak:**
		400		Estatuaren administrazio orokorrarenak:
			400.01	- Itundu gabeko zergetako partaidetza.
		401		Erakunde autonomoenak.
		402		Gizarte Segurantzarenak.
		403		Sozietate publiko eta enpresa-entitate publikoenak.
		404		Autonomia erkidegoenak.

		405		Aldundienak.
		409		Beste entitate publiko batzuenak.
	41			**Euskal Autonomia Erkidegokoak:**
		410		Administrazio orokorrarenak.
		411		Erakunde autonomoenak.
		412		Ente publikoenak.
		414		Sozietate publiko eta enpresa-entitate publikoenak.
		416		Foru Aldundi eta bestelako foru enteenak.
		417		Toki entitateenak.
		419		Beste entitate publiko batzuenak.
	42			**Lurralde historikokoak.**
		420		Foru Aldundiarenak eta bestelako foru enteenak.
			420.01	- Itundutako zergetako partaidetza.
			420.99	- Beste transferentzia batzuk.
		421		Mankomunitate eta kontsortzioenak.
		422		Beste entitate publiko batzuenak.
	43			**Udalerrikoak:**
		430		Udal entitatearen administrazioarenak.
		431		Erakunde autonomoenak.
		432		Enpresa-entitate publikoenak.
		433		Entitatearen sozietate publikoenak.
		434		Udalaz behetiko eremuko beste entitate batzuenak.
		435		Menpeko beste entitate batzuenak.
		436		Beste entitate batzuenak.
	47			**Enpresenak.**
		470		Enpresa partizipatuenak.
		471		Bestelako enpresenak.
	48			**Familienak eta irabazizko xederik gabeko erakundeenak.**
		480		Familienak.
		481		Irabazi asmorik gabeko erakundeenak.
	49			**Kanpokoak:**
		490		E.G.F.
		491		E.G.A.E.F.

		492		E.N.O.G.A.F.
		493		Komunitatearen beste fondo batzuenak.
		499		Bestelakoak.
5				**5. KAPITULUA** **ONDARE SARRERAK**
	50			**Balore-tituluen interesak:**
		500		Erakunde publikoek estatuan jaulkitakoak.
		501		Erakunde publikoek Euskal Autonomia Erkidegoan jaulkitakoak.
		502		Erakunde publikoek lurralde historikoan jaulkitakoak:
		503		Udalerriko erakunde publikoek jaulkitakoak.
		504		Enpresek jaulkitakoak.
			504.01	- Enpresa partizipatuenak.
			504.02	- Bestelako enpresenak.
	51			**Epe luzeko aurrerakinen eta maileguen interesak:**
		510		Estatuaren erakunde publikoei:
		511		Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei.
		512		Lurralde historikoko erakunde publikoei.
		513		Udalerriko erakunde publikoei.
		514		Enpresei.
			514.01	- Partizipatutako enpresei.
			514.02	- Beste enpresa batzuei.
		515		Familiei.
	52			**Epe laburreko aurrerakin eta maileguen interesak:**
		520		Estatuaren erakunde publikoei:
		521		Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei.
		522		Lurralde historikoko erakunde publikoei.
		523		Udalerriko erakunde publikoei.
		524		Enpresei.
			524.01	- Partizipatutako enpresei.
			524.02	- Beste enpresa batzuei.
		525		Familiei.

	53			**Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak:**
		530		Enpresa-entitate publikoenak.
		531		Udal enpresenak.
		532		Beste enpresa batzuenak.
	54			**Ondasun higiezinen errentak:**
		540		Hiri-finken errentamenduaren emaitza.
		541		Landa-finken errentamenduaren emaitza.
		542		Negozio-lokalen eskualdaketako partaidetza.
		543		Negozio-lokalen esleipen eta enkantea.
		544		Zentsuak.
		549		Bestelakoak.
	55			**Emakida eta aprobetxamendu berezien emaitzak.**
		550		Emakida administratiboak.
		551		Nekazaritza eta baso aprobetxamenduak.
		552		Aprobetxamendu bereziak.
		553		Ustiapenak.
		559		Bestelakoak.
	56			**Gordailuen interesak.**
	59			**Bestelako ondare sarrerak.**
6				**6. KAPITULUA** **INBERTSIO ERREALAK BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK**
	60			**Lurrena:**
		600		Orubeak.
		601		Landa-finkak.
		603		Lurzoruaren ondare publikoa
		609		Bestelakoak.
	61			**Gainerako inbertsio errealena:**
		612		Eraikinena eta bestelako eraikuntzena.
			612.01	Lurzoruaren ondare publikoko eraikin eta bestelako eraikuntzena.
			612.02	Bestelako eraikin eta eraikuntzena.

		613		Makineria, instalazio eta tresneriarena:
			613.01	- Makineriarena.
			613.02	- Instalazioena.
			613.03	- Barne-garraiorako elementuena.
			613.04	- Tresna eta erremintena.
		614		Garraio-materialena.
		615		Altzari eta lanabesena:
			615.01	- Altzariena.
			615.02	- Bulego ekipamenduena.
			615.09	- Bestelako lanabesena.
		616		Informazio-prozesuetarako ekipamenduena.
		617		Proiektu konplexuena.
		618		Funts bibliografikoena.
		619		Bestelako inbertsio errealena.
	65			**Hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako sarrerak:**
		650		Hiritartze kuotak.
		651		Hirigintzako aprobetxamenduak.
	68			**Kapital eragiketen itzulketak:**
		680		Kapital eragiketen itzulketak.
7				**7. KAPITULUA KAPITAL TRANSFERENTZIAK**
	70			**Estatukoak:**
		700		Estatuaren administrazio orokorrarenak.
		701		Erakunde autonomoenak.
		702		Gizarte Segurantzarenak.
		703		Sozietate publiko eta enpresa-entitate publikoenak.
		704		Autonomia erkidegoenak.
		705		Aldundienak.
		709		Beste entitate publikoenak.
	71			**Euskal Autonomia Erkidegokoak.**
		710		Administrazio orokorrarenak.
		711		Erakunde autonomoenak.
		712		Ente publikoenak.
		714		Sozietate publiko eta enpresa-entitate publikoenak.

		716		Foru Aldundienak eta bestelako foru enteenak.
		717		Toki entitateenak.
		719		Beste entitate publiko batzuenak.
	72			**Lurralde historikokoak.**
		720		Foru Aldundiarenak eta bere foru enteenak:
			720.01	- Obra eta zerbitzuetako foru plana.
			720.99	- Beste transferentzia batzuk.
		721		Mankomunitate eta kontsortzioenak.
		722		Beste entitate publikoenak.
	73			**Udalerrikoak:**
		730		Udal entitatearen administrazioarenak.
		731		Erakunde autonomoenak.
		732		Enpresa-entitate publikoenak.
		733		Entitatearen sozietate publikoenak.
		734		Udalaz behetiko eremuko beste entitate batzuenak.
		735		Menpeko beste entitate batzuenak.
		736		Beste entitate batzuenak.
	77			**Enpresenak:**
		770		Partizipatutako enpresenak.
		771		Beste enpresa batzuenak.
	78			**Familienak eta irabazizko xederik gabeko erakundeenak.**
		780		Familienak.
		781		Irabazi asmorik gabeko erakundeenak.
	79			**Kanpokoak:**
		790		E.G.F.
		791		E.G.A.E.F.
		792		E.N.O.G.A.F.
		793		Komunitatearen beste fondo batzuenak.
		799		Bestelakoak.
8				**8. KAPITULUA FINANTZA AKTIBOAK**
	80			**Epe laburrerako zorra besterenganatzea:**
		802		Tokiko sektore publikokoa.

		803		Tokiko sektore publikoaren kanpotikoa.
	81			**Epe luzerako zorra besterenganatzea:**
		812		Tokiko sektore publikokoa.
		813		Tokiko sektore publikoaren kanpotikoa.
	82			**Epe laburrerako aurrerakin eta maileguen itzulera:**
		822		Tokiko sektore publikokoa.
		823		Tokiko sektore publikoaren kanpotikoa.
			823.01	- Pertsonalaren aurrerakinak.
			823.02	- Beste aurrerakin eta mailegu batzuk.
	83			**Epe luzerako aurrerakin eta maileguen itzulera:**
		832		Tokiko sektore publikokoa.
		833		Tokiko sektore publikoaren kanpotikoa.
			833.01	- Pertsonalaren aurrerakinak.
			833.02	- Beste aurrerakin eta mailegu batzuk.
	85			**Akzioak besterenganatzea:**
		852		Tokiko sektore publikokoak.
		853		Sektore publikoaren kanpotikoak.
	86			**Eratutako gordailu eta fidantzen itzulketa.**
		860		Fidantzak itzultzea:
			860.01	- Epe laburrera.
			860.02	- Epe luzera.
		861		Gordailuak itzultzea:
			861.01	- Epe laburrera.
			861.02	- Epe luzera.
	87			**Diruzaintzako gerakina:**
		870		Diruzaintzako gerakina:
			870.01	- Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako.
			870.02	- Diruzaintzako gerakina, finantzaketa lotua duen gastuetarako.
	88			**Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak:**

		880		Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak.
9				**9. KAPITULUA FINANTZA PASIBOAK**
	90			**Epe laburrerako zorraren jaulkipena:**
		902		Epe laburrerako.
	91			**Epe luzerako zorraren jaulkipena:**
		912		Epe luzerako.
	92			**Jasotako epe laburreko maileguak**.
		922		Tokiko sektore publikoaren barnekoak.
		923		Tokiko sektore publikotik kanpokoak.
	93			**Jasotako epe luzerako maileguak**.
		932		Tokiko sektore publikoaren barnekoak.
		933		Tokiko sektore publikotik kanpokoak.

2. TOKI ENTITATEEN AURREKONTUKO GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOA.

Agiri honek toki entitateen eta aurrekontu mugatzailea duten menpeko organismoen gastuen sailkapen ekonomikoaren egitura garatzen du, kapitulu, artikulu eta kontzeptu bakoitzaren ondoren berauei egoz dakizkiekeen sarrera motak zerrendatuz, bakoitzari dagokion xehetasun mailarekin.

Eragiketa arruntak (1.tik 5.era bitarteko kapituluak), kapital eragiketak (6. eta 7. kapituluak) eta finantza eragiketak bereizi dira (8. eta 9. kapituluak). Kode honek izaera itxia eta derrigorrezkoa du kapitulu eta artikulu mailetan.

Kontzeptuari eta azpikontzeptuari dagokienez, irekitzat hartzen da. Horrenbestez, toki entitate bakoitzak beharrezkotzat jo adina epigrafe sor dezake maila hauetan, bere premien arabera edo, hala egokituz gero, bere antolakuntza erregelamendu edo dekretuei jarraiki.

Hala eta guztiz ere, udal administrazioaren berezitasuna dela eta, erabilera orokorrekotzat jotzen diren kontzeptu eta azpikontzeptu batzuk tipifikatu eta kodetzen dira. Toki entitateak kontzeptu eta azpikontzeptu tipifikatu horien araberako sailkapena egitea erabakitzen badu, aurreikusitako kodeketa-zenbakiak esleitu beharko ditu derrigorrean.

A. ERAGIKETA ARRUNTAK.

Gastuen aurrekontuak, 1.etik 5.era bitarteko kapituluetan, eragiketa arruntengatiko gastuak sailkatzen ditu, zerbitzuen funtzionamendu gastuak (pertsonala eta ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak), finantza gastuak eta transferentzia arruntak bereiziz.

5. kapituluak kreditu globalarentzako zuzkidura jasoko du. Horrekin batera jasoko du, baita ere, hautazkoak ez diren eta hasieran onartutako aurrekontuan aurreikusi gabeko premiei aurre egiteko zuzkidura, horrelakorik gertatuz gero ekitaldian zehar.

Kapitulu, artikulu eta kontzeptu bakoitzari aplikagarri zaizkion gastuak leku egokian deskribatzen dira, toki entitateek, era berean, kredituak azpikontzeptu eta azpipartidatan xehatu ditzaketela kontuan hartuz, aurrekontua hobeto kudeatu eta kredituak era egokian administratu eta kontabilizatzearren.

1. KAPITULUA
PERTSONAL GASTUAK.

Kapitulu honi ondorengo gastuak aplikatuko zaizkio:

- Toki entitateek beren pertsonal guztiari hark egindako lanagatik dirutan eta gauzatan ordaindu beharreko ordainsari eta kalte-ordain oro, errendimendurako pizgarriak barne.

- Toki entitateek gizarte aurreikuspeneko «Elkarkidetza» erregimenari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko derrigorrezko kotizazioak.

- Gizarte prestazioak, familia kargen zioz eman beharreko mota orotako pentsio eta ordainketak biltzen dituztenak.

- Toki entitateek beren pertsonalarentzat egindako beste hainbat gastu, gizarte izaerakoak direnak eta indarrean dauden erabaki eta xedapenak betez burutuak.

10. artikulua. Gobernu organoak eta zuzendaritzako pertsonala.

Hautapenezko karguen honako ordainketa-kontzeptu hauek biltzen ditu:

- Oinarrizko ordainketak.

- Bestelako ordainsariak.

100. kontzeptua. Oinarrizko ordainketak eta bestelako ordainsariak.

Hautapenezko karguei edozein kontzepturengatik ematen zaizkien ordainsari guztiak biltzen ditu.

11. artikulua. Behin-behineko pertsonala.

Entitatearen organo eskudunak izendatu eta, indarrean dauden xedapenen arabera, izendapen hori egin zuen agintariak kargua uzten duenean berak ere kargua automatikoki utziko duen behin-behineko pertsonalaren oinarrizko ordainketak eta bestelako ordainsariak biltzen ditu.

110. kontzeptua. Oinarrizko ordainketak eta bestelako ordainsariak.

Kontzeptu honen kargura ordainduko dira indarrean dagoen araudiaren arabera pertsonal honi dagozkion ordainsari guztiak.

12. artikulua. Funtzionarioak eta estatutarioak.

Artikulu honi funtzionario pertsonalaren ondorengo ordainketa kontzeptuak egotziko zaizkio, «praktiketako» egoera administratiboan dagoen pertsonalarenak barne:

- Oinarrizko ordainketak.

- Ordainketa osagarriak.

- Gauzazko ordainketak.

- Praktiketako funtzionarioen ordainketak.

120. kontzeptua. Oinarrizko ordainketak.

Honako hauek biltzen ditu:

- Soldata.
- Hirurtekoak.
- Aparteko pagak.

Azpikontzeptuak ezarri ahal izango dira soldata eta hirurtekoen arteko bereizketa egiteko. Kasu honetan, aparteko pagek soldata eta hirurtekoen arteko bereizketa egingo dute, horiek dagozkien azpikontzeptuei egotziz.

121. kontzeptua. Ordainketa osagarriak.

Ondokoak ordaintzeko kredituak biltzen ditu:

- Destino-osagarria.
- Berariazko osagarria.
- Produktibitate osagarria.
- Haborokinak.

122. kontzeptua. Gauzazko ordainketak.

Funtzionarioei erregelamenduzko gauzazko ordainketa jakin batzuk ematera bideraturiko kredituak, ordainketa horiek izaera pertsonalekoak izateaz gain ezin badira funtzionario multzoaren gizarte gastutzat hartu, hala nola: garraiobideetarako txartelak, arropa, etxebizitza eta abarrengatiko kalte-ordainak.

123. kontzeptua. Praktiketako funtzionarioen ordainketak.

Praktikaldia derrigorrezkoa dela eta, oraindik karguaren jabetza hartzerik izan ez duten funtzionarioen esleipenak ordaintzera bideratutako kredituak.

13. artikulua. Pertsonal laborala.

Aplikagarri zaizkien hitzarmen kolektibo edo arau laboralen indarrez udal entitateen zerbitzura dagoen pertsonal laboralari eman beharreko mota orotako ordainketa eta kalte-ordainak biltzen ditu artikulu honek.

130. kontzeptua. Laboral finkoa.

Pertsonal laboral finkoaren ondorengo ordainsariak jasotzen ditu:

- 130.01 azpikontzeptua. Oinarrizko ordainketak.

Kasuan kasuko hitzarmen kolektiboan edo derrigorrez bete beharreko lan arauetan horrelakotzat jasota dauden ordainketak.

- 130.02 azpikontzeptua. Bestelako ordainsariak.

Pertsonal laboral finkoari aplikagarri zaion araudiaren arabera ordaindu behar zaizkion ordainketa guztiak, aurreko azpikontzeptuan sarturik ez daudenak, biltzen ditu.

Kontzeptu honetan ez dira sartuko zerbitzu-ordutegian zehar uniformeak erabili beharra ezartzen zaion pertsonal laboralaren arropetarako bideraturiko kredituak, ez eta bidaia dietak eta lokomozio gastuak ere. Kasu horietan, dagozkion kredituak 2. kapituluan -Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak- sartu behar dira.

131. kontzeptua. Aldi baterako pertsonala.

Kontzeptu honetan aldi baterako pertsonalari dagozkion ordainsariak sartzen dira, aplikagarri zaion araudiaren arabera.

132. kontzeptua. Gauzazko ordainketak.

Kontzeptu honetan gauzazko ordainketak sartzen dira.

14. artikulua. Bestelako pertsonala.

Noizbehinkako zereginetan edo zeregin ezohikoetan laguntzen duen pertsonalaren ordainketak.

Indarrean dagoen legeriaren arabera kontratatutako pertsonalaren ordainketak. Artikulu honek ez du bitarteko funtzionarioei ordaintzera bideraturiko krediturik jasotzen, funtzionario horiek karrerako pertsonal funtzionarioaren lanpostuetan bete gabe dauden postuengatiko zuzkidura libreen kargura jaso beharko baitituzte beren zerbitzu-sariak.

141. kontzeptua. Bestelako pertsonala.

Kontzeptu honi kapitulu honetako gainerako kontzeptuetan lekurik ez duten pertsonalaren ordainketak egotziko zaizkio.

16. artikulua. Enplegu-emailearen kargurako gizarte kuota, prestazio eta gastuak.

Enplegu-emailearen kargurako gizarte aseguru, prestazio eta bestelako gizarte gastuen kuotak biltzen ditu.

160. kontzeptua. Gizarte kuotak.

Toki entitateek beren zerbitzura dagoen pertsonalaren Gizarte Segurantza eta aurreikuspen erregimenei egindako ekarpenak, eta gizarte aurreikuspeneko erregimenek estaltzen ez dituzten eta toki entitateek beren gain hartzen dituzten pertsonalaren gastu mediku-farmazeutikoak. Udal langileei egindako azterketa medikuak ere sartuko dira.

Honako azpikontzeptu hauek biltzen ditu:

- 160.01 azpikontzeptua. Gizarte Segurantza.
- 160.03 azpikontzeptua. Mutualitateak.
- 160.04 azpikontzeptua. Elkarkidetzaren kuotak.
- 160.05 azpikontzeptua. Asistentzia mediku-farmazeutikoa.

161. kontzeptua. Gizarte prestazioak.

Indarrean dagoen araudiaren arabera Toki entitateak bere klase pasiboen alde ordaindu behar dituen pentsioen osagarriak edo hobekuntzak dira. Halaber, titulu pertsonalez emandako aparteko pentsioak, familia osagarria eta pentsiodunen bestelako gastuak.

Honako azpikontzeptu hauek jasotzen ditu:

- 161.02 azpikontzeptua. Entitatearen kargurako pentsioak, indarrean dagoen araudiaren arabera Toki entitateak bere gain hartu behar dituenak.

Pentsiodunen familia osagarria ere hartuko du.

- 161.03 azpikontzeptua. Erretiro aurreratuen kalte-ordainak.

- 161.04 azpikontzeptua. Pentsiodunentzako asistentzia mediku-farmazeutikoa.

Lege edo erregelamenduzko aginduz bidezko dena.

162. kontzeptua. Funtzionarioen eta pertsonal ez-laboralaren gastuak.

Ondokoak biltzen ditu:

- Gizarte ekintzarako zerbitzuak, hala nola prestakuntza, kultur, kirol edo aisia zerbitzuak etab.

- Pertsonal garraioa: Pertsonala lantokira eramateko gastuak, betiere pertsonal funtzionario eta ez-laboralaren garraioari badagozkio, eta 122. kontzeptuari egotzi behar ez bazaizkio.

- Toki entitatearen zerbitzura dagoen pertsonalak lanean jasaten dituen ezbeharrak estaltzeko istripu edo bizi aseguruak, aipatutako estaldura beharrezko bihurtzen duten zertzeladak biltzen dituzten funtzioak betetzen dituztenean hain zuzen.

Honako azpikontzeptu hauek irekiko dira:

- 162.01 azpikontzeptua. Prestakuntza.

- 162.03 azpikontzeptua. Pertsonal garraioa.

- 162.04 azpikontzeptua. Gizarte ekintza.

- 162.05 azpikontzeptua. Aseguruak.

163. kontzeptua. Pertsonal laboralaren gizarte gastuak.

Aurreko 162.kontzeptuan adierazitako gastuak biltzen ditu, kasu honetan pertsonal laboralari egoztekoak direnak.

Honako azpikontzeptu hauek irekiko dira:

- 163.01 azpikontzeptua. Prestakuntza.

- 163.03 azpikontzeptua. Pertsonal garraioa.

- 163.04 azpikontzeptua. Gizarte ekintza.

- 163.05 azpikontzeptua. Aseguruak.

164. kontzeptua. Familia osagarria.

Pertsonalaren familia zamak direla medio ematen den ordainsari osagarria jasotzen du.

2. KAPITULUA

ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA.

Kapitulu honek programak burutzeko beharrezko ondasun arrunt eta zerbitzuak eskuratzera bideratutako kredituak biltzen ditu, kapital edo ondare publikoaren gehikuntzarik sortzen ez dutenak.

Ondorengo ezaugarriren bat biltzen duten ondasunak eskuratzeko sortutako gastuak egotzi ahal izango zaizkie kapitulu honetako kredituei.

a) Ondasun suntsikorrak izatea.

b) Ondasun horiei urtebetetik beherako iraupena aurreikustea.

c) Inbentarioan sartzeko modukoak ez izatea.

d) Gastuak ziur aski errepikakorrak izatea.

Horrez gain, izaera errepikakorra izan dezaketen, amortizagarriak ez diren eta inbertsioen burutzapenarekin zuzeneko erlaziorik ez duten gastu immaterialak ere kapitulu honi aplikatuko zaizkio.

20. artikulua. Errentamenduak.

Ondasun higigarri eta higiezinen alogeragatik sortutako izaera honetako gastuak. Honako hauek sartzen dira, besteak beste: lur, eraikin eta lokalen errentamendua, informatika eta datu transmisiorako tresnerien alogera, makineria eta garraio-materialaren alogera eta gastu itunduak.

Atal honetan ez dira sartuko ordainketa geroratuaren bidez aktiboak eskuratzea helburu duten kontratuetatik ondorioztatzen diren gastuak.

200. kontzeptua. Lur eta ondasun naturalak.

Orube, landa-finka eta bestelako lurren errentamenduak sorrarazitako gastuak.

201. kontzeptua. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.

Eraikinen eta bestelako eraikuntzen, hala nola zerbitzugintzarako eraikin, ikuskizun-areto, museo, biltegi eta abarren alokatze kontratuetatik eratorritako gastuak; horiei lotu behar zaizkie, halaber, errentamenduarekin ordaintzen diren zerbitzu atxikiak, hala nola beroketa, hozketa, ura, argiztapena eta garbiketa aseguruak, besteak beste.

202. kontzeptua. Makineria, instalazioak eta tresneria.

Eite honetako gastuak oro har, inbertsio artapen eta konponketan erabilitako ekipamenduen gastuak barne.

203. kontzeptua. Garraio-materiala.

Pertsonak edo salgaiak garraiatzeko erabil daitezkeen mota guztietako ibilgailuen alogeraren gastuak.

204. kontzeptua. Altzariak eta lanabesak.

Altzari, bulegorako ekipamendu, material eta abarren alogera gastuak.

205. kontzeptua. Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.

Ekipamendu informatikoen, datuak transmititzekoen eta beste ekipamendu berezi batzuen alogera, sistema operatibo, datu-baseak kudeatzeko aplikazio eta bestelako ekipamendu informatiko eta softwarearen alogerarekin batera.

209. kontzeptua. Bestelako ibilgetu materiala.

Aurreko kontzeptuetan sartu ez den hainbat ibilgeturen alogera.

21. artikulua. Konponketak, mantentzea eta artapena.

Azpiegitura, eraikin eta lokal, makineria, garraio-material eta bestelako ibilgetu materialaren mantentze eta artapen gastuak egotziko zaizkio artikulu honi, 20 artikuluan adierazitako kontzeptu berberetan xehatuta.

Arau orokor gisa, balio igoerarik dakarten edo kapital ondasunak guztiz eraldatzen dituzten konponketa garrantzitsuak inbertsio gisa zenbatuko dira 6. kapituluaren barnean. Alabaina, kapital ondasunen artapen, zaintza eta konponketan sortzen diren konponketa eta berreraikuntza obretarako kredituak artikulu honetan bilduko dira.

210. kontzeptua. Azpiegitura eta ondasun naturalak.

Azpiegituren eta ondasun naturalen mantentze eta artapen gastuak.

211. kontzeptua. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.

Higiezin propioen zein errentan hartutakoen artapen eta konponketa gastuak. Erreforma eta handitze garrantzitsuak (azalera gehikuntza, beroketa zentraleko edo aire girotuko sistemak instalatzea, etab.) kanpo utziko dira, 6. kapituluan zuzkituko dira eta.

212. kontzeptua. Makineria, instalazioak eta tresneria.

Makina, instalazio eta tresneriaren azterketa, artapen eta mantentzea.

213. kontzeptua. Garraio-materiala.

Ibilgailuen eta gainerako garraio-materialaren azterketa, konponketa eta artapena.

214. kontzeptua. Altzariak eta lanabesak.

Altzari eta lanabesen azterketa, artapen eta mantentzea.

215. kontzeptua. Informazio-prozesuetarako ekipamendua.

Datuak prozesatu eta transmititzeko ekipamenduek eta ekipamendu informatikoek sortzen dituzten mantentze gastuak edo antzeko izaerakoak.

219. kontzeptua. Bestelako ibilgetu materiala.

Aurreko kontzeptuetan sartu ez den hainbat ibilgeturen konponketa eta artapen gastuak.

22. artikulua. Materiala, hornidurak eta bestelakoak.

220. kontzeptua. Bulego materiala.

Izaera honetako gastuak ondorengo azpikontzeptuotan zehaztuko dira:

- 220.01 azpikontzeptua. Material arrunt ez-inbentariagarria.

Funtzionamendu administratiborako beharrezkoa izanik, suntsikortzat jo daitekeen bulego-material ez-inbentariagarriaren gastuak. Inbertsiotzat hartzen ez den bulegorako berariazko materialaren eskuratzea egotziko zaio kontzeptu honi, hala nola papera, idazmakinarako zinta, tinta, lumak, gomak, lapitzak, fotokopiagailurako papera, etab.

- 220.02 azpikontzeptua. Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak.

  Inbentariagarritzat hartzen ez diren liburu, argitalpen, aldizkari, buletinetarako inskripzio, edizio-gastu, agiri eta argitalpenen eskuratzea.

- 220.03 azpikontzeptua. Material Informatiko ez-inbentariagarria.

Informatika, transmisio eta bestelako ekipamenduek funtzionatzeko material gastuak, hala nola disketeak, etengabeko papera, software pakete estandarrak etab. eskuratzea.

221. kontzeptua. Hornidurak.

Ur, gas, elektrizitate eta bestelako zerbitzu edo hornikuntzen gastuak, honako azpikontzeptu hauetan bildutako zehaztapenen arabera:

- 221.01 azpikontzeptua. Energia elektrikoa.

- 221.02 azpikontzeptua. Ura.

- 221.03 azpikontzeptua. Gasa.

- 221.04 azpikontzeptua. Erregaiak eta karburanteak.

Azpikontzeptu hauei mota honetako gastuak egozten zaizkie, betiere alogeren prezioan sartuta ez badaude.

- 221.05 azpikontzeptua. Arropak.

  Lanerako behar dituen pertsonalarentzako arropa eta bestelako jantziak.

- 221.06 azpikontzeptua. Elikagaiak.

  Zerbitzugintzarekin (jantoki, udaleku, egoitza eta abarrekin) loturiko kontsumorako elikagaien eskuratzea, elikagaiak edo edariak entitateak berak eskuratzen dituenean.

- 221.07 azpikontzeptua. Animalia mantenua.

- 221.08 azpikontzeptua. Farmazia produktuak eta hemoderibatuak.

  kapituluari aplikatzekoak ez diren sendagai, osasun asistentziarako ekoizkin eta abarren gastuak.

- 221.09 azpikontzeptua. Garbiketa eta txukunketa produktuak.

  Udal areto eta zerbitzuetarako garbiketa eta txukunketa produktuen gastuak.

- 221.10 azpikontzeptua. Etxeko ostilamendua.

  Baxera, mahaiko tresnak, sukaldeko tresnak eta 06 azpikontzeptukoekin loturiko beste hainbat eskuratzeko gastuak, inbentarioan aldaketarik ez dakartenak.

- 221.11 azpikontzeptua. Tresnak eta erremintak.

  Erreminta ez-inbentariagarriak eskuratzeko gastuak.

- 221.12 azpikontzeptua. Osasun materiala.

- 221.99 azpikontzeptua. Bestelako hornidurak.

  Aurreko inolako kontzeptutan sartu ezin diren bestelako gastuak sartzen dira hemen.

222. kontzeptua. Komunikazioak.

Telefono, posta eta telegrafo zerbitzuen eta beste edozein komunikazioren gastuak jasotzen ditu, azpikontzeptuka sailkatuta, mezulari zerbitzuak ere barne hartuta.

Honako azpikontzeptu hauetan xehatuko da:

- 222.01 azpikontzeptua. Telefono bidezkoak.

- 222.02 azpikontzeptua. Posta bidezkoak.

- 222.03 azpikontzeptua. Telegrafikoak.

- 222.04 azpikontzeptua. Telex eta telefax bidezkoak.

- 222.05 azpikontzeptua. Informatikoak.

- 222.99 azpikontzeptua. Bestelako komunikazioak.

223. kontzeptua. Garraioak.

Mota orotako garraioen gastuak, betiere baliabide propioekin egiten ez badira eta toki entitatearen eskuduntzakoak direlako 227. kontzeptuari egoztekoak ez badira. Kasu orotan pertsonalaren garraioa kanpo uzten da, 1. kapituluan kontabilizatuko baita.

224. kontzeptua. Aseguru primak.

Ibilgailu, eraikin eta lokalen, bestelako ibilgetuaren (koadroak, artelanak) eta bestelako arriskuen aseguru gastuak.

- 224.01 azpikontzeptua. Eraikin eta lokalenak.

- Kontratatutako eraikin eta lokalen aseguru polizek sorrarazitako gastuak.

- 224.02 azpikontzeptua. Ibilgailuenak.

- Ibilgailuen aseguru polizek sorrarazitako gastuak.

- 224.03 azpikontzeptua. Bestelako ibilgetuarena.

- Aurreko bietan biltzen ez direnak.

- 224.99 azpikontzeptua. Bestelako arriskuak.

- Aurreko ataletan biltzen ez diren arriskuak estaltzeko aseguru polizen gastuak biltzen ditu, bereziki jasoz koadroak, artelanak etab.

225. kontzeptua. Tributuak.

Estatu, autonomia, foru nahiz udal tasa, kontribuzio eta zergak ordaintzera bideratutako gastuak sartuko dira kontzeptu honetan.

- 225.01 azpikontzeptua. Udal zergak.

- 225.02 azpikontzeptua. Lurralde historikoko zergak.

- 225.03 azpikontzeptua. Autonomia zergak.

- 225.04 azpikontzeptua. Estatu zergak.

226. kontzeptua. Hainbat gastu.

2. kapituluko beste kontzeptuetan sartu ezin diren gastu arrunt guztiak sartuko dira.

Besteak beste honako azpikontzeptu hauetan xehatuko da:

- 226.01 azpikontzeptua. Kanonak.

  Industria jabetza erabiltzeagatiko gastuak, etab.

- 226.02 azpikontzeptua. Protokolo eta ordezkaritza gastuak.

  Harrerak eta hainbat ordezkaritza ekitaldi burutzearen ondorioz sortutako gastuak.

- 226.03 azpikontzeptua. Argitalpenak, publizitatea eta propaganda.

  Zabalkunde gastuak, eta komunitateari Toki entitatearen zerbitzuen berri ematera zuzendutako beste edozein propaganda eta publizitate gastu.

- 226.04 azpikontzeptua. Juridikoak.

  Defentsa juridikorako gastu guztiak eta entitateko ondasun eta eskubideak babesteko antzeko beste edozein gastu sartuko dira.

- 226.05 azpikontzeptua. Bilera eta hitzaldiak.

  Hitzaldiak, batzarrak, kongresuak, sinposiumak, lantaldeak, mintegiak, konbentzioak eta antzeko bilerak antolatu eta burutzeko gastuak.

- 226.06 azpikontzeptua. Jarduera soziokulturalak.

  Herriko jaiak direla eta, jaialdi herrikoietara eta abarretara bideratutako gastuak, betiere kudeaketa toki entitatearen zerbitzuek zuzenean burutzen badute. Kudeaketa partikularrek, auzo-elkarteek, lagunarteek, jai-batzordeek edo izaera pribatuko bestelako elkarteek burutzen dutenean, gastuak 48. artikuluan -Transferentzia arruntak familiei eta irabazizko xederik gabeko erakundeei- artikuluan azalduko dira.

- 226.99 azpikontzeptua. Beste hainbat gastu.

  Aurreko kontzeptuetan sartu ez den beste hainbat gastu.

227. kontzeptua. Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak.

Toki entitateen eskuduntzakoak izanik, kanpoko enpresekiko edo profesional independenteekiko kontrata bidez egiten diren jarduerei dagozkien gastuak sartuko dira.

- 227.01 azpikontzeptua. Garbiketa.

- 227.02 azpikontzeptua. Segurtasuna.

- 227.03 azpikontzeptua. Balorazioak eta peritu-lanak.

- 227.04 azpikontzeptua. Kontratu soziokulturalak.

- 227.05 azpikontzeptua. Zaintza, gordailuak eta biltegiratzea.

- 227.06 azpikontzeptua. Hauteskunde prozesuak.

- 227.07 azpikontzeptua. Azterketa eta lan teknikoak.

Enpresa espezializatuei, profesional independenteei edo adituei agindutako lanetatik eratorritako azterketen, lan tekniko eta laborategikoen, txosten eta lan estatistikoen edo bestelakoen gastuak, inbertsio plan, programa, aurreproiektu eta proiektuei aplikatzen ez zaizkienak, kasu honetan 6. kapituluan azalduko baitira.

Toki entitatearen jarduerarekin zerikusirik duten ikerketa eta azterketa sari, ideia lehiaketa, lan, argitalpen, edizio, erakusketa eta partaidetza kultural, artistiko zientifiko, tekniko, juridiko eta ekonomikoen zuzkidura. Inbertsio plan, programa, aurreproiektu eta proiektuei aplika dakizkiekeenean, 6. kapituluan azalduko dira.

- 227.08 azpikontzeptua. Garraio kontratuak.

- 227.09 azpikontzeptua. Entitatearen aldeko bilketa zerbitzuak.

- Entitateak kudeatutako baliabideen bilketatik eratorritako gastuak, bilketa Entitateak egiten ez duenean.

- 227.10 azpikontzeptua. Kontratatutako posta zerbitzuak.

- 227.99 azpikontzeptua. Kanpoko bestelako lanak.

Aurreko azpikontzeptuetan bildu ez direnak.

23. artikulua. Zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

Indarrean dagoen legeriaren arabera hautapenezko karguei, funtzionarioei, pertsonal laboralari, behin-behinekoari, kontratatuari eta beste hainbati zerbitzu-eginkizunetatik eratorritako gastuak ordaintzeko eman behar zaizkien kalte-ordainak.

Kontzeptu honi egotziko zaizkio auzitegi eta organo kolegiatuetara bertaratzeagatiko erregelamenduzko kalte-ordainak eta, oro har, bilera, kontseilu, batzorde, eta abarretara bertaratzeak sorrarazitakoak.

Honako kontzeptu hauek irekiko dira:

230. kontzeptua. Pertsonalaren dietak, garraioa eta lekualdaketa.

231. kontzeptua. Goi karguen dietak, garraioa eta lekualdaketa.

239. kontzeptua. Bestelako kalte-ordainak.

3. KAPITULUA
FINANTZA GASTUAK.

Zorra jaulkitzetik, maileguak kontratatzetik, gordailuak eta fidantzak jartzetik eta hirugarrenentzako ordainketen epeak ez betetzeagatik ondorioztatzen diren gastuak jasotzen ditu.

Izaera honetako gastuek, artikulu eta kontzeptutan zehaztuta, ondokoak biltzen dituzte:

30. artikulua. Epe laburrerako zorrarenak.

Titulu-baloreetan dokumentatutako zorraren jaulkipenetik ondorioztatutako gastuak hartzen ditu, zor horrek 12 hilabeteko epemuga edo laburragoa badu.

Azpikontzeptu mailan gastuak banatu egiten dira, honakoak baitira: interesak; zirkulazioan jartzetik ondorioztatutakoak, hala nola jaulkipen gastuak, negoziaziokoak, fede-emaile publikoaren lansariak, komisioak etab.; eta jaulkipen prima.

31. artikulua. Epe luzerako zorrarenak.

Titulu-baloreetan dokumentatutako zorraren jaulkipenetik ondorioztatutako gastuak hartzen ditu, zor horrek 12 hilabeteko epemuga baino luzeagoa badu.

Azpikontzeptu mailan gastuak banatu egiten dira, honakoak baitira: interesak; zirkulazioan jartzetik ondorioztatutakoak, hala nola jaulkipen gastuak, negoziaziokoak, fede-emaile publikoaren lansariak, komisioak etab.; eta jaulkipen prima.

32. artikulua. Epe laburrerako maileguenak.

12 hilabeteko epemuga edo laburragoa duten maileguak kontratatzetik ondorioztatutako gastuak hartzen ditu.

Azpikontzeptu mailan gastuak banatu egiten dira, honakoak baitira: interesak eta formalizaziorako behar direnak, hala nola fede-emaile publikoaren lansariak, komisioak etab.

33. artikulua. Epe luzerako maileguenak.

12 hilabetetik gorako epemuga duten maileguak kontratatzetik ondorioztatutako gastuak hartzen ditu.

Azpikontzeptu mailan gastuak banatu egiten dira, honakoak baitira: interesak eta formalizaziorako behar direnak, hala nola fede-emaile publikoaren lansariak, komisioak etab.

36. artikulua. Gordailu, fidantza, abal eta bestelakoenak.

Artikulu honetan jaso egiten dira aurrekoetan jaso gabeko finantza gastuak.

360. kontzeptua. Gordailu, fidantza eta abalen interesak.

Erakundearen diruzaintzan eginiko gordailu eta fidantzek sortutako interesak hartzen ditu.

361. kontzeptua. Berandutza interesak.

Hirugarrenekiko obligazioak ordaintzeko epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko interesak jasotzen ditu.

362. kontzeptua. Finantza errentamenduko eragiketen interesak («leasing»).

Finantza errentamenduko kontratuetan, kuoten barnean dauden interesen zenbatekoa jasotzen du, aurrekontu ekitaldiari dagokion zatian.

Finantza izaerakotzat joko da eragiketa baldintza hauetakoren bat betetzen badu:

- Erosketa aukeraren prezioa edota hondar-balioa txikiagoa denean leasing bidez erositako objektuak kontratuaren bukaeran izango duena baino;.

- Kontratuaren epea eta leasing bidez erositako objektuak ustez izango duen bizitza baliagarria berdinak direnean, edo.

- kuoten balio eguneratua, merkatuko Interes tasa erabiliz kalkulatua, ibilgetuak eskura erostean izango lukeenaren antzekoa denean.

Baldintza horietatik bakar bat ere betetzen ez denean, leasing operatiboko edo errentamendu hutseko eragiketa izango litzateke; horrelakoetan, 20. artikuluan jasoko litzateke, «Errentamenduak», ondasunaren izaeraren arabera dagokion kontzeptuan.

369. kontzeptua. Bestelako finantza gastuak.

Aurreko kontzeptuetan sartu ez diren finantza gastuak biltzen ditu.

4. KAPITULUA
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.

Toki entitateak sektore publikoko beste sektore batzuei nahiz beste edozein entitate edo pertsonari, agente hartzaileen zuzeneko ordainik izan gabe eta eragiketa arruntak finantzatzeko xedez, eman beharreko kopuruak kontabilizatzeko beharrezko kredituak biltzen ditu.

Agente hartzaileari dagokion lurralde eremua bilduko da, artikuluka, hori erakunde edo entitate publikoa denean. Kasu honetan, kontzeptuak adieraziko du zein den erakundea.

40. artikulua. Estatuari.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuaz kanpo dauden entitate publikoei egindako transferentziak biltzen ditu.

400. kontzeptua. Estatuaren administrazio orokorrari.

401. kontzeptua. Erakunde autonomoei.

402. kontzeptua. Gizarte Segurantzari.

403. kontzeptua. Sozietate publikoei eta enpresa-erakunde publikoei.

404. kontzeptua. Autonomia erkidegoei.

405. kontzeptua. Aldundiei.

409. kontzeptua. Bestelako erakunde publikoei.

41. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoari.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei eta lurralde historikotik kanpo dauden entitate publikoei egindako transferentziak biltzen ditu.

410. kontzeptua. Administrazio orokorrari.

411. kontzeptua. Erakunde autonomoei.

412. kontzeptua. Erakunde publikoei.

414. kontzeptua. Sozietate publikoei eta enpresa-erakunde publikoei.

416. kontzeptua. Foru Aldundiei eta bestelako foru enteei.

417. kontzeptua. Toki entitateei.

419. kontzeptua. Bestelako erakunde publikoei.

42. artikulua. Lurralde historikoari.

Foru erakundeei eta udal mugarteaz kanpo dauden entitate publikoei egindako transferentziak biltzen ditu.

420. kontzeptua. Foru Aldundiari eta bestelako foru erakundeei.

421. kontzeptua. Mankomunitate eta kontsortzioei.

422. kontzeptua. Bestelako erakunde publikoei.

43. artikulua. Udalerriari.

Udal mugartearen barnean dauden entitate publikoei egindako transferentziak biltzen ditu.

430. kontzeptua. Udal entitatearen administrazioari.

431. kontzeptua. Erakunde autonomoei.

432. kontzeptua. Enpresa-erakunde publikoei.

433. kontzeptua. Entitatearen sozietate publikoei.

434. kontzeptua. Udalaz behetiko eremuko bestelako entitateei.

435. kontzeptua. Menpeko bestelako entitateei.

436. kontzeptua. Bestelako entitateei.

47. artikulua. Enpresei.

Jabetza pribatuko enpresei egindako transferentziak biltzen ditu. Kontzeptuka, entitateak ehuneko 50etik beherako proportzioko partaidetza duen enpresei eta partaidetzarik ez duen enpresei egindako transferentziak bereiziko dira.

470. kontzeptua. Enpresa partizipatuei.

471. kontzeptua. Bestelako enpresei.

48. artikulua. Familiei eta irabazizko xederik gabeko erakundeei.

Toki entitateak irabazizko xederik gabeko entitateei (fundazioei, erlijio erakundeei, ongintzazko edo kirol entitateei eta familiei) emandako mota orotako sorospen, laguntza, beka, dohaintza, etab. biltzen ditu.

480. kontzeptua. Familiei.

481. kontzeptua. Irabazizko xederik gabeko erakundeei.

49. artikulua. Kanpora.

Estatuko lurralde eremuaz kanpo dauden agenteei zuzeneko ordainik gabe egindako transferentziak biltzen ditu.

5. KAPITULUA.
KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK.

5. kapituluak kreditu globalarentzako zuzkidura jasoko du. Horrekin batera jasoko du, baita ere, hautazkoak ez diren eta hasieran onartutako aurrekontuan aurreikusi gabeko premiei aurre egiteko zuzkidura, horrelakorik gertatuz gero ekitaldian zehar.

50. artikulua. Kreditu globala eta bestelako ustekabeak.

500. kontzeptua. Kreditu globala eta bestelako ustekabeak.

B. KAPITAL ERAGIKETAK.

Kapital eragiketek hartzen dituzte 6. kapitulua, «Inbertsio errealak», eta 7. kapitulua, «Kapital transferentziak», hau da, inbertsio errealetan egindako gastua eta kapital eragiketak finantzatzera bideratutako transferentzietan egindakoa.

Gastuen 6. kapituluaren eta sarreren kapitulu beraren arteko aldeak toki entitatearen kapital eraketa gordina ezagutarazten du; gastuen eta sarreren 7. kapituluen arteko aldeak kapital transferentzien saldo garbia ezartzen du.

6. KAPITULUA.
INBERTSIO ERREALAK.

Kapitulu honek toki entitateek azpiegiturak sortzeko eta zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak eskuratu edo sortzeko zuzenean egin behar dituzten gastuak biltzen ditu, balioa gal dezaketen edo amortizagarriak izan daitezkeen eraikin, makineria, altzari eta abarren gisako ondasunetarako gastuekin batera.

Gastu bat amortizagarritzat hartzen da etorkizuneko ekitaldietan zehar erakundearen jarduera iraunarazteko lagungarri denean.

Ondorengo ezaugarriren bat biltzen duten gastuak egotzi ahal izango zaizkio kapitulu honi:

a) Ondasun suntsikorrak ez izatea.

b) Ondasun horiei urtebetetik gorako iraupena aurreikustea.

c) Inbentarioan sartzeko modukoak izatea.

d) Errepikakorrak ez izatea.

Era berean, ondasunen bizitza erabilgarria luzatu, beren ahalmena handitu eta beren eraginkortasun edo segurtasuna areagotzen duten berrikuntzak, handitzeak eta hobekuntzak kapitulu honi egotzi ahal izango zaizkio.

Ondokoak ere sar daitezke ondasunen kostu handiago gisa:

a) Ondasunen eskuratzearekin zerikusia duten guztiak, hala nola aduana eskubideak, zergak, garraioa, peritu lana, zerbitzu-sariak, azterlanak, etab.

b) Teknikarien zerbitzu-sariak, lurren eta hondeaketen kostua, baimenak, eraikuntza aseguruak, etab.

c) Administrazioak exekutaturiko inbertsioei loturiko pertsonal gastuak.

60. artikulua. Inbertsioa produkziokoa ez den erabilera orokorrera bideraturiko azpiegitura eta ondasunetan.

Erakundearen kapitala handitzen duten eta bide, plaza, kale, pasealeku, parke, iturri eta urmael, zubi eta abarren gisako aprobetxamendu edo erabilera orokorreko herri-lanetan gauzatzen diren inbertsio berriak edo birjarpenekoak, denboran zehar modu jarraituan erakundearentzako sarrerarik sortuko ez dutenak sartzen dira artikulu honetan.

600. kontzeptua. Inbertsioak lurretan.

Erabilera orokorrera bideraturiko hiri-orubeak, landa-finkak, bestelako lur ez-hiritarrak, meatzeak, harrobiak, etab. eskuratzeak sorrarazitako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan, horiek eskuratzeko era dena delarik.

601. kontzeptua. Azpiegitura eta urbanizazioa.

Erabilera orokorrera bideraturiko edozein motatako azpiegitura edo urbanizazioen eraikuntza, hobekuntza edo birjarpenetik eratorritako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan. Besteak beste, trafiko seinaleak, argiteria instalazioak, semaforoak eta kale, bide, parke eta plazen urbanizazioa sartuko dira.

602. kontzeptua. Ondare historikoa.

Kontzeptu honetan erakundearen ondare historikoa handitzen duten kultur intereseko eskuratzeak sartzen dira.

609. kontzeptua. Bestelako inbertsioak.

Erabilera orokorrera bideratuta egonik, 60. artikuluaren beste kontzeptu batzuetan sartu ezin diren bestelako inbertsio posibleak sartzen dira kontzeptu honetan.

Hurrengo ekitaldietan erabilera orokorrera bideraturiko ondasunetan inbertsio jarduketak egitea ahalbidetuko duten proiektu, azterlan eta ikerketen gastuak egotziko zaizkio kontzeptu honi.

62. artikulua. Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari loturiko inbertsioa.

Erakundearen kapitala handitzen duten eta zerbitzuen funtzionamendua ahalbidetzera bideratuta dauden inbertsio berriak edo birjarpenekoak sartzen dira artikulu honetan.

620. kontzeptua. Lur eta ondasun naturalak.

Zerbitzuen funtzionamendura bideraturiko hiri-orubeak, landa-finkak, bestelako lur ez-hiritarrak, meatzeak, harrobiak, etab. eskuratzeak sorrarazitako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan, horiek eskuratzeko era dena delarik.

622. kontzeptua. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.

Kontzeptu honetan zerbitzuen funtzionamendura bideratutako eraikinen eskuratzetik, eranskinak eta ekipamendu finkoak barne, eta higiezinen eraikuntzatik eratorritako gastuak sartzen dira.

623. kontzeptua. Makineria, instalazioak eta tresneria.

Kontzeptu honetan sartzen dira nekazaritza, industria edo herri-lan erabileretarako makineria eta ekipamenduak eskuratzeak eragindako gastuak, ondasunak beren destinorako gai izateko beharrezko elementu eta lanetatik eratorritakoak, erreminta, pelikula, lanabes, erloju eta abarren gisako tresnenak eta barne-garraiorako elementuenak, hots, instalazioetatik irten gabe lekualdatzekoenak.

- 623.01 azpikontzeptua. Makineria.

- 623.02 azpikontzeptua. Instalazioak.

- 623.03 azpikontzeptua. Barne-garraiorako elementuak.

- 623.04 azpikontzeptua. Tresnak eta erremintak.

624. kontzeptua. Garraio-materiala.

Pertsona, animalia, material edo salgaiak lehorrez, itsasoz edo airez garraiatzeko erabil daitezkeen mota orotako ibilgailuetatik eratorritako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan.

625. kontzeptua. Altzariak eta lanabesak.

Altzariak oro har eta idazmakinak, kalkulagailuak, kontabilitate-makinak, multikopistak, fotokopiagailuak, fitxategiak, artxibategiak, etab. erosteko gastuak sartzen dira kontzeptu honetan.

- 625.01 azpikontzeptua. Altzariak.

- 625.02 azpikontzeptua. Bulego ekipamenduak.

- 625.99 azpikontzeptua. Bestelako lanabesak.

626. kontzeptua.Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.

Datuak prozesatzeko ekipamenduak, unitate zentralak, lagungarriak, monitoreak, inprimagailuak, informazioa transmititu eta jasotzeko unitateak eta bestelako multzo elektronikoak eskuratzeko gastuak eta horien guztien ustiapenetik eratorritakoak sartzen dira kontzeptu honetan.

627 kontzeptua. Proiektu konplexuak.

Kontzeptu honetan, eraikuntzak, makineria, materiala, piezak, etab. biltzen dituzten erabilera espezializatuko unitate konplexuak sartzen dira, izatez banangarriak diren arren, beren funtzionamendurako hertsiki loturik daudenak. Era berean, azpiegituratzat har daitezkeen instalazioak edo proiektuak, denboran zehar modu jarraituan erakundearentzako sarrerak eragin ditzaketenak, sartuko dira, besteak beste estolderia eta ur-zuzkidurako sareak.

628. kontzeptua. Funts bibliografikoak.

Kontzeptu honetan liburutegi, kultur etxe eta antzekoetarako liburu eskuratzea sartzen da.

629. kontzeptua. Bestelako inbertsioak.

Zerbitzugintzara bideratuta egonik, 62. artikuluaren beste kontzeptu batzuetan sartu ezin diren bestelako inbertsio posibleak sartzen dira kontzeptu honetan.

Hurrengo ekitaldietan zerbitzugintza publikora bideraturiko ondasunetan inbertsio jarduketak egitea ahalbidetuko duten proiektu, azterlan eta ikerketen gastuak egotziko zaizkio kontzeptu honi.

64. artikulua. Gastuak izaera immaterialeko inbertsioetan.

Ekitaldi batean egin eta aktibotan gauzatzen ez diren gastuak sartzen dira artikulu honetan, beren ondorioak etorkizuneko zenbait ekitalditan sor ditzaketenak. Honako hauek sartzen dira, besteak beste: turismoa sustatzeko kanpainak, feria eta erakusketen antolakuntza, ikerlanak, hirigintza-planeamendua, proiektu-sorta bat eratzera bideratutako azterketa eta lan teknikoak, etab., bai eta aktibo ukiezinetako gastuak ere, hala nola, emakida administratiboak, jabetza industriala, jabetza intelektuala, etab.

640. kontzeptua. Emakida administratiboak.

Kontzeptu honetan eskubideak lortzeko egindako gastuak sartzen dira, betiere urteko komisioa, hau da, erakundeak emandako emakida administratiboen erreskatearen ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa, ez bada.

641. kontzeptua. Kuotak finantza errentamenduko eragiketengatik («leasing»).

Finantza errentamenduko kontratuetan ezarritako kuoten zenbatekoa, erosketa aukera egikaritzeko asmoa den kasuetan, ondasunaren kostuari eta aurrekontu-ekitaldiari dagokien zatian. Gainerakoa, hau da, interesak, 362. kontzeptuan, «Finantza errentamenduko eragiketen interesak («leasing»)» aplikatuko dira.

Erosketa aukera egikaritzeko asmoa dagoela ulertuko da 362. kontzeptuan zehaztutako baldintzetakoren bat betetzen denean.

Baldintza horietatik bakar bat ere betetzen ez denean, leasing operatiboko eragiketa izango litzateke; horrelakoetan, 20. artikuluan jasoko litzateke, «Errentamenduak», ondasunaren izaeraren arabera dagokion kontzeptuan.

642. kontzeptua. Planeamendua.

Plan orokorrak, hiri antolamenduko arauak, plan partzialak eta bestelako hirigintza-tresnak landu eta berrikusteak sorrarazitako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan.

643. kontzeptua. Ikerketa, azterketak eta proiektuak.

Kapitulu honetako beste kontzeptuetan sartu ezin diren eta hurrengo ekitaldietan inbertsio jarduketak egitea ahalbidetzen duten proiektu, azterketa eta ikerketak agintzearen ondorioz sortutako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan.

644. kontzeptua. Gastuak aplikazio informatikoetan.

Kontzeptu honetan jasoko da informatikako programen jabe izateagatik edota haiek erabiltzeko eskubidea izateagatik ordaindutako zenbatekoa. Bertan jasoko da, baita ere, toki entitateak berak egindakoen ekoizpen kostua, hainbat ekitalditan erabiltzea aurreikusia dagoenean.

645. kontzeptua. Inbertsioak errentan hartutako ondasunetan.

Kontzeptu honetan sartzen dira entitateak errentan erabiltzen dituen ondasunetan egindako inbertsiozko gastuak.

649. kontzeptua. Bestelako ibilgetu immateriala.

Kontzeptu honetan sartzen diren gastuen eragileak honakoak dira:

a) Jabetza industriala: jabetza industrialagatik, berau erabiltzeko eskubideagatik edo erabileraren emakidagatik ordaindutako zenbatekoak.

b) Jabetza intelektuala: jabetza intelektualagatik, berau erabiltzeko eskubideagatik edo erabileraren emakidagatik ordaindutako zenbatekoak.

c) Merkataritza-funtsa: bezeroak, izena edo sozietatearen izena, etab.

d) Bestelako ibilgetze immaterialak.

65. artikulua. Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak.

Obra edo proiektu batekin lotutako gastu efektiboak jasoko ditu, obra edo proiektua behin bukatuta beste ente publiko batzuei tranferitu beharrekoak, ente horiek finantzaketan parte hartu edo parte hartu ez.

Kontzeptu bakarra jasotzen du:

650. kontzeptua. Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak.

68. artikulua. Gastuak ondare-ondasunetako inbertsioetan.

Erakundearen kapitala handitzen duten eta erabilera nahiz zerbitzu publikora bideratuta ez dauden inbertsio berriak edo birjarpenekoak sartzen dira artikulu honetan.

Artikuluaren kontzeptukako zatiketa 62. artikulukoaren antzekoa da.

69. artikulua. Inbertsioak auzo-ondasunetan.

Erakunde Publikoaren kapitala handitzen duten eta aprobetxamendua auzotar guztien esku dagoen ondasunetan gauzatzen diren inbertsio berriak edo birjarpenekoak sartzen dira artikulu honetan.

690. kontzeptua. Lur eta ondasun naturalak eskuratzea.

Aprobetxamendua auzotarren esku dagoen hiri-orubeak, landa-finkak, bestelako lur ez-hiritarrak, meatzeak, harrobiak, etab. eskuratzeak sorrarazitako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan, horiek eskuratzeko era dena delarik.

692. kontzeptua. Azpiegituretako inbertsioa.

Aprobetxamendua auzotarren esku dagoen azpiegiturak eraiki, hobetu edo birjartzetik eratorritako gastuak sartzen dira kontzeptu honetan.

699. kontzeptua. Bestelako inbertsioak.

Aprobetxamendua auzotarren esku dagoelarik, 69. artikuluaren beste kontzeptu batzuetan sartu ezin diren bestelako inbertsio posibleak sartzen dira kontzeptu honetan.

Hurrengo ekitaldietan aprobetxamendua auzotarren esku dagoen ondasunetan inbertsio jarduketak egitea ahalbidetuko duten proiektu, azterlan eta ikerketen gastuak egotziko zaizkio kontzeptu honi.

7. KAPITULUA
KAPITAL TRANSFERENTZIAK.

Toki entitateak sektore publikoko beste sektore batzuei nahiz beste edozein entitate edo pertsonari agente hartzaileen zuzeneko ordainik gabe eta kapital eragiketak finantzatzeko xedez eman beharreko kopuruak kontabilizatzeko beharrezko kredituak biltzen ditu.

Kapitulu honetan bildutako artikuluen egitura 4. kapitulukoaren antzekoa da, zenbakikuntza eta eduki aldeak salbu.

Dagokion artikulu edota kontzeptuan jasoko dira, transferentzien onuradunaren arabera, gastuen sailkapen ekonomikoaren 87. artikuluan sartu gabeko kapital ekarpenak, hau da, beste entitate publiko batzuen kapitalean partaidetza izateko egindakoak, baldin eta toki entitateak ordaindutakoaren trukean balio berdineko finantza aktiboak jasotzen ez baditu eta ekarpenak berreskuratzeko espektatibarik ez badago.

C. FINANTZA ERAGIKETAK.

8. eta 9 kapituluetan jasotzen dira finantza eragiketei dagozkien zordunketa eta kreditu transakzioak, bai epe laburrekoak (urtebeteko epea gainditzen ez dutenak), bai epe luzekoak (urtebeteko epea gainditzen dutenak). Eragiketa horiek agerian jartzen dituzte finantza aktiboen bariazio garbiak (8. kapituluko sarreren eta kapitulu bereko gastuen arteko aldea) eta finantza pasiboen bariazio garbiak (9. kapituluko sarreren eta kapitulu bereko gastuen arteko aldea).

8. KAPITULUA.
FINANTZA AKTIBOAK.

Aktiboak erosten, aurrerakinak eta maileguak ematen eta gordailuak eta fidantzak eratzen egiten den gastua jasotzen du.

80. artikulua. Epe laburrerako zorra eskuratzea.

Zor, obligazio eta bonuen erosketa jasotzen du, horien epemuga 12 hilabetekoa edo laburragoa denean.

Kontzeptu mailan bereizi egingo da tituluak udal sektore publikoarenak diren ala ez.

81. artikulua. Epe luzerako zorra eskuratzea.

Zor, obligazio eta bonuen erosketa jasotzen du, horien epemuga 12 hilabetekoa baino luzeagoa denean.

Kontzeptu mailan bereizi egingo da tituluak udal sektore publikoarenak diren ala ez.

82. artikulua. Epe laburrerako aurrerakin eta maileguak ematea.

Erakundeak 12 hilabeteko epeaz edo laburragoaz ematen dituen aurrerakin eta maileguak jasotzen ditu.

Kontzeptu mailan bereizi egingo da udal sektore publikoarenak diren ala ez, eta azpikontzeptu mailan bereizi egingo dira erakundearen pertsonalari emandakoak eta bestelakoak.

83. artikulua. Epe luzerako aurrerakin eta maileguak ematea.

Erakundeak 12 hilabetetik gorako epeaz ematen dituen aurrerakin eta maileguak jasotzen ditu.

Kontzeptu mailan bereizi egingo da udal sektore publikoarenak diren ala ez, eta azpikontzeptu mailan bereizi egingo dira erakundearen pertsonalari emandakoak eta bestelakoak.

85. artikulua. Epe luzerako akzioak eskuratzea.

Enpresen kapitalaren jabetzaren ordezkari diren tituluen erosketa jasotzen du.

Kontzeptu mailan bereizi egingo dira udal sektore publikoko enpresak eta horrelakotzat hartzen ez direnak.

86. artikulua. Gordailu eta fidantzak eratzea.

Gordailuak eta fidantzak eratzeagatiko gastuak jasotzen ditu.

Kontzeptu mailan bereizi egingo dira gordailuak eta fidantzak, eta azpikontzeptu mailan 12 hilabeteko epea edo laburragoa dutenak eta 12 hilabetetik gorako epea dutenak.

87. artikulua. Ondare ekarpenak.

Izaera hori duten ekarpenak, toki entitateek egindakoak, baldin eta ordaindutakoaren trukean balio berdineko finantza aktiboak jasotzen badituzte edota partaidetzaren balioa handitzen bada, eta ekarpenak berreskuratzeko espektatiba badago. Bestela, kapital transferentziatzat hartuko dira.

Honako kontzeptu hauek ezarri dira:

870. kontzeptua. Ekarpenak fundazioei.

871. kontzeptua. Ekarpenak kontsortzioei.

872. kontzeptua. Ekarpenak bestelako enteei.

Honako azpikontzeptu hauek bereizi dira:

- 872.10 azpikontzeptua. Galerak konpentsatzeko ekarpenak.
- 872.20 azpikontzeptua. Errentagarritasun gabeko inbertsioak finantzatzeko ekarpenak.
- 872.90 azpikontzeptua. Gainerako ekarpenak.

9. KAPITULUA
FINANTZA PASIBOAK.

Zorrak amortizatzeko eta kitatzeko gastuak jasotzen ditu, diren modalitatekoak direla.

90. artikulua. Epe laburrerako zorraren amortizazioa.

12 hilabeteko epemuga edo laburragoa duten zorra, obligazioak eta bonuak jaulkitzetik ondorioztatzen diren amortizazio gastuak hartzen ditu.

91. artikulua. Epe luzerako zorraren amortizazioa.

12 hilabetetik gorako epemuga duten zorra, obligazioak eta bonuak jaulkitzetik ondorioztatzen diren amortizazio gastuak hartzen ditu.

92. artikulua. Epe laburrerako maileguen amortizazioa.

12 hilabeteko epeaz edo laburragoaz kontratatutako maileguen amortizazio gastuak jasotzen ditu.

Kontzeptu mailan bereizi egingo dira udal sektore publikoarekin kontratatutakoak eta bestelakoak.

93. artikulua. Epe luzerako maileguen amortizazioa.

12 hilabetetik gorako epeaz kontratatutako maileguen amortizazio gastuak jasotzen ditu.

Kontzeptu mailan bereizi egingo dira udal sektore publikoarekin kontratatutakoak eta bestelakoak.

Toki entitateen aurrekontuko gastuen sailkapen ekonomikoa.

Kapitulua	Artikulua	Kontzeptua	Azpikontzeptua	Izendapenak.
1				**1. KAPITULUA. PERTSONAL GASTUAK.**

	10			**Gobernu organoak eta zuzendaritzako pertsonala:**
		100		Oinarrizko ordainketak eta bestelako ordainsariak.
	11			**Behin-behineko pertsonala.**
		110		Oinarrizko ordainketak eta bestelako ordainsariak.
	12			**Funtzionarioak eta estatutarioak:**
		120		Oinarrizko ordainketak.
		121		Ordainketa osagarriak:
			121.01	- Destino osagarria.
			121.02	- Berariazko osagarriak.
			121.03	- Produktibitate osagarria.
			121.04	- Haborokinak.
		122		Gauzazko ordainketak.
		123		Praktiketako funtzionarioen ordainketak.
	13			**Pertsonal laborala:**
		130		Laboral finkoa:
			130.01	- Oinarrizko ordainketak.
			130.02	- Bestelako ordainsariak.
		131		Aldi baterako laborala.
		132		Gauzazko ordainketak.
	14			**Beste pertsonala:**
		141		Beste pertsonala.
	16			**Enplegu-emailearen kargurako gizarte kuota, prestazio eta gastuak:**
		160		Gizarte kuotak:
			160.01	- Gizarte Segurantza.
			160.03	- Mutualitateak.
			160.04	- Elkarkidetzaren kuotak.
			160.05	- Asistentzia mediku-farmazeutikoa.
		161		Gizarte prestazioak:
			161.02	- Entitatearen kargurako pentsioak.
			161.03	- Erretiro aurreratuen kalte-ordainak.
			161.04	- Pentsiodunentzako asistentzia mediku-farmazeutikoa.

		162		Funtzionarioen eta pertsonal ez-laboralaren gastuak:
			162.01	- Prestakuntza.
			162.03	- Pertsonal garraioa.
			162.04	- Gizarte ekintza.
			162.05	- Aseguruak.
		163		Pertsonal laboralaren gizarte gastuak:
			163.01	- Prestakuntza.
			163.03	- Pertsonal garraioa.
			163.04	- Gizarte ekintza.
			163.05	- Aseguruak.
		164		Familia osagarria.
2				**2. KAPITULUA. GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN.**
	20			**Errentamenduak**:
		200		Lur eta ondasun naturalak.
		201		Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.
		202		Makineria, instalazioak eta tresneria.
		203		Garraio-materiala.
		204		Altzariak eta lanabesak.
		205		Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.
		209		Bestelako ibilgetu materiala.
	21			**Konponketak, mantentzea eta artapena:**
		210		Azpiegitura eta ondasun naturalak.
		211		Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.
		212		Makineria, instalazioak eta tresneria.
		213		Garraio-materiala.
		214		Altzariak eta lanabesak.
		215		Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.
		219		Bestelako ibilgetu materiala.
	22			**Materiala, hornidurak eta bestelakoak:**
		220		Bulego materiala:

			220.01	- Material arrunt ez-inbentariagarria.
			220.02	- Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak.
			220.03	- Material informatiko ez-inbentariagarria.
		221		Hornidurak:
			221.01	- Energia elektrikoa.
			221.02	- Ura.
			221.03	- Gasa.
			221.04	- Erregaiak eta karburanteak.
			221.05	- Arropak.
			221.06	- Elikagaiak.
			221.07	- Animalia mantenua.
			221.08	- Farmazia produktuak eta hemoderibatuak.
			221.09	- Garbiketa eta txukunketa produktuak.
			221.10	- Etxeko ostilamendua.
			221.11	- Tresnak eta erremintak.
			221.12	- Osasun materiala.
			221.99	- Bestelako hornidurak.
		222		Komunikazioak:
			222.01	- Telefono bidezkoak.
			222.02	- Posta bidezkoak.
			222.03	- Telegrafikoak.
			222.04	- Telex eta telefax bidezkoak.
			222.05	- Informatikoak.
			222.99	- Bestelako komunikazioak.
		223		Garraioak:
		224		Aseguru primak.
			224.01	- Eraikin eta lokalenak.
			224.02	- Ibilgailuenak.
			224.03	- Bestelako ibilgetuarena.
			224.99	- Bestelako arriskuak.
		225		Tributuak:
			225.01	- Udal zergak.
			225.02	- Lurralde historikoko zergak.
			225.03	- Autonomia zergak.
			225.04	- Estatu zergak.

		226		Hainbat gastu:
			226.01	- Kanonak.
			226.02	- Protokolo eta ordezkaritza gastuak.
			226.03	- Argitalpenak, publizitatea eta propaganda.
			226.04	- Juridikoak.
			226.05	- Bilera eta hitzaldiak.
			226.06	- Jarduera soziokulturalak.
			226.99	- Beste hainbat gastu.
		227		Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak:
			227.01	- Garbiketa.
			227.02	- Segurtasuna.
			227.03	- Balorazio eta peritu-lanak.
			227.04	- Kontratu soziokulturalak.
			227.05	- Zaintza, gordailuak eta biltegiratzea.
			227.06	- Hauteskunde prozesuak.
			227.07	- Azterketa eta lan teknikoak.
			227.08	- Garraio kontratuak.
			227.09	- Entitatearen aldeko bilketa zerbitzuak.
			227.10	- Posta zerbitzuak.
			227.99	- Kanpoko bestelako lanak.
	23			**Zerbitzuagatiko kalte-ordainak:**
		230		Pertsonalaren dietak, garraioa eta lekualdaketa.
		231		Goi karguen dietak, garraioa eta lekualdaketa.
		239		Bestelako kalte-ordainak.
3				**3. KAPITULUA. FINANTZA GASTUAK.**
	30			**Epe laburrerako zorrarenak:**
		302		Epe laburrerako zorra.
			302.01	- Interesak.
			302.02	- Jaulkipen, aldaketa eta kitapen gastuak.
			302.03	- Jaulkipen prima.
	31			**Epe luzerako zorrarenak:**
		312		Epe luzerako zorra.

			312.01	- Interesak.
			312.02	- Jaulkipen, aldaketa eta kitapen gastuak.
			312.03	- Jaulkipen prima.
	32			**Epe laburrerako maileguenak:**
		322		Epe laburrerako maileguak.
			322.01	- Interesak.
			322.02	- Jaulkipen, aldaketa eta kitapen gastuak.
	33			**Jaulkipen prima:**
		332		Epe luzerako maileguenak.
			332.01	- Interesak.
			332.02	- Jaulkipen, aldaketa eta kitapen gastuak.
	36			**Gordailu, fidantza, abal eta bestelakoenak:**
		360		Gordailu, fidantza eta abalen interesak.
		361		Berandutza interesak.
		362		Finantza errentamenduko
				eragiketen interesak («leasing»).
		369		Bestelako finantza gastuak.
4				4. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.
	40			**Estatuari:**
		400		Estatuaren administrazio orokorrari.
		401		Erakunde autonomoei.
		402		Gizarte Segurantzari.
		403		Sozietate publiko eta enpresa-entitate publikoei.
		404		Autonomia erkidegoei.
		405		Aldundiei.
		409		Bestelako entitate publikoei.
	41			**Euskal Autonomia Erkidegoari:**
		410		Administrazio orokorrari.
		411		Erakunde autonomoei.
		412		Ente publikoei.

		414		Sozietate publikoei eta enpresa-entitate publikoei.
		416		Foru aldundiei eta bestelako foru enteei.
		417		Toki entitateei.
		419		Bestelako erakunde publikoei.
	42			**Lurralde historikoari:**
		420		Foru Aldundiari eta bestelako foru erakundeei.
		421		Mankomunitate eta kontsortzioei.
		422		Bestelako entitate publikoei.
	43			**Udalerriari:**
		430		Toki entitatearen administrazioari.
		431		Erakunde autonomoei.
		432		Enpresa-entitate publikoei.
		433		Entitatearen sozietate publikoei.
		434		Udalaz behetiko eremuko bestelako entitateei.
		435		Menpeko bestelako entitateei.
		436		Bestelako entitateei.
	47			**Enpresei:**
		470		Enpresa partizipatuei.
		471		Bestelako enpresei.
	48			**Familiei eta irabazizko xederik gabeko erakundeei.**
		480		Familiei.
		481		Irabazizko xederik gabeko erakundeei.
	49			**Kanpora.**
5				**5. KAPITULUA. KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK.**
	50			**Kreditu globala eta bestelako ustekabeak.**
		500		Kreditu globala eta bestelako ustekabeak.
6				6. KAPITULUA. INBERTSIO ERREALAK.
	60			**Inbertsioa produkziokoa ez den erabilera orokorrera bideraturiko azpiegitura eta ondasunetan:**

		600		Inbertsioa lurretan.
		601		Azpiegitura eta urbanizazioa.
		602		Ondare historikoa.
		609		Bestelako inbertsioak.
	62			**Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari loturiko inbertsioa:**
		620		Lur eta ondasun naturalak.
		622		Eraikinak eta bestelako eraikuntzak:
		623		Makineria, instalazioak eta tresneria:
			623.01	- Makineria.
			623.02	- Instalazioak.
			623.03	- Barne-garraiorako elementuak.
			623.04	- Tresnak eta erremintak.
		624		Garraio-materiala.
		625		Altzariak eta lanabesak:
			625.01	- Altzariak.
			625.02	- Bulego ekipamenduak.
			625.99	- Bestelako lanabesak.
		626		Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.
		627		Proiektu konplexuak.
		628		Funts bibliografikoak.
		629		Bestelako inbertsioak.
	64			**Gastuak izaera immaterialeko inbertsioetan:**
		640		Emakida administratiboak.
		641		Kuotak finantza errentamenduko eragiketengatik («leasing»).
		642		Planeamendua.
		643		Ikerketa, azterketak eta proiektuak.
		644		Gastuak aplikazio informatikoetan.
		645		Inbertsioak errentan hartutako ondasunetan.
		649		Bestelako ibilgetu materiala.

	65			**Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak:**
		650		Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak.
	68			**Gastuak ondare-ondasunetako inbertsioetan:**
		680		Lur eta ondasun naturalak.
		682		Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.
		683		Makineria, instalazioak eta tresneria:
			683.01	- Makineria.
			683.02	- Instalazioak.
			683.03	- Barne-garraiorako elementuak.
			683.04	- Tresnak eta erremintak.
		684		Garraio-materiala.
		685		Altzariak eta lanabesak:
			685.01	- Altzariak.
			685.02	- Bulego ekipamenduak.
			685.99	- Bestelako lanabesak.
		686		Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.
		687		Proiektu konplexuak.
		689		Bestelako inbertsioak.
	69			**Inbertsioak auzo-ondasunetan:**
		690		Lur eta ondasun naturalak eskuratzea.
		692		Azpiegituretako inbertsioa.
		699		Bestelako inbertsioak.
7				**7. KAPITULUA. KAPITAL TRANSFERENTZIAK.**
	70			**Estatuari:**
		700		Estatuaren administrazio orokorrari.
		701		Erakunde autonomoei.
		702		Gizarte Segurantzari.
		703		Sozietate publiko eta enpresa-entitate publikoei.
		704		Autonomia erkidegoei.
		705		Aldundiei.

		709		Bestelako entitate publikoei.
	71			**Euskal Autonomia Erkidegoari:**
		710		Administrazio orokorrari.
		711		Erakunde autonomoei.
		712		Erakunde publikoei.
		714		Sozietate publikoei eta enpresa-entitate publikoei.
		716		Foru aldundiei eta bestelako foru enteei.
		717		Toki entitateei.
		719		Bestelako entitate publikoei.
	72			**Lurralde historikoari:**
		720		Foru Aldundiari eta bestelako foru erakundeei.
		721		Mankomunitate eta
				kontsortzioei.
		722		Bestelako publikoei.
	73			**Udalerriari:**
		730		Udal entitatearen administrazioari.
		731		Erakunde autonomoei.
		732		Enpresa-entitate publikoei.
		733		Entitatearen sozietate publikoei.
		734		Udalaz behetiko eremuko bestelako entitateei.
		735		Menpeko bestelako entitateei.
		736		Bestelako entitateei.
	77			**Enpresei:**
		770		Enpresa partizipatuei.
		771		Bestelako enpresei.
	78			**Familiei eta irabazizko xederik gabeko erakundeei:**
		780		Familiei.
		781		Irabazizko xederik gabeko erakundeei.
	79			**Kanpora.**
8				**8. KAPITULUA. FINANTZA AKTIBOAK.**
	80			**Epe laburrerako zorra eskuratzea:**

		802		Tokiko sektore publikoaren barnekoa.
		803		Tokiko sektore publikotik kanpokoa.
	81			**Epe luzerako zorra eskuratzea:**
		812		Tokiko sektore publikokoa.
		813		Tokiko sektore publikotik kanpokoa.
	82			**Epe laburrerako aurrerakin eta maileguak ematea:**
		822		Tokiko sektore publikokoa.
		823		Tokiko sektore publikotik kanpokoa:
			823.01	- Pertsonalaren aurrerakinak.
			823.02	- Bestelako aurrerakin eta maileguak.
	83			**Epe luzerako aurrerakin eta**
				maileguak ematea:
		832		Tokiko sektore publikokoa.
		833		Tokiko sektore publikotik kanpokoa:
			833.01	- Pertsonalaren aurrerakinak.
			833.02	- Bestelako aurrerakin eta maileguak.
	85			**Akzioak eskuratzea:**
		852		Tokiko sektore publikokoak.
		853		Tokiko sektore publikotik kanpokoak.
	86			**Gordailu eta fidantzak eratzea:**
		860		Fidantzak eratzea:
			860.01	- Epe laburrera.
			860.02	- Epe luzera.
		861		Gordailuak eratzea:
			861.01	- Epe laburrera.
			861.02	- Epe luzera.
	87			**Ondare ekarpenak:**
		870		Ekarpenak fundazioei.
		871		Ekarpenak kontsortzioei.
		872		Ekarpenak bestelako enteei:
			872.10	- Galerak konpentsatzeko ekarpenak.

			872.20	- Errentagarritasun gabeko inbertsioak finantzatzeko ekarpenak.
			872.90	- Gainerako ekarpenak.
9				**9. KAPITULUA. FINANTZA PASIBOAK.**
	90			**Epe laburrerako zorraren amortizazioa:**
		902		Epe laburrerako zorra.
	91			**Epe luzerako zorraren amortizazioa:**
		912		Epe luzerako zorra.
	92			**Epe laburrerako maileguen amortizazioa:**
		922		Tokiko sektore publikoaren barnean.
		923		Tokiko sektore publikotik kanpo.
	93			**Epe luzerako maileguen amortizazioa:**
		932		Tokiko sektore publikoaren barnean.
		933		Tokiko sektore publikotik kanpo.

3. TOKI ENTITATEEN GASTUEN SAILKAPENA,PROGRAMEN ARABERA.

Gastuak beren izaeraren arabera eta programaka egoki sailkatzeko, kode honetan ezartzen denari jarraituko zaio.

Baldin eta gastu bat gastu-politika bati baino gehiagori aplika badakioke, definituriko helburu eta xedeen arabera egokien jotzen denari egotziko zaio. Horretarako, aurrekontu-kudeaketako irizpide kualitatiboak nahiz kuantitatiboak hartu ahal izango dira kontuan.

Kodifikazio hau itxia da, eta erakunde lokalek nahitaez jarraitu behar dituzte bertan zehazten diren gastu-arloak, gastu-politikak, programa-taldeak eta programak. Programei eta azpiprogramei dagokienez, ordea, halakoak irekitzat jotzen dira, baldin eta ez badira jasotzen kode honetan.

Autonomia Erkidegoak edo Foru Aldundiak eskumenak eskuordetu eta erakunde lokal batek beregain hartzen dituenean, halakoetan beharrezkoa den programa-taldeen garapena egin beharko du, horrela elkarrekikotasun zehatza egon dadin erakundeak beregain harturiko zerbitzu bakoitzaren artean eta programa edo azpiprograma bakarra aurrekontuan.

1. gastu-arloa. Oinarrizko zerbitzu publikoak.

Arlo honen barruan sartzen dira zerbitzu publikoen ondorioz sortzen diren gastu guztiak; alegia, indarreko arautegiaren arabera, udalerriek berek edo beste batzuekin elkarturik nahitaez eman behar dituzte zerbitzuen ondoriozkoak.

Horri dagokionez, oinarrizko lau gastu-politika jasotzen dira, haietariko bakoitzean beheraxeago azalduko diren ezaugarrien arabera: herritarren segurtasuna eta mugikortasuna, etxebizitza eta hirigintza, komunitate-ongizatea eta ingurumena.

Arlo honetan, ez dira aintzat hartzen izaera sektoriala duten gastu-politikak, horren ondorioz egitura honetako beste gastu-arlo batzuetan sartzen direnak.

13. gastu-politika. Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna.

Herritarren segurtasunarekin eta mugikortasunarekin loturiko zerbitzuen gastu guztiak eta erakunde lokalak hainbat egoeretan Autonomia Erkidegoari eta Foru Aldundiari laguntzeko egin behar dituenak: babes eta defentsa zibila, zoritxarrak edo hondamendiak gertatzen direneko jarduketak, su-itzaltzea eta prebentzioa, sorospena eta, oro har, hala erakunde lokalaren edo partikularren ondasunak babesteko ekintzak nola zirkulazio-antolatzeari eta ibilgailuak aparkatzeari dagozkionak.

Sei programa talde tipifikatzen dira, haien artetik bereiziz herritarren segurtasunari eta babes zibilari loturiko zerbitzuekin zerikusi zuzena duten administrazio-gastu orokorrak ordaintzeko direnak. Horretarako, honako ekintza guzti hauek jotzen dira administrazio orokortzat: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

130. Segurtasunaren eta babes zibilaren administrazio orokorra.

132. Segurtasuna eta ordena publikoa.

133. Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua.

134. Hiri-mugikortasuna.

135. Babes zibila.

136. Prebentzio eta su-itzaltze zerbitzua eta sorospena.

15. gastu-politika. Etxebizitza eta hirigintza.

Etxebizitzarekin eta hirigintzarekin zerikusia duten zerbitzuen gastu guztiak, eta haien osagarrienak ere bai.

Hala, bada, gastu-politika honi egotziko zaizkio etxebizitzak eta aterpetxeak eraiki, hobetu eta kontserbatzeko eginiko gastuak, lurrak erostea barne. Horiez gainera, plangintzaren eta lurzoruaren hirigintza-araubidearen ondoriozkoak, hiri-bideak eta haiek izaera berdintsuko beste batzuk.

Gastu-politika honi egotziko zaizkio, halaber, edozein araubideren pean etxebizitza bat izateko aukera ematen duten laguntza gisa eginiko gastuak, hala erakundearen beraren ekimenez nola beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean. Orobat jasotzen dira etxebizitza publikoaren sustapena bultzatzearen ondorioz eginiko gastuak.

Lau programa talde tipifikatzen dira, haien artetik bereiziz etxebizitza- eta hirigintza-politika garatzearekin zerikusi zuzena duten administrazio-gastu orokorrak ordaintzeko direnak.

150. Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra.

151. Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina.

152. Etxebizitza.

Etxebizitza programa-taldearen barruan, bi programa tipifikatzen dira: babes publikoko etxebizitzaren sustapenari eta kudeaketa, batetik, eta eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea, bestetik.

1521. Babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa.

1522. Eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea.

153. Bide publikoak.

Bide publikoak programa-taldearen barruan, bi programa tipifikatzen dira: biztanleguneetarako sarbideak, batetik, eta bide publikoen zolaketa, bestetik.

1531. Biztanleguneetarako sarbideak.

1532. Bide publikoen zolaketa.

16. gastu-politika. Komunitate-ongizatea.

Bizi-kalitatea oro har hobetzeko egiten diren jarduketa eta zerbitzu guztien gastuak.

Honako jarduera hauen ondoriozko gastu guztiak egotziko zaizkio politika honi: estoldak eraikuntza, mantentze, kontserbazio eta funtzionamendua eta edateko uraren etxez etxeko hornikuntza;; hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua, zaborrak batu, deuseztatu edo tratatzea; bideak garbitzea; hilerriak eta hileta zerbitzuak, eta komunitate-ongizateari dagozkion beste zerbitzu batzuk. Zazpi programa-talde tipifikatzen dira:

160. Estolderia.

161. Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza.

162. Hondakinak batu, kudeatu eta tratatzea.

Hondakinak batu, kudeatu eta tratatzea izeneko programa-taldearen barruan, hiru programa tipifikatzen dira: hondakinen bilketa, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta hondakinen tratamendua.

1621. Hondakinen bilketa.

1622. Hiri-hondakin solidoen kudeaketa.

1623. Hondakinen tratamendua.

163. Bideak garbitzea.

164. Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.

165. Kale-argiteria.

166. Hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua.

17. gastu-politika. Ingurumena.

Honako jarduera hauei dagozkien gastu guztiak jasoko dira gastu-politika honetan: ingurumenaren babesa eta hobekuntza, eta ingurune naturala babesteko zerbitzuen inbertsioa eta funtzionamendua; baso-berritzea, erakundeak berak egina edo beste administrazio publiko batzuekin partzuer egina; baso-suteen aurkako defentsa, mugaketa eta zedarriak jartzea edo desertifikazioaren aurkako borroka; hondartzen mantentze-lana edo izaera bertsuko beste zerbitzu batzuk.

Lau programa-talde tipifikatzen dira:

170. Ingurumenaren administrazio orokorra.

171. Parkeak eta lorategiak.

172. Ingurumenaren babesa eta hobekuntza.

Ingurumenaren babesa eta hobekuntza izeneko programa-taldearen barruan, programa bat tipifikatzen da: hiriguneetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa.

1721. Hiriguneetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa.

173. Hondartzak.

2. gastu-arloa. Babes eta sustapen sozialeko jarduketak.

Aurreikuspen-araubidea osatzen duten gastu eta transferentzia guztiak biltzen dira arlo edo talde honetan: funtzionarioen pentsioak, ongintza edo laguntza izaerako arreta; beharrizan bereziak dituzten taldeentzako arreta, hala nola gazteak, nagusiak, desgaituak eta adinekoak; enplegua sustatzeko neurriak.

21. gastu-politika. Erretiro pentsioak.

Funtzionarioen eta lan-legepeko langileen edo haien eskubidedunen doako pentsioak, pentsioen hobekuntzak eta aparteko pentsioak, erakunde lokalak ordainduak, eta izaera bereko beste gastu batzuk.

Programa-talde bat tipifikatzen da:

211. Erretiro pentsioak.

22. gastu-politika. Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk.

Mota horretako gastu guztiak biltzen ditu, bai eta enplegatuen aldeko gizarte ekintzatik eratorriak ere, salbu enplegatzaileak ordaindu beharreko mutualitateetako eta Gizarte Segurantzako kuotak.

Programa-talde bat tipifikatzen da:

221. Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk.

23. gastu-politika. Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena.

Erakunde lokalak lehen mailako gizarte-laguntza garatzeko egiten dituen gastuak egotziko zaizkio gastu-politika honi: genero-berdintasuna sustatzea, baztertuen sustapena eta birgizarteratzea, bai eta gizarte-zerbitzuen kudeaketa ere; mendekotasun duten pertsonentzako zerbitzuak eta gizarte-laguntza, adinekoen egoitzak eta horien antzeko beste zerbitzu batzuk; beharrizan sozialeko egoerak ebaluatu eta hain berri ematea eta berehalako laguntza ematea gizartean baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonei. Halaber jasoko dira helburu horiek lortzen laguntzen duten erakunde edo senideentzako transferentziak.

Halakoen administrazio orokorrari dagozkion gastuak sartuko dira; alegia, honako jarduera hauei dagozkienak: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Bi programa tipifikatzen dira:

230. Gizarte zerbitzuen arloko administrazio orokorra.

231. Lehen mailako gizarte-laguntza.

24. gastu-politika. Enpleguaren sustapena.

Enplegua sustatu eta bultzatzeko helburua duten gastuak egotziko zaizkio gastu-politika honi, direla erakunde lokalak berak eginiko ekintzak, direla beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean eginikoak.

Programa-talde bat tipifikatzen da:

241. Enpleguaren sustapena.

3. gastu-arloa. Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena.

Arlo edo talde honetan sartuko dira erakunde lokalak honako arlo hauetan egiten dituen gastu guztiak: osasuna, hezkuntza, kultura, aisia eta astialdia, kirola eta, oro har, bizi-kalitatea handitzeko edo hobetzeko balio dutenak.

31. gastu-politika. Osasuna.

Gastu-politika honetan sartzen dira gaixotasunak prebenitzeko edo sendatzeko helburuarekin egiten diren gastuak, bai eta herritarren osasunean immunitatea mantentzeko asmoz egiten direnak ere. Gastu-politika honetan sartzen dira gaixotasunak prebenitzeko edo sendatzeko helburuarekin egiten diren gastuak, bai eta herritarren osasunean immunitatea mantentzeko asmoz egiten direnak ere. Halaber jasotzen dira gastu-politika honen barruan: ospitaleak, klinikak eta edozein motatako sendategiak sortzea, ekipatzea eta haien funtzionamendua, sorostetxeak, anbulatorioak, larrialdietarako botika-kutxak, bainuetxeak, analisi-laborategiak eta halakoen zerbitzu osagarriak, hala nola anbulantziak; osasun publikoko zerbitzuak; botiken eta osasun-produktuen kontrola eta hornidura; higiene publikoa; nekazaritzako elikagaigintzako produktuen analisiak egiteko laborategiak; elikagaien segurtasunaren arloko jarduketak; desinfekzio-, desintsektazio- eta desratizazio-kanpainak eta horien antzeko beste ekintza batzuk.

Bi programa-talde tipifikatzen dira:

311. Osasungarritasun publikoaren babesa.

312. Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak.

32. gastu-politika. Hezkuntza.

Gastu-politika honetan biltzen dira edozein motatako hezkuntza-zentro eta erakundeen eta haien zerbitzu osagarrien sorreratik, kontserbaziotik eta funtzionamendutik eratorritako gastuak, bai eta beste erakunde batzuei edo familiei egiten zaizkien transferentziak, hezkuntza sustatzeko.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Hala, bada, gastu-politika honi egotziko zaizkio hezkuntza-zentroen sorrera, hornidura eta funtzionamendu gastuak, kasuan kasuko hezkuntza-mailen arabera banatuz gastuok. Halaber sartuko dira ongintza- eta laguntza-zentroen gastuak, baldin eta haietan hezkuntza-izaera nagusitzen bada.

Eskola-garraioaren, beken eta laguntzen gastuak ere hezkuntzaren zerbitzu osagarritzat jotzen dira.

Era berean, gastu-politika honetan sartuko dira herritarren hezkuntza-maila hobetzeko helburua duten gastuak.

Zortzi programa-talde tipifikatzen dira:

320. Hezkuntzaren arloko administrazio orokorra.

321. Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak sortzea.

322. Bigarren hezkuntzako ikastetxeak sortzea.

323. Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen eta hezkuntza bereziko ikastetxeen funtzionamendua.

324. Bigarren hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua.

325. Derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzea.

326. Hezkuntzako zerbitzu osagarriak.

327. Herritarren bizikidetza sustatzea.

33. gastu-politika. Kultura.

Bere izenak adierazten duen arloko zerbitzuek sortzen dituzten gastuak biltzen ditu gastu-politika honek, josteta-izaera dutenak ere jasotzen dituelarik.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Honako hauen sorrera, kontserbazio eta funtzionamendu gastuak biltzen ditu: liburutegiak, museoak, agiritegiak, kultura-etxeak jartzeko eraikinak, kultura-jarduerak, aisialdikoak edo astialdikoak egiteko lekuak, hala nola zahar-etxeak eta gaztelekuak; erakusketa aretoak, biltzar-jauregiak, zoologikoak, musika-bandak eta musika-elkarteak, herrietako jaiak, hondartzetan egiten diren jolas-jarduerak, ondare historiko-artistikoa kontserbatu, sustatu eta kudeatzeko jarduketak, eta beste jolas eta kultura gastu batzuk; euskararen sustapena eta irakaskuntza; ikuskizun publikoak komunikatzea, baimentzea, ikuskatzea eta onestea; bai eta halako jardueretan laguntzen duten erakunde edo familiei eginiko transferentziak.

Zortzi programa talde tipifikatzen dira, haien artetik bereiziz kulturari eta aisiari loturiko zerbitzuekin zerikusi zuzena duten administrazio-gastu orokorrak ordaintzeko direnak:

330. Kulturaren arloko administrazio orokorra.

332. Liburutegi eta agiritegiak.

Liburutegi eta agiritegiak programa-taldearen barruan, bi programa tipifikatzen dira: liburutegi publikoak eta agiritegiak.

3321. Liburutegi publikoak.

3322. Agiritegiak.

333. Kultura-ekipamenduak eta museoak.

334. Kulturaren sustapena.

335. Euskara.

336. Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa.

337. Astialdia betetzeko instalazioak.

338. Herri-jaiak eta ospakizunak.

34. gastu-politika. Kirola.

Bere izenak adierazten duen arloko zerbitzuek sortzen dituzten gastuak biltzen ditu gastu-politika honek, hala nola kirola sustatzea eta haren berri zabaltzea; igerilekuen, era guztietako kirol instalazioen edo kirolarekin zein kasuan kasuko erakunde lokalaren kirol-politikarekin zerikusi zuzena duen beste edozein jardueren eraikinen sorrera, kontserbazio eta funtzionamendu gastuak.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Gastu-politika honetan, hiru programa-talde sartzen dira:

340. Kirolaren arloko administrazio orokorra.

341. Kirola sustatzea eta bultzatzea.

342. Kirol instalazioak.

4. gastu-arloa. Jarduketa ekonomikoak.

Jarduera ekonomikoaren sektoreen potentziala garatzeko egiten diren jarduera, zerbitzu eta transferentziek osatzen dute gastu-arlo hau.

Halaber, honako arlo hauetako gastuak: oinarrizko azpiegiturak eta garraio-azpiegiturak, nekazaritzako azpiegiturak; komunikazioak; ikerketa, garapena eta berrikuntza.

41. gastu-politika. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.

Nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrain-hazkuntzako jarduerak hobetzeko, sustatzeko eta antolatzeko egiten diren edozein motatako gastuak biltzen dira gastu-politika honetan.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Honako jarduera hauen gastuak egotziko zaizkio: sektoreko antolamendu-planak; partzelen kolonizazioa eta baterakuntza; kooperatiba-mugimendua bultzatzea eta elkartegintza sustatzea; nekazaritzako elikagaien industrializazioa bultzatzea; enpresaburu gazteen prestakuntza; nekazaritzako zabalkunde-zentroak eta izaera bereko beste batzuk.

Horiez gainera, honako jarduera hauekin zerikusia duten gastu hauek ere sartuko dira: izuen kontrola eta erauzketa; hazien eta aziendaren hobekuntza eta hautaketa, bioteknologia-zentroak; nekazaritzako ustiategi esperimentalak eta izaera bereko beste batzuk.

Era berean, honako hauek ere biltzen ditu: nekazaritza, abeltzaintza, arrain-hazkuntza eta ehiza jardueretako oinarrizko azpiegituren sorrera, hobekuntza eta mantentze-lanetako gastuak; sail ureztatuak; egituren aldaketa eta hobekuntza; lurren kontserbazioa eta saneamendua eta izaera berek beste jarduera batzuk.

Era berean, gastu-politika honi egotziko zaio nekazaritza-gordailurako ekarpena edo kuota, halakorik dagoenean.

Bost programa-talde tipifikatzen dira:

410. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako administrazio orokorra.

412. Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta ekoizpen-sistemen hobekuntzak.

414. Landa garapena.

415. Arrantza-baliabideen babesa eta garapena.

419. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako beste jarduketa batzuk.

42. gastu-politika. Industria eta energia.

Erakunde lokalaren jarduera-esparruan industria sustatu, lagundu eta garatzeko egiten diren era guztietako gastuak biltzen ditu.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Honako gastu hauek egotziko zaizkio gastu-politika honi: enpresen kapitalean eginiko inbertsioak; enpresa-jardueraren sustapena; birmoldaketarako eta berrindustrialtzeko laguntzak; industria-enpresen elkartegintzaren sustapena, eta helburu horietarako egiten den edozein transferentzia nahiz industria lokalizatzeko pizgarri.

Horiez gainera, meatzaritzari emaniko laguntzarekin zerikusia duten gastuak, meatze-ekoizpenaren ikerketa, prestakuntza, merkaturatzea eta beste jarduera batzuk.

Era berean, energia ekoiztu, transmititu eta banatzearekin zerikusia duten gastuak ere biltzen ditu; bereziki, gasari eta argindarrari dagozkionak. Halaber, gastu-politika honi egotziko zaizkio beste eragile bati eginiko transferentziak, bertan jasotzen diren jardueren helburu bera dutenean.

Lau programa-talde tipifikatzen dira:

420. Industriaren eta energiaren administrazio orokorra.

422. Industria.

423. Meatzaritza.

425. Energia.

43. gastu-politika. Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak.

Merkataritzarekin edo merkataritza-jarduerarekin zerikusia duten era guztietako gastuak jasoko dira gastu-politika honetan.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Honako gastu hauek jasoko ditu: merkatu nagusiei edo txikizkakoei, lonjei nahiz halakoen antzeko beste edozeini dagozkien gastuak; lehia defendatzeko jarduketak; pisuen eta neurrien kontrola eta izaera bereko beste batzuk; establezimenduen ikuskapena eta onespena.

Turismoa garatu eta sustatzeko egiten diren era guztietako gastuak ere jasoko ditu.

Hotel-establezimendu, kanpin eta turismo-bulegoen sorrera, kontserbazio eta funtzionamendu gastuak egotziko dira, bai eta liburuxkak, kartelak eta liburuak editatzeari nahiz publizitate-kanpainei dagozkienak ere. Halaber sartuko dira gastu-politika honetan helburu horiek berak lortzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei egiten zaizkien transferentziak.

Azkenik, enpresa txiki eta ertainak garatzeko bideratzen diren gastuak ere sartuko dira gastu-politika honetan.

Bost programa-talde tipifikatzen dira:

430. Merkataritza, turismo eta enpresa txiki eta ertainen administrazio orokorra.

431. Merkataritza.

Merkataritza programa-taldearen barruan, hiru programa tipifikatzen dira: azokak, merkatuak eta kale-merkataritza.

4311. Azokak.

4312. Merkatuak, hornidura-azokak eta lonjak.

4313. Kale-merkataritza.

432. Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena.

433. Enpresa-garapena.

439. Beste jarduketa sektorial batzuk.

44. gastu-politika. Garraio publikoa.

Erakunde lokalek garraio publikoaren zerbitzuaren mantenimendura, garapenera eta finantziaziora bideratzen dituzten gastuak bilduko ditu.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Gastu-politika honi aplikatuko zaizkio honako inbertsio-gastu hauek: garraiobideak erostea; azpiegituren sorrera, hobekuntza eta mantentze-lana, hala nola autobus-geltokiena, portuena, aireportuena eta izaera bereko beste batzuena.

Lau programa-talde tipifikatzen dira:

440. Garraioaren arloko administrazio orokorra.

441. Bidaiarien garraioa.

Bidaiarien garraioa programa-taldearen barruan, bi programa sortzen dira: bidaiarien taldekako hiri garraioa eta beste bidaiari-garraio mota batzuk.

4411. Bidaiarien taldekako hiri-garraioa.

4412. Beste bidaiari-garraio mota batzuk.

442. Garraio-azpiegiturak.

443. Salgaien garraioa.

45. gastu-politika. Azpiegiturak.

Aurreko gastu-politiketan jasotzen ez diren oinarrizko azpiegituren sorrera, hobekuntza eta mantentze-lanei dagozkien era guztietako gastuak biltzen ditu.

Administrazio orokorreko programa-taldean sartzen diren gastuak honako ekintza hauei dagozkienak izango dira: gastu-politika osatzen duten zuzendaritza-zentroei laguntzeko funtzioen plangintza, koordinazioa, kontrola, antolakuntza, kudeaketa administratiboa eta garapena.

Gastu-politika honi aplikatuko zaizkio honako inbertsioetan egiten diren gastu guztiak: erakunde lokalaren mendeko errepideak eta auzo-bideak eraiki eta hobetzea, eta horien osagarriak, hala nola zubiak, zubibideak, seinaleztatzea edo balizajea, bai eta beharrezkoak diren azterlan eta laguntza teknikoko zerbitzuei dagozkien gastuak ere. Baliabide hidraulikoei dagokienez, erakartze-, pilatze- eta kanalizazio-lanen gastuak jasoko dira, hiriko banaketa-sarearen hasierara arte, bai eta izaera bereko beste batzuk ere.

Bost programa talde tipifikatzen dira, haien artetik bereiziz gastu-politika honek biltzen dituen azpiegiturekin zerikusi zuzena duten administrazio-gastu orokorrak ordaintzeko direnak.

450. Azpiegituren arloko administrazio orokorra.

452. Baliabide hidraulikoak.

453. Errepideak.

454. Auzo-bideak.

459. Beste azpiegitura batzuk.

46. gastu-politika. Ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Oinarrizko ikerketara eta ikerketa aplikatura bideratzen diren administrazio-, azpiegitura-, funtzionamendu- eta laguntza-gastuak biltzen ditu, eta are beste eragile batzuei helburu horiek lortzeko egiten zaizkien transferentziak ere.

Gastu-politika honi egotziko zaizkio ezagutza zientifiko hutsak sustatzeko jarduerei dagozkien gastuak, bai eta helburu praktiko, espezifiko eta zehatzak dituztenak baina beste ezin gastu-politikari aplika ezin dakizkiokeenak ere.

Bi programa-talde tipifikatzen dira:

462. Zerbitzu publikoekin zerikusia duten ikerketa eta azterlanak.

463. Ikerkuntza zientifikoa, teknikoa eta aplikatua.

49. gastu-politika. Beste jarduketa ekonomiko batzuk.

Telekomunikazioen, Informazioaren Gizartearen eta ezagutzaren kudeaketaren kudeaketa-, funtzionamendu-, laguntza-, hornidura- eta sustapen-gastuak biltzen ditu, bai eta izaera bertsuko beste batzuk ere; hedabideak, ikus-entzunezko programen produkzioa eta zabalkundea, administrazio elektronikoa, kontsumitzaileei laguntzeko eta haiek defendatzeko bulegoak, bai eta beste eragile batzuei helburu horiek berak lortzeko egiten zaizkien transferentziak ere.

Hiru programa-talde tipifikatzen dira:

491. Informazioaren gizartea.

492. Ezagutzaren kudeaketa.

493. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa.

9. gastu-arloa. Jarduketa orokorrak.

Oro har erakunde lokalari eragiten dioten honako jarduera hauei buruzko gastuak sartzen dira gastu-arlo honetan: gobernu-funtzioak betetzea edo erakunde guztiari laguntza administratiboa eta laguntza logistiko eta teknikoa ematea.

Erakundearen gastu orokorrak jasoko ditu, baldin eta ezin bazaizkio zuzenean aplikatu programa-sailkapen honetan aurreikusitako beste ezein arlori.

Arlo honetan sartuko dira, halaber, programa-sailkapen honen ezein epigraferi aplika ezin zaizkion transferentzia orokor guztiak, zeren, bestela, berez dagokien gastu-politika zehatzari egotziko baitzaizkio.

91. gastu-politika. Gobernu-organoak.

Erakunde lokalaren gobernu-organoen eratze- eta funtzionamendu-gastuak biltzen ditu, bai eta haien ordezkaritza-gastuak ere. Hala, bada, gastu-politika honetan jasoko dira korporazioko presidentearen eta kideen diru-sariak eta kalte-ordainak; presidentetzaren idazkaritza partikularrak; bidaia-sariak eta gastuak eta izaera bertsuko beste gastu batzuk. Orobat egotziko zaizkio politika honi material-gastuak eta gobernu-organoei laguntzeko behar direnak.

Programa-talde bat tipifikatzen da:

912. Gobernu-organoak.

92. gastu-politika. Zerbitzu orokorrak.

Erakunde lokalaren gainerako zerbitzuei zerbitzu ematen edo laguntzen dieten gainerako zerbitzuen gastuak biltzen ditu.

Hala, bada, gastu-politika honi egotziko zaizkio bulego-gastuak eta sail orokorretakoak; informazioa, argitalpenak, erregistroa eta harremanak; barneko garapen eta euskarri informatikoak; koordinazio eta kontrol orokorra: agiritegia, antolamendua eta metodoak, arrazionalizazioa eta mekanizazioa; langileen administrazioa; hauteskundeak; herritarrentzako arreta eta herritarren parte-hartzea, ibilgailuak (salbu eta zerbitzu jakin bati atxikitako ibilgailuak, halakoak dagokien idazpuruari egotziko baitzaizkio) eta erakundearen aholkularitza eta interesen defentsarako gastuak.

Gastu-politika honetan bilduko dira, halaber, izaera orokorreko oinarrizko informazioa eta erakunde lokalaren zerbitzuei buruzko estatistikak prestatzearekin zerikusia duten jardueren gastuak.

Era berean, azterlan-kabineteei buruzko gastuak eta izaera orokorreko informazioari eta dokumentazioari buruzkoak ere politika honi egotziko zaizkio.

Zazpi programa-talde tipifikatzen dira:

920. Administrazio orokorra.

922. Erakunde lokalen koordinazioa eta antolakuntza instituzionala.

923. Oinarrizko informazioa eta informazio estatistikoa.

Oinarrizko informazioa eta informazio estatistikoa izeneko programa-taldearen barruan, programa bat tipifikatzen da: biztanleen udal erroldaren kudeaketa.

9231. Biztanleen udal erroldaren kudeaketa.

924. Herritarren parte-hartzea.

925. Herritarrenganako arreta.

926. Barne komunikazioa.

929. Ustekabekoak eta sailkatu gabeko funtzioak.

Ustekabekoak eta sailkatu gabeko funtziok izeneko programa-taldearen barruan, kreditu osorako dotazioa sartuko da, bai eta beste dotazio bat ere, hasiera batean onarturiko aurrekontuan aurreikusten ez diren arautu gabeko beharrizanei erantzuteko, ekitaldian zehar halakorik gertatuz gero.

93. gastu-politika. Finantza- eta zerga-administrazioa.

Erakunde lokalaren finantza-kudeaketari dagozkion gastu guztiak biltzen ditu gastu-politika honek.

Honako zerbitzu hauen gastu orokorrak egotziko zaizkio: ekonomia eta ogasuna; plangintza, aurrekontuak eta zerga-sistema; barne-kontrola eta kontabilitatea eta kontu orokorrak; diruzaintzaren kudeaketa; ondarearen kudeaketa, ondare-kontabilitatea eta kontu-ematea; tributuen kudeaketa, ikuskapena eta bilketa, errolda-fiskalen gaineko prestakuntza eta haiek eguneratzea; erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko eta zergadunaren defentsarako organoak, eta erakundearen ekonomia- eta finantza-jarduerarekin zerikusia daukaten beste gastu batzuk.

Halaber, hemen jasoko dira erabilera anitzetarako eraikin ofizialak eraiki, hobetu eta kontserbatzeari buruzko gastuak, are lurrak erosteari dagozkionak ere.

Lau programa-talde tipifikatzen dira:

931. Politika ekonomikoa eta fiskala.

932. Tributu-sistemaren kudeaketa.

933. Ondarearen kudeaketa.

934. Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa.

94. gastu-politika. Beste administrazio publiko batzuei eginiko transferentziak.

Gastu-politika honi aplikatuko zaizkio, halaber, programa-sailkapen honen ezein epigraferi aplika ezin zaizkion transferentzia orokor guztiak, zeren, bestela, finantzaturiko jarduerari berez dagokion gastu-politika zehatzari egotziko baitzaizkio.

Lau programa-talde tipifikatzen dira, transferentziaren hartzailearen arabera.

941. Autonomia-erkidegoari eginiko transferentziak.

942. Foru aldundiari, mankomunitateei eta partzuergoei eginiko transferentziak.

943. Beste erakunde lokal batzuei eginiko transferentziak.

944. Estatuaren Administrazio Orokorrari eginiko transferentziak.

0. gastu-arloa. Zor publikoa.

Gastu-arlo honetan sartzen dira korrituen gastuak eta zor publikoaren amortizazioarenak, bai eta izaera bertsuko gainerako finantza-eragiketak ere, salbu halakoen formalizazioak eragiten dituen gastuak.

Arlo honi egotziko zaizkio, halaber, erakunde lokalaren finantza-zamari erantzuteko egiten diren gastuak, amortizazioa eta interesak, kontrataturiko kreditu-eragiketetatik eratorriak. Kontratuen formalizazio-gastuok 93. gastu-politikan sartuko dira, 934. programa-taldean.

01. gastu-politika. Zor publikoa.

Programa-talde bakarra tipifikatzen da:

011. Zor publikoa.

Gastu-programen araberako sailkapena.

Gastu-arloa	Gastu-politika	Programa taldea	Programak	Izena
1				OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK.
	13			Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna.
		130		Segurtasunaren eta babes zibilaren administrazio orokorra.
		132		Segurtasuna eta ordena publikoa.
		133		Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua.
		134		Hiri-mugikortasuna.
		135		Babes zibila.
		136		Prebentzio eta su-itzaltze zerbitzua eta sorospena.
	15			Etxebizitza eta hirigintza.
		150		Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra.
		151		Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina.
		152		Etxebizitza.
			1521	Babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa.
			1522	Eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea.
		153		Bide publikoak.
			1531	Biztanleguneetarako sarbideak.
			1532	Bide publikoen zolaketa.
	16			Komunitate-ongizatea.
		160		Estolderia.
		161		Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza.
		162		Hondakinak batu, kudeatu eta tratatzea.

		1621		Hondakinen bilketa.
		1622		Hiri-hondakin solidoen kudeaketa.
		1623		Hondakinen tratamendua.
		163		Bideak garbitzea.
		164		Hilerria eta hileta-zerbitzuak.
		165		Kale-argiteria.
		166		Hondakin-uren ebaluazioa eta tratamendua.
	17			Ingurumena.
		170		Ingurumenaren administrazio orokorra.
		171		Parkeak eta lorategiak.
		172		Ingurumenaren babesa eta hobekuntza.
			1721	Hiriguneetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa.
		173		Hondartzak.
2				2 BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK.
	21			Erretiro pentsioak.
		211		Erretiro pentsioak.
	22			Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk.
		221		Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk.
	23			Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena.
		230		Gizarte zerbitzuen arloko administrazio orokorra.
		231		Lehen mailako gizarte-laguntza.
	24			Enpleguaren sustapena.
		241		Enpleguaren sustapena.
3				3 LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA.
	31			Osasuna.
		311		Osasungarritasun publikoaren babesa.
		312		Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak.
	32			Hezkuntza.
		320		Hezkuntzaren arloko administrazio orokorra.
		321		Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak sortzea.
		322		Bigarren hezkuntzako ikastetxeak sortzea.

		323		Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen eta hezkuntza bereziko ikastetxeen funtzionamendua.
		324		Bigarren hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua.
		325		Derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzea.
		326		Hezkuntzako zerbitzu osagarriak .
		327		Herritarren bizikidetza sustatzea.
	33			Kultura.
		330		Kulturaren arloko administrazio orokorra.
		332		Liburutegi eta agiritegiak.
			3321	Liburutegi publikoak.
			3322	Agiritegiak.
		333		Kultura-ekipamenduak eta museoak.
		334		Kulturaren sustapena.
		335		Euskara.
		336		Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa.
		337		Astialdia betetzeko instalazioak.
		338		Herri-jaiak eta ospakizunak.
	34			Kirola.
		340		Kirolaren arloko administrazio orokorra.
		341		Kirola sustatzea eta bultzatzea.
		342		Kirol instalazioak.
4				JARDUKETA EKONOMIKOAK.
	41			Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.
		410		Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako administrazio orokorra.
		412		Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta ekoizpen-sistemen hobekuntzak.
		414		Landa garapena.
		415		Arrantza-baliabideen babesa eta garapena.
		419		Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako beste jarduketa batzuk.
	42			Industria eta energia.
		420		Industriaren eta energiaren administrazio orokorra.
		422		Industria.
		423		Meatzaritza.
		425		Energia.

	43			Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak.
		430		Merkataritza, turismo eta enpresa txiki eta ertainen administrazio orokorra.
		431		Merkataritza.
			4311	Azokak.
			4312	Merkatuak, hornidura-azokak eta lonjak.
			4313	Kale-merkataritza.
		432		Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena.
		433		Enpresa-garapena.
		439		Beste jarduketa sektorial batzuk.
	44			Garraio publikoa.
		440		Garraioaren arloko administrazio orokorra.
		441		Bidaiarien garraioa.
			4411	Bidaiarien taldekako hiri-garraioa.
			4412	Beste bidaiari-garraio mota batzuk.
		442		Garraio-azpiegiturak.
		443		Salgaien garraioa.
	45			Azpiegiturak.
		450		Azpiegituren arloko administrazio orokorra.
		452		Baliabide hidraulikoak.
		453		Errepideak.
		454		Auzo-bideak.
		459		Beste azpiegitura batzuk.
	46			Ikerketa, garapena eta berrikuntza.
		462		Zerbitzu publikoekin zerikusia duten ikerketa eta azterlanak.
		463		Ikerkuntza zientifikoa, teknikoa eta aplikatua.
	49			Beste jarduketa ekonomiko batzuk.
		491		Informazioaren gizartea.
		492		Ezagutzaren kudeaketa.
		493		Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa.
9				**JARDUKETA OROKORRAK.**
	91			**Gobernu-organoak.**
		912		Gobernu-organoak.
	92			**Zerbitzu orokorrak.**
		920		Administrazio orokorra.
		922		Erakunde lokalen koordinazioa eta antolakuntza instituzionala.

		923		Oinarrizko informazioa eta informazio estatistikoa.
			9231	Biztanleen udal erroldaren kudeaketa.
		924		Herritarren parte-hartzea.
		925		Herritarrenganako arreta.
		926		Barne komunikazioa.
		929		Ustekabekoak eta sailkatu gabeko funtzioak.
	93			**Finantza- eta zerga-administrazioa.**
		931		Politika ekonomikoa eta fiskala.
		932		Tributu-sistemaren kudeaketa.
		933		Ondarearen kudeaketa.
		934		Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa.
	94			**Beste administrazio publiko batzuei eginiko transferentziak.**
		941		Autonomia-erkidegoari eginiko transferentziak.
		942		Foru aldundiari, mankomunitateei eta partzuergoei eginiko transferentziak.
		943		Beste erakunde lokal batzuei eginiko transferentziak.
		944		Estatuaren Administrazio Orokorrari eginiko transferentziak.
0				**ZOR PUBLIKOA.**
	01			Zor publikoa.
		011		Zor publikoa.

3. ERANSKINA.
KONTABILITATE PUBLIKOAREN PLAN OROKORRA TOKI-ADMINISTRAZIOARI EGOKITUTA.

SARRERA.

Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrak (aurrerantzean TAKPPO-2004), zeina Bizkaiko toki-erakundeen kontabilitate publikoaren plan orokorra eta aurrekontu-egitura onartu zituen abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen, lehendik hasitako ildo bati jarraitu zion, toki-administrazioen esparruan kontabilitate-normalizazioa lortzeko 1991ko Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren lehen Plan Orokorrak eta enpresa-kontabilitateak hasitakoari. TAKPPO-2004 planak 1994ko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra hartu zuen erreferentzia gisa, eta azken hori, berriz, abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretuak onartutako enpresarentzako Kontabilitate Plan Orokorrean oinarritu zen, herri-administrazioen ezaugarri juridiko eta ekonomikoetara egokituta.

Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren egungo Plan Orokorrak (TAKPPO aurrerantzean) Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra dauka erreferentzia moduan (KPPO-2010 aurrerantzean), zeina apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduak onartu baitzuen, herri-administrazio guztietarako kontabilitateko esparru-plana baita, eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean (KPO aurrerantzean) oinarrituta baitago.

KPPO-2010 plana Sektore Publikoko Kontabilitateari aplika dakizkiokeen Nazioarteko Arauetara egokitzen da (SP-KNA aurrerantzean), zeinak Kontularien Nazioarteko Federazioak (IFAC, ingelesezko siglen arabera) egin baitzituen, eta egokitze hori Sektore Publikorako Nazioarteko Kontabilitate Arau Batzordearen bidez (IPSASB, ingelesezko siglen arabera) gauzatzen da.

SP-KNA arauak enpresa publikoak ez diren sektore publikoko entitateei aplikatzeko kalitate handiko informazio finantzariorako arau orokorrak dira, eta, haien zuzeneko aplikaziorik ez dagoen neurrian, erreferentzia dira TAKPPO plana interpretatzeko orduan.

Bestalde, azpimarratu behar da kontabilitate-printzipio eta -arau publikoetarako batzordeak onartutako kontabilitate publikoko printzipio-dokumentuak aplikatzen jarraitu ahal izango direla TAKPPO planaren aurkakoak ez diren alderdietan.

TAKPPO honen bidez, kontabilitatea bateratzeaz gain, urteko kontuek ematen duten informazioa areagotzea lortu nahi izan da. Ondarearen emaitza ekonomikoa, adierazle moduan, ez zen aski gestioa ebaluatzeko, enpresen esparruan gertatzen den bezala; finantza- eta aurrekontu-informazioa osatu egin behar da kudeatzeko erabakiak hartzen laguntzen duen bestelako informazio batekin.

TAKPPO bost zatitan dago egituratuta, eta haien aurretik sarrera hau dago, non planaren funtsezko ezaugarriak eta TAKPPO-2004 planarekiko alde nagusiak azaltzen baitira. Planaren bost zatiak hauek dira:

- Lehen zatia: Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua.
- Bigarren zatia: Aintzatespen- eta balioespen-arauak.
- Hirugarren zatia: Urteko kontuak.
- Laugarren zatia: Kontu-taula.
- Bosgarren zatia: Kontabilitate-definizioak eta -erlazioak.

Lehen zatia. Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua.

Kontabilitate publikoaren kontzeptuzko esparrua berritasuna da aurreko kontu-planaz den bezainbatean, eta barruan jasotzen ditu urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak, kontabilitate-informazioaren baldintzak, kontabilitate-printzipioak, urteko kontuetako elementuen definizioa, eta elementu horiek erregistratu eta balioesteko kontabilitate-irizpideak, irudi zehatzaren helburua lortzeko. Kontzeptuzko esparru horrek Bizkaiko toki erakundeetako aurrekontuen egitura eta kontabilitate publikoko plan nagusia onetsi dituen abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuaren bidez onartutako Planeko «Kontabilitate Publikoaren Printzipioak» lehen zatia ordeztu eta zabaldu egiten du, eta sei atal dauzka: 1. Urteko kontuen irudi zehatza; 2. Urteko kontuetan sartzeko informazioaren betebeharrak; 3. Kontabilitate-printzipioak; 4. Urteko kontuetako elementuak; 5. Urteko kontuetako elementuak kontabilitatean erregistratzeko eta aintzatesteko irizpideak; 6. Balioespen-irizpideak.

Kontzeptuzko esparru horrek oinarrizko kontabilitate-kontzeptuak bateratzen ditu, eta kontabilitate-arauak aztertzeko eta interpretatzeko euskarria da. Idaztean, 2010eko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren kontzeptuzko esparrua (KPPO-2010) hartu da erreferentzia moduan, eta azken horren erreferentzia, berriz, «Egoera-orri finantzarioen aurkezpena» 1 SP-KNA araua izan da, Nazioarteko Kontabilitate Arauen Kontseiluaren kontzeptuzko esparrua (IASB, ingelesezko siglen arabera), sektore publikoaren ezaugarri bereziekin batera, hala nola kontabilitate-printzipio publikoen dokumentuak eta KPOren lehen zatian jasotako kontabilitatearen kontzeptuzko esparrua.

Urteko kontuen helburuak, TAKPPO-2004 planean bezala, ondarearen, egoera finantzarioaren eta ondarearen emaitza ekonomikoaren irudi zehatza ematea izaten jarraitzen du. Urteko kontuei dagokienez, esan behar da TAKPPO-2004 planean jasotakoei kontabilitate-entitatearen

aurrekontua gauzatzearen egoera-orria gehitzen zaiela. Gainera, plan berriak beste bi dokumentu sartzen ditu urteko kontuetan: «ondare garbiko aldaketen egoera-orria» eta «eskudiru-fluxuen egoera-orria».

Nobedade gisa, urteko kontuek erakutsi behar duten irudi fidela lortze aldera, eragiketak kontabilizatzean, errealitate ekonomikoari erreparatuko zaio, ez forma juridikoari soilik. Arau berri horren adibide da errentamendu finantzarioaren kontabilizazioa, zeinean transakzio baten forma juridikoak benetako funts ekonomikoaz bestelako itxura izan baitezakeen; hartara, forma juridikotik eratorritako ezaugarriak soilik jarraituz gero, urteko kontuetan ez litzateke emango entitatearen egoera finantzarioaren eta ondarearen emaitza ekonomikoaren irudi zehatza.

Urteko kontuetan jasotako informazioak honako baldintza hauek bete behar ditu: argitasuna, garrantzia, fidagarritasuna eta alderagarritasuna.

Haien artean, fidagarritasuna azpimarratu behar da. Informazioa fidagarria da errakuntza materialik edo zehartasunik ez duenean eta irudikatu nahi duenaren irudi fideltzat har daitekeenean. Betekizun hori betetzeak informazioa osoa eta objektiboa izatea, eragiketen funts ekonomikoa forma juridikoari gailentzea eta ziurgabetasun-egoeretan estimazioak eta balioespenak egiterakoan zuhurra izatea dakar.

Kontabilitate-printzipioak taldeka aurkezten dira; bereizten dira batetik, ondare eta ekonomia izaera dutenak (gestio jarraitua, sortzapena, uniformetasuna, zuhurtzia, konpentsaziorik eza eta garrantzi erlatiboa), eta bestetik, aurrekontu izaera dutenak (aurrekontu-egoztea, eta jaregitea). Eskuratze-prezioei, sarreren eta gastuen korrelazioari, erregistroari eta kontabilitateko erakundeari buruzko kontabilitate-irizpideek, TAKPPO-2004an jasotzen zirenek, kontabilitateko printzipio izateari uzten diote plan berri honetan, kontzeptu-esparruaren beste zati batzuetan jasotzen badira ere. Eta hala, sarreren eta gastuen korrelazio- eta erregistro-printzipioak erregistro-irizpide gisa adierazita agertzen dira 5. atalean; kontabilitateko erakunde-irizpidea 1. atalera aldatzen da; eta eskuratze-prezioaren printzipioa 6. ataleko balioespen-irizpideen artean sartzen da.

Sortzapenaren printzipioa modu orokorragoan agertzen da; hala, sarrera eta gastuak adierazteko ez ezik, aktiboak, pasiboak eta ondare garbia adierazteko ere erabiltzen da. Printzipio honek, beraz, erakundearen eragiketa guztiak hartzen ditu barne.

Beste berritasun bat kontabilitate-printzipioen hierarkia desagertzea da; beraz, gatazkaren bat sortuz gero, lehentasuna emango zaio urteko kontuek erakundearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela eman dezaten egokiena denari.

Nabarmendu beharreko beste nobedade bat, kontzeptu-esparruko 4. atalean, urteko kontuetako elementuak (aktiboak, pasiboak, ondare garbia, sarrerak eta gastuak, aurrekontuko sarrerak eta gastuak eta kobrantzak eta ordainketak) definitzea da.

Aktiboei dagokienez, euren gaineko kontrol ekonomikoa edukitzeaz gain, erakundeak etorkizunean etekin ekonomikoak ateratzeko aukera, edo zerbitzu-potentziala izatekoa, izan behar du. Hortaz, «etorkizuneko errendimendu ekonomikoak» daramatzaten aktiboak eta «zerbitzu-potentziala» daramaten aktiboak bereizten dira; aurrenekoak dirua sartzeko fluxu garbiak sortzeko erabiltzen dira, eta besteak, berriz, kolektibitatearen onurarako fluxu ekonomiko sozialak sortzeko. Aktiboak definitzearen ondorioetako bat aurreko araudian «aktibo faltsu» izenez ezagutzen zirenak, ekitaldi batean baino gehiagotan banatzeko gastuak, desagertzea da. Horiek ez dituzte aktiboen betekizunak betetzen plan berri honetan.

Pasiboak lehengo gertakariek eragindako ondorioetatik sortutako uneko obligazioak dira, eta horiek desagertzearekin baliteke etekin ekonomikoak dakartzaten baliabideak eta zerbitzu-potentzialak gutxitzea. Definizio horren ondorioz, hornidurak sartzen dira pasiboen artean. TAKPPO-2004ko konponketa handietarako hornidurak ez du betetzen pasiboaren definizioa, eta, horregatik, ordezkatze gisa kontabilizatzen da. Nobedade gisa nabarmendu behar da pasiboak «uneko obligaziotzat» hartzetik datorrela bere balioa eguneratzeko behar orokorra.

Sarreren eta gastuen definizioei dagokienez, hainbat sarrera eta gastu zuzenean ondare garbian kontabilizatzen dira, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egozteko aukerari kalterik egin gabe. Hori nobedade garrantzitsu bat da. Plan honetan, TAKPPO-2004an ez bezala, ez da identifikatzen sarrera kontzeptua ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuaren osagai positiboarekin. Adibidez, hori gertatzen da zenbait aktibo arrazoizko balioan balioestean; izan ere, balantzean dauden bitartean eta narriatzen ez diren bitartean, arrazoizko balioagatiko gehikuntza ondare garbiaren kontu zehatz batera edo jasotako diru-laguntzenera egozten da, eta oro har, sarrera gisa kontabilizatzen dira ondare garbiaren partida zehatz batean, ondoren, ondarearen emaitza ekonomikora egotzita, helburuaren arabera. Ondare garbira egotzitako sarreren eta gastuen kategoria berri horren ondorio bat beste eragiketa batzuez gain ondare garbian zuzenean aintzatetsitako sarrerak eta gastuak urteko kontuen beste egoera-orri batean, hain zuzen ere ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian, jasotzeko beharra da.

Kontzeptu-esparruko 5. atalean («Urteko kontuetako elementuak erregistratzeko edo aintzatesteko irizpideak»), aktiboek, pasiboek, gastuek, sarrerek eta abarrek kontu horietan aintzatetsiak izateko zer baldintza bete behar dituzten jasotzen da.

Kontzeptu-esparruko 6. atalean bildutako balioespen-irizpideak geroago garatzen dira kontabilitate-planaren bigarren zatiko aintzatespen- eta balioespen-arauetan, eta aktibo eta pasibo jakin batzuk balioesteko erabiltzen den arrazoizko balioa gehitzea da berritasun nagusia. Haren definizioa hau da: alderdi interesatu eta behar bezala informatu batzuek elkarrekiko independentzia osoz egindako transakzio batean aktibo baten truke eskura daitekeen zenbatekoa, edo pasibo bat kitatzeko eman beharrekoa. Edozer modutara ere, arrazoizko balioak merkatuko balio fidagarri bati lotuta egon behar du.

Honako hauek ere balioespen-irizpide berriak dira: hondar-balioa, erabilera-balioa, balio berreskuragarria eta kostu amortizatua.

Aktibo baten «hondar-balioari» dagokionez, aktiboaren bizitza erabilgarriaren eta bizitza ekonomikoaren arteko diferentzia nabarmentzen da. Lehenak, erakundeak aktibo hori erabiltzen duen aldia denez, aktiboaren kontzeptu subjektiboari egiten dio erreferentzia; bizitza ekonomikoa, berriz, kontzeptu objektiboa da: erabiltzaile batek edo gehiagok aktibo hori erabiliko dutela espero den denbora-tartea.

«Erabilera-balioak» definizio desberdina du etorkizuneko etekin ekonomikoak barne hartzen dituzten aktiboentzat eta zerbitzu-potentziala barne hartzen dutenentzat. Lehenak honako hau dira: erakundearen ohiko jardueran erabiltzearen bidez -eta, hala egokituz gero, inorenganatzearen bidez- espero diren diru-fluxuen uneko balioa, arriskurik gabeko merkatuaren Interes-tasa batera eguneratua. Zerbitzu-potentziala barne hartzen duten aktiboen «erabilera-balioa», berriz, zerbitzu-potentzialari eutsita aktiboaren balio eguneratua da. Honela zehaztuko da balioa: aktiboaren birjarpen-kostuari metatutako amortizazioa, kostu hori oinarri hartuta kalkulatutakoa, kenduko zaio; hartara, aktiboaren erabilera islatuko da.

Aktibo baten «zenbateko berreskuragarria» haren arrazoizko balioari salmenta-kostua eta erabilera-balioa kenduta lortzen dena da. «Zenbateko berreskuragarri» hori ibilgetu ez-finantzarioaren narriadura kalkulatzeko erabiltzen da.

Azkenik, aktibo edo pasibo finantzario baten «kostu amortizatua» definitzen da. Kredituak eta zorrak balioesteko erabiltzen da, eta aktibo edo pasibo finantzario horien oraingo balioa da, eurak eguneratzeko Interes-tasa efektiboa erabilita. «Kostu amortizatua» kalkulatzeko, printzipaletik dagoeneko itzulitako zatia kentzen zaio aktibo edo pasibo finantzario baten hasierako balioespenean ezarritako zenbatekoari, eta hasierako zenbatekoaren eta mugaeguneko errenboltso-balioaren arteko diferentziatik ondasun ekonomikoen emaitzaren kontura (Interes-tasa efektiboaren metodoaren bitartez) egotzitako zatia gehitu edo kendu egiten zaio, egoki denaren arabera, eta, aktibo finantzarioak direnean, narriaduragatik kontabilizatutako balio-gutxitze oro kentzen zaio. Interes-tasa efektiboa aktibo edo pasibo finantzario baten kontabilitate-balioa eta horren bizitzan zehar espero diren diru-fluxu estimatuen balioa berdintzen dituen eguneratze-tasa da. Zorrak balioesteko irizpidea aldatzearen ondorioz, ekitaldi batean baino gehiagotan banatzeko gastuak desagertzen dira; izan ere, kostu amortizatuaren araberako balioespen berriarekin, etekin inplizituak zorraren

balio handiago gisa sortzera eta aintzatestera pasatzen dira, horren bizitzan zehar, Interes tasa efektiboa erabilita.

Bigarren zatia. Aintzatespen- eta balioespen-arauak.

Aintzatespen- eta balioespen-arauak hartzen ditu barruan, eta haiek kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruari buruzko plan honetako lehen zatian jasotako kontabilitate-printzipioen eta gainerako xedapenen garapena dira. Arauok TAKPPO-2004aren «Balioespen-arauak» bosgarren zatian jasotakoak baino zabalagoak dira, eta zenbait ondare-elementuri aplika dakizkiekeen aintzatespen- eta balioespen-irizpideak hartzen dituzte barruan.

Ibilgetu materialari dagokion 1. arauan, ibilgetu horretako elementuak aintzatesteko irizpideak garatzen dira, eta balioespen-irizpide tradizionalei (eskuratze-prezioa eta ekoizpen-kostua) arrazoizko balioa gehitzen zaie, kontzeptu-esparruan jasotako definizioaren arabera.

Berritasun gisa, eskuratze-prezioari aktiboa desegitearen eta haren kokapena berriztatzearen ondoriozko obligazioen uneko balioa gehitzen zaio, hornidura aintzatesten den neurrian.

Gastu finantzarioak aktibatzea onartzen da, TAKPPO-2004an bezalaxe, baina hori egin ahal izateko baldintza eta betebehar gehiago eskatzen dira.

Ekoizpen-kostuari dagokionez, zeharkako kostuak banatzeko prozesua zerbait gehiago zehaztu da.

Berritasun garrantzitsua da arrazoizko balioaren ibilgetu materiala onartzea geroko balioespenean, merkatuaren egoeraren ondorioa bada funtsezko igoerak gertatzea prezioan, eta, horrenbestez, kontabilitate-balioa garrantzi gutxikoa izatea benetako balioarekin alderatuta. Gainera, arrazoizko balioa erabiltzeko hainbat kautela ezarri dira. Izan ere, plusbalioen kalkuluan sor daitekeen zehartasuna txikiagotzeko merkatu nahiko esanguratsua eta gardena dagoen kasuetan soilik izango da erabilgarria.

Ondasunen trukaketei dagokienez, bi kasu bereizten dira, trukatutako aktiboak, funtzionaltasunaren edo bizitza erabilgarriaren ikuspegitik, antzekoak diren ala ez kontuan hartuta.

Konponketa handietarako horniduraren kontabilitate-tratamenduan ere aldaketa gertatzen da TAKPPO-2004aren aldean. Plan berri honetan, ibilgetu materialaren zenbatekoa zehazterakoan, konponketa handiekin edo ikuskaritza orokorrekin erlazionatutako kostuak kontuan hartuko dira, eta kostu horiek ez baleude zehaztuta erosketan edo eraikuntzan, antzeko konponketa edo ikuskaritza baten merkatuko uneko prezioa erabili ahalko da, ordezkapen gisa kontabilizatuko da, eta konponketa handi batetik eratorritako edozer zenbatekori, ibilgetuaren kontabilitate-balioan egon litekeenari, baja emango zaio. Kostu hauek ez dira elementuaren gainerakoa bezala amortizatuko, konponketa handia edo ikuskaritza nagusia egiten den arteko tartean.

Amortizazioei dagokienez, nobedade gisa esan daiteke lurren kostua amortiza daitekeela desegite-, lekualdatze- eta birgaitze-kostuak daudenean, eta lurren zati hori etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala lortzen diren epealdian amortizatuko dela, gastu horiek egiteagatik.

Araudiak dio ibilgetu materialaren elementuen bizitza erabilgarria eta amortizazio-metodoa aldizka berrikusi egin behar direla. Horretarako, besteak beste, ondoko metodoak erabil daitezke: amortizazio lineala, kontabilitate-balioaren gaineko tasa konstantea edo produzitutako unitateen batura. Metodoa hautatzeko oinarria errendimendu ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala lortzeko esperotako ereduak izango dira, eta ezin badira fidagarritasunez zehaztu, amortizazio-metodo lineala hautatuko da.

Aipatu behar dira balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak, aldaketak baitakartzate TAKPPO-2004ari dagokionez. Narriadura, oro har, kontabilitate-balioari bere zenbateko berreskuragarria kendu ondoren gelditzen den zenbatekoa da, haien arteko aldea esanguratsua

bada. Narriadura-seinalerik ba ote dagoen ebaluatzeko ekitaldi bat amaitu ostean erakundeak kontuan izan beharreko baldintzak jasotzen ditu araudiak.

Ibilgetu materialaren kasu zehatzen erregistroari dagokionez (azpiegiturak, herri-ondasunak eta ondare historikoa), aldaketa garrantzitsua izan da. TAKPPO-2004an, ondasun horiek, normalean, inbertsioa garatzen ari zenean bakarrik erregistratzen ziren aktiboan, eta erabilera orokorrerako ematen zirenean, ondare-kontu batean zordunduta baja ematen zitzaien. Plan berrian, kontabilitatean erregistratuko dira, aktiboaren definizioa eta kontzeptuzko esparruaren 4. eta 5. ataletan bildutako aintzatespen-irizpideak betetzen dituztenean, eta, horrelakoetan, ibilgetu materialaren balioespen-arauak aplikatuko dira. Ondare historikoaren ondasunei dagokienez, kontuan izanik kultura-, ingurumen-, historia- edo arte-irizpideei jarraiki emandako balioa merkatuko prezioan islatuta agertzeko aukera gutxi daudela, araudian zehazten da, modu fidagarrian ezin denean balioetsi, haien inguruko informazioa memorian jasoko dela.

Lurzoruaren ondare publikoak, zeina 3. aintzatespen- eta balioespen-arauak aipatzen baitu, TAKPPO-2004an zeukan kontabilitate-trataera bera izaten jarraitzen du ondare bereizi gisa, eta ibilgetu materialaren balioespen-irizpideak aplikatzen zaizkio.

Plan berrian, 4. aintzatespen- eta balioespen-arauak aipatzen dituen ondasun higiezinetako inbertsioak beste berritasun bat dira. Errentamenduaren edo inorenganatzearen bidez errenta, plusbalioa edo biak lortzeko erabiltzen diren higiezinak (lursailak edo eraikuntzak) dira. Ez dira erabiltzen, beraz, produkziorako edo ondasunez edo zerbitzuz hornitzeko, ezta administrazioaren helburuak betetzeko edo eragiketa arruntetan saltzeko ere. Inbertsio horiei ibilgetu materialaren balioespen-irizpideak aplikatzen zaizkie. Balantzean, bereizita agertzen dira aktibo ez-korronteko partida espezifiko batean.

Ibilgetu ukiezinen erregistroari dagokionez (5. araua), kontzeptu-esparruko aktiboa aintzatesteko irizpideez gain (etekin ekonomikoak lortzeko edo zerbitzu-potentziala izateko aukera eta balioespen-fidagarritasuna), ibilgetu ukiezina identifikagarria izatea (bereizgarria delako edo eskubide legaletatik edo kontratuzkoetatik sortu delako) eskatzen da.

Berritasun gisa, bizitza erabilgarri mugagabea duten aktibo ukiezinak egoteko aukera aurreikusten da, erakundeari etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala emango dizkiotela espero den denborak aurreikusteko moduko mugarik ez duen kasuetan; adibidez, kostu esanguratsurik gabe etengabe berrituz joan daitekeen lizentzia bat. Aktibo horiek ez dira amortizatuko. Horrek ez du esan nahi, ordea, narriatu ezin daitezkeenik.

Ikerketa-gastuen kontabilitate-trataerari dagokionez, hura aktibatzea onartzen da, baldintza jakin batzuk betez gero, eta haiek bizitza erabilgarrian amortizatzea erabaki da, betiere bost urteko epearen barruan; hortaz, TAKPPO-2004an zeukaten trataera bera daukate. Garapen-gastuei dagokienez, plan berrian, arauan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, aktibazioa derrigorrezkoa izango da, aurreko planean ez bezala, orduan aukerakoa baitzen. Gainera, kapitalizatutako garapen-gastuen amortizazioa haien bizitza erabilgarrian zehar egingo da. Hasiera batean, eta kontrakorik frogatu ezean, bizitza hori ez da bost urtetik gorakoa izango.

Azpimarratu behar da, halaber, errentamendu operatibo gisa erabilitako edo ondasunaren bizitza ekonomikoa baino epe laburragoan erabiltzeko lagatako aktiboen gainean inbertsioen kontabilitate-trataera, ibilgetu ukiezinen amaieran kontabilizatzen baitira. Kontabilitate-trataera hori ez dator bat enpresen KPOarekin, azken horietan ibilgetu material gisa hartzen baita. Izan ere, ondasunaren bizitza ekonomikoan baino epe laburragoan erabiltzeko hartutako aktiboak ukiezin gisa kontabilizatzen badira, kontu-plan berri honetan zentzuzkotzat jo da ondasun horien gainean egindako inbertsioak ukiezinaren balio handiago gisa kontabilizatzea. Era honetako eragiketak ohikoagoak dira administrazio publikoan enpresetan baino.

«Errentamenduak eta antzeko eragiketak» 6 arauak aldaketa garrantzitsuak jasotzen ditu TAKPPO-2004az den bezainbatean, errentamendu finantzarioari dagokionez. Arauak dio errentamendua finantzarioa dela, baldin eta errentamendu-akordio baten baldintza ekonomikoetatik ondorioztatzen bada kontratuaren xede den aktiboaren jabetzari datxezkion abantaila eta arrisku guztiak transferitzen direla funtsean, eta arauak transferentzia hori gertatzen dela susmatzen den kasuak erregulatzen ditu.

Zerbitzu-potentziala barne hartzen duten aktiboei dagokienez, beharrezkotzat jo da errentamendu finantzarioari lotutako zenbait irizpide berezi ezartzea. Ildo horretatik, edozer kasutan uste da aktibo mota horientzat kontratuaren xede den aktiboaren jabetzari datxezkion abantaila eta arrisku guztien transferentziarik ez dela gertatzen erakunde publikoak atxikitzen duenean zerbitzu publikoko potentziala; hain zuzen ere, aktibook dutena kolektibitateari onura egiten dioten fluxu sozioekonomikoak sortzean.

Arauak eragiketa kontabilitatean erregistratzea zehazten du errentariaren eta errentatzailearen ikuspegitik. TAKPPO-2004an, errentariak ibilgetu immaterial bat erregistratzen zuen. Plan berri honetan, ordea, errentariak aktibo bat erregistratuko du, errentan hartutako ondasunaren arabera, kontrakontua pasibo finantzario bat izanik. Errentan hartutako aktiboaren arrazoizko balioaren eta errentamenduaren tartean errentariarekin hitzartutako ordainketen uneko balioaren arteko balio txikienarekin kontabilizatzen dira aktiboa eta pasiboa plan berri honetan. Behar izanez gero, erosketarako aukera sartu behar da, eta kuota kontingenteak (kontratuan jarritako aldagai baten baitan dagoen zenbatekoa) nahiz aktibatu ezin diren zerbitzu-kostuak eta gastuak kanpo utzi. Errentariak ondasunaren arrazoizko balioan -gehi hasieran dituen gastu zuzenak- kobratzeko eskubidea erregistratuko du. Aldi berean, aktiboari baja emango dio bere kontabilitate-balioan, eta kasu horretan, ekitaldiko emaitza erregistratuko du.

Geroagoko errentamenduko salmentaren kontabilitate-trataera modu berezian arautu da, TAKPPO-2004an ez bezala. Horrenbestez, eragiketaren baldintza ekonomikoetatik ondorioztatzen bada finantzaketa-metodo bat dela, errentariak ez du aktiboaren kalifikazioa aldatuko, eta ez ditu transakzio horretatik eratorritako emaitzak aintzatetsiko, eta jasotako zenbatekoa pasibo finantzarioko partida batean abonatuta erregistratuko du. «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera kontabilizatuko du eragiketa errentariak.

Plan berrian, beste nobedade bat salgai dauden aktiboak dira. «Salgai dauden aktiboak» 7 aintzatespen- eta balioespen-arauak hasiera batean aktibo ez-korronteak direla esaten du, eta haien kontabilitate-balioa etorkizun hurbilean saltzen direnean errekuperatuko da; ez, ordea, modu jarraituan erabiltzearen ondorioz. Sailkapen hau ezartzeko, aktiboak momentuko baldintzetan segituan saltzeko prest egon behar du, eta segituan saltzeko aukera handia izan behar da. Arauak hori horrela izan dadin bete beharreko baldintza guztiak jaso behar ditu. Balantzean, partida berezi bat sartu da aktibo korrontean, salgai dauden aktiboan jasotzeko.

Arauak aktibo horiek ez amortizatzeko agintzen du, eta salgai dauden aktiboen eta ondasun higiezinetako inbertsioen, ibilgetu ukiezinaren edo materialaren arteko birsailkapenen kontabilitate-trataera ere zehazten du, kostu- edo errebalorizazio-ereduaren arabera kontabilizatutako aktiboak diren kontuan izanik.

«Aktibo finantzarioak» 8 eta «Pasibo finantzarioak» 9 arauak kontu-plan honetako berritasun garrantzitsuenetako bat dira. Aktibo eta pasibo finantzarioen balioespena ez dago euren izaeraren mende, TAKPPO-2004an bezala, hasieran egokitu zaien sailkapenaren mende baizik, eta sailkapen horretarako, zenbaitetan, erakundeak epemugara arte mantendu nahi dituen edo epe motzean saldu nahi dituen kontuan hartuko da. Arauak dioenaren arabera, aktibo finantzarioak dira dirua, beste erakunde baten kapitalaren edo ondare garbiaren tresnak, hirugarren batengandik dirua edo beste aktibo finantzario bat jasotzeko eskubidea edo hirugarren batekin aktibo edo pasibo finantzarioak trukatzeko eskubidea, aldekoak izan daitezkeen baldintzetan.

Balioespenari dagokionez, aktibo finantzarioak honela sailkatzen dira: a9 kobratu beharreko kreditu eta partidak; b) epemugara arte mantendu diren inbertsioak; c) emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak; d) taldeko entitateen, talde anitzekoen eta entitate elkartuen ondarean egindako inbertsioak; e) eta aktibo finantzario salgarriak.

Kobratu beharreko kreditu eta partidetan honako hauek sartzen dira gainera: erakundearen ohiko jardueratik eratorritako eragiketengatiko kredituak, beste aktibo finantzario batzuk, ondarearen tresna ez badira ere eta merkatu aktibo baten negoziatzen ez badira ere, diru-fluxu zehaztua edo zehaztu daitekeena sortzen duenak, zeintzuetatik egindako ordainketa guztia berreskuratzea espero baiten, kreditu-narriadura kenduta.

Mugaegunera arte mantendutako inbertsioen artean, mugaegun finkoko zor-balioak daude, hala nola zenbateko zehaztua edo zehatz daitekeena duten diru-fluxuak, zeinak merkatu aktibo batean negoziatzen baitira, eta erakundeak, aintzatetsi eta ondorengo edozein unetan, mugaegunera arte gorde nahi baititu, horretarako egiazko asmoa eta gaitasun finantzarioa dituelako.

Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen artean hauek daude: merkatu aktibo batean negoziatzen direlarik, epe motzean egiteko helburuarekin eskuratzen diren aktibo finantzarioak, salbu eta ondoren prezio finkoan edo hasierako prezioari maileguemailearen errentagarritasun arrunta gehituta saltzeko hitzarmenpean eskuratu direnak eta deribatuak -berme finantzarioko kontratuak direnak edo estaldura-tresnatzat izendatu dituztenak izan ezik-.

Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak sektore publikoaren esparruan urteko kontu bateratuak formulatzeko araudian definituta daudenak dira.

Aktibo finantzario salgarriak beste kategorietakoren batean sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten aktibo finantzario guztiak dira.

Nobedade gisa nabarmendu behar dira emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen eta aktibo finantzario salgarrien arrazoizko balioko geroko balioespena (merkatu aktibo batean negoziatzen ez diren ondare-tresnak, kostuari narriaduragatiko balioespen-zuzenketak kenduta ateratzen denaren arabera balioetsiko direnak, izan ezik). Baina, salgarrien kasuan, arrazoizko balioko diferentziak erakundearen ondare garbian erregistratuko dira, inorenganatzen edo narriatzen diren arte; orduan, emaitzetara egotziko dira.

Kobratu beharreko kreditu eta partiden balioespena eguneratzeko beharra ere nabarmendu behar da TAKPPO-2004rekiko aldaketa gisa. Aitzitik, epe laburrean kobratzekoak diren eta kontratuzko Interes-tasarik ez duten partidak eta kredituak euren balio nominalean balioetsiko dira. Epe luzera kobratzekoak diren eta kontratuzko Interes-tasarik ez duten partidak euren balio nominalean balioetsiko dira, eta diruz lagundutako interesekin epe luzerako emandako maileguak, berriz, emandako zenbatekoan balioetsi daitezke, baldin eta ez eguneratzearen eragina -era globalean hartuta- txikia bada erakundearen urteko kontuetan. Eratutako fidantzak eta gordailuak eguneratu gabe entregatutako zenbatekoan balioetsiko dira uneoro.

Aktibo finantzarioak birsailkatzeari arauak sartzen dira. Aktibo finantzarioak kategoria batetik bestera pasatzea, eta beraz, haien balioespena doitzea dakar birsailkatzeak. Birsailkapenok egiteko baldintzak eta birsailkapen horiek gaineko zenbait muga ezartzen ditu arauak.

Azkenik, aktibo finantzarioen baja ere erregulatzen du arauak. Aktibo finantzarioen lagapenetan, erakundeak aktibo horien jabetzari datxezkion arriskuak eta abantailak mantentzen dituenean, ez zaio baja emango aktibo finantzarioari, eta pasibo finantzario bat aintzatetsiko da jasotako kontraprestazioarengatik. Horixe da nobedade nagusia.

Bestalde, 9. aintzatespen- eta balioespen-arauan erregulatutako pasibo finantzarioak hirugarren bati dirua edo beste aktibo finantzarioren bat entregatzeko edo, kontrakoak izan daitezkeen baldintzetan, hirugarren batekin aktibo edo pasibo finantzarioak trukatzeko obligazio galdagarri eta baldintzarik gabekoa dira.

Pasibo finantzarioak honela sailkatzen dira, balioespena egiteko: a) kostu amortizatuko pasibo finantzarioak; eta b), emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak.

Kostu amortizatuko pasibo finantzarioek honako hauek barne hartzen dituzte: ohiko jardueratik eratorritako eragiketengatik ordaindu beharreko zorrak eta partidak; balore negoziagarrietan adierazitako zorrak, mugaegunera arte mantentzekoak eta mugaeguna baino lehen jaulki direnetik urtebete baino gehiagoko epean merkatuko prezioan berrerostekoak; mugaeguna baino lehen berrerosteko akordioarekin -prezio finkoan edo jaulkipen prezioari maileguemailearen errentagarritasun arrunta gehituta ateratzen den zenbatekoan- jaulkitako balore negoziagarrietan adierazitako zorrak; kreditu-erakundeekiko zorrak eta ordaindu beharreko beste zor batzuk.

Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioek epe motzera berrerosteko akordio edo helburuarekin jaulkitako balore negoziagarrietan adierazitako zorrak barne hartzen dituzte, salbu eta akordioan prezio finkoa edo jaulkipenari errentagarritasun arrunta gehituta ateratzen den zenbatekoa finkatzen denean, hala nola deribatuen kasuan -berme finantzarioko kontratuak direnak edo estaldura-tresnatzat izendatu dituztenak izan ezik-.

Aktibo finantzarioen ildo beretik, epemuga motzera ordaindu beharreko partidak, kontratuzko inolako Interes-tasarik ez dutenak, euren balio nominalean balioetsiko dira. Epe luzera ordaintzekoak diren eta kontratuzko Interes-tasarik ez duten partidak euren balio nominalean balioetsiko dira, eta diruz lagundutako interesekin epe luzerako hartutako maileguak, berriz, emandako zenbatekoan balioetsi daitezke, baldin eta ez eguneratzearen eragina -era globalean hartuta- txikia bada erakundearen urteko kontuetan. Jasotako fidantzak eta gordailuak eguneratu gabe jasotako zenbatekoan balioetsiko dira beti.

Pasibo finantzarioen baja, orokorrean, obligazioa bete edo baliogabetu denean erregistratuko da. Aitzitik, pasiboari ez zaio baja emango pasibo propioen salerosketa bikoitzak badaude, berrerosi den pasiboa saltzea prezio finkoan edo salmentako prezio berari mailegu-emailearen ohiko errentagarritasuna erantsita ateratzen den zenbatekoan adosten denean. Izan ere, eragiketa horien oinarri ekonomikoa mailegu bat ematean edo gordailu finantzario bat eratzean oinarritzen da, eta pasibo propioa berme bihurtzen da.

Merkatu finantzarioen berezko dinamikaren ondorioz agertuz joan diren hainbat tresna finantzarioren kontabilitate-trataeraren sarrera ere nabarmentzekoa da. Berritasun gisa, esan behar da pasibo finantzarioen trukearen kontabilitate-trataera eta berme finantzarioko kontratuak barruan hartu direla.

Estalduren kontabilitate-tratamendua da planaren beste berritasun bat. Estaldura-eragiketa baten bidez, estaldura-tresna deitutako finantza-tresna bat edo gehiago izendatzen dira zehazki identifikatutako arrisku bat estaltzeko. Arrisku horiek emaitzaren kontuan edo ondare garbiaren aldaketen egoeran eragin dezakete, arrazoizko balioan edo estalitako partida baten edo gehiagoren diru-fluxuetan gerta daitezkeen aldaketen ondorioz. Honako hauek jasotzen ditu «Kontabilitate-estaldurak» izeneko 10. arauak: estaldura-tresnatzat eta estalitako partidatzat har daitezkeen ondare-elementuak; estaldura bat kontabilitate-estalduratzat har dadin bete behar diren baldintzak; estaldura-tresnaren eta estalitako partidaren balioespena; eta estalduren-kontabilitatearen etetea.

«Izakinak» 11 aintzatespen- eta balioespen-arauari dagokionez, esan behar da, berritasuna den aldetik, aukera dagoela, adierazgarria den neurrian, inbentario bat izateko zerbitzuak kontraprestazioarekin emateko; kasu horretan, izakinek zerbitzuen produkzio-kostua barne hartuko dute, betiere kasuan kasuko sarrera egokia aintzatetsi ez bada.

TAKPPO-2004an bezala, orokorrean batez besteko prezioaren edo batez besteko kostu haztatuaren metodoa erabiltzea zehazten da, eta FIFO metodoa ere onartzen da bere kudeaketa egiteko egokiagoa dela uste badu erakundeak; hala ere, ez da onartzen LIFO metodoa. Gainera, arauak dioenez, aurreko metodoekin balioa ezingo balitz eman, honela emango da: arrazoizko balioa ken marjina egokia.

«Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak» 12 aintzatespen- eta balioespen-arauak bi aukera jasotzen ditu inbertsio horiek kontabilizatzeko:

- Ondasunen eraikuntzaz ari garenean, sarrerak eta gastuak behar adina fidagarritasunekin balioetsi badaitezke, sarrerak ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko dira, ekitaldi bakoitzaren amaieran obrak duen aurrerapen- edo egite-mailaren arabera. Izakinen aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera kalkulatuko dira kostuak.

- Sarrerak eta gastuak behar adina fidagarritasunekin balioetsi ezin direnean, eta erakunde kudeatzaileak zuzenean aktiboak eraikitzen ez dituenean, eraikuntzari edo erosketari loturiko kostuak izakin gisa aintzatetsiko dira. Sarrerak, berriz, aktiboak horien erakunde-hartzaileari ematean aintzatetsiko dira.

«Atzerri-moneta» 13. aintzatespen- eta balioespen-arauak diruzko partidak eta diru ez direnak definitzen ditu. Egoera-orri finantzarioak aurkezteko data bakoitzean, egun horretako eskurako kanbio-tasa aplikatuta balioetsiko dira diruzko partidak (aldiko batez besteko kanbio-tasa erabili ahal izango delarik -gehienez ere hilekoa-, tasa horrek aldian aldaketa adierazgarriak izan ezean), eta aldeak, bai positiboak bai negatiboak, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan aintzatetsiko dira, salbu eta estaldurako tresna izendatutako partidak, kontabilitate-estaldurei buruzko arauak aplikatuko baitzaie. Salgarritzat jotako diruzko aktibo finantzarioen kasu berezia jasotzen du arauak; izan ere, haietan, kostu amortizatuaren aldaketei lotutako kanbioaren zatia ekitaldiko emaitza gisa aintzatesten da, eta gainerako balio-aldaketak ondare garbian aintzatesten dira.

Diru ez diren partidak erregistratu ziren eguneko kanbio-tasa aplikatuta balioetsiko dira, eta arrazoizko balioan balioetsiak arrazoizko balioa zehaztu zen eguneko eskurako kanbio-tasa aplikatuta balioetsiko dira; kanbio-aldeak, bestalde, ondare garbian edo ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko dira, nola erregistratu den ondare-elementu horren balioespenean izandako edozein aldaketa. Aurrez kalkulatutako zenbatekoaren gainean kalkulatuko dira amortizazioak.

«Balio erantsiaren gaineko zerga» 14 aintzatespen- eta balioespen-arauak ez du aldaketa handirik izan TAKPPO-2004an dagokion aintzatespen- eta balioespen-arauaren aldean. Arauak zehazten duenaren arabera, kontabilitateko irizpide- eta estimazio-aldaketei eta akatsei buruzko arauan jasotakoari kalterik egin gabe, hasierako balioespenek ez dituzte aldatuko jasandako zerga ez-kengarriaren zenbateko-zuzenketak, bereziki, behin betiko prorratatik eratorritako erregularizazioaren ondorio diren doikuntzak, inbertsio-ondasunen araberako erregularizazioa barne. Zuzenketa horiek gastu edo sarrera moduan aintzatetsiko dira ekitaldiaren emaitzan.

«Sarrerak kontraprestazioarekin» 15. aintzatespen- eta balioespen-arauak transakzioak bete behar dituen baldintzak zehazten ditu, hortik eratorritako sarrerak aintzatetsi ahal izan daitezen. Salmenta bidezko sarreren kasuan, irizpide orokorrez gain, honako hauek bete behar dira:a) erakundeak erosleari transferitu behar dizkio arrisku eta abantaila esanguratsuak, jabetzaren lege-tituluaren lagapena egin edo ez; b) saldutako ondasunen gaineko gestio korrontean erakundeak ez du inolako inplikaziorik izan behar, ezta horien inolako kontrol eraginkorrik ere; c) transakzioari lotutako gastuak fidagarritasunez neurtzeko aukera izan behar da.

«Kontraprestaziorik ez duten sarrerak» 16 aintzatespen- eta balioespen-arauan, berritasun nagusia da aukera ematen duela jakiteko zer sarrera izan diren zergen bidez zergapeko egitatea gertatzen denean eta aktiboa aintzatesteko irizpideak betetzen direnean, eta, gainera, estatistika-ereduak erabiltzeko aukera ematen du, betiere fidagarritasun-maila handia badute aktiboaren zenbatekoa zehazteko, zergaren likidazioa zergapeko egitatea gertatu den ekitaldiaren ondorengo beste batean egiten denean. Gainera, zerga-sarrera zenbateko gordina kontuan hartuta zehaztuko dela erabakitzen da. Zerga-sistemaren bidez zergadunei ordaintzen zaizkien mozkinak, zeinak beste egoera batean beste ordainketa-bitarteko bat erabiliz pagatuko bailirateke, gastua dira, zein bere aldetik aintzatetsi beharrekoa, eta sarrera gastu horien zenbatekoan handitu behar da. Hala ere, sarrera ez da handitu behar zerga-gastuen (kenkarien) zenbatekoan, uko egiten zaien sarrerak direlako, eta ez dutelako eragiten baliabideak sartzeko edo ateratzeko inolako fluxurik.

«Hornidurak, aktiboak eta pasibo kontingenteak» 17 aintzatespen- eta balioespen-arauak adierazten du zer aintzatespen-irizpide bete behar diren hornidura bat kontabilizatzeko; bereziki: obligazio presente bat egotea (legala, kontratu bidezkoa edo inplizitua), iraganeko gertaera baten ondorioz, litekeena izatea erakundeak baliabideak alde batera utzi behar izatea, eta haien zenbatekoaren kalkulu fidagarria egin ahal izatea. Obligazioak aipatutako baldintzak betetzen ez dituenean eta pasibo kontingente bat dagoenean memorian adieraziko da.

Arauak zehazten duenez, memorian emango da aktibo kontingenteei buruzko informazioa.

Planak dio eguneratu behar direla obligazioak ezeztatzeko beharrezkoak izatea espero den ordainketak, salbu eta urtebeteko epemuga edo urtebetetik beherakoa duten horniduren kasuan, baldin eta haietan ez eguneratzearen ondorio finantzarioa, garrantzi erlatiboaren printzipioaren arabera, adierazgarria ez bada. Aplikatu beharreko deskontu-tasa antzeko

epemugarako zor publikoaren tasaren baliokidea izango da, eta haren zenbatekoa, oro har, gastu finantzarioak adierazten dituzten kontuetan zordunduta eguneratuko da.

«Transferentziak eta diru-laguntzak» 18 aintzatespen- eta balioespen-arauak, plan honen ondorio soiletarako, hau da, kontabilitate-ondorioetarako, transferentziatzat eta diru-laguntzatzat hartzen dituenak definitzen ditu lehenik. Diru-laguntzak itzulgarriak izango dira horiek baliatzearekin loturiko baldintzen eta betekizunen gaineko dudak daudenean, eta eragiketa pasibo edo aktibo bat balitz bezala egingo da erakunde onuradunean eta erakunde emailean, hurrenez hurren.

Egindako transferentzien eta emandako diru-laguntzen ildotik, soil-soilik nabarmendu behar da hornidura bat kontabilizatu behar dela, ekitaldiaren itxieran hura jasotzeko zehaztutako baldintzaren bat betetzeko dagoenean, baina beteko delako arrazoizko zalantzarik ez dagoenean.

Jasotako transferentzia eta diru-laguntzei dagokienez, erakunde onuradunak diru-sarrera onartu egingo du, baldin eta emateko banakako akordio bat badago erakundearen alde, hura baliatzeari lotutako baldintzak bete badira, eta arrazoizko zalantzarik ez badago hura jasotzeari buruz, aurrekontu-egozpena alde batera utzi gabe. Diru-laguntza bat baliatzeari lotutako baldintza batek berekin badakar erakunde onuradunak jarrera jakin bat izatea zenbait urtetan zehar (esaterako, aktibo edo enplegu-maila bat mantentzea denbora-tarte batean), baliatzeari lotutako baldintzak bete egingo direla uste izango da, betiere hala bada eragindako ekitaldietako bakoitzeko urteko kontuak egiten direnean.

Kontabilitate-erregistroari dagokionez, jasotako diru-laguntza ez-itzulgarriak, oro har, ondare garbira zuzenean egotzitako sarrera gisa sailkatuko dira, eta, geroago, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari egotziko zaizkio, helburuaren arabera; adibidez, gastuak finantzatzen dituztenean, haiekin koerlazionatuta, eta aktibo-eskuratzeak finantzatzen dituztenean, bizitza erabilgarriaren proportzioan, edo baja ematen zaienean edo inorenganatzen direnean. Jasotako transferentziak, bestalde, aintzatesten diren ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Menpeko erakunde publiko baten alde erakunde-jabeek ematen dituzten transferentziak eta diru-laguntzak aurreko irizpideen arabera kontabilizatuko dira. Edonola ere, hasierako ondare-ekarpena nahiz menpeko erakundeak onartu dituen eskumen berrien ondorengo zabalpenak erakunde-jabeek erregistratuko dituzte, menpeko erakunde publikoen ondarean egindako inbertsio gisa. Balioespen hori egiteko, «Aktibo finantzarioak» 8 aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotako irizpideak erabiliko dira. Menpeko erakundearentzat ondare garbian jasoko den ekarpena izango da.

«Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk» 19 aintzatespen- eta balioespen-arauak transferentzia eta diru-laguntzen arauaren aintzatespen- eta balioespen-irizpideetara garamatza, eta erakunde publiko batetik bestera -azken honek helburu jakin batekin erabil ditzan- aktiboak doan transferitzen diren eragiketak arautzen ditu. Hala, ondasunak edo eskubideak aurreikusitako helburuarekin erabiliko ez balira, erakunde-emaileari itzuli beharko litzaizkioke.

Ondasunaren atxikipenak edo doako lagapenak bere bizitza ekonomikoak iraungo duena baino epe laburragoa badu, utzitako ondasunaren erabilera-eskubidearen arrazoizko balioa duen ibilgetu ukiezina erregistratuko du erakunde onuradunak. Doako esleipen edo lagapena epe mugagabe baterako edo ondasunaren bizitza ekonomikoaren antzeko epe baterako bada, erakunde onuradunak bere aktiboan erregistratuko du jasotako elementua izaeraren arabera eta lagapen-unean zuen arrazoizko balioan.

Erakunde batek bere menpeko organismo publikoei esleituko balizkie bere ondasunak eta eskubideak, erakunde onuradunak jasotako ondasuna edo eskubidea erregistratuko du arrazoizko balioan, eta ordainketa ondare-kontu batean egingo da. TAKPPO-2004ak, hala ere, hura erakunde esleituan zeukan kontabilitateko balio garbian erregistratzeko agintzen zuen, esleipenean jasotako ondare-kontu batean abonatuta.

Erakunde esleituak, oro har, aktibo finantzario bat kontabilizatuko du emandako ondasunaren edo eskubidearen arrazoizko balioan, esleitutako ondasunaren kontuan abonatuta, eta, hala egokituz gero, ondasunaren arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko diferentziaren emaitza erregistratuta. Aldiz, TAKPPO-2004an erakunde esleituan baja ematen zitzaion entregatutako ondasunari kontabilitate-balio garbian, esleipenean emandako ondarearen kontu konpentsatzailea erabilita kontrakontu gisa.

Ondasunen eta eskubideen doako lagapenei dagokienez (erakundeen artean menpekotasunik ez dagoenean), plan berri honetan lagapen bidez emandako ondasuna edo eskubidea jasotzen duen erakundeak erregistratu egingo du hura arrazoizko balioan, ondare garbiaren kontu batean abonatuta, eta, gero, ondarearen emaitza ekonomikoari egotziko zaio ondasunaren edo eskubidearen amortizazioaren zenbatekoaren arabera, edo bestela, inorenganatzen denean edo inbentarioan baja ematen denean. TAKPPO-2004an, erakunde lagapen-hartzaileak ondarea erregistratzen zuen salmenta-balioan, lagapenean jasotako ondarearen kontu batean zordunduta, eta kontu horretan egongo zen ondasuna itzuli arte. Plan berri honetan, ondasuna edo eskubidea lagatzen duen erakundeak diru-laguntzengatiko gastua erregistratuko du lagatako ondasun edo eskubidearen kontabilitate-balioan, eta dagokion kontuan egingo da ordainketa, lagatako ondasun edo eskubidearen arabera. TAKPPO-2004an, erakunde lagatzaileak baja ematen zion lagatako ondasunari kontabilitate-balio garbian, lagapenean emandako ondarearen kontuan zordunduta.

Lagapen bidez edo atxikita jasotako ondasun higiezinen kasuan, onartzen da, beste baliorik egon ezean, Foru Ogasunak, ondare-transmisioen zerga-ondorioetarako, haiei esleitzen dien balioan egin ahal izatea balioespena.

«Baterako jarduerak» 20 aintzatespen- eta balioespen-arauak, zeina berritasuna baita plan honetan, baterako jardueratzat zer hartzen den definitzen du, eta bi mota bereizten ditu: batetik, erakunde berri bat sortzerik eskatzen ez duten baterako jarduerak (kasu horretan partaide bakoitzak bere urteko kontuetan sartuko ditu proportzioan tokatzen zaizkion aktiboak, pasiboak, sarrerak eta gastuak); eta, bestetik, pertsona juridiko independente bat sortzea eskatzen duten baterako jarduerak (aktibo finantzarioen arauan aurreikusitako talde anitzeko erakundeak dira).

«Kontabilitate-irizpideen eta -estimazioen aldaketak eta erroreak» 21 aintzatespen- eta balioespen-arauaren kontabilitate-trataerari dagokionez, planak esaten du garrantzi erlatiboa duten aldaketak eta erroreak atzera begira aplikatuko direla informazioa dagoen ekitaldi zaharrenetik ondare garbiko kontu baten aurka. Kontabilitate-irizpidea araudiak behartuta aldatzen bada, aldaketa ezartzen duen arauaren behin-behineko xedapenetan jasotakoaren arabera tratatuko da, eta horrelakorik ezean, lehen aipatu irizpidea erabiliko da.

Informazio gehiago lortzearen, esperientzia handiagoa izatearen edo gertakari berriak ezagutzearen ondorio diren kontabilitate-zenbatespenetan izandako aldaketek kontabilizatze prospektiboa izango dute, eta, kasuan kasuko eragiketaren zer-nolakoaren arabera, ekitaldiko emaitzari edo ondare garbiari eragingo diote.

Azkenik, beste berritasun bat da itxi osteko gertakariak 22 aintzatespen- eta balioespen-arauan erregulatzea. Arauak hauek bereizten ditu:

a) Ekitaldia ixtean bazeuden baldintzak agerian uzten dituzten geroagoko gertakariak: kontuan hartu beharko dira urteko kontuak formulatzeko, edo, hala egokituz gero, birformulatzeko, betiere organo eskudunak onar ditzan baino lehenago, eta berekin ekarriko dute memorian doikuntza bat egitea, edo informazioa sartzea, edo biak; eta

b) Ekitaldia ixtean ez zeuden baldintzak agerian uzten dituzten geroagoko gertakariak: ez dute berekin ekarriko doikuntzak egin behar izatea urteko kontuetan, alde batera utzi gabe, hala egokituz gero, memorian informazioa sartzea, haren eragina zenbatetsita, edo zenbateste hori egiteko ezintasuna.

Hirugarren zatia. Urteko kontuak.

Urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak hauek dira: balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta memoria.

Plan berriaren zati honetan, bi egoera-orri berri gehitzea da berritasun nagusia: ondare garbiko aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria.

Balantzean, honako hauen bereizketa nabarmendu behar da: aktibo eta pasibo korronteak eta ez-korronteak (TAKPPO-2004an epe motza eta luzea bereizten ziren); metatutako amortizazioen aurkezpena eta narriaduragatiko balioespen-zuzenketena, aktiboko kasuan kasuko partidak minoratuta, haien zenbateko garbia agertuko baita (TAKPPO-2004an partida independentetan agertzen ziren balantzean, aktiboan zegozkien epigrafeak gutxiago izanda); ondare garbiaren egitura berria, epigrafe independentetan agertuko direlarik ondarea, sortutako ondarea, balio-aldaketek eragindako doikuntzak eta emaitzei egotzi gabe dauden jasotako diru-laguntzak.

Sailkapen berri hau balio-aldaketengatiko doikuntzak, ondare garbiari zuzenean egotzi beharrekoak, izan ditzaketen ondare-elementuen aintzatespen- eta balioespen-arauen eta jasotako diru-laguntzen kontabilitate-tratamenduaren ondoriozkoa da. TAKPPO-2004aren aldean, beraz, esleitutako, lagatako edo erabilera orokorrerako emandako ondareko kontuak eta errentamendu finantzarioko erregimeneko ondasunen gaineko eskubideak desagertu dira, errentamendu finantzarioen aintzatespen- eta balioespen-irizpide berriagatik, bai eta ekitaldi batean baino gehiagotan banatzeko gastuak ere, sortzen diren heinean pasiboaren parte izatera pasatuko baitira, kostu amortizatuaren irizpidearen arabera. Beste epigrafe batzuk, hala nola ondasun higiezinetako inbertsioak eta aktibo salgarriak, balantzean agertzen dira berritasun gisa, aintzatespen- eta balioespen-arauetan jasotakoaren ildotik. Aurrekontu-zordunen eta -hartzekodunen bereizketa ere azpimarratu behar da, beste partida batzuetara aldatzen baitira, balantzea egiteko arauetan jasotako irizpideen arabera:

- Aurrekontu-zordunak «Zordunak gestio-eragiketengatik», «Kobratu beharreko beste kontu batzuk» eta «Zorra adierazten duten baloreak eta kredituak» partidetan agertuko dira (inbertsio finantzario horiek bereiziz, kontuan hartuta entitateari lotutako erakundeei dagozkien ala inolako loturarik ez dagoen beste erakunde batzuei).

- Aurrekontu-hartzekodunak «Hartzekodunak gestio-eragiketengatik», «Ordaindu beharreko beste kontu batzuk» eta «Beste zor batzuk» («Epe motzeko zorrak» II epigrafekoa) partidetan agertuko dira, hala nola «Epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» epigrafean.

Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari dagokionez, berritasun gisa nabarmendu behar da zerrenda moduan aurkeztuko dela, TAKPPO-2004an ez bezala, hartan bi zutabetan baitzegoen. Izan ere, azken horretan ez bezala, emaitza-kontu berrian tarteko zenbait marjina daude, eta haiek, gehitze bidez, ekitaldiko guztizko emaitza osatuko dute (aurrezkia edo desaurrezkia).

Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria urteko kontuetan gehitzen diren egoera-orri berrietako bat da, eta erakundearen ondare garbia zenbatekoa den, zer osaera duen eta zergatik aldatzen den adierazten du. Hiru zati ditu: 1) ondare garbiaren aldaketa guztien egoera-orria, 2) aintzatetsitako gastuen eta sarreren egoera-orria eta 3) erakunde jabearekin edo jabeekin egindako eragiketen egoera-orria.

Egoera-orri horren lehen zatiak (ondare garbiaren aldaketen egoera-orri totala) ondoko guztiaren berri ematen du: akatsen zuzenketen edo kontabilitate-irizpideen aldaketengatik egin diren doitzeetatik eratorritako ondare garbian sortu diren aldaketa guztien berri; ekitaldian aintzatetsitako gastuen eta sarreren berri, hala nola erakunde jabearekin edo jabeekin egindako ondare-eragiketen berri; eta ondare garbiaren beste aldaketa batzuen berri. Bigarren zatiak (aintzatetsitako gastuen eta sarreren egoera-orria) erakundearen ondarearen emaitza ekonomikoaz gain, ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastu eta sarrerak eta itxitako partidaren hasierako baliora edo ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egindako intsuldaketak jasotzen ditu. Hirugarren zatiak (erakunde jabearekin edo jabeekin egindako

eragiketen egoera-orria) erakundearen jabe den/diren erakundearekin/erakundeekin egindako eragiketak zehazten ditu, eta bereizketa egiten du ondare-eragiketen eta gainerakoen artean.

Bestalde, diru-fluxuen egoera-orriak (urteko kontuen egoera-orri berrien arteko bestea) dirua adierazten duten aktiboko diru-partidetan eta beste aktibo likido baliokideetan izan diren mugimenduen jatorriaren eta helburuaren berri ematen du, eta ekitaldian izan duten aldakuntza garbia erakusten du. Egoera-orri hau egiteko metodo zuzena aplikatzea erabaki da, etorkizuneko diru-fluxuak kalkulatzeko informazio erabilgarriagoa ematen baitu zeharkako metodoak baino. Azken horrek ondarearen emaitza ekonomikoa du abiapuntu, eta horri aplikatzen zaizkio, hain zuzen ere, kasuan kasuko doikuntzak.

Diru-fluxuen egoera-orri honetan kudeaketa-, inbertsio- eta finantziazio-jarduerak bereizten dira. Kudeaketa-jarduerek barne hartzen dituzte hala erakundearen kudeaketa arruntaren emaitza zehazterakoan esku hartzen duten transakzioak, nola inbertsio edo finantzazio arlokotzat hartzen ez direnak. Inbertsio jarduerek barne hartzen dituzte finantzarioa ez den ibilgetuaren eta materiaren inbertsio finantzarioen amortizazioan, inorenganatzean edo erosketan jatorria duten ordainketak eta kobrantzak. Finantziazio-jarduerek ondokoa jasotzen dute: hirugarrenek erakundeak igorritako balio-tituluak eskuratzetik eratorritako kobrantzak, erakunde jabearen edo jabeen ekarpenak, kreditu-erakundeekin dauden zorrak, eta erakunde jabeari edo jabeei egindako ordainketak edo pasibo finantzarioen errenboltsoak.

Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, zeina indarreko aurrekontu-araudiaren arabera egin baita, urteko kontuen barruan dago, erakundearen kontu guztiak dokumentu bakar batean egoteko helburuari jarraiki, haiek aurrekontu-eragiketen ondorio izan zein ez.

Memoriak TAKPPO-2004arena baino informazio zabalagoa eta zehatzagoa jasotzen du. Erabiltzaileek urteko kontuak uler ditzaten esanguratsutzat jotzen den informazio osagarriaren, ezarritako aintzatespen- eta balioespen-arauei buruzko informazioa eman behar da.

Laugarren zatia. Kontu-taula.

Laugarren zatiak «Kontu-taula» barne hartzen du, eta hura, TAKPPO-2004an bezala, nahitaezkoa da, berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik: «Izakinak eta salgai dauden beste aktibo batzuk» 3 taldean, orientagarriak dira 30etik 38ra bitarteko azpitaldeetako kontuen kodeak eta izenak.

«Kontu-taulak» eduki zabalagoa du, aintzatespen- eta balioespen-arauetan bildutako eragiketa berriak sartzeko, eta beste bi talde jasotzen ditu: «Ondare garbiari egotzitako gastuak» 8 taldea eta «Ondare garbiari egotzitako sarrerak» 9 taldea.

Era berean, azpimarragarria da kontu-taula berrian 0 taldea desagertu izana; izan ere, TAKPPO-2004an aurrekontuaren kontrol-kontuak eta ordena-kontuak jasotzeko erabiltzen zen.

«Kontu-taula» zehatz aztertuta, aipamen berezia merezi dute alderdi hauek:

1 Taldekoak. «Oinarrizko finantzaketa».

«Ondarea» 10 azpitaldeak bi kontu ditu, «Ondarea» 100 kontua eta «Jasotako ondarea» 101 kontua, kontabilitate-erakundeen ondarea jasotzeko, erakunde horiek jabeak diren ala ez kontuan hartuta. Hartara, 100 kontuak, zeina erakunde jabeentzat baita, aktibo galdagarriaren eta pasibo galdagarriaren arteko aldea jasotzen du, emaitzak eta emaitzetara egotzi gabe dauden ondare-gehikuntzak eta -gutxitzeak kenduta; 101 kontuak, berriz, zeina gainerako kontabilitate-erakundeetarako baliagarria baita, bere entitatetik edo entitate jabeetatik jasotako ondare-ekarpenak biltzen ditu.

«Diru-laguntzak eta doikuntzak balio-aldaketagatik» 13 azpitaldeak jasotzen direnean ekitaldiko sarreratzat gabe ondare garbiko sarreratzat hartzen diren diru-laguntzak biltzen ditu, hala nola aktibo jakin batzuen arrazoizko balioan egindako doikuntzak (aktibo finantzarioak eta ibilgetu ukigarria).

«Epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 16 eta «Epe luzeko zorrak beste erakunde batzuekin» 17 azpitalde berriek masan egindako jaulkipenen bidezko epe luzeko zorpetze ez-formalizatua jasotzen dute, betiere taldeko nahiz talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin dagoen zorpetzea eta beste erakunde batzuekikoa bereizita. Azpitalde horietan, halaber, jasotako diru-laguntzek duten kontabilitate-trataera berriaren ondorioz sortu eta itzulgarritzat jo daitezkeen diru-laguntzek eragindako zorrak jasotzen dira.

«Jasotako fidantzak eta gordailuak eta epe luzera periodifikatzeagatiko doikuntzak» 18 azpitaldean «Epe luzera aurreratutako sarrerak» 186 kontua sartzen da, ekitaldian kontabilizatutako sarrerak jasotzeko, edo aurreko ekitaldietan kontabilizatuak, haien sortzapena epe luzekoa bada.

2 Taldekoak. «Aktibo ez korrontea».

«Ibilgetze materialak» 21 azpitaldeak ondare-elementuak biltzen ditu (azpiegiturak, ondare historikoa, herri-ondasunak), zeinak TAKPPO-2004an «Erabilera orokorrerako inbertsioak» 20 azpitalde zaharrean baitzeuden. Plan berrian, ondasun horiek ibilgetu materialtzat hartzen dira, eta zaie baja ematen kontabilitatean funtzionamenduan jartzean, aktiboaren definizioa betetzen dutelako.

Beste «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitalde bat jasotzen da, errentamenduaren edo salmentaren bidez diru-fluxuak lortzekoak diren ondasun higiezinak biltzeko, eta ez ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko edo emateko direnak biltzeko, edo administrazio-helburuetarakoak direnak.

«Ekoizpen-bidean dauden ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetako inbertsioak» 23 azpitalde berriak ibilgetu ukigarria osatzen duten ondasunak egokitzeko, eraikitzeko eta muntatzeko lanak jasotzen ditu, ondare publikoko ondasunetan egindako lanak izan ezik, beren azpitalde berezian (24a) biltzen baitira. Ondasun horien gaineko aurrerakinak ere jasotzen dira.

«Epe luzeko inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 25 eta «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitalde berriek aukera ematen dute bereizteko, alde batetik, kontabilitate-entitateari lotutako entitateetan egindako inbertsio finantzarioak eta, bestetik, harekin loturarik ez duten entitateetan egindako inbertsioak.

Atzeratu eta zatitzearen ondoriozko epe luzeko zordunak ibilgetu finantzarioa adierazten duten kontuetan jasotzen dira orain.

«Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeak bere garapena zabaltzen du zenbait kontutan, balioespen-zuzenketa horren xede izan daitezkeen ondare-elementu guztiak jasotzeko. Kontu horien artean «Ibilgetu materialaren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik» 299 kontua sartzen da, ibilgetu materialeko elementuen erabilera lagatako ondasunaren bizitza ekonomikoa baino iraupen gutxiagoko aldi baterako hirugarrenei doan lagatzearen ondoriozko balio-zuzenketak biltzeko.

3 Taldekoak. «Izakinak eta salgai dauden beste aktibo batzuk».

Orientagarriak dira 30-38 azpitaldeetako kontuen izenak eta kodeak; hortaz, erakunde bakoitzak bere jarduerak eskatu adina kontu gara ditzake.

Beste bi azpitalde sortzen dira: «Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak» 37 azpitaldea, non beste erakunde publiko batzuentzat kudeatutako aurreko inbertsioak kokatzen baitira; eta «Salgai dauden aktiboak» 38 azpitaldea, zeinak hasieran ez-korronte moduan sailkatu diren eta urtebetetik gorakoa ez den epe batean inorenganatzea aurreikusten den aktibo ez-finantzarioak jasotzen baititu.

4 Taldekoak. «Hartzekodunak eta zordunak».

«Aurrekontu-hartzekodunak» 40 azpitaldeko eta «Aurrekontu-zordunak» 43 azpitaldeko kontuak zenbait azpikontutan bereizten dira balantzea egiteko arauetan adierazitako xehetasunarekin.

«Aurrekontuzkoak ez diren hartzekodunak» 41 azpitaldean «Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak» 418 kontua sartzen da; aurreko planean «Aurrekontu-hartzekodunak» 40 azpitaldean sartuta zegoen.

«Beste erakunde publiko batzuek baliabideak banatzeagatik zordunak eta hartzekodunak» 45 azpitaldean, bi egoera bereizten dira erakunde kudeatzailean eragiketei ematen zaien kontabilitate-trataerari dagokionez; izan ere, kontuan hartzen da hark kudeaketa-eragiketak kontabilitatean erregistratzeko behar den informazio guztia ematen dion ala ez baliabideen jabe den erakundeari. Erakunde kudeatzaileak behar den informazioa ematen badu erakunde jabeak bere baliabideekin egindako eragiketa guztiak berak zuzenean kudeatuko balitu bezala adieraz ditzan, erakunde kudeatzaileak «Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik» 453 kontua eta «Erakunde publikoak, k/k dirua» 456 kontua baino ez ditu erabili beharko; bestela 45 azpitalde osoa baliatu beharko du.

«Kredituen balio-narriadura» 49 azpitaldean, dagoen kontu bakarrak («Kredituen balio-narriadura» 490 kontua) «Aurrekontu-zordunak» 43 azpitaldeko kontuetarako aurreikusitako banakatze bera jasotzen du.

5 Taldekoak. «Kontu finantzarioak».

«Epe motzeko zorrak taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 51 azpitaldean eta «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik epe motzeko zorrak» 52 azpitaldean, diru-laguntza itzulgarrien ondoriozko epe motzeko zorrak jasotzeko kontuak biltzen dira.

Epe motzeko aktibo finantzarioak (nagusiki, ondarean egindako inbertsioak, zorra adierazten duten baloreak eta kredituak) bi azpitaldetan banatzen dira, eta, horretarako, kontuan hartzen da erakundeari lotutako erakundeen aktibo finantzarioak diren («Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 53 azpitaldea) ala ez diren («Epe motzeko inbertsio finantzarioak» 54 azpitaldea).

«Bestelako kontu finantzarioak» 55 azpitaldean, besteak beste, «Bestelako kontu korronte ez-bankarioak» 550 kontua jasotzen da, eta bertan, beste eragiketa batzuez gain, erakunde titularrak bere administratzailearen eskutik jasotako konturako entregak bilduko dira, hala nola aldian behin egiten den behin betiko likidazioa. Era berean, «Diruzaintzako barne-mugimenduak» 556 kontuan eta «Formalizazioa» 557 kontua ere jasotzen dira. Eragiketa horiek, TAKPPO-2004an, «Diruzaintza» 57 azpitaldean sartzen ziren.

Periodifikatzeagatiko doikuntza finantzarioak «Epe motzera jasotako eta eratutako fidantzak eta gordailuak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak» 56 azpitaldera aldatzen dira; TAKPPO-2004an, «Periodifikatzeagatiko doikuntzak» 58 azpitaldean erregistratzen ziren.

«Diruzaintza» 57 azpitaldean «Diruaren baliokide diren aktibo likidoak» 577 kontua sortzen da, likidezia-maila handia duten inbertsio finantzarioak jasotzeko, eta, esan den bezala, diruzaintzako barne-mugimenduak eta formalizazioari lotutako kobrantzak eta ordainketak jasotzeko kontuak «Bestelako kontu finantzarioak» 55 azpitaldera aldatzen dira.

«Epe motzeko hornidurak» 58 azpitalde berrian, ezeztapena epe motzean aurreikusita daukaten zenbatetsitako obligazioak jasotzen dira. Azpitalde horrek, «Epe luzeko hornidurak» 14 azpitaldean zehaztuei dagokienez, sarrerak itzultzeko epe motzeko hornidura jasotzen du (585 kontua), non entitateak urtebetetik gorakoa ez den epe batean gauzatzea espero duen beste sarrera batzuen eta zergen itzulketak jasotzen diren, baldin eta haiei buruz zalantza badago zenbateko zehatzaz edo epemugaz.

6 Taldekoak. «Izaerazko erosketak eta gastuak».

Talde honetan ez dago berritasun handirik, kontuen desagregazio handiagoa alde batera utzita; bereziki, eragiketa finantzarioekin zerikusia dutenetan, 5 digitu izatera iristen baitira.

7 Taldekoak. «Izaerazko salmentak eta sarrerak».

«Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik salmentak eta sarrerak» 707 kontua sortzen da, erakunde kudeatzaileak adieraz dezan zer sarrera jaso dituen hirugarrenen eskutik entregatu beharreko ondasunaren eraikuntza edo erosketa finantzatzeko; kontabilitatean, jasotako diru-laguntza moduan agertzeari utziko diote.

«Transferentziak eta diru-laguntzak» 75 azpitaldean, kontu bereziak sortzen dira hasieran ondare garbiko sarreratzat jo diren jasotako diru-laguntzak ondarearen emaitza ekonomikoari egoztea jasotzeko.

8. eta 9. taldeak. «Ondare garbiari egotzitako gastuak» eta «Ondare garbiari egotzitako sarrerak», hurrenez hurren.

Bi talde berri horiek gehitzen dira, sortzen diren ekitaldiko ondare-emaitza ekonomikoari egozten ez zaizkion erakundearen ondare garbiaren handitzeak edo txikitzeak jasotzeko.

Bosgarren zatia. Kontabilitate-definizioak eta -erlazioak.

Planeko taldeen, azpitaldeen eta kontuen definizioei eta kontabilitate-loturei buruzkoa da. Kontabilitate-erlazioek kontuen ordainketaren eta zordunketaren arrazoi arruntenak zehazten dituzte, horietako bakoitzak onartzen dituen aukera guztiak ahitu gabe. Horrenbestez, kontabilizazioa espresuki jaso ez den eragiketen kasuan, oro har ezarritako irizpideak aplikatuta egokiak diren kontabilitate-idazpenak eginez erregistratuko dira.

LEHEN ZATIA.
Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua.

1. Urteko kontuen irudi zehatza.

Urteko kontuek informazio erabilgarria eman behar dute erabaki ekonomikoak hartu ahal izateko, eta erakundeei konfiantzan eman zaizkien baliabideen gainean kontuak emateko balio behar dute. Horretarako, argitasunez idatzi behar dira eta ondarearen, egoera finantzarioaren, ondarearen emaitza ekonomikoaren eta kontabilitate-erakundearen aurrekontuaren gauzatzearen irudi fidela erakutsi behar dute.

Hala, kontabilitate-erakundea osatzen du izaera juridikoa eta bere aurrekontua duen eta kontuak sortu eta eman behar duen erakunde orok.

Urteko kontuek batasuna osatzen duten dokumentu hauek biltzen dituzte: balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta memoria.

Hurrengo ataletan zehazten diren kontabilitate-irizpideen, printzipioen eta informazioaren baldintzak sistematikoki eta erregulartasunez aplikatuta, urteko kontuek aurrez aipatutako irudi fidela erakustea lortuko da. Horretarako, eragiketak kontabilizatzean, errealitate ekonomikoari begiratuko zaio, ez forma juridikoari soilik.

Kontabilitate Publikoko Plan Orokor honetan zehaztutako kontabilitateko baldintzak, printzipioak eta irizpideak betetzea irudi fidela emateko nahikoa ez dela ikusten bada, helburu hori betetzeko behar diren informazio osagarri guztiak gehitu beharko dira memorian.

Salbuespenezko kasu berezietan, baldintza, printzipio eta irizpide horiek betetzea bateraezina bada urteko kontuek eman behar duten irudi fidelarekin, ez da bidezkoa izango horiek aplikatzea. Horrelakoetan, behar bezala arrazoituko da memorian berezitasun hori, eta ondarean, finantza-egoeran eta enpresaren emaitzetan duen eragina azalduko da.

2. Urteko kontuetako informazioaren betebeharrak.

Urteko kontuetako informazioaren betebeharrak eta ezaugarriak:

a) Argitasuna. Informazio argia da, erakundearen jardueren eta jarduten duen inguruaren gaineko arrazoizko ezagutzatik abiatua, hartzaileak esanahia uler dezakeenean.

b) Garrantzia. Informazioa garrantzitsua da gertakariak (iraganekoak, oraingoak eta etorkizunekoak) ebaluatzeko edo lehengo ebaluazioak zuzentzeko nahiz egiaztatzeko erabilgarria denean. Horrek esan nahi du informazioa egokia izan behar dela, eta garrantzi erlatiboa (informazio hori kanpo uzteak edo zehatz ez emateak edozer hartzaileren erabaki ekonomikoan eragin dezakeenean) duen informazioa ere barne hartu behar du.

c) Fidagarritasuna. Informazioa fidagarria da errakuntza materialik edo zehartasunik ez duenean eta irudikatu nahi duenaren irudi fideltzat har daitekeenean. Baldintza hau betetzeak zera esan nahi du:

   - Informazioa osoa eta objektiboa izatea.

   - Eragiketen oinarri ekonomikoa forma juridikoari gailentzea.

   - Ziurgabetasunaren aurrean, zuhurra izatea estimazioak eta balioespenak egitean.

d) Alderagarria izatea. Informazioa alderagarria da, beste erakunde batzuetako informazioaren aldera daitekeenean edo erakunde horren beraren beste aldi batzuetako informazioarekin aldera daitekeenean.

3. Kontabilitate-printzipioak.

1. Jarraian zehaztutako ondarearen izaera ekonomikoa duten kontabilitate-printzipioak ezarriz garatuko da erakunde baten kontabilitatea:

   a) Kudeaketa jarraitua. Erakundeak jarduerarekin denbora mugagabean jarraituko duela usteko da, kontrakorik frogatu ezean. Beraz, printzipio hauek ez dira ezarriko ondarearen likidazio-balioa zehazteko.

   b) Sortzapena. Transakzioak eta beste hainbat egitate ekonomiko eurek irudikatzen dituzten ondasun- eta zerbitzu-korronte errealaren arabera aintzatetsi beharko dira, eta ez euretatik eratorritako finantza- edo moneta-korrontea gertatzen denean. Printzipio honekin bat eginez aintzatetsitako elementuak aktiboak, pasiboak, ondare garbia, sarrerak eta gastuak dira.

   Zerbitzu- eta ondasun-korronte erreala argi identifikatu ezin bada, gastuak, sarrerak edo egoerak eskatzen dituen elementuak aintzatetsiko dira, eragiten dieten aktibo- eta pasibo-aldaketak sortzen direnean.

   c) Uniformetasuna. Aukera bat baino gehiago dagoenean eta irizpide bat hautatzen denean, denboran zehar mantendu egin beharko da eta ezaugarri berberak dituzten ondare-elementu guztiei aplikatu, irizpidea hautatzeko izan diren arrazoiak aldatzen ez diren artean.

   Horiek aldatzen badira, inguruabarrak memorian jasoko dira, aldaketak urteko kontuetan izandako eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa zehaztuz.

   d) Zuhurtasuna. Ziurgabetasunaren aurrean, zuhurra izan behar da estimazioak eta balioespenak egitean, aktiboak edo sarrerak neurriz kanpo balioetsi ez daitezen eta obligazioak edo gastuak gutxietsi ez daitezen. Baina, gainera, zuhurra izateak ez ditu aktiboak edo sarrerak gutxietsi behar eta obligazioak edo gastuak neurriz kanpo balioetsi behar. Izan ere, horrek informazioari neutraltasuna kenduko lioke eta bere fidagarritasunari kalte egingo lioke.

e) Ez konpentsatzea. Arauren batek espresuki kontrakoa ezarri ezean, balantzeko aktiboko eta pasiboko partidak ezin izango dira konpentsatu, ezta ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua edo ondare garbiaren aldaketen egoera-orria osatzen duten gastuak eta sarrerak ere, eta urteko kontuak osatzen dituzten elementuak bakoitza bere aldetik balioetsiko dira.

f) Garrantzi erlatiboa. Kontabilitate-printzipio edo -irizpideak aplikatzea, eurek eta euren eraginek izan dezaketen garrantzi erlatiboak zuzenduko du. Hortaz, horietako batzuk zorrotz ez aplikatzea onartuko da, zorroztasun ezak eragin handirik ez duenean, hau da, garrantzi erlatibo txikia duenean kuantitatiboki nahiz kualitatiboki eta, beraz, ondare-egoeraren eta subjektu ekonomikoaren emaitzen irudi fidela aldatzen ez duenean. Garrantzi erlatibo txikia duten partidak eta zenbatekoak izaeraz edo funtzioz antzekoak diren beste batzuekin elkartuta aurkeztu ahal izango dira. Printzipio hau aplikatu arren, ez dira inoiz lege-arauak hautsiko.

Aurreko printzipioen artean gatazkaren bat sortuz gero, lehentasuna emango zaio urteko kontuek erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela emateko egokiena denari.

1. Aurrekontu-araudi aplikagarrian jasotako aurrekontu izaera duten printzipioak ere ezarriko dira; hurrengo hauek, bereziki:

a) Aurrekontu-egoztearen printzipioa. Gastuen eta sarreren aurrekontuei ezarri beharreko eragiketen egoztea hurrengo irizpideei jarraiki egin beharko da:

Aurrekontuen gastu eta sarrerak euren izaera ekonomikoaren arabera egotziko dira, eta gastuen kasuan, gainera, eurekin lortu nahi den helburuaren arabera. Aurrekontuen gastu eta sarrerak sailkatzeko, horiek kudeatzeaz arduratzen den organoak esandakoa jarraituko da.

Erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik, emateetatik edo gastuetatik, oro har, eratorritako aurrekontu-obligazioak horiek egiten diren ekitaldiaren aurrekontuari egotziko zaizkio dagozkien kredituen kargura. Aintzatesten edo likidatzen diren ekitaldiaren aurrekontuei egotziko zaizkie eskubideak.

b) Jaregite-printzipioa. Oro har, aurrekontu izaera duten sarrerak izaera horretako gastu guztiak finantzatzera bideratuko dira, batzuen eta besteen artean harreman zuzenik izan gabe. Aurrekontu-gastu zehatz batzuk eurei eragiten diren aurrekontuen sarrera jakinen finantzatzen badira, kontabilitate-sistemak egoera hori islatu beharko du eta horren jarraipena egitea baimendu.

4. Urteko kontuetako elementuak.

1. Erakundearen finantza-egoerarekin nahiz ondarearekin erlazionatuta dauden urteko kontuen elementuak, balantzean erregistratzen direnak, ondoko hauek dira:

a) Erakundeak ekonomikoki kontrolatzen dituen ondasunak, eskubideak eta bestelako baliabideak, lehenagoko gertaeren ondorioz sortuak eta espero denez, erakundeari etorkizunean etekin ekonomikoak eta zerbitzu-potentziala emango dizkiotenak. Aktibo gisa kalifikatuko dira beste aktibo batzuen etekin ekonomikoa edo zerbitzu-potentziala lortzeko beharrezkoak direnak.

«Etorkizuneko etekin ekonomikoen» eramaile diren aktiboak ondasunen hornidura bidez edo ondasun horiekin zerbitzuak emanez etekin komertziala sortzeko helburuarekin edukitzen direnak dira: aktibo batek etekin komertziala sortzen du baldin eta hura erabiltzeko modua irabaziak lortzera zuzendutako erakundeek erabakitakoarekin bat badator. Etekin komertziala lortzeko aktibo bat izateak adierazten du erakundeak aktibo horren bidez (edo aktibo horren unitatearen bidez) diru-fluxuak lortu nahi dituela eta aktibo hori izateak barne hartzen duen arriskua islatzen duten etekinak lortu nahi dituela.

«Zerbitzu-potentziala» daramaten aktiboak etekin komertziala lortzea ez den beste helburu batzuekin edukitzen diren aktiboak dira, esaterako, aktibo horiek sortzen dituzten fluxu sozioekonomikoak, herritarrei onurak egiten dietenak; alegia, gizarte-onura edo zerbitzu-potentziala.

b) Pasiboak: uneko obligazioak, lehenago gertaeren ondorioz sortuak. Horiek desagertzearekin baliteke etekin ekonomikoak dakartzaten baliabideak eta zerbitzu-potentziala gutxitzea. Ondorio hauetarako, hornidurak ere hemen sartzen dira.

c) Ondare garbia: entitatearen aktiboen hondar-zatia da, haren pasibo guztiak kendu ondoren. Hor sartzen dira erakundeek edo erakunde jabeek, erakundea sortu zenean edo geroago, egindako ekarpenak (pasibo izaerarik ez dutenak) eta emaitza metatuak edo ondarea ukitzen duten bestelako aldakuntzak.

2. Ondarearen emaitza ekonomikoaren neurriarekin eta ondare garbian egindako beste doitze batzuekin lotutako elementuak (ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan edo ondare garbiaren aldakuntzen egoera-orrian adieraziak) honako hauek dira:

a) Sarrerak: ekitaldian zehar erakundearen ondare garbiak izandako gehikuntzak, bai aktiboen barneratzeagatik, gehikuntzagatik edo pasiboen gutxikuntzagatik, betiere erakundeek edo erakunde jabeek egindako ekarpenak, diruzkoak nahiz bestelakoak ez badira.

b) Gastuak: ekitaldian zehar erakundearen ondare garbiak izandako gutxikuntzak, bai aktiboen irteeragatik edo beherapenagatik, bai pasiboen aintzatespen edo gehikuntzagatik. Baldin eta, gutxikuntza horiek ez badira sortu erakunde edo erakunde jabeei egindako ondare-ekarpenen itzulketengatik, itzulketa horiek diruzkoak edo ez diruzkoak izan.

Ekitaldiko sarrerak eta gastuak bere emaitzara egotziko, ez baldin badira zuzenean egozten ondare garbira, Kontabilitate Publikoko Plan Orokor honen bigarren zatian edo Plana garatzen duen arauren batean ezarritakoaren arabera.

3. Ondorengoak dira aurrekontuaren likidazioaren egoera-orrian islatzen den aurrekontuaren gauzatzearekin erlazionatutako elementuak:

a) Aurrekontu-gastuak: Erakundearen gastuen aurrekontuan jasotako kredituen erabilera adierazten duten fluxuak dira. Gastuetan, aktiboen erosketan edo pasibo finantzarioen baliogabetzean jatorria duen aurrekontua ordaintzeko obligazioa dakarte.

Horrenbestez, termino hori erakundearen aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriari egotzi beharreko fluxuentzat gordetzen da. Ez da nahastu behar «gastu» terminoarekin, aurrekontu-gastu batzuk ez direlako gastu, eta alderantziz.

b) Aurrekontu-sarrerak: Erakundearen aurrekontu-gastuak finantzatzeko baliabideak zehazten dituzten fluxuak dira. Aurrekontu-kobrantzarako eskubideak sortzen dituzte, eta aurrekontu egokiari egotzi behar zaizkio, jatorria sarreretan, aktiboak inorenganatzean, mugaeguneratzean edo ezeztatzean, pasibo finantzarioen jaulkipenean, gastuak gutxitzean edo ondare garbiaren gehikuntzan izanik.

Horrenbestez, termino hori erakundearen aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriari egotzi beharreko fluxuentzat gordetzen da. Ez da nahastu behar «sarrera» terminoarekin, aurrekontu-sarrera batzuk ez direlako sarrera, eta alderantziz.

4. Hurrengoak dira diru-fluxuen egoera-orrian islatzen diren diruzaintza-mugimenduekin erlazionatutako elementuak:

a) Kobrantzak: Diruaren sarrera-fluxuak dira eta erakundearen diruzaintza haztea dakarte.

b) Ordainketak: Diruaren irteera-fluxuak dira eta erakundearen altxortegia txikitzea dakarte.

5. Urteko kontuetako elementuak erregistratzeko edo kontabilizatzeko irizpideak.

1. Erregistrorako irizpideak.

   Erregistroa edo aintzatespena urteko kontuetako hainbat elementu kontabilitatera sartzeko prozesua da. Horretarako aurreko atalean jasotako irizpideak eta atal honetan jasoko direnak bete behar dira. Ordena kronologiko egokian erregistratu behar dira gertakari ekonomiko guztiak.

2. Aktiboak eta pasiboak.

   Ondoko kasuetan aktiboak balantzean aintzatetsi behar dira:

   - Horiei esker erakundeak etorkizunean etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala lortuko direla uste denean.

   - Betiere, fidagarritasunez balioetsi daitezkeenean.

Bi horietako lehenak esan nahi du aktiboari loturiko arrisku eta abantailak erakundeari intsuldatu zaizkiola.

Aktibo bat aintzatesteak esan nahi du, aldi berean, pasibo bat edo sarrera bat aintzatestea, edo beste aktibo edo gastu bat murriztea edo ondare garbiaren handitzea. Era berean, aktiboetatik lortzea espero den etekin ekonomikoen nahiz zerbitzu-potentzialaren murrizpena ere aintzatetsi beharko da, izan narriadura fisikoarengatik, erabiliz higatzeagatik edo zaharkituta geratzeagatik.

Ondoko kasuetan pasiboak balantzean aintzatetsi behar dira:

Epemugan, obligazioa kitatzeko, etorkizuneko etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala barne hartzen dituzten baliabideak eman edo laga behar direla uste denean.

Bere balioa fidagarritasunez zehaztu behar denean.

Pasibo bat aintzatesteak esan nahi du, aldi berean, aktibo edo gastu bat aintzatestea, edo beste pasibo bat murriztea, edo sarrerena edo ondare garbiarena.

Aurrekontua egiterakoan isla izan dezaketen aktibo eta pasiboei dagokienez, kasu bakoitzean jarritako prozeduraren arabera, aurrekontuen gastuak edo sarrera aintzatesteko ekintzak zehazten direnean egingo da aintzatespena. Kasu honetan, aldia ixten den egunean behintzat, aipatu ekintzak ez zehaztuta ere, erakundeak egun horretara arte sortutako aktiboak eta pasiboak aintzatetsi beharko dira balantzean.

3. Sarrerak eta gastuak.

Erakundearen baliabide ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala hazi direlako onartzen dira sarrerak ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan edo ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian. Aktiboak gehitu direlako edo pasiboak murriztu direlako hazten dira zerbitzu-potentzial edo baliabide ekonomiko horiek, betiere, zenbatekoa fidagarritasunez zehatz daitekeenean. Beraz, horrek, aldi berean aktibo bat, aktibo baten hazkundea, edo pasibo baten desagerpena edo murrizpena aintzatestea dakar.

Erakundearen baliabide ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala murrizten direnean ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan edo ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian gastua aintzatetsi behar da. Aktiboak murriztu direlako edo pasiboak gehitu direlako murrizten dira baliabide ekonomiko edo zerbitzu-potentzial horiek, betiere, zenbatekoa fidagarritasunez balioetsi daitekeenean. Gastu bat aintzatesteak, aldi berean pasibo bat, edo pasibo horren hazkundea, edo aktibo baten desagerpena edo murrizpena dakartza. «Sensu contrario»,

obligazio bat aintzatesteak baina, aldi berean, harekin zerikusia duen aktibo bat ez aintzatesteak berekin dakar gastu bat dagoela, eta hori kontabilitatean jaso behar da.

Aurrekontua egiterakoan isla izan dezaketen gastuei eta sarrerei dagokienez, kasu bakoitzean jarritako prozeduraren arabera, aurrekontuen gastuak eta sarrerak aintzatesteko ekintzak zehazten direnean egingo da aintzatespena. Kasu honetan, aldia ixten den egunean behintzat, aipatu ekintzak ez zehaztuta ere, erakundeak egun horretara arte sortutako gastuak eta sarrerak ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan aintzatetsi beharko dira, edo ondare garbiko aldaketen-egoera-orrian.

Edonola ere, urteko kontuen denboraldi berean erregistratuko dira transakzio berberetatik edo beste gertaera ekonomiko batzuetatik zuzenean eta aldi berean sortzen diren gastuak eta sarrerak.

4. Aurrekontu-gastuak eta -sarrerak.

Aurrekontuaren likidazio egoeran aurrekontu-gastua aintzatetsiko da, jarritako prozeduraren arabera, aurrekontu-obligazioa aintzatesteko eta kitatzeko dagokion administrazio-egintza agintzen denean. Ordaindu beharreko aurrekontu- obligazioa aintzatestea dakar, bai eta aktibo edo gastu baten aintzatespena edo beste pasibo baten murrizpena ere.

Edonola ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 2003ko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 46. artikuluan arautzen den ekitaldiaren itxieraren ondorioetarako, aurrekontua ixteko aldian aintzatetsi ahal izango dira aurrekontuaren konturako gastuak, nahiz eta administrazio-egintza indarrean dagoen ekitaldian gertatu, baina betiere baldin eta itxi beharreko ekitaldian sortutako gastuan badira. Horretarako, urtarrilaren 1etik 31rako epea izango da aurrekontua ixteko aldia.

Aurrekontuaren likidazio egoeran aurrekontu-sarrera aintzatetsiko da, jarritako prozeduraren arabera, kobrantza-eskubidea kobratzeko dagokion administrazio- egintza agintzen denean edo kuantifikatzen duen dokumenturen bat dagoenean. Kobratzeko aurrekontu-eskubidea aintzatestea dakar, bai eta pasibo edo sarrera baten aintzatespena, beste aktibo edo gastu baten murrizpena edota ondare garbiaren hazkundea ere.

Jasotako transferentzien edo diru-laguntzen ondoriozko aurrekontu-sarreraren aintzatespena haiek gauzatu diren aktiboaren gehikuntza (diruzaintza) gertatzen denean egin behar da. Hala ere, haien onuraduna den erakundeak lehenago aintzatetsi ahal izango du aurrekontu-sarrera, bana-banako akordioa badago transferentzia edo diru-laguntza emateko erakunde horri, hura baliatzeko baldintzak bete badira, eta hura jasotzeari buruz zentzuzko dudarik ez badago.

Era berean, daukaten arautze bereziaren arabera geroagoko behin betiko likidazio baten konturako entregen bidez gauzatzen diren diru-laguntza eta transferentzia izendunetan, erakunde onuradunak aurrekontu-sarrera gisa aintzatetsi ahal izango ditu dagokien aldiaren hasierako konturako entregak (hau da, hilean, hiru hilean... behingoak). Behin betiko likidazioaren ondoriozko aurrekontu-sarreraren aintzatespena, hala egokituz gero, aurreko lerrokadan adierazitako irizpidearen arabera gauzatuko da.

Aurrekontuko kobratze-eskubide aintzatetsien atzerapenak edo zatikapenak onartzeak berekin badakar eskubidearen epemuga geroagoko ekitaldi batera aldatzea, kreditu horiek birsailkatu egingo dira balantzean, eta haien aurrekontu- baliogabetzea gertatuko da, daukaten epemuga berriari dagokion ekitaldiko indarreko aurrekontuan aplikatu egin beharko baitira.

Oro har, zorpetze-eragiketa aurrekontu-sarrera moduan erregistratuko da mailegu-emaileak kapitalak ordaintzearekin batera. Une hori, normalean, masan egindako jaulkipenen harpidetze-aldiaren amaierarekin bat etortzen da, hala nola, eragiketa berezietan, mailegu-kontratua formalizatzeko unearekin.

Hala ere, aurrekontu-sarrera hori, hala nola dagokion pasibo finantzarioa, lehenago aintzatetsi ahal izango da, baldin eta kontratuko baldintzetatik ondorioztatzen bada hura irmoa dela, eta bi aldeek galdagarria, betiere honako baldintza hauek betez gero:

a) Zorpetze-eragiketa ekitaldia itxi baino lehen formalizatu dela.

b) Behar bezain ongi justifikatuta dagoela elkarri lotuta daudela aurreikusitako inbertsioak eta haiek finantzatzeko zorpetze-eragiketara jo izana.

c) Ez dagoela inolako murrizketarik formalizatutako eragiketa horiek guztiz baliatzeko, eta dagozkien kapitalen baliatze partziala edo pixkanakakoa udal-diruzaintzaren kudeaketa-esparruan hartutako erabakien ondorio dela.

d) Kreditu-eragiketa horiek finantzatutako inbertsioak ekitaldiaren itxieran agertzen direla, «aintzatetsitako obligazioa» fasean behintzat.

Trukeetan, eskudirutan jasotako edo ordaindutako konpentsazioek soilik sortuko dute aurrekontu-sarrera edo -gastu bat, hurrenez hurren.

6. Balioespen-irizpideak.

Balioespena urteko kontuak osatzen dituzten elementuetako bakoitzari diru-balio bat esleitzeko prozesua da, elementu horietako bakoitza balioesteko Kontabilitate Publikoko Plan Orokor honen bigarren zatian ezarritako arauen arabera.

Aintzatespen- eta balioespen-arau bereziren batean balioespen-irizpideen garapenik baldin bada, horri kasu egingo zaio.

Horretarako, ondoko definizioak izango dira kontuan:

1. Eskuratze-prezioa.

   Eskuratze-prezioan sartzen da dirutan edo partida baliokidetan ordaindutako edo ordaindu beharreko zenbatekoa eta, halaber, aktiboa erostearekin edo erabiltzeko prest jartzearekin -helburu erabilerarako- lotutako edozer kostu.

2. Produkzio-kostua.

   Ekoizpen-kostuan sartzen da lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien eskuratze-prezioa, aktiboari zuzenean egotz dakizkiokeen ekoizpen-faktoreena eta aktiboarekin zeharka lotutako ekoizpen-kostuei dagokien arrazoizko zatia, kostu horiek ekoizpen-, eraikitze- edo fabrikazio-denboraldikoak badira, ekoizpen-baliabideen lanerako ahalmen normala erabili badute eta aktiboa martxan edo erabilgarri jartzeko beharrezkoak badira.

3. Pasibo baten kostua.

   Pasibo baten kostua zorpetzeagatik jasotako kontrapartidaren balioa da.

4. Arrazoizko balioa.

   Aktibo baten truke eskura daitekeen zenbatekoa edo pasibo bat kitatzeko eman beharrekoa, alderdi interesatuen, behar bezala informatuen artean egindako eragiketa baten bitartez, elkarrekiko independentzia osoz. Arrazoizko balioa zehazteko ez dira kenduko inorenganatzean sor litezkeen transakzio-kostuak. Ez da inolaz ere arrazoizko baliotzat joko, behartuta, presaka edo borondatearen kontrako likidazio-egoera baten ondorioz egindako eragiketetatik ateratako balioa.

   Oro har, arrazoizko balioa kalkulatzeko, merkatuko balio fidagarri bat hartuko da erreferentzia gisa. Alde horretatik, merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa izango da arrazoizko balioaren erreferentziarik onena. Merkatu aktiboa izateko baldintza hauek bete behar ditu:

   - Elkartrukatzen diren ondasunak edo zerbitzuak homogeneoak izatea;.

- Ondasun edo zerbitzu jakin batentzat erosleak edo saltzaileak ia edozein unetan aurkitu ahal izatea; eta.

- Prezioak ezagunak eta publikoarentzat erraz ezagutzeko modukoak izatea. Gainera, prezio horiek merkatuko transakzio errealak, eguneratuak eta erregularrak adierazten dituzte.

Merkatu aktiborik ez dagoenean, balioespen-ereduak eta -teknikak erabiliko dira elementu bakoitzaren arrazoizko balioa kalkulatzeko. Balioespen-eredu eta -tekniketan sartzen dira, erabilgarri egonez gero, interesatuta eta behar bezala informatuta dauden alderdiek, elkarren beharrik izan gabe, duela gutxi egin dituzten transakzioen erreferentziak, bai eta funtsean berdinak diren beste aktibo batzuen arrazoizko balioaren erreferentziak, etorkizuneko diru-fluxu zenbatetsiak deskontatzeko metodoen erreferentziak eta oro har aukerak balioesteko erabiltzen diren ereduak ere. Edozein modutan, erabiltzen diren balioespen-teknikek koherenteak izan beharko dute merkatuan prezioak ezartzeko onartzen eta erabiltzen diren metodologiekin eta, merkatuan prezio-estimazio errealistagoak egiten dituela erakutsi duen balioespen-teknikaren bat baldin badago, hori erabili beharko da.

Erabiltzen diren balioespen-teknikek ahalik eta gehien baliatu behar dituzte merkatuan ikus daitezkeen datuak eta merkatuan parte hartzen dutenek prezioa finkatzeko kontuan hartuko lituzketen faktoreak, eta ahalik eta gutxien jo behar dute behatu ezin diren datuetara.

Erakundeak aldizka ebaluatu beharko du balioespen-teknika. Horretarako aktibo horretan bertan egin berri diren transakzioen prezio behagarriak edo eskura dauden merkatuko datu behagarrietan oinarritutako prezioak erabiliko ditu.

Ondoko kasuetan ez da fidagarritzat joko lehenagoko balioespen-ereduen eta -tekniken bidez lortutako arrazoizko balioa:

- Arrazoizko balioaren estimazio-tartean aldagarritasuna esanguratsua da, edo.

- Tarte horren barruko estimazioen probabilitatea ezin da neurtu arrazoizko balioaren estimazioan erabili ahal izateko.

Balioespena egin behar denean arrazoizko balioan, fidagarritasunez balioetsi ezin diren elementuak (merkatuko balioari erreferentzia eginez edo aurrez adierazitako balioespen-metodo eta -tekniken bidez) erosketa-prezioan, produkzio-kostuan edo kostu amortizatuan balioetsiko dira. Memorian gertakari honen eta berau eragin duten baldintzen aipamena egingo da.

5. Balio bihurgarri garbia.

   Aktiboaren balio bihurgarri garbiaren zenbatekoa merkatuan inorenganatzearen bidez lor daiteke, modu natural edo ez behartuan, eta hori egiteko beharrezko kostuak ken daitezke, bai eta ekoizpena, eraikuntza edo fabrikazioa amaitzeko beharreko gastuak ere, baldin eta abian dauden produktuak badira.

6. Erabilera-balioa.

   Erakundearen etorkizuneko etekin ekonomikoan barne hartzen dituzten aktiboen erabilera-balioa zera da: erakunde baten aktibitatearen bilakaera arruntean, dirua erabili delako (edo inorenganatzearen edo beste gertaeraren baten ondorioz), izatea espero den diru horien fluxuen oraingo balioa, arriskurik gabeko merkatuko Interes-tasaren arabera eguneratuta. Diru-fluxuen banaketa ziurgabetasunari lotuta dagoenean, fluxu hori aintzatetsiko da diru-fluxuen estimazioei probabilitateak ezarrita. Edonola ere, estimazio horiek kontuan izan beharko dute merkatuko partaideek kontsideratuko luketen beste edozein alderdi, hala nola balioetsitako aktiboaren likidezia-maila.

   Erakundearentzako zerbitzu-potentziala dakarten aktiboen erabilera-balioa zerbitzu-potentziala mantenduz aktiboak orain duen balioa da. Aktiboari eman zaion erabilera

islatzeko, aktiboaren birjarpen-kostuari metatutako amortizazioa (kostu horren oinarriaren gainean kalkulatuta) kenduz zehazten da.

7. Salmenta-kostuak.

   Aktibo baten salmentari zuzenean egotz dakizkiokeen kostu gehigarriak dira, erakundeak saltzeko erabakia hartu izan ez balu sortuko ez liratekeenak, gastu finantzarioak kenduta. Aktiboaren jabetza transferitzeko egin beharreko legezko gastuak eta salmenta-komisioak sartzen dira.

8. Zenbateko berreskuragarria.

   Aktibo baten zenbateko berreskuragarria bere arrazoizko balioari salmenta gastua eta bere erabilera-balioa kenduta lortzen dena da.

9. Aktibo edo pasibo baten uneko balioa.

   Uneko balioa, negozioaren martxa normalean, aktibo batengatik hartuko edo pasibo batengatik ordainduko diren diru-fluxuen zenbatekoa da, deskontu-tasa egokian eguneratua.

10. Aktibo edo pasibo finantzario baten kostu amortizatua.

    Aktibo finantzario baten kostu amortizatua kalkulatzeko, printzipaletik dagoeneko itzulitako zatia kentzen zaio aktibo finantzarioaren hasierako balioespenean ezarritako zenbatekoari, eta hasierako zenbatekoaren eta mugaeguneko errenboltso-balioaren arteko diferentziatik ondasun ekonomikoen emaitzaren kontura (Interes-tasa efektiboaren metodoaren bitartez) egotzitako zatia gehitu edo kendu egiten zaio, egoki denaren arabera, bai eta daukan balioa zuzentzeko kontu baten bidez aintzatetsitako narriaduraren ondoriozko edozein balio-murrizketa ere.

    Pasibo finantzario baten kostu amortizatua kalkulatzeko, printzipaletik dagoeneko itzulitako zatia kentzen zaio pasibo finantzarioaren hasierako balioespenean ezarritako zenbatekoari, eta hasierako zenbatekoaren eta mugaeguneko errenboltso-balioaren arteko diferentziatik ondasun ekonomikoen emaitzaren kontura (Interes-tasa efektiboaren metodoaren bitartez) egotzitako zatia gehitu edo kendu egiten zaio, egoki denaren arabera.

    Interes-tasa efektiboa, kontratuan ezarritako baldintzetatik abiatuta eta etorkizuneko kreditu-arriskuengatik izandako galerak kontuan hartu gabe, aktibo edo pasibo finantzario baten eta horren bizitzan zehar espero diren diru-fluxu estimatuen balioa berdintzen dituen eguneratze-tasa da; finantzaketa ematean aurrez kargatzen diren komisio finantzarioak ere sartuko dira kalkuluan. Denboraldi batetik aurrera, diru-fluxuen estimazio fidagarririk ez dagoenean, estimazio fidagarria dagoen azken aldiko fluxuen berdintzat hartuko dira geratzen diren beste fluxuak ere.

11. Aktibo edo pasibo finantzarioei egozteko transakzio-kostuak.

    Aktibo finantzario bat erosteari, jaulkitzeari, inorenganatzeari edo bestela xedatzeari, edo pasibo finantzario bat jaulkitzeari edo onartzeari zuzenean egotz dakizkiokeen gastu gehigarriak dira, erakundeak transakzioa egin izan ez balu sortuko ez liratekeenak. Horien artean sartzen dira bitartekariei ordaindutako komisioak, hala nola, artekarien sariak, fede-emaile publikoen parte-hartzearen gastuak eta bestelakoak. Kanpo daude, berriz, erosketan edo jaulkipenean lortutako beherapenak edo sariak, eta gastu finantzarioak, administrazio barrukoak eta aurrez egindako azterketa nahiz analisietatik eratorritakoak.

12. Kontabilitate-balioa.

    Kontabilitate-balioa balantzean aktibo edo pasibo batek erregistratuta duen zenbateko garbia da; aktiboak direnean, amortizazio metatua eta narriaduragatik erregistratuta eduki dezakeen balio-zuzenketa oro kendu ondoren geratzen dena.

13. Aktiboaren hondar-balioa.

Aktibo baten hondar-balioa, une honetan aktibo hori saldu edo bestela xedatuz gero, erakundearen ustez lortuko litzatekeen zenbatekoa da, salmenta-kostuak kenduta, pentsatuz, aktiboa bere balio-bizitzaren amaieran izan beharreko antzinatasunera eta bestelako baldintzetara heldu dela.

Aktibo baten bizitza erabilgarria erakunde batek aktibo hori erabiliko duela uste den epealdia da, edo baita erakundeak aktibo horretatik lortzea espero duen produkzio-unitateen edo antzekoen kopurua ere.

Bizitza ekonomikoa da, aurreikusten denaren arabera, aktiboa erabiltzaile batek edo gehiagok erabili ahal izango duten denbora edo aktibo horrek emango dituen produkzio-unitateen kopurua.

BIGARREN ZATIA.
AINTZATESPEN- ETA BALIOESPEN-ARAUAK.

KONTZEPTU-ESPARRUAREN GARAPENA.

Aintzatespen- eta balioespen-arau hauetan, testu honen lehenengo zatian, kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruari buruzkoan, aipatutako kontabilitate-printzipioak eta bestelako xedapenak garatzen dira. Bertan sartzen dira transakzio edo egite ekonomiko mota bakoitzari eta zenbait ondare-elementuri aplikatu beharreko irizpideak eta arauak.

1. Ibilgetu materiala.

1. Azalpena.

Ibilgetu materiala osatzen dute aktibo ukigarri, higigarri eta higiezinek; hain zuzen ere,

a) Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean edo hornikuntzan erabiltzeko edo helburu administratiboetarako erakundeak dauzkanek.

b) Espero denez, urtebete baino gehiagoko bizitza dutenek.

Oro har, ibilgetu materialetik kanpo geratu ahalko dira, eta beraz, ekitaldiaren gastutzat hartu, prezio unitarioa eta garrantzi erlatiboa dela eta (ondarearen masaren barnean), hala aholkatzen duten ondasun higigarriak.

2. Balioespen-irizpide aplikagarriak

a) Eskuratze-prezioa.

Eskuratze-prezioan sartzen dira erosketa-prezioa, inportazioko muga-zergak eta erosketak dituen zeharkako zerga ez errekuperagarriak, baita aktiboa erostearekin edo erabiltzeko prest jartzearekin zuzenean erlazionatutako edozer kostu ere. Elementuaren preziotik kenduko da lortutako edozer deskontu edo beherapen.

Honako hauek jotzen dira erostearekin edo erabiltzeko prest jartzearekin zuzenean erlazionatutako kostutzat:

1. Kokalekua prestatzearen ingurukoak;.

2. Hasierako entregari eta ondorengo manipulazioari edo garraioari dagozkionak;.

3. Instalazioari loturikoak;.

4. Ordainsari profesionalak, hala nola,arkitekturako, ingeniaritzako edo fede publikoko zerbitzuengatik ordaindutakoak, nahiz eragileei edo bitartekariei ordaindutako komisio eta ordainsariak; eta.

5. Aktiboa desegiteko eta bere kokalekua berritzeko estimatzen den kostuaren oraingo balioa, hornikuntza bat aintzatesten den neurrian.

Erakundeak bere antolamendutik datozen gastuak sortzen baditu, hurrengo baldintza hauek guztiak betetzen badituzte soilik hartuko dira erosketa-prezioaren partetzat:

a) Ondare-elementuaren erosketari edo erabiltzeko prest jartzeari zuzenean esleitzen zaizkionean.

b) Jarraipen- eta kontrol-irizpide bat ezarriz fidagarritasunez neurtu edo egotzi badaitezke.

c) Erosketarako edo erabiltzeko prest jartzeko beharrezkoak direnean, eta beraz, norbere bitartekoak erabili ezean, erakundeaz kanpoko gastu bat egitea beharrezkoa litzatekeenean.

Osoki ibilgetu materialari dagokion elementu baten ordainketa atzeratzen denean, haren erosketa-prezioa eskurako prezioaren berbera izango da. Eskurako prezio baliokidea erabakitzeko, «Pasibo finantzarioak» 9 aintzatespen- eta balioespen-arauaren 4.1 puntuan xedatua kontuan hartuko da, ordaindu beharreko partiden hasierako balioespenaz den bezainbatean.

Aintzatespen- eta balioespen-arau honen «Gastu finantzarioen aktibazioa» 3. atalean jasotako betebeharrak eta baldintzak betetzen direnean, gastu finantzarioak erosketa-prezioan sartu ahalko dira.

Eraiki gabeko orubeei helduta, eskuratze-prezioan sartuko dira egokitze-lanen gastuak, hala nola, itxiturak, lur-mugimenduak, saneamendu- eta drainatze-lanak, eraikuntzak eraistearenak eraikuntza berriko obrak egin behar direnean, ikuskapenen eta planoak altxatzearen gastuak eskuratzea gauzatu aurretik egiten direnean eta, halaber, halakorik dagoenean, orubea birgaitzearen kostuengatik sortutako obligazioen uneko balioa.

b) Ekoizpen-kostua.

Erakundeak berak ekoitzitako edo eraikitako aktibo batean produkzio-kostua aktiboen erosketa-prezioari aplikatutako irizpide berberak erabiliz zehazten da.

Kostu hori lortzeko lehengaien eta beste material batzuen erosketa-prezioari -zuzeneko identifikazioaren irizpidea aplikatuz, edo hori ezean, batez besteko kostuaren haztatua edo FIFOa aplikatuz- ondasunaren elaborazioari eta fabrikazioa zuzenean egotzitako gainerako kostuak gehitu behar zaizkio. Bai eta fabrikazioarekin erlazionatutako zeharkako kostuei arrazoiz dagokien partea ere.

Egindako unitate bakoitzari dagozkion zeharkako kostu finkoen banaketa-prozesua, erabilitako bitartekoen lanerako gaitasun arruntean, edo ekoizpen-maila errealean (betiere, ahalmen arruntera gerturatzen bada) oinarrituko da.

Ekoizpen-maila alferrikako edo baxuko aldietan, aurrez zehaztutako egindako unitate bakoitzari dagozkion zeharkako kostu finkoen kantitatea ez da haziko, eta irabazitako zeharkako kostuak eta ekoitzitako unitateei banatu gabeak ekitaldiaren gastutzat hartuko dira.

Aldiz, asko-asko ekoizten den garaietan, ekoitzitako unitate bakoitzari banatutako zeharkako kostuaren kantitatea jaitsi egingo da eta aktiboa ez da kontu errealaren gainetik balioetsiko.

Zeharkako kostu aldakorrak ekoitzitako unitate bakoitzari banatuko zaizkio, ekoizpen bitartekoen erabilera-maila errealean oinarrituta.

Aktiboaren ekoizpen-kostuan ez dira sartuko materialen, eskulanen edo erabilitako bestelako faktoreen kontsumo-maila arrunta gainditzen duten kantitateak, ezta inolako barneko etekinik ere.

Aktiboari kostuak esleitu eta egotziko zaizkio ondare-elementua amaituta egon arte, hau da, dagokion bezala erabiltzeko prest egon arte.

Arau honen «Gastu finantzarioen aktibazioa» 3. atalean jasotako betebeharrak eta baldintzak betetzen direnean, gastu finantzarioak ekoizpen-kostuan sartu ahalko dira.

c) Arrazoizko balioa.

Plan honen kontabilitate publikoko kontzeptu-esparruan zehaztutako zenbatekoari dagokio.

3. Gastu finantzarioen aktibazioa.

Erabiltzeko moduan egoteko urtebetetik gorako aldia behar duten ibilgetuetan, erakundeek, hurrengo lerrokadetan adierazten denaren arabera, funtzionatzeko moduan jarri baino lehen sortutako gastu finantzarioak erantsi ahal izango dizkiote erosketa-prezioari edo ekoizpen-kostuari.

Jasotako finantziazioarekin erlazionatuta, erakundeak dituen interesak eta beste kostu batzuk dira gastu finantzarioak. Beste batzuen artean, ondokoak sartzen dira:

- Jasotako edo onartutako maileguen interesak, bakarkakoak edo masan jaulkitakoak.
- Maileguei dagozkien deskontu edo sarien egoztea.
- Maileguen formalizazio-gastuen egoztea.
- Atzerri-monetan egindako maileguetatik datozen kanbio-diferentziak, interesengatiko kostuei egindako doikuntzak kontuan hartzen diren neurrian.

Hurrengo baldintza guztiak betetzen dituzten gastu finantzarioak aktibatu ahalko dira:

a) Aktibo baten fabrikazioa, egokitzapena edo erosketa finantzatzeko helburu bakarrarekin jasotako edo onartutako maileguetatik eratorria izatea.

b) Jasotako edo onartutako finantziazioaren erabilera eraginkorraren ondorioz sortua izatea. Beharrezko diru guztia edo zati bat aurrez eskuratu den kasuetan, aktiboaren fabrikazioarekin, egokitzapenarekin edo erosketarekin zerikusia duten ordainketetatik sortutako gastu finantzarioak soilik hartuko dira kontuan.

c) Egokitzapen edo fabrikazio-lanak egin bitartean soilik aktibatuko dira. Aktiboa dagokion erabilerarako prest jartzeko beharrezkoak diren jarduerak hartuko dira egokitzapen- edo fabrikazio-lantzat. Aipatutako jardueren etenaldietan aktibazioa bertan behera geratuko da.

d) Aktiboaren egokitzapena edo fabrikazioa zatika egiten denean, eta zati horietako bakoitzak berak bakarrik zerbitzu- edo erabilera-baldintzak betetzen dituenean, nahiz eta gainerako egokitzapena edo ekoizpena amaitu gabe egon. Zati horietako bakoitza amaituta dagoenean bukatuko da zati bakoitzaren gastu finantzarioen aktibazioa.

4. Hasierako balioespena.

Ibilgetu materialari dagozkion ondare-elementuen hasierako balioespena kostuaren arabera egingo da. Kontzeptu horrek barne hartzen ditu aurreko 2. atalean azaldutako hainbat balioespen-sistema. Zehazki, kostutzat hartuko da:

a) Kostu handiko transakzio bidez hirugarrenei erositako aktiboentzat: erosketa-prezioa.

b) Erakundeak berak sortu dituen aktiboentzat: ekoizpen-kostua.

c) Hirugarrenei prezio sinbolikoan edo ezer ordaindu gabe erositako aktiboentzat: «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18 aintzatespen- eta balioespen-arauan finkatutako balioespen-irizpideak erabiliko dira.

d) Trukean lortutako aktiboentzat:

d.1) Trukatutako aktiboak, funtzionaltasunaren edo bizitza erabilgarriaren ikuspegitik, antzekoak ez direnean, eta euren arrazoizko balioaren estimazio fidagarria egin daitekeenean: jasotako aktiboaren arrazoizko balioa. Jasotako aktiboaren arrazoizko balioa fidagarritasunez balioetsi ezin denean, emandako ondasunaren arrazoizko balioa, eragiketan transferitutako diruaren edozein balizko kantitateren zenbatekoak doituta.

Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari egotziko zaizkio entregatutako aktiboari baja emandakoan sor daitezkeen balioespen-diferentziak.

Trukatzen diren aktiboen arrazoizko balioen arteko diferentziak, aplikagarria den ondare-legediaren arabera, diru bidez doitzen ez direnean, jasotako edo emandako diru-laguntzatzat hartuko dira, kasuaren arabera.

d.2) Trukatutako aktiboak, ikuspuntu funtzionaletik eta bizitza baliagarriaren ikuspegitik, antzekoak badira:

(a) Eragiketan, diru-trukerik egin ezean: emandako aktiboaren kontabilitate-balioa, jasotako aktiboaren arrazoizko balioaren mugarekin, hori txikiagoa bada.

(b) Eragiketan eskudiruzko beste ordainketaren bat eginez gero: emandako aktiboaren kontabilitate-balioa, eskudirutan egindako beste ordainketaren zenbatekoa gehituta, jasotako aktiboaren arrazoizko balioaren mugarekin, hori txikiagoa bada.

(c) Eragiketan eskudiruzko beste kobrantza bat izanez gero: erakundeak bereizi beharko du eragiketaren zer zati den salmenta -diruzaintzako kontraprestazioa- eta zer zati gauzatzen den truke bidez -jasotako aktiboa-, eta horri dagokionez, kontuan hartu behar da zati horietako bakoitzak zer proportzio duen kontraprestazio osoan -diruzaintza eta jasotako ondasunaren arrazoizko balioa-

Salmenta adieraziko lukeen eragiketari dagokionez, inorenganatutako ondasunaren zatiaren salmenta-prezioaren eta arrazoizko balioaren arteko diferentziak ibilgetutik datorren emaitza positiboa edo negatiboa adieraziko du.

Trukea adieraziko lukeen eragiketan, bestalde, aurreko (a) atalean jasotakoa ezarriko da.

e) Hasierako inbentarioa egitearen ondorioz agertutako aktiboentzat: arrazoizko balioa, baldin eta ezin bada zehaztu erosketa-prezioari edo hasierako ekoizpen-kostuari eta gerora aktiba daitezkeen zenbatekoei dagokien kontabilitate-balioa.

f) Hasierako hornidurari begira erakunde bereko beste entitate batetik jasotako aktiboei dagokienez: kostua «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18 aintzatespen- eta balioespen-arauan adierazitakoaren arabera lortuko da.

g) Errentamendu finantzarioko kontratu baten edo antzeko zerbaiten bidez eskuratutako aktiboei dagokienez: «Errentamenduak eta antzeko eragiketak» 6 aintzatespen- eta balioespen-arauan adierazitakoaren arabera zenbatetsiko dira.

h) Doan lagata edo atxikita jasotako aktiboentzat: «Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk» 19 aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera balioetsiko dira.

i) Entitate kudeatzaile batekin egindako eraikitzeko akordio, hitzarmen edo kontratu edo erosketa bidez jasotako aktiboei dagokienez, arrazoizko balioa kontuan hartuko da.

5. Geroko ordainketak.

Hasierako erregistroaren geroko ordainketak kontabilitate-balioaren zenbatekoari gehitu behar zaizkio, euretatik etorkizuneko etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala -aktiboarentzako hasiera batean ebaluatutakoez gain- eratortzea litekeena denean. Honako hauek dira:

a) Elementu bat aldatzea, bere bizitza erabilgarria handitzeko edo bere ekoizpen-ahalmena hazteko;

b) Elementuaren osagarriak eguneratzea, eskainitako produktu edo zerbitzuen kalitatea nabarmen hazteko; eta

c) Aurrez estimatutako eragiketen kostuak nabarmen murrizten dituzten ekoizpen-prozesu berriak hartzea.

Ibilgetu materiala mantentzera eta konpontzera bideratutako ordainketak aktiboarentzat hasiera batean estimatutako etorkizuneko etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala berriztatzeko edo mantentzeko egiten dira. Horiek ekitaldiko emaitzan gastu gisa aintzatetsiko dira.

Ibilgetu materialeko zenbait elementuren osagarri nagusiak aldi erregularretan ordezkatu behar direnean, osagarri horiek banatutako aktibo gisa kontabiliza daitezke, baldin eta erlazionatuta dauden aktiboekin alderatuta bizitza erabilgarri oso bereiziak badituzte.

Aintzatespen-irizpideak betetzen direnetan, osagarriak ordezkatzeko edo berriztatzeko gastuak erantsitako aktiboaren erosketa gisa eta ordezkatutako aktiboaren kontabilitate-balioaren baja gisa kontabilizatuko dira. Erakundeak ordezkatutako zatiaren kontabilitate-balioa ezingo balu zehaztu, ordezkatutako osagarriak merkatuko uneko prezioa erabili ahalko da identifikatu ahal izateko.

Ibilgetu materiala balioesterakoan kontuan izango dira aktiboak lana egiten jarrai dezan egin beharreko akatsen konponketa handiekin edo ikuskaritza nagusiarekin erlazionatutako kostuen eragina. Ildo horretatik, kostu horien zenbatekoa ez da elementuaren gainerakoa bezala amortizatuko, konponketa handia edo ikuskaritza nagusia egiten den arteko tartean. Kostu horiek eskuratzean edo eraikitzean zehaztu ez badira, identifikatu ahal izateko, antzeko konponketa edo ikuskaritza baten merkatuko uneko prezioa erabili ahal izango da.

Ibilgetu materialeko elementuren batek lanean jarrai dezan egin beharreko konponketa handien edo ikuskaritza nagusien gastuak (elementuaren zatiak ordezkatu diren edo ez aparte utzita) ibilgetuaren kontabilitate-balioan aintzatetsiko da ordezkapen gisa, baldin eta aintzatesteko baldintzak betetzen baditu. Aldi berean, aipatutako ibilgetuaren kontabilitate-balioan jarrai dezakeen eta aurreko aldaketa handi batetik edo ikuskaritzatik datorren edozein zenbatekori baja emango zaio.

6. Geroko balioespena

a) Trataera orokorra: Kostu-eredua.

Aktibo gisa aintzatetsi ondoren, ibilgetu materialaren elementu guztiak hasierako balioespenean kontabilizatuko dira. Ondorengo ordainketengatik hazi egingo dira, eta euren bizitza erabilgarrian zehar izandako narriadurak sortutako amortizazio pilatua eta balioespen-zuzenketa kenduko zaie.

b) Trataera berezia: Errebalorizazio-eredua.

Merkatuko egoerek prezioek gora egitea eragiten dutenean, eta horrek ibilgetu materialaren elementu baten kontabilitate-balioa bere balio errealarekin alderatuta garrantzi gutxikoa izatea eragiten duenean, egoera horrek eragiten dien aktiboen balioa bere arrazoizko balioarekin adieraztea onartzen da, errebalorizazio-unean, errebalorizazio-datatik urteko kontuen datara arte elementu horrek jasandako narriadura dela- eta pilatutako amortizazioa eta balioespen-zuzenketa kenduta. Merkatuko prezioek hazten jarraitzen badute, errebalorizazioak nahikoa maiztasunarekin egin behar dira. Hala, kontabilitate-balioa ez da erabat desberdinduko urteko kontuen datako arrazoizko balioa erabiliz izango lukeenetik.

Errebalorizazio-eredua plusbalioen kalkuluan sor daitekeen zehartasuna txikiagotzeko merkatu nahiko esanguratsua eta gardena dagoen kasuetan soilik izango da erabilgarria.

Errebalorizazioaren ondorioz kontabilitate-balioa hazten denean, hazkunde hori ondare garbiaren partida batean erregistratu behar da. Hala ere, hazkundea ekitaldiko emaitzari egotziko zaio, aurrez ekitaldiko emaitzan gastu gisa aintzatetsi zen aktibo beraren balioaren narriaduraren lehengoratzea adierazten duen neurrian.

Ibilgetu baten kontabilitate-balioa jaisten denean balioa narriatu dela- eta, beherakada hori ekitaldiko emaitzari egotziko zaio gastu gisa. Aitzitik, aktibo berarekin erlazionatuta, aurrez erregistratu den ondare garbiaren partida zehatzari egotziko zaio, baldin eta beherakada horrek aipatutako partidaren saldoa gainditzen ez badu.

Ibilgetu materialeko elementu bat errebalorizatzen denean, aktiboaren kontua errebalorizazio horren zenbatekoaren arabera haziko da, ondare garbiaren partida zehatz beraren kontra.

Ibilgetu materialeko elementu zehatz bat errebalorizatzen bada, aktibo mota berberetako aktibo guztiak errebalorizatuko dira, baldin eta balio-trukea esanguratsua bada. Aktibo mota bera osatzen dute erakunde bateko jardueretan izaera eta erabilera bera duten aktiboek.

7. Amortizazioa

a) Azalpena.

Bere bizitza erabilgarrian zehar aktibo baten balio-jaistearen banaketa sistematikoa da amortizazioa. Berau zehazteko, ondarearen oinarri amortizagarria geratzen zaion bizitza erabilgarriaren artean banatuko da, erabilitako amortizazio-metodoaren arabera. Oinarri amortizagarria ondasunak uneoro duen kontabilitate-balioaren berbera izango da, eta egokia izango balitz, izan dezakeen hondar-balioa kenduko zaio.

Ibilgetu materialaren bizitza erabilgarria zehazteko, beste batzuen artean, ondoko arrazoiak izan behar dira kontuan:

- Erakundeak aktibo horri eman nahi dion erabilera. Erabilera estimatzeko aktiboak izatea espero den ahalmena edo etekin fisikoa aintzat hartzen da.

- Espero den narriadura naturala, hainbat faktoreren menpe dagoena: ondasun hori erabiliko den lan-txanden kopurua, erakundearen konponketa- eta mantentze-programa edota aktiboa produkziorako erabiltzen ez den bitartean ematen zaion zaintza- eta mantentze-maila; .

- Ekoizpenean egindako aldaketa edo hobekuntzetatik, edo aktiboarekin lortzen diren produktuen edo zerbitzuen merkatuko eskaeretan izan diren aldaketetatik eratorritako zaharkitzapena; eta.

- Aktiboaren erabileraren gaineko muga legalak edo antzeko murrizketak, hala nola, ondasunarekin erlazionatutako zerbitzu-kontratuen iraungipen-datak.

Aldi bakoitzeko amortizazioaren zuzkidura gastu gisa aintzatetsiko da ekitaldiko emaitzan, kontabilitate-balioari dagokion zatia aitzat hartuta, ibilgetua kostu-ereduari jarraiki erregistratu bada, eta gainerakoa egotzi egingo da ondare garbiaren partida espezifikora, baldin eta errebalorizazio-eredua aplikatzen bada.

b) Amortizazio-metodoak.

Besteak beste, honako metodo hauek erabili ahal izango dira: amortizazio lineala, kontabilitate-balioaren gaineko tasa iraunkorra eta ekoitzitako unitateen batura. Aktibo bakoitzarentzat azkenean erabiliko den metodoa etekin ekonomikoetatik edo zerbitzu-potentzialetik espero diren patroietan oinarrituta hautatuko da, eta aldi batetik bestera era sistematikoan aplikatuko da, aktibo horren etekin ekonomikoetatik edo zerbitzu-potentzialetik lortzea espero den patroietan aldaketarik gertatzen ez bada behintzat. Etekinak edo zerbitzu-potentziala lortzeko patroi horiek modu fidagarrian zehazterik ez badago, amortizazio-metodo lineala hautatuko da.

c) Bizitza erabilgarriaren eta amortizazio-metodoaren berrikuspena.

Ibilgetu materialaren elementu baten bizitza erabilgarria aldizka berrikusi behar da eta, uneko itxaropenak aurreko estimazioekin konparatuta asko aldatzen badira, gelditzen zaion bizitza erabilgarriaren aldietan karguak doitu behar dira.

Era berean, ibilgetu materiala osatzen duten elementuei aplikatutako amortizazio-metodoa aldian behin berrikusi behar da, eta aktibo horien etekin ekonomikoetatik edo zerbitzu-potentzialetik lortzea espero den patroian aldaketa garrantzitsurik gertatu bada, metodoa aldatu behar da patroi berria isla dezan. Amortizazio-metodoa aldatu behar denean, kontabilitate-estimazio bateko aldaketa gisa kontabilizatu behar da, akatsa ez bada behintzat.

d) Kasu bereziak.

Lursailak eta eraikuntzak aktibo independenteak dira, eta bereizita kontabilizatuko dira, baita elkarrekin eskuratu badira ere. Salbuespenak salbuespen, hala nola, meategiak, harrobiak eta zabortegiak, lursailek bizitza mugagabea dute, eta beraz, ez dira amortizatzen. Eraikuntzek bizitza mugatua dute, eta beraz, aktibo amortizagarriak dira. Eraikuntza bat dagoen lursailaren balioa hazteak ez dio eragingo eraikuntzaren zenbateko amortizagarria zehazteari.

Hala ere, lursailaren kostuak desegite-, garraio- eta birgaitze-kostuak barne hartzen baditu, lursailaren zati hori amortizatuko da etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala lortuko diren epealdian, gastu horiek egiteagatik. Kasu batzuetan, lursailak berak bizitza erabilgarri mugatua izan dezake. Hala bada, bertatik eratorriko diren etekin ekonomikoak eta zerbitzu-potentziala islatzeko moduan amortizatuko da.

1. Andeatzea.

Ibilgetu materialari dagokion aktibo baten balioaren narriadura zehazteko, aktibo baten kontabilitate-balioa (zenbateko berreskuragarrian) gainditzen duen kopurua aitzat hartuko da, baldin eta diferentzia esanguratsua bada.

Ondorio horietarako, ekitaldiaren itxieran behintzat, entitateak aztertuko du ibilgetu materialeko elementuren bat hondatuta egon daitekeelako zantzurik dagoen ala ez, eta,

baldin badago, haren zenbateko berreskuragarria zenbatetsi beharko du, eta balioespen-zuzenketa egokiak egin.

Etorkizuneko etekin ekonomikoak daramatzaten ibilgetu materialeko elementuetan narriadura-zantzurik ba ote dagoen ebaluatzeko, kontabilitate-erakundeak, beste batzuen artean, ondokoak izan beharko ditu kontuan:

1. Kanpoko informazio-iturriak:

    a) Ekitaldian zehar gertatu diren edo etorkizun hurbilean gertatzea espero den eta erakundearentzat eragin negatiboa izango duten aldaketa esanguratsuak ingurune teknologiko eta legalean.

    b) Aktiboaren (existitzen bada eta eskura badago) merkatu-balioaren jaitsiera nabarmena, denbora igarotzearen edo erabilera normalaren ondorioz espero dena baino handiagoa.

2. Barneko informazio-iturriak:

    a) Aktiboaren zaharkitzapenaren edo narriadura fisikoaren ebidentzia.

    b) Ekitaldian zehar gertatu diren edo etorkizun hurbilean gertatzea espero den eta erakundearentzat eragin negatiboa izango duten aldaketa esanguratsuak, aktiboa erabiltzeko moduari dagokionez.

    c) Aktiboaren etekina espero dena baino baxuagoa dela edo izango dela dioten txosten bidez frogatutako ebidentzia.

Zerbitzu-potentziala daramaten ibilgetu materialaren elementuen narriaduraren zantzurik dagoen ebaluatzeko, kontabilitate-erakundeak aurrez aipatutako egoerak ez ezik (1.b puntuan jasoa salbu), ondoko hauek ere kontuan izan beharko ditu:

a) Aktiboaren eraikuntza etetea funtzionatzeko moduan jarri aurretik.

b) Emandako zerbitzuen beharra edo eskaera etetea edo nabarmen jaistea.

Narriadura kalkulatzeko ondoko arauak jarraitu behar dira:

Errebalorizatu gabeko aktibo bati loturiko balio-narriadura ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko da. Aldiz, errebalorizatutako aktibo bati dagokion balio-narriadura ondare garbiaren partida zehatzari egotziko zaio zuzenean, aktibo horri dagokion saldoaren mugaraino.

Balioaren narriadura aintzatetsi ondoren, aktiboaren amortizazioagatiko karguak etorkizuneko ekitaldietan doituko dira, aktiboaren kontabilitate-balio berrikusia gelditzen zaion bizitza erabilgarrian zehar modu sistematikoan banatzeko, balizko hondar-balioa kenduta.

Aurreko ekitaldietan aktibo batentzako aintzatetsitako balio-narriadura lehengoratu egingo da zenbateko berreskuragarria bere kontabilitate-balioa baino handiagoa denean.

Aktibo baten balio-narriaduraren lehengoratzea ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko da, baldin eta aktiboa balio errebalorizatuaren arabera kontabilizatzen ez bada. Aktibo errebalorizatu baten balio-narriaduraren lehengoratzea ondare garbiaren partida zehatzean abonatuko da. Hala ere, aktibo errebalorizatu beraren balio-narriadura ekitaldiko emaitzan aurrez aintzatetsi bada, lehengoratzea ere ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko da.

Balio-narriadura baten lehengoratzea aintzatetsi ondoren, aktiboaren amortizazioagatiko karguak etorkizuneko ekitaldietan doituko dira, aktiboaren kontabilitate-balio berrikusia gelditzen zaion bizitza erabilgarrian zehar modu sistematikoan banatzeko, balizko hondar-balioa kenduta.

9. Baja emandako eta erabileratik baztertutako aktiboak.

Saldu den edo beste modu batez esleitu den ibilgetu materiala osatzen duen edozer elementuri baja eman behar zaio balantzetik, baita behin betiko erabileratik baztertu diren ibilgetu materialaren elementuei ere, baldin eta horiek emateagatik etekin ekonomiko edo zerbitzu-potentzial osagarririk lortzea espero ez bada. Elementu bati baja eman zaiolako sortzen diren emaitzak hori esleitzeagatik lortzen den zenbateko garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko diferentziatzat hartu behar dira.

Aipatutako ibilgetuari dagokion ondare garbiaren kontu zehatzean legokeen saldoa ekitaldiko emaitzara transferituko litzateke.

Saldu osteko finantza-errentamenduen eragiketak «Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk» 6. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera erabiliko dira. Era berean, doako esleipenagatik eta lagapenagatik baja emandako eta baztertutako aktiboak «Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk» 19. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera erabiliko dira.

Aldi baterako erabilera aktibotik baztertzen diren eta ondorengo erabilerarako gordetzen diren ibilgetu materialaren elementuak amortizatzen jarraituko dira, bai eta narriatzen ere. Hala ere, erabileraren araberako amortizazio-metodoa erabiliko balitz, amortizazioagatiko kargua nulua izan ahalko litzateke.

2. Ibilgetu materialari dagozkion kasu partikularrak: Azpiegitura, herri-ondasunak eta ondare historikoa.

1. Azalpena.

Azpiegiturak: Aktibo ez-korronteak dira, ingeniaritza zibileko obretan edo higiezinetan gauzatzen dira, herritar gehienek erabil ditzaketen horietan, hain zuzen, edo zerbitzu publikoak ematera bideratuta daude, kostu bidez nahiz doan lor daitezke edo erakundeak berak eraiki ditzake, eta ondoko baldintzaren bat betetzen dute:

- Sistema edo sare bateko parte dira,.

- Bestelako erabilerarik onartzen ez duen helburu zehatza dute.

Herri-ondasunak: Jabari publikoko ondasunak izanik ere, haien aprobetxamendua auzotar guztiei soilik dagokienean.

Ondare historikoa: Arte-, historia-, paleontologia-, arkeologia-, etnografia-, zientzia- edo teknika-interesa duten ondare-elementu higigarriak edo higiezinak, eta halaber, dokumentuko eta bibliografiako ondarea, gune arkeologikoak, gune naturalak, balio artistikoa, historikoa edo antropologikoa duten lorategiak eta parkeak ere bai. Ondasun hauek, oro har, ezaugarri zehatzak izaten dituzte; horien artean ondokoak sartzen dira:

a) Aukera gutxi daude kulturaren, ingurumenaren, hezkuntzaren eta historia nahiz artearen planoan duten balioa merkatuko prezioan soilik oinarritzen den balio finantzario batean islatuta gera dadin.

b) Obligazio legal edo estatutarioek debekuak edo murrizketa gogorrak jar diezazkiokete beren salmentari.

c) Sarritan ordezkaezinak dira eta denborarekin beren balioa haz daiteke, baita baldintza fisikoak narriatzen badira ere.

d) Zaila da beren bizitza erabilgarria kalkulatzea. Zenbait kasutan ehunka urtekoa izan daiteke.

2. Aintzatespena eta balioespena.

Ondare historikoaren ondasunak, herri-ondasunak eta azpiegiturak kontabilitatean erregistratuko dira Plan honen kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruan aurreikusitako aktibo baten aintzatespen-irizpideak betetzen direnean, eta «Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera balioetsiko dira.

Ondare historikoko ondasunak hasieran modu fidagarrian balioestea ezinezkoa denean, balantzean aintzatetsi egingo dira, baina haiei buruzko informazioa emango da memorian.

Ondare historikoko ondasunek bizitza erabilgarri mugagabea dutenean edo, mugatuta izanda, fidagarritasunez kalkulatu ezin daitekeenean, ez da amortizazio-erregimena aplikatuko.

3. Lurzoruaren ondare publikoa.

1. Azalpena

   Normalean ondasun higiezinetan hezurmamituta dauden aktibo ez-korronteak dira, ondare horren xedeari lotuak.

2. Aintzatespena eta balioespena.

   Lurzoruaren ondare publikoko ondasunak kontabilitatean erregistratu beharko dira, plan honen kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruan aurreikusitako aktibo baten aintzatespen-irizpideak betetzen direnean, eta «Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera balioetsiko dira.

4. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

1. Azalpena.

   Ondasun higiezinetako inbertsioak jabeak edo errentamendu finantzario bat hitzartu duen errentariak etekinak, plusbalioak edo biak lortzeko erabilitako higiezinak (osorik edo zatika edo biak batera aintzat hartutako lursailak edo eraikuntzak dira) dira; ez, ordea, zerbitzuen edo ondasunen ekoizpenean edo horniduran erabiltzeko, ezta helburu administratiboetarako edo eragiketen jarduera arruntean saltzeko ere.

   Era berean, ondasun higiezinetako inbertsio izango dira lurzoruaren ondare publikokoak ez bezalako ondare-ondasunak, baldin eta ez badira ibilgetu material gisa sailkatzen erakundearen ondarean sartzean.

   Erakundeen ibilgetu materialaren zati bat etekinak edo plusbalioak lortzeko erabiltzen bada eta beste zati bat zerbitzuak edo ondasunak ekoizteko edo hornitzeko edo helburu administratiboetarako erabiltzen bada, eta zati horiek aparte sal badaitezke, erakundeak bereizita kontabilizatuko ditu. Zati horiek aparte saldu ezin badira, erakundeak ondasun higiezinetako inbertsiotzat joko du soilik, baldin eta zati txiki-txiki bat baino erabiltzen ez bada ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko eta emateko, edo helburu administratiboetarako.

2. Hasierako balioespena, geroko balioespena eta baja ematea.

   «Ibilgetu materiala» 2. aintzatespen- eta balioespen-araua jasotakoa ezarriko zaie ondasun higiezinetako inbertsioei.

3. Birsailkatzeak.

   Atal honetan aipatzen diren ondasunek ondasun higiezinetako inbertsioak izateko bete behar diren baldintzak izateari uzten diotenean, kasuan kasuko izenpean birsailkatu beharko dira.

   Ondasun higiezinetako inbertsioen eta ibilgetu materialaren arteko birsailkapena irizpide hauek kontuan hartuta erregistratuko da:

a) Kontabilitate-metodoa aldaketarik gabe.

Erakundeak kostu-eredua edo errebalorizazio-eredua erabiltzen jarraitzen duenean, ondasun higiezinetako inbertsioen eta ibilgetu materialaren arteko birsailkapenek ez dute aldatuko eragindako higiezinen kontabilitate-balioa.

b) Errebalorizazio-eredutik kostu-eredura aldatzea.

Birsailkatzeak eragindako higiezinaren kontabilitate-balioa izango da hari dagokiona kostu-ereduaren arabera. Horretarako, ezabatu egingo dira hala birsailkatzeko momentuan ondare garbiaren partida zehatzari egozteko dagoen saldoa, nola errebalorizazioari dagokion pilatutako amortizazioari dagokiona.

c) Kostu-eredutik errebalorizazio-eredura aldatzea.

Birsailkatzeko unean higiezinaren kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean egon daitekeen aldea honelaxe tratatuko da:

Higiezinaren kontabilitate-balioko edozer murrizketa ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko da.

Kontabilitate-balioko edozer igoera honela tratatuko da:

1. Igoera higiezin horrentzat aurrez aintzatetsitako balioaren narriaduraren lehengoratzea bada, igoera ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko da.

2. Aurreko lehengoratzearen gaineko igoeraren edozer soberakin ondare garbiaren partida zehatz batean abonatuko da zuzenean.

Ondasun higiezinetako inbertsioen eta salgai dauden aktiboen arteko birsailkapena «Salgai dauden aktiboak» 7 aintzatespen- eta balioespen-arauan aurreikusitako irizpideak kontuan hartuta erregistratuko da.

5. Ibilgetu ukiezina.

1. Azalpena.

Ibilgetu ukiezinak dira aktibo ukiezinak eta ekonomikoki balioetsi daitezkeen eskubideak, izaera monetariorik eta itxura fisikorik ez dutenak, eta ondoko ezaugarri hauek dituzte: denboran irauten dute, ondasunak zein zerbitzuak ekoizteko erabiltzen dira, edo erakundearen baliabide-iturri dira.

Oro har, ibilgetu ukiezinetik kanpo geratu ahalko dira, eta beraz, ekitaldiaren gastutzat hartu, prezio unitarioa eta garrantzi erlatiboa dela- eta (ondarearen masaren barnean), hala aholkatzen duten ondasun eta eskubideak.

2. Aintzatespena.

Aktiboaren definizioa eta erregistro- eta aintzatespen-irizpideak, kontabilitate publikoko kontzeptu-esparruan jasotakoak, bete behar dituzte. Erakundeak ebaluatuko du etorkizuneko etekin ekonomikoak eta zerbitzu-potentziala lortzeko dagoen probabilitatea, eta horretarako, arrazoizko eta oinarritutako hipotesiak erabiliko ditu. Hipotesi horiek estimaziorik onenak egingo dituzte, aktiboaren bizitza erabilgarrian zehar izango diren baldintza ekonomikoei dagokienez.

Ibilgetu ukiezina osatuko duten aktiboek identifikagarritasun-irizpidea bete beharko dute.

Ibilgetu ukiezin bat identifikagarria izango da hurrengo bi baldintzetakoren bat betetzen duenean:

a) Banangarria da, eta ustiapenerako inorenganatzeko, lagatzeko, errentan emateko, trukatzeko edo emateko modukoa da.

b) Kontratuzko eskubideetatik edo beste eskubide legal batzuetatik sortu da, kontuan izan gabe, batetik, eskubide horiek transferigarriak edo banangarriak diren edo ez, eta bestetik, beste eskubide edo obligazio batzuk.

Aktibo batek elementu ukigarriak eta ukiezinak barne hartzen baditu, ibilgetu materialtzat edo ukiezintzat tratatzeko, erakundeak elementu mota bakoitzari dagokion zenbatekoa banatuko dio, aktiboaren balio totalarekin alderatuta elementu motaren bati dagokiona esanguratsua ez denean salbu.

3. Balioespena.

3.1. Hasierako balioespena eta geroko balioespena «Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotako irizpideak ezarriko dira, aintzatespen- eta balioespen-arau honetan jarraian jasotakoari kalterik gabe.

3.2. Geroko ordainketak: Ibilgetu ukiezin gisa aintzatetsitako aktibo bat erosi ondoko ordainketak zenbateko gehiago gisa sartu behar dira aktiboan, soil-soilik ordainketa horri esker aktibo horrek etorkizuneko etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala sor dezakeenean, eta ordainketa estimatu daitekeenean eta horri egotzi dakiokeenean zuzenean. Geroko beste edozer ordainketa gastu gisa aintzatetsi behar da ekitaldiko emaitzan.

3.3. Amortizazioa eta narriadura: Erakundeak balioetsi beharko du aktiboaren bizitza erabilgarria mugatua edo mugagabea den. Aktibo batek bizitza erabilgarri mugagabea duela esango da baldin eta, faktore esanguratsu guztietan oinarrituta, aurreikus daitekeen mugarik ez badu aktiboak erakundearentzat etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala ekartzea espero den denbora-tarteak, edo zerbitzu eta ondasun publikoen produkziorako erabilerak; esaterako: esanguratsutzat jotzen ez den kostu batekin etengabe berrituz joan daitekeen lizentzia bat. Kasu hauetan aktiboak balio-narriadurarik izan duen begiratuko da, eta «Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera kontabilizatuko da.

Bizitza erabilgarri mugagabea duten aktiboak ez dira amortizatuko; horrek ez du esan nahi, ordez, narriatuko ez direnik, eta bizitza erabilgarri hori ekitaldi bakoitzean berrikusi beharko da, aktibo horrek bizitza erabilgarri mugagabea izatea ahalbidetzen duten gertakaririk eta egoerarik baden zehazteko. Egoera horiek betetzen ez badira, bizitza erabilgarri mugagabea mugatua izatera igaroko da, eta truke gisa kontabilizatuko da kontabilitatearen estimazioan, «Kontabilitate-irizpideen eta -estimazioen aldaketak eta erroreak» 21. aintzatespen- eta balioespen-arauak dioenari jarraituz.

Bizitza erabilgarri mugatua duten aktiboak bizitza erabilgarrian zehar amortizatuko dira. Aktiboaren edo eskubidearen ezaugarri tekniko-ekonomikoak kontuan hartzen dituen edozer metodo onartuko da eta, modu fidagarrian zehaztu ezingo balitz, amortizazio-metodo lineala ezarriko da. Bizitza erabilgarri mugatua duen ibilgetu ukiezin baten amortizazioa ez da etengo aktiboa erabili gabe dagoenean, non eta ez den guztiz amortizatu edo salgai dagoen aktibo gisa sailkatu.

4. Baja emandako eta erabileratik baztertutako aktiboak.

«Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotako irizpideak ezarriko dira.

5. Ibilgetu ukiezinari buruzko arau bereziak.

5.1. Ikerketa eta garapeneko gastuak: Ezagutza zientifiko eta teknologiko berriak lortzeko helburuarekin egindako azterketa original eta planifikatua da ikerketa.

Garapena ikerketan izandako lorpenen aplikazio zehatza da.

Erakunde bat ez bada gai izango barneko proiektu batean ikerketa-fasea eta garapen-fasea bereizteko, proiektu horrek sortzen dituen gastuak ikerketa-fasean soilik egindakotzat tratatuko ditu.

Ikerketa-gastuak egin diren ekitaldiko gastuak izango dira. Hala ere, ibilgetu ukiezin gisa aktibatu ahal izango dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Ibilgetu ukiezinak etorkizuneko etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala sortzeko aukera egotea. Beste batzuen artean, ibilgetu ukiezinak sor dezakeen ekoizpenarentzat edo aktiboarentzat berarentzat merkatua dagoela froga dezake erakundeak, eta ekoizpen hori barnera begirako zereginetan erabiliko bada, berriz, erakundearentzat duen erabilgarritasuna.

b) Baliabide teknikoak, finantzarioak edo beste era batekoak erabilgarri egotea garapena osatzeko eta ibilgetu ukiezina erabiltzeko edo saltzeko.

c) Proiektuka zehaztasunez bereizita egotea, eta kostuak argi eta garbi esleitzea, egoztea eta denboran banatzea.

Aktiboan agertzen diren ikerketa-gastuak bizitza erabilgarrian zehar amortizatu beharko dira, eta beti bost urteko epearen barruan. Kapitalizazioa justifikatzen duten aurreko paragrafoko baldintzak betetzeari uzten bazaio, amortizatu gabe dagoen saldoa ekitaldiaren emaitzetara eraman beharko da.

Garapen-gastuak, ikerketa-gastuak aktibatzeko zehaztutako baldintzak betetzen dituztenean, aktiboan aintzatetsiko dira eta bizitza erabilgarrian zehar amortizatuko dira. Kontrakorik frogatu ezean, bizitza erabilgarria ez da bost urte baino gehiagokoa izango. Kapitalizazioa justifikatzen duten baldintzak betetzeari uzten bazaio, amortizatu gabe dagoen saldoa ekitaldiaren emaitzetara eraman beharko da.

5.2. Errentamendu operatiboan erabilitako edo lagatako ondasunaren bizitza ekonomikoa baino epe laburragoan erabiltzeko lagatako aktiboen gainean egindako inbertsioak.

Errentamendu operatiboan erabilitako edo bizitza ekonomikoa baino epe laburragoan erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko inbertsioak, «Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk» 6. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoari jarraiki, errentamendu finantzariotzat hartu behar ez direnean, ibilgetu ukiezinaren izenpekoan kontabilizatuko dira, inbertsio horiek aipatutako aktiboetatik bereizteko modukoak ez direnean, eta gaitasuna, zerbitzu-potentziala edo etorkizuneko etekin ekonomikoak areagotzen dutenean. Ibilgetu ukiezinaren elementu horien amortizazioa egindako inbertsioen bizitza erabilgarriaren arabera egingo da.

5.3. Jabetza industriala eta intelektuala Jabetza industrialaren edo jabetza intelektualaren edozein adierazpen erabiltzeko eskubide edo jabetzagatik, edo bere erabilera emateagatik, ordaindutako zenbatekoa.

Bertan sartuko dira, baldintza legalak betez, dagokion erregistroan inskribatzen diren kapitalizatutako garapen gastuak, erregistro-kostuak patentearen formalizazioari dagozkionak barne.

5.4. Aplikazio informatikoak Aktiboan sartuko da aplikazio informatikoek asetako zenbatekoa, haiek erabiltzeko eskubidea, edo erakundeak berak sortutakoen

ekoizpen-kostua, hainbat ekitalditan erabiliko direla aurreikusten bada. Erakundeak berak barruan sortutako webguneekin egindako ordainketek baldintza hau bete beharko dute, aktiboen aintzatespenerako gainerako baldintzez gain.

Ikerketa gastuentzako ezarritako aktibazio-irizpide berberak ezarriko dira.

Ekipamendu batean txertatutako programa informatikoak, bera gabe funtzionatu ezin dutenak, ibilgetu materialeko elementutzat hartuko dira. Irizpide bera aplikatuko da ordenagailuaren sistema eragilearen kasuan ere.

Ezingo dira inoiz aktiboan sartu aplikazio informatikoaren mantenurako gastuak.

5.5. Beste ibilgetu ukiezin bat: Aurrez nabarmendu gabeko beste hainbat eskubide jasotzen ditu. Besteak beste, kontzesio administratiboak; bizitza ekonomikoa baino epe laburragorako erabilera-lagapenak, «Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk» 6 aintzatespen- eta balioespen-arauarekin bat etorriz errentamendu finantzariotzat hartu behar ez denean; toki-erakundeek edo beste erakunde publiko batzuek dituzten eskualdatze-eskubideak eta aprobetxamendu urbanistikoak, beti ere lursailetan hezurmamituta ez daudenean.

6. Errentamenduak eta antzeko eragiketak.

Arau honen arabera ondokoa jotzen da errentamendutzat: diru kopuru bakarraren edo ordainketa nahiz kuota multzoaren truke, errentatzaileak errentariari denbora jakin batez aktibo bat erabiltzeko eskubidea ematen dion edozer akordio, alderdi juridikoa alde batera utzita.

1. Errentamendu finantzarioak.

1.1. Azalpena: Errentamendu-akordio baten baldintza ekonomikoetatik kontratuaren xede den aktiboaren jabetzari datxezkion abantaila eta arrisku guztiak funtsean transferitzen direla ondorioztatzen denean, errentamendua finantzariotzat joko da.

Errentamendu-akordioan erosteko aukera ere sartzen bada, jabetzari datxezkion arrisku eta onura guztiak funtsean transferitzen direla ulertuko da, aukera hori egikarituko dela uste izateko arrazoizko zalantzarik ez badago. Errentamendu-kontratuaren baldintza ekonomikoen arabera, ez da erosketa-aukera gauzatuko delako zalantzarik ez da egongo erosketa-aukeraren prezioa aktiboaren arrazoizko balioa baino txikiagoa denean erosketa-aukera gauzatu daitekeenean.

Erosketarako aukerarik ez bada ere, aktiboaren jabetzari datxezkion abantailak eta arriskuak transferitzen direla usteko da beheko baldintzaren bat betetzen denean:

a) Errentamendu-kontratuaren epea aktiboaren bizitza ekonomikoaren zatirik handienarekin bat dator. Edo aurrekoa betetzen ez bada, bi epeek bat egingo dutela argi ikusten da, eta erabilera aldia amaitzean bere hondar-balioa ez da esanguratsua izango.

b) Errentamenduaren hasieran ordaindu beharreko zenbatekoen uneko balioak errentan hartutako aktiboaren arrazoizko balioaren zenbateko garrantzitsua adierazten du.

c) Errentan hartutako aktiboak espezializatuak izanik errentariak bakarrik erabil ditzakeenean eta errentan hartutako ondasunak beste ondasun batzuekin erraz trukatu ezin direnean.

Hurrengoak dira errentamendu bat izaera finantzarioa dutenen arten sailkatzera garamatzaten beste adierazle batzuk:

a) Errentariak errentamendu-kontratua ezereztu dezake eta ezerezte horren ondorioz errentatzaileak izandako galerak errentariak bere gain hartuko ditu.

b) b) Hondar-zenbatekoaren arrazoizko balioaren gorabeherengatik sortutako emaitzak errentariarentzat izango dira.

c) c) Errentariak errentamendua bigarren denboraldi baterako luzatzeko aukera du, merkatuan ohikoa dena baino nabarmenki gutxiago ordainduta.

Erosteko aukera ematen duten edo ez duten, eta zerbitzu-potentziala daramaten aktiboak hirugarrenei errentan emateko akordioetan, aktibo horien jabetzari atxikitako abantaila eta arriskurik ez dela transferitzen ulertuko da, aktibo horiek atxikita duten zerbitzu-potentziala erakundeak mantentzen duen artean. Beraz, aktibo mota hauei ezingo zaizkie aplikatu atal honen aurreko paragrafoetan adierazitako usteak.

1.2. Aintzatespena eta balioespena: Errentamendu finantzariorako erabiliko diren aktiboak, euren izaeraren arabera, dagokien aintzatespen- eta balioespen-arauen arabera erregistratuko eta balioetsiko dira, hurrengo paragrafoetan adierazitako kasuetan salbu.

Lursailek normalean bizitza erabilgarri mugagabea dutenez, errentamendua amaitzean errentariaren eskuetara igarotzerik espero ez bada, errentariak ez ditu jasoko lursail horren jabetzak ematen dizkion arrisku eta abantaila guztiak. Hainbat elementu batera errentan hartzen direnean, lursailaren eta eraikuntzaren osagarriak aparte erabiliko dira, baldin eta errentamendua amaitzean lursaila errentariari itzuliko ez bazaio. Kasu horretan, lursailaren osagarria errentamendu operatibotzat sailkatuko da, eta horretarako lursailaren eta eraikinaren artean hitzartutako ordainketak banatuko dira, bi osagarrien errentamendurako eskubideek irudikatzen dituzten arrazoizko balioekin proportzioan. Banaketa ez bada fidagarria, baina, errentamendu osoa finantzariotzat sailkatuko da, operatiboa dela begi-bistakoa denean salbu.

1.3. Errentariaren kontabilitatea: Hasieran, errentariak aktiboa bere izaeraren arabera aintzatetsi beharko du, eta aktibo horri lotutako obligazioa, berriz, pasibo gisa, zenbateko berarekin. Zenbateko hori errentan hartutako aktiboaren arrazoizko balioaren eta errentamenduaren aldian errentatzailearekin hitzartutako ordainketen uneko balioaren artetik baxuena izango da. Kasu horretan erosketarako aukera barne hartuko da, eta izaera kontingentea duten kuotak kanpo utziko dira, baita zerbitzuek kostuak eta, «Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan eta «Ibilgetu ukiezinak» 5. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotako arauen arabera, aktibatu ezin diren bestelako gastuak ere. Hala, izaera kontingentea duten kuotak dira euren etorkizuneko zenbatekoa kontratutan jasotako aldagairen baten menpe dutenak.

Partida hauen uneko balioa kalkulatzeko kontratuan islatutako Interes-tasa hartuko da eguneratze-tasatzat. Tasa hori zehaztu gabe balego, antzeko errentamendu batean errentariak ordaindu beharko lukeen Interes-tasa ezarriko da, eta hala ere zehaztu ezingo balitz, berriz, aktiboa erosteko beharrezko fondoetatik lortuko litzatekeen Interes-tasa.

Gainera, eragiketagatik errentariak hasieran egiten dituen zuzeneko gastuak aktiboaren baliorik gorenekotzat hartuko dira.

Errentamenduaren kuotetariko bakoitza bi zatik osatuko dute: karga finantzarioa adieraziko du batak, eta oraindik ordaindu gabe dagoen zorraren murriztapena besteak. Karga finantzario osoa errentamenduaren epean zehar banatuko da, eta sortzen den ekitaldiko emaitzei egotziko zaie, errentariarentzako Interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

1.4. Errentatzailearen kontabilitatea: Erakunde batek aktibo baten abantaila eta arrisku guztiak transferitzen dituenean aintzatespen- eta balioespen-arau hau aplikagarri zaion eragiketen bidez, ondasunaren arrazoizko balioan kobratzeko eskubidea

erregistratuko du, eta horri errentatzailearen hasierako kostu zuzenak gehituko dizkio. Aldi berean, eragiketan hasieran zuen kontabilitate-balioaren baja emango dio aktiboari, eta ekitaldiko emaitza erregistratuko du.

Balantzearen aktiboan kontabilizatutako kredituaren eta kobratzeko kopuruaren arteko diferentzia, oraindik sortu gabeko interesei dagokiena, Interes horiek sortzen diren ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotziko da, Interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera.

2. Errentamendu operatiboak.

Errentamendu-kontratu bat da, eta horretan ez dira transferitzen jabetzari datxezkion abantailak eta arriskuak.

Errentamendu operatiboetatik eratorritako kuotak gastutzat hartuko dituzte errentatzaileek errentamenduaren aldian sortzen diren ekitaldiko emaitzan.

Errentamendu operatiboetatik datozen sarrerak errentamenduaren aldian sortzen diren ekitaldiko emaitzan erregistratuko ditu errentatzaileak.

3. Saldu osteko errentamendua.

Inorenganatutako aktiboen ondorengo lagapenari edo errentamenduari lotuta, inorenganatze baten baldintza ekonomikoen ondoriozko finantziazio-metodo bat dela uste bada, errentatzaileak ez du aktiboaren kalifikazioa aldatuko, ezta transakzio horretatik eratorritako emaitzak aintzatetsiko ere. Gainera, hartutako zenbatekoa erregistratuko du, eta dagokion pasibo finantzarioko partida batean abonatuko du. Eragiketari lotutako interesengatiko gatuak kontratuaren bizitzan zehar kontabilizatuko dira, Interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera.

«Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera kontabilizatuko du eragiketa errentatzaileak.

7. Salgai dauden aktiboak.

1. Azalpena.

Salgai dauden aktiboak hasieran ez-korrontetzat jotako aktibo ez-finantzarioak dira, lurzoruaren ondare publikokoak alde batera utzita. Etengabeko erabileraren bidez izan beharrean, salmenta bidezko transakzio baten bidez berreskuratuko da nagusiki haien kontabilitate-balioa. Aurreko sailkapena ezarri ahal izateko, aktiboak erabiltzeko moduan egon behar du, uneko baldintzetan, segituan saltzeko, aktibo horien salmentarako ohiko terminoei eta arruntei soilik lotuta, eta salmentarako aukera handia izan behar du. Saltzeko aukera handia duela usteko da, hurrengo baldintzak gertatzen direnean:

a) Erakundea aktiboa saltzeko plan batekin konprometituta egotea, eta eroslea bilatzeko eta plana burutzeko programa bat martxan jarrita izatea.

b) Aktiboa salgai dagoen aktibo gisa sailkatzen den egunetik urtebete igaro aurretik saltzea espero izatea, ez baldin bada epea luzatu beharra gertatzen, erakundearen kontroletik kanpoko gertaera edo inguruabarrengatik, eta erakundeak aktiboa saltzeko planean konprometituta jarraitzen duela pentsatzeko arrazoi aski garbiak badaude.

2. Hasierako balioespena.

Aktibo ez-korronteari une horretan legokiokeen kontabilitate-balioan balioetsiko ditu erakundeak aktibo horiek, kostu-ereduaren arabera. Horretarako, erabilera aldatzen duen ibilgetuaren adierazgarri diren kontu guztiei baja emango zaie, eta salgai dauden aktiboen adierazgarri diren kontuei alta emango zaie. Kasu honetan, sailkapenean aurrez zegokeen pilatutako narriadura ere sartuko litzateke.

3. Geroko balioespena.

Kostu ereduaren araberako kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioari salmenta-kostuak kenduta geratzen denaren artetik gutxieneko balioan balioetsiko ditu erakundeak aktibo horiek.

Erakundeak balio-narriadura bat aintzatetsiko du kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioari salmenta-kostuei kenduta geratzen denaren arteko diferentziaren baliokidea den zenbatekoan, aktiboaren balio-murrizpenen ondorioz.

Arrazoizko balioari aktiboaren salmenta-gastuak kenduta egindako balioespenetik eratorritako edozer hazkunderengatik atera den emaitza aintzatetsiko du erakundeak. Edozein kasutan, narriadura bat lehengoratu ondoko aktiboaren kontabilitate-balioak ezingo du gainditu bere hasierako balioari esleitutako zenbatekoa.

Salgai dauden aktiboak, salgai dauden aktibotzat hartzen diren artean, ez dira amortizatuko.

4. Birsailkatzeak.

Aktibo batek salgai dagoen aktibo gisa sailkatua izateko baldintzak betetzeari uzten dionean, daukan izaerari dagokion balantzeko partidan birsailkatuko da.

Erregistroa egiterakoan ondoko irizpideak izango dira kontuan:

a) Kostu-ereduaren arabera kontabilizatutako aktiboak.

Erakundeak «salgai dagoen aktibo» izateari utzi dion aktibo ez-korrontea hala sailkatu aurretik zuen kontabilitate-balioan balioetsiko du, salgai dagoen aktibo gisa sailkatu izan ez balitz aintzatetsiko litzatekeen edozein narriadura edo amortizazio-hornidura dela- eta doituta.

Horretarako, aktibo ez-korrontea adierazgarri diren kontu guztiei alta emango die berriz ere eta salgai dauden aktiboen adierazgarri diren kontu guztiei, berriz, baja. Adierazitako kontabilitate-balioen arteko aldea birsailkatzea gertatzen den ekitaldiaren ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari egotziko zaio.

b) Errebalorizazio-ereduaren arabera kontabilizatutako aktiboak.

Erakundeak «salgai dagoen aktibo» izateari utzi dion aktibo ez-korrontea hala sailkatu aurretik zuen kontabilitate-balioan balioetsiko du, salgai dagoen aktibo gisa sailkatu izan ez balitz aintzatetsiko litzatekeen edozein narriadura edo amortizazio-hornidura edo, hala egokituz gero, errebalorizazio dela- eta doituta.

Horretarako, ondasunaren adierazgarri den kontuari alta emango zaio kostuaren ereduaren -aurreko a) atalean azaldutako prozedurari jarraituz- eta errebalorizatzean pilatutako zenbateko osoaren arteko baturaren balioan, eta ordainketa amortizazio pilatuaren edo narriaduraren kontuetan egingo da, bai eta aktiboa aktibo salgarri gisa inoiz ere birsailkatu ez balitz errebalorizazio horri legokiokeen ondare garbiaren kontu espezifikoan ere. Era berean, salgai dagoen aktiboaren adierazgarri diren kontu guztiei baja emango zaie, eta adierazitako kontabilitate-balioen arteko aldea birsailkatzea gertatzen den ekitaldiaren ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari egotziko zaio.

8. Aktibo finantzarioak.

1. Azalpena.

Aktibo finantzarioak dira dirua, beste erakunde baten kapitalaren edo ondarearen tresnak, hirugarren batengandik dirua edo beste aktibo finantzario bat jasotzeko eskubidea edo

hirugarren batekin aktibo edo pasibo finantzarioak trukatzeko eskubidea, aldeko baldintzetan.

Aintzatespen- eta balioespen-arau honetan ezarritako irizpideak aktibo finantzario guztiei aplikatzeko modukoak izango dira, beste aintzatespen- eta balioespen-arau batean irizpide zehatzak ezarri direnentzat izan ezik.

2. Aktibo finantzarioek sailkapena.

Aktibo finantzarioak balioesteko, kategoria hauetako batean sailkatuko dira:

a) Kobratu beharreko partidak eta kredituak.

Maila honetan sartuko dira:

a.1) Ohiko jardueratik eratorriko eragiketek eragindako kredituak.

a.2) Ondarearen tresna izan gabe eta aktiboen merkatuan negoziatu gabe, zenbateko zehatzeko edo zehaztu daitekeeneko diru-fluxuak sortzen dituzten beste aktibo finantzario batzuk. Erakundeak egin duen ordainketa guztia berreskuratzea espero da aktibo finantzario horietatik, kredituaren narriadurari egozteko modukoak diren arrazoiak alde batera utzita.

a.3) Zor-tresnak eskuratzeko eragiketak, ondoren prezio finko baten truke edo hasierako prezioaren truke -gehi mailegu-emailearen errentagarritasun arrunta-saltzeko akordioarekin.

b) Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak.

Ondokoak sartuko dira maila honetan: mugaegun finkoa duten eta zorraren adierazgarri diren balioak eta zenbateko zehaztua edo zehaztu daitekeena duten diru-fluxuak, merkatu aktiboan negoziatzen direnak. Euren mugaegunera arte mantentzeko gaitasun finantzarioa eta intentzio efektiboa du erakundeak, euren aintzatespenetik abiatuta eta ondorengo edozein datatan.

c) Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak.

Maila honetan sartuko dira:

c.1) Merkatu aktibo batean negoziatuz, epe motzean egiteko helburuarekin eskuratzen diren aktibo finantzarioak, ondoren prezio finkoan edo hasierako prezioari mailegu-emailearen errentagarritasun arrunta gehituta saltzeko hitzarmenpean eskuratu direnak izan ezik.

c.2) Deribatuak, berme finantzarioko kontratuak direnak edo estaldura-tresna izendatu direnak eta «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotako irizpideak betetzen dituztenak izan ezik.

d) Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak.

Taldeko erakundea, talde anitzeko erakundea eta erakunde elkartua kontzeptuak Bizkaiko toki-sektore publikoan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetan zehaztutakoak izango dira.

e) Aktibo finantzario salgarriak.

Maila honetan sartuko dira aurreko mailetan sartu ahal izateko baldintzak betetzen ez dituzten aktibo finantzario guztiak.

3. Aintzatespena.

Inbertsio finantzariorako kontratuaren edo akordioaren klausularen arabera, aktibo bat nahitaezko parte bihurtzen denean aintzatetsiko du bere balantzean erakundeak.

Kontratuzkoak ez diren eskubideetatik sortzen diren aktibo finantzarioen aintzatespen-uneak zehazteko, aintzatespen- eta balioespen-arau egokian horretaz xedatua kontuan hartuko da.

4. Kobratu beharreko kreditu eta partidak.

4.1. Hasierako balioespena: Kobratu beharreko kreditu eta partidak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezio bera izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuak gehituta. Haatik, transakzio-kostuak aktiboa aintzatesten den ekitaldiko emaitzari egotzi ahalko zaizkio, garrantzi erlatibo txikia dutenean.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz ostera, kontratuzko Interes-tasarik ez duten eta epe laburrean kobratzekoak diren kredituak eta partidak euren balio nominalean balioetsiko dira.

Kontratuzko Interes-tasarik ez duten eta epe mugaeguna epe luzekoa duten partidak, eta diruz lagundutako interesak dituzten eta epe luzerako emandako maileguak euren arrazoizko balioan balioetsiko dira. Balio hori, antzeko eragiketetarako merkatuko Interes-tasa aplikatuz, kobratu beharreko diru-fluxuen uneko balioaren berdina izango da. Aitzitik, epe luzera kobratzekoak diren partidak euren balio nominalean balioetsi ahal izango dira, eta diruz lagundutako interesekin epe luzerako emandako maileguak, berriz, emandako zenbatekoan balioetsi daitezke, baldin eta ez eguneratzearen eragina -era globalean hartuta- erakundearen urteko kontuetan txikia bada.

Diruz lagundutako interesak dituen aktibo finantzarioa uneko balioan balioesten denean, balio horren eta balio nominalaren edo emandako zenbatekoaren arteko aldea, kasuaren arabera, emandako diru-laguntzatzat hartuta, aktibo finantzarioa aintzatesten den ekitaldiaren ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari egotziko zaio.

Edonola ere, eratutako fidantzak eta gordailuak eguneratu gabe entregatutako zenbatekoan balioetsiko dira beti.

4.2. Geroko balioespena: Kobratu beharreko kredituak eta partidak kostu amortizatuan balioetsiko dira. Sortutako interesak, Interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz, ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko dira.

Edonola ere, kontratuzko interesik gabe, hasieran euren balio nominalean balioetsi diren kobratu beharreko partidak eta hasieran entregatutako zenbatekoan balioetsi diren interesekin emandako maileguak zenbateko horretan balioetsiko dira, baldin eta ez badira narriatu. Era berean, eratutako fidantzek eta gordailuek hasierako balioa mantenduko dute, narriatu ez badira.

4.3. Narriadura: Ekitaldi itxieran behintzat, egin beharreko balio-zuzenketak egingo dira, objektiboki ikusten denean kreditu baten balioa edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten eta batera balioetsita dauden kredituen multzo batena narriatu egin dela hasierako kontabilizatzea egin ondorengo gertaera batengatik edo batzuengatik eta etorkizuneko diru-fluxu estimatuak atzeratu eta murriztu egin direla, beharbada zordunaren kaudimen gabeziagatik.

Aktibo finantzario horien balio-narriaduraren galera honela kalkulatuko da: kontabilitate-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxu estimatuen uneko balioaren arteko diferentzia. Kalkulua egiteko, hasierako kontabilizatzean kalkulatutako Interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuko dira fluxuak. Interes-tasa aldakorra

duten kredituentzat, ekitaldiaren itxierako datan kontratuak dituen baldintzei dagokien Interes-tasa efektiboa erabiliko da.

Narriaduragatik egindako balioespen-zuzenketak nahiz euren lehengoratzea gastu edo sarrera gisa aintzatetsiko dira, hurrenez hurren, ekitaldiko emaitzan. Narriaduraren lehengoratzearen muga lehengoratzen den datan kredituak izango lukeen kontabilitate-balioa izango da, balio-narriadurarik kontabilizatu izan ez balitz.

5. Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak.

   5.1. Hasierako balioespena: Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezio bera izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuak gehituta. Haatik, transakzio-kostuak inbertsioa aintzatesten den ekitaldiko emaitzari egotzi ahalko zaizkio, garrantzi erlatibo txikia dutenean.

   5.2. Geroko balioespena: Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak kostu amortizatuan balioetsiko dira. Sortutako interesak, Interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz, ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko dira.

   5.3. Narriadura: Ekitaldi-itxieran behintzat, beharrezko balio-zuzenketak egin beharko dira, aurreko 4.3 atalean adierazitako irizpideak aplikatuz.

   Hala ere, etorkizuneko diru-fluxuen uneko balioaren ordez aktibo finantzarioaren merkatu-balioa erabili ahal izango da, balio hori fidagarria bada erakundeak berreskura dezakeen balioa adierazteko.

6. Arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioak, emaitzetan aldaketekin.

   6.1. Hasierako balioespena: Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran. Kontrakoa erakutsi ezean, transakzioaren prezioa izango da, eta emandako kontraprestazioarekin bat etorriko da. Zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak erosketa gertatzen den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

   Ondare-tresnak direnean, hasierako balioespenean sartuko dira lehentasunezko harpidetza-eskubideak edo antzekoak, horrelakorik eskuratu denean.

   6.2. Geroko balioespena: Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira, inorenganatzean izan litezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatutako aldaketak ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio, sortutako interesak Interes-tasa efektiboaren arabera egotzi ondoren, bai eta kanbio-diferentziak ere.

7. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak.

   7.1. Hasierako balioespena: Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak kostuan balioetsiko dira hasieran. Kostua honako hau izango da: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuak.

   Hala ere, taldeko erakunde, talde anitz edo elkartu gisa sailkatu aurreko inbertsiorik badago, inbertsio horren kostutzat hartuko da erakundeari kalifikazio hori eman aurre-aurreko unean inbertsioak izan beharko lukeen kontabilitate-balioa. Inbertsio horri loturiko eta zuzenean ondare garbian kontabilizatutako aurreko balioespen-doikuntzak beren horretan mantenduko dira baja eman arte edo narriatu arte.

   Hasierako balioespenean sartuko dira lehentasunezko harpidetza-eskubideak edo antzekoak, horrelakorik eskuratu denean.

Diruzkoak ez diren ekarpenetan, inbertsioaren hasierako balioa zehazteko, «Ibilgetu materiala» 1 aintzatespen- eta balioespen-arauaren 4.d) puntuan ezarritakoa aplikatuko da, truke bidez eskuratutako aktiboei dagokienez.

7.2. Geroko balioespena: Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen inbertsioak kostuan balioetsiko dira, eta narriaduragatik balio-zuzenketarik egin bada, zuzenketa horien zenbateko metatua kenduta.

Aktibo horiei balioa esleitu behar zaienean inorenganatzea edo beste arrazoiren bat dela- eta, batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuko da multzo homogeneoen arabera, multzo homogeneotzat hartuz eskubide berdinak dituztenak.

7.3. Narriadura: Gutxienez ekitaldiaren amaieran edo partaidetzaren inorenganatzea edo transmisioa hitzartzen den unean, beharrezko balioespen-zuzenketak egin beharko dira, baldin eta ebidentzia objektiboen arabera inbertsioaren kontabilitate-balioa berreskuratu ezingo bada, adibidez, erakunde parte-hartzailearen funtsen jaitsiera luze eta esanguratsu baten ondorioz.

Partaidetzak merkatu aktiboan negoziatzen dituzten erakundeen kasuan, balioespen-zuzenketaren zenbatekoa kontabilitate-balioaren eta merkatu aktiboa aintzat hartuta kalkulatutako arrazoizko balioaren arteko aldea izango da.

Partaidetzak merkatu aktiboan negoziatzen ez dituzten erakundeen kasuan, balioespen-zuzenketaren zenbatekoa zehazteko erakunde parte-hartzailearen ondare garbia izango da kontuan, balioespenaren datako isileko plusbalioekin zuzenduta.

Narriaduragatik egindako balioespen-zuzenketak nahiz euren lehengoratzea gastu edo sarrera gisa aintzatetsiko dira, hurrenez hurren, ekitaldiko emaitzan. Narriaduraren lehengoratzearen muga lehengoratzen den datan kredituak izango lukeen kontabilitate-balioa izango da, balio-narriadurarik kontabilizatu izan ez balitz.

Taldeko erakunde, talde anitz edo elkartu gisa sailkatu aurretik erakunde horretan inbertsioren bat egin baldin bada, eta, sailkapen hori egin aurretik, inbertsio horren balio-doikuntzak egin badira ondare garbiari egotziz zuzenean, sailkapena egin ondoren ere mantendu egingo dira doikuntza horiek, inbertsioa inorenganatu edo baja eman arte (eta galdu-irabazien kontuan erregistratuko dira orduan) edo, bestela, inguruabar hauek gertatu arte:

a) Balio-gehitzeagatik egindako aurreko balio-doikuntzen kasuan, narriaduragatiko balioespen-zuzenketak doikuntza horiek jasotzen dituen ondare garbiko partidaren kontra erregistratuko dira horien zenbatekora arte, eta hortik gainerakoa ekitaldiko emaitza gisa erregistratuko da. Narriaduragatik zuzenean ondare garbira egotzitako balio-zuzenketak ez du lehengoratzerik izango.

b) Balioa jaitsi aurreko balioespen-doikuntzen kasuan, ondoren berreskura daitekeen zenbatekoa inbertsioen kontabilitate-balioa baino handiagoa denean, berau adierazitako balio-murrizketaren mugaraino haziko da, aurreko balioespen-doikuntzak jaso dituen partidaren kontra. Horrela sortutako zenbateko berria, momentu horretatik aurrera inbertsio-kostutzat hartuko da. Edonola ere, inbertsioaren balio-narriaduraren ebidentzia objektiborik badago, dagozkion balio-doikuntza negatiboak jasotzen dituen ondare garbiaren partida ekitaldiko emaitzari egotziko zaio oso-osorik.

8. Aktibo finantzario salgarriak.

8.1. Hasierako balioespena: Aktibo finantzario salgarriak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezio bera izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz

daitezkeen transakzio-kostuak gehituta. Haatik, zorra adierazten duten baloreen kasuan, transakzio-kostuak inbertsioa aintzatesten den ekitaldiko emaitzari egotzi ahalko zaizkio, garrantzi erlatibo txikia dutenean.

Ondare-tresnak direnean, hasierako balioespenean sartuko dira lehentasunezko harpidetza-eskubideak edo antzekoak, horrelakorik eskuratu denean.

8.2. Geroko balioespena: Aktibo finantzario salgarriak arrazoizko balioan balioetsiko dira, inorenganatzean izan litezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak ondare garbian erregistratuko dira zuzenean, aktibo finantzarioak narriatu edo inorenganatu arte; orduan, emaitzei egotziko zaizkie.

Aktibo horiei inorenganatzearengatik edo beste arrazoiren batengatik balioa bat esleitu behar zaienean, batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuko da multzo homogeneoen arabera.

Aitzitik, «Atzerri-moneta» 13. aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritakoaren arabera, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan erregistratuko dira balioaren narriaduragatiko zuzenketak, Interes-tasa efektiboaren arabera sortutako interesak eta atzerri-monetan egindako aktibo finantzario monetarioen kanbio- diferentzien emaitzak.

Merkatu aktiboan negoziatzen ez diren ondare-tresnak euren kostuari, dagoenean, narriaduragatiko balioespen-zuzenketetatik eratorritako zenbatekoa kenduta balioetsiko dira.

8.3. Narriadura: Gutxienez ekitaldiaren amaieran, beharreko balioespen-zuzenketak egin beharko dira, baldin eta aktibo finantzario salgarri baten edo antzeko ezaugarriak dituzten aktibo finantzario salgarrien multzo baten balioa nabarmen narriatu bada, hasierako aintzatespenaren ondoren jazotako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta baldin eta gertaerok etorkizuneko diru-fluxu estimatuen murrizketa edo atzerapena badakarte zor-tresnen kasuan. Esaterako, zordunaren kaudimen gabeziaren edo ondare-tresnen kasuan, euren kontabilitate-balioa berreskuratzeko ezintasuna, euren kotizazioan edo funts propioetan izan den jaitsiera luze eta esanguratsuaren ondorioz, merkatu aktiboan negoziatzen ez diren ondare-tresnen kasuan. Edozer kasutan, tresna narriatu dela usteko da urte eta erdiko edo kotizazioaren ehuneko berrogeiko beherakada izan duenean, baliorik berreskuratu gabe; baliteke, ordea, narriadura-galera epe hori baino lehen edo kotizazioa esandako ehuneko horretaraino jaitsi aurretik kontabilizatu behar izatea.

Aktibo finantzario hauen narriaduragatiko balioespen-zuzenketaren zenbatekoa izango da kostuaren edo kostu amortizatuaren (ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan narriaduragatik kontabilizatutako balio-zuzenketak kenduta, halakorik dagoenean) eta balioespena egiten den unean duen arrazoizko balioaren arteko diferentzia.

Ondare garbian aintzatetsitako aktibo horien arrazoizko balioaren murriztapen metatua emaitzei egotziko zaie, balioa narriatu dela nabarmena denean.

Ondorengo ekitaldietan aktiboaren arrazoizko balioa hazten bada, aurreko ekitaldietan aintzatetsitako balioespen-zuzenketa lehengoratu egingo da, ekitaldiko emaitzen kontuan abonatuz, ondare-tresnen kasuan izan ezik. Orduan arrazoizko balioaren hazkundea erregistratuko da zuzenean ondare garbiaren kontra.

Edonola ere, merkatu aktiboan ez negoziatzegatik kostuan balioetsitako ondare-tresnen kasuan, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa kalkulatzeko kontuan hartuko da erakunde parte-hartzailearen ondare garbia (balioespenaren datan zeuden ezkutuko plusbalioekin zuzenduta), eta aurreko ekitaldietan aintzatetsitako balioespen-zuzenketaren lehengoratzerik ezingo da egin.

9. Aktibo finantzarioen hainbat mailaren arteko birsailkatzeak.

Aktibo finantzarioen hainbat mailaren arteko birsailkatzeak ondoko arauetara lotu behar dira:

a) Erakundeak ezingo du inolako aktibo finantzariorik birsailkatu emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioen mailara.

b) Eratorritako tresna finantzarioak ezingo dira emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioen mailatik kanpo birsailkatu.

c) Hasierako sailkapenaren ondoren gertatutako baina etorkizunean gertatzea ia ezinezkoa den ezohiko gertaera baten ondorioz, emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioen mailan sailkatutako zor-tresna ez bada epe motzean erabiltzeko mantentzen, erakundeak mugaegunera arte mantendutako inbertsioen mailan birsailkatu ahalko du, baldin eta asmorik eta gaitasun ekonomikorik badu haren mugaegunera arte mantentzeko.

   Kasu horretan, birsailkatzeko uneko arrazoizko balioan balioetsiko da aktiboa. Arrazoizko balio hori bere kostu edo kostu amortizatu berria izatera igaroko da, eta aurrez emaitzetan aintzatetsitako inolako irabazi edo galerarik ez da lehengoratuko.

d) Mugaegunera arte mantendutako inbertsioei dagokienez, erakundeak ezingo du maila horretan inolako aktibo finantzariorik sailkatu edo sailkatuta izan, uneko ekitaldian edo aurreko bi ekitaldietan maila honetan sartutako aktibo finantzarioak saldu edo birsailkatu baditu, non eta ez den izan garrantzi gutxiko -horretan sartzen diren aktiboen zenbateko osoaren aldean- zenbateko baten truke edo ez den honako salmenta edo birsailkatzeetako bat izan:

   1. Mugaegunetik oso gertu daudenak.

   2. Erakundearen amortizazio-planaren arabera, erakundeak aktibo finantzarioaren printzipalaren ia osoa kobratu ostean gertatzen direnak.

   3. Erakundeak aurreikusi ezin duen gertakari isolatu eta ezohiko bati egotz dakizkiokeenak.

   Mugaegunera arte mantendutako inbertsiotzat hartuta, aktibo finantzario baten kalifikazioak egoki izateari uzten dionean, esanguratsua ez den zenbatekoan (aurreko atalean ezarritakoaren arabera) egindako salmenta edo birsailkatzeen ondorioz, edo mantendu ahal izateko erakundearen asmoak edo ahalmen finantzarioa aldatu delako, maila horretan sartutako aktibo finantzario guztiak aktibo finantzarioen salgarrien mailan birsailkatuko dira segituan, eta euren arrazoizko balioan balioetsiko dira. Ez da posible izango aktibo finantzarioak sailkatzea hurrengo bi ekitaldietan mugaegunera arte mantendutako inbertsioak balira bezala.

   Birsailkatzearen unean, aktiboaren arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko aldea zuzenean erakundearen ondare garbian erregistratuko du erakundeak, eta aktibo finantzario Aurreko atalean aipatutako bi ekitaldiak igaro ondoren, ordura arte aktibo salgarri gisa sailkatutako aktiboak, berriz sailkatu ahalko dira mugaegunera arte mantenduko diren aktibotzat joz, baldin eta erakundeak mugaegunera arte mantentzeko asmoa eta gaitasun finantzarioa baditu. Data horretan aktibo finantzarioak duen kontabilitate-balioa bere kostu amortizatu berri bilakatuko da. Balio horren eta mugaeguneko balioaren artean legokeen aldea emaitzari egotziko zaio, Interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera.

   Une horretara arte erakundearen ondare garbian aintzatetsitako balio-murrizketei eta gehikuntzei dagokienez, emaitzetan jasoko dira aktibo finantzarioari geratzen zaion bizitzan zehar Interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

e) Aktibo finantzario salgarrien mailan sailkatutako zorrei dagozkien balioak mugaegunera arte mantendutako inbertsioen mailan birsailkatu ahalko dira, erakundeak mugaegunera arte mantentzeko asmoa eta ahalmen finantzario baditu, aurreko d) atalean aurreikusitakoa baztertu gabe.

f) Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondareko inbertsioak, kalifikazio hori izateari uzten diotenean, aktibo finantzario salgarriei ezartzen zaizkien arauen arabera balioetsiko dira.

10. Aktibo finantzarioetatik hartutako dibidenduak eta interesak.

Erosi ondoren sortutako interesak eta dibidenduak ekitaldiko emaitza gisa aintzatetsiko dira.

Ondore hauetarako, aktibo finantzarioen hasierako balioespenean aparte erregistratuko dira, epemugaren arabera, erosketa unean organo eskudunak hitzartutako dibidenduen zenbatekoa, bai eta une horretan sortu diren baina mugaeguneratu gabe dauden Interes esplizituen zenbatekoa ere.

Erosi ondoren hitzartutako dibidenduak; hain zuzen ere, erosketaren aurretik lortutako irabaziei dagozkienak, inbertsioaren hasierako balioaren aldaketa moduan erregistratuko dira.

Sortutako interesak Interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita aintzatetsiko dira, baita aktibo finantzario salgarrien kategorian sailkatutako zor-tresnen eta emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioen kasuan ere.

Interes aldakorreko aktibo finantzarioetan, likidatutako Interes esplizituen eta hasieran aurreikusitako interesen arteko aldeak ez du aldatuko hasieran kalkulatutako Interes inplizituen banaketa. Aldaketa horiek dagozkien Interes esplizituen zenbateko handiagotzat edo txikiagotzat jota egotziko dira.

Interes-tasa efektiboaren kalkulua kapitalizazio sinplearen bitartez egin ahalko da aktibo finantzarioa epe motzeko mugaegunarekin eskuratzen denean edo eta emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako aktibo finantzarioak direnean.

11. Baja ematea kontuetan.

Erakundeak soilik emango dio baja kontuetan aktibo finantzario bati edo horren parte bati iraungi direnean edo aktiboak sortzen dituen diru-fluxuen gaineko eskubideak transmititu direnean; azkeneko kasu horretan, baldin eta aktibo finantzarioaren jabetzari atxikitako arriskuak eta abantailak modu esanguratsuan transferitu badira.

Erakundeak ebaluatuko du zer neurritan atxikitzen edo transmititzen dituen aktibo finantzarioaren jabetzari atxikitako abantailak eta arriskuak, zenbatekoen aldaketara transmititu aurretiko eta ondorengo agerpena konparatuta, eta transmititutako aktiboaren diru garbien fluxuen egutegian.

Erakundeak modu esanguratsuan transferitzen baditu arriskuak eta abantailak, baja emango dio aktibo finantzarioari kontuetan, eta bereizita aintzatetsiko du, aktibotzat edo pasibotzat hartuta, transmisioaren ondorioz sortutako edo atxikitako edozer eskubide edo obligazio.

Erakundeak modu esanguratsuan atxikitzen baditu arriskuak eta abantailak, aktibo finantzarioa osorik mantenduko du kontuetan, eta pasibo finantzario bat aintzatetsiko du jasotako kontraprestazioarengatik.

Erakundeak ez baditu modu esanguratsuan transferitzen edo atxikitzen aktiboaren jabetzari atxikitako irabaziak eta arriskuak, baja emango dio aktiboari haren gaineko kontrolik ez duenean. Aktibo finantzarioa igortzeko erosleak duen ahalmenaren menpe egongo da hori. Erakundeak transmititutako aktibo finantzarioaren kontrola atxikitzen badu, transmititutako

aktiboaren balio-aldaketekiko esposizioaren zenbatekoaren arabera aintzatesten jarraituko du, hau da, bere inplikazio jarraituaren arabera, eta erlazionatutako pasibo bat aintzatetsiko du.

Aktibo finantzarioei baja ematen zaienean kontuetan, jasotako kontraprestazioaren (aintzat hartuta lortutako edozer aktibo berri ken onartutako edozer pasibo) eta aktibo finantzarioaren kontabilitate-balioaren edo aktibo finantzario horretatik transmititu den zatiaren (gehi ondare garbian zuzenean aintzatetsitako edozer zenbateko metatu) arteko aldea kontuei baja eman zaien ekitaldiko emaitzari egotziko zaio.

9. Pasibo finantzarioak.

1. Azalpena.

   Pasibo finantzarioak hirugarren bati dirua edo beste aktibo finantzarioren bat entregatzeko edo, kontrakoak izan daitezkeen baldintzetan, hirugarren batekin aktibo edo pasibo finantzarioak trukatzeko obligazioa adierazten du.

   Aintzatespen- eta balioespen-arau honetan ezarritako irizpideak pasibo finantzario guztiei aplikatzeko modukoak izango dira, beste aintzatespen- eta balioespen-arau batean irizpide zehatzak ezarri direnentzat izan ezik.

2. Aktibo finantzarioek sailkapena.

   Pasibo finantzarioak balioesteko, maila hauetako batean sailkatuko dira hasieran:

   a) Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak. Ondokoa barne hartzen dute:

      a.1) Ohiko jardueratik eratorritako eragiketen ondorioz ordaindu beharreko zorrak eta partidak.

      a.2) Mugaegunera arte mantentzeko asmoarekin jaulkitako eta negozia daitezkeen balioetan adierazitako zorrak, bai eta jaulkipenetik urtebetera baino gehiagora, merkatuko prezioan, mugaeguna baino lehen berrerosiko direnak ere.

      a.3) Negozia daitezkeen baloreetan adierazitako zorrak, mugaegunaren aurretik prezio finkoarekin edo jaulki zeneko prezio berari mailegu-emailearen errentagarritasun arrunta gehituta ateratzen den prezioarekin berrerosteko akordioarekin jaulkiak.

      a.4) Kreditu-erakundeekiko zorrak.

      a.5) Ordaindu beharreko beste zor eta partida batzuk.

   b) Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak. Ondokoa barne hartzen dute:

      b.1) Negozia daitezkeen balioetan adierazitako zorrak, epe motzean berrerosteko akordioarekin edo helburuarekin jaulkiak, prezio finkoarekin edo jaulki zeneko prezio berari mailegu-emailearen errentagarritasun arrunta gehituta ateratzen den prezioarekin ordaintzeko akordioa egiten denean izan ezik, eta

      b.2) Deribatuak, berme finantzarioko kontratuak direnak edo estaldura-tresna izendatu direnak eta «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotako irizpideak betetzen dituztenak izan ezik.

   Edonola ere, erakundeak bere inplikazio jarraituaren arabera transferitutako aktiboa aintzatesten jarraitu behar duen aktibo finantzarioen transferentzien kasuan, transferentzia horretan sortutako pasiboa modu trinkoan balioetsi behar da transferitutako aktiboarekin.

Beraz, transferitutako aktiboa arrazoizko balioan balioesten bada, erlazionatutako pasibo finantzarioaren arrazoizko balioaren aldaketak ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko dira, transferitutako aktiboa aktibo finantzario salgarritzat hartzen denean salbu. Kasu horretan, erlazionatutako pasiboaren arrazoizko balioaren aldaketak ondare garbian aintzatetsiko dira.

Erakundeak ezingo du birsailkatu kostu amortizatuko pasibo finantzarioen kategoriako pasibo finantzariorik emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako pasibo finantzarioen kategoriara.

3. Aintzatespena.

Erakundeak pasibo finantzario bat balantzean aintzatetsiko du behartutako parte bilakatzen denean, tresna finantzarioen kontratuzko klausulei jarraiki. Nolanahi ere, diruzaintzako eragiketetan, eta kreditu-eragiketa mailaz mailako erabilerako kreditu baten bidez bideratzen den kasuetan, ondorioztatuko da erakundea derrigortutako parte bihurtzen dela, bere diruzaintzan erabilgarritasun likidoak jasotzen direnean.

Kontratuzkoak ez diren obligazioetatik sortzen diren pasibo finantzarioen aintzatespen-uneak zehazteko, aintzatespen- eta balioespen-arau egokian horretaz xedatua kontuan hartuko da.

4. Hasierako balioespena.

4.1. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak: Oro har, kostu amortizatuko pasibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezio bera izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, jaulkipenari zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuei dituta. Haatik, transakzio-kostuak pasiboa aintzatesten den ekitaldiko emaitzari egotzi ahalko zaizkio, garrantzi erlatibo txikia dutenean.

Onartutako zorren hasierako balioespenerako «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintatespen- eta balioespen-araua aplikatuko dira.

Epemuga motzera ordaindu beharreko partidak, kontratuzko inolako Interes-tasarik ez dutenak, euren balio nominalean balioetsiko dira.

Kontratuzko Interes-tasarik ez duten eta mugaeguna epe luzekoa duten ordaindu beharreko partidak, eta diruz lagundutako interesak dituzten eta epe luzerako jasotako maileguak euren arrazoizko balioan balioetsiko dira. Balio hori, antzeko eragiketetarako merkatuko Interes-tasa aplikatuz, ordaindu beharreko diru-fluxuen unekoa izango da.

Edonola ere, kontratuzko Interes-tasarik ez duten eta epe luzera ordaintzekoak diren partidak euren balio nominalean balioetsiko dira. Diruz lagundutako interesekin epe luzerako hartutako maileguak, berriz, emandako zenbatekoan balioetsi daitezke, baldin eta ez eguneratzearen eragina -era globalean hartuta- txikia bada erakundearen urteko kontuetan.

Diruz lagundutako interesak dituen pasibo finantzarioa bere uneko balioaren arabera balioesten bada, balio horren eta balio nominalaren edo jasotako zenbatekoaren arteko aldea, kasuaren arabera, jasotako diru-laguntza modura aintzatetsiko da, eta emaitzari egotziko zaio, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoarekin bat etorriz.

Edozer modutara ere, jasotako fidantzak eta gordailuak eguneratu gabe jasotako zenbatekoan balioetsiko dira beti.

4.2. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak: Hasieran arrazoizko balioan balioetsiko dira, eta kontrako ebidentziarik ezean, jasotako kontraprestazioaren prezioa izango du arrazoizko balio horrek.

Jaulkipenaren transakzio-kostuak gertatzen diren ekitaldiko emaitzei egotziko zaizkie.

5. Geroko balioespena.

5.1. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak: Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak euren kostu amortizatuan balioetsiko dira. Sortutako interesak, Interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz, ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko dira.

Edonola ere, kontratuzko interesik gabe ordaindu behar diren partidak, hasieran euren balio nominalean balioetsi direnak, eta diruz lagundutako interesekin jasotako maileguak, hasieran jasotako zenbatekoan balioetsi direnak, zenbateko horietan balioesten jarraituko da. Era berean, jasotako fidantzek eta gordailuek hasierako balioa mantenduko dute.

Interes aldakorreko pasibo finantzarioetan, likidatutako Interes esplizituen eta hasieran aurreikusitako interesen arteko aldeak ez du aldatuko hasieran kalkulatutako Interes inplizituen banaketa. Aldaketa horiek dagozkien Interes esplizituen zenbateko handiagotzat edo txikiagotzat jota egotziko dira.

Amortizaziorako aurreikusten diren datetan aldaketarik bada, Interes-tasa efektiboa birkalkulatuko da; hori aldaketaren datan, diru-fluxu berrien uneko balioa pasiboaren une horretako kostu amortizatuarekin berdintzen duena izango da. Birkalkulatutako Interes-tasa efektiboa geratzen zaion bizitzan zehar pasibo finantzarioaren kostu amortizatua zehazteko erabiliko da.

5.2. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak:

Arrazoizko balioan balioetsiko dira:

Sortutako interesak eta kanbio-diferentziak egotzita, arrazoizko balioaren aldaketatik sortutako zenbatekoa ekitaldiko emaitzari egotziko zaio.

5.3. Interes tasa efektiboa: Aurreko 5.1 eta 5.2 puntuetan aipatzen den Interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera sortutako interesen egozte ondorioetarako, kapitalizazio bakuna erabili ahal izango da epe motzera jaulkitako kostu amortizatuko pasibo finantzarioen kasuan, hala nola emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan.

6. Baja ematea kontuetan.

6.1. Irizpide orokorra: Iraungitzen denean, hau da, pasibo hori sortu zuen obligazioa betetzen edo kitatzen denean, erakundeak baja emango dio pasibo finantzarioari.

Pasibo finantzario propio bat erosten bada, baja eman behar zaio kontuetan, berriro berrezarriko bada ere, ondorengo 6.3 puntuan aurreikusitako kasuan izan ezik.

6.2. Kitapenen emaitzak: Pasibo finantzarioaren edo horren zati baten (kitatu dena edo hirugarren bati eman zaiona) kontabilitate-balioaren eta hirugarren horri eman zaion kotraprestazioaren (onartutako pasibotik edo dirutik bestelako den edozer emandako aktibo sartuko da bertan) arteko aldea ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko da.

6.3. Pasibo propioen salerosketa bikoitzak: Pasiboari ez zaio kontuetan baja emango pasibo propioen salerosketa bikoitzak badaude, berrerosi den pasiboaren salmentarako prezio finkoa edo salmentako prezio berari mailegu-emailearen ohiko

errentagarritasuna erantsita ateratzen den zenbatekoa adosten denean. Izan ere, eragiketa horiek maileguak ematean, edo gordailu finantzario bat sortzean -jasotako norbere pasiboa bermetzat hartuz- oinarritzen dira.

Kasu horretan, pasibo propioen kontuak mantenduko dira eta salerosketa bikoitzeko eragiketa emandako mailegutzat edo gordailu finantzariotzat hartuta erregistratuko da. Pasibo propioaren gastuak eta aktibo finantzarioaren sarrerak, berdindu gabe, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan aintzatetsiko dira.

Berrerositako pasiboa merkatuko prezioan saltzea adostuko balitz, eragiketa pasiboa iraungi izan balitz bezala eta ondoren beste pasibo bat jaulki izan balitz bezala hartuko da.

6.4. Pasibo finantzarioen trukea: Erakunde jaulkitzailearen eta mailegu-emailearen artean kostu amortizatuko zor-tresnen trukea, hurrengo arauen arabera kontabilizatuko da:

a) Trukatu diren zor-tresnek funtsean baldintza ezberdinak dituztenean.

Jatorrizko pasibo finantzarioaren kitapentzat eta pasibo finantzario berri baten aintzatespentzat hartuta erregistratuko da eragiketa. Eragiketaren ondoriozko edozer kostu edo komisio iraungitzetik eratorritako emaitzaren parte gisa erregistratuko da.

b) Trukatu diren zor-tresnek funtsean baldintza ezberdinik ez dutenean.

Jatorrizko pasibo finantzarioari ez zaio baja emango kontuetan eta kostuen eta komisioen zenbatekoa kontuen balioaren doikuntzatzat hartuta erregistratuko da, eta aldatutako pasiboa geratzen zaion bizitzan zehar amortizatuko da.

Interes-tasa efektibo berria kalkulatuko da. Aldaketaren datan pasibo finantzarioaren kontuen balioa, baldintza berrien arabera, ordaindu beharreko diru-fluxuekin berdintzen duena izango da.

Geratzen zaion bizitzan zehar pasibo finantzarioaren kostu amortizatua zehazteko aurreko paragrafoak dioenaren arabera kalkulatutako Interes-tasa efektiboa erabiliko da.

Ondore hauetarako, trukatutako zor-tresnak funtsean desberdinak direla ulertuko da, pasibo finantzario berriaren diru-fluxuen balio eguneratuaren (kobratu edo ordaindutako komisio garbiak barne hartuta) eta jatorrizko pasibo finantzariotik geratzen diren diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia ehuneko hamarrekoa edo handiagoa denean, bi uneko balioak jatorrizko pasibo finantzarioaren Interes-tasa efektiboan kalkulatua.

6.5. Pasibo finantzarioen uneko baldintzen aldaketak: Pasibo finantzarioaren uneko baldintzak funtsean aldatu direla ulertuko da, baldintza berrien arabera, pasibo finantzario berriaren diru-fluxuen balio eguneratuaren (kobratu edo ordaindutako komisio garbiak barne hartuta) eta pasibo finantzariotik geratzen diren diru-fluxuen uneko balioaren arteko diferentzia ehuneko hamarrekoa edo handiagoa denean, bi uneko balioak jatorrizko pasibo finantzarioaren Interes-tasa efektiboan kalkulatua.

Pasibo finantzarioen uneko baldintzen funtsezko aldaketak erregistratzeko funtsean baldintza ezberdinak dituzten zor-tresnen trukerako aurreko 6.4 puntuaren a) atalean ezarritako irizpidea erabiliko da. Pasibo berriaren hasierako balioespenerako, antzeko pasiboaren merkatuko tasa hartuko da ordaindu beharreko fluxuen eguneraketarako tasatzat.

Pasibo finantzarioen uneko baldintzen funtsezkoak ez diren aldaketak erregistratzeko funtsean baldintza ezberdinak ez dituzten zor-tresnen trukerako aurreko 6.4 puntuaren b) atalean ezarritako irizpidea erabiliko da.

6.6. Pasiboaren iraungitzea, onartzeagatik: Hartzekodun batek erakunde bat ordainketak egiteko obligaziotik salbuesten duenean zordun berri batek bere gain hartu duelako zorra, erakundeak jatorrizko pasibo finantzarioa iraungiko du.

Iraungitzearen emaitza «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen-arauan dioenaren arabera aintzatetsiko da, eta jatorrizko pasibo finantzarioaren kontuetako balioaren eta erakundeak emandako edozer kontraprestazioen arteko aldearen berdina izango da.

6.7. Pasiboaren iraungitzea, aginduz: Erakundeak hartzekodunari pasibo finantzarioa ordaintzeko obligazioa preskribatu denean, pasibo horri kontuetan emandako baja agindua hitzartzen den ekitaldiko emaitzari egotziko zaio.

7. Berme finantzarioko kontratuak.

Berme finantzarioko kontratuak jaulkitzaileari exijitzen dio edukitzaileari dirua itzultzeko -zordun jakin batek ordaintzeko obligazioa ez betetzeak sortzen dituen galerak direla eta- ordainketak egin ditzala, zor-tresna batean (fidantza, abal edo antzeko batean) hasierako edo aldatutako baldintzei jarraiki.

Sortzen diren heinean, berme finantzarioko kontratuaren jaulkitzaileak erregistratuko ditu jaso beharreko komisioak eta primak, eta emaitzari egotziko dizkio sarrera finantzariotzat hartuta; linealki, bermearen bizitzan zehar.

Era berean, dudazkotzat hartutako bermeak hornituko ditu «Hornidurak, aktiboak eta pasibo kontingenteak» 17. aintzatespen- eta balioespen-arauak dioenaren arabera.

10. Kontabilitate-estaldurak.

1. Azalpena.

Estaldura-eragiketa baten bidez, estaldura-tresna deitutako finantza-tresna bat edo gehiago izendatzen dira zehazki identifikatutako arrisku bat estaltzeko. Arrisku horiek emaitzaren kontuan edo ondare garbiaren aldaketen egoeran eragin dezakete, arrazoizko balioan edo estalitako partida baten edo gehiagoren diru-fluxuetan gerta daitezkeen aldaketen ondorioz.

Arau honen 4. atalean eskatutako ekintzak betetzeagatik estaldura bat kontabilitate-estalduratzat hartzen denean, estaldura-tresnaren eta estalitako partidaren kontabilizazioa aintzatespen- eta balioespen-arau honen 5. atalean ezarritako irizpideen arabera arautuko da.

2. Estaldura-tresnak.

Oro har, estaldura-tresnatzat har daitezkeen tresnak deribatuak dira. Kanbio-tasaren estalduren kasuan, estaldura-tresnatzat hartuko dira, halaber, deribatuak ez diren aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak.

Estaldura-erlazio batean, estaldura-tresna oso osorik hartzen da (nahiz eta zenbateko osoaren ehuneko jakin baten truke izan), epekako kontratuetan salbu. Kasu horretan zenbatutako prezioa hartuko da estaldura-tresnatzat, Interes-osagarria alde batera utziz.

Estaldura-tresna zirkulazioan dagoen denbora osoa kontuan hartuta adierazi behar da estalduraren erlazioa.

Bi deribatu edo gehiago, edo haien proportzioak, guztiak batera estaldura-tresnatzat hartu ahalko dira.

Tresna bat arrisku bat baino gehiago estaltzeko erabil daiteke baldin eta:

- Estalitako arriskuak argi identifika badaitezke, .

- Estalitako arrisku bakoitzeko estaldura-tresnaren izendapen zehatza existitzen bada, eta .

- Estalduraren eraginkortasuna froga badaiteke.

3. Estalitako partidak.

   Ondokoak har daitezke estalitako partidatzat: balantzean aintzatetsitako aktiboak eta pasiboak, aktibotzat edo pasibotzat hartu gabeko konpromiso irmoak eta egiteko probabilitate handia duten eta aurreikusten diren transakzioak, erakundearentzat arrazoizko balioan edo diru-fluxuetan aldaketak izateko espezifikoki identifikatutako arriskua sortzen dutenean.

   Estali nahi den arriskuaren pean dauden aktiboak eta pasiboak batera estali ahalko dira, baldin eta bakarkako partida bakoitza estaltzeko dagoen arriskuari dagokion arrazoizko balioaren aldaketa estalitako arriskuari dagokion taldearen arrazoizko balio osoaren aldaketaren antzekoa bada proportzionalki.

   Ezingo da estalitako partidatzat hartu aktibo eta pasiboen posizio garbi orokorra. Edonola ere, aktibo eta pasibo finantzarioekin osatutako zorroaren arrazoizko balioa Interes-tasaren arriskuarekin estali nahi bada, estalitako partidatzat hartu ahalko da zorraren zenbateko garbiaren baliokidea den pasibo edo aktiboen zenbateko monetarioa, beti ere, estalitako zenbateko monetarioa ateratzen den pasibo eta aktibo guztiak estalitako arriskuaren pean daudenean.

   Aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak zati batean estali ahal izango dira, zenbateko jakin batean edo diru-fluxuen edo arrazoizko balioaren ehuneko jakin batean, estalduraren eraginkortasuna neurgarria bada betiere.

   Aktibo edo pasibo ez-finantzarioak estalitako partidatzat soilik hartu ahalko dira:

   a) Atzerri-monetaren kanbio-diferentziei loturiko arriskuengatik, edo

   b) bere osotasunean, hau da, jasaten dituen arrisku guztiengatik.

4. Estalduren kontabilitatea ezartzeko baldintzak.

   Ondoko baldintza guztiak betetzen dituenean soilik hartuko da estaldura bat kontabilitate-estalduratzat:

   a) Hasieran, estaldura-erlazioa izendatu eta dokumentatu behar da, baita erlazio horren bidez erakundeak lortu nahi duen estrategia eta helburua finkatu ere.

      Dokumentazio horrek hurrengo hartu beharko du barne:

      Estaldura-tresnaren, estalitako partida edo transakzioaren eta arrisku zehatzaren izaeraren identifikazioa.

      Estaldura-tresna arrazoizko balioan balioetsi behar ez denean, arau honen «Estaldura-tresnen balioespena» 5.1 atalaren amaieran jasotako baldintza guztiak betetzen direla justifikatuko da.

      Estalitako partidaren aldaketan agerpena berdintzeko estaldura-tresnaren eraginkortasuna balioesteko irizpidea eta metodoa, izan estalitako arriskuari dagozkion arrazoizko balioan edo diru-fluxuetan.

b) Estaldura oso eraginkorra izatea espero da estalitako arriskuari dagozkion diru-fluxuetako edo arrazoizko balioko aldaketak berdintzeko aurreikusitako epe osoan zehar, hasieran dokumentatutako arriskuaren gestio-estrategiarekin bat etorriz.

Estaldura bat oso eraginkortzat joko da hurrengo bi baldintzak betetzen badira:

Estalduraren hasieran eta bizitzan zehar, erakundeak espero dezake estalitako arriskuari dagokion arrazoizko balioaren edo estalitako partidaren diru-fluxuen aldaketak ia osorik berdintzea, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren edo diru-fluxuen aldaketekin.

Estalduraren eraginkortasun erreala, hau da, estaldura-tresnaren emaitzaren eta estalitako partidaren arteko erlazioa ehuneko laurogei eta ehun eta hogeita bost arteko tartean dago.

c) Era fidagarrian zehatz daiteke estalduraren eraginkortasuna, hau da, estalitako partidaren diru-fluxuak edo arrazoizko balioa eta estaldura-tresnaren arrazoizko balioa modu fidagarrian zehazteko aukera egon behar da.

Eraginkortasuna, gutxienez, urteko kontuak prestatzen diren bakoitzean balioetsi behar da.

Estalduren eraginkortasuna balioesteko erakundeak arrisku-gestioaren estrategiara hobekien egokitzen den metodoa erabiliko da, eta posible izango da metodo bat baino gehiago erabiltzea estaldura ezberdinentzat.

5. Kontabilitate-estalduren balioespen-irizpideak.

5.1. Estaldura-tresnaren balioespena: Deribatua den estaldura-tresna edo kanbio-tasa baten arrisku estalduran estaldura-tresnatzat jotako aktibo edo pasibo finantzario baten kanbio-tasaren osagarria bere arrazoizko balioan balioetsiko da.

Lortutako emaitzaren egoztea bere zatiari dagokion estaldura-tresnan eta estaldura eraginkor kalifikatu dena, ondarearen emaitza ekonomikoaren eragiten dioten estalitako arriskuei dagokien estalitako partiden aldaketen ekitaldi berean egin beharko dira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzeko, estaldura-tresnan lortutako emaitzaren egoztea ondorengo ekitaldietatik ezberdindu behar denean, ezberdindutako zenbatekoak ondare garbiaren kontuan erregistratuko dira.

Ondare garbian aintzatetsitako zenbatekoa ondokoa izango da:

Hasieratik estaldura-tresnarekin pilatutako emaitzetan txikiena; edo.

Estalduraren hasieratik estalitako partidatik espero diren etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratuan pilatutako aldaketetan txikiena.

Oro har, ondare garbian pilatutako zenbatekoa emaitzei egotziko zaie estalitako arriskuari dagokion estalitako partidatik eratorritako gastuak eta sarrerak egozten diren heinean, aurreikusitako transakzio batetik edo konpromiso irmo bat betetzetik sortutako aktiboen eta pasiboen hasierako balioan sartzea onartzen denean izan ezik.

Estaldura ez eraginkortzat jotako zatiari dagozkion estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldaketak ekitaldiko emaitzan egotziko dira, «Aktibo finantzarioak» eta «Pasibo finantzarioak» 8. eta 9. aintzatespen- eta balioespen-arauak, hurrenez hurren, aplikatuz.

Edonola ere, estaldura-tresna ez da balioetsiko bere arrazoizko balioan, estalitako partidaren irizpide berberekin baizik, baldin eta estaldurak ondoko baldintzak betetzen baditu:

Estaldura-tresna dibisen truke finantzarioa, interesen truke finantzarioa edo epera egindako dibisen kontratua da.

Estalitako partida kostu amortizatuko pasibo finantzario bat edo mugaegunera arte mantendutako inbertsio bat da.

Estaldura-tresna izendatzen da estalitako partidaren diru-fluxuen aldaketak, kanbio-tasen edo Interes-tasen arriskuen ondoriozkoak direnak, berdintzeko.

Erakundeak, estalduraren dokumentazioan, adierazten du estalduraren mugaegunera arte estalitako estaldura-tresna eta estalitako partida mantentzeko asmoa eta ahalmen finantzarioa duela eta ez duela estalduraren izendapena baliogabetuko.

Estaldura-tresnaren eta estalitako partidaren ezaugarriengatik hasieran ziurta daiteke estaldura guztiz eraginkorra izango dela mugaegunera arte; alegia, estaldura-tresnaren diru-fluxuen aldaketak estalitako arriskuei eta zenbatekoei dagozkien zenbatekoen diru-fluxuen aldaketak osoki berdinduko dituela. Hori lortuko da, esaterako, korronte zordunak estalitako partidaren ezaugarri berberak (moneta, erreferentziako Interes-tasa, interesaren mugaeguna, etab.) dituen trukearen bidez pasibo finantzario bat estaltzen denean.

5.2. Estalitako partidaren balioespena.

5.2.1. Balantzean aintzatetsitako aktiboak eta pasiboak: Bere arrazoizko balioko aldaketetatik estaltzen denean aktibo edo pasibo bat, estalitako partidaren aldaketak, estalitako arriskuari dagokionak, segituan ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko dira, eta estalitako partidaren kontabilitate-balioa doituko da, baita berau kostu amortizatuan balioesten denean edo aktibo finantzario salgarri bat denean ere.

Kostu amortizatuan balioesten den estalitako partida baten kontabilitate-balioan egindako doikuntza ekitaldiko emaitzari egotziko zaio, egoztea hasten den datan birkalkulatutako Interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera. Egozte hori doikuntza egin bezain pronto has daiteke, eta edozer kasutan, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldaketen ondorioz estalitako partidaren doikuntza amaitzen den unean hasi beharko da.

Estalitako partidaren arrazoizko balio-aldaketak, estalitako arriskuari ez dagokionak, estalitako partidari aplikatzeko moduko irizpide orokorren arabera aintzatetsiko dira.

Estalitako partidaren diru-fluxuen aldaketak emaitzei egotziko zaizkie, estalitako partidari aplikatzeko modukoak diren irizpide orokorren arabera.

5.2.2. Aktibo edo pasibo gisa aintzatesten ez diren konpromiso irmoak: Aktibo eta pasibo gisa aintzatesten ez den konpromiso irmo baten, estalitako partida gisa izendatutakoaren, arrazoizko balioaren aldaketak, estalitako arriskuari egotz dakizkiokeenak, aktibo edo pasibo gisa aintzatetsiko dira, eta ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Erakundeak aktibo bat eskuratzeko edo pasibo bat bere gain hartzeko konpromiso irmoa hartzen duenean, eta konpromiso hori estalitako partida izendatzen denean, konpromiso hori betetzearen emaitzan den aktiboaren edo pasiboaren hasierako zenbatekoa, kontuetan, doitu egingo da

pilatutako kanbioa ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko den estalitako arriskuari dagokion konpromisoaren arrazoizko balioan sartzeko.

Edonola ere, kanbio-tasen arrisku-estalduren kasuan, estalduaren epean zehar konpromiso irmoaren arrazoizko balioan izandako aldaketak ez aintzatestea aukera dezake erakundeak. Kasu honetan, estaldura-aldian zehar ondare garbian estaldura-tresnaren balioaz den bezainbatean aintzatetsi diren aldaketak ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan egotziko dira, hurrengo 5.2.3 puntuan aurreikusitako irizpideen arabera, kontuan hartuta zer ekarri duen berekin konpromiso irmoak: aktibo finantzario edo pasibo finantzario baten aintzatespena; aktibo ez-finantzario edo pasibo ez-finantzario baten aintzatespena; edo, hurrenez hurren, aktiborik edo pasiborik ez aintzatestea.

5.2.3. Gertatzeko probabilitate handia duten aurreikusitako transakzioak: Estalduraren epean zehar aldaketak ez dira aintzatetsiko estalitako transakzioaren aurreikusitako balioan.

Aurreikusitako transakzio baten estaldurak aktibo finantzario edo pasibo finantzario baten aintzatespena ekarriko balu, ondare garbian aintzatetsi diren estaldura-tresnen balio-aldaketak ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio, eskuratutako aktiboak edo gain hartutako pasiboak eragiten dion heinean. Edonola ere, erakundeak etorkizuneko ekitaldietan berreskuratzerik espero ez dituen ondare garbian erregistratutako galerak ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko dira berehala.

Aurreikusitako transakzio baten estaldurak aktibo ez-finantzario baten, pasibo ez-finantzario baten edo konpromiso irmo baten aintzatespena ekarriko balu, ondare garbian aintzatetsitako zenbatekoa aktiboaren edo pasiboaren hasierako balioan sartuko da, baldin eta aktibo edo pasibo horiek eskuratutakoak edo gain hartutakoak badira.

Aurreikusitako transakzio baten estaldurak aktibo finantzario edo pasibo finantzario baten aintzatespena ekarriko ez balu, ondare garbian aintzatetsi diren estaldura-tresnen balio-aldaketak ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio, estalitako transakzioak emaitzari eragiten dion heinean.

6. Estalduren kontabilitatearen etena.

Estalduraren kontabilitatea eten egingo da ondoko edozein egoeratan:

a) Estaldura-tresna iraungi, saldu, indargabetu edo gauzatu egin da; edo

b) Estaldurak aurreko 4. atalean adierazitako baldintzak betetzeari utzi dio; edo

c) Erakundeak izendapena baliogabetu du.

Estaldura-tresna bat beste batekin ordezkatzeak edo berritzeak ez du estalduraren etenik eragingo, erakundearen estaldura-estrategian hala aurreikusten ez bada behintzat.

Etenalditik eratorritako kontabilitate-eraginak hurrengo irizpideei jarraiki aplikatuko dira:

Estaldura eraginkorra izan den aldian zehar ondare garbian metatutako zenbatekoa partida horretan aintzatesten jarraituko da, harik eta aurreikusitako transakzioa gertatu arte, eta orduan 5.2.3 puntuko irizpideak aplikatuko dira. Aurreikusitako transakzioa gertatzea espero ez den unean, ondare garbian metatutako zenbatekoa ekitaldiko emaitzan egotziko da.

Kostu amortizatuan balioesten den estalitako partida baten kontuetako balioan egindako doikuntza ekitaldiko emaitzari egotziko zaio, aintzatespen- eta balioespen-arau honen 5.2.1 puntuko bigarren paragrafoko irizpidearen arabera.

11. Izakinak.

1. Hasierako balioespena.

   Izakinetan dauden ondasun eta zerbitzuak eskuratze-prezioan edo ekoizpen-kostuan balioetsiko dira.

   Saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duten izakinen eskuratze-prezioan edo produkzio-kostuan sartu ahalko dira gastu finantzarioak, «Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan aurreikusitakoaren arabera eta txertatzen diren izakinen balio bihurgarri garbiaren mugarekin.

   Eragiketa hauetatik eratorritako zorrak «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera balioetsiko dira.

   1.1. Eskuratze-prezioa: Eskuratze-prezioak ondokoa hartuko du bere barne: fakturan bidalitakoa; eta erosketaren gaineko zeharkako zerga ez berreskuragarriak eta ondasunak erabili ahal izateko toki eta egoera egokian egon arte gertatzen diren kostu gehigarri guztiak, hala nola, garraioa, aduanetako muga-zergak, aseguruak eta izakinen erosketari zuzenean atxikitzen zaizkion beste batzuk.

   Deskontuak, beherapenak eta antzeko partidak eskuratze-preziotik kenduko dira, baita zorren nominalean txertatutako kontratuzko interesak ere. Eskuratze-preziotik kenduko dira kontratuzko Interes-tasarik ez duten eta urtebete baino gehiagoko mugaeguna duten zorren nominalean txertatutako interesak, «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauko «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak» 4.1 atalean aurreikusitakoaren arabera, hasieran ordaindu beharreko diru-fluxuen balio eguneratuaren arabera balioesten direnean.

   1.2. Ekoizpen-kostua: Ekoizpen-kostua zehazteko lehengaien eta kontsumitutako beste materia batzuen eskuratze-prezioari produktuari zuzenean egotz dakizkiokeen kostuak gehituko zaizkio. Produktuei egotz dakizkiekeen zeharkako kostuei dagokien zatia ere gehitu beharko zaio, kostu horiek ekoizpen-, elaborazio- edo eraikuntza-aldiari dagozkion neurrian, eta ekoizpen-bitartekoen lanerako ahalmen arruntaren erabilera-mailan oinarritzen diren neurrian. Hori guztia, «Ibilgetu materiala» 2. aintzatespen- eta balioespen-arauan adierazitako irizpideen arabera.

   1.3. Balioa emateko metodoak: Elkarrekin truka daitezkeen ondasunen inbentarioko parte diren ondasun zehatzen kasuan, oro har, batez besteko prezioaren edo batez besteko kostu haztatuaren metodoa erabiliko da. FIFO metodoa onartzen da eta erabil daiteke, baldin eta gestiorako egokiagoa dela ikusten badu erakundeak. Metodo bera erabiliko da izaera edo erabilera bereko inbentarioentzat.

   Aurreko metodoekin balioa ezingo balitz eman, honela emango dela: arrazoizko balioa ken marjina egokia.

   Elkarrekin trukatu ezin daitezkeen ondasunen edo proiektu zehatz baterako ekoitzi eta banandutako ondasunen kasuan, prezioa identifikatuz edo ondasun bakoitzari bakarka egotz dakizkiokeen kostuak identifikatuz emango zaio balioa.

2. Izakinen kostua zerbitzuak ematerakoan.

   Esanguratsua den neurrian, kontraprestazioa duten zerbitzuak emateagatiko inbentario bat mantendu ahalko da. Kasu horretan, izakinek zerbitzuen ekoizpen-kostua barne hartuko dute, «Sarrerak kontraprestazioarekin» 15. aintzatespen- eta balioespen-arauan zehaztutakoaren arabera, dagokion sarrera onartu ez bada.

Aurreko ataletan adierazitako irizpideak zerbitzuen izakinen kostua zehazteko aplikatuko dira.

3. Geroko balioespena.

Izakinen balio bihurgarri garbia bere eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua baino txikiagoa bada, beharrezko balioespen-zuzenketak egingo dira, ekitaldiko emaitzan gastutzat hartuz eta izakinak balioztatzen dituzten egoerak kontuan hartuz.

Lehengaien kasuan, aurreko konparazioa bere birjartze-prezioarekin egingo da, bere balio bihurgarri garbiarekin beharrean, eta dagokion balioespen-zuzenketa egingo da birjartze-prezio horretan jarri arte. Hala eta guztiz ere, ez da izakinak ekoizteko erabiltzeko mantendutako lehengaien eta beste hornigai batzuen balioa jaitsiko kontabilitate-balioa kostuaren azpitik jartzeko; betiere, amaitutako produktuak ekoizpen-kostuan edo altuagoan saltzea espero bada.

Saltzeko edo zerbitzuak emateko kontratu irmoaren, ondoren bete behar den, xede izan diren ondasunak ez dute aurreko paragrafoetan adierazitako balioespen-zuzenketen beharrik izango. Horretarako baldintza hauxe da: kontratu horretan hitzartutako salmenta-prezioak, gutxienez, ondasun horien eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua eta kontratua betetzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, estali behar ditu.

Kontraprestaziorik gabe edo garrantzi oso txikiko kontraprestazioarekin banatu beharreko izakinen kasuan, eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua birjartze-prezioarekin alderatuko da edo, merkatuan erosi ezin badira, estimazioa eginda.

Izakinen balio-zuzenketa eragin zuten baldintzak jada existitzen ez badira, zuzenketaren zenbatekoa lehengoratu egingo da, eta ekitaldiko emaitzan sarreratzat hartuta aintzatetsiko da.

12. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak.

1. Azalpena.

Erakunde gestore batek eraikitako edo eskuratutako ondasunak dira. Dagokien kontratu, hitzarmen edo akordioan oinarritzen dira, eta helburua da eskuratze- edo eraikitze-prozesua amaituta, beste erakunde hartzaile bati transferitzea, erakunde hartzaile honek haren finantziazioan parte hartu edo ez.

2. Erakunde gestorearen aintzatespena eta balioespena.

Ondasunen eraikuntzaren kasuan, kontratuari edo akordioari loturiko sarrerak eta gastuak nahikoa fidagarritasunekin estima daitezkeenean, hartatik eratorritako sarrerak ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko dira, ekitaldi bakoitzaren amaieran lanak zenbateraino aurreratu edo egin diren ikusita.

«Izakinak» 11. aintzatespen- eta balioespen-arauan ekoizpen-kostua zehazteko ezarritakoaren arabera kalkulatuko da lanaren kostua.

Eraikuntza-kontratu baten sarrerak eta kostuak nahikoa fidagarritasunaren estima daitezkeela usteko da ondoko baldintzak betetzen direnean:

a) Kontratuaren baliabide guztiak arrazoiz neur daitezke.

b) Litekeena da erakundeak kontratutik eratorritako etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala lortzea.

c) Urteko kontuen garaian, nola kontratua amaitzeko falta diren kostuak hala kontratuaren amaieraren maila nahikoa fidagarritasunekin neur daitezke.

d) Kontratuari egotz dakizkiokeen kostuak nahikoa fidagarritasunekin identifika eta neur daitezke. Hala, kontratuaren kostu errealak kostu horien gainean hasieran egindako estimazioekin aldera daitezke.

Eraikuntza-kontratuari edo -akordioari loturiko sarrerak eta gastuak nahikoa fidagarritasunekin balioetsi ezin direnean, eta erakunde gestoreak zuzenean aktiboak eraikitzen ez dituenean, aktiboen eraikuntzari edo eskuratzeari loturiko gastuak izakin gisara aintzatetsiko dira. Kasu horretan, aktiboak erakunde hartzaileari ematean aintzatetsiko dira sarrerak.

Eraikitzeko edo eskuratzeko kontratuari edo erabakiari lotutako sarrerak, kontabilitate-ondorioetarako, ez dira hartuko jasotako diru-laguntza moduan.

Betiere, erakunde gestoreak finantzatutako kontratu edo akordioei loturiko kostuak, emandako diru-laguntza gisa egotziko zaizkio ekitaldiko emaitzari, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritako irizpideen arabera.

Ez da aplikagarria izango horrelako aktiboetarako «Izakinak» 11 aintzatespen- eta balioespen-arauaren «Geroagoko balioespena» 3. atala.

3. Erakunde hartzailearen aintzatespena eta balioespena.

Lanak finantzatzeko eraikuntza- edo eskuratze-kontratu edo akordioaren erakunde hartzaileak egiten dituen ordainketak ibilgetuaren aurrerakintzat hartuta erregistratuko dira.

Jasotzen duen unean erregistratuko du erakundeak aktiboa, eta «Ibilgetu materiala» 1 aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera kuantifikatuko du haren zenbatekoa. Eragiketatik, hala egokituz gero, eratortzen den diru-laguntza «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18 aintzatespen- eta balioespen-arauan xedatuaren arabera aintzatetsiko da, eta haren zenbatekoa kuantifikatzeko jasotako aktiboaren balioaren eta obra finantzatzeko egindako aurrerakinen arteko aldea kontuan hartuko da.

13. Atzerri-moneta.

1. Azalpena.

Atzerri-monetan egindako transakzioak: Likidazioa atzerri-monetan egitera behartzen duen edozer eragiketa da.

Atzerri-monetatzat hartzen da euroa ez den beste edozer moneta.

Diruzko partidak: Dirutan mantendutako diru-unitateak dira, baita mugaegunean kantitate finkoarekin edo diru-unitateek zehaztuta kobratu edo ordainduko diren aktibo eta pasiboak ere. Besteak beste, hauek dira: diru-kutxetan eta banku-kontuetan eskuragai dauden saldoak, maileguak, zorra adierazten duten baloreak, kobratu beharreko kontuak, ordaindu beharreko kontuak eta hornidurak.

Diru ez diren partidak: Jasotzeko eskubiderik eta emateko obligaziorik ematen ez duten aktibo eta pasiboak dira, diru-unitateen kantitate zehatza. Beste batzuen artean, aktibo materialak edo ukiezinak, izakinak eta ondare-tresnak hartzen ditu barne.

2. Hasierako balioespena.

Atzerri-monetan egindako transakzio oro eurotan erregistratuko da urteko kontuetan aintzatesten den unean, atzerri-monetari dagokion zenbatekoari eragiketa datan dagoen eskurako kanbio-tasa aplikatuta.

Denboraldiko (gehienez, hilabeteko) batez besteko kanbio-tasa erabili ahal izango da denbora-bitarte horretan egiten diren transakzio guztietarako, transakzioak egiteko erabili

den atzerri-moneta mota bakoitzean, kontuan hartutako denbora-bitartean kanbio-tasak gorabehera handirik izan ez badu.

3. Geroko balioespena.

Urteko kontuak aurkezten direnean, ondoko arauak ezarriko dira atzerri-monetako saldoak euroetara aldatzeko:

a) Diruzko partidak.

Diru izaera duten ondare-elementuak, atzerri-monetan daudenak, data horretan dagoen eskurako kanbio-tasa aplikatuz balioetsiko dira.

b) Diru ez diren partidak

b.1) Kostuan balioetsitako diru ez diren partidak erregistratu zirenean zeukaten eskurako kanbio-tasa aplikatuz balioetsiko dira.

b.2) Arrazoizko balioan balioetsitako diru ez diren partidak arrazoizko balioa zehaztu zen datan zegoen eskurako kanbio-tasa aplikatuz balioetsiko dira.

Aurrez kalkulatutako zenbatekoaren gainean ezarri beharko dira amortizazioak.

Balioaren narriadura balioesteko beharrezko balioak eurotara aldatzeko, zehaztu ziren uneko kanbio-tasa aplikatuko da.

4. Kanbio-diferentzien trataera

a) Diruzko partidak.

Eragiketaren erregistroan erabilitakoez bestelako kanbio-tasa erabiltzearen ondorioz, diruzko partiden likidazioan edo urteko kontuak aurkezterakoan sortutako kanbio-diferentzietan agertu diren aldiko emaitzatzat hartuta aintzatetsiko dira, estaldura-tresnatzat hartu diren partidak salbu. Azken horiei «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-araua ezarriko zaie.

Diruzko aktibo finantzario salgarrien kasu zehatzean, atzerri-monetan kostu amortizatuan kontabilizatuko balitz bezala hartuko da. Ondorioz, aktibo finantzario horren kasuan, kostu amortizatuaren aldaketei loturiko kanbio-diferentziak ekitaldiko emaitzatzat hartuta aintzatetsiko dira, eta bestelako balio aldaketak, aktibo mota horientzat «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera hartuko dira.

b) Diru ez diren partidak.

Diru ez den partidaren balioespenak izan dezakeen eragina, urteko kontuetan agertzen denaz bestelako kanbio-tasa erabiltzearen ondorioz sortutakoa, ez da modu indibidualean hartuko, ondarearen elementu horren balioespeneko edozer aldaketatzat baizik.

14. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ).

1. Jasandako zergak.

Jasandako BEZ kengarria ez da zergaren bidez kargatutako eragiketen helburu den ondasunen eta zerbitzuen eskuratze-prezioaren parte izango, eta errubrika zehatz batean erregistratuko da.

Jasandako BEZ ez-kengarria zergaren bidez kargatutako eragiketen helburu den ondasunen eta zerbitzuen erosketa-prezioaren parte izango da. Barne kontsumorako

(erakundearen ibilgetura bideratuko ekoizpen propioa) eragiketei, zerga ezarri behar zaienei, kengarria ez den BEZa aktibo horien kostuari gehituko zaio.

Kontabilitateko irizpide- eta estimazio-aldaketei eta akatsei buruzko arauan zehaztutakoari kalterik egin gabe, hasierako balioespenek ez dituzte aldatuko jasandako BEZ ez-kengarriaren zenbateko-zuzenketak, bereziki, behin betiko prorratatik eratorritako erregularizazioaren ondorio diren doikuntzak, inbertsio-ondasunen araberako erregularizazioa barne. Zuzenketa horiek gastutzat edo sarreratzat hartuta ekitaldiko emaitzan aintzatetsiko dira.

2. Jasanarazitako zergak.

Jasanarazitako BEZa ez da sartuko ez BEZak kargatutako eragiketen sarreretan, ez aktiboa inorenganatzean edo bestela xedatzean lortutako zenbateko garbian -aktibo ez-korronteei kontuetan baja ematen zaienean-, eta errubrika zehatz batean erregistratuko da.

15. Kontraprestazioa duten sarrerak.

1. Azalpena.

Erakundeak aktiboak edo zerbitzuak jaso edo obligazioak baliogabetu, eta trukearen beste alderdiari zuzenean antzeko balioa (gehienetan produktu, zerbitzu edo aktibo-erabilera) ematen dion transakzioetatik eratorritakoak dira kontraprestazioa duten sarrerak.

2. Aintzatespena eta balioespena.

Oro har, hurrengo baldintzak betetzen direnean aintzatetsi behar dira kontraprestazioa duten sarrerak:

a) Beren zenbatekoa fidagarritasunez neur daitekeenean.

b) Litekeena denean erakundeak transakzioarekin loturiko etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala jasotzea.

Kontraprestazioa duten transakzioetatik sortutako sarrerak jasotako edo jasoko den kontrapartidaren (aipatutako sarreretatik eratorria) arrazoizko balioan balioetsiko dira. Kontrakorik erakutsi ezean, ondasun edo zerbitzu horientzako hitzartutako prezioa izango da, erakundeak eman dezakeen edozer deskontu, hobari edo beherapen kenduta, edo kredituaren nominalari txertatutako kontratuzko interesak kenduta. Kontratuzko Interes-tasarik ez duten eta urtebeteko mugaeguna baino handiagoa duten kredituen nominalean txertatutako interesak ere kenduko dira, «Pasibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauko «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak» 4.1 atalean aurreikusitakoaren arabera, hasieran kobratu beharreko diru-fluxuen balio eguneratuan balioesten direnean.

Sarreretan ez dira sartuko erakundeak hirugarrenei jasanarazten dizkien ondasun-salmenten eta zerbitzu-emateen gaineko zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, eta hirugarrenen kontura hartutako kopuruak ez dira sarreren parte izango.

Ohiko jardueratik eratorritako eragiketengatiko kredituak «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera balioetsiko dira.

Ondasunak eta zerbitzuak antzeko izaera eta balioa duten beste batzuekin trukatzen direnean, ez da sarrerarik aintzatetsiko truke hori dela- eta.

3. Salmenten sarrerak.

Ondasun-salmentatik datozen sarrerak, baldintza orokorrez gain, hurrengo guztiak ere betetzen direnean erregistratuko dira:

a) Ondasunen jabetzatik eratorritako arrisku eta abantaila esanguratsuak transferitu dizkio erakundeak erosleari, jabetzaren titulu legalaren lagapena alde batera utzita.

b) Erakundeak ez du hartuko saldutako ondasunen gestio arruntean inongo inplikaziorik, eta ez du haien gaineko inolako kontrol efektiborik izango.

c) Transakzioarekin loturiko gastuak fidagarritasunez neur daitezke.

4. Zerbitzu-emateen sarrerak.

Zerbitzu-emateetatik datozen sarrerak transakzio baten emaitza fidagarritasunez balioetsi daitekeenean aintzatetsi behar dira. Horretarako, kontuan izango da urteko kontuen datan zerbitzu-ematea zein neurritan egin edo garatu den. Transakzio baten emaitza fidagarritasunez balioetsi daiteke, sarreren aintzatespenerako baldintza orokorrez gain, hurrengo guztiak ere betetzen direnean:

a) Urteko kontuak egitean zerbitzu-ematea zer neurritan egin edo garatu den fidagarritasunez neur daitezke.

b) Zerbitzu-ematean dagoeneko eginda dauden kostuak eta osatu arte egin daitezkeenak fidagarritasunez neur daitezke.

Zerbitzuak egintza kopuru zehaztugabearen bidez ematen direnean epe zehatz batean, epe horretan sarrerak linealki aintzatetsi ahalko dira.

Zerbitzu-emateko transakzio baten emaitza ezin bada fidagarritasunez estimatu, dagozkion sarrerak berreskuragarriak diren gastu aintzatetsien zenbatekoan baino ezin dira aintzatetsi.

16. Kontraprestaziorik ez duten sarrerak.

1. Azalpena.

Erakundeak aktiboak edo zerbitzuak jaso edo obligazioak baliogabetu, eta trukearen beste alderdiari zuzenean antzeko balioa ematen ez dion transakzioetatik eratorritakoak dira kontraprestaziorik ez duten sarrerak.

2. Aintzatespena eta balioespena.

Kontraprestaziorik ez duten transakzioetatik datozen sarreren aintzatespena transakzio horretatik eratorritako aktiboaren aintzatespenari loturik dago, sarrera-fluxu beraren arabera pasibo bat aintzatesten denean izan ezik. Pasibo hori sortzen da aktiboa itzultzeko eskatzen duen baldintza bat existitzen delako.

Sarrera aintzatesteko aktiboa aintzatesteko beharrezko irizpideak bete behar dira.

Pasibo bat aintzatetsi bada, hori baliogabetzen denean zergapeko egitatea egin delako edo baldintza asebete delako, pasiboari baja emango zaio eta sarrera aintzatetsiko da.

Kontraprestaziorik ez duten transakzioetatik datozen sarrerak aintzatesten diren unean aktibo garbiek duten igoeraren zenbatekoan balioetsiko dira.

3. Zergak.

Zergen kasuan, zergapeko egitatea gertatu eta aktiboa aintzatesteko irizpideak betetzen direnean aintzatetsiko dira sarrera eta aktiboa.

Zergak aurreko 2. atalean adierazitako irizpide orokorra kontuan hartuta kuantifikatuko dira. Zerga baten likidazioa zergapeko egitatea izan den ekitaldiaren ondorengo beste batean

gertatzen bada, eredu estatistikoak erabili ahal izango dira aktiboaren zenbatekoa zehazteko, betiere eredu horien fidagarritasun-maila handia bada.

Zerga-sarrera zenbateko gordina kontuan hartuta zehaztuko da. Zergadunei zerga-sistemaren bidez mozkinak ordaintzen bazaizkie, eta haiek beste egoera batean beste ordainbide bat erabiliz pagatuko balira, mozkinok gastuak dira, eta zein bere aldetik aintzatetsi behar dira, haien aurrekontu-egozpena alde batera utzi gabe. Sarrera, bestalde, zerga-sistemaren bidez ordaindutako gastu horietako edozeinen zenbatekoan handitu behar da.

Hala ere, zerga-sarrera ez da handitu behar zerga-gastuen (kenkarien) zenbatekoan, gastu horiek uko egiten zaien sarrerak direlako, eta ez dutelako eragiten baliabideak sartzeko edo ateratzeko inolako fluxurik.

4. Isunak eta diru-zigorrak.

Isunak eta diru-zigorrak zuzenbide publikoko sarrerak dira, kontraprestaziorik gabe eta nahitaez kendutakoak, ordenamendu juridikoko arauak urratzeagatik.

Sarrerok aintzatetsiko dira, nola biltzen direnean, hala zergapetzeko boterea duen erakundean kobratzeko eskubidea sortzen denean.

Dirua jaso behar duen erakundeak kobratzeko eskubide hori burutzeko titulu legal betearazlea duenean sortuko da kobratzeko eskubidea.

Isunen eta diru-zigorren kasuan, titulu betearazle hori ondoko kasuetan existituko da:

1. Horiek arautzen dituen legediak zehazten duenean zergapetze-egintzaren gauzatzea jaulkitzen den unean.

2. Horiek arautzen dituen legediak zehazten duenean zergapetze-egintzaren gauzatzea jaulki ondoren:

   a) Arau-hausleak zergapetzeko egintza erreklamatu ahal izateko legalki jarritako epea kasu bakoitzean igaro delako, erreklamaziorik egin gabe.

   b) Egintzaren aurretik arau-hausleak jar dezakeen azken errekurtso posiblean zergapetzeko ekintza baieztatzen duen erabakiaren ondorioz.

5. Transferentziak eta diru-laguntzak.

«Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotako balioespen-irizpideak aplikatuko dira sarrera mota hauentzat.

6. Ondasunen eta eskubideen erabilerarako doako lagapenak.

«Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk» 19. aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera tratatuko dira.

17. Hornidurak, aktiboak eta pasibo kontingenteak.

1. Hornidurak.

Aintzatespen- eta balioespen-arau hau ezarriko da, oro har, plan honetako beste aintzatespen- eta balioespen-arauren batean antzeko irizpideren bat ezartzen denean izan ezik. Ez dira aplikatuko, ezta ere, horniduren erregistrorako, baldin eta kalkulu aktuarialak beharrezkoak badira zehazteko, eta gizarte onura deitutakoei eragiten badiete.

1.1. Azalpena: Hornidura pasibo bat da, zenbateko eta mugaegun argiak ez dituena.

Erakundearentzako diruzko, legezko, kontratuzko edo inplizituzko obligazioak eragiten dituzten gertakarietan du jatorria pasiboak. Hala, erakundeari ez zaio dagokion zenbatekoa ordaindu beste aukerarik geratzen.

Obligazio inplizitua erakundearen beraren ekintzetatik eratorria da eta bertan:

a) Iraganean ezarritako jokaera-ereduaren, jabetza publikokoak ez diren gobernu-politiken edo modu nahiko zehatzean egindako aitorpenaren ondorioz, erakundeak hirugarrenen aurrean adierazi du erantzukizun mota jakin batzuk onartuko dituela; eta

b) ondorioz, erakundeak baliozko itxaropena sortu du hirugarrenen aurrean; alegia, konpromisoak eta erantzukizunak bete behar dituenekiko.

1.2. Aintzatespena: Hurrengo baldintza guztiak betetzen direnean aintzatetsiko da hornidura bat:

a) erakundeak obligazio bat du (legala, kontratuzkoa edo inplizitua) iraganean gertatu zen jazoeraren baten ondorioz;

b) obligazio hori ezeztatzeko litekeena da etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala dituzten hainbat baliabide gabe geratzea erakundea; eta

c) obligazioaren zenbatekoaren balioespen fidagarria egin daiteke.

Adierazi berri denaren aurrean ondokoa izan behar da kontuan:

Erakundearen etorkizuneko ekintzetatik independentea den iraganeko gertaeren ondorioz sortutako obligazioak soilik hartuko dira horniduratzat.

Ezin da gastuetarako hornidurarik aintzatetsi baldin eta gastuok gauzatu behar badira etorkizunean funtzionatu ahal izateko.

Berehala obligazio bat eragin ez duen gertakariak etorkizunean eragin dezake, aldaketa legalen edo erakundearen jokabideen ondorioz. Hala, aldaketa legaltzat hartuko dira araudia onartu dutenak, baina oraindik indarrean sartu ez direnak.

Baliabideak irtetea litekeena izango da gertatzeko aukera handiagoa dagoenean ez gertatzeko baino; hau da, etorkizunean gertaera bat jazotzeko aukera handiagoa dagoenean ez jazotzeko baino.

1.3. Hasierako balioespena: Horniduratzat aintzatetsitako zenbatekoak oraingo obligazioa ezeztatzeko edo hirugarren bati transferitzeko ordainketa-estimaziorik onena izan behar du.

Zenbatzeko ondoko gaiak izan behar dira kontuan:

a) Amaiera posible bakoitzaren balioespenen oinarria, hala nola haien eragin finantzarioarena, ondoko hauen arabera zehaztuko da: entitatearen gerentziaren iritzia; antzeko eragiketetan izandako esperientzia; eta adituen txostenak.

b) Horniduraren kopuruak obligazioa ezerezteko beharrezkoak izango direla espero den ordainketen uneko balioa izan behar du. Urtebete edo gutxiagoko epemuga duten hornidurak direnean eta eragin finantzarioa esanguratsua ez denean, ez da deskonturik egin beharko.

c) Hirugarrenek egin beharreko ordainketak: Erakundeak ziurtatua duenean hornidura kitatzeko behar duen kantitate osoa edo zati bat hirugarren batek ordainduko diola, ordainketa hori aktibo independentetzat hartuta aintzatetsiko

da, eta bere zenbatekoak ez du horniduran erregistratutakoa gainditukо. Era berean, hornidurarekin erlazionatutako gastua ordainketatzat hartutako sarreratik bereizitako partidatzat hartuko da. Kasu horretan, memoriako informazioan sartuko da, erlazionatuta dauden eta eragiketa bat hobeto ulertzeko balio duten partiden kasuan.

1.4. Geroko balioespena:

1.4.1. Ohar orokorrak: Hornidurak gutxienez ekitaldi bakoitzaren amaiera berrikusiko dira, eta beharrezkoa bada, doitu egingo dira une horretako balioespenik onena isla dezaten. Etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala txertatuta daramatzaten baliabideen irteera gertatzea litekeena ez bada, dagokion obligazioa ezeztatzeko, hornidura lehengoratu egingo da eta bere kontrapartida ekitaldiko sarreren kontu bat izango da.

Aurrekoa gorabehera, eta uneko balio bat adierazten dutenez gero, haien zenbatekoa, oro har, gastu finantzarioak adierazten dituzten kontuetan zordunduta eguneratuko da. Aplikatu beharreko deskontu-tasa antzeko mugaegun baterako zor publikoaren tasaren baliokidea izango da.

1.4.2. Ohar bereziak: Eraispenagatik, birgaitzeagatik edo antzeko zerbaitengatik dagoen pasibo batean gertatutako aldaketak, egutegian edo obligazioa likidatzeko baliabideen sarreraren zenbateko aintzatetsian gertatutako aldaketen ondorio edo deskontu-tasa aldatzearen ondorio badira, irizpide hauen arabera kontabilizatuko dira:

a) Aktiboa kostu-ereduaren arabera balioesten bada:

a.1) Pasiboko aldaketek kasuan kasuko aktiboaren kostua handitu edo txikitu egingo dute.

a.2) Aktiboaren kostutik kendutako zenbatekoak ez du haren kontabilitate-balioa gainditukо. Pasiboan gertatutako jaitsierak aktiboaren kontabilitate-balioaren zenbatekoa gainditzen badu, soberakina berehala aintzatetsiko da ekitaldiko emaitzan.

Aktiboa doitzearen ondorioz, oinarri amortizagarria aldatu egin beharko da, eta amortizazio-kuotak haren gainerako balio-bizitzan banatuko dira.

b) Aktiboa errebalorizazio-ereduaren arabera balioesten bada:

b.1) Pasiboaren aldaketek aurrez aintzatetsitako ondare garbiaren partida espezifikoa aldatzen dute, eta horrenbestez:

Pasiboaren gutxitzea ondare garbiaren partida espezifiko horretan zuzenean abonatuko da, ekitaldiaren emaitzan aurrez aintzatetsitako aktiboaren minorazio baten itzuleraren ondorioz sarrera bat kontabilizatu behar denean izan ezik.

Pasiboaren gehitzea ondare garbiaren partida espezifiko hori adierazten duen kontuaren aurka zordunduko da, une horretan dagoen saldo hartzekodunaren mugaraino. Aipatu saldoa ez bada nahikoa, aldea ekitaldiko emaitza moduan erregistratuko da.

b.2) Pasiboaren gutxitzea handiagoa bada aktiboa kostuaren ereduaren bidez kontabilizatuta aintzatetsiko zen kontabilitate-balioa baino, soberakina ekitaldiko sarrera moduan aintzatetsiko da.

b.3) Memorian informazioa emango da pasiboaren aldaketa baten ondorioz ondarearen partida espezifikoan gertatutako aldaketari buruz.

1.5. Horniduren aplikazioa: Hornidura bakoitza, hasieran aintzatetsi bezala, ordainketei aurre egitera bideratuko da bakar-bakarrik.

2. Aktibo kontingenteak.

2.1. Azalpena: Iraganeko gertakarien ondorioz sortutako aktibo posiblea da aktibo kontingentea. Erakundearen kontrolpean erabat ez dauden etorkizuneko gertaera zalantzako baten edo gehiagoren jazoerak, edo ez jazoerak, soilik baiezta dezake aktibo kontingente horren existentzia.

2.2. Eman beharreko informazioa. Aktibo kontingenteak ez dira balantzean aintzatetsiko, baina, horien berri emango da memorian baldin eta erakundean etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala sartzea litekeena bada.

Aktibo kontingenteen ebaluazio jarraitua egingo da.

3. Pasibo kontingenteak.

3.1. Azalpena: Pasibo kontingentea zera da:

a) Iraganeko gertakarien ondorioz sortutako obligazio posiblea. Erakundearen kontrolpean erabat ez dauden etorkizuneko gertaera zalantzako baten edo gehiagoren jazoerak, edo ez jazoerak, soilik baiezta dezake pasibo kontingentearen existentzia; edota

b) oraingo obligazioa, iraganeko gertaeren ondorioz sortutakoa, kontabilitatean aintzatetsi ez dena ondoko arrazoiengatik:

- Aukera gutxi daude erakundeak kitatu behar izateko eta etekin ekonomikoak edo zerbitzu-emateak dituzten baliabideak utzi behar izateko; edo.

- Obligazioaren zenbatekoa ezin da nahikoa fidagarritasunekin balioetsi.

3.2. Eman beharreko informazioa: Erakundeak ez du pasibo kontingenterik aintzatetsi behar balantzean. Hala ere, memorian emango da informazioa, etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala dituzten baliabideek irteeraren bat izateko aukera gutxi dutela ikusten denean izan ezik.

Pasibo kontingenteen ebaluazio jarraitua egingo da.

18. Transferentziak eta diru-laguntzak.

1. Azalpena.

Plan honen ondorioetarako soilik:

Transferentzien helburua da administrazio publikoko hainbat agenteren artean dirua edo espezieak banatzea, eta agente horiek beste erakunde publiko, pribatu edo partikular batzuei ematea, eta alderantziz. Jasotako diru edo espezieengatik onuradunek ez daukate kontrapartidarik eman beharrik, eta diru edo espezie horiek zehaztu gabeko eragiketak edo jarduerak finantzatzera bideratuko dituzte.

Diru-laguntzen helburua da administrazio publikoko hainbat agenteren artean dirua edo espezieak banatzea, eta agente horiek beste erakunde publiko, pribatu edo partikular

batzuei ematea, eta alderantziz. Jasotako diru edo espezieengatik onuradunek ez daukate kontrapartidarik eman beharrik eta diru edo espezie horiek zehaztutako helburuak, jarduerak edo proiektuak finantzatzera bideratuko dituzte. Onuradunak ezarritako baldintzak eta betekizunak bete behar ditu, eta kontrako kasuan, jasotako dirua edo espezieak itzuli beharko ditu.

Transferentzien eta diru-laguntzen onuradunaren ondare garbia hazi egiten da eta, aldi berean, emailearen ondare garbia jaitsi egiten da.

2. Aintzatespena

a) Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak

a.1) Diruzkoak: Emandako transferentziak eta diru-laguntzak gastu moduan kontabilizatuko dira haiek jasotzeko jarritako baldintzak bete direla seguru jakitean, inola ere baztertu gabe haien aurrekontu-egozpena, plan honen lehen zatian, kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruari buruzkoan, jasotako irizpideen arabera egingo baita.

Ekitaldia ixtean oraindik bete gabe badago haiek jasotzeko jarritako baldintzaren bat, baina zentzuzko dudarik ez badago etorkizunean bete egingo dela, hornidura bat egin beharko da kasuan kasuko zenbatekoengatik, gastua adierazteko.

a.2) Ez-monetarioak edo espezietan: Aktiboak entregatzen direnean, erakunde emaileak transferentzia edo diru-laguntza aintzatetsiko du onuradunari entregatzen zaion unean.

Beste erakunde batzuen zorrak hartu diren kasuan, zorra onartzen duen erakundeak emandako diru-laguntza aintzatetsi beharko du araua edo onarpen-akordioa indarrean sartzen den unean, eta eragiketa horren ondorioz sortutako pasiboa kontrapartidatzat hartuta erregistratuko du.

b) Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.

b.1) Jasotako transferentziak: Jasotako transferentziak aintzatesten diren ekitaldiko emaitzari egotz dakiokeen sarrera modura aintzatetsiko dira.

Diru-transferentziak aurrekontu-sarrera erregistratzearekin batera aintzatetsiko dira, plan honen lehen zatian kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruaz jasotako irizpideen arabera. Hala ere, lehenago aintzatetsi ahal izango dira, haiek jasotzeko jarritako baldintzak bete direnean.

Espezietan jasotako transferentziak ondasuna jasotzen denean aintzatetsiko dira.

b.2) Jasotako diru-laguntzak: Jasotako diru-laguntzak ez-itzulgarritzat joko dira eta erakunde onuradunak sarrera moduan aintzatetsiko ditu, baldin eta diru-laguntza emateko bana-banako akordioa badago erakunde horren alde, hura baliatzeko jarritako baldintzak bete badira, eta zentzuzko dudarik ez badago hura jasotzeaz, alde batera utzi gabe diru-laguntzen aurrekontu-egozpena, plan honen lehen zatian, kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruari buruzkoan, jasotako irizpideen arabera egingo baita. Gainerako kasuetan, jasotako diru-laguntzak itzulgarritzat hartuko dira, eta pasibo gisa aintzatetsiko.

Kontabilitate-erregistroaren ondorioetarako, diru-laguntza baliatzeari lotutako baldintzak bete direla ulertuko da hurrengo kasuetan:

- Diru-laguntza baliatzeari lotutako baldintzak betetzea ekitaldi batera baino gehiagora hedatzen denean, inbertsioa edo gastua egindakoan ulertuko da gertatu dela betetze hori, baldin eta eragindako ekitaldietako bakoitzeko urteko kontuak

egiteko garaian betetzen ari bada, eta ondorengo ekitaldiei eragingo dieten baldintzak betetzeari buruzko zentzuzko dudarik ez badago.

- Aktiboak eraikitzeko diru-laguntzen kasuan, diru-laguntzak baliatzeari lotutako baldintzek amaitzea eta funtzionatzeko moduan jartzea eskatzen dutenean, eta ekitaldi batean baino gehiagotan gauzatzen bada, baldintzak betetzen direla ulertuko da baldin eta urteko kontuak egiterako garaian beteko direlako arrazoizko zalantzarik ez badago. Kasu horretan, diru-laguntza ez da itzulgarria izango, egindako obrarekiko proportzioan.

Tratamendu hori bera aplikatuko zaie hainbat urtetan gauzatuko diren gastu korronteetarako diru-laguntzei, diruz lagundutako jarduerak amaitzeko eskatzen denean.

Diru-laguntza moduan espezietan jasotako aktiboen kasuan, onuradunak diru-laguntza sarrera edo pasibo moduan aintzatetsiko du jasotzen duen unean, zer dagokion.

Erakunde baten zorra beste erakunde batzuek hartzen dutenean, erakunde horrek jasotako diru-laguntza sarrera moduan aintzatetsi beharko du araua edo onarpen-akordioa indarrean sartzen den unean, bai eta horrekin batera jasotako pasiboaren baliogabetzea erregistratu ere.

Jasotako diru-laguntzak emaitzei egotzi beharko zaizkie, ondoko irizpideak kontuan izanez (diruzkoak direnei nahiz diru ez direnei edota espezietan ematen direnei aplikatuko zaizkie):

Jasotako diru-laguntzak, oro har, partida zehatz batean ondare garbiari zuzenean egotzitako sarreratzat hartuta kontabilizatuko dira. Oinarri sistematiko eta arrazionalaren gainean ekitaldiko emaitzari egotzi beharko zaizkio, diru-laguntza horretatik eratorritako gastuekin korrelazioan jarriz, eta horretarako lagapenean zehaztutako helburua izango da kontuan:

1. Gastuak finantzatzeko diru-laguntzak: Finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko sarrerei egotziko zaizkie.

2. Diru-laguntzak aktiboak eskuratzeagatik: Ekitaldi bakoitzaren emaitzari egotziko zaizkio, ondasunaren bizitza erabilgarriarekin proportzioan, aipatutako elementuen amortizazioa hornitzeko erabilitako metodo bera ezarriz, eta kasua izango balitz, inorenganatzen denean edo inbentarioan baja ematen denean.

3. Amortizagarriak ez diren aktiboen kasuan, sarrera gisa egotziko dira inorenganatzea edo inbentario-baja gertatzen den ekitaldian. Onuradunak diru-laguntzak baliatzeari loturiko baldintzak onuradun horrek funtsen aplikazio jakin batzuk (gastuak edo inbertsioak) egin behar dituela adierazten duenean, sarreratzat hartuta erregistratu ahalko dira funts horien aplikazioetatik eratorritako gastuak emaitzei egotzi ahala.

4. Diru-laguntzak pasiboak ezeztatzeagatik: Kitatzen diren ekitaldiko emaitzei egotziko zaizkie, ez baldin badira finantzaketa espezifiko bat egiteko emandakoak; izan ere, kasu horretan elementu finantzatuaren arabera egotziko dira.

3. Balioespena.

Diruzko izaera duten transferentziak eta diru-laguntzak emandako zenbatekoan balioetsiko ditu, bai erakunde emaileak, baita onuradunak ere.

Diruzko izaera ez duten transferentziak eta diru-laguntzak edo espezietan ematen direnak emandako elementuen kontabilitate-balioan balioetsiko dira erakunde emailearen kasuan, eta aintzatespenaren uneko arrazoizko balioan, berriz, onuradunaren kasuan, non eta ez den dagoen transferentzia edo diru-laguntza hezurmamitzen den ondare-elementuaren beste balioespen bat, beste aintzatespen- eta balioespen-arau baten arabera.

Zorrak onartu direlako jasotako diru-laguntzak zorraren kontabilitate-balioan balioetsiko dira, zor hori onartzen den unean.

Zorrak onartu direlako emandako diru-laguntzak zorraren arrazoizko balioan balioetsiko dira, zor hori onartzen den unean.

4. Erakunde publiko jabeek emandako transferentziak eta diru-laguntzak.

Erakunde-jabeak edo jabeek menpeko erakunde publiko baten alde ematen dituzten transferentzia eta diru-laguntzak aintzatespen- eta balioespen-arau honen aurreko ataletako irizpideen arabera kontabilizatuko dira.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaz aparte, hasierako ondare-ekarpen zuzena nahiz menpeko erakundeak onartu dituen konpetentzia berrien ondorioz gertatzen diren ondorengo hedapenak, inbertsiotzat hartuta, erakunde jabeak edo jabeek erregistratu beharko dituzte menpeko erakunde publiko onuradunen ondarean, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-araurekin bat etorriz, eta menpeko erakundeek ondare garbitzat hartuta balioetsiko dituzte, aintzatespen- eta balioespen-arau honen aurreko atalean adierazitako irizpideen arabera.

19. Ondasunen eta eskubideen erabilerarako doako esleipenak eta beste lagapen batzuk.

1. Azalpena.

Epigrafe honetan jasotako eragiketen bidez, doan transferitzen dira zenbait aktibo, erakunde hartzaileak xede edo helburu jakin baterako erabil ditzan. Horrenbestez, ondasunak edo eskubideak ez badira aurreikusitako helburua betetzeko erabiltzen, erakunde emaileari itzuliko zaizkio, dela aplikatu beharreko araudian jasotakoaren ondorioz, dela erakunde horien arteko akordio lotesle baten bidez.

Esleipenaren barruan sartzen dira erakunde publiko batek bere menpeko erakunde publikoei egindakoak nahiz erakunde publiko baten menpekoak diren erakunde publikoen artean egindakoak. Ondasunak eta eskubideak erabiltzeko doako lagapenei dagokienez, elkarren artean mendekotasun-loturarik ez duten eta erakunde publiko beraren mendeko ez diren bi erakunde publikoren artean egindakoak sartzen dira, bai eta erakunde publikoen eta pribatuen artean egindakoak ere.

2. Aintzatespena eta balioespena.

Eragiketa horiek ondasunen edo eskubideen erakunde onuradunean nahiz erakunde emailean erregistratu eta balioetsiko dira, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritakoaren arabera. Aurreikusitako helburua lortzeko ondasunaren edo eskubidearen erabileraren gainean dudak badaude, erakunde onuradunarentzat pasibotzat hartuko da eragiketa hori. Ondasun edo eskubide hori aurreikusitako helbururako erabiliko dela usteko da, urteko kontuak osatu beharreko unean hori bada haren erabilera. Ondasunaren esleipena edo lagapena bere bizitza ekonomikoak iraungo duena baino epe laburragokoa bada, utzitako ondasunaren erabilera-eskubidearen arrazoizko balioa duen ibilgetu ukiezina erregistratuko du erakunde onuradunak. Doako esleipena edo lagapena epe mugagabe baterako edo ondasunaren bizitza ekonomikoaren antzeko epe baterako bada, erakunde onuradunak bere aktiboan erregistratuko du jasotako elementua lagapenaren unean zuen izaeraren arabera eta arrazoizko balioan.

Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruan arrazoizko balioaz ezarritako irizpideen arabera zehaztutako beste baliorik izan ezean, atxikita edo lagata jasotako ondasun higiezinen balioespena Foru Ogasunak, ondare-transmisioen zerga-ondorioetarako, esleitzen dien balioa kontuan hartuta egin ahal izango da.

Azkenik, erakunde publiko batek mendeko erakundeei ondasunak esleitzen badizkie, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18 balioespen-arauaren 4. idatz-zatian jasotakoa haiei aplikatzeko ondorioetarako, ulertuko da esleitutako ondasunak hasierako ondare-ekarpen bat direla mendeko erakundearentzat, edo, bestela, haren handitzea, mendeko erakunde horrek eskumen berriak bere egiteak eragindakoa.

20. Baterako jarduerak.

1. Azalpena.

   Baterako jarduera akordioa bat da, eta horren bitartez, bi erakunde partaidek edo gehiagok batera kudeatzen den jarduera ekonomikoa hasten dute. Etekin ekonomikoak edo zerbitzu potentziala lortzeko helburuarekin jarduera horren politika finantzarioa eta operatiboa zuzentzeko ahalmena partekatzea adierazten du horrek. Hala, erabaki estrategikoek, izaera finantzarioa nahiz operatiboa dutenek, partaide guztien adostasuna behar dute.

2. Baterako jardueren mailak.

   Ondoko baterako jarduera hauek bereizten dira, arau honen ondorioetarako:

   a) Pertsona juridiko independentea eratzerik behar ez duten baterako jarduerak: Batera kontrolatutako jarduerak dira. Partaideak titularrak diren aktiboen eta beste baliabide batzuen erabilera barne hartzen dute, edo soilik partaideek kontrol partekatua izatea (eta sarritan baita jabetza partekatua ere) baterako jardueraren helburuak betetzeko emandako edo eskuratutako aktibo baten edo gehiagoren gainean.

   b) Pertsona juridiko independentea eratzeko beharra duten baterako jarduerak:

   Batera kontrolatutako erakundeak dira. Talde anitzeko erakunde -«Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan aipatzen da- ere deitzen zaie.

3. Erakunde berri bat eraikitzerik behar ez duten baterako jarduerak

   a) Euren izaeraren arabera sailkatuta, erakunde bakoitzak ondokoa aintzatetsiko du bere urteko kontuetan:

      - partaidetza-ehunekoaren arabera, beste partaideekin batera kontrolatzen dituen aktiboetatik eta baterako pasiboetatik proportzioan tokatzen zaion zatia, bai eta batera aurrera eramandako jarduerari loturiko aktiboak -modu indibidualean kontrolatzen direnak- eta baterako jardueraren ondorioz indibidualki irabazitako pasiboak ere, eta.

      - baterako jardueratik sortutako sarreretatik eta egindako gastuetatik proportzioan tokatzen zaion zatia nahiz baterako jardueran parte hartzearen ondorioz indibidualki egindako gastuak.

      Aktiboak, pasiboak, sarrerak eta gastuak aintzatesteko eta balioesteko, dagokien aintzatespen- eta balioespen-arauan aurreikusitako irizpideak ezarriko dira.

   b) Partaide baten eta baterako jardueren arteko transakzioak.

      Partaideak baterako jarduerari aktiboak eman edo saltzen dizkionean, transakzioetatik eratorritako emaitza ekonomikoen edozer zatiren aintzatespenak bere funts ekonomikoa islatuko du.

      Baterako jarduerak lagatako aktiboak mantentzen dituen artean eta partaideak jabetzari atxikitako arriskuak eta abantailak transferitu dituen artean, partaide honek gainerako partaideen inbertsioei egozteko modukoak diren emaitza ekonomikoak soilik aintzatetsiko ditu.

      Transferitutako ondasunen balioaren narriadura edo aktibo korronteen balio bihurgarri garbiaren beherapena agerikoa denean, partaideak edozer emaitza negatiboren zenbateko osoa aintzatetsiko du.

      Partaide batek baterako jardueratik eratorritako aktiboak erosten dituenean, ez du zati proportzionala transakzioari dagokion baterako jardueraren emaitza positiboan edo

negatiboan aintzatetsi behar aktiboak hirugarren independente bati berriz saldu arte, non eta emaitza negatiboek ez duten adierazten aktibo korronteen balio bihurgarriaren murrizketa edo transferitutako ondasunen balioaren narriadura; horiek berehala aintzatetsiko dira.

4. Batera kontrolatutako erakundeak.

Partaideak batera kontrolatutako erakunde bateko dagokion partaidetza erregistratuko du, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen gainean jasotakoaren arabera.

21. Kontabilitate-irizpideen eta -estimazioen aldaketak eta erroreak.

1. Kontabilitate-irizpideen aldaketak.

Kontabilitate-irizpideak alda daitezke, dela borondatezko erabaki (behar den bezala justifikatuta, eta informazio hobea lortzea ekarriko duena) baten ondorioz, dela arau batek behartzen duelako.

a) Kontabilitate-irizpidea borondatez aldatzea.

Uniformetasun-irizpidea dela- eta, kontabilitate-irizpideak ezingo dira ekitaldi batetik bestera aldatu, memorian azaldu eta justifikatuko diren kasu berezietan izan ezik, eta beti Kontabilitate Publikoko Plan Orokor honetan onartutako irizpideen barruan. Balizko kasu hauetan, informazioa dagoen ekitaldirik antzinakoenetik hasita, aldaketa atzeraeraginezkoa izango da. Irizpide-aldaketa baten ondorio diren ekitaldiaren hasieran kalkulatutako aktiboen eta pasiboen aldaketen eragin metatua ondare garbian sartu behar da, irizpide-aldaketen ondorioz gertatutako doikuntzatzat hartuta. Zuzenketa honek konparaziozko informazioan dagokion doikuntza eragingo du, egingarria ez denean salbu.

Ekitaldiaren hasieran doikuntzen eragin metatua arrazoiz zehaztea posible ez denean, kontabilitate-irizpide prospektiboa ezarriko da.

b) Araudiak behartuta kontabilitate-irizpidea aldatzea.

Transakzio edo gertaera baten trataera erregulatzen duen arau bat onartzearen ondoriozko kontabilitate-irizpidearen aldaketa arauan bertan ezartzen diren xedapen iragankorren arabera tratatu behar da. Xedapen iragankor horiek ezean, trataera aurreko a) puntuan ezarritako berbera izango da.

2. Kontabilitate-estimazioen aldaketak.

Balioesteko estimazioak egitea behar duten eta gertaera berriari buruzko informazio osagarria, esperientzia handiagoa edo ezagutza lortzearen ondorio diren partiden aldaketak ez dira kontabilitate-irizpideen aldaketatzat edo erroretzat hartu behar, aurreko paragrafoan adierazitako ondorioetarako.

Kontabilitate-irizpidearen eta kontabilitate-estimazioaren aldaketaren artean bereiztea zaila denean, kontabilitate-estimazioaren aldaketatzat hartuko da.

Kontabilitate-estimazio baten aldaketaren eragina era prospektiboan kontabilizatuko da, eta eragiketaren izaeraren arabera, aldaketa gertatzen den ekitaldiko emaitzari eragingo dio, edo zuzenean ondare garbiari berari. Etorkizuneko ekitaldietan izan lezakeen eragina, ekitaldi bakoitzean egotziko da.

3. Erroreak.

Erakundeek urteko kontuak egingo dituzte, eta horiek formulatu aurretik agertutako erroreak zuzenduko dizute.

Urteko kontuak egitean, aurreko ekitaldietako erroreak ager daitezke; horiek informazio fidagarria -eskuragarri zegoen aldi horietarako urteko kontuak formulatu zirenean, eta erakundeak erabili behar zuen egoera horiek osatzeko- erabili eta sortutako akatsen ondoriozko ez-egiteen edo zehaztasun ezen ondorio dira.

Garrantzi erlatiboa duten eta aurreko ekitaldiei dagozkien erroreak aintzatespen- eta balioespen-arau honen 1. atalean jasotako araua berak ezarriz zuzenduko dira.

Aurreko ekitaldietako erroreak ezingo dira inolaz ere zuzendu agerian geratzen diren ekitaldiko emaitzari eraginez, garrantzi erlatiborik ez dutenean izan ezik edo errore horren eragina zehaztea ezinezkoa denean izan ezik.

22. Ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerak.

Ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerek ekitaldi-itxieran bazeuden egoerak azaleratzen badituzte, kontuan hartu beharko dira urteko kontuak prestatzeko edo, kasua denean, birformulatzeko, eta betiere organo eskudunak onartu aurretik. Itxiera ondoko gertaera horiek direla- eta, duten izaeraren arabera, doikuntza bat egin beharko da, memorian informazioa eman beharko da, edo biak.

Ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerek ekitaldi-itxieran ez zeuden egoerak azaleratzen badituzte, ez dute behartuko urteko kontuetan doikuntzarik egitera. Hala ere, gertaerak garrantzitsuak direnean eta gertaera horien berri ez emateak erabiltzaileen gaitasuna murrizten badu urteko kontuak ebaluatzeko, memorian geroko gertaeren izaerari buruzko informazioa eman beharko da, bai eta ondorioen estimazioa edo, bestela, estimazioa egin ezinaren azalpena ere.

Edonola ere, gestio jarraituaren irizpidea ezartzeari eragiten dion ondorengo gertaerei buruzko informazioa eman beharko da.

HIRUGARREN ZATIA.
Urteko kontuak.

1. Urteko kontuak prestatzeko arauak.

1. Urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak.

   Urteko kontuek ondokoa hartzen dute barne: balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta memoria. Dokumentu horiek batasun bat osatzen dute, argitasunez idatzi behar dira, eta ondarearen, egoera finantzarioaren, ondarearen emaitza ekonomikoaren eta erakundearen aurrekontuaren gauzatzearen irudi fidela erakutsi behar dute, kontu-plan honekin bat etorriz.

2. Urteko kontuen formulazioa.

   1. Indarreko legediak ezarritako epean formulatu beharko ditu entitateak urteko kontuak.

   2. Urteko kontuak egutegiko urteari buruzkoak izango dira, entitatea desegiten edo sortzen denean izan ezik. Erakunde bat desegiten denean, urteko kontuek urtarrilaren 1etik desegiten den egunera arte doan epea hartuko dute kontuan; erakunde bat sortzen denean, berriz, urteko kontuek sortzen den unetik abenduaren 31ra arte doan epea hartuko dute kontuan.

   3. Balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta memoria behar den bezala identifikatu behar dira, eta dokumentuetako bakoitzean argi adierazi behar dira dokumentuaren izena, zer erakundetakoa den eta zer ekitalditakoa.

4. Urteko kontuak balioak eurotan adierazita egingo dira.

3. Urteko kontuen egitura.

   Entitateen urteko kontuek kontu-plan honetan ezarritako ereduetara egokitu beharko dute.

4. Taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak.

   Urteko kontuak aurkezteko, taldeko erakundea, talde anitzeko erakundea eta erakunde elkartua kontzeptuak Bizkaiko toki-sektore publikoan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetan zehaztutakoak izango dira.

5. Balantzeari, ondare ekonomikoaren emaitza ekonomikoaren kontuari, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriari eta diru-fluxuen egoera-orriari buruzko arau komunak.

   Urteko kontuak osatzen dituzten egoera-orri bakoitzaren arau berezietan ezarritakoaren kalterik gabe, balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria ondoko arauak kontuan izanik adieraziko dira:

   1. Partida bakoitzean, ixten den ekitaldiko zifrak ez ezik, aurreko ekitaldiko zifrak ere azaldu beharko dira, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren lehen zatian izan ezik. Ondore hauetarako, ekitaldi bateko zifrak eta aurreko ekitaldikoak konparagarriak ez direnean, egituran aldaketaren bat egin delako, edo kontabilitate-irizpideren bat aldatu delako edo erroreak zuzendu direlako edo administrazioan berrantolaketaren bat egin delako, aurreko ekitaldiko zenbatekoak egokitu beharko dira, urteko kontuei dagokien ekitaldiko zifrekin batera aurkezteko, eta horren berri eman beharko da xehetasunez memorian.

   2. Ekitaldi batetik bestera ezingo dira aldatu erregistro- eta balioespen-irizpideak, memorian adieraziko eta justifikatuko diren kasu berezietan izan ezik.

   3. Ekitaldian eta aurreko ekitaldian zenbatekorik ez duten partidak ez dira urteko kontuetan sartuko.

   4. Behar denean, partida bakoitzak informazioaren erreferentzia gurutzatua izango du dagokion memoriaren barruan.

6. Balantzea.

   Balantzean erakundearen aktiboa, pasiboa eta ondare garbia sartzen dira, behar den bezala bereizita, eta arau hauek betez formulatuko da:

   1. Partida korronteen eta ez-korronteen arteko sailkapena irizpide hauen arabera egingo da:

      a) Aktibo bat aktibo korrontetzat hartuko da hurrengo kasuetan:

         a.1) Epe motzean egitea espero denean, hau da, urteko kontuen datatik abiatuta hamabi hilabeteko epean, edo

         a.2) Dirua edo antzeko beste baliabide likidoren bat denean.

         a.3) Gainerako aktibo guztiak ez-korronteak izango dira.

      b) Pasibo bat pasibo korrontea izango da epe motzean likidatuko denean, hau da, urteko kontuen datatik hasita hamabi hilabeteko epearen barruan.

      c) Gainerako pasibo guztiak ez-korronteak izango dira.

2. Narriaduragatik egindako balio-zuzenketek eta amortizazio metatuek ondare-elementua jasotzen duen aktiboko partida txikiagotuko dute.

3. Partaidetzei lotuta dauden gauzatu gabeko ordainketek kasuan kasuko inbertsio finantzarioa agertzen den aktiboko partida murriztuko dute.

4. Aktiboaren «Ibilgetu materiala» A.II epigrafearen «Ondare historikoaren ondasunak» 4. partidak izaera honetako ondasun guztiak barne hartuko ditu, erakundeak erabiltzen dituen edo ez.

5. Aktiboko «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» B.III epigrafeko «Zordunak gestio-eragiketengatik» 1 partidak aurrekontu-zordun guztiak hartuko ditu barruan, hauek izan ezik: «Ondare-sarrerak» 5. kapituluko finantzarioak, inbertsio errealak inorenganatzeari buruzko 6. kapitulukoak eta aktibo eta pasibo finantzarioei buruzko 8. eta 9. kapituluetakoak, hurrenez hurren. Aurrekontuzkoak ez diren zordunak ere jasoko dira, epemugan partida horretan sartutako aurrekontu-zordun bihurtzen badira.

   Nolanahi ere, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo erositako aktiboetatik eratorritako aurrekontu-zordunak eta aurrezkontuzkoak ez direnak partida horretan sartuko dira.

6. Aktiboko «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» B.III epigrafeko «Kobratu beharreko beste kontu batzuk» 2. partidak «Pasibo finantzarioak» 9. kapitulutik eratorritako aurrekontu-zordunak bilduko ditu, arau hauen arabera balantzeko beste partida batzuetan egon behar ez duten eta aurrekontuzkoak ez diren zordunez gain.

7. Aktiboko «Zordunak eta epe luzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» A.VII epigrafeak epemuga urtebete baino gehiagora duten aktiboko B.III epigrafeko kontu zordunak bilduko ditu.

8. Aktiboko «Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» B.IV epigrafeak eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» B.V epigrafeak «Aktibo finantzarioak» 8. kapitulutik eratorritako aktibo finantzarioak eta «Ondare-sarrerak» 5. kapituluko sarrera finantzarioetatik eratorritakoak nahiz «Inbertsio errealak inorenganatzea» 6. kapitulutik eratorritakoak bilduko dituzte, baldin eta beste erakunde batzuentzat eraikitako edo erositako aktiboei buruzkoak ez badira, mugaeguneratuta dauden ala ez kontuan hartu gabe, eta, beraz, aurrekontu-zordunen kontuetan edo aurrezkontuzkoak ez direnetan sailkatuta dauden ala ez kontuan hartu gabe.

   Epigrafe horietan, halaber, aurrezkontuzkoak ez diren diruzaintzako zordunen kontuetan sailkatuta dauden aipatutakoen antzeko aktibo finantzarioak ere sartuko dira.

9. «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18 aintzatespen- eta balioespen-arauan jasotakoaren arabera, emaitzei egozteko zain dauden diru-laguntzak «Emaitzei egozteko dauden jasotako diru-laguntzak» pasiboko A.IV epigrafean erregistratuko dira.

10. Pasiboko «Epe motzeko zorrak» C.II epigrafeak eta «Epe motzeko zorrak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» C.III epigrafeak «Pasibo finantzarioak» 9. kapitulutik eratorritako pasibo finantzarioak eta «Gastu finantzarioak» 3. kapitulutik eratorritakoak nahiz «Inbertsio errealak» 6. kapitulutik eratorritakoak bilduko dituzte, baldin eta beste erakunde batzuentzat eraikitako edo erositako aktiboei buruzkoak ez badira, mugaeguneratuta dauden ala ez kontuan hartu gabe, eta, beraz, aurrekontu-hartzekodunen kontuetan edo aurrezkontuzkoak ez direnetan sailkatuta dauden ala ez kontuan hartu gabe. Epigrafe horietan, halaber, aurrezkontuzkoak ez diren diruzaintzako hartzekodunen kontuetan sailkatuta dauden aipatutakoen antzeko pasibo finantzarioak ere sartuko dira.

11. Pasiboko «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko beste kontu batzuk» C.IV epigrafeko «Hartzekodunak gestio-eragiketengatik» 1 partidak aurrekontu-hartzekodun guztiak hartuko ditu barruan, «Gastu finantzarioak» 3. kapituluari, «Inbertsio errealak» 6. kapituluari eta, hurrenez hurren, aktibo eta pasibo finantzarioei buruzko 8. eta 9. kapituluei dagozkienak izan ezik. Aurrekontuzkoak ez diren hartzekodunak ere jasoko dira, epemugan partida horretan sartutako aurrekontu-hartzekodun bihurtzen badira.

    Nolanahi ere, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo erositako aktiboetatik eratorritako aurrekontu-hartzekodunak eta aurrezkontuzkoak ez direnak partida horretan sartuko dira.

12. Pasiboko «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» C.IV epigrafeko «Ordaindu beharreko beste kontu batzuk» 2. partidak «Aktibo finantzarioak» 8. kapitulutik eratorritako aurrekontu-hartzekodunak hartuko ditu barruan, arau hauen arabera balantzeko beste partida batzuetan egon behar ez duten eta aurrekontuzkoak ez diren hartzekodunekin batera.

13. Pasiboko «Hartzekodunak eta epe luzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» B.IV epigrafeak epemuga urtebete baino gehiagora duten pasiboko C.IV epigrafeko kontu hartzekodunak bilduko ditu.

14. Aurreko ekitaldiari dagokion zutabean errore material baten zuzenketa edo irizpide aldaketa berradierazi ezin denean, memorian azaldu beharko da.

7. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua.

Kontu honek ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoa jasotzen du. Sarrerak eta gastuak hartzen ditu kontuan, aintzatespen- eta balioespen-arauetan ezarritakoaren arabera zuzenean ondare garbira egotzi beharrekoak izan ezik. Ondarearen emaitza ekonomikoa formulatzean kontuan izan behar da:

1. Sarrerak eta gastuak bakoitzaren izaera ekonomikoaren arabera sailkatuko dira.

2. Zerga- eta hirigintza-sarrerei, salmentei, zerbitzu-emateei eta kudeaketa arrunteko beste sarrerei dagokien zenbatekoa ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan adieraziko da, zenbateko garbian.

3. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak ondarearen emaitza ekonomikoan egotziko dira, aintzatespen- eta balioespen-arau egokiaren arabera, eta partida hauetan jasoko dira:

    a) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako diru-laguntzak, transferentziak nahiz ondare-elementu baten finantzaketa espezifikorik behar ez duten pasiboak kitatzeko jasotako diru-laguntzak «Ekitalditik jasotako transferentziak eta diru-laguntzak» 2.a) partidan azalduko dira.

    b) Aktibo ez-korronte amortizagarriak (materialak, ukiezinak, ondasun higiezinetako inbertsioak eta lurzoruaren ondare publikoa) finantzatzeko jasotako diru-laguntzak, aurrekoen ondare-elementu bat berariaz finantzatzea dakarren pasibo bat ezeztatzeko jasotakoak eta korronteak eta amortizagarriak ez diren eta funts-aplikazio jakin batzuk egitea eskatzen duten aktiboak finantzatzeko jasotakoak «Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak. Diru-laguntzak egoztea ibilgetu ez-finantzariorako» 2.b partidan agertuko dira.

    c) Urte askoan betearazteko gastu korronteak edo beste erakunde batzuentzat eraikitakoak edo eskuratutakoak ez bezalako aktibo korronteak finantzatzeko jasotako diru-laguntzak «Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak. Aktibo korronteetarako eta beste batzuetarako diru-laguntzen egoztea» 2.c partidan adieraziko dira.

d) Aurreko b) idatz-zatian aipatutako aktiboak inorenganatzen badira, edo baja ematen bazaie, haiek finantzatzeko jasotako diru-laguntzak, emaitzetan egotzi gabe egonez gero, «Balio-narriadura eta emaitzak ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak inorenganatzeagatik. Ibilgetu ez-finantzariorako diru-laguntzen egozpena» 13.c) partidan adieraziko dira. Partida horretan bertan agertuko dira korronteak eta amortizagarriak ez diren aktiboak eta salgai daudenak finantzatzeko jasotako diru-laguntzak.

e) Diru-laguntzak gastu edo aktibo finantzario bat finantzatzen badu, dagokion sarrera «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak» 21 partidan sartuko da.

4. Erakunde batek beste erakunde batzuentzat aktiboak eraikitzeko edo eskuratzeko kontratuak edo akordioak egiten dituenean, horietatik eratorriko sarrerak «Salmentak eta zerbitzu-emateak. Beste erakunde batzuentzat eskuratutako edo eraikitako aktiboen ondoriozko sarreren egoztea» 3.c) partidan sartuko dira. «Beste erakunde batzuentzat eskuratutako edo eraikitako aktiboak» 12. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, inbertsio horietatik eratorritako sarreren balioespena egiteko maila erabili ezin denean, izakinen aldaketa «Amaitutako nahiz amaitze bidean dauden produktuen izakinen aldaketa eta balioaren narriadura» 4. partidan sartuko da.

5. «Gehiegizko hornidurak» 7. partidak eragiketa hauek jasotzen ditu. Horniduren zuzkidura eta hazkundeak, berriz, euren izaeraren arabera dagokien gastuen partidan sartuko dira.

6. Salgai dauden aktiboak saltzearen ondoriozko emaitzak, hala nola ondasun higiezinetako inbertsioak edo lurraren ondare publikokoak inorenganatzeak eragindakoak, «Balio-narriadura eta emaitzak ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak inorenganatzeagatik. Bajak eta inorenganatzeak» 13.b partidan adieraziko dira.

7. Estaldura-tresnen ondorioz sortutako sarrerak eta gastuak, aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritakoaren arabera, ondarearen emaitza ekonomikoari egotzi behar direnean, estalitako partidak sortzen dituen gastuen edo sarreren partidan agertuko dira, eta horren berri emango da memorian.

   Baldin eta «Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6645 azpikontuan eta «Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan» 7645 azpikontuan aurreikusitako sail-konturik ez duten estaldurak badaude, erakundeak azpikontu horien beharrezko sail-kontuak prestatuko ditu, eta haiek estalitako partidari dagokion ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuko epigrafean agertuko dira, aurreko lerrokadan aurreikusitakoa betetzeko.

8. Erakundearen ohiko jardueratik nahiz haren kontroletik kanpo sortutako emaitzak, jasandako isunak edo zigorrak esaterako, «Ez ohiko beste partida batzuk» 14. partidan sartuko dira, eta horren berri emango da memorian.

9. «Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk» izeneko balantzearen epigrafean txertatutako eta kobratu beharreko eskubideen narriadura «Aktibo eta pasibo finantzarioen balioaren narriadura, bajak eta inorenganatzeak» 20. partidan islatuko da.

10. «+ Doikuntzak aurreko ekitaldiko emaitzaren kontuan» lerroak aurreko ekitaldiko emaitzan gertatutako hutsegite material edo irizpide-aldaketa baten ondorio diren eta behin betiko kontzeptuen arabera erregistratu ezin daitezkeen doikuntzak jasoko ditu, eta zenbatekoa (positiboa edo negatiboa) baino ez du onartuko kontuen erreferentziazko ekitaldiaren aurrekoari dagokion zutabean. «Aurreko ekitaldiko emaitza doitua» azken lerroari dagokion zutabe horren beraren zenbatekoa lortzeko hauek batuko dira: «+ Doikuntzak aurreko ekitaldiko emaitzaren kontuan» lerroko zenbatekoa eta «IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia)» lerroko zenbatekoa.

11. Saldo hartzekoduna duten kontuen zenbatekoak zeinu positiboa izango du, eta saldo zorduna duten kontuenak, berriz, negatiboa.

8. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.

Ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak hiru zati ditu:

1. Ondare garbiaren aldaketa guztien egoera-orria.

2. Aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orria.

3. Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako eragiketen egoera-orria.

Urteko kontuen ereduan agertzen den egitura izango dute egoera-orri horiek.

Egoera-orri horien partidei buruzko informazioa memorian ematerakoan, esanguratsua denean, partida bakoitzean sartutako zenbateko gordinak izango dira kontuan zenbateko garbien ordez, zeinu ezberdina duten zenbatekoak txertatutako partiden kasuan.

1. Lehengo zatian, «Ondare garbiaren aldaketa guztien egoera-orria» deiturikoan, ondare garbian gertatu diren aldaketa guztien berri ematen da eta ondokoak bereizten dira:

   - Kontabilitate-irizpideen aldaketen ondorioz ondare garbian gertatu diren doikuntzak eta erroreen zuzenketak.

   - Ekitaldian aintzatetsitako sarrerak eta gastuak.

   - Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako ondare-eragiketak, haiek direnaren arabera jokatuz gero.

   - Ondare garbian gertatzen diren beste aldaketa batzuk.

2. Bigarren zatian, «Aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orria» deiturikoan, ondare garbian kontzeptu hauetatik sortutako aldaketak jasotzen dira:

   - Ondarearen emaitza ekonomikoa.

   - Zuzenean ondare garbian aintzatetsitako sarrerak eta gastuak, sarrerak gastuetatik bereiziz.

   - Zuzenean ondare garbian aintzatetsitako sarrera eta gastuak ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partidaren hasierako baliora transferitzea.

   Egoera-orri horrek «Ondare garbiaren aldaketa guztien egoera-orria»-ren D.1 epigrafea garatzen du.

   Ixten den ekitaldiaren aurrekoari dagokion zutabean doitutako zenbatekoak agertuko dira, hau da, ekitaldi horretako zenbatekoak zuzenduta, hala balitz, irizpide-aldaketen eta errore-zuzenketen ondorioz egindako doikuntzak direla- eta.

   Zuzenean ondare garbian aintzatetsitako gastuen partidak zeinu negatiboarekin agertuko dira.

   «Jasotako diru-laguntzak» II.4 partidak zeinu positiboa edo negatiboa izan ahal izango du, ondare garbira egotzitako diru-laguntzak jasotzen baititu, bai eta haien itzulketak ere, oraindik guztiz egotzi ez badira ondarearen emaitza ekonomikora.

«Ondarearen emaitza ekonomikora edo estalitako partidaren hasierako baliora transferentziak» III. epigrafeko partidetan, sarreren transferentziek gastuen transferentziak gainditzen badituzte, haien zenbateko garbia zeinu negatiboarekin azalduko da, eta kontrako kasuan, zeinu positiboarekin.

Edonola ere, erakundearen kontabilitate-erregistroetan zenbateko gordinaren arabera agertu beharko dute ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo hasierako baliora transferitutako zenbatekoek, kontu-plan jasotakoaren arabera.

3 Hirugarren zatian, «Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako eragiketen egoera-orria» deiturikoan, bi eratako informazioa aurkeztuko da:

3.a) Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako ondare-eragiketak. Informazio hori «Ondare garbiaren aldaketa guztien egoera-orria»-ren D.2 epigrafearen garapena da.

3.b) Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako beste eragiketa batzuk, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan zuzenean aintzatetsitako gastuak eta sarrerak eta ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastuak eta sarrerak bereiziz.

Ixten den ekitaldiaren aurrekoari dagokion zutabean doitutako zenbatekoak agertuko dira, hau da, ekitaldi horretako zenbatekoak zuzenduta, hala balitz, irizpide-aldaketen errore-zuzenketen eta ondorioz egindako doikuntzak direla- eta.

Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako ondare-eragiketei buruzko informazioari helduta, «Ondarearen diruzko ekarpenak» 1. partidan eta «Ondasunen eta eskubideen ekarpenak» 2. partidan sartuko dira erakunde jabearen edo jabeen ekarpenak, izan ondarearen hasierako ekarpen zuzen moduan, izan erakunde kontulariak eskuduntza berriak hartzearen ondorioz sortutako ondorengo handitze moduan.

«Pasibo finantzarioen onarpena eta barkatzea» 3. partidan erakunde kontulariaren pasibo finantzarioen onarpenaren edo barkatzearen bidez erakunde jabeak edo jabeek egindako ekarpenak sartuko dira.

«Ondasunen eta eskubideen itzulpena» 5. partidan erakunde jabeari edo jabeei egindako ondasunen eta eskubideen itzulpenak sartuko dira, adibidez, esleitutako eskubideen eta ondasunen lehengoratzea.

9 Diru-fluxuen egoera-orria.

Diru-fluxuen egoera-orriak dirua adierazten duten aktiboen partida monetarioetan eta beste aktibo likido baliokidetan izan diren aldaketen jatorriaren eta helburuaren berri ematen du, eta ekitaldi horretan izan duten aldakuntza erakusten du.

Dirutzat eta aktibo likido baliokidetzat hartzen dira balantzearen aktiboaren B.VII epigrafean hala agertzen direnak, hau da, erakundearen kutxan sartutako altxortegia eta ageriko banku-gordailuak; barne hartuko ditu eskuratzen diren unean epemuga hiru hilabetekoa baino gehiagokoa ez duten eta diru erraz bihur daitezkeen aktibo finantzarioak, beti ere, balioaren aldaketak egoteko arrisku esanguratsurik ez dagoenean eta erakundearen altxortegiaren gestio arruntaren politikaren parte direnean.

Diruaren eta aktibo likido baliokideen mugimenduak diru-fluxuaren egoera-orrian erakusten dira, jarduera motaren arabera taldekatuta. Ez dira diru-fluxuaren egoera-orrian sartzen eskuratzeagatiko ordainketak, ezta diruaren baliokideak diren aktibo likidotzat hartutako aktibo finantzarioen amortizazioagatiko edo amaitzeagatiko kobrantzak ere. Altxortegiaren barneko mugimenduak ere ez dira jasoko.

Diru-fluxuaren egoera-orriaren multzoak ondoko hauek dira:

I Dirua sortzen duten iturri nagusiak gestio jardueren diru-fluxuak dira, eta batez ere, erakundeak gestio arruntaren emaitzaren zehazterakoan esku hartzen duten transakzioek eragindakoak. Hor sartzen dira inbertsioko edo finantziazioko mailetan sailkatu behar ez direnak ere.

Fluxu horien parte dira erakundearen pasibo finantzarioek eragindako Interes-ordainketak nahiz erakundearen aktibo finantzarioak izateak eragiten dituen interesen eta dibidenduen kobrantzak.

II Inbertsio-jardueren diru-fluxuak jatorria epe motzeko nahiz luzeko inbertsio finantzarioetan (diruaren baliokide diren aktibo likidotzat hartzen ez direnetan) eta ibilgetu ez-finantzarioko elementuen eskuratzean duten ordainketak dira, baita mugaegunean duen amortizaziotik edo inorenganatzetik datozen kobrantzak ere.

Fluxu hauen parte dira, halaber, salgai dauden aktiboen salmentatik eratorritako kobrantzak, hala nola ibilgetu ez-finantzarioa erosteagatik -zeinaren ordainketa atzeratzen den- egindako ordainketa guztiak, eta errentamendu finantzariotik eratorritakoak.

III Finantzaketa-jardueren diru-fluxuek ondokoa hartzen dute barne: hirugarrenek erakundeak jaulkitako titulu balioak edo erakunde finantzarioek edo hirugarrenek emandako baliabideak erosi dituztelako sortutako kobrantzak (mailegu edo bestelako finantzazio-tresna gisara), eta erakunde jabearen edo jabeen ondareari egindako ekarpenei dagozkienak. Barne hartzen dituzte, era berean, aurreko finantziazio-tresnak amortizatzeagatik edo itzultzeagatik egindako ordainketak eta erakunde jabeari edo jabeei emaitzak banatzeagatik egindako ordainketak.

IV Sailkatzeko dauden diru-fluxuek diru-fluxuen egoera-orria egiterakoan jatorri ezezaguna duten kobrantzak eta ordainketak jasotzen dituzte.

«Funtsen hornidura justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako» 558 kontuaren saldoa multzo honetako ordainketen artean egongo da, ezin bada sailkatu aurreko hiru multzoetako batean.

V Kanbio-tasen aldaketen eragina. Denboraldiaren hasieran eta amaieran dauden diru-izakinen arteko kontziliazioa ahalbidetze aldera, kanbio-tasen aldaketek diruaren eta atzerri-moneta izendapena duten beste aktibo likido baliokide batzuen gainean duten eragina jasotzen da atal honetan. Euren balioa (eurotan) kanbio-tasari abenduaren 31n dagokiona izango da.

Diru-fluxuen egoera-orria egiterakoan, hurrengo hau ere kontuan izan behar da:

1. Diru-fluxuen egoera-orriaren ordainketak garbian erakutsiko dira itzuli direlako egindako kobrantzen gainean, horiek ekitaldi berean gertatzen badira. Kontrako kasuan, aurreko ordainketen itzuleragatiko kobrantzak beste ekitaldi batean gertatzen badira, ez dira kenduko, eta gestio-jardueren diru-fluxutzat hartuta islatuko dira.

   Diru-fluxuen egoera-orriaren kobrantzak, kasu guztietan, garbian erakutsiko dira itzultzeagatiko ordainketen gainean.

2. Beste erakunde batzuen edo hirugarrenen kontura egindako ordainketak eta kobrantzak garbian erakutsi ahalko dira, aurrekontu izaera ez duten eragiketez ari badira.

3. Aktibo finantzarioetatik datozen kobrantzak eta ordainketak (diruaren baliokide diren aktibo likidotzat hartutakoak ez bestelakoak) nahiz pasibo finantzarioetatik datozenak, errotazio altua dutenean biek, termino garbietan erakutsi ahalko dira diru-fluxuen egoera-orrian. Errotazio aldia altua izango da urteko errotazio-kopurua lau baino txikiagoa ez denean. Informazio hau termino garbietan aurkezten denean, horren berri emango da memorian.

4. Jasanarazitako edo jasandako zeharkako zergei dagozkien zenbatekoen kobrantzen eta ordainketen ondoriozko diru-fluxuak, zeinak ogasun publikoarekin likidatu beharko diren geroago, sortzen dituen eragiketa bezala sailkatuko dira.

   Ogasun publikoarekiko likidazioa kitatzen duten fluxuak kudeaketako jarduera gisa sailkatuko dira.

5. Ibilgetua sortzeko egin diren lanengatiko fluxuen sailkapen zuzena egiteko, kontuan izango da bere garrantzi erlatiboa; eta sailkapena ez egiteko aukera dago ordainketen zenbatekoak garrantzi handirik ez badu.

6. Atzerri-monetan egindako transakzioetatik eratorritako fluxuak euroetara itzuliko dira, fluxu bakoitza sortu zenean indarrean zegoen kanbio-tasan.

7. Kontabilitate-estaldura dagoenean, estaldura-tresnen fluxuak estalitako partidaren partida berean sartuko dira eta ondore hori memorian adieraziko da.

8. Transakzio ez monetarioak daudenean, hau da, dirurik edo aktibo likido baliokiderik erabili ez duten finantziazio- edo inbertsio-eragiketak daudenean eta beraz diru-fluxuen egoera-orrian sartzen ez direnean, euren gaineko informazio esanguratsu guztia memorian aurkeztuko da. Era horretako eragiketa izango da, adibidez, errentamendu finantzario bidez aktibo bat eskuratzea.

   Inbertsio-eragiketa baten kontraprestazioaren zati bat dirutan edo aktibo likido baliokidetan eman bada eta beste zati bat bestelako elementutan, diru ez den zatiari buruzko informazioa eman beharko da memorian, diru-fluxuen egoera-orrian sartu den diru edo baliokideen mugimenduari buruzko informazioaz gainera.

9. Erakunde bat edo erakunde baten jarduera-ildoa osatzen duten pasibo eta aktiboen multzoari baja edo alta ematearen ondorioz diruan edo beste aktibo likido baliokide batzuetan izandako aldaketa, hala egokituz gero, inbertsio-jardueretan jasoko da «Jarduera-unitatea» izeneko partida bakar moduan; zehazki, kobrantzen epigrafean edo ordainketenean, zer dagokion.

10. Sailkatzeko dauden kobrantzei eta ordainketei dagokienez, hurrengo ekitaldian aurkeztuko da sailkapen zuzena; aurreko ekitaldiko informazioaren parte izango da, diru-fluxuen egoera-orriaren barnean.

    Hala ere, sailkatu gabe dauden diru-fluxuei dagokienez, justifikatu beharreko ordainketen hartzaileek eta justifikatu gabe dauden kutxa finkoko kutxazainek ordaindutako zenbatekoei badagozkie («Funtsen hornidura justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako» 558 kontuan bilduta), hurrengo ekitaldiko urteko kontuen memorian ondo sailkatuta dauden jakinaraztea hautatu ahal izango da.

    Nolanahi ere, aurreko birsailkapenak egin gabe utzi ahal izango dira, sailkatu gabe dauden zenbatekoak, kasu batean zein bestean, munta txiki-txikikoak direnean.

10. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.

    Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak, dagokion bereizketarekin, ondokoa hartzen du barne: erakundearen gastuen aurrekontuaren eta sarreren aurrekontuaren likidazioa, nahiz aurrekontuaren emaitza.

    Gastu-aurrekontuaren likidazioa eta sarrera-aurrekontuaren likidazioa gutxienez onartutako aurrekontuaren eta haren geroko aldaketen desagregazio- mailarekin aurkeztuko dira.

    Sarreren aurrekontuaren likidazioan, «baliogabetutako eskubideak» izeneko zutabean, aurrez kobratuta zein kobratu gabe dauden likidazioak baliogabetzeagatik baliogabetutako eskubideak jasoko dira, hala nola atzeratzeagatik edo zatikatzeagatik baliogabetuak;

«ezeztatutako eskubideak» izeneko zutabean, berriz, espezietan egindako kobrantzak eta kaudimen gabeziengatik eta beste arrazoi batzuengatik ezeztatutako eskubideak jasoko dira. Era berean, «aintzatetsitako eskubide garbiak» izeneko zutabean ekitaldian zehar aintzatetsitako eskubideen guztizkoa jasoko da, ekitaldian baliogabetu eta ezeztatutako eskubideen guztizkoa kenduta. «Hornidura-soberakina/eskasia» zutabean, aintzatetsitako eskubide garbien eta behin betiko sarrera-horniduren arteko aldea jasoko da.

Aurrekontu-emaitzak honako magnitude hauek izango ditu:

a) Ekitaldian likidatutako aurrekontuko eskubide garbien eta epe berean zehar aintzatetsitako aurrekontuko obligazio garbien arteko aldea.

b) Aurreko ekitaldietan aintzatetsi baina ekitaldian baliogabetutako edo zuzendutako obligazioen eta aurreko ekitaldietan aintzatetsi baina ekitaldian baliogabetutako, ezereztutako edo zuzendutako eskubideen arteko aldea.

Aurrekontu-emaitza, hala egokituz gero, gorantz doitu beharko da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioen arabera. Era berean, aurrekontu-emaitza, hala egokituz gero, finantziazio lotuarekin egindako gastuen ondoriozkoak diren ekitaldiko finantzaketa-desbideratzeen arabera doituko da. Alde horretatik, finantzaketa-desbideratze positiboek aurrekontu-emaitza txikituko dute, eta negatiboek, berriz, handitu.

Aintzatetsitako eskubide garbiak eta aintzatetsitako obligazio garbiak, hala nola itxitako ekitaldietan aintzatetsitako obligazio eta eskubideen baliogabetzeak, aurrekontu-emaitza osatzen baitute, honela multzokatuta aurkeztuko dira:

a) Eragiketa korronteak: aurrekontuko 1. 5. kapituluei egotzitako eragiketak.

b) Kapital-eragiketak: aurrekontuko 6. 7. kapituluei egotzitako eragiketak.

c) Aktibo finantzarioak: aurrekontuko 8. kapituluari egotzitako eragiketak.

d) Pasibo finantzarioak: aurrekontuko 9. kapituluari egotzitako eragiketak.

11. Memoria.

Urteko kontuak osatzen dituzten gainerako agirietan datorren informazioa osatu, sakondu eta azaldu egiten du memoriak. Formulatzean, puntu hauek kontuan izan behar dira:

a) Bete beharreko gutxieneko informazioa ematen da memoria-ereduan; hala ere, eskatzen den informazioa esanguratsua ez denean, dagozkion atalak ez dira beteko. Aurrekoaren ondorioz ohar jakin batzuek edukirik ez badute, eta, beraz, ez badira betetzen, plan honetako memoria-ereduan aurreikusitako zenbakiak mantenduko dira edukia duten oharretarako, eta edukirik ez duten oharren zerrenda gehituko zaio memoriari.

b) Memoria-ereduan adierazi ez arren, enpresak ekitaldian zehar izan duen egoera eta jarduera ezagutzera emateko eta aurkezten diren urteko kontuak hobeto ulertu ahal izateko eta, azken batean, kontabilitate-erakundearen ondarearen, egoera finantzarioaren, ondare emaitza ekonomikoaren eta aurrekontu-likidazioaren irudi fidela erakusteko informazio gehigarria behar bada, informazio hori eman beharko da memorian.

c) Memoriako ataletan taulak sartzen badira eskatutako informazio guztia edo haren zati bat jasotzeko, derrigorrezkoa izango da hura betetzea.

d) Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriari buruzko memorian jasotako informazioa haren desagregazio-maila berarekin aurkeztuko da.

2. Urteko kontuen ereduak.

Ikus Bizkaiko Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abuztuaren 22ko [BIZKAIA] 117/2018 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren 5. zenbakia (abuztuaren 28ko «BAO»). Horren bidez III. eredua aldatu da. Aurrekontu emaitza, honela idatzita geratu da:

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehar garbiak	Jarduneko aurrekontua ekitaldiko emaitza
Eragiketa arruntak			
Kapital eragiketak			
Finantza aktiboak			
Finantza pasiboak			
1. EKITALDI ARRUNTAREN AURREKONTU EMAITZA (1 = a+b+c+d)			
Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak ezeztatu, bertan behera utzi edo zuzendu	Aitortutako betebeharrak ezeztatu edo zuzendu	Itxitako ekitaldien aurrekontu emaitza
Eragiketa arruntak			
Kapital eragiketak			
Finantza aktiboak			
Finantza pasiboak			
2. ITXITAKO EKITALDIEN AURREKONTU EMAITZA (2=a+b+c+d)			
DOIKUNTZAK:			
a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			
b) Ekitaldiaren finantzaketa desbideratze negatiboak			
c) Ekitaldiaren finantzaketa desbideratze positiboak			
3. DOIKUNTZAK GUZTIRA (3= a+b-c)			
AURREKONTU EMAITZA DOITUA (1+2+3)			

MEMORIA.

1. Antolakuntza eta jarduera.

Adierazi beharko dira:

1. Biztanleria ofiziala eta erakundea identifikatzeko lagungarriak diren gainerako datu sozioekonomikoak.

2. Erakundea sortzeko araua (ez da beharrezkoa izango udalerria sortzeko arauari buruzko informazioa ematea).

3. Erakundearen jarduera nagusia (ez da beharrezkoa izango udal-administrazio orokorraren jarduerari buruzko informazioa ematea), araubide juridikoa, ekonomiko-finantzarioa eta kontratazioari dagokiona. Zeharka kudeatutako zerbitzu publikoen kasuan, nola kudeatzen den adieraziko da.

4. Sarrera-iturri nagusien deskribapena, eta, hala egokituz gero, jasotako prezio publikoak eta tasak.

5. Erakundearen ezaugarritze fiskala sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako, eta, hala egokituz gero, BEZari lotutako eragiketak eta prorrata-ehunekoa.

6. Oinarrizko antolaketa-egitura, maila politikoan eta administratiboan.

7. Batez besteko enplegatu kopurua ekitaldian eta abenduaren 31n, bai funtzionarioei bai langile lan-kontratudunei dagokienez, kategorien eta sexuen arabera bereizita.

8. Hala egokituz gero, erakunde jabearen edo jabeen identifikazioa, eta zer partaidetza-ehuneko duten kontabilitate-erakundearen ondarean.

9. Hala egokituz gero, kontabilitate-erakundea partaide den taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen identifikazioa, zertan diharduten adierazita (udalak izan ezik), hala nola zer partaidetza-ehuneko duen erakunde horietako bakoitzaren kapital sozialean edo ondarean.

2. Zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa, hitzarmenak eta beste lankidetza mota batzuk.

Zeharka kudeatutako zerbitzu publikoei, hitzarmenei eta beste lankidetza mota batzuei dagokienez, zenbateko handia dutenean, erakundeak jakinaraziko ditu kudeaketaren, hitzarmenaren edo lankidetzaren xede den erakundea identifikatzeko datuak. Gainera, honako hauek ere jakinaraziko ditu:

1. Zeharkako kudeaketan: xedea, epea, gestioari lotutako jabari publikoko ondasunak, diruzkoak ez diren ekarpenak, emakidak iraun bitartean konprometitutako transferentziak edo diru-laguntzak, aurrerakin itzulgarriak, zerbitzuaren titularrak kudeatzaileari emandako partaidetzazko, mendeko edo bestelako maileguak, eta lehengoratzekoak diren ondasunak.

2. Hitzarmenetan: xedea, epea eta hitzarmenak iraun bitartean konprometitutako transferentziak edo diru-laguntzak.

3. Erakunde berri bat eratzea behar ez duten eta aurreko oharretan jasota ez dauden baterako jardueretan, hauek adieraziko dira: xedea, epea eta jarduerak iraun bitartean hartutako konpromisoak.

4. Bestelako lankidetza publiko-pribatuetan: xedea, epea eta lankidetza-akordioak iraun bitartean konprometitutako transferentziak edo diru-laguntzak, hala nola, hala egokituz gero, hitzartutako prezioa.

3. Kontuak aurkezteko oinarriak.

Adierazi beharko dira:

1. Irudi fidela:

   a) Irudi fidela helburu izateak eragotzi duelako ezarri ez diren informazioaren, kontabilitate publikoko oinarrien eta kontabilitate-irizpideen baldintzak, eta hala badagokio, eragina urteko kontuetan.

   b) Irudi fidelaren helburua lortzeko oinarriak, ezarritako kontabilitate-irizpideak eta beharrezko informazio osagarria eta berau memorian txertatzea.

2. Informazioaren konparazioa:

   a) Ekitaldiko kontuak aurreko ekitaldikoekin konparatzea eragozten duten arrazoien azalpena.

b) Konparazioa errazteko aurreko ekitaldiko zenbatekoen egokitzapenen azalpena, edo, bestela, egokitzapen hori egiteko ezintasunarena.

3. Kontabilitate-irizpideen eta erroreen zuzenketen aldaketen urteko kontuetan eraginak eta arrazoiak.

4. Kontabilitate-zenbatespenei buruzko informazioa, esanguratsuak direnean.

4. Aintzatespen- eta balioespen-arauak.

Honako partida hauei aplikatutako kontabilitate-irizpideak adieraziko dira:

1. Ibilgetu materiala, honako hau aipatuta: amortizazio-irizpideak, narriaduragatiko balioespen-zuzenketak eta haien lehengoratzea, gastu finantzarioen kapitalizazioa, hedatze-kostuak, modernizazioa eta hobekuntzak, konponketa handiaren edo ikuskaritza nagusiaren gastuak, aktiboaren eraispen- eta kokapenaren berriztapen-kostuak, eta erakundeak ibilgetu materialerako egindako lanen kostua zehazteko irizpideak.

   Ibilgetu mota bakoitzarentzat erabilitako geroko balioespen-eredua adieraziko da, dela kostuarena, dela errebalorizazioarena.

2. Lurzoruaren ondare publikoa, lur, eraikin eta ondare hori osatzen duten gainerako ondasun eta eskubideei dagokienez aurreko 1. idatz-zatian aipatutako irizpideak zehaztuta.

3. Ondasun higiezinetako inbertsioak, lurrak eta eraikuntzak ondasun higiezinetako inbertsio moduan kalifikatzeko erabilitako irizpidea azalduta, eta aurreko idatz-zatian adierazitako irizpideak zehaztuta.

4. Ibilgetu ukiezina; kapitalizatzeko edo aktibatzeko, amortizatzeko eta narriaduragatik balioespen-zuzenketak egiteko erabili diren irizpideak zehaztuz.

   Ibilgetu ukiezin baten balio-bizitza mugagabetzat jotzea eragin duten zirkunstantzien justifikazioa.

   Ibilgetu mota bakoitzarentzat erabilitako geroko balioespen-irizpidea adieraziko da, dela kostuarena, dela errebalorizazioarena.

5. Errentamenduak; errentamendu finantzarioko kontratuak eta antzeko eragiketak kontabilizatzeko irizpideak adieraziz.

6. Trukeak; jarraitutako irizpidea adieraziz eta aplikazioa justifikatuz; bereziki, zer dela eta ondorioztatu den truke bat antzekoak ez diren aktiboen trukea dela ikuspuntu funtzionala edo bizitza baliagarria kontuan hartuta.

7. Aktibo eta pasibo finantzarioak, honako hauek adieraziz:

   a) Aktibo finantzarioen eta pasibo finantzarioen kategoriak kalifikatzeko eta balioztatzeko nahiz arrazoizko balioaren aldaketak aintzatesteko erabilitako irizpideak.

   b) Aktibo finantzarioetarako:

      - Hasieran ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuko aldaketen arrazoizko balio bezala sailkatuen izaera, eta gainera, sailkapen hori egiteko aplikatutako irizpideak eta erakundeak aktibo finantzarioak erregistratzeko eta balioesteko arauan adierazten diren betebeharrak bete dituela esaten duen azalpena.

      - Narriadura dagoela erakusten duten ebidentziak badaudela erabakitzeko, balioespen-zuzenketak eta lehengoratzeak erregistratzeko eta aktibo finantzario narriatuei baja emateko aplikatu diren irizpideak. Bereziki, gestio

eragiketengatiko zordunen eta kobratzeko bestelako kontuen balioespen-zuzenketak kalkulatzeko erabilitako irizpideak azpimarratu beharko dira. Halaber, birnegoziatu izan ez balira mugaeguneratuta edo narriatuta egongo liratekeen aktibo finantzario birnegoziatuei aplikatutako kontabilitate-irizpideak zehaztu beharko dira.

c) Aktibo finantzarioen eta pasibo finantzarioen baja erregistratzeko erabilitako irizpideak.

d) Berme finantzarioko kontratuak; hasierako balioespenean nahiz gerokoan jarraitutako irizpidea adieraziz, baita, hala badagokio, dudazkotzat jotako bermeengatiko hornidurentzako jarraitutakoa ere.

e) Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan inbertsioak; narriaduragatiko balioespen-zuzenketak erregistratzeko aplikatutako irizpideei buruzko informazioa emango da.

f) Kategoria bakoitzeko tresna finantzarioetatik sortutako sarrerak eta gastuak erabakitzeko erabilitako irizpideak: interesak, primak edo deskontuak, dibidenduak eta abar.

8. Kontabilitate-estaldurak; estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren balioespen-irizpideak adieraziz; eta aurreikusitako transakzioak, konpromiso irmoak eta aintzatetsitako aktibo edo pasiboen estaldurak bereiziz, baita estalduraren etena erregistratzeko aplikatutako balioespen-irizpideak ere.

9. Izakinak; balioespen-irizpideak zehaztuz eta, bereziki, balioespen-zuzenketen gainean egindakoak.

10. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak; eraikuntza- edo erosketa-akordio edo -kontratutik eratorritako sarrerak eta gastuak aintzatesteko irizpideak adieraziz, eta hala badagokio, aurrerapen-maila zehazteko erabilitako metodoa zehaztuz. Metodo hori ezarri ezin izan bada, horren berri emango da.

11. Atzerri-diruan egindako transakzioak; euroaz bestelako diruko saldoaren balioespen-irizpideak adieraziz, eta momentu honetan nahiz euren jatorrian euroaz bestelako diruan adierazitako ondare-elementuaren kanbio-tasa eurotan kalkulatzeko erabilitako prozedura adieraziz.

12. Sarrerak eta gastuak; ezarritako irizpide orokorrak adieraziz.

13. Hornidurak eta kontingentziak; balioespen-irizpidea nahiz, hala egokituz gero, hirugarren batengandik jaso beharreko ordainen trataera adieraziz. Bereziki, hornidurei dagokienez, arrisku bakoitza zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoaren azalpen orokorra eman beharko da.

14. Transferentziak eta diru-laguntzak; sailkatzeko eta, hala dagokienean, emaitzetara egozteko erabili den irizpidea adieraziz.

15. Baterako jarduerak; partaide den baterako negozioari dagozkion saldoak urteko kontuetan sartzeko erabili diren irizpideak adieraziz.

16. Salgai dauden aktiboak: aktibo horiek kalifikatzeko eta balioztatzeko jarraitutako irizpideak adieraziko dira.

Aukera moduan, informazio hori eragindako ondare-elementuei dagozkien memoriako oharretan jaso ahal izango da.

5. Ibilgetu materiala.

1. Epigrafe honetan sartutako balantzeko partida bakoitzak eta dagozkion amortizazio metatuek eta balioespen-zuzenketa metatuek ekitaldian zehar izandako mugimenduen azterketa. Kostu-ereduaren arabera balioetsitako aktiboak errebalorizazio-ereduaren arabera balioesten direnetatik bereiziko dira. Honako hau adierazi beharko da:

   a) Hasierako saldoa.

   b) Sarrerak.

   c) Handitzea beste partida batzuetatik egindako intsuldaketengatik.

   d) Irteerak.

   e) Txikitzea beste partida batzuetara egindako intsuldaketengatik.

   f) Ekitaldiko narriaduragatiko balioespen-zuzenketa garbiak (hornidurei horniduren lehengoratzeak kenduta).

   g) Ekitaldiko amortizazioak.

   h) Ekitaldiko errebalorizazioen ondoriozko igoera (errebalorizazio-eredua).

   i) Amaierako saldoa.

2. Datu hauei buruzko informazioa:

   a) Aktiboa eraistearen eta berorren kokapena berritzearen kostu zenbatetsiak, aktiboen balio handiago gisa jasota, hala nola gehitutako konponketa handiena edo ikuskatze orokorrena, balioestean kontuan hartutako zirkunstantziak zehaztuta.

   b) Bizitza baliagarriak eta elementu mota guztietan erabilitako amortizazio-koefizienteak, baita elementu bereko hainbat zatiri ezarritako koefizienteei buruzko informazioa ere.

   c) Zenbatespenetan egindako aldaketen berri eman beharko da, uneko ekitaldian edo etorkizunekoetan eragin esanguratsua badute, eta, era berean, hondar-balioetan, aktiboaren eraispen-kostu zenbatetsietan, aktiboaren kokapena berritzean, bizitza baliagarrietan, amortizazio-metodoetan eta konponketa handietan edo ikuskapen orokorretan eragina badute.

   d) Ekitaldian, hala egokituz gero, kapitalizatutako gastu finantzarioen zenbatekoa.

   e) Errebalorizazio-ereduaren arabera ondasunen arrazoizko balioa zehazteko erabilitako irizpidea, zehazki, azkeneko errebalorizazioa gertatu den ekitaldikoa.

   f) Esleipen bidez jasotako ondasunak, balantzeko partida-mailan, aktibatutako balioa, amortizazioak eta narriaduragatiko balioespen-zuzenketa metatuak zehaztuz.

      Ekitaldian zehar esleipen bidez jasotako ondasunen identifikazioa.

   g) Ekitaldian zehar ondasunak esleipen bidez eman zaizkien erakundeen identifikazioa.

   h) Ekitaldian zehar lagapen bidez jasotako ondasunen identifikazioa.

   i) Ekitaldian zehar lagapen bidez ondasunak eman zaizkien erakundeen identifikazioa.

j) Ibilgetu materialeko ondasunen gaineko errentamendu finantzarioak eta zenbateko esanguratsua duten antzeko eragiketak, memoriako beste zati batzuetako informazioa kaltetu gabe.

k) Erabilera orokorrera bideratutako ondasunen berri emango da, azpiegituren, herri-ondasunen eta ondare historikoko ondasunen artean bereiziz, lehen eta bigarren kasuetan informazioa moten arabera desglosatuz, eta ondare historikoko ondasunen kasuan, gutxienez eraikuntzak eta gainerakoak bereiziz.

l) Erakundeak eraikitako ondasunei dagokienez, ekitaldian aktibatutako balioa, zenbatekoa handia bada.

m) Ibilgetu materialeko ondasunei eragiten dien funtsezko beste edozein gorabehera, hala nola bermeak, titulartasun-murrizketak, auziak eta antzeko egoerak.

6. Lurzoruaren ondare publikoa.

Aurreko oharrean eskatzen den informazioa emango da.

7. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

Ibilgetu materialari dagokionez, 5. oharrean eskatutako informazioa emango da.

8. Ibilgetu ukiezina.

1. Epigrafe honetan sartutako balantzeko partida bakoitzak eta dagozkion amortizazio metatuek eta balioespen-zuzenketa metatuek ekitaldian zehar izandako mugimenduen azterketa. Kostu-ereduaren arabera balioetsitako aktiboak errebalorizazio-ereduaren arabera balioesten direnetatik bereiziko dira. Honako hau adierazi beharko da:

   a) Hasierako saldoa.

   b) Sarrerak.

   c) Handitzea beste partida batzuetatik egindako intsuldaketengatik.

   d) Irteerak.

   e) Beste partida batzuetara egindako transferentziengatiko jaitsierak

   f) Narriaduragatiko balioespen-zuzenketa garbiak (hornidurei horniduren lehengoratzeak kenduta).

   g) Ekitaldiko amortizazioak.

   h) Ekitaldiko errebalorizazioengatiko igoera (erakundeak geroko balioespenerako errebalorizazio-eredua erabiltzen duenean).

   i) Amaierako saldoa.

2. Datu hauei buruzko informazioa:

   a) Bizitza erabilgarriak edo elementu mota ezberdinetan erabilitako amortizazio-koefizienteak.

   b) Zenbatespenetan egindako aldaketen berri eman beharko da, uneko ekitaldian edo etorkizunekoetan eragin esanguratsua baldin badute, eta hondar-balioak, balio-bizitzak eta amortizazio-metodoak ukitzen badituzte.

c) Ekitaldian kapitalizatutako gastu finantzarioen zenbatekoa, egongo balitz.

d) Errebalorizazio-ereduaren arabera ondasunen arrazoizko balioa zehazteko erabilitako irizpidea; bereziki, azkeneko errebalorizazioa gertatu den ekitaldikoa.

e) Ekitaldian zehar gastu gisa aintzatetsitako ikerketa eta garapeneko ordainketen zenbateko agregatua, eta ikerketa eta garapeneko gastuen kapitalizazioa sostengatzen duten zirkunstantziak bete direlako justifikazioa.

f) Ibilgetu ukiezinari eragiten dion funtsezko beste edozein gorabehera, hala nola bermeak, titulartasun-murrizketak, auziak eta antzeko egoerak.

9. Errentamendu finantzarioak eta antzeko eragiketak .

Errentatzaileek ondoko informazioa emango dute:

- Aktibo mota bakoitzeko, aktiboaren hasierako zenbatekoa, balio hori aktiboaren arrazoizko balioari edo, bestela, egin beharreko ordainketen eta izakinen balio eguneratuari dagokion adieraziz, erosketarako aukerarik balego.

- Errentamendu finantzarioko akordio esanguratsuen deskripzio orokorra.

- Kontratu hauetatik sortzen diren aktiboen informazioa memorian eman beharko da, izaera horretako aktiboei dagokienaren arabera, aurreko oharretan ibilgetu materialari, ondasun higiezinetako inbertsioei, ibilgetu ukiezinari eta lurzoruaren ondare publikoari buruz ezarritakoa betez.

10. Aktibo finantzarioak.

Aktibo finantzarioei dagokienez, ohiko jardueraren ondoriozko eragiketei lotutako kredituak (balantzeko aktiboko «Zordunak eta epe luzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» A.VII eta «Zordunak eta epe laburrean kobratu beharreko beste kontu batzuk» B.III epigrafeetan sartutakoak), dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk, eta estadura-tresna izendatutako deribatuak salbuetsita, honako hau jakinaraziko da:

1. Balantzeari buruzko informazioa

a) Balantzeko aktibo finantzarioen sailkapenaren eta horien gainean «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan ezartzen diren kategorien arteko kontziliazioaren laburpenaren egoera-orria aurkeztuko da, ondoko egitura jarraituz:

Kategoriak	Motak						
	Epe luzeko aktibo finantzarioak			Epe motzeko aktibo finantzarioak			
	Inertsioak ondarean	Zorra adierazten duten baloreak	Bestelako inbertsioak	Inertsioak ondarean	Zorra adierazten duten baloreak	Bestelako inbertsioak	Guztizkoa
	20XX 20XX-1	20XX 20XX-1	20XX 20XX-1	20XX 20XX-1	20XX 20XX-1	20XX 20XX-1	20XX 20XX-1
KREDITUAK ETA KOBRATU BEHARREKO PARTIDAK.							
MUGAEGUNERA ARTE MANTENDUTAKO INBERTSIOAK.							
ARRAZOIZKO BALIOKO AKTIBO FINANTZARIOAK, EMAITZETAN ALDAKETAK IZANIK.							
INBERTSIOAK TALDEKO ETA TALDE ANITZEKO ERAKUNDEETAN ETA ELKARTUETAN.							

AKTIBO FINANTZARIO SALGARRIAK.							
GUZTIZKOA							

b) Birsailkapena.

«Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauko 9. atalean ezarritakoaren arabera, ekitaldian zehar erakundeak aktibo finantzario bat birsailkatuko balu eta aktibo hori kostuan edo amortizatutako kostuan balioestera igaroko balitz arrazoizko balioan balioetsi beharrean, edo alderantziz, honako hauek jakinaraziko ditu.

- Kategoria horietako bakoitzean birsailkatutako zenbatekoa; eta.

- Birsailkatzeko arrazoia.

c) Berme gisa emandako aktibo finantzarioak.

Erakundeak bermearekin emandako aktibo finantzarioen kontabilitate-balioaren berri emango du, baita aktibo horien motaren berri ere.

d) Balio-narriaduragatiko zuzenketak.

Aktibo finantzario mota bakoitzeko, balio-narriadura erregistratzeko erabilitako kontu-zuzentzaileetako mugimenduen berri emango du erakundeak, eta, horretarako egoera-orri hau beteko du:

Aktibo finantzario motak	**Kontu zuzentzaileetako mugimendua**			
	Hasierako saldoa	Balio-jaitasierak ekitaldiko kreditu-narriaduragatik	Ekitaldiko kreditu-narriadura lehengoratzea	Amaierako saldoa
Epe luzeko aktibo finantzarioak.				
Inbertsioak ondarean.				
Zorra adierazten duten baloreak.				
Beste inbertsio batzuk.				
Epe motzeko aktibo finantzarioak.				
Inbertsioak ondarean.				
Zorra adierazten duten baloreak.				
Beste inbertsio batzuk.				

2. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuarekin erlazionatutako informazioa.

Erakundeak adierazi beharko ditu:

a) «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan definitutako aktibo finantzarioen kategorietatik etorritako ekitaldiko emaitza garbiak.

b) Sarrera finantzarioak, Interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz kalkulatuta.

3. Kanbio-tasaren eta Interes-tasaren arriskuei buruzko informazioa.

a) Kanbio-tasaren arriskua: Euroa ez den dirua erabiliz egindako inbertsio finantzarioei buruzko informazioa emango da, diru motaren arabera sailkatuta, eta honako formatu hau erabilita:

Diruak	Inbertsioak ondarean	Zorra adierazten duten baloreak	Bestelako inbertsioak	Guztizkoa
GUZTIZKOA				

b) Interes-tasaren arriskua: Amortizatutako kostuaren arabera balioesten diren aktibo finantzarioen kasuan, Interes-tasa finkoaren eta aldakorraren araberako aktiboen arteko banaketaren inguruan informatuko da, bai kopuru absolututan bai ehunekotan, formatu honen arabera

Aktibo finantzario motak	Interes-tasa		Guztizkoa
	Interes-tasa finkoan	Interes-tasa aldakorrean.	
Zorra adierazten duten baloreak. Bestelako aktibo finantzarioak.			
Zenbatekoa GUZTIRA.			

4. Bestelako informazioa.

Aktibo finantzarioei eragiten dien beste edozer informazio esanguratsu.

11. Pasibo finantzarioak.

Pasibo finantzarioei dagokienez, erakundearen ohiko eragiketengatik ordaindu beharreko kontuak (balantzeko pasiboko «Hartzekodunak eta epe luzean ordaindu beharreko beste kontu batzuk» B.IV eta «Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste kontu batzuk» C.IV epigrafeetan sartutakoak) eta estaldura-tresna izendatutako deribatuak salbuetsita, honako informazio hau jasoko da:

1. Zorren egoera eta mugimenduak:

Zor bakoitzaren kasuan 1 a) Kostu amortizatuko zorrak eta 2 a) Arrazoizko balioko zorrak izeneko egoera-orrietan jasotakoa beteko da.

Era berean, balantzeko pasibo finantzarioen sailkapenaren eta «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritako kategorien arteko kontziliazioaren laburpen egoera-orria aurkeztuko da, 1 c) Kategorien araberako laburpena izeneko egoera-orrian jasotako egiturarekin.

a) Kostu amortizatuko zorrak

Zorra identifikatzea	ITE	Zorra Urtarrilaren 1-ean		Sorkuntzak		ITE-ren arabera sortutako interesak		Baliogabetutako interesak (7)	Kanbio diferentziak		Murrizketak		Zorra abenduaren 31-n	
		Kostu amortizatua (1)	Interes esplizituak (2)	Efektiboa (3)	Gastuak (4)	Esplizituak (5)	Gainerakoa (6)		Kostu esplizitue-takoa (8)	Interes esplizituetakoa (9)	Kontabili-tate balioa (10)	Emaitza (11)	Kostu amortizatua (12)=(1)+(3)-(4)+(6)+(8)-(10)	Interes esplizituak (13)=(2)+(5)-(7)+(9)
GUZTIZKOA														

b) Arrazoizko balioko zorrak

Zorra identifikatzea	Zorra Urtarrilaren 1-ean		Sorkuntzak		Sortutako interesak (5)	Baliogabetutako Interesak (6)	Arrazoizko balioaren aldaketa (7)	Kanbio-diferentziak		Gutxitzeak (10)	Zorra abenduaren 31-n	
	Kostu amortizatua (1)	Interes esplizituak (2)	Efektiboa (3)	Gastuak (4)				Ex-kupoiaren balioari lotuak (8)	Interes esplizituetatik (9)		Ex-kupoiaren balioa (11)=(1)+(3)+(7)+(8)-(10)	Interes esplizituak (10)=(2)+(5)+(9)-(6)
GUZTIZKOA												

c) Kategorien araberako laburpena

Kategoriak	Motak													
	Epe luzean						Epe laburrean						Guztizkoa	
	Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak		Zorrak kreditu-erakundeekin		Bestelako zorrak		Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak		Zorrak kreditu-erakundeekin		Bestelako zorrak			
	20XX	20XX-1	20XX	20XX-1	20XX	20XX-1	20XX	20XX-1	20XX	20XX-1	20XX	20XX-1	20XX	20XX-1
KOSTU AMORTIZATUKO ZORRAK														
ARRAZOIZKO BALIOKO ZORRAK														
GUZTIZKOA														

2. Kreditu-lineak.

Kreditu-linea bakoitzeko erabilgarri dagoen zenbatekoaren berri emango da, eta adieraziko dira halaber emandako muga, erabilitako zatia eta erabili gabeko zatiaren gaineko komisioa (ehunekoa), betiere formatu honen arabera:

Identifikazioa	Emandako muga	Erabilitakoa	Erabili gabekoa	Erabili gabekoaren gaineko komisioa
GUZTIRA				

3. Kanbio-tasaren eta Interes-tasaren arriskuei buruzko informazioa.

a) Kanbio-tasaren arriskua. Euroa ez den diruan dauden zorrei buruzko informazioa emango da, diru motaren arabera sailkatuta, eta honako formatu hau erabilita:

Diruak	Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak	Zorrak kreditu-erakundeekin.	Bestelako zorrak.	Guztizkoa
GUZTIZKOA				

b) Interes-tasaren arriskua. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioen kasuan, Interes-tasa finkoaren eta aldakorraren araberako pasiboen arteko banaketaren inguruan informatuko da, bai kopuru absolututan bai ehunekotan, formatu honen arabera:

Pasibo finantzario motak	Interes-tasa		Guztizkoa
	Interes-tasa finkoan	Interes-tasa aldakorrean	
OBLIGAZIOAK ETA BESTELAKO BALORE NEGOZIAGARRIAK.			
ZORRAK KREDITU-ERAKUNDEEKIN.			
BESTELAKO ZORRAK.			
ZENBATEKOA GUZTIRA.			
Interes-TASA FINKO EDO ALDAKORREKO PASIBO INANTZARIOEN EHUNEKOA GUZTIEN GAINEAN.			

4. Abalak eta emandako beste berme batzuk.

a) Emandako abal bakoitzeko, taldeko eta talde anitzeko erakundeei nahiz elkartuei emandakoak gainerakoetatik bereizita, informazioa emango da abala eman den egunari, epemugari eta bermatutako gehieneko zenbatekoari buruz, ekitaldian zer bilakaera izan duen zehaztuko da, eta zein izan diren egindako hornidura garbiak (hornidurak ken lehengoratzeak), alboko taulako xehetasunen arabera.

Abalaren identifikazioa	Abalatutako erakundea		Abala emandako eguna	Abalaren epemuga-data	Abalaren xedea	Urtarrilaren 1-ean mugaeguneratu gabe dauden abalak	Ekitaldian emandako abalak	Ekitaldian baliogabetutako abalak			Abenduaren 31-n mugaeguneratu gabe dauden abalak	hornidurak	
	IFZ	Izena						Baliatzeagatik	Beste arrazoi batzuengatik	Guztizkoa		Ekitaldia	Metatuta
TALDEKO ETA TALDE ANITZEKO ERAKUNDEEN NAHIZ ELKARTUEN GUZTIZKO PARTZIALA													
BESTE ERAKUNDE BATZUEN GUZTIZKO PARTZIALA													
GUZTIZKOA													

b) Urtean gauzatutako abal bakoitzeko, taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkienak gainerakoetatik bereizita, informazioa emango da gauzatzeagatik egindako ordainketei buruz, eta zer aurrekontu-aplikaziori (edo aurrekontuz besteko kontzepturi) egotzi zaizkien adieraziko da, alboko taulako xehetasunen arabera.

Abalaren identifikazioa	Abalatutako erakundea		Abala emandako eguna	Abalaren epemuga-data	Abalaren xedea	baliatzeagatik ekitaldian baliogabetutako abalak	Aurrekontu-aplikazioa	Aurrekontuzkoa ez den kontzeptua
	IFZ	Izena						
TALDEKO ETA TALDE ANITZEKO ERAKUNDEEN NAHIZ ELKARTUEN GUZTIZKO PARTZIALA								
BESTE ERAKUNDE BATZUEN GUZTIZKO PARTZIALA								
GUZTIZKOA								

c) Era berean, jakinaraziko da zer zenbateko jaso dituen erakundeak ekitaldian zehar urtean edo aurreko urteetan gauzatutako abalen ondorioz, hala nola zer aurrekontu-aplikaziori (edo aurrekontuz besteko kontzepturi) egotzi zaizkien, eta taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkienak gainerakoetatik bereiziko dira, alboko taulako xehetasunen arabera.

Abalentzako informazio bera aurkeztuko da kontabilitate-erakundeak emandako beste berme batzuei dagokienez.

Baliatze-urtea	Ekitaldian itzulitako zenbatekoa	Aurrekontu-aplikazioa	Aurrekontuzkoa ez den kontzeptua
TALDEKO ETA TALDE ANITZEKO ERAKUNDEEN NAHIZ ELKARTUEN GUZTIZKO PARTZIALA			
BESTE ERAKUNDE BATZUEN GUZTIZKO PARTZIALA			
GUZTIZKOA			

5. Bestelako informazioa:

a) Zorren zenbatekoa berme errealarekin.

b) Ekitaldian zehar ordaindu ez diren zorrak, eta ez ordaintzearen egoera urteko kontuak formulatu diren datan.

c) Ez ordaintzeaz bestelako egoera batzuk, mailegu-emaileari aurrez ordaintzeko eskatzeko eskubidea ematen diotenak.

d) Ekitaldiaren itxieran pasibo diren deribatu finantzarioak, kontabilitate-estaldura ezartzen ez zaienak, deribatutako tresna zergatik mantentzen den azalduz.

e) Pasibo finantzarioei eragiten dien beste edozein informazio erreal.

12. Kontabilitate-estaldurak.

«Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-araua aplikagarri den eragiketa bakoitzeko, honako informazio hau aurkeztuko da:

1. Estaldura-tresnaren, estalitako partidaren eta estali diren arriskuen izaeraren deskripzio zehatza.

2. Kontabilitate-estaldurak ezartzeko baldintzak betetzen direla erakusten duen justifikazioa.

3. Estaldura-tresnaren kontabilitate-balioa ekitaldiaren hasieran eta amaieran.

4. Estalitako arriskuaren ondorioz sortutako estalitako partidaren aldaketek ondorengo ekitaldiei eragiten dien estalduren kasuan, ondokoaren berri emango da:

   - Ekitaldian zehar ondare garbian (parte eraginkorra), eta hala badagokio, ondarearen emaitza ekonomikoan (parte ez eraginkorra) aintzatetsi diren estaldura-tresnen balio-aldaketak.

   - Ekitaldian zehar ondare garbitik murriztu den zenbatekoa, ondarearen emaitza ekonomikoari egotzi zaion edo estalitako partidaren hasierako balioan txertatu den zehaztuz. Lehen kasuan erregistratu den partidak adieraziko dira.

   - Ekitaldiaren itxieran ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partidaren hasierako baliora transferitzeko dauden ondare garbian aintzatetsitako zenbatekoak eta transferentzia hori egitea espero den ekitaldiak.

5. 5. Estalitako arriskuaren ondorioz sortutako estalitako partiden aldaketek ekitaldiko emaitzari eragiten dioten estalduren kasuan, estaldura-tresnaren balio-aldaketen zenbatekoaren eta estalitako partidaren balio-aldaketen zenbatekoaren berri emango da. Zenbateko horiek ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari egotzitako estalitako arriskuari atxikitzeko modukoak izango dira.

6. Estaldura-kontabilitatea eten duten eragiketak, arrazoia adieraziz.

13. Beste erakunde batzuetarako eraikitako edo eskuratutako aktiboak eta beste izakin batzuk.

Balantzeko partida-mailan, honako hauek jakinaraziko dira:

1. Izakinen narriaduragatiko balioespen-zuzenketak egiteko arrazoi izandako zirkunstantziak, eta, hala egokituz gero, ekitaldian aintzatetsitako zuzenketa horien lehengoratzea, hala nola zenbatekoa.

2. Ekitaldian zehar, hala egokituz gero, aribideko obretan edo urtebetetik gorako ekoizpen-zikloko beste izakin batzuetan kapitalizatutako kostuen zenbatekoa.

3. Mugak obren eta beste izakin batzuen baliagarritasunean, bermeen, pignorazioen, fidantzen eta antzeko beste arrazoi batzuen ondorioz, zer partidari eragiten dieten, zer zenbateko duten eta zer denbora-proiekzio duten adierazita.

4. Funtsezko edozein zirkunstantzia, eragina badu beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboen eta gainerako izakinen titulartasunean, baliagarritasunean edo balioespenean.

14. Atzerri-dirua.

Adierazi beharko dira:

1. Atzerri-diruan izendatutako aktibo eta pasiboko elementuen zenbateko osoa, balantzeko partidaren arabera.

2. Ekitaldiko emaitzan aintzatetsitako kanbio-diferentzien zenbatekoa. Bereizita aurkeztuko dira, batetik epealdian zehar likidatu diren transakzioetatik eratorritakoak, eta bestetik, bizirik daudenak edo ekitaldiaren itxieran mugaeguneratzeko zain daudenak, emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioan balioesten diren aktibo eta pasibo finantzarioetatik eratorritakoak izan ezik.

15. Transferentziak, diru-laguntzak eta beste sarrera eta gastu batzuk.

Adierazi beharko dira:

1. Jasotako transferentzien eta diru-laguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak, zenbatekoa garrantzitsua izanez gero, hala nola diru-laguntzak jasotzeko eta baliatzeko ezarritako baldintzak bete diren ala ez, emaitzetara egozteko irizpidea eta egotzitako zenbatekoak.

2. Zenbateko esanguratsua duten emandako transferentzien eta diru-laguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak. Gainera, honako informazio hau emango da:

   a) Egitean edo ematean oinarri izan den araudia.

   b) Ekitaldian aintzatetsitako obligazioen zenbatekoa.

   c) Erakunde hartzailea identifikatzen duten datuak.

   Emandako diru-laguntzei buruzko informazio hau gehituko da:

   d) Xedea.

   e) Ekitaldian baldintzak edo eskakizunak ez betetzeagatik gertatutako itzulketak, ez-betetzearen zergatia azalduta.

3. Erakundearen sarrerei edo gastuei eragiten dien edozer egoera esanguratsu. Zehazki, aktiboak beste erakunde publiko batzuentzat eraikitzen edo erosten dituzten erakundeek eraikitzeko edo erosteko kontratu edo akordioari lotutako sarrerak jakinaraziko dituzte, sarrera horien zenbatekoa esanguratsua bada, eta, gutxienez, sarreren zenbatekoa eta ezaugarriak adieraziko dituzte, hala nola aktiboak lortzeko ezarritako baldintzak bete diren ala ez.

16. Hornidurak eta kontingentziak.

1. Balantzean aintzatetsitako hornidura bakoitzarentzat, abalei eta emandako beste berme batzuei dagozkienentzat salbu, ondokoa adierazi beharko da:

   a) Balantzeko epigrafe bakoitzak ekitaldian izan duen mugimenduaren analisia, honako hauek zehaztuta:

      - Hasierako saldoa.

      - Handitzeak.

- Gutxitzeak.

- Amaierako saldoa.

b) Denboraren joanagatik deskontu-tasara eguneratutako saldoetan ekitaldian zehar izandako gorakada, hala nola edozein aldaketak deskontu-tasan izan ahal izan duen eragina.

c) Onartutako obligazioaren izaera, hala nola obligazioari aurre egiteko aurreikusitako egutegia.

d) Kasuan kasuko zenbatekoak balioztatzeko aplikatutako zenbatespenak eta kalkulu-prozedurak, eta zenbatespen horietan ager daitezkeen zalantzak. Egin behar izan diren doikuntzak justifikatu egingo dira, hala egokituz gero.

e) Edozein errenboltso-eskubideren zenbatekoak, eskubide horiengatik balantzean aintzatetsitako kopuruak adierazita, hala egokituz gero.

2. Pasibo kontingente bakoitzarentzat, abalei eta emandako beste berme batzuei loturikoen kasuan izan ezik, honako hau adieraziko da, non eta ez diren baliabide gutxi ateratzen:

a) Izaeraren azalpen laburra.

b) Eboluzio aurreikusgarria, eta zer faktoreren baitan dagoen.

c) Inoiz, salbuespenez, horniduraren bat balantzean ezin izan bada erregistratu, ezin izan delako fidagarritasunez balioetsi, balioespen hori zergatik ezin den egin azalduko da, aurrekoaz gain.

3. Aktibo kontingente mota bakoitzaren kasuan ondokoa adieraziko da:

a) Izaeraren azalpen laburra.

b) Eboluzio aurreikusgarria, eta zer faktoreren baitan dagoen.

17. Ingurumenari buruzko informazioa.

Adierazi beharko dira:

1. Ekitaldian «Ingurumena» 17 gastu-politikako programa multzo bakoitzaren kontura aintzatetsitako obligazioak.

2. Ingurumen-arrazoiengatik tributu propioei eragiten dieten zerga-onuren zenbatekoa.

18. Salgai dauden aktiboak.

Zenbateko esanguratsua duten aktibo salgarrien deskripzio zehatza egingo da, zenbateko hori adierazita.

19. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuaren aurkezpena jardueraka.

Erakundeak ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua aurkeztu ahalko du, berorretan sartutako gastu ekonomikoak jardueraka sailkatuta.

Informazio hori egiteko, honako arau hauek kontuan hartuko dira:

a) Guztizko sarrerak hiru kategoria hauetan sailkatuko dira:

- Gestio arrunteko sarrerak.

- Sarrera finantzarioak.

- Bestelako diru-sarrerak.

b) Gastuak aurkezteko, aurrekontu-gastuak eta aurrekontuzkoak ez direnak bereizi beharko dira:

   - Aurrekontu-gastuak dagozkien aurrekontuko programa multzoetan banatuta aurkeztuko dira.

   - Ekitaldiko aurrekontu-gastu ez diren gastuak programa multzoen artean banatuko dira, gastu horiek programa multzo bakoitzarekin lotzen dituzten irizpide objektiboak kontuan hartuta, edo, horrelako irizpiderik ez badago, programa multzoetako bakoitzak aldi berean aurrekontu-gastu den gastu osoan zer proportzio duen kontuan hartuta.

Ondarean jardueren arabera izandako emaitza ekonomikoaren kontuari buruzko informazioa honela egituratuko da:

Gastuak (programa multzoak)	20XX(e)ko ekitaldia	20XX-1-eko ekitaldia	Sarrerak	20XX(e)ko ekitaldia	20XX-1-eko ekitaldia.
			- Gestio arrunteko sarrerak. - Sarrera finantzarioak. - Bestelako sarrerak.		
GUZTIZKOA			GUZTIZKOA		

20. Aurrekontuzkoak ez diren diruzaintzako eragiketak.

Aurrekontuzkoak ez diren diruzaintzako eragiketen berri emango da, baldin eta ondorengo hauen sorrera edo iraungitzea eragin den ekitaldian zehar egindako eragiketak barne hartzen badituzte:

- Zordunak eta hartzekodunak, erakundearen aurrekontura egotzi behar ez direnak, erakundearentzat indarrean den araudiarekin bat, ez sortzen direnean, ez mugaeguneratzen direnean.

- Behin betiko aplikatzeko dauden kobrantzak eta ordainketak adierazten dituzten partidak, aurrekontuzko eragiketengatik zein aurrekontuzkoak ez direnengatik.

Informazio hau ondoko egoera-orriek osatuko dute:

1. Aurrekontuzkoak ez diren zordunen egoera-orria.

Kontua	Kontzeptua		Saldoa urtarrilaren 1-ean	Aldaketak hasierako saldoa	Ekitaldian egindako zordunketak	Zordunak guztira	Ekitaldian egindako ordainketak	Abenduaren 31-n kobratzeko dauden zordunak
	Kodea	deskribapena						
KONTUA								

GUZTIRA								
KONTUA GUZTIRA								
GUZTIZKOA								

2. Aurrekontuzkoak ez diren hartzekodunen egoera-orria.

Kontua	Kontzeptua		Saldoa urtarrilaren 1-ean	Hasierako saldoaren aldaketak	Ekitaldian egindako ordainketak	hartzekodunak guztira	Ekitaldian egindako zordunketak	Abenduaren 31-n ordaintzeko dauden hartzekodunak
	Kodea	deskribapena						
KONTUA GUZTIRA								
KONTUA GUZTIRA								
GUZTIZKOA								

3. Aplikatzeko dauden partiden egoera-orria:

   a) Aplikatzeko dauden kobrantzak.

Kontua	Kontzeptua		Urtarrilaren 1-ean aplikatzeko dauden kobrantzak	Hasierako saldoaren aldaketak	Ekitaldian egindako kobrantzak	Aplikatu gabe dauden kobrantzak guztira	Ekitaldian aplikatutako kobrantzak	Abenduaren 31-n aplikatzeko dauden kobrantzak
	Kodea	deskribapena						
KONTUA GUZTIRA								

KONTUA GUZTIRA								
GUZTIZKOA								

b) Aplikatzeko dauden ordainketak.

Kontua	Kontzeptua		Urtarrilaren 1-ean aplikatzeko dauden ordainketak	Hasierako saldoaren aldaketak	Ekitaldian egindako ordainketak	Aplikatu gabe dauden ordainketak guztira	Ekitaldian aplikatutako ordainketak	Abenduaren 31-n aplikatzeko dauden ordainketak
	Kodea	deskribapena						
KONTUA GUZTIRA								
KONTUA GUZTIRA								
GUZTIZKOA								

Egoera-orri horietan, garatzen diren aurrekontuz besteko eragiketen kontzeptuei eta kontuei dagokienez, ekitaldian egindakoen xehetasunak aurkeztuko dira, eta izandako egoera eta mugimenduak adieraziko dira, kasuan kasuko ondoko taulen arabera.

21. Kontratazio administratiboa. Adjudikazio-prozedurak.

Ekitaldian zehar emandako zenbatekoei buruzko informazioa, kontratu-moten arabera, indarrean dagoen kontratazioaren gaineko araudian ezarritako prozedurekin bat.

Kontratu mota	Prozedura irekia			Prozedura murriztua			Prozedura negoziatua			Lehia-elkarrizketa	Zuzeneko Adjudikazioa	Guztira
	Irizpide-aniztasuna	Irizpide bakarra	Guztira	Irizpide-aniztasuna	Irizpide bakarra	Guztira	Publizitatearekin	Publizitaterik gabe	Guztira			
Obrak												
Hornidura												

Ondarea												
Zerbitzu publikoak emateko												
Zerbitzuak												
Obra publikoa emateko												
Administratibo berezia												
Beste batzuk												
GUZTIRA												

22. Gordailuan jasotako baloreak.

Gordailututako baloreen kontabilitate-erregistroa egiteko kontzeptu bakoitzeko, balore horien artean egonda abalak eta kauzio-aseguruak, informazioa emango da alboko taulako xehetasunekin.

Kontzeptua Kodea	Deskribapena	**Saldoa urtarrilaren 1-ean**	**Hasierako saldoaren aldaketak**	**Ekitaldian jasotako gordailuak**	**Jasotako gordailuak guztira**	**Baliogabetutako gordailuak**	**Abenduaren 31-n itzuli gabe dauden gordailuak**
GUZTIZKOA							

23. Aurrekontu-informazioa.

Eman beharreko informazioa honako kontu hauei buruzkoa izango da:

23.1. Indarrean dagoen ekitaldia.

1. Gastuen aurrekontua

   a) Kreditu-aldaketak.

      Kreditu-aldaketei buruzko informazioa, alboko taulako xehe-tasunekin

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kreditu gehigarriak	Hitzarmen-araubidea	Kreditu-		Kreditu-gerakinak transferentziak	Kreditu-gaikuntzak eranstea	Ezeztatzeagatiko bajak	Aldaketak, guztira
				Positiboak	Negatiboak				
GUZTIZKOA									

b) Remanentes de crédito

Información sobre los remanentes de crédito de acuerdo con el detalle que presenta el cuadro adjunto.

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Konprometitutako gerakinak			Konprometitu gabeko gerakinak		
		Txertagarriak	Txertaezinak	Guztizkoa	Txertagarriak	Txertaezinak	Guztizkoa
GUZTIZKOA							

c) Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak.

Egindako gastu bakoitzari buruzko informazioa, honako hauek adierazita:

- Gastuaren deskribapena.
- Egotzi beharko zatekeen aurrekontu-aplikazioa.
- Urtarrilaren 1ean aplikatzeko dauden obligazioen zenbatekoa.
- Urtean sortu eta aurrekontuan aplikatzeko dauden obligazioen zenbatekoa (abonuak); hau da, aurrekontuan aplikatzeko dauden eta ekitaldian «Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak» 413 kontuan erregistratu diren obligazioak.
- Aplikatzeko dauden eta ekitaldiko aurrekontuan egotzita dauden obligazioen zenbatekoa, ekitaldikoak izan edo aurreko ekitaldietakoak (zordunketak).
- Abenduaren 31n aplikatzeko dauden obligazioen zenbatekoa.
- Abenduaren 31n aplikatzeko dauden obligazioen zenbatekotik egun horretan ordainduta dagoena.
- Oharpenak. Gutxienez, adieraziko da kontua egiteko unean gauzatuta dagoen ekitaldiko aurrekontuan egin beharreko aplikazioa, eta urtarrilaren 1ean aplikatzeko dagoen zenbatekoa ez bada aurreko urteko abenduaren 31n aplikatzeko zegoena, horren zergatia azalduko da.

Gastuaren deskribapena		Aurrekontu-aplikazioa	Aurrekontuan aplikatzeko dagoen zenbatekoa				Abenduaren 31-n ordaindutako zenbatekoa	Oharrak
Kodea	Izena		Urtarrilaren	Abonuak	Zordunketak	Abenduaren		

			1-ean			31-n		
GUZTIZKOA								

2. Diru-sarreren aurrekontua.

a) Proceso de gestión.

Informazioa ezeztatutako eta baliogabetutako eskubideez eta bilketa garbiaz, kasuan kasuko alboko tauletako xehetasunen arabera.

Urteko ekitaldia, sarreren aurrekontua

a.1) Ezeztatutako eskubideak

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Likidazioa ezeztatzea	Atzeratzea eta zatikatzea	Diru sarreren itzulketa	Ezeztatutako eskubideak guztira
GUZTIZKOA					

a.2) Baliogabetutako eskubideak

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kobrantzak espezietan	Kaudimen gabeziak	Beste arrazoi batzuk	Baliogabetutako eskubideak guztira
GUZTIZKOA					

a.3) Bilketa garbia

Aurrekontu- aplikazioa	Deskribapena	Bilketa osoa	Diru sarreren itzulketak	Bilketa garbia
GUZTIZKOA				

b) Diru-sarreren itzulketak

Aurrekontu-	Deskribapena	Ordaindu gabe urtarrilaren	Hasierako saldoaren aldaketak	Ekitaldian	Aintzatetsitako itzulketak	Preskripzioak	Ekitaldian	Ordaindu gabe abenduaren

aplikazioa		1-ean	eta ezeztapenak	aintzatetsitakoak	guztira		ordaindutakoak	31-n
GUZTIZKOA								

c) Sarrera-konpromisoak.

Sarrera-konpromisoei buruzko informazioa, alboko taulako xehetasunekin.

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Hitzartutako konpromisoak			Egindako konpromisoak	Abenduaren 31-n egiteko dauden konpromisoak
		Itxitako aurrekontuetatik jasotakoak	Ekitaldikoak	Guztizkoa		
GUZTIZKOA						

23.2. Itxitako ekitaldiak.

1. Itxitako aurrekontuetako obligazioak

Ekitaldi bakoitzeko, itxitako aurrekontuetako obligazioei buruzko informazioa aurkeztuko da alboko taulako xehetasunekin.

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Urtarrilaren 1-ean ordaindu gabe dauden obligazioak	Hasierako saldoaren aldaketak eta ezeztapenak	Obligazioak guztira	Preskripzioak	Egindako ordainketak	Abenduaren 31-n ordaindu gabe dauden obligazioak
GUZTIZKOA							

2. Kobratzeko dauden aurrekontu itxietako eskubideak.

Ekitaldi bakoitzeko, itxitako aurrekontuetan kobratzeko dauden eskubideei buruzko informazioa aurkeztuko da, kasuan kasuko alboko tauletako xehetasunen arabera.

a) Kobratzeko dauden eskubideak guztira

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Urtarrilaren 1-ean kobratzeko dauden eskubideak	Hasierako saldoaren aldaketak	Ezeztatutako eskubideak	Baliogabetutako eskubideak	Bilketa	Abenduaren 31-n kobratzeko dauden eskubideak

GUZTIZKOA							

b) Ezeztatutako eskubideak

Aurrekontu- aplikazioa	Deskribapena	Likidazioa ezeztatzea	Atzeratzea eta zatikatzea	Ezeztatutako eskubideak guztira
GUZTIZKOA				

c) Ezeztatutako eskubideak

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kobrantzak espezietan	Kaudimen gabeziak	Preskripzioak	Beste arrazoi batzuk	Baliogabetutako eskubideak guztira
GUZTIZKOA						

23.3. Geroagoko ekitaldiak.

1. Gastu-konpromisoak geroagoko ekitaldietako aurrekontuetan zordunduta.

   Ekitaldian nahiz aurreko ekitaldietan eskuratutako gastu-konpromisoei buruzko informazioa, konpromisoak hurrengo ekitaldietako aurrekontuei egozgarriak badira, alboko taulako xehetasunekin.

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Ekitaldi hauetako aurrekontuan zordunduta hartutako gastu-konpromisoak				
		(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	Hurrengo urteak
TOTAL						

2. Sarrera-konpromisoak geroagoko ekitaldietako aurrekontuetan zordunduta.

   Ekitaldian itundutako sarrera-konpromisoak jakinaraziko dira, hala nola aurreko ekitaldietan itundutakoak, eragina badute geroagoko ekitaldietako aurrekontuetan, alboko taulako xehetasunekin..

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Ekitaldiari egozgarriak diren hitzartutako sarrera-konpromisoak				
		(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	Hurrengo urteak
TOTAL						

23.4. Gastu-proiektuak gauzatzea.

Urtarrilaren 1ean gauzatzen ari diren edo ekitaldian hasi diren gastu-proiektuen bana-banako informazioa aurkeztuko da, alboko tauletako xehetasunekin.

«Finantziazio lotua» zutabean, proiektuak bere finantziazioari lotutako baliabiderik duen adieraziko da.

1. Gauzatzearen laburpena

Proiektuaren kodea	Izena	Hasierako urtea	Iraupena	Aurreikusitako gastua	Konprometitutako gastua	Aintzatetsitako obligazioak			Egin gabe dagoen gastua	Finantziazio lotua
						Urtarrilaren 1-ean	Ekitaldikoak	Guztizkoa		

2. Gauzatzeko dauden urtekoak

Proiektuaren kodea	Izena	Egin gabe dagoen gastua			
		(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	Hurrengo urteak
GUZTIZKOA					

23.5. Finantziazio lotua duten gastuak.

Finantziazio lotua duen gastu bakoitzeko, agente bakoitzaren finantziazio-desbideratzeak jakinaraziko dira, ekitaldikoak bezala metatuak ere, alboko taulako xehetasunekin.

Finantziazio-desbideratzeak agente finantzatzaile bakoitzeko

Gastu-kodea	Deskribapena	Agente finantzatzailea	Finantziazio-koefizientea	Ekitaldiko desbideratzeak	Desbideratze metatuak

		Hirugarrena	Aurrekontu-aplikazioa		Positiboak	Negatiboak	Positiboak	Negatiboak
GUZTIZKOA								

23.6. Diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakinari buruzko informazioa jasoko da alboko taulako xehetasunekin. Era berean, kobrantza zalantzagarriko saldoei buruzko informazio xehatua jasoko da, eta informazio horretan, gutxienez, hauek jasoko dira: erakunde bakoitzak saldoen zenbatekoa zehazteko erabakitako irizpideak, zenbatesteko metodoa, eta irizpide horiek aplikatuta lortutako zenbatekoak.

Diruzaintzako gerakina lortzeko, funts likidoen eta kobratzeko dauden eskubideen arteko batuketa egiten da, emaitzatik ordaintzeko dauden obligazioak kentzen dira, eta aplikatzeko dauden partidak batzen, betiere irizpide hauen arabera:

1. Kuantifikazioa egiteko, kalkuluan esku hartzen duten kontuek ekitaldiaren amaieran duten saldoa kontuan hartuko da, sarreren aurrekontua erregularizatzeko eta zorrak eta kreditua epe luzearen eta motzaren artean birsailkatzeko eragiketak egin ondoren, eta ekitaldia itxi baino lehen.

2. Ekitaldi amaierako funts likidoak diru-kutxetan eta banku-kontuetan baliagarri dauden saldoek osatzen dituzte, aurrekonturako egozpenarekin hornituek izan ezik, hala nola likidezia-maila nahikoa duten eta diruzaintzako aldi baterako gerakinen xede izan diren aurrekontuz besteko inbertsio finantzarioek. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko «Kutxa. Justifikatu beharreko ordainketak» 5740 azpikontuaren eta «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Justifikatu beharreko ordainketak» 5750 azpikontuaren saldoak, ez eta «Eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak» 577 kontuaren saldoan aurrekontu-trataera daukan zatia ere.

3. Kobratzeko dauden eskubideetan, hauek bereiziko dira:

   a) Urteko aurrekontuan kobratzeko dauden eskubideen zenbatekoa. Zenbateko hori «Zordunak aintzatetsitako eskubideengatik. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuaren saldotik ateratzen da, eta kontu horretako sail-kontuen saldoak batzearen emaitza da.

   b) Itxitako aurrekontuetan kobratzeko dauden eskubideen zenbatekoa. Zenbateko hori «Zordunak aintzatetsitako eskubideengatik. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuaren saldotik ateratzen da, eta kontu horretako sail-kontuen saldoak batzearen emaitza da.

   c) Zordunen kontuei dagozkien eta kobratzeko dauden eskubideen zenbatekoa, baldin eta, indarreko araudiaren arabera, ez badira aurrekontuzkoak, ez eta mugaeguneratzen direnean ere. Zenbateko hori honako hauek batuta lortzen da:

      - «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzak» 257 kontuaren saldoan eta «Epe luzera eratutako fidantzak» 270 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren fidantzei dagokien zatia.

      - «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuak» 258 kontuaren saldoan eta «Epe luzera eratutako

gordailuak» 275 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren gordailuei dagokien zatia.

- BEZa jasanaraztearen ondorioz hirugarrenen zorrei dagokien zenbatekoa. Zenbateko hori «Zordunak jasanarazitako BEZagatik» 440 kontuaren saldokoa da.

  Kobrantza kudeatzeaz arduratutako erakundeek egindako sarreren ondorioz, erakundearen aldeko kredituen zenbatekoa. Zenbateko hori «Zordunak bilketa-zerbitzuagatik» 442 kontuaren saldotik ateratzen da, eta kontu horretako sail-kontuen saldoak batzearen emaitza da.

- Aurrekontuzkoak ez diren eta mugaeguneratu ondoren aurrekontuzkoak ez izaten jarraituko duten gainerako zordunei dagokien zenbatekoa. Zenbateko hori «Aurrekontuzkoak ez diren beste zordun batzuk» 449 kontuaren saldokoa da.

- Baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura gestionatzen, likidatzen eta biltzen badira, kontabilitate-subjektuaren alde dauden kredituen zenbatekoa, normalean egindako konturako entregen ondorioz. Zenbateko hori, normalean, «Erakunde publikoak, eskud. k/k» 456 kontuaren saldo zordunetatik ateratzen da.

- «Administrazio publikoak» 47 azpitaldeko kontuetan, kontuen zordun-egoera adierazten duten saldoei dagokien zenbatekoa; hau da, «Ogasun publikoa, zorduna zenbait kontzepturengatik» 470 eta «Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak, zordunak» 471 kontuen saldoei dagokiena.

- Kontabilitate-subjektuak BEZari lotutako eragiketak egiten baditu, eta likidatzeko zenbatekoak badaude, «Ogasun publikoa. Jasandako BEZa» 472 kontuaren saldoa ere kontuan hartu beharko da.

- «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe motzeko fidantzak» 537 kontuaren saldoan eta «Epe motzera eratutako fidantzak» 565 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren fidantzei dagokien zatia.

- «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe motzeko gordailuak» 538 kontuaren saldoan eta «Epe motzera eratutako gordailuak» 566 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren gordailuei dagokien zatia.

- «Kontu korronte ez-bankarioak» 550 kontuaren saldo zordunak.

4. Ordaintzeko dauden obligazioetan, hauek bereiziko dira:

   a) Urteko aurrekontuan ordaintzeko dauden obligazioen zenbatekoa. Zenbateko hori «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuaren saldotik ateratzen da, eta kontu horretako sail-kontuen saldoak batzearen emaitza da.

   b) Itxitako aurrekontuetan ordaintzeko dauden obligazioen zenbatekoa. Zenbateko hori «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Gastuen aurrekontu itxiak» 401 kontuaren saldotik ateratzen da, eta kontu horretako sail-kontuen saldoak batzearen emaitza da.

   c) Hartzekodunen kontuei dagozkien eta ordaintzeko dauden obligazioen zenbatekoa, baldin eta, indarreko araudiaren arabera, ez badira aurrekontuzkoak, ez eta mugaeguneratzen direnean ere. Zenbateko hori honako hauek batuta lortzen da:

- «Taldeko erakundeetatik, talde anitzekoetatik eta elkartuetatik jasotako epe luzeko fidantzak» 165 kontuaren saldoan eta «Epe luzera jasotako fidantzak» 180 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren fidantzei dagokien zatia.

- «Taldeko erakundeetatik, talde anitzekoetatik eta elkartuetatik jasotako epe luzeko gordailuak» 166 kontuaren saldoan eta «Epe luzera jasotako gordailuak» 185 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren gordailuei dagokien zatia.

- Jasandako BEZ kengarriaren ondorioz hartzekodunei ordaintzeko dagoen zenbatekoa. Zenbateko hori «Hartzekodunak jasandako BEZagatik» 410 kontuaren saldokoa da.

- Bilketa-zerbitzua ematen bazaie beste erakunde publiko batzuei, entitateak erakunde horiekin egindako bilketagatik dauzkan zorren zenbatekoa. «Erakunde publiko hartzekodunak baliabideak biltzeagatik» 414 kontuak daukan saldotik ateratzen da zenbateko hori.

- Aurrekontuzkoak ez diren eta mugaeguneratu ondoren aurrekontuzkoak ez izaten jarraituko duten gainerako hartzekodunei dagokien zenbatekoa. Zenbateko hori «Aurrekontuzkoak ez diren beste hartzekodun batzuk» 419 kontuaren saldokoa da.

- Baliabideak beste erakunde publiko batzuen kontura gestionatzen, likidatzen eta biltzen badira, kontabilitate-subjektuaren konturako zorren zenbatekoa, bildutako baliabideen ondorioz. «Erakunde publikoak likidatzeko dauden sarrerengatik» 453 kontuaren saldotik ateratzen da zenbateko hori. Era berean, erakundeak baliabideen jabe diren erakundeei egindako konturako entregen ondorioz dauzkan zorren zenbatekoa ere barruan sartu beharko da. Zenbateko hori «Erakunde publikoak, eskud. k/k» 456 kontuaren saldo hartzekodunetatik ateratzen da.

- Ekitaldia amaitzean behin betiko aplikatzeko badaude beste erakunde publiko batzuen baliabideei lotutako kobrantzak, aipatu kobrantzen zenbatekoan handitu beharko da kontabilitate-subjektuaren konturako zorren zenbatekoa, eta kobrantzen zenbateko hori «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuaren saldoan baliabide horiei dagokien zatia izango da.

- «Administrazio publikoak» 47 azpitaldeko kontuetan, kontuen hartzekodun-egoera adierazten duten saldoei dagokien zenbatekoa; hau da, «Ogasun publikoa, hartzekoduna zenbait kontzepturengatik» 475 eta «Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak, hartzekodunak» 476 kontuen saldoei dagokiena.

- Kontabilitate-subjektuak BEZari lotutako eragiketak egiten baditu, eta likidatzeko zenbatekoak badaude, «Ogasun publikoa. Jasanarazitako BEZa» 477 kontuaren saldoa ere jaso beharko da.

- Erakundeak diruzaintzako aldi baterako desfaseak estaltzeko hartutako zorren zenbatekoa. «Jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk diruzaintzako eragiketengatik» 502 kontuaren eta «Zorrak diruzaintzako eragiketengatik» 521 kontuaren saldotik ateratzen da zenbateko hori.

- «Taldeko erakundeetatik, talde anitzekoetatik eta elkartuetatik jasotako epe motzeko fidantzak» 165 kontuaren saldoan eta «Epe motzera jasotako fidantzak» 180 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren fidantzei dagokien zatia.

- «Taldeko erakundeetatik, talde anitzekoetatik eta elkartuetatik jasotako epe motzeko gordailuak» 166 kontuaren saldoan eta «Epe motzera jasotako gordailuak» 185 kontuaren saldoan aurrekontuzkoa ez den eran tratatu diren gordailuei dagokien zatia.

- «Kontu korronte ez-bankarioak» 550 kontuaren saldo hartzekodunak.

5. Aplikatzeko dauden partidetan, hauek bereiziko dira:

   a) «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan eta «Aplikatzeko dauden beste partida batzuk» 559 kontuan jasota eta behin betiko aplikatzeko dauden zenbateko kobratuak. Behin betiko aplikatzeko dauden kobrantza batzuk salbuesten dira, beste erakunde publiko batzuen baliabideei dagozkienak, ordaintzeko dauden obligazio moduan jasoko baitira.

   b) Behin betiko aplikatzeko dauden zenbateko ordainduak, zeinetan, «Aplikatzeko dauden ordainketak» 555 kontuan jasotakoez gain, birjartzeko dauden kutxa finkoko aurrerakinen kontura egindako ordainketak jasotzen baitira, «Justifikatzeko dauden kutxa finkoko aurrerakinetarako funtsen hornidurak» 5581 azpikontuan bildutakoak. Era berean, «Ordaintzeko dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko libramenduak» 5585 azpikontuaren saldoa ere jasoko da.

6. Gastu orokorrak finantzatzeko baliagarri dagoen diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, kobratzeko dauden eskubideetatik ekitaldiaren amaieran biltzeko zailtzat edo ezinezkotzat jotzen direnen zenbatekoa gutxitzen zaio diruzaintzako gerakinari, hala nola finantziazio lotuan gertatutako soberakina.

7. Kobratzeko dauden eskubideetan biltzeko zailak edo ezinezkoak direnen zenbatekoa (kobrantza zalantzagarriko saldoena) zerrendatzen diren azpikontuen saldoan diruzaintzako gerakin osoa kalkulatzeko kontuan hartu diren kobrantza-eskubideei dagokien zatia da.

   a) «Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan epe luzera eratutako fidantzen balio-narriadura» 2961 azpikontua.

   b) «Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan epe luzera eratutako gordailuen balio-narriadura» 2962 azpikontua.

   c) «Epe luzera eratutako fidantzen balio-narriadura» 2981 azpikontua.

   d) «Epe luzera eratutako gordailuen balio-narriadura» 2982 azpikontua.

   e) «Kredituen balio-narriadura. Gestio-eragiketak» 4900 azpikontua.

   f) «Kredituen balio-narriadura. Kobratu beharreko beste kontu batzuk» 4901 azpikontua.

   g) «Kredituen balio-narriadura. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 4902 azpikontua.

   h) «Kredituen balio-narriadura. Beste inbertsio finantzario batzuk» 4903 azpikontua.

   i) «Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan epe motzera eratutako fidantzen balio-narriadura» 5961 azpikontua.

   j) «Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan epe motzera eratutako gordailuen balio-narriadura» 5962 azpikontua.

   k) «Epe luzera eratutako fidantzen balio-narriadura» 5981 azpikontua.

   l) «Epe luzera eratutako gordailuen balio-narriadura» 5982 azpikontua.

Kobrantza zalantzagarriko saldoen zenbatekoa zehazteko, honako hauek kontuan hartu beharko dira: zorren antzinatasuna; zorren zenbatekoa; kasuan kasuko baliabideen izaera; borondatezko epean bezala betearazpen-bidez ere bildutakoaren ehunekoak; eta toki-erakundeak neurriz erabakitako gainerako balioespen-irizpideak.

8. Gehiegizko finantziazio lotua ekitaldiaren amaieran metatutako finantzaketa-desbideratze positiboak batzearen emaitza da.

Kontu zk.a:	Osagaiak	20XX	20XX-1
57,556	1. (+) Funts likidoak		
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak		
430	- (+) Urteko aurrekontukoak		
431	- (+) Itxitako aurrekontuetakoak		
257, 258, 270, 275, 440, 442, 449, 456, 470, 471, 472, 537, 538, 550, 565, 566	- (+) Aurrekontuzkoak ez diren eragiketetakoak		
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak		
400	- (+) Urteko aurrekontukoak		
401	- (+) Itxitako aurrekontuetakoak		
165, 166, 180, 185, 410, 414, 419, 453, 456, 475, 476, 477, 502, 515, 516, 521, 550, 560, 561	- (+) Aurrekontuzkoak ez diren eragiketetakoak		
	4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak		
554, 559	- (-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak		
555, 5581, 5585	- (+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak		
	I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 –		

	3 + 4)		
2961, 2962, 2981, 2982, 4900, 4901, 4902, 4903, 5961, 5962, 5981, 5982	II. Kobrantza zalantzagarriko saldoak		
	III. Gehiegizko finantziazio lotua		
	IV. Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako (I – II – III)		

24. Itxieraren ondorengo gertakariak.

Erakundeak honako hauek jakinaraziko ditu:

a) Ekitaldiaren itxiera-datan bazeuden eta, aintzatespen- eta balioespen-arauak ezartzearen ondorioz, urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuetan jasotako zifretan doikuntza egitea eragin duten zirkunstantziak agerian jartzen dituzten geroagoko gertaerak.

b) Ekitaldiaren itxiera-datan bazeuden zirkunstantziak azaleratzen dituzten itxiera ondorengo gertaerak, beren izaerarengatik urteko kontuetako zifretan doikuntzak egitera behartzen ez dutenak, baina memorian jasotako informazioa aldatzera behartzen dutenak.

c) Ekitaldiaren itxiera-datan ez zeuden zirkunstantziak erakusten dituzten itxiera ondorengo gertakariak, baldin eta oso garrantzitsuak badira; hain garrantzitsuak non horri buruzko informaziorik ez emateak eragina izan bailezake erabiltzaileek urteko kontuak ebaluatzeko duten gaitasunean.

LAUGARREN ZATIA.
KONTU-TAULA.

1. Taldea. Oinarrizko finantzaketa.

10. Ondarea.

100. Ondarea.

101. Jasotako ondarea.

1010. Diruzko ondare-ekarpena.

1011. Ondasunen eta eskubideen ekarpena.

1012. Pasibo finantzarioen onarpena eta barkatzea.

1013. Erakunde jabearen edo jabeen beste ekarpen batzuk.

1014. Ondasunen eta eskubideen itzulpena.

1015. Beste itzulketa batzuk.

12. Emaitzak.

120. Aurreko ekitaldietako emaitzak.

129. Ekitaldiko emaitza.

13. Diru-laguntzak eta doikuntzak balio-aldaketagatik.

130. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak.

131. Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzak.

132. Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak.

133. Aktibo finantzario salgarrien balorazio-doikuntzak.

134. Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak.

136. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak.

14. Epe luzeko hornidurak.

142. Erantzukizunetarako epe luzeko hornidura.

143. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako epe luzeko hornidurak.

148. Transferentzia eta diru-laguntzetarako epe luzeko hornidura.

149. Epe luzeko bestelako hornidurak.

15. Epe luzeko jesapenak eta antzeko beste jaulkipena batzuk.

150. Epe luzeko obligazioak eta bonuak.

156. Jesapenen eta antzeko jaulkipenen epe luzeko interesak.

1560. Obligazio eta bonuen epe luzeko interesak.

1569. Bestelako balore negoziagarrien epe luzeko interesak.

159. Epe luzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak.

16. Epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

163. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

164. Balore negoziagarrietan adierazitako epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

165. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako fidantzak.

166. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako gordailuak.

167. Zorren epe luzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

169. Epe luzeko beste zor batzuk taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

17. Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik dauden epe luzeko zorrak.

170. Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

172. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak.

173. Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak.

174. Epe luzeko finantza-errentamenduengatik hartzekodunak.

176. Epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

1760. Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

1761. Epe luzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak.

177. Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe luzeko interesak.

178. Beste zor batzuen epe luzeko interesak.

179. Epe luzeko bestelako zorrak.

18. Jasotako fidantzak eta gordailuak eta epe luzera periodifikatzeagatiko doikuntzak.

180. Epe luzera jasotako fidantzak.

185. Epe luzera jasotako gordailuak.

186. Epe luzera aurreratutako sarrerak.

2. Talde. Aktibo ez-korrontea.

20. Ibilgetu ukiezinak.

200. Inbertsioa ikerketan.

201. Inbertsioa garapenean.

203. Jabetza industriala eta intelektuala.

206. Aplikazio informatikoak.

207. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioak.

208. Ibilgetu ukiezinetarako aurrerakinak.

209. Bestelako ibilgetu ukiezina.

21. Ibilgetu materialak.

210. Lurrak eta ondasun naturalak.

211. Eraikuntzak.

212. Azpiegiturak.

213. Ondare historikoaren ondasunak.

214. Makineria eta tresneria.

215. Instalazio teknikoak eta beste instalazioa batzuk.

216. Altzariak.

217. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak.

218. Garraio-elementuak.

219. Bestelako ibilgetu materiala.

22. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

220. Inbertsioak lurretan.

221. Eraikuntzetako inbertsioak.

23. Ekoizpen-bidean diren ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetako inbertsioak.

230. Lur eta ondasun naturalen egokitzapena.

2300. Lur eta ondasun naturalen egokitzapena. Ibilgetu materiala.

2301. Lur eta ondasun naturalen egokitzapena. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

231. Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak.

2310. Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak. Ibilgetu materiala.

2311. Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

232. Ekoizpen-bidean diren azpiegiturak.

233. Ekoizpen-bidean diren ondare historikoaren ondasunak.

234. Muntatze-bidean diren makineria eta tresneria.

235. Muntatze-bidean diren instalazio teknikoak eta beste instalazio batzuk.

237. Muntatze-bideko informazioa prozesatzeko ekipamenduak.

238. Ekoizpen-bidean den bestelako ibilgetu materiala.

239. Ibilgetu materialetarako eta ondasun higiezinetako inbertsioetarako aurrerakinak.

2390. Ibilgetu materialetarako aurrerakinak.

2391. Ondasun higiezinetako inbertsioetarako aurrerakinak.

24. Lurzoruaren ondare publikoa.

240. Lurzoruaren ondare publikoko lurrak.

241. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak.

243. Lurzoruaren ondare publikoko lurren egokitzapena.

244. Ekoizpen bidean dauden lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak.

248. Lurzoruaren ondare publikoko ondasun eta eskubideetarako aurrerakinak.

249. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideak.

25. Epe luzeko inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

250. Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan.

2500. Zuzenbide publikoko entitateetan.

2501. Merkataritza-sozietateetan.

2502. Beste erakunde batzuetan.

251. Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan.

2510. Zuzenbide publikoko entitateetan.

2511. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan.

2512. Beste erakunde batzuetan.

252. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak.

2520. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak.

2521. Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak.

253. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak.

255. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe luzeko interesak.

257. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzak.

258. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuak.

259. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak.

26. Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk.

260. Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan.

261. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak.

2610. Epemugara arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

2611. Epe luzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

262. Epe luzeko kredituak.

2620. Ibilgetua inorenganatzeagatik epe luzeko kredituak.

2621. Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak.

2629. Epe luzeko bestelako kredituak.

263. Epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

2630. Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

2631. Epe luzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak.

264. Langileei emandako epe luzeko kredituak.

266. Zorra adierazten duten baloreen epe luzeko interesak.

267. Kredituen epe luzeko interesak.

268. Epe luzeko ezarpenak.

269. Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe luzeko ordainketak.

27. Epe luzera eratutako fidantzak eta gordailuak.

270. Epe luzera eratutako fidantzak.

275. Epe luzera eratutako gordailuak.

28. Ibilgetuaren amortizazio metatua.

280. Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua.

2800. Ikerketako inbertsioaren amortizazio metatua.

2801. Garapeneko inbertsioaren amortizazio metatua.

2803. Jabetza industrialaren eta intelektualaren amortizazio metatua.

2806. Aplikazio informatikoen amortizazio metatua.

2807. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen amortizazio metatua.

2809. Bestelako ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua.

281. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.

2810. Lurren eta ondasun naturalen amortizazio metatua.

2811. Eraikuntzen amortizazio metatua.

2812. Azpiegituren amortizazio metatua.

2813. Ondare historikoaren ondasunen amortizazio metatua.

2814. Makineriaren eta tresneriaren amortizazio metatua.

2815. Instalazio teknikoen eta bestelakoen amortizazio metatua.

2816. Altzarien amortizazio metatua.

2817. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen amortizazio metatua.

2818. Garraio-elementuen amortizazio metatua.

2819. Bestelako ibilgetu materialaren amortizazio metatua.

282. Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua.

2820. Lurretako inbertsioen amortizazio metatua.

2821. Eraikuntzetako inbertsioen amortizazio metatua.

284. Lurzoruaren ondare publikoaren amortizazio metatua.

2840. Lurzoruaren ondare publikoko lurren amortizazio metatua.

2841. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen amortizazio metatua.

2849. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen amortizazio metatua.

29. Aktibo ez-korronteen balio-narriadura.

290. Ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura.

2903. Jabetza industrialaren eta intelektualaren balio-narriadura.

2906. Aplikazio informatikoen balio-narriadura.

2907. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen balio-narriadura.

2909. Bestelako ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura.

291. Ibilgetu materialaren balio-narriadura.

2910. Lurren eta ondasun naturalen balio-narriadura.

2911. Eraikuntzen balio-narriadura.

2912. Azpiegituren balio-narriadura.

2913. Ondare historikoaren ondasunen balio-narriadura.

2914. Makineriaren eta tresneriaren balio-narriadura.

2915. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen balio-narriadura.

2916. Altzarien balio-narriadura.

2917. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen balio-narriadura.

2918. Garraio-elementuen balio-narriadura.

2919. Bestelako ibilgetu materialaren balio-narriadura.

292. Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriadura.

2920. Lurren inbertsioen balio-narriadura.

2921. Eraikuntzetako inbertsioen balio-narriadura.

293. Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura.

2930. Lurzoruaren ondare publikoko lurren balio-narriadura.

2931. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen balio-narriadura.

2939. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen balio-narriadura.

294. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

2940. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeetako, talde anitzetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

2941. Taldean, talde anitzean eta elkartuetan dauden merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

2942. Taldeko eta talde anitzeko beste erakundeetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

295. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak irudikatzen dituzten baloreen balio-narriadura.

2950. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

2951. Taldeko entitateei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien balore salgarrien balio-narriadura.

296. Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe luzeko bestelako inbertsio finantzarioen eta kredituen balio-narriadura.

2960. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituen balio-narriadura.

2961. Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzen balio-narriadura.

2962. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako gordailuen balio-narriadura.

297. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura.

2970. Mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

2971. Balore salgarrien balio-narriadura.

298. Epe luzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

2980. Epe luzeko kredituen balio-narriadura.

2981. Epe luzera eratutako fidantzen balio-narriadura.

2982. Eratutako gordailuen balio-narriadura.

2983. Atzeratu eta zatitzearen ondoriozko kredituen balio-narriadura.

299. Ibilgetu materialaren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2990. Lurren eta ondasun naturalen balio-narriadura lagarako usufruktuagatik.

2991. Eraikuntzen balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2992. Azpiegituren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2993. Ondare historikoaren ondasunen balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2999. Bestelako ibilgetu materialaren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

3 taldea. Izakinak eta salgai dauden beste aktibo batzuk.

30. Salerosketakoak.

300. A salgaiak.

301. B salgaiak.

31. Lehengaiak.

310. A lehengaiak.

311. B lehengaiak.

32. Beste hornikuntza batzuk.

320. Elementuak eta multzo txertagarriak.

321. Erregaiak.

322. Ordezko piezak.

325. Hainbat material.

326. Bilgarriak.

327. Ontziak.

328. Bulegoko materiala.

33. Ekoizpen-bidean diren produktuak.

330. Ekoizpen-bidean diren A produktuak.

331. Ekoizpen-bidean diren B produktuak.

34. Produktua erdibukatuak.

340. A produktu erdibukatuak.

341. B produktu erdibukatuak.

35. Produktu bukatuak.

350. A produktu bukatuak.

351. B produktu bukatuak.

36. Azpiprodukuak, hondarrak eta material berreskuratuak.

360. A azpiprodukuak.

361. B azpiprodukuak.

365. A hondarrak.

366. B hondarrak.

368. A material berreskuratuak.

369. B material berreskuratuak.

37. Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak.

370. Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak.

38. Salgai dauden aktiboak.

380. Salgai dauden aktiboak.

39. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen balio-narriadura.

390. Salgaien balio-narriadura.

391. Lehengaien balio-narriadura.

392. Beste hornikuntza batzuen balio-narriadura.

393. Ekoizpen-bidean diren produktuen balio-narriadura.

394. Produktu erdibukatuen balio-narriadura.

395. Produktu bukatuen balio-narriadura.

396. Azpiprodukturen, hondarren eta material berreskuratuen balio-narriadura.

398. Salgai dauden aktiboen balio-narriadura.

4. taldea. Hartzekodunak eta zordunak.

40. Aurrekontu-hartzekodunak.

400. Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua.

4000. Kudeaketa-eragiketak.

4001. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4002. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4003. Bestelako zorrak.

401. Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak.

4010. Kudeaketa-eragiketak.

4011. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4012. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4013. Bestelako zorrak.

41. Aurrekontuzkoak ez diren hartzekodunak.

410. Jasandako BEZarengatik hartzekodunak.

411. Sortutako interesengatik hartzekodunak.

413. Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak.

4130. Kudeaketa-eragiketak.

4131. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4132. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4133. Bestelako zorrak.

414. Erakunde publiko hartzekodunak baliabideak biltzeagatik.

416. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak.

418. Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak.

4180. Kudeaketa-eragiketak.

4181. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4182. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4183. Bestelako zorrak.

419. Aurrekontuzkoak ez diren beste hartzekodun batzuk.

43. Aurrekontu-zordunak.

430. Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontu.

4300. Kudeaketa-eragiketak.

4301. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4302. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4303. Beste inbertsio finantzario batzuk.

431. Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak.

4310. Kudeaketa-eragiketak.

4311. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4312. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4313. Beste inbertsio finantzario batzuk.

433. Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide baliogabetuak.

4330. Likidazioak baliogabetzeagatik.

43300. Kudeaketa-eragiketak.

43301. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43302. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43303. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4332. Atzeratu eta zatikatzeagatik.

43320. Kudeaketa-eragiketak.

43321. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43322. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43323. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4339. Sarrerak itzultzeagatik.

434. Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak.

4340. Likidazioak baliogabetzeagatik.

43400. Kudeaketa-eragiketak.

43401. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43402. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43403. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4342. Atzeratu eta zatikatzeagatik.

43420. Kudeaketa-eragiketak.

43421. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43422. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43423. Beste inbertsio finantzario batzuk.

437. Sarreren itzulketak.

438. Indarrean dagoen aurrekontuaren eskubide baliogabetuak.

4380. Espezietan kobratzeagatik.

43800. Kudeaketa-eragiketak.

43801. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43802. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43803. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4381. Kaudimen ezarengatik eta beste arrazoi batzuengatik.

43810. Kudeaketa-eragiketak.

43811. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43812. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43813. Beste inbertsio finantzario batzuk.

439. Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak.

4390. Espezietan kobratzeagatik.

43900. Kudeaketa-eragiketak.

43901. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43902. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43903. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4391. Kaudimen ezarengatik eta beste arrazoi batzuengatik.

43910. Kudeaketa-eragiketak.

43911. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43912. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43913. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4392. Preskripzioagatik.

43920. Kudeaketa-eragiketak.

43921. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43922. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzetan edo elkartuetan.

43923. Beste inbertsio finantzario batzuk.

44. Aurrekontuzkoak ez diren zordunak.

440. Jasanarazitako BEZarengatik zordunak.

441. Sortutako sarrerengatik zordunak.

442. Bilketa-zerbitzuarengatik zordunak.

4420. Erakunde publiko zordunak baliabideak biltzeagatik.

4429. Beste zordun batzuk bilketa-zerbitzuarengatik.

443. Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak.

4430. Kudeaketa-eragiketak.

4431. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4432. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4433. Beste inbertsio finantzario batzuk.

446. Ziurtatzeko dauden beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboengatik zordunak.

449. Aurrekontuzkoak ez diren bestelako zordunak.

45. Beste erakunde publiko batzuek baliabideak banatzeagatik zordunak eta hartzekodunak.

450. Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak.

451. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak.

4510. Likidazioak baliogabetzeagatik.

4519. Sarrerak itzultzeagatik.

452. Erakunde publikoak, kobratzeko eskubideengatik.

453. Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik.

454. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik sarreren itzulketa.

455. Erakunde publikoak, ordaintzeko dituzten sarrerak itzultzeagatik.

456. Erakunde publikoak, k/k dirua.

457. Beste erakunde publiko batzuen baliabideen ondoriozko sarreren itzulketengatik hartzekodunak.

458. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak.

4580. Espezietan kobratzeagatik.

4581. Kaudimen ezarengatik eta beste arrazoi batzuengatik.

4582. Preskripzioagatik.

47. Herri-administrazioak.

470. Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik zordun.

4700. Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun.

4709. Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptuengatik zordun.

471. Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, zordunak.

4710. Gizarte Segurantza.

4719. Gizarte Aurreikuspeneko bestelako erakundeak, zordunak.

472. Ogasun Publikoa, jasandako BEZ.

4720. Jasandako BEZa.

475. Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik hartzekodun.

4750. Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun.

4751. Ogasun Publikoa, egindako atxikipenengatik hartzekodun.

4759. Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptuengatik hartzekodun.

476. Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak.

4760. Gizarte Segurantza.

4769. Gizarte-aurreikuspeneko bestelako erakundeak, hartzekodunak.

477. Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa.

4770. Jasanarazitako BEZa.

48. Periodifikatzeagatiko doikuntzak.

480. Gastu aurreratuak.

485. Epe motzera aurreratutako sarrerak.

49. Kredituen balio-narriadura.

490. Kredituen balio-narriadura.

4900. Kudeaketa-eragiketak.

4901. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4902. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4903. Beste inbertsio finantzario batzuk.

5. Taldea. Kontu finantzarioak.

50. Jesapenak eta epe motzeko antzeko beste jaulkipen batzuk.

500. Epe motzeko obligazioak eta bonuak.

5000. Kostu amortizatuko obligazioak eta bonuak.

5001. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko obligazioak eta bonuak.

502. Jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk diruzaintzako eragiketengatik.

5020. Jesapenak diruzaintzako kostu amortizatuko eragiketengatik.

5021. Jesapenak diruzaintzako arrazoizko balioko eragiketengatik emaitzetan aldaketak izanda.

506. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen epe motzeko interesak.

5060. Kostu amortizatuko obligazio eta bonuen epe motzeko interesak.

5061. Arrazoizko balioko obligazio eta bonuen epe motzeko interesak emaitzetan aldaketak izanda.

5062. Jesapenen epe motzeko interesak diruzaintzako kostu amortizatuko eragiketengatik.

5063. Jesapenen epe motzeko interesak diruzaintzako arrazoizko balioko eragiketengatik emaitzetan aldaketak izanda.

5065. Kostu amortizatuko bestelako balore negoziagarrien epe motzeko interesak.

5066. Arrazoizko balioko bestelako balore negoziagarrien epe motzeko interesak emaitzetan aldaketak izanda.

509. Epe motzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak.

5090. Kostu amortizatuko bestelako balore negoziagarriak.

5091. Arrazoizko balioko bestelako balore negoziagarriak emaitzetan aldaketak izanda.

51. Epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

513. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

514. Balore negoziagarrietan adierazitako epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

5140. Kostu amortizatuko balore negoziagarrietan adierazitako zorrak, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak.

5141. Arrazoizko balioko balore negoziagarrietan adierazitako zorrak emaitzetan aldaketak izanda, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak.

515. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako fidantzak.

516. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako gordailuak.

517. Zorren epe motzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

519. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin epe motzeko bestelako zorrak.

52. Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik epe motzeko zorrak.

520. Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

521. Diruzaintzako eragiketen ondoriozko zorrak.

522. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak.

523. Epe motzeko ibilgetu-hornitzaileak.

524. Epe motzeko errentamendu finantzarioagatik hartzekodunak.

526. Epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

5260. Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

5261. Epe motzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak.

5266. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

5267. Bestelako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

527. Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe motzeko interesak.

528. Bestelako zorren epe motzeko interesak.

529. Epe motzeko beste zor batzuk.

53. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera egindako inbertsio finantzarioak.

530. Epe motzeko partaidetzak taldeko erakundeetan.

5300. Zuzenbide publikoko entitateetan.

5301. Merkataritza-sozietateetan.

5302. Beste erakunde batzuetan.

531. Epe motzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan.

5310. Zuzenbide publikoko entitateetan.

5311. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan.

5312. Beste erakunde batzuetan.

532. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

5320. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak.

5321. Taldean eta talde anitzean dauden erakundeen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

5322 Taldean eta talde anitzean dauden erakundeen eta elkartuen arrazoizko balioko zorra adierazten duten baloreak, emaitzetan aldaketak izanda.

533. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe motzeko kredituak.

535. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe motzeko interesak.

536. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen kobratu beharreko dibidendua.

537. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako fidantzak.

538. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako gordailuak.

539. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak.

54. Epe motzeko beste inbertsio finantzario batzuk.

540. Epe motzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan.

5400. Epe motzeko inbertsioak ondare-tresna salgarrietan.

5401. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko ondare-tresnetako inbertsioak.

541. Epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

5410. Epemugara arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

5411. Epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

5412. Emaitzetan aldaketak dituen arrazoizko balioko zorra adierazten duten baloreak.

542. Epe motzeko kredituak.

5420. Ibilgetua inorenganatzeagatik epe motzeko kredituak.

5429. Epe motzeko bestelako kredituak.

543. Epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

5430. Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

5431. Epe motzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak.

5436. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

5437. Bestelako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

544. Langileei emandako epe motzeko kredituak.

545. Kobratu beharreko dibidendua.

546. Zorra adierazten duten baloreen epe motzeko interesak.

547. Kredituen epe motzeko interesak.

548. Epe motzeko ezarpenak.

549. Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak.

5490. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioenak.

5491. Aktibo finantzario salgarrienak.

55. Bestelako kontu finantzarioak.

550. Kontu korronte ez-bankarioak.

5500. Kontu korronte ez-bankarioak erakunde publikoekin, baliabideak administratzeagatik.

5509. Bestelako kontu ez-bankarioak.

554. Aplikatzeko dauden kobrantzak.

555. Aplikatzeko dauden ordainketak.

556. Diruzaintzako barne-mugimenduak.

557. Formalizazioa.

558. Funtsen hornidura justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako.

5580. Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurak.

5581. Justifikatu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-hornidurak.

5584. Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak.

5585. Libramenduak, ordaindu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko.

5586. Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurekin egindako gastuak.

559. Aplikatzeko dauden beste partida batzuk.

56. Epe motzera jasotako eta eratutako fidantzak eta gordailuak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak.

560. Epe motzera jasotako fidantzak.

561. Epe motzera jasotako gordailuak.

565. Epe motzera eratutako fidantzak.

566. Epe motzera eratutako gordailuak.

567. Aurrez ordaindutako gastu finantzarioak.

568. Aurrez kobratutako sarrera finantzarioak.

57. Dirua eta aktibo likido baliokideak.

570. Kutxa operatiboa.

571. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kontu operatiboak.

573. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Bilketen kontu murriztuak.

574. Kutxa murriztua.

5740. Kutxa. Justifikatu beharreko ordainketak.

5741. Kutxa. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

575. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Ordainketen kontu murriztuak.

5750. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Justifikatu beharreko ordainketak.

5751. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

5759. Ordainketen beste kontu murriztu batzuk.

577. Diruaren baliokide diren aktibo likidoak.

58. Epe motzeko hornidurak.

582. Erantzukizunetarako epe motzeko hornidura.

583. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako epe motzeko hornidurak.

585. Sarrerak itzultzeko epe motzeko hornidura.

588. Transferentzia eta diru-laguntzetarako epe motzeko hornidura.

589. Epe motzeko beste hornidura batzuk.

59. Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

594. Taldeko erakunde, talde anitzeko eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

5940. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeetako, talde anitzetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

5941. Taldean, talde anitzean eta elkartuta dauden merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

5942. Taldeko eta talde anitzeko beste erakundeetako eta elkartuetako partaidetzen balio-narriadura.

595. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreen balio-narriadura.

5950. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

5951. Taldeko entitateei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien balore salgarrien balio-narriadura.

596. Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe motzeko bestelako inbertsio finantzarioen eta kredituen balio-narriadura.

5960. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe motzeko kredituen balio-narriadura.

5961. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako fidantzen balio-narriadura.

5962. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako gordailuen balio-narriadura.

597. Epe motzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura.

5970. Mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

5971. Balore salgarrien balio-narriadura.

598. Epe motzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

5980. Epe motzeko kredituen balio-narriadura.

5981. Epe motzera eratutako fidantzen balio-narriadura.

5982. Epe motzera eratutako gordailuen balio-narriadura.

6. taldea. Izaerazko erosketak eta gastuak.

60. Erosketak.

600. Salgai-erosketak.

601. Lehengai-erosketak.

602. Bestelako hornikuntzen erosketak.

605. Beste erakunde batzuentzat eskuratutako aktiboen erosketak.

607. Beste erakunde batzuek egindako lanak.

61. Izakinen aldaketa.

610. Salgai-izakinen aldaketa.

611. Lehengai-izakinen aldaketa.

612. Bestelako hornikuntza-izakinen aldaketa.

62. Kanpoko zerbitzuak.

620. Ikerketa- eta garapen-gastuak.

621. Errentamenduak eta kanonak.

622. Konponketak eta zaintza-lanak.

623. Profesional independenteen zerbitzuak.

624. Garraioak.

625. Aseguru-primak.

626. Banku-zerbitzuak eta antzekoak.

627. Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak.

628. Hornidurak.

629. Komunikazioak eta bestelako zerbitzuak.

63. Zergak.

631. Zergak.

634. Zeharkako zergen doikuntza negatiboak.

639. Zeharkako zergen doikuntza positiboak.

64. Langileen gastuak eta zerbitzu sozialak.

640. Soldatak.

641. Kalte-ordainak.

642. Enplegatzailearen kontura diren gizarte-kotizazioak.

643. Pentsioen sistema osagarrietarako ekarpenak.

644. Bestelako gastu sozialak.

645. Zerbitzu sozialak.

65. Transferentziak eta diru-laguntzak.

650. Transferentziak.

6500. Erakunde jabeari edo jabeei.

6501. Gainerako erakundeei.

651. Diru-laguntzak.

6510. Erakunde jabeari edo jabeei.

6511. Gainerako erakundeei.

66. Gastu finantzarioak.

660. Hornidurak eguneratzeagatiko gastu finantzarioak.

661. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak.

662. Zorren interesak.

6625. Kreditu-erakundeekiko zorren interesak.

6626. Bestelako zorren interesak.

6628. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen interesak.

663. Zorren interesak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin.

6630. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak.

6632. Beste zor batzuen interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

664. Arrazoizko balioko finantza-tresnetan izandako galerak.

6640. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen izandako galerak.

6641. Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak.

6642. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan izandako galerak.

6645. Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak.

66451. Pasibo finantzarioen diru-fluxuen estaldurenak.

66452. Ondare garbiko partaidetzen estaldurenak.

66453. Zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioaren estaldurenak.

66454. Zorra adierazten duten baloreen diru-fluxuen estaldurenak.

66459. Gertatzen ez diren aurreikusitako transakzioenak.

6646. Bestelako deribatu finantzarioetan izandako galerak.

665. Kostuko edo amortizatutako kostuko finantza-tresnetan izandako galerak.

6650. Kontu amortizatuko inbertsio finantzarioetan izandako galerak.

6651. Kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan izandako galerak.

6655. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak.

666. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin dauden finantza-tresnetan izandako galerak.

6660. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak.

6661. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreetan izandako galerak.

6662. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituetan izandako galerak.

6663. Taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin dauden kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak.

667. Kreditu kobraezinen galerak.

6670. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

6671. Beste erakunde batzuekin.

668. Kanbio-diferentzia negatiboak.

669. Bestelako gastu finantzarioak.

67. Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste gastu batzuetatik eta ezohiko gastuetatik sortutako galerak.

670. Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak.

671. Ibilgetu materialetik sortutako galerak.

672. Ondasun higiezinetako inbertsioetatik sortutako galerak.

673. Lurzoruaren ondare publikotik sortutako galerak.

674. Salgai dauden aktiboetatik sortutako galerak.

676. Gestio arrunteko bestelako galerak.

678. Ezohiko gastuak.

68. Amortizazioetarako zuzkidurak.

680. Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa.

6800. Ikerketako inbertsioaren amortizazioa.

6801. Garapeneko inbertsioaren amortizazioa.

6803. Jabetza industrialaren eta intelektualaren amortizazioa.

6806. Aplikazio informatikoen amortizazioa.

6807. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen amortizazioa.

6809. Bestelako ibilgetu ukiezinaren amortizazioa.

681. Ibilgetu materialaren amortizazioa.

6810. Lurren eta ondasun naturalen amortizazioa.

6811. Eraikuntzen amortizazioa.

6812. Azpiegituren amortizazioa.

6813. Ondare historikoaren ondasunen amortizazioa.

6814. Makineriaren eta tresneriaren amortizazioa.

6815. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen amortizazioa.

6816. Altzarien amortizazioa.

6817. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen amortizazioa.

6818. Garraio-elementuen amortizazioa.

6819. Bestelako ibilgetu materialaren amortizazioa.

682. Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazioa.

6820. Lurretan egindako inbertsioen amortizazioa.

6821. Eraikuntzetan egindako inbertsioen amortizazioa.

684. Lurzoruaren ondare publikoa amortizazioa.

6840. Lurzoruaren ondare publikoko lurren amortizazioa.

6841. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen amortizazioa.

6849. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen amortizazioa.

69. Narriadura-galerak.

690. Ibilgetu ukiezinaren narriaduratik sortutako galerak.

6903. Jabetza industrialaren eta intelektualaren narriadura-galerak.

6906. Aplikazio informatikoen narriadura-galerak.

6907. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen narriadura-galerak.

6909. Bestelako ibilgetu ukiezinaren narriadura-galerak.

691. Ibilgetu materialaren narriaduratik sortutako galerak.

6910. Lurren eta ondasun naturalen narriadura-galerak.

6911. Eraikuntzen narriadura-galerak.

6912. Azpiegituren narriadura-galerak.

6913. Ondare historikoaren ondasunen narriadura-galerak.

6914. Makineriaren eta tresneriaren narriadura-galerak.

6915. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen narriadura-galerak.

6916. Altzarien narriadura-galerak.

6917. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen narriadura-galerak.

6918. Garraio-elementuen narriadura-galerak.

6919. Bestelako ibilgetu materialaren narriadura-galerak.

692. Ondasun higiezinetako inbertsioen narriaduratik sortutako galerak.

6920. Lurretan egindako inbertsioen narriadura-galerak.

6921. Eraikuntzetan egindako inbertsioen narriadura-galerak.

693. Lurzoruaren ondare publikoaren narriadura-galerak.

6930. Lurzoruaren ondare publikoko lurren narriadura-galerak.

6931. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen narriadura-galerak.

6939. Lurzoruaren ondare publikoko beste ondasun eta eskubideen narriadura-galerak.

694. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-galerak.

6940. Amaituta eta ekoizpen-bidean diren produktuen narriadura-galerak.

6941. Salgaien narriadura-galerak.

6942. Lehengaien narriadura-galerak.

6943. Beste hornikuntza batzuen narriadura-galerak.

6948. Salgai dauden aktiboen narriadura-galerak.

696. Partaidetzen narriadura-galerak.

6960. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien partaidetzen narriadura-galerak.

6961. Taldeko merkataritza-sozietateei eta sozietate kooperatiboei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien partaidetzen narriadura-galerak.

6962. Taldeko beste erakunde batzuetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan dauden partaidetzen narriadura-galerak.

6963. Beste erakunde batzuen ondare garbiari dagozkion partaidetzak narriatzeak eragindako galerak.

697. Zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak.

6970. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak.

6971. Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak.

698. Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-galerak.

6980. Taldeko eta talde anitzeko erakundeei eta elkartuei emandako kredituen narriadura-galerak.

6981. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan eratutako fidantzen narriadura-galerak.

6982. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan eratutako gordailuen narriadura-galerak.

6983. Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-galerak.

6984. Beste erakunde batzuetan eratutako fidantzen narriadura-galerak.

6985. Beste erakunde batzuetan eratutako gordailuen narriadura-galerak.

7. taldea. Izaerazko salmentak eta sarrerak.

70. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik salmentak eta sarrerak.

700. Salgaien salmentak.

701. Produktu bukatuen salmentak.

702. Produktu erdibukatuen salmentak.

703. Azpiprodukten eta hondarren salmentak.

704. Ontzien eta bilgarrien salmentak.

705. Zerbitzu-emateak.

707. Sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik.

7070. Egotzitako sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboen aurrerapen mailagatik.

7071. Egotzitako sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak entregatzeagatik.

71. Izakinen aldaketa.

710. Ekoizpen-bidean diren produktuen izakinen aldaketa.

711. Produktu erdibukatuen izakinen aldaketa.

712. Produktu bukatuen izakinen aldaketa.

713. Azpiprodukten, hondarren eta material berreskuratuen izakinen aldaketa.

717. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboen izakinen aldaketa.

72. Zergak zuzenak.

724. Ondasun higiezinen gaineko zerga.

725. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga.

726. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga.

727. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

728. Beste zerga batzuk.

73. Zeharkako zergak.

733. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak.

734. Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga.

735. Luxuzko gastuen gaineko udal-zerga.

739. Beste zerga batzuk.

74. Tasak, prezio publikoak, kontribuzio bereziak eta hirigintza-sarrerak.

740. Tasak, zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik.

741. Prezio publikoak, zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik.

742. Tasak, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

744. Kontribuzio bereziak.

745. Sarrerak hirigintza-jarduerengatik.

7450. Hirigintza-kanona.

7451. Hirigintza-kuotak.

746. Hirigintza-aprobetxamenduak.

7460. Kanona hirigintza-aprobetxamenduengatik.

7461. Administrazioari dagokion hirigintza-aprobetxamendua.

75. Transferentziak eta diru-laguntzak.

750. Transferentziak.

7500. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7501. Gainerako erakundeenak.

751. Finantzarioak ez diren ekitaldiko gastuetarako diru-laguntzak.

7510. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7511. Gainerako erakundeenak.

752. Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak.

7520. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7521. Gainerako erakundeenak.

753. Ekitaldiko emaitzari egotzitako ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak.

7530. Ibilgetu ez-finantzarioa finantzatzeko diru-laguntzak, ekitaldiko emaitzara amortizazioagatik egotziak.

75300. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

75301. Gainerako erakundeenak.

7531. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak, ekitaldiko emaitzara inorenganatzeagatik edo bajagatik egotziak.

75310. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

75311. Gainerako erakundeenak.

754. Aktibo korronteetarako eta gastuetarako diru-laguntzak, ekitaldiari egotzitakoak.

7540. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7541. Gainerako erakundeenak.

755. Ekitaldiko gastu finantzarioetarako diru-laguntzak.

7550. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7551. Gainerako erakundeenak.

756. Ekitaldiari egotzitako eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak.

7560. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7561. Gainerako erakundeenak.

76. Sarrera finantzarioak.

760. Ondare garbiko partaidetzen sarrerak.

761. Zorra adierazten duten baloreen sarrerak.

762. Kredituen sarrerak.

7620. Kredituen sarrerak.

7628. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen sarrerak.

763. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioen sarrerak.

7630. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondare garbiko partaidetzen sarrerak.

7631. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak.

7632. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen sarrerak.

764. Mozkinak arrazoizko balioko finantza-tresnetan.

7640. Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioetan.

7641. Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan.

7642. Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan.

7645. Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan.

76451. Pasibo finantzarioen diru-fluxuen estaldurenak.

76452. Ondare garbiko partaidetzen estaldurenak.

76453. Zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioaren estaldurenak.

76454. Zorra adierazten duten baloreen diru-fluxuen estaldurenak.

76459. Gertatzen ez diren aurreikusitako transakzioenak.

7646. Mozkinak beste deribatu finantzario batzuetan.

765. Kostuko edo amortizatutako kostuko finantza-tresnetan izandako mozkinak.

7650. Kontu amortizatuko inbertsio finantzarioetan izandako mozkinak.

7651. Kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan izandako mozkinak.

7655. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako mozkinak.

766. Mozkinak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin dauden finantza-tresnetan.

7660. Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan.

7661. Mozkinak taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreetan, kostua amortizatuta egonda.

7663. Mozkinak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin dauden kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan.

768. Kanbio-diferentzia positiboak.

769. Bestelako sarrera finantzarioak.

77. Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak.

770. Ibilgetu ukiezinetik sortutako mozkinak.

771. Ibilgetu materialetik sortutako mozkinak.

772. Ondasun higiezinetako inbertsioetatik sortutako mozkinak.

773. Lurzoruaren ondare publikotik sortutako mozkinak.

774. Salgai dauden aktiboetatik datozen mozkinak.

775. Itzulketak.

776. Errentamenduen sarrerak.

777. Bestelako diru-sarrerak.

778. Ezohiko diru-sarrerak.

78. Erakunderako egindako lanak.

780. Ibilgetu ukiezinerako egindako lanak.

781. Ibilgetu materialerako egindako lanak.

782. Ondasun higiezinetako inbertsioetarako egindako lanak.

783. Ekoizpen-bidean diren ondasun higiezinetako inbertsioetarako eta ibilgetuetarako egindako lanak.

784. Lurzoruaren ondare publikorako egindako lanak.

785. Ibilgetu ukiezinera egotzitako gastu finantzarioak.

786. Ibilgetu materialera egotzitako gastu finantzarioak.

787. Ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioak.

788. Indarrean dauden ibilgetu eta ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioak.

789. Lurzoruaren ondare publikoari egotzitako gastu finantzarioak.

79. Horniduren eta narriadura-galeren soberakinak eta aplikazioak.

790. Ibilgetu ukiezinaren narriaduraren itzultzea.

7903. Jabetza industrialaren eta intelektualaren narriadura-itzultzea.

7906. Aplikazio informatikoen narriadura-itzultzea.

7907. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen narriadura-itzulera.

7909. Bestelako ibilgetu ukiezinaren narriadura-itzulera.

791. Ibilgetu materialaren narriaduraren itzultzea.

7910. Lurren eta ondasun naturalen narriadura-itzulera.

7911. Eraikuntzen narriadura-itzulera.

7912. Azpiegituren narriadura-itzulera.

7913. Ondare historikoaren ondasunen narriadura-itzulera.

7914. Makineriaren eta tresneriaren narriadura-itzulera.

7915. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen narriadura-itzulera.

7916. Altzarien narriadura-itzulera.

7917. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen narriadura-itzulera.

7918. Garraio-elementuen narriadura-itzulera.

7919. Bestelako ibilgetu materialaren narriadura-itzulera.

792. Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriaduraren itzultzea.

7920. Lurren narriadura-itzulera.

7921. Eraikuntzen narriadura-itzulera.

793. Lurzoruaren ondare publikoaren narriadura-itzulera.

7930. Lurzoruaren ondare publikoko lurren narriadura-itzulera.

7931. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen narriadura-itzulera.

7939. Lurzoruaren ondare publikoko ondasun eta eskubideen narriadura-itzulera.

794. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-itzulera.

7940. Amaituta eta ekoizpen-bidean diren produktuen narriadura-itzulera.

7941. Salgaien narriadura-itzulera.

7942. Lehengaien narriadura-itzulera.

7943. Beste hornidura batzuen narriadura-itzulera.

7948. Salgai dauden aktiboen narriadura-itzulera.

795. Hornidura-soberakinak.

7952. Erantzukizunetarako hornidura-soberakina.

7953. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako hornidura-soberakina.

7955. Sarrerak itzultzeko hornidura-soberakina.

7958. Transferentzia eta diru-laguntzetarako hornidura-soberakina.

7959. Bestelako hornidura-soberakinak.

796. Partaidetzen narriadura-itzulera.

7960. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeetako, talde anitzean daudenetako eta elkartuetako partaidetzen narriadura-itzulera.

7961. Taldeko merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako, talde anitzean daudenetako eta elkartuetako partaidetzen narriadura-itzulera.

7962. Beste taldeko erakunde, talde anitzeko eta elkartu batzuetako partaidetzen narriadura-itzulera.

797. Zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera.

7970. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera.

7971. Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera.

798. Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-itzulera.

7980. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen narriadura-itzulera.

7981. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan daudenetan eta elkartuetan eratutako fidantzen narriadura-itzulera.

7982. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako gordailuen narriadura-itzulera.

7983. Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-itzulera.

7984. Beste erakunde batzuetan eratutako fidantzen narriadura-itzulera.

7985. Beste erakunde batzuetan eratutako gordailuen narriadura-itzulera.

799. Ibilgetu materialaren narriadura-itzulera lagatako usufruktuagatik.

8. taldea. Ondare garbiari egotzitako gastuak.

80. Aktibo finantzarioen balioespenagatiko galerak.

800. Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak.

802. Aktibo finantzario salgarrietan izandako mozkinak egoztea.

81. Estaldura-eragiketetan izandako gastuak.

810. Estaldurengatiko galerak.

811. Estaldurengatiko mozkinen egoztea.

8110. Estaldurengatiko mozkinak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan.

8111. Estaldurengatiko mozkinak egoztea estalitako partidaren hasierako balioan.

82. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenagatiko gastuak.

820. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak arrazoizko balioa gutxitzeagatik.

821. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik.

822. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak bajetako balio-galerengatik.

823. Mozkinak egoztea ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean.

84. Diru-laguntzak egoztea.

840. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen egoztea.

8400. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

8401. Gainerako erakundeenak.

841. Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea.

8410. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

8411. Gainerako erakundeenak.

842. Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea.

8420. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

8421. Gainerako erakundeenak.

89. Aurretiko balio-doikuntza positiboak dituzten taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzen gastuak.

891. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetza-narriadura.

9. taldea. Ondare garbiari egotzitako sarrerak.

90. Aktibo finantzarioen balioespenagatiko sarrerak.

900. Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan.

902. Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea.

91. Estaldura-eragiketen sarrerak.

910. Estaldurengatiko mozkinak.

911. Estaldurengatiko galeren egoztea.

9110. Estaldurengatiko galerak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan.

9111. Estaldurengatiko galerak egoztea estalitako partidaren hasierako balioan.

92. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenagatiko gastuak.

920. Doikuntza positiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean arrazoizko balioa handitzeagatik.

94. Diru-laguntzengatiko sarrerak.

940. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak.

9400. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

9401. Gainerako erakundeenak.

941. Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak.

9410. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

9411. Gainerako erakundeenak.

942. Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak.

9420. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

9421. Gainerako erakundeenak.

99. Aurretiko balio-doikuntza negatiboak dituzten taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzen sarrerak.

991. Aurreko balio-doikuntza negatiboak berreskuratzea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak.

993. Aurreko balio-doikuntza negatiboengatiko egoztea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak.

BOSTGARREN ZATIA.
KONTABILITATEKO DEFINIZIOAK ETA ERLAZIOAK.

1 Taldekoak. Oinarrizko finantzaketa.

Entitatearen (kontabilitate-subjektua) epe luzeko kanpoko finantzaketa eta ondare garbia barne hartzen ditu, zeinak aktibo ez-korrontea finantzatzera eta korrontearen arrazoizko tarte bat estaltzera zuzenduta baitaude, oro har.

Talde honetan ezin dira sartu epe luzeko epemuga duten pasibo finantzarioak, baldin eta hasierako aintzatespenean emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioen kategorian sailkatu badira; hauek «Kontu finantzarioak» 5. taldean jasoko dira, urtebetetik gorako likidazio-epea duten deribatuak izan ezik.

10. Ondarea.

100. Ondarea.

101. Jasotako ondarea.

1010. Diruzko ondare-ekarpena.

1011. Ondasunen eta eskubideen ekarpena.

1012. Pasibo finantzarioen onarpena eta barkatzea.

1013. Erakunde jabearen edo jabeen beste ekarpen batzuk.

1014. Ondasunen eta eskubideen itzulpena.

1015. Beste itzulketa batzuk.

100. Ondarea.

Kontabilitatearen subjektua den erakundearen aktiboaren eta pasibo galdagarriaren arteko aldea adierazten duen kontua da, behin, hala egokituz gero, emaitzak, balio-aldaketek eragindako doikuntzak eta emaitzetan egotzi gabe dauden beste ondare-gehikuntza batzuk kendu ondoren.

Kontu hau udalek eta jaberik ez duten udalaren gaineko edo azpiko beste toki-erakunde batzuek baino ez dute erabiliko.

Bere saldoa, hartzekoduna oro har, balantzeko ondare garbian ageriko da, «Ondarea» I epigrafean.

101. Jasotako ondarea.

Kontabilitate-erakundearen erakunde jabeak edo jabeek emandako ondasunen eta eskubideen balioa adierazten duen kontua, dela hasierako zuzeneko ondare-ekarpen gisa, dela eskumen berriak bereganatu dituelako ondoren handitzeagatik. Kontu honen barruan erakunde jabeak eta jabeek kontabilitateko subjektuari atxikitako ondasunak ere jasotzen dira.

Kontu hau «Ondarea» 100 kontua erabili behar ez duten udalaren gaineko edo azpiko beste toki-erakundeek eta erakunde autonomoek baino ez dute erabiliko.

Haren saldoa, hartzekoduna oro har, balantzeko ondare garbian ageriko da, «Ondarea» I epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Erakunde jabeak edo jabeek egindako ondare ekarpenagatik, dagokion kontuan zordunduta (aktibokoa oro har), «Diruzko ondare-ekarpena» 1010 azpikontuaren, «Ondasunen eta eskubideen ekarpena» 1011 azpikontuaren, «Pasibo finantzarioak bereganatzea eta barkatzea» 1012 azpikontuaren edo «Erakunde jabearen edo jabeen bestelako ekarpenak» 1013 azpikontuaren bitartez.

a.2) Atxikipenean jasotako ondasunen arrazoizko balioagatik, berau gertatzen denean, jasotako aktiboak adierazten dituzten kontu adierazgarrietan zordunduta, «Ondasunen eta eskubideen ekarpena» 1011 azpikontuaren bitartez.

b) Erakunde jabeari edo jabeei egindako ekarpena itzultzean zordunduko da, kontu egokian abonatuta, «Ondasunen eta eskubideen itzulpena» 1014 azpikontuaren edo «Beste itzulketa batzuk» 1015 azpikontuaren bitartez. Azpikontu horiek, ekitaldiaren amaieran behintzat, itzulitako ondare-ekarpenak adierazten dituzten azpikontuetan zordunduta abonatu beharko dira.

12. Emaitzak.

120. Aurreko ekitaldietako emaitzak.

129. Ekitaldiko emaitza.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko ondare garbian azalduko dira, «Sortutako ondarea» II epigrafean, zeinu positibo edo negatiboarekin, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

120. Aurreko ekitaldietako emaitzak.

Aurreko ekitaldietan sortutako ondarearen emaitza ekonomikoak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) «Ekitaldiko emaitza» 129 kontuan zordunduta, emaitza positiboengatik.

a.2) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, itxitako aurrekontuetako ordainketen itzulketen zenbatekoan, baldin eta zenbateko esanguratsua badute eta gastuen aintzatespenerako akatsen ondoriozko gastu ekonomikoetatik badatoz.

a.3) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuan zordunduta, zenbateko esanguratsuko eta sarrerak aintzatestean izandako akatsen ondoriozko sarrera ekonomikoetan jatorria duten aurreko ekitaldietan aintzatetsitako aurrekontu-eskubideen hasierako saldoa gorantz aldatzeagatik. Idazpen honek zeinu negatiboa izango du, aldaketa beheranzkoa bada.

b) Zordunduko da:

b.1) «Ekitaldiko emaitza» 129 kontuan abonatuta, emaitza negatiboekin.

b.2) «Sarrerak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak» 418 kontuan abonatuta, zenbateko esanguratsuko sarrera ekonomikoetan jatorria izanda egindako likidazioetan izandako akatsen ondoriozkoak diren aurreko ekitaldietako aurrekontu-sarrerak itzultzeko akordioengatik.

b.3) «Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak» 434 kontuan abonatuta, aurrekontu itxietako eskubideak baliogabetzeagatik, jatorria sarrera ekonomikoetan izanda, aintzatetsi zituzten likidazioak baliogabetzearen ondorioz, eta haien zenbatekoa esanguratsua izanez gero.

b.4) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak» 401 kontuan abonatuta, zenbateko esanguratsuko eta gastuak aintzatestean izandako akatsen ondoriozko gastu ekonomikoetan jatorria duten aurreko ekitaldietan aintzatetsitako aurrekontu-obligazioak gorantz aldatzeagatik. Idazpen honek zeinu negatiboa izango du, aldaketa beheranzkoa bada.

c) Hala dagokion kontrakontuan zordundu edo abonatuko da, aurreko mugimenduetan aurreikusita ez dauden kontabilitateko irizpide-aldaketen edo aurreko ekitaldietako akatsen ondorioz erakundearen ondare garbian egindako doikuntzen zenbatekoan, garrantzitsua bada.

129. Ekitaldiko emaitza.

Amaitutako azken ekitaldiko emaitza positiboa edo negatiboa biltzen du, «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontura pasatu zain.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko eta «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko kontuak, ekitaldiaren amaieran saldo hartzekoduna dutenak, ekitaldiko emaitza zehazteko.

a.2) «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontua, emaitza negatiboa pasatzeagatik.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko eta «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko kontuetan, ekitaldiaren amaieran saldo zorduna dutenetan, ekitaldiko emaitza zehazteko.

b.2) «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontua, emaitza positiboaren intsuldaketaren zenbatekoan.

13. Diru-laguntzak eta doikuntzak balio-aldaketagatik.

130. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak.

131. Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzak.

132. Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak.

133. Aktibo finantzario salgarrien balorazio-doikuntzak.

134. Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak.

136. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak.

Kontabilitatearen ikuspuntutik ez-itzulgarritzat jotako eta jasotako diru-laguntzak eta ondare garbian zuzenean kontabilizatutako bestelako sarrerak eta gastuak, harik eta, aintzatespen- eta balioespen-arauetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura pasatu edo egotzi arte.

130. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak.

Erakundearen establezimendu edo egitura finkorako jasotakoak (aktibo ez-korronteak) itzulgarriak ez direnean, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen-arauan finkatutako irizpideekin bat etorriz.

Balantzeko ondare garbian azalduko da, «Emaitzei egozteko dauden jasotako diru-laguntzak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldia ixtean abonatuko da, «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan zordunduta, saldo hartzekoduna duten haren sail-kontuen bidez.

b) Ekitaldia ixtean zordunduko da:

   b.1) Jasotako diru-laguntzari dagokion ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako egozpenagatik, «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen egoztea» 840 kontuan abonatuta, haren sail-kontuen bidez.

   b.2) «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan abonatuta, saldo zorduna duten haren sail-kontuen bidez.

131. Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzak.

Aktibo korronteak eta gastu ez-finantzarioak finantzatzeko jasotakoak, baldin eta beren sortzapena diru-laguntza jaso osteko ekitaldietan gertatzen bada, itzulgarriak ez direnean, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen- arauan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Balantzeko ondare garbian azalduko da, «Emaitzei egozteko dauden jasotako diru-laguntzak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldiaren amaieran abonatuko da, «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 941 kontuan zordunduta, saldo hartzekoduna duten haren sail-kontuen bidez.

b) Ekitaldia ixtean zordunduko da:

   b.1) Jasotako diru-laguntzari dagokion ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako egozpenagatik, «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea» 841 kontuan abonatuta, haren sail-kontuen bidez.

   b.2) «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan abonatuta, saldo zorduna duten haren sail-kontuen bidez.

132. Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak .

Eragiketa finantzarioak finantzatzeko jasotakoak, hau da, aktibo eta pasibo finantzarioak, baita gastu finantzarioak ere, baldin eta beren sortzapena diru-laguntza jaso osteko ekitaldietan gertatzen bada, itzulgarriak ez direnean, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18. aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Balantzeko ondare garbian azalduko da, «Emaitzei egozteko dauden jasotako diru-laguntzak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldiaren amaieran abonatuko da, «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan zordunduta, saldo hartzekoduna duten haren sail-kontuen bidez.

b) Ekitaldia ixtean zordunduko da:

b.1) Jasotako diru-laguntzari dagokion ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako egozpenagatik, «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea» 842 kontuan abonatuta, haren sail-kontuen bidez.

b.2) «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan abonatuta, saldo zorduna duten haren sail-kontuen bidez.

133. Aktibo finantzario salgarrien balorazio-doikuntzak.

Salgarrien kategorian sailkatutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioestean sortutako doikuntzak, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera.

Balantzeko ondare garbian azalduko da, «Doikuntzak balio-aldaketagatik» III epigrafean.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Abonatuko da:

a.1) Ekitaldi-itxieran, aktibo finantzario salgarrien arrazoizko balioan izandako aldakuntza positiboekin, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan zordunduta.

a.2) Ekitaldi-itxieran, aktibo finantzario salgarrien galeren egozpenarekin edo intsuldaketarekin, «Aktibo finantzario salgarrietako galeren egozpena» 902 kontuan zordunduta.

a.3) Ekitaldi-itxieran, taldeko erakunde, talde anitz edo elkartu gisa sailkatu aurretik erakundean inbertsioak egin direnean, ondare garbian zuzenean egotzitako balio-murrizketengatik balio-doikuntzen narriadura dela- eta ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egozteagatik edo berreskuratzeagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondareko partaidetzen sarrerak aurretiko balioespen-doikuntza negatiboekin» 99 azpitaldean dagozkien kontuetan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) Ekitaldi-itxieran, aktibo finantzario salgarrien arrazoizko balioan izandako aldakuntza negatiboen zenbatekoan, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontuan abonatuta.

b.2) Ekitaldi-itxieran, aktibo finantzario salgarrien mozkinen egozpenarekin edo intsuldaketarekin, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako mozkinak egoztea» 802 kontuan zordunduta.

b.3) Ekitaldi-itxieran, aldez aurretik balio-handitzeagatik balioespen-doikuntzak eragin dituzten taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondareko inbertsioen narriaduragatik, «Aurretiko balio-doikuntza positiboak dituzten taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzen gastuak» 89 azpitaldeko dagozkien kontuetan abonatuta.

134. Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak.

Estaldura eraginkortzat hartutako estaldura-tresnaren galera edo mozkinaren zenbatekoa, «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, ondare garbira egotzi beharrekoak direnean.

Balantzeko ondare garbian azalduko da, «Doikuntzak balio-aldaketagatik» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, balantzean azalduko den saldoa zehazteko, «Sarrerak estaldura-eragiketetan» 91 azpitaldeko kontu egokietan zordunduta.

b) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, balantzean azalduko den saldoa zehazteko, «Gastuak estaldura-eragiketetan» 81 azpitaldeko kontu egokietan abonatuta.

136. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak.

Ibilgetu materiala, ukiezina, lurzoruaren ondare publikoa eta higiezinen inbertsioak osatzen dituzten elementuak balioesteko «Ibilgetu materiala» 1. aintzatespen- eta balioespen-arauan aurreikusitako errebalorizazio-eredua erabiltzen denean, kontu honetan aipatutako eredua aplikatzen zaien aktibo ez-korronteen arrazoizko balioak balioestean sortutako doikuntzak ere jasoko dira.

Balantzeko ondare garbian azalduko da, «Doikuntzak balio-aldaketagatik» III epigrafean.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, aktibo ez-korronteen arrazoizko balioan egondako aldaketa positiboengatik, «Doikuntza positiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean arrazoizko balioa handitzeagatik» 920 kontuan zordunduta.

b) Ekitaldia ixtean zordunduko da:

   b.1) Arrazoizko balioaren aldaketa negatiboen zenbatekoan, aktibo ez-korrontearen kontabilitate-balioa murriztean, aipatutako murrizketak partida honen saldoa gainditzen ez badu, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak arrazoizko balioa gutxitzeagatik» 820 kontuan abonatuta.

   b.2) Ondare-elementuaren amortizaziorako zuzkidurarekin, hala badagokio, kostu-ereduaren arabera ondasunak balioaren gainean duen kontabilitate-balioaren soberakinak jasotako balio-galeraren zenbatekoarekin, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik» 821 kontuan abonatuta.

   b.3) Aktiboari baja ematen zaionean, inorenganatzen denean edo bestela xedatzen denean, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak bajetako balio-galerengatik» 822 kontuan abonatuta, momentu horretan arrazoizko balioa kontabilitate-balioaren gainean murrizteagatik, edo «Mozkinak egoztea ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean» 823 kontuan, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotzitako mozkinen zenbatekoan.

14. Epe luzerako hornidurak.

142. Erantzukizunetarako epe luzeko hornidura.

143. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako epe luzeko hornidurak.

148. Transferentzia eta diru-laguntzetarako epe luzeko hornidura.

149. Epe luzeko bestelako hornidurak.

Obligazio zehatz edo tazituetatik sortutako pasibo ez-korronteak, beren izaeraren arabera zehaztuta, baina ekitaldia amaitzeko egunean zenbatekoa edo epemuga argi ez dutenak.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko pasibo ez-korrontean azalduko dira, «Epe luzeko hornidurak» I epigrafean.

Epe motzean baliogabetzea aurreikusitako hornidurak balantzeko pasibo korrontean azalduko dira, «Epe motzeko hornidurak» I epigrafean; hartarako, epe motzeko epemuga duten horniduren zenbatekoa «Epe motzeko hornidurak» 58 azpitaldeko kontu egokietara pasatuko da.

142. Erantzukizunetarako epe luzeko hornidura.

Zenbateko zehazturik gabeko obligazioek sortutako pasiboak, bideratutako auziek ekarritako erantzukizunei, abaletatik eratorritako kalte-ordainei edo obligazioei eta erakundearen konturako antzeko beste berme batzuei aurre egiteko.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Kalte-ordaina emateko edo ordaintzeko obligazioa sortzen denean, edo gero gertatutako aldaketengatik hornidura gehitu behar denean, «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko kontuetan, kasu bakoitzari dagokion kontuan, zordunduta.

a.2) Baloreak eguneratzean sortutako doikuntzen zenbatekoarekin, «Hornidurak eguneratzeagatiko gastu finantzarioak» 660 kontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, auzian epai irmoa ematean, edo kalte-ordainaren edo ordainketaren behin betiko zenbatekoa ezagutzean.

b.2) Gehiegizko horniduraren zenbatekoan, «Erantzukizunetarako hornidura-soberakinak» 7952 azpikontuan abonatuta.

143. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako epe luzeko hornidurak.

Ibilgetu ez-finantzarioa desegiteko edo erretiratzeko edo ibilgetua kokatuta dagoen lekua birgaitzeko estimatutako kostuen zenbatekoa.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Obligazioa sortzen denean abonatuko da, edo gero gertatutako aldaketengatik hornidura gehitu behar denean, normalean «Aktibo ez-korrontea» 2. taldeko kontuetan zordunduta.

a.2) Baloreak eguneratzean sortutako doikuntzen zenbatekoarekin, «Hornidurak eguneratzeagatiko gastu finantzarioak» 660 kontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, eraitsi, erretiratu edo birgaitu egiten denean.

b.2) Ekitaldia amaitzean gutxienez, estimazio berri batek sortutako horniduraren zenbatekoa murrizteagatik, normalean «Aktibo ez-korrontea» 2. taldeko kontuetan

abonatuta, edo, bestela, «Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako hornidura-soberakinak» 7953 azpikontuan.

148. Transferentzia eta diru-laguntzetarako epe luzeko hornidura.

Emandako transferentzien eta diru-laguntzen zenbateko kalkulatua, haietan, ekitaldiaren amaieran, jaso ahal izateko beharrezkoa den baldintzaren bat bete edo izapideren bat egin gabe badago, baina etorkizunean beteko direlako arrazoizko zalantzarik ez badago.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Emandako transferentziaren edo diru-laguntzaren zenbatekoan abonatuko da, hurrenez hurren «Transferentziak» 650 kontuan edo «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) Normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, aurrekontuan egozteko unean.

b.2) Gehiegizko horniduraren zenbatekoan, «Transferentzia eta diru-laguntzetarako hornidura-soberakina» 7958 azpikontuan abonatuta.

149. Epe luzeko bestelako hornidurak.

Lege, kontratu erako bestelako ordainketa-obligazioak edo erakundearen inplizituak, zenbateko edo epemuga zehaztugabea dutenak, eta azpitalde honetako gainerako kontuetan jasota ez daudenak.

Kontu honen barruan sartzen dira ingurumenaren gaineko kalteak prebenitzeko edo konpontzeko hornidurak, ibilgetua desegiteak, erretiratzeak edo birgaitzean sortutakoak badira izan ezik. Azken hauek «Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako epe luzeko hornidurak» 143 kontuan xedatutakoaren arabera kontabilizatuko baitira.

Bere mugimendua «Erantzukizunetarako epe luzeko hornidura» 142 kontuarentzat adierazitakoaren antzekoa da.

15. Epe luzeko jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk.

150. Epe luzeko obligazioak eta bonuak.

156. Jesapenen eta antzeko jaulkipenen epe luzeko interesak.

1560. Obligazio eta bonuen epe luzeko interesak.

1569. Bestelako balore negoziagarrien epe luzeko interesak.

159. Epe luzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak.

Taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek eskuratu gabeko balore negoziagarriak masan jaulkiz lortutako kanpoko finantzaketa biltzen du, baldin eta urtebete baino gehiagoan mugaeguneratuko edo baliogabetuko badira, urtebetetik gorako epemugaz sortutako interesak barne hartuta.

Azpitalde honen kontuak balantzeko pasibo ez-korrontean azalduko dira, «Epe luzeko zorrak» II epigrafean.

Epe motzean mugaeguneratuko edo baliogabetuko diren epe luzeko zorrak balantzeko pasibo korrontean azalduko dira; hartarako, epe motzean mugaeguneratuko edo baliogabetuko diren epe luzeko zorren zenbatekoa ere jasoko da «Epe motzeko jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk» 50 azpitaldeko kontuetan.

150. Epe luzeko obligazioak eta bonuak.

Urtebete baino gehiagoan mugaeguneratuko edo baliogabetuko diren obligazioak edo bonuak jasotzen ditu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Jaulkitzeko unean jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

a.3) Epemugan itzulitako balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldetik ekitaldian sortutako zatia egozteagatik, «Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak» 661 kontuan zordunduta. Alde hori negatiboa denean idazpen hau alderantzizkoa izango da.

b) Zordunduko da:

b.1) Jaulkipenari zuzenean egotzi dakizkiokeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Baloreak aldez aurretik amortizatzean, bere kontabilitate-balioaren arabera, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, itzuli beharreko zenbatekoan. Itzuli beharreko zenbatekoaren eta zorraren kontabilitate-balioaren artean egon daitekeen aldea «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak» 6655 azpikontuan zordunduko da edo «Mozkinak kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan» 7655 azpikontuan abonatuko da, zeinuaren arabera.

b.3) Beste erakunde batek zorra bere gain hartzen duenean, «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

156. Jesapenen eta antzeko jaulkipenen epe luzeko interesak.

Epe luzeko epemuga duten jesapenetan eta antzeko bestelako jaulkipenetan ordaindu beharreko interesen zenbatekoa jasotzen du.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldian sortutako interesen zenbatekoan abonatuko da, «Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak» 661 kontuan zordunduta.

b) Balioak aldez aurretik amortizatzean zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren

balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

159. Epe luzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak.

Urtebete baino gehiagoan mugaeguneratuko edo baliogabetuko diren bestelako pasibo finantzarioak, aurrekoak ez diren balore negoziagarrietan adierazita.

Kontu honen edukia eta mugimendua «Epe luzeko obligazioak eta bonuak» 150 kontuarentzat adierazitakoen antzekoak dira.

16. epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

163. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

164. Balore negoziagarrietan adierazitako epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

165. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako fidantzak.

166. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako gordailuak.

167. Zorren epe luzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

169. Epe luzeko beste zor batzuk taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

Urtebete baino gehiagoan mugaeguneratuko edo baliogabetuko diren zorrak, taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutakoak, beren izaera dela- eta talde honetako beste azpitalde batzuetan jasota egon beharko luketenak barne.

Azpitalde honen kontuak balantzeko pasibo ez-korrontean azalduko dira, «Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutako epe luzeko zorrak» III epigrafean.

Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutako zorretan epe motzeko epemuga dutenek balantzeko pasibo korrontean jasota egon behar dute, «Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutako epe luzeko zorrak» III epigrafean; hartarako, epe motzeko epemuga duten epe luzeko zorren zenbatekoa pasatuko da «Epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 51 azpitaldeko kontu egokietara.

163. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik jasotako diru-laguntza itzulgarriak, urtebetetik gorako epemuga dutenak.

Kontuaren mugimendua honakoa da, oro har:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   a.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, jasotako zenbatekoetan.

   a.2) «Sarrerak diru-laguntzengatik» 94 azpitaldeko kontu egokian, itzulgarria ez den diru-laguntza bat itzulgarri bihurtzen bada emaitzei egotzi gabe dagoen zatiari dagokionez, eta «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan, emaitzei egotzitako diru-laguntzaren zenbatekoan.

b) Zordunduko da:

b.1) Haiek ematean ezarritako baldintzen arabera, erabat edo zati batean murrizten dituen edozein gertaeragatik, normalean «Hartzekodunak sarrerak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik» 418 kontuan abonatuta.

b.2) Itzulgarri izateari utziz gero, normalean «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan, «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 941 kontuan edo «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan, edo «Transferentziak eta diru-laguntzak» 75 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

164. Balore negoziagarrietan adierazitako epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutako zorrak jesapenengatik eta erakundeak egindako antzeko beste jaulkipen batzuengatik, urtebetetik gorako epemugarekin.

Beren mugimendua «Epe luzeko obligazioak eta bonuak» 150 kontuarenaren antzekoa da, kontrakontuan taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien kontuak erabilita.

165. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako fidantzak.

Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik jasotako dirua obligazio bat betetzeko berme gisa, urtebetetik gorako epera.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Fidantza eratzean abonatuko da, jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, fidantza baliogabetzean, egokia denaren arabera.

b.2) «Ezohiko sarrerak» 778 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean, edo «Aintzatetsitako eskubideengatiko zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, aplikagarria den araudiak dioenaren arabera.

166. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako gordailuak.

Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik gordailu irregularraren kontzeptuan jasotako dirua, urtebetetik gorako epera.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean abonatuko da, jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, aurrez ezeztatzean, egokia denaren arabera.

167. Zorren epe luzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutako zorren ordaindu beharreko interesak, urtebetetik gorako epemugarekin.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldian sortutako interesen zenbatekoarekin abonatuko da, urtebetetik gorako epemugarekin, «Zorren interesak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» 663 kontuan zordunduta.

b) Zorra guztiz edo zati batean aldez aurretik baliogabetzeagatik zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

169. Epe luzeko beste zor batzuk taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutakoak urtebetetik gorako epemuga duten eta azpitalde honetako kontuetan jasota ez dauden maileguengatik eta beste zorketa batzuengatik. Ibilgetua erosteak eta finantza-errentamenduak eragindako zorrak jasoko dira.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Zorra formalizatzean jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

a.3) Hornitutako ondasunak edo haiek erabiltzeko eskubidea hartzean eta ontzat ematean, «Aktibo ez-korrontea» 2 taldeko kontuetan zordunduta.

a.4) Epemugan itzulitako balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldetik ekitaldian sortutako zatia egozteagatik, «Zorren interesak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» 663 kontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) Formalizazioari zuzenean egotz dakizkiokeen eta zorraren hasierako zenbatekotik kendu ez diren transakzio-kostuen zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Aldez aurretik ezeztatutako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta. Era berean, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin dauden kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak» 6663 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin dauden kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan» 7663 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboen edo positiboen arabera.

b.3) Beste erakunde batek zorra bere gain hartzen duenean, «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

d) Erakundeak diruz lagundutako interesak dituzten maileguak jasoko balitu, kontu hau zordunduko litzateke «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan abonatuta, jasotako zenbatekoaren eta zorraren arrazoizko balioaren aldeagatik, «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauaren irizpideekin bat etorriz.

17. Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik dauden epe luzeko zorrak.

170. Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

172. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak.

173. Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak.

174. Epe luzeko finantza-errentamenduengatik hartzekodunak.

176. Epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

1760. Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

1761. Epe luzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak.

177. Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe luzeko interesak.

178. Beste zor batzuen epe luzeko interesak.

179. Epe luzeko bestelako zorrak.

Balore negoziagarrietan gauzatu gabeko edo taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartu gabeko kanpoko finantzaketa, urtebete baino gehiagoan mugaeguneratuko edo baliogabetuko dena.

Azpitalde honen kontuak balantzeko pasibo ez-korrontean azalduko dira, «Epe luzeko zorrak» II epigrafean.

Epe motzean mugaeguneratuko edo baliogabetuko diren epe luzeko zorrak balantzeko pasibo korrontean azalduko dira, «epe motzeko zorrak» II epigrafean; hartarako, epe motzean mugaeguneratuko edo baliogabetuko diren epe luzeko zorren zenbatekoa pasatuko da «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik epe motzeko zorrak» 52 azpitaldeko kontuetara.

170. Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

Kreditu-erakundeekin hartutakoak urtebetetik gorako epemuga duten maileguengatik eta beste zordunketa batzuengatik.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Zorra formalizatzean jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

a.3) Epemugan itzulitako balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldetik ekitaldian sortutako zatia egozteagatik, «Kreditu-erakundeekiko zorren interesak» 6625 kontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) Formalizazioari zuzenean egotz dakizkiokeen eta zorraren hasierako zenbatekotik kendu ez diren transakzio-kostuen zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Aldez aurretik ezeztatutako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta. Aldi berean «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak» 6655 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan» 7655 azpikontuan abonatuko da, eragiketa horrek ekar ditzakeen emaitza negatiboen edo positiboen arabera, hurrenez hurren.

b.3) Beste erakunde batek zorra bere gain hartzen duenean, «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

d) Erakundeak diruz lagundutako interesak dituzten maileguak jasoko balitu, kontu hau zordunduko litzateke «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan abonatuta, jasotako zenbatekoaren eta zorraren arrazoizko balioaren aldeagatik, «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauaren irizpideekin bat etorriz.

172. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak.

Beste erakunde batzuetatik edo partikularrengandik jasotako diru-laguntza itzulgarriak, urtebetetik gorako epemuga dutenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) Normalean, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, jasotako zenbatekoetan.

a.2) «Sarrerak diru-laguntzengatik» 94 azpitaldeko kontu egokian, itzulgarria ez den diru-laguntza bat itzulgarri bihurtzen bada emaitzei egotzi gabe dagoen zatiari dagokionez, eta «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan, emaitzei egotzitako diru-laguntzaren zenbatekoan.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak» 418 kontuan, edo aktiboa adierazten duen kontuan, diru-laguntzak diru edo espezie diren, hurrenez hurren, haiek osorik edo partzialki murriztea dakarren edozerengatik, emateko baldintzak kontuan hartuta.

b.2) «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan, «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 941 kontuan edo «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan, edo «Transferentziak eta diru-laguntzak» 75 azpitaldeko kontuetan, itzulgarri izateari utziz gero.

173. Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak.

Zorrak «Aktibo ez-korrontea» 2. taldean zehaztutako ondasunen hornitzaileekin, urtebetetik gorako epemuga dutenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Hornitutako ondasunak hartzean eta ontzat ematean, «Aktibo ez-korrontea» 2. taldeko kontuetan zordunduta.

a.2) Epemugan itzulitako balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldetik ekitaldian sortutako zatia egozteagatik, «Zorren interesak» 662 kontuan zordunduta, dagokion sail-kontuaren bidez.

b) Aldez aurretik ezeztatutako zenbatekoa zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

174. Epe luzeko finantza-errentamenduengatik hartzekodunak.

Urtebetetik gorako epemuga duten zorrak beste erakunde batzuekin, «Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk» 6. aintzatespen- eta balioespen-arauan, jasotakoaren arabera errentamendu finantzarioko kalifikazioa jaso behar duten akordioetako ondasunen erabileraren lagatzaile gisa.

a) Abonatuko da:

a.1) Hornitutako ondasunak erabiltzeko eskubidea hartzean eta ontzat ematean, «Aktibo ez-korrontea» 2. taldeko kontuetan zordunduta.

a.2) Epemugan itzulitako balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldetik ekitaldian sortutako zatia egozteagatik, «Zorren interesak» 662 kontuan zordunduta, dagokion sail-kontuaren bidez.

b) Zorrak guztiz edo zati batean aldez aurretik ezeztatzeagatik zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

176. Epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

Erakundearentzat aurkako balioespena duten deribatu finantzarioekin egindako eragiketen zenbatekoa, epemuga edo likidatzea espero den eguna urtebetetik gorakoa denean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

1760. Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

«Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauarekin bat etorriz, estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioen erakundearen aurkako balioespena jasotzen du.

a) Kontratazioa egiteko unean jasotako zenbatekoarekin abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b) Likidatzen denean ordaindutako kopuruekin zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

c) Arrazoizko balioaren aldaketengatik abonatu edo ordainduko da, «Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6645 azpikontuan eta «Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan» 7645 azpikontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren, dagokion sail-kontuaren bitartez, baldin eta, «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, deribatua arrazoizko balioagatik balioetsi behar bada eta aipatutako aldaketa ekitaldiaren ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotzi behar bada.

d) «Estaldurengatiko mozkinak» 910 kontuan, edo «Estaldurengatiko galerak» 810 kontuan, abonatuta edo zordunduta, zordundu edo abonatuko da, hurrenez hurren, estaldura eraginkortzat jotako tresna deribatuaren arrazoizko balioaren aldakuntzagatik, deribatua arrazoizko balioagatik balioetsi behar denean, eta aipatutako aldakuntza ondorengo ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partidaren hasierako baliora egotzi behar denean.

1761. Epe luzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak.

Estalduren kontabilitatea aplikatuta ez duten deribatu finantzarioen balioespena jasotzen du, erakundearentzat kontrakoa dena.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kontratazioa egiteko unean jasotako zenbatekoarekin abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b) Likidatzen denean ordaindutako kopuruekin zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

c) Arrazoizko balioaren aldaketen zenbatekoan abonatu edo zordunduko da, «Bestelako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6646 azpikontuan, eta «Mozkinak beste deribatu finantzario batzuetan» 7646 azpikontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren.

177. Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe luzeko interesak.

Kreditu-erakundeekin dauden zorren ordaindu beharreko interesak, epe luzeko epemuga dutenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldian sortutako interesen zenbatekoarekin abonatuko da, urtebetetik gorako epemugarekin, «Kreditu-erakundeekiko zorren interesak» 6625 azpikontuan zordunduta.

b) Zorrak, osorik edo zati batean, aurrez kitatzean zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

178. Beste zor batzuen epe luzeko interesak.

Zorren epe luzeko epemuga duten ordaindu beharreko interesak, «Zorren epe luzeko interesak kreditu-erakundeekin» 177 kontuan erregistratu beharrekoak izan ezik.

Beren mugimendua 177 kontuarentzat adierazitakoaren antzekoa da, kontrakontu gisa «Bestelako zorren interesak» 6626 azpikontua erabilita.

179. Epe luzeko bestelako zorrak.

Azpitalde honetako beste kontu batzuetan jaso gabeko maileguengatik eta beste zor batzuengatik hirugarrenekin hartutakoak, urtebetetik gorako epemuga dutenak.

Kontuaren mugimendua «Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak» 170 konturako adierazitakoaren antzekoa da, kontrakontu gisa «Bestelako zorren interesak» 6626 kontua erabilita.

18. Jasotako fidantzak eta gordailuak eta epe luzera periodifikatzeagatiko doikuntzak.

180. Epe luzera jasotako fidantzak.

185. Epe luzera jasotako gordailuak.

186. Epe luzera aurreratutako sarrerak.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko pasibo ez-korrontean agertuko dira; «Epe luzeko zorrak» II. epigrafean jasotako gordailuak eta fidantzak izango dira, eta «Epe luzera periodifikatzeagatiko doikuntzak» V. epigrafean, berriz, epe luzeko sarrera aurreratuak.

Epe luzera jasotako fidatzen eta gordailuen artean mugaeguna epe motzera duen zatiak balantzeko pasibo korrontean agertu beharko du, «Epe motzeko zorrak» II. epigrafean. Era berean, epe luzera aurreratutako sarreren artean mugaeguna epe motzera duen zatiak balantzeko pasibo korrontean agertu beharko du, «Epe motzera periodifikatzeagatiko doikuntzak» V. epigrafean. Ondorio horietarako, epe luzera jasotako fidantzen eta gordailuen artean mugaeguna epe motzera dutenen zenbatekoa «Epe laburrera jasotako eta eratutako fidantzak eta gordailuak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak» 56 azpitaldeko kontu egokietara aldatuko da, eta epe motzean sortzen diren sarrera aurreratuen zenbatekoa «Epe laburreko sarrera aurreratuak» 485 azpikontura.

180. Epe luzera jasotako fidantzak.

Obligazio bat beteko dela bermatzeko, urtebetetik gorako eperako jasotako dirua.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Fidantza eratzean abonatuko da, jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   b.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, fidantza baliogabetzean, egokia denaren arabera.

   b.2) «Ezohiko sarrerak» 778 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean, edo «Aintzatetsitako eskubideengatiko zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, aplikagarria den araudiak dioenaren arabera.

185. Epe luzera jasotako gordailuak.

Gordailu irregularraren kontzeptuan jasotako dirua, urtebetetik gorako epera.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean abonatuko da, jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, aurrez ezeztatzean, egokia denaren arabera.

186. Epe luzera aurreratutako sarrerak.

Ixten den ekitaldian edo aurrekoetan kontabilizatu diren eta dagokien sortzapena hurrengo ekitaldian gertatuko ez den sarrerak.

Balantzeko pasibo ez-korrontean agertuko da, «Epe luzera periodifikatzeagatiko doikuntzak» V epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, epe luzean egotzi beharreko sarrerak erregistratuta dauden «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7 taldeko kontuetan zordunduta.

b) a.2) «Epe motzera aurreratutako sarrerak» 485 kontuan abonatuta zordunduko da, sortzapena epe motzean izango duen zenbatekoaren intsuldaketagatik.

2 Taldekoak. Aktibo ez-korrontea.

Erakundearen (kontabilitate-subjektua) jardueretan iraunkortasunez erabiltzeko ondare-elementuak barne hartzen ditu, baita ondasun higiezinetako inbertsioak ere. Talde honetan sartzen dira urtebetetik gorako epean mugaeguneratu, inorenganatu edo diru bihurtuko direla espero diren finantza-inbertsioak.

20. Ibilgetu ukiezinak.

200. Inbertsioa ikerketan.

201. Inbertsioa garapenean.

203. Jabetza industriala eta intelektuala.

206. Aplikazio informatikoak.

207. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioak.

208. Ibilgetu ukiezinetarako aurrerakinak.

209. Bestelako ibilgetu ukiezina.

Balioespen ekonomikoa jaso dezaketen ondasun inmaterialen eta eskubideen multzoa; hauek, gainera, denboran irauten dute eta ondasun eta zerbitzu publikoen ekoizpenean erabiltzen dira edo kontabilitateko subjektuaren baliabide-iturri dira. Ibilgetu hauen hornitzaileei emandako konturako aurrerakinak ere jasotzen dira.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Ibilgetu ukiezina» I epigrafean.

Erakundeak tratamendu berezia (errebalorizazio-eredua) aplikatzen duenean, «Ibilgetu ukiezinak» 21. azpitalderako ezarritako irizpideak aplikatuko dira, hau da, «Ibilgetu ukiezinak» 20 azpitaldeko kontuak beren arrazoizko balioaren aldaketen zenbatekoan zordundu edo abonatuko dira, «Doikuntza positiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean bere

arrazoizko balioa handitzeagatik» 920 kontuan eta «Doikuntza negatiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean bere arrazoizko balioa murrizteagatik» 820 kontuan, zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren.

200. Inbertsioa ikerketan.

Arlo zientifiko eta teknikoetan ezagutza berriak eta ulermen handiagoa eskuratu nahian egiten den bilakuntza original eta planifikatua da. Erakundeak testu honetako aintzatespen- eta balioespen-arauetan ezarritakoaren arabera aktibatutako ikerketa-gastu guztiak hartzen ditu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kontu honetan jasota egon behar duten gastuen zenbatekoan zordunduko da, «Ibilgetu ukiezinerako egindako lanak» 780 kontuan abonatuta.

b) Aktiboaren bajagatik abonatuko da, horrelakorik badago, «Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak» 670 kontuan zordunduta.

Beste erakunde batzuei edo unibertsitateei edo ikerketa eta berrikuntza zientifikoan diharduten bestelako erakundeei enkarguz emandako ikerketa denean ere, «Inbertsioa ikerketan» 200 kontuaren mugimendua, goian azaldu den bera izango da.

201. Inbertsioa garapenean.

Garapena ikerketan izandako lorpenen aplikazio zehatza da.

Erakundeak testu honetako aintzatespen- eta balioespen-arauetan ezarritakoaren arabera aktibatutako garapen-gastu guztiak hartzen ditu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kontu honetan jasota egon behar duten gastuen zenbatekoan zordunduko da, «Ibilgetu ukiezinerako egindako lanak» 780 kontuan abonatuta.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak» 670 kontuan, aktiboaren bajagatik, horrelakorik badago.

   b.2) «Jabetza industriala eta intelektuala» 203 kontuan edo «Aplikazio informatikoak» 206 kontuan, egokia denaren arabera, positiboak izateagatik eta, hala badaude, garapen-emaitzak erregistro publiko egokian inskribatuta egoteagatik, eta, egokia denean, «Garapeneko inbertsioaren amortizazio metatua» 2801 azpikontuan.

Beste erakunde batzuei edo unibertsitateei edo ikerketa eta berrikuntza zientifikoan diharduten bestelako erakundeei enkarguz emandako garapena denean ere, «Inbertsioa garapenean» 201 kontuaren mugimendua goian azaldu den bera izango da.

203. Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza industrialaren edo jabetza intelektualaren edozein adierazpen erabiltzeko eskubide edo jabetzagatik, edo bere erabilera emateagatik, ordaindutako zenbatekoa.

Kontu honen barruan garapen-gastuak ere jasoko dira dagozkien proiektuen emaitzak positiboak direnean eta, beharrezko lege-baldintzak beteta, erregistro egokian inskribatzen direnean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) Normalean, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, erosketagatik.

a.2) «Inbertsioa garapenean» 201 kontuan, garapenaren emaitzak positiboak direnean eta erregistro publiko egokian inskribatuta daudenean.

a.3) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, erregistro egokian inskribatzeko eskatutako ordainketen zenbatekoan.

b) Normalean inorenganatzeengatik abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta beharrezkoa bada, «Jabetza industrialaren eta intelektualaren amortizazio metatua» 2803 azpikontuan eta «Jabetza industrialaren eta intelektualaren balio-narriadura» 2903 azpikontuan. Aldi berean «Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak» 670 kontua zordunduko da edo «Ibilgetu ukiezinetik sortutako mozkinak» 770 kontua abonatuko da, eragiketatik sortutako balizko emaitza negatibo edo positiboen zenbatekoan, hurrenez hurren.

206. Aplikazio informatikoak.

Programa informatikoen jabetzagatik edo hauek erabiltzeko eskubideagatik ordaindutako zenbatekoa, edo bestela, erakundeak berak egindakoen ekoizpen-kostua, hainbat ekitalditan erabiltzea aurreikusita dagoenean. Erakunde barruan webguneak egiteko gastuak ere hemen sartzen dira, hainbat ekitalditan erabiltzeko asmoarekin egiten badira.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) Normalean, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, beste enpresa batzuei erosteagatik.

a.2) «Ibilgetu ukiezinerako egindako lanak» 780 kontuan, barne-elaborazioagatik, eta egokia bada, «Inbertsioa garapenean» 201 kontuan, garapenean egindako inbertsioen emaitzak onak izateagatik.

b) Normalean inorenganatzeengatik abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta beharrezkoa bada, «Aplikazio informatikoen amortizazio metatua» 2806 azpikontuan eta «Aplikazio informatikoen balio-narriadura» 2906 azpikontuan. Aldi berean «Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak» 670 kontua zordunduko da edo «Ibilgetu ukiezinetik sortutako mozkinak» 770 kontua abonatuko da, eragiketatik sortutako balizko emaitza negatibo edo positiboen zenbatekoan, hurrenez hurren.

207. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioak.

Errentamendu-erregimenean erabilitako edo erabiltzeko lagatako aktiboen gainean egindako inbertsioen zenbatekoa, baldin eta, «Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk» 6. aintzatespen- eta balioespen-arauarekin bat etorriz, errentamendu finantzario gisa kalifikatu behar ez badira; betiere aipatutako inbertsioak aktibo horietatik bereizi ezin direnean, eta bere bizitza ekonomikoa, gaitasuna edo produktibitatea handitzen dituztenean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta zordunduko da, kontu horretan agertu behar duten egindako inbertsioen zenbatekoan.

b) Errentamendu- edo lagapen-kontratua amaitzean abonatuko da, «Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen amortizazio metatua»

2807 azpikontua eta «Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen balio-narriadura» 2907 azpikontua eta, hala badagokio, «Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak» 670 kontua zordunduta.

208. Ibilgetu ukiezinetarako aurrerakinak.

Hornitzaileei eta bestelakoei emandako ibilgetu ukiezineko elementuen zenbatekoak, normalean dirutan, etorkizuneko horniduren edo lanen «kontura».

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Hornitzaileei eskudirutan ordaindutako kopuruekin zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b) Dagozkien entregak hartzean eta ontzat ematean abonatuko da, azpitalde honetako kontuetan zordunduta.

209. Bestelako ibilgetu ukiezina.

Aurreko kontuetan bereizi gabeko beste eskubide batzuen zenbatekoa; besteak beste, administrazio-emakidak eta intsuldaketa-eskubideak, hala nola aktibo-erabileren atxikipenak eta lagapenak, haien bizitza ekonomikoa baino txikiagoa den aldi baterako.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eskuratze-prezioan zordunduko da normalean, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta. '

b) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboaren bajagatik abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta egokia bada, «Bestelako ibilgetu ukiezinaren metatutako amortizazioa» 2809 azpikontuan eta «Bestelako ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura» 2909 azpikontuan, eta galerak egonez gero, berriz, «Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak» 670 kontuan.

21. Ibilgetu materialak.

210. Lurrak eta ondasun naturalak.

211. Eraikuntzak.

212. Azpiegiturak.

213. Ondare historikoaren ondasunak.

214. Makineria eta tresneria.

215. Instalazio teknikoak eta beste instalazioa batzuk.

216. Altzariak.

217. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak.

218. Garraio-elementuak.

219. Bestelako ibilgetu materiala.

Ondare-elementu ukigarriak, higigarriak edo higiezinak, kontabilitateko subjektuak ondasun eta zerbitzu publikoen ekoizpenean edo bere administrazio asmoetarako erabili ohi dituenak eta salgarriak ez direnak.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Ibilgetu materiala» II epigrafean.

Azpitaldeko kontuen mugimendu hau dago:

a) Zordunduko dira:

a.1) Erosketa-prezioagatik edo ekoizpen-kostuagatik, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Ibilgetu materialerako egindako lanak» 781 kontuan, edo, hala egokituz gero, «Ekoizpen-bidean dauden ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetako inbertsioak» 23 azpitaldeko kontuetan.

a.2) Erabilera-aldaketagatik, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko edo «Salgai dauden aktiboak» 38 azpitaldeko kontu egokietan abonatuta, eta hala badagokio, «Ibilgetu materialaren amortizazio metatua» 281 kontuan eta «Ibilgetu materialaren balio-narriadura» 291 kontuan, beren sail-kontuen bitartez.

a.3) Lurzoruaren ondare publikoa jaregiteagatik, «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko kontuetan abonatuta, eta, hala egokituz gero, «Ibilgetu materialaren amortizazio metatua» 281 kontuan, eta «Ibilgetu materialaren balio-narriadura» 291 kontuan, sail-kontuen bidez.

a.4) Erakunde jabetik edo jabeetatik atxikipenean jasotako ondasunen arrazoizko balioaren zenbatekoan, «Jasotako ondarea» 101 kontuaren «Ondasunen eta eskubideen ekarpena» 1011 azpikontuan abonatuta.

a.5) Espezietako diru-laguntza gisa jasotako ondasunen edo ondasunaren bizitza ekonomikoaren antzeko aldirako edo mugagabe lagapenean jasotako ondasunen arrazoizko balioagatik, «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan abonatuta.

a.6) Transferentzia gisa jasotako ondasunen arrazoizko balioaren zenbatekoan, «Transferentziak» 750 kontuan abonatuta.

a.7) Truke bidez jasotako ondasunen arrazoizko balioagatik, trukatutako aktiboak ikuspegi funtzionalari edo balio-bizitzari dagokionez antzekoak ez direnean, emandako ondasuna adierazten duen kontuan abonatuta, eta egokia bada, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, dirutan konpentsatutako zenbatekoan.

a.8) Emandako aktiboaren kontabilitateko balioagatik, egokia bada, dirutan ordaindutako zenbatekoa gehituta, truke bidez jasotako elementuaren arrazoizko balioa muga delarik, trukatutako aktiboak ikuspegi funtzionalari eta balio-bizitzari dagokionez antzekoak direnean, emandako ondasuna adierazten duen kontuan eta «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, dirutan ordaindutako zenbatekoagatik.

b) Erakundeak tratamendu berezia (errebalorizazio-eredua) aplikatzen duenean, beren arrazoizko balioaren aldaketen zenbatekoan zordundu edo abonatuko dira, «Doikuntza positiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean bere arrazoizko balioa handitzeagatik» 920 kontuan eta «Doikuntza negatiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean bere arrazoizko balioa murrizteagatik» 820 kontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren.

c) Abonatuko dira:

c.1) Inorenganatzeengatik eta, orokorrean, aktiboaren bajagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, hala egokituz gero, «Ibilgetu materialaren amortizazio metatua» 281 kontuan eta «Ibilgetu materialaren balio-narriadura» 291 kontuan, sail-kontuen bidez.

Aldi berean, «Ibilgetu materialetik sortutako galerak» 671 kontua zordunduko da edo «Ibilgetu materialetik sortutako mozkinak» 771 kontua abonatuko da, eragiketatik sortutako balizko emaitza negatibo edo positiboengatik, hurrenez hurren.

c.2) Ondasun-atxikipenengatik, «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuan zordunduta, haren sail-kontuen bidez, edo «Diru-laguntzak» 651 kontuan, erakunde hartzailea kontabilitateko erakundearen mendekoa den ala ez.

Era berean, atxikitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta kontabilitateko bere balioaren arteko aldeagatik «Ibilgetu materialetik sortutako galerak» 671 kontua zordunduko da, edo «Ibilgetu materialetik sortutako mozkinak» 771 kontua abonatuko da, positiboa edo negatiboa bada, hurrenez hurren.

c.3) Aldi mugagabean edo bizitza ekonomikoaren antzeko aldian lagatako ondasunengatik «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

c.4) Erabilera-aldaketagatik, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko edo «Salgai dauden aktiboak» 38 azpitaldeko kontu egokietan zordunduta, eta hala badagokio, «Ibilgetu materialaren amortizazio metatua» 281 kontuan eta «Ibilgetu materialaren balio-narriadura» 291 kontuan, beren sail-kontuen bitartez.

c.5) Lurzoruaren ondare publikoa gehitzeagatik, «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko kontuetan zordunduta, eta, hala egokituz gero, «Ibilgetu materialaren amortizazio metatua» 281 kontuan, eta «Ibilgetu materialaren balio-narriadura» 291 kontuan, sail-kontuen bidez.

210. Lurrak eta ondasun naturalak.

Hiri-orubeak, landa-finkak, hirikoak ez diren bestelako lurrak (hala nola, besteak beste, meategiak, harrobiak, abelbideak, erabilera publikoko mendiak eta parke naturalak).

211. Eraikuntzak.

Eraikuntzak oro har. Barruan daude administrazio-, merkataritza-, hezkuntza- eta kirol-eraikinak, egoitzak, osasun-zentroak, aterpeak eta basetxeak, ukuiluak eta kortak, tanatorioak eta hilerriak, eta abar.

212. Azpiegiturak.

Erakundeak, kostu bidez edo doan, eskuratu edo eraikitako aktibo ez-korronteak, ingeniaritza zibileko obrak direnak edo herritarrek oro har erabil ditzaketen higiezinak edo zerbitzu publikoak eskaintzera zuzenduta daudenak, betiere baldintza hauetakoren bat betez gero:

Sistema edo sare baten barruan daude.

Bestelako erabilerak onartzen ez dituen xede espezifikoa dute.

213. Ondare historikoaren ondasunak.

Arte-, historia-, paleontologia-, arkeologia-, etnografia-, zientzia- edo teknika-interesa duten ondare-elementu higigarriak edo higiezinak, eta halaber, dokumentuko eta bibliografiako ondarea, gune arkeologikoak, gune naturalak, balio artistikoa, historikoa edo antropologikoa duten lorategiak eta parkeak ere bai.

214. Makineria eta tresneria.

Makineria: Produktuak erauzi, egin edo tratatzeko makinak edo ekipamendu-ondasunak, edo kontabilitateko subjektuaren jarduera osatzen duten zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen direnak.

Langileak, animaliak, materialak eta salgaiak lantegien, tailerren, eta abarren barruan, kanpora atera gabe, eramatera zuzendutako barneko garraio-elementuak ere sartzen dira.

Tresneria: Makinekin batera edo autonomoki erabil daitezkeen tresnak edo erremintak, baita moldeak eta ereduak ere.

Urtero kontaketa fisikoa egingo da, ekitaldian gertatutako galerak zehazteko, eta kontu hori «Gestio arrunteko bestelako galerak» 676 kontuan zordunduta abonatuko da.

215. Instalazio teknikoak eta beste instalazioa batzuk.

Instalazio teknikoak: honako hauek barne hartzen dituzten erabilera espezializatuko unitate konplexuak: eraikinak, makineria, materialak, piezak edo elementuak, sistema informatikoak barne, izaeraz bereizgarriak izan arren, funtzionamendurako elkarri behin betiko lotuta daudenak eta amortizazio-erritmo bera dutenak. Mota horretako instalazioetarako bakarrik balio duten ordezko piezak edo aldagarriak ere hemen sartuko dira.

Beste instalazio batzuk: funtzionamendurako elkarri behin betiko lotutako eta amortizazio-erritmo bereko elementuen multzoak, lehen adierazitakoez bestelakoak; mota horretako instalazioentzat bakarrik balio duten ordezko piezak edo aldagarriak ere hemen sartuko dira.

216. Altzariak.

Bulegoko altzariak, materiala eta ekipamenduak, «Informazioa prozesatzeko ekipamenduak» 217 kontuan sartu beharrekoak ez badira.

217. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak.

Ordenagailuak eta gainerako multzo elektronikoak.

218. Garraio-elementuak.

Era guztietako ibilgailuak pertsonak, animaliak edo materialak lurrez, itsasoz edo airez garraiatzeko erabil daitezkeenak, «Makineria eta tresneria» 214 kontuan erregistratu beharrekoak izan ezik.

219. Bestelako ibilgetu materiala.

Azpitalde honen gainerako kontuetan jaso gabeko beste edozein ibilgetu material; hala nola, funts bibliografikoak edo dokumentalak, edo ikerketa-jardueretara zuzendutako abereak.

Kontu honetan sartuko dira ibilgetutzat hartu beharreko ontziak eta bilgarriak eta urtebetetik gorako biltegiratze-zikloa duten ordezko piezak.

22. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

220. Inbertsioak lurretan.

221. Eraikuntzetako inbertsioak.

Aktibo ez-korronteak, higiezinak direnak eta errentak, gainbalioak edo biak eskuratzeko daudenak, ez ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo horniduran erabiltzeko, ezta administrazio xedeetarako ere, edo eragiketen barruan saltzeko.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko dira:

a.1) Erosketa-prezioagatik edo ekoizpen-kostuagatik, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Ondasun higiezinetako inbertsioetarako egindako lanak» 782 kontuan, edo, hala egokituz gero, «Ekoizpen-bidean dauden ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetako inbertsioak» 23 azpitaldeko kontuetan.

a.2) Erabilera-aldaketagatik, «Ibilgetze materialak» 21 azpitaldeko kontuetan edo «Aktibo salgarriak» 38 azpitaldekoetan zordunduta, eta hala badagokio, «Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua» 282 kontuan eta «Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriadura» 292 kontuan abonatuta.

b) Erakundeak tratamendu berezia (errebalorizazio-eredua) aplikatzen duenean, beren arrazoizko balioaren aldaketen zenbatekoan zordundu edo abonatuko dira, «Doikuntza positiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean bere arrazoizko balioa handitzeagatik» 920 kontuan eta «Doikuntza negatiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean bere arrazoizko balioa murrizteagatik» 820 kontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren.

c) Abonatuko dira:

c.1) Inorenganatzeengatik eta, orokorrean, aktiboaren bajagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, hala egokituz gero, «Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua» 282 kontuan eta «Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriadura» 292 kontuan, sail-kontuen bidez.

Aldi berean «Ondasun higiezinetako inbertsioetatik sortutako galerak» 672 kontua zordunduko da, edo «Ondasun higiezinetako inbertsioetatik datozen mozkinak» 772 kontua abonatuko da, eragiketatik sortutako balizko emaitza negatibo edo positiboen zenbatekoan, hurrenez hurren.

c.2) Erabilera-aldaketagatik, «Ibilgetze materialak» 21 azpitaldeko kontuetan edo «Aktibo salgarriak» 38 azpitaldekoetan zordunduta, eta hala badagokio, «Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua» 282 kontuan, eta «Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriadura» 292 kontuan zordunduta, sail-kontuen bidez.

23. Ekoizpen-bidean dauden ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetako inbertsioak.

230. Lur eta ondasun naturalen egokitzapena.

2300. Lur eta ondasun naturalen egokitzapena. Ibilgetu materiala.

2301. Lur eta ondasun naturalen egokitzapena. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

231. Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak.

2310. Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak. Ibilgetu materiala.

2311. Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak. Ondasun higiezinetako inbertsioak.

232. Ekoizpen-bidean diren azpiegiturak.

233. Ekoizpen-bidean diren ondare historikoaren ondasunak.

234. Muntatze-bidean diren makineria eta tresneria.

235. Muntatze-bidean diren instalazio teknikoak eta beste instalazio batzuk.

237. Muntatze-bideko informazioa prozesatzeko ekipamenduak.

238. Ekoizpen-bidean den bestelako ibilgetu materiala.

239. Ibilgetu materialetarako eta ondasun higiezinetako inbertsioetarako aurrerakinak.

2390. Ibilgetu materialetarako aurrerakinak.

2391. Ondasun higiezinetako inbertsioetarako aurrerakinak.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Ibilgetu materiala» II epigrafean, edo «Ondasun higiezinetako inbertsioak» III epigrafean, egokia denaren arabera.

230/./238 .

Ibilgetu materialeko eta ondasun higiezinetako inbertsioetako elementuak funtzionatzeko moduan jartzeko egindako egokitze-, eraikitze- edo muntatze-lanak, ekitaldi-itxieran amaitu gabe daudenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko dira:

   a.1) Egite-bidean diren ibilgetzeei dagozkien obrak eta lanak hartzeagatik, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.2) Erakundeak berez egindako obrengatik eta lanengatik, «Erakunderako egindako lanak» 78 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

b) Aipatutako obrak eta lanak bukatutakoan abonatuko dira, «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko kontuetan zordunduta, edo egokia bada, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko kontuetan.

239. Ibilgetu materialetarako eta ondasun higiezinetako inbertsioetarako aurrerakinak.

Hornitzaileei eta bestelakoei emandako ibilgetu materialeko edo ondasun higiezinetako inbertsioetako elementuen zenbatekoak, normalean dirutan, etorkizuneko horniduren edo lanen «kontura».

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hornitzaileei eskudirutan ordaindutako kopuruengatik zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b) Ontzat emandako entregengatik abonatuko da, normalean azpitalde honetako eta «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko kontuetan zordunduta, edo bestela, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko kontuetan.

24. Lurzoruaren ondare publikoa.

240. Lurzoruaren ondare publikoko lurrak.

241. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak.

243. Lurzoruaren ondare publikoko lurren egokitzapena.

244. Ekoizpen bidean dauden lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak.

248. Lurzoruaren ondare publikoko ondasun eta eskubideetarako aurrerakinak.

249. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideak.

Lurzoruaren ondare publikoa osatzen duten ondasunak eta eskubideak, edozein dela ere haren kudeatzailea: toki-entitatea ala haren mendeko erakunde publiko bat.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Lurzoruaren ondare publikoa» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko dira:

a.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, edo «Lurzoruaren ondare publikorako egindako lanak» 784 kontuan, erosketa-prezioa edo ekoizpen-kostua kontuan hartuta, hala nola hornitzaileei dirutan emana.

a.2) «Administrazioari dagokion hirigintza-aprobetxamendua» 7461 kontuan, administrazioari dagokion hirigintza-aprobetxamenduagatik.

a.3) «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan, doan eskuratuengatik.

a.4) «Ibilgetze materialak» 21 azpitaldeko kontu egokietan, eta, hala egokituz gero,«Lurzoruaren ondare publikoaren amortizazio metatua» 284 kontuan eta «Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura» 293 kontuan, sail-kontuen bidez, ibilgetu materialeko ondasunak lurzoruaren ondare publikoan sartzeagatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko dira:

b.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, inorenganatzeengatik, eta, hala egokituz gero, «Lurzoruaren ondare publikoaren amortizazio metatua» 284 kontuan eta «Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura» 293 kontuan.

Aldi berean «Lurzoruaren ondare publikotik sortutako galerak» 673 kontuan zordunduko dira, edo «Lurzoruaren ondare publikotik sortutako mozkinak» 773 kontuan abonatuko, eragiketatik sortutako balizko emaitza negatibo edo positiboen zenbatekoan, hurrenez hurren.

b.2) «Diru-laguntzak» 651 kontua, doako lagapenengatik.

b.3) «Ibilgetze materialak» 21 azpitaldeko kontu egokietan, eta, hala egokituz gero,«Lurzoruaren ondare publikoaren amortizazio metatua» 284 kontuan eta «Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura» 293 kontuan, sail-kontuen bidez, lurzoruaren ondare publikoko ondasunak jaregiteagatik.

240. Lurzoruaren ondare publikoko lurrak.

Lurzoruaren ondare publikoko lurrak.

241. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak.

Lurzoruaren ondare publikoa osatzen duten eraikuntzak oro har.

243. Lurzoruaren ondare publikoko lurren egokitzapena .

Egokitze-lanak, ekitaldia ixtean, lurzoruaren ondare publikoa osatzen duten lurrak funtzionatzeko moduan jarri aurretik eginak.

244. Ekoizpen bidean dauden lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak.

Eraikitze-lanak, ekitaldia ixtean, lurzoruaren ondare publikoa osatzen duten eraikuntzak funtzionatzeko moduan jarri aurretik eginak.

248. Lurzoruaren ondare publikoko ondasun eta eskubideetarako aurrerakinak.

Hornitzaileei eta bestelakoei lurzoruaren ondare publikoa osatzen duten ondasunak ematea, normalean dirutan, etorkizuneko horniduren edo lanen «kontura».

249. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideak.

Azpitalde honetako beste kontuetan sartu gabe dauden lurzoruaren ondare publikoko beste edozein ondasun eta eskubide.

25. Epe luzeko inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

250. Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan.

2500. Zuzenbide publikoko entitateetan.

2501. Merkataritza-sozietateetan.

2502. Beste erakunde batzuetan.

251. Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan.

2510. Zuzenbide publikoko entitateetan.

2511. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan.

2512. Beste erakunde batzuetan.

252. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak.

2520. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak.

2521. Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak.

253. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak.

255. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe luzeko interesak.

257. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzak.

258. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuak.

259. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak.

Taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako finantza-inbertsioak, urtebete baino gehiagoan epemuga edo inorenganatzea dutenak, beren izaera dela- eta talde honetako beste azpitalde batzuetan jasota egon beharko luketenak barne. Azpitalde honetan erakunde hauetan egindako epe luzeko fidantzak eta gordailuak ere sartzen dira.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Epe luzeko finantza-inbertsioak taldeko erakundetan, talde anitzetan eta elkartuetan» V epigrafean.

Epe motzean mugaeguneratuko edo inorenganatuko diren taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioen zatia balantzeko aktibo korrontean azalduko da, «Epe motzeko finantza-inbertsioak taldeko erakundetan, talde anitzetan eta elkartuetan» IV epigrafean; hartarako, urtebetetik gorako epemuga edo inorenganatze-eguna ez duten epe luzeko inbertsioen zenbatekoa «Epe motzeko finantza-inbertsioak taldeko erakundetan, talde anitzetan eta elkartuetan» 53 azpitaldeko kontuetara pasatuko da.

250. Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan.

Urtebete baino gehiagoan iraungitze-eguna duten taldeko erakundeen ondare garbiaren gaineko eskubideetan egindako inbertsioak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen mugimendu hau dago:

2500. Zuzenbide publikoko entitateetan

a) Zordunduko da:

a.1) Egindako ondare-ekarpena, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Mendeko erakunde publikoei atxikipenean emandako ondasunaren arrazoizko balioan, atxikitako ondasunaren kontu egokian abonatuta. Era berean, atxikitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta kontabilitateko bere balioaren artean dagoen aldeagatik, egonez gero, sortzen den emaitza, atxikitako ondasunaren izaeraren arabera, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste gastu batzuetatik eta ezohiko gastuetatik sortutako galerak» 67 azpitaldeko kontuan erregistratuko da, edo bestela, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak» 77 azpitaldekoan.

a.3) Ekarpena diruzkoa ez bada, ekarritako ondasunaren arrazoizko balioan, kasuan kasuko ondasunaren kontuan abonatuta. Era berean, erregistratu egingo da emandako ondasunaren arrazoizko balioaren eta, emandako ondasunaren izaeraren arabera, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste gastu batzuetatik eta ezohiko gastuetatik sortutako galerak» 67 azpitaldeko kontuan edo «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak» 77 azpitaldeko kontuan daukan kontabilitate-balioaren arteko kenketa egitean lortzen den emaitza.

b) Abonatuko da:

b.1) Ekarpenen itzulketengatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Mendeko erakunde publikoen atxikipenean emandako ondasunak itzultzeagatik, ondasunaren kontu egokian zordunduta.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, itzulitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta partaidetzaren kontabilitateko balioaren aldearen zenbatekoan, zeinuaren arabera.

2501. Merkataritza-sozietateetan

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, eta, hala badagokio, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak» 259 kontuan.

a.2) Zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Atxikita jasotako ondasunen kasuan, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioan, edo, berau erabilgarri ez badago, emandako ondasunaren arrazoizko balioan, ondasunari dagokion kontuan abonatuta. Era berean, erregistratu egingo da jasotako partaidetzaren arrazoizko balioaren edo, hala egokituz gero, emandako ondasunaren arrazoizko balioaren eta, atxikitako ondasunaren izaeraren arabera, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste gastu batzuetatik eta ezohiko gastuetatik sortutako galerak» 67 azpitaldeko kontuan edo «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak» 77 azpitaldeko kontuan daukan kontabilitate-balioaren arteko kenketa egitean lortzen den emaitza.

a.4) Diru ez den ekarpena eginez gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioan, edo, berau erabilgarri ez badago, emandako ondasunaren arrazoizko balioan, ondasunari dagokion kontuan abonatuta. Aldi berean, gertatzen den emaitza erregistratuko da, hala egokituz gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioaren, edo emandako ondasunaren arrazoizko balioaren, eta emandako ondasunaren kontabilitate-balioaren arteko aldea kontuan hartuta.

a.5) Aurreko partaidetza bat taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako partaidetza izatera igarotzen denean, «Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan» 260 kontuan abonatuta.

a.6) Zenbateko berreskuragarria kontabilitate-balioa baino handiagoa denean, eta taldeko erakunde, talde anitz eta elkartu izan aurretiko balio-murrizketengatik balioespen-doikuntzak daudenean, bi balioen aldea dela- eta, aurretiko balioespen-doikuntzak muga direlarik, «Aurreko balio-doikuntza negatiboak berreskuratzea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak» 991 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarren dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, hala egokituz gero, «Taldeko eta talde anitzeko entitateetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak» 259 kontuan.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660

azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Atxikipenean emandako ondasunak itzultzeagatik, ondasunaren kontu egokian zordunduta.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, itzulitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta partaidetzaren kontabilitateko balioaren aldearen zenbatekoan, zeinuaren arabera.

b.3) Taldeko eta talde anitzeko erakunde bateko eta elkartu bateko partaidetzak kalifikazio hau galtzen duenean, «Epe luzeko finantza-inbertsioak ondare-tresnetan» 260 kontuan zordunduta, arrazoizko balioan. Era berean, arrazoizko balioaren eta kontabilitateko balioaren aldeagatik, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontua zordunduko da, edo «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontua abonatuko da, zeinuaren arabera.

b.4) Narriadura-zenbatekoagatik taldeko erakunde, talde anitz eta elkartu izan aurretiko ondare garbian erregistratutako balio-hazkundeen mugara arte, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetza-narriadura» 891 kontuan zordunduta.

2502. Beste erakunde batzuetan

a) Zordunduko da:

a.1) Egindako ondare-ekarpena, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Diru ez den ekarpena eginez gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioan, edo, berau erabilgarri ez badago, emandako ondasunaren arrazoizko balioan, ondasunari dagokion kontuan abonatuta. Aldi berean, gertatzen den emaitza erregistratuko da, hala egokituz gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioaren, edo emandako ondasunaren arrazoizko balioaren, eta emandako ondasunaren kontabilitate-balioaren arteko aldea kontuan hartuta.

b) Ekarpenen itzulketengatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

251. Epe motzeko partaidetzak taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan.

Talde anitzeko erakundeen eta elkartuen ondare garbiaren gaineko eskubideetan egindako inbertsioak, haiek iraungitzeko esperotako data urtebetetik gorakoa bada.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen mugimendu hau dago:

2510. Zuzenbide publikoko entitateetan

a) Zordunduko da:

a.1) Egindako ondare-ekarpena, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Mendeko erakunde publikoei atxikipenean emandako ondasunaren arrazoizko balioan, atxikitako ondasunaren kontu egokian abonatuta. Era berean, atxikitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta kontabilitateko bere balioaren artean dagoen aldeagatik, egonez gero, sortzen den emaitza, atxikitako ondasunaren izaeraren arabera, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste gastu batzuetatik eta ezohiko gastuetatik sortutako galerak» 67 azpitaldeko kontuan erregistratuko da, edo bestela, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak» 77 azpitaldekoan.

a.3) Ekarpena diruzkoa ez bada, ekarritako ondasunaren arrazoizko balioan, kasuan kasuko ondasunaren kontuan abonatuta. Era berean, erregistratu egingo da emandako ondasunaren arrazoizko balioaren eta, emandako ondasunaren izaeraren arabera, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste gastu batzuetatik eta ezohiko gastuetatik sortutako galerak» 67 azpitaldeko kontuan edo «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak» 77 azpitaldeko kontuan daukan kontabilitate-balioaren arteko kenketa egitean lortzen den emaitza.

b) Abonatuko da:

b.1) Ekarpenen itzulketengatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Atxikipenean emandako ondasunak itzultzeagatik, ondasunaren kontu egokian zordunduta.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, itzulitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta partaidetzaren kontabilitateko balioaren aldearen zenbatekoan, zeinuaren arabera.

2511. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, eta, hala badagokio, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak» 259 kontuan.

a.2) Zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Diru ez den ekarpena eginez gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioan, edo, berau erabilgarri ez badago, emandako ondasunaren arrazoizko balioan, ondasunari dagokion kontuan abonatuta. Aldi berean, gertatzen den emaitza erregistratuko da, hala egokituz gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioaren, edo emandako ondasunaren arrazoizko balioaren, eta emandako ondasunaren kontabilitate-balioaren arteko aldea kontuan hartuta.

a.4) Aurreko partaidetza bat taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako partaidetza izatera igarotzen denean, «Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan» 260 kontuan abonatuta.

a.5) Zenbateko berreskuragarria kontabilitate-balioa baino handiagoa denean, eta taldeko erakunde, talde anitz eta elkartu izan aurretiko balio-murrizketengatik balioespen-doikuntzak daudenean, bi balioen aldea dela- eta, aurretiko balioespen-doikuntzak muga direlarik, «Aurreko balio-doikuntza negatiboak berreskuratzea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak» 991 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarren dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, hala egokituz gero, «Taldeko eta talde anitzeko entitateetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak» 259 kontuan.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Taldeko eta talde anitzeko erakunde bateko eta elkartu bateko partaidetzak kalifikazio hau galtzen duenean, «Epe luzeko finantza-inbertsioak ondare-tresnetan» 260 kontuan zordunduta, arrazoizko balioan. Era berean, arrazoizko balioaren eta kontabilitateko balioaren aldeagatik, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontua zordunduko da, edo «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontua abonatuko da, zeinuaren arabera.

b.3) Narriadura-zenbatekoagatik taldeko erakunde, talde anitz eta elkartu izan aurretiko ondare garbian erregistratutako balio-hazkundeen mugara arte, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetza-narriadura» 891 kontuan zordunduta.

2512. Beste erakunde batzuetan

a) Zordunduko da:

a.1) Egindako ondare-ekarpena, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Diru ez den ekarpena eginez gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioan, edo, berau erabilgarri ez badago, emandako ondasunaren arrazoizko balioan, ondasunari dagokion kontuan abonatuta. Aldi berean, gertatzen den emaitza erregistratuko da, hala egokituz gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioaren, edo emandako ondasunaren arrazoizko balioaren, eta emandako ondasunaren kontabilitate-balioaren arteko aldea kontuan hartuta.

b) Ekarpenen itzulketengatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

252. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak.

Inbertsioak obligazioetan, bonuetan edo zorra adierazten duten bestelako balioetan, indizeen edo antzeko sistemen arabera errendimendua finkatzen dutenak barne, baldin eta taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek jaulkita badaude, eta inorenganatzearen aurreikusitako data urtebete baino handiagoa badute.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

2520. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak.

Taldeko erakundeen, talde anitzekoen edo elkartuen zorra adierazten duten baloreetan egindako inbertsioak jasotzen ditu, baldin eta mugaegunera arte mantendutako inbertsioen kategoria barruan sailkatu badira, eta haien mugaeguna edo inorenganatzeko esperotako data urtebetetik gorakoa bada.

a) Zordunduko da:

   a.1) Harpidetzean edo erostean, eskuratze-prezioan, sortutako baina mugaeguneratu gabeko Interes esplizituak kenduta, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.3) Epemugan itzulitako balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 7631 azpikontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

   a.4) Salgarri kategoriatik birsailkatzeagatik, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak» 2521 azpikontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

   b.1) Balioen aktiboaren bajagatik, amortizazio aurreratuagatik edo inorenganatzeagatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreetan izandako galerak» 6661 azpikontuan zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreetan, kostua amortizatuta egonda» 7661 azpikontuan abonatuko, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

   b.2) Salgarri kategoriara birsailkatzeagatik, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak» 2521 azpikontuan zordunduta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, inbertsioaren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

2521. Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak.

Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten eta beste kategoria batzuetan sailkatuta ez dauden baloreetan egindako inbertsioak jasotzen ditu, haien epemuga edo inorenganatzeko esperotako data urtebetetik gorakoa bada.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, eskuratze-prezioan, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Epemugan itzulitako balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 7631 azpikontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

a.4) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriatik birsailkatzeagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak» 2520 azpikontuan abonatuta.

a.5) Balio-narriadura erregistratzeko garaian, ondare garbiari aldez aurretik egotzitako arrazoizko balioaren aldakuntza negatiboen zenbatekoan, «Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea» 902 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Balioen aktiboaren bajagatik, amortizazio aurreratuagatik edo inorenganatzeagatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b.2) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriatik birsailkatzeagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak» 2520 azpikontuan zordunduta.

c) Kargatu edo abonatuko da «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan eta «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, bere arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbatekoan, kostu amortizatuari lotutako kanbio-diferentziei dagokien zatia izan ezik, «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan erregistratuko baita, edo «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, zeinuaren arabera, eta sortutako interesei dagokien zatia izan ezik.

253. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak.

Epe luzeko inbertsioak maileguetan eta erakundearen ohiko eragiketetatik eratortzen ez diren bestelako kredituak, ibilgetua inorenganatzeetatik eratorritakoak barne, taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emanak, urtebetetik gorako epemuga badute.

Honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Zordunduko da:

a.1) Kreditu horien zenbatekoan, erabaki diren interesak kenduta hala egokituz gero, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo ibilgetua inorenganatzen denean, kasuan kasuko ibilgetu-kontuetan.

Gainera, diruz lagundutako interesekin emandako kredituei dagokienez, kontu hau «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta abonatuko da, emandako zenbatekoaren eta kredituaren arrazoizko balioaren artean, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauaren irizpideekin bat etorriz.

a.2) Zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Epemugan itzulitako balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen sarrerak» 7632 azpikontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

a.4) Aurrekontu-eskubidea baliogabetzeagatik, atzeratzeak eta zatitzeak eragindako baliogabetzeetatik datozen kobrantza-eskubideen kasuan, «Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide baliogabetuak» 433 kontuan edo «Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak» 434 kontuan abonatuta, haien sail-kontuen bidez.

b) Abonatuko da:

b.1) Aurrez osorik edo zati bat itzultzeagatik, edo aktiboan baja emateagatik, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, hala nola «Kreditu kobraezinen galerak. Taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 6670 azpikontuan, kaudimen gabezien ondorioz galerak izateagatik, betiere lehenago narriaduragatiko balioespen-zuzenketa erregistratu ez bada.

b.2) Kobratzeko eskubidea aurrez ezeztatzeagatik, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b.3) Atzeratzeak eta zatitzeak eragindako ezeztatzeen ondoriozko kobrantza-eskubideen kasuan, mugaeguna epe motzean daukan eskubidearen zatiagatik, «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak» 443 kontuan zordunduta.

255. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe luzeko interesak.

Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituetatik eta zorra adierazten balioetatik kobratu beharreko interesak, urtebetetik gorako epemugarekin.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 7631 azpikontuan, zorra adierazten duten baloreek sortutako interesengatik.

a.2) «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen sarrerak» 7632 azpikontuan, kredituek sortutako interesengatik.

a.3) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baloreak harpidetzean edo erostean, ondorengo ekitaldietan epemuga duten sortutako interesen zenbatekoan.

b) Balioak edo kredituak aurrez inorenganatzen edo amortizatzen direnean, kredituak osorik edo partzialki aurrez itzultzen direnean eta, oro har, aktiboari baja ematen zaionean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, interesen balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen kanbio-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

257. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzak.

Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako dirua, obligazio bat betetzeko berme gisa, urtebetetik gorako epera.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aurrez ezeztatzean, egokia denaren arabera.

   b.2) «Ezohiko gastuak» 678 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean.

258. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuak.

Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako dirua, gordailu irregularraren kontzeptuan, urtebetetik gorako epera.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta abonatuko da, aurrez ezeztatzean, egokia denaren arabera.

259. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak.

Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondare garbiko partaidetzen gainean egin gabeko ordainketak, eskatu gabeak, epe luzeko inbertsio finantzariotzat hartzen direnean.

Balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko da, partaidetza horiek kontabilizatuta dauden partida txikiagotuz.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Partaidetzak erostean edo harpidetzean, ordaintzeko dagoen zenbatekoan abonatuko da, «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian edo «Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian zordunduta, zer dagokion.

b) Zordunduko da:

   b.1) Eskatzen diren ordainketekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 4002 azpikontuan abonatuta.

   b.2) Guztiz ordaindu gabeko partaidetzak inorenganatzen direnean, «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian edo «Epe luzeko

partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian abonatuta, zer dagokion.

b.3) «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak» 539 kontuan abonatuta, inbertsio finantzarioa epe motzera birsailkatzen denean.

26. Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk.

260. Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan.

261. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak.

2610. Epemugara arte mantendutako epe luzeko zorra adierazten duten baloreak.

2611. Epe luzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

262. Epe luzeko kredituak.

2620. Ibilgetua inorenganatzeagatik epe luzeko kredituak.

2621. Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak.

2629. Epe luzeko bestelako kredituak.

263. Epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

2630. Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

2631. Epe luzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak.

264. Langileei emandako epe luzeko kredituak.

266. Zorra adierazten duten baloreen epe luzeko interesak.

267. Kredituen epe luzeko interesak.

268. Epe luzeko ezarpenak.

269. Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe luzeko ordainketak.

Finantza-inbertsioak, edozein eratakoak, mugaeguneratzeko edo inorenganatzeko aurreikusitako data urtebetetik gorakoa dutenak, taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin lotuta ez daudenak, urtebetetik gorako epemuga duten sortutako interesak barne.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Epe luzeko finantza-inbertsioak» VI epigrafean.

Mugaeguneratzeko edo inorenganatzeko aurreikusitako data gutxienez urtebetekoa ez duten epe luzeko inbertsioak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Epe motzeko finantza-inbertsioak» V epigrafean; hartarako, azpitalde honetara pasatuko da epe motzean epemuga edo inorenganatze-eguna ez duten epe luzeko inbertsioen zenbatekoa, sortutako interesak barne, «Epe motzeko finantza-inbertsioak» 54 azpitaldean dagozkien kontuetara, hain zuzen.

260. Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan .

Inbertsioak merkataritza sozietateen ondare garbiaren gaineko eskubideetan, merkatu erregulatu batean kotizatutako edo kotizatu gabeko akzioetan edo bestelako balioetan; baldin

eta «Aktibo finantzario salgarriak» mailan sailkatuta badaude eta urtebete baino lehenago inorenganatzea edo iraungitzea aurreikusten ez bada.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, eta hala badagokio, «Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe luzeko ordainketak» 269 kontuan.

a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen ekitaldia» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Diru ez den ekarpena eginez gero, jasotako partaidetzaren arrazoizko balioan, edo, berau erabilgarri ez badago, emandako ondasunaren arrazoizko balioan, ondasunari dagokion kontuan abonatuta.

a.4) Taldeko nahiz talde anitzeko erakundeetako edo elkartuetako partaidetzak kalifikazio hori galtzean, arrazoizko balioan, «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian edo «Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian abonatuta. Era berean, arrazoizko balioaren eta kontabilitateko balioaren aldeagatik, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontua zordunduko da, edo «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontua abonatuko da, zeinuaren arabera.

a.5) Narriadura-itzulketarekin, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, egin gabeko ordainketak badaude, «Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe luzeko ordainketak» 2699 kontuan zordunduta.

Gainera, kostuan balioetsitako partaidetzak egonez gero, «Kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan izandako galerak» 6651 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan» 7651 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitzak gorabehera.

b.2) Partaidetza bat taldeko edo talde anitzeko erakunde bateko edo erakunde elkartu bateko partaidetza izatera aldatzen denean, «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian edo «Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian zordunduta.

b.3) Partaidetza inorenganatzea erabakitzen denean, «Epe motzeko inbertsioak ondare-tresna salgarrietan» 5400 azpikontuan zordunduta, epe motzera pasatzeagatik.

b.4) Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoarekin, «Beste erakunde batzuen ondare garbiari dagozkion partaidetzen narriadura-galerak» 6963 azpikontuan zordunduta.

c) Ekitaldi-amaieran eta kitatzean arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbatekoan zordundu edo abonatuko da, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan, eta «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontuan, abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren.

261. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak.

Inbertsioak obligazioetan, bonuetan edo zorra adierazten duten bestelako balioetan, indizeen edo antzeko sistemen arabera errendimendua finkatzen dutenetan barne, baldin eta mugaeguneratzeko edo inorenganatzeko aurreikusitako data urtebetetik gorakoa bada.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

2610. Epemugara arte mantendutako epe luzeko zorra adierazten duten baloreak.

Mugaegunera arte mantendutako inbertsioen kategorian sailkatu diren eta urtebetean baino gehiagoan mugaeguneratu edo inorenganatuko diren zorraren balore adierazgarrietan egindako inbertsioak jasotzen ditu.

a) Zordunduko da:

   a.1) Harpidetzean edo erostean, eskuratze-prezioan, sortutako baina mugaeguneratu gabeko Interes esplizituak kenduta, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.3) Epemugan itzulitako balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

   a.4) Salgarri kategoriatik birsailkatzeagatik, «Epe luzeko zorra adierazten duten balore salgarriak» 2611 azpikontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

   b.1) Balioen aktiboaren bajagatik, amortizazio aurreratuagatik edo inorenganatzeagatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Aldi berean, «Kostu amortizatuko inbertsio finantzarioetan izandako galerak» 6650 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak kostu amortizatuko inbertsio finantzarioetan» 7650 azpikontuan abonatuko da, eragiketak ekar ditzakeen emaitza negatiboen edo positiboen arabera, hurrenez hurren.

   b.2) Salgarri kategoriara birsailkatzeagatik, «Epe luzeko zorra adierazten duten balore salgarriak» 2611 azpikontuan zordunduta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, inbertsioaren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

2611. Epe luzeko zorra adierazten duten balore salgarriak .

Beste kategoria batzuetan sailkatuta ez dauden zorra adierazten duten baloreetako inbertsioak jasotzen ditu, baldin eta, epemuga edo inorenganatze-data aurreikusia gehienez urtebetekoa bada.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, eskuratze-prezioan, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Epemugan itzulitako balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

a.4) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriatik birsailkatzeagatik, «Mugaegunera arte mantendutako epe luzeko zorra adierazten duten baloreak» 2610 azpikontuan abonatuta.

a.5) Balio-narriadura erregistratzeko garaian, ondare garbiari aldez aurretik egotzitako arrazoizko balioaren aldakuntza negatiboen zenbatekoan, «Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea» 902 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Balioen aktiboaren bajagatik, amortizazio aurreratuagatik edo inorenganatzeagatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b.2) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriara birsailkatzeagatik, «Mugaegunera arte mantendutako epe luzeko zorra adierazten duten baloreak» 2610 azpikontuan zordunduta.

c) Kargatu edo abonatuko da «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan eta «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, bere arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbatekoan, kostu amortizatuari lotutako kanbio-diferentziei dagokien zatia izan ezik, «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan erregistratuko baita, edo «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, zeinuaren arabera, eta sortutako interesei dagokien zatia izan ezik.

262. Epe luzeko kredituak.

Hirugarrenei emandako maileguak eta beste kreditu batzuk, urtebetetik gorako epemuga dutenak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

2620. Ibilgetua inorenganatzeagatik epe luzeko kredituak.

Urtebetetik gorako epemuga duten hirugarrenei egindako kredituak, ibilgetua inorenganatzeko eragiketetan jatorria dutenak.

a) Zordunduko da:

a.1) Kredituaren zenbatekoarekin, hitzartu diren interesak kenduta, halakorik dagoenean, egokiak diren ibilgetuko kontuetan abonatuta.

a.2) Zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Epemugako itzulketa-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Kredituen sarrerak» 7620 azpikontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Aurrez osorik edo zati bat itzultzeagatik edo aktiboan baja emateagatik abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, hala nola «Kreditu kobraezinen galerak. Beste erakunde batzuekin» 6671 azpikontuan, kaudimen gabezien ondorioz galerak izateagatik, haietarako lehenago narriaduragatiko balioespen-zuzenketa erregistratu ez bada.

2621. Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak.

Epe luzeko epemugarekin kobratu beharreko eskubideak biltzen ditu, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan eta «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuan aintzatetsitako eskubideak atzeratu eta zatitzearen ondoriozko ezeztatzeetatik datozenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Aurrekontu-eskubidea baliogabetzeagatik zordunduko da, «Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide baliogabetuak» 433 kontuan edo «Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak» 434 kontuan abonatuta, haien sail-kontuen bidez.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, kobratzeko eskubidea aurrez ezerezteagatik.

b.2) «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak» 443 kontuan, epe motzeko epemuga duen eskubidearen zatiarekin.

2629. Epe luzeko bestelako kredituak.

Aurreko kontuetan sartuta ez dauden emandako maileguak eta bestelako kredituak.

Kontuaren mugimendua honakoa da, oro har:

a) Zordunduko da:

a.1) Kreditua formalizatzean, haren zenbatekoarekin, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b) Gainera, diruz lagundutako interesekin emandako kredituei dagokienez, kontu hau «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta abonatuko da, emandako zenbatekoaren eta kredituaren arrazoizko balioaren artean, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauaren irizpideekin bat etorriz.

b.1) Zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Epemugako itzulketa-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Kredituen sarrerak» 7620 azpikontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

c) Aurrez itzulketa osoa edo partziala egiteagatik edo aktiboan baja emateagatik abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta «Kreditu kobraezinen galerak. Beste erakunde batzuekin» 6671 azpikontuan zordunduta, kaudimen gabeziengatik galerak izanez gero.

263. Epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

Erakundearentzat aldeko balioespena duten deribatu finantzarioekin egindako eragiketen zenbatekoa, mugaeguneratzeko eta likidatzeko aurreikusitako eguna urtebetetik gorakoa denean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

2630. Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

«Kontabilitate-estaldurak» 10 aintzatespen- eta balioespen-arauarekin bat etorriz, estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan erakundearen aldeko balioespena jasotzen du.

a) Kontratatzen denean ordaindutako kopuruekin zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b) Likidazioa egiteko unean jasotako zenbatekoarekin abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

c) Arrazoizko balioaren aldaketekin abonatu edo ordainduko da, «Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan» 7645 azpikontuan, eta «Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6645 azpikontuan, zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren, dagokion sail-kontuaren bitartez, baldin eta «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, deribatua arrazoizko bere balioagatik balioetsi behar bada, eta aipatutako aldakuntza ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotzi behar bada.

d) «Estaldurengatiko mozkinak» 910 kontuan, edo «Estaldurengatiko galerak» 810 kontuan, abonatuta edo zordunduta, zordundu edo abonatuko da, hurrenez hurren, estaldura eraginkortzat jotako tresna deribatuaren arrazoizko balioaren aldakuntzagatik, deribatua arrazoizko balioagatik balioetsi behar denean, eta aipatutako aldakuntza ondorengo ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partidaren hasierako baliora egotzi behar denean.

2631. Epe luzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak.

Estaldura-kontabilitatea aplikatzen ez zaien deribatu finantzarioen erakundearen aldeko balioespena jasotzen du.

a) Kontratatzen denean ordaindutako kopuruekin zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b) Likidazioa egiteko unean jasotako zenbatekoarekin abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

c) Arrazoizko bere balioaren aldakuntzengatik abonatu edo zordunduko da, «Mozkinak beste deribatu finantzario batzuetan» 7646 azpikontuan, edo «Beste deribatu finantzario batzuetan izandako galerak» 6646 azpikontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren.

264. Langileei emandako epe luzeko kredituak.

Erakundeko langileei emandako kredituak, urtebetetik gorako epemuga dutenak.

Bere mugimendua «Epe luzeko bestelako kredituak» 2629 azpikontuarentzat adierazitakoaren antzekoa da.

266. Zorra adierazten duten baloreen epe luzeko interesak .

Zorra adierazten duten baloreetatik kobratu beharreko interesak, urtebetetik gorako epemugarekin.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan, sortutako interesen zenbatekoan.

   a.2) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baloreak harpidetzean edo erostean, ondorengo ekitaldietan epemuga duten sortutako interesen zenbatekoan.

b) Baloreen amortizazio aurreratuagatik edo inorenganatzeagatik eta, oro har, aktiboaren bajagatik abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, interesen balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

267. Kredituen epe luzeko interesak.

Kredituetan kobratu beharreko interesak, urtebetetik gorako epemuga dutenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Sortutako interesekin zordunduko da, «Kredituen sarrerak» 7620 azpikontuan abonatuta.

b) Aurreratutako itzulketa osoa edo partziala gertatzen denean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

268. Epe luzeko ezarpenak.

Aldeko saldoak bankuetan eta kreditu-erakundeetan, eperako kontuaren edo antzekoen bidez eginda, urtebetetik gorako epemugarekin, eta finantza-sisteman agintzen duten baldintzen arabera. Azpikontuetan behar bezala garatuta, eperako ezarpenetan kobratu beharreko interesak ere jasoko dira, urtebetetik gorako epemuga badute.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

   a.1) Formalizatzean, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.2) Sortutako interesekin, «Kredituen sarrerak» 7620 kontuan abonatuta.

b) Ezarpena ezeztatzean abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

269. Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe luzeko ordainketak.

Egin gabeko ordainketak, exijitu gabeak, merkataritza-sozietateen ondare garbiko partaidetzen gainean, epe luzeko finantza-inbertsioak direnean.

Balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko da, partaidetza horiek kontabilizatuta dauden partida txikiagotuz.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Partaidetzak eskuratzean edo harpidetzean abonatuko da, ordaintzea falta den zenbatekoarekin, «Epe luzeko finantza-inbertsioak ondare-tresnetan» 260 kontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) Eskatzen diren ordainketekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Guztiz ordaindu gabeko partaidetzak inorenganatzen direnean, «Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan» 260 kontuan abonatuta.

b.3) «Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe laburreko ordainketak» 549 kontuan abonatuta, inbertsio finantzarioa epe motzera birsailkatzen denean.

27. Epe luzera eratutako fidantzak eta gordailuak.

270. Epe luzera eratutako fidantzak.

275. Epe luzera eratutako gordailuak.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo ez-korrontean azalduko dira, «Epe luzeko finantza-inbertsioak» VI epigrafean.

Epe motzeko epemuga duten epe luzera eratutako fidantzek eta gordailuek balantzeko pasibo korrontean azaldu behar dute «Epe motzeko finantza-inbertsioak» V epigrafean; hartarako, epe motzeko epemuga duten epe luzeko fidantzen eta gordailuen zenbatekoa «Epe motzera jasotako eta eratutako fidantzak eta gordailuak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak» 56 azpitaldeko kontu egokietara pasatuko da.

270. Epe luzera eratutako fidantzak.

Obligazio bat beteko dela bermatzeko, urtebetetik gorako eperako entregatutako dirua.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aurrez ezeztatzean, egokia denaren arabera.

b.2) «Ezohiko gastuak» 678 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean.

275. Epe luzera eratutako gordailuak.

Gordailu irregularraren kontzeptuan emandako dirua, urtebetetik gorako epera.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta abonatuko da, aurrez ezeztatzean, egokia denaren arabera.

28. Ibilgetuaren amortizazio metatua.

280. Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua.

2800. Ikerketako inbertsioaren amortizazio metatua.

2801. Garapeneko inbertsioaren amortizazio metatua.

2803. Jabetza industrialaren eta intelektualaren amortizazio metatua.

2806. Aplikazio informatikoen amortizazio metatua.

2807. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen amortizazio metatua.

2809. Bestelako ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua.

281. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.

2810. Lurren eta ondasun naturalen amortizazio metatua.

2811. Eraikuntzen amortizazio metatua.

2812. Azpiegituren amortizazio metatua.

2813. Ondare historikoaren ondasunen amortizazio metatua.

2814. Makineriaren eta tresneriaren amortizazio metatua.

2815. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen amortizazio metatua.

2816. Altzarien amortizazio metatua.

2817. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen amortizazio metatua.

2818. Garraio-elementuen amortizazio metatua.

2819. Bestelako ibilgetu materialaren amortizazio metatua.

282. Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua.

2820. Lurretako inbertsioen amortizazio metatua.

2821. Eraikuntzetako inbertsioen amortizazio metatua.

284. Lurzoruaren ondare publikoaren amortizazio metatua.

2840. Lurzoruaren ondare publikoko lurren amortizazio metatua.

2841. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen amortizazio metatua.

2849. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen amortizazio metatua.

Ibilgetuan egindako inbertsioek, ondasun higiezinetako inbertsioek eta lurzoruaren ondare publikoak bizitza baliagarrian zehar izandako balio-galeraren banaketa sistematikoaren kontabilitate-adierazpena.

Azpitalde honetako kontuek beren sail-kontuen bidez funtzionatuko dute, eta dagokion ondare-elementua jasotzen duen balantzeko aktibo ez-korrontearen partida txikiagotuko dute.

280. Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua.

Plan sistematiko baten arabera egindako ibilgetu ukiezinaren balio-galeragatiko balio-zuzenketen zenbateko metatua.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Urteko zuzkidurarekin abonatuko da, normalean «Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa» 680 kontuan zordunduta, eta hala badagokio «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik» 821 kontuan.

b) Ibilgetu ukiezina inorenganatzean edo beste arrazoiren batengatik inbentarioan baja ematen zaionean zordunduko da, «Ibilgetze ukiezinak» 20 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

281. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.

Plan sistematiko baten arabera egindako ibilgetu materialaren balio-galeragatiko balio-zuzenketen zenbateko metatua.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Urteko zuzkidurarekin abonatuko da, normalean «Ibilgetu materialaren amortizazioa» 681 kontuan zordunduta, eta hala badagokio «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik» 821 kontuan.

b) Ibilgetu materiala inorenganatzean edo beste arrazoiren batengatik inbentarioan baja ematen zaionean zordunduko da, «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

282. Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua.

Plan sistematiko baten arabera egindako ondasun higiezinetako inbertsioen balio-galeragatiko balio-zuzenketen zenbateko metatua.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Urteko zuzkidurarekin abonatuko da, normalean «Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazioa» 682 kontuan zordunduta, eta hala badagokio «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik» 821 kontuan.

b) Ondasun higiezinetako inbertsioa inorenganatzen denean edo beste arrazoiren batengatik inbentarioan baja ematen zaionean zordunduko da, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

284. Lurzoruaren ondare publikoaren amortizazio metatua.

Lurzoruaren ondare publikoaren balio-galeragatik plan sistematiko baten arabera egindako balio-zuzenketen zenbateko metatua.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Urteko zuzkidurarekin abonatuko da, normalean «Lurzoruaren ondare publikoa amortizazioa» 684 kontuan zordunduta, eta hala badagokio «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik» 821 kontuan.

b) Lurzoruaren ondare publikoa inorenganatzean edo beste arrazoiren batengatik inbentarioan baja ematen zaionean zordunduko da, «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

29. Aktibo ez-korronteen balio-narriadura.

290. Ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura.

2903. Jabetza industrialaren eta intelektualaren balio-narriadura.

2906. Aplikazio informatikoen balio-narriadura.

2907. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen balio-narriadura.

2909. Bestelako ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura.

291. Ibilgetu materialaren balio-narriadura.

2910. Lurren eta ondasun naturalen balio-narriadura.

2911. Eraikuntzen balio-narriadura.

2912. Azpiegituren balio-narriadura.

2913. Ondare historikoaren ondasunen balio-narriadura.

2914. Makineriaren eta tresneriaren balio-narriadura.

2915. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen balio-narriadura.

2916. Altzarien balio-narriadura.

2917. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen balio-narriadura.

2918. Garraio-elementuen balio-narriadura.

2919. Bestelako ibilgetu materialaren balio-narriadura.

292. Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriadura.

2920. Lurren inbertsioen balio-narriadura.

2921. Eraikuntzetako inbertsioen balio-narriadura.

293. Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura.

2930. Lurzoruaren ondare publikoko lurren balio-narriadura.

2931. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen balio-narriadura.

2939. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen balio-narriadura.

294. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

2940. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeetako, talde anitzetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

2941. Taldean, talde anitzean eta elkartuta dauden merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

2942. Taldeko eta talde anitzeko beste erakundeetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

295. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreen balio-narriadura.

2950. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

2951. Taldeko entitateei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien balore salgarrien balio-narriadura.

296. Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe luzeko bestelako inbertsio finantzarioen eta kredituen balio-narriadura.

2960. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituen balio-narriadura.

2961. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzen narriadura.

2962. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuen narriadura.

297. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura.

2970. Mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

2971. Balore salgarrien balio-narriadura.

298. Epe luzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

2980. Epe luzeko kredituen balio-narriadura.

2981. Epe luzera eratutako fidantzen balio-narriadura.

2982. Epe luzera eratutako gordailuen balio-narriadura.

2983. Atzeratu eta zatitzearen ondoriozko kredituen balio-narriadura.

299. Ibilgetu materialaren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2990. Lurren eta ondasun naturalen balio-narriadura lagarako usufruktuagatik.

2991. Eraikuntzen balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2992. Azpiegituren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2993. Ondare historikoaren ondasunen balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

2999. Bestelako ibilgetu materialaren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

Aktibo ez-korronteko elementuen balio-narriadurek sortutako galerengatik egindako balio-zuzenketen kontabilitate-adierazpena; lagatako usufruktuagatiko balio-galerak ere jasota daude.

Horrelako galeren estimazioa sistematikoki egin beharko da denboran zehar. Gero balioa berreskuratzen bada, narriaduragatik kontabilizatutako balio-zuzenketak murriztu egin beharko dira, erabat berreskuratu arte, aintzatespen- eta balioespen-arauetan ezarritako baldintzen arabera bidezkoa denean.

Azpitalde honetako kontuek sail-kontuen bidez funtzionatuko dute, eta dagokien ondare-elementua jasotzen duen partida txikiagotuko dute balantzeko aktibo ez-korrontean.

Epe motzeko epemuga duten inbertsio finantzarioen balioespen-narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbatekoa «Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 59 azpitaldera pasatuko da normalean.

290/291/292/293. Honen balio-narriadura.

Ibilgetu ukiezinaren, ibilgetu materialaren, ondasun higiezinetako inbertsioen eta lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbatekoa.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Emaitzetara egotzi beharreko narriadura kalkulatuaren zenbatekoarekin abonatuko dira, «Ibilgetu ukiezinaren narriadura-galerak» 690 kontuan, «Ibilgetu materialaren narriadura-galerak» 691 kontuan, «Ondasun higiezinetako inbertsioen narriadura-galerak» 692 kontuan, edo «Lurzoruaren ondare publikoaren narriadura-galerak» 693 kontuan zordunduta.

b) Zordunduko dira:

   b.1) Narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzean, «Ibilgetu ukiezinaren narriadura-itzulera» 790 kontuan, «Ibilgetu materialaren narriadura-itzulera» 791 kontuan, «Ondasun higiezinetako inbertsioen narriadura-itzulera» 792 kontuan edo «Lurzoruaren ondare publikoaren narriadura-itzulera» 793 kontuan abonatuta.

   b.2) Ibilgetua inorenganatzen denean edo beste arrazoiren batengatik aktiboan baja ematen zaionean, «Ibilgetu ukiezinak» 20 azpitaldeko, «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko edo «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

294. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura.

Taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen balio-narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbatekoa.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Emaitzetara egotzi beharreko narriadura zenbatetsiaren zenbatekoan abonatuko da, «Taldeko zuzenbide publikoko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien partaidetzen narriadura-galerak» 6960 azpikontuan, «Taldeko merkataritza-sozietateei eta sozietate kooperatiboei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien partaidetzen narriadura-

galerak» 6961 azpikontuan edo «Taldeko beste erakunde batzuetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan dauden partaidetzen narriadura-galerak» 6962 azpikontuan zordunduta, zer dagokion.

b) Zordunduko da:

b.1) «Taldeko zuzenbide publikoko erakundeetako, talde anitzean daudenetako eta elkartuetako partaidetzen narriadura-itzulera» 7960 azpikontuan, «Taldeko merkataritza-sozietateetako, talde anitzean daudenetako eta elkartuetako partaidetzen narriadura-itzulera» 7961 azpikontuan edo «Taldeko beste erakunde batzuetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan dauden partaidetzen narriadura-itzulera» 7962 azpikontuan abonatuta, zer dagokion, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean.

b.2) «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian edo «Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian abonatuta, zer dagokion, partaidetzak inorenganatzean edo beste edozein arrazoirengatik aktiboan baja ematean.

295. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreen balio-narriadura.

Taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek jaulkitako zorra adierazten duten baloreetako epe luzeko inbertsioen balio-narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbatekoa.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Emaitzetara egotzi beharreko balio-narriadura estimatuaren zenbatekoarekin abonatuko da, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak» 6970 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera» 7970 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak» 241 kontuko dagokion sail-kontuan abonatuta, baloreak inorenganatzean, edo edozein arrazoirengatik aktiboan baja ematen zaienean.

296. Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe luzeko bestelako inbertsio finantzarioen eta kredituen balio-narriadura.

Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuen eta fidantzen eta emandako kredituen balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

2960. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituen balio-narriadura.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Balio-narriadura estimatuaren zenbatekoarekin abonatuko da, «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen narriadura-galerak» 6980 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen narriadura-itzulera» 7980 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak» 253 kontuan abonatuta, aurrez ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean, zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den kredituaren zatia kontuan hartuta.

2961. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzen narriadura.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako balio-narriaduraren zenbatekoarekin abonatuko da, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan eratutako fidantzen narriadura-galerak» 6981 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan daudenetan eta elkartuetan eratutako fidantzen narriadura-itzulera» 7981 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzak» 257 kontuan abonatuta, aurrez ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean, zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den saldoaren zatia kontuan hartuta.

2962. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuen narriadura.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako balio-narriaduraren zenbatekoarekin abonatuko da, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan eratutako gordailuen narriadura-galerak» 6982 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako gordailuen narriadura-itzulera» 7982 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuak» 258 kontuan abonatuta, aurrez ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean, zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den saldoaren zatia kontuan hartuta.

297. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura.

Taldeko erakundekoak, talde anitzekoak eta elkartukoak ez diren erakundeek jaulkitako zorra adierazten duten baloreetako epe luzeko inbertsioen balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Emaitzetara egotzi beharreko balio-narriadura kalkulatuaren zenbatekoan abonatuko da, «Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak» 6971 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera» 7971 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak» 261 kontuko sail-kontu egokian abonatuta, baloreak inorenganatzean, edo edozein arrazoirengatik aktiboan baja ematen zaienean.

298. Epe luzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

Taldeko edo talde anitzeko erakunde edo erakunde elkartu ez direnetan eratutako epe luzeko gordailuen eta fidantzen eta emandako kredituen balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

2980. Epe luzeko kredituen balio-narriadura.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako balio-narriaduraren zenbatekoarekin abonatuko da, «Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-galerak» 6983 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-itzulera» 7983 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitaldeko kontu egokietan abonatuta, aurrez ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean, zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den kredituaren zatia kontuan hartuta.

2981. Epe luzera eratutako fidantzen balio-narriadura.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako balio-narriaduraren zenbatekoarekin abonatuko da, «Beste erakunde batzuetan eratutako fidantzen narriadura-galerak» 6984 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Beste erakunde batzuetan eratutako fidantzen narriadura-itzulera» 7984 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Epe luzera eratutako fidantzak» 270 kontuan abonatuta, aurrez ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean, zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den saldoaren zatia kontuan hartuta.

2982. Epe luzera eratutako gordailuen balio-narriadura.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako balio-narriaduraren zenbatekoarekin abonatuko da, «Beste erakunde batzuetan eratutako gordailuen narriadura-galerak» 6985 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Beste erakunde batzuetan eratutako gordailuen narriadura-itzulera» 7985 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Epe luzera eratutako gordailuak» 275 kontuan abonatuta, aurrez ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean, zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den saldoaren zatia kontuan hartuta.

2983. Atzeratu eta zatitzearen ondoriozko kredituen balio-narriadura.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako balio-narriaduraren zenbatekoarekin abonatuko da, «Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-galerak» 6983 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) «Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-itzulera» 7983 azpikontuan abonatuta, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak» 2621 azpikontuan abonatuta, aurrez ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean, zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den kredituaren zatia kontuan hartuta.

b.3) «Kredituen balio-narriadura. Gestio-eragiketak» 4900 azpikontuan abonatuta, mugaeguna epe motzean duten kredituetan atzerapenagatik eta zatikapenagatik gertatutako narriaduraren balioespen-zuzenketen zenbatekoan.

299. Ibilgetu materialaren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik.

Erakundearen ibilgetu materialaren elementuak erabiltzeko eskubidea, lagatako ondasunaren bizitza ekonomikoa baino epe txikiago batez, hirugarrenei doan lagatzeak eragindako balio-zuzenketen zenbatekoa.

Lagatako usufruktua zehazteko zailtasunak badaude, lagapen-aldiari dagozkion amortizazio-kuoten zenbateko metatuan balioetsi ahal izango da.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Lagapen-aldiko ondasunaren usufruktuaren balio estimatuaren zenbatekoa abonatuko da, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

b) Berreskuratu beharreko zenbatekoa kontabilitate-balioa baino handiagoa denean, mugatzat narriadurarik gabeko kontabilitate-balioa hartuta, «Ibilgetu materialaren narriadura-itzulera lagatako usufruktuagatik» 799 kontuan abonatuta zordunduko da.

3 Taldekoak. Izakinak eta salgai dauden beste aktibo batzuk.

Ohiko ustiapenean saltzeko dauden aktiboak, ekoizpen-prozesuan daudenak edo ekoizpen-prozesuan edo zerbitzu-ematean kontsumitzeko dauden materialak edo hornikuntzak sartzen

dira; salgaiak, lehengaiak, bestelako hornikuntzak, ekoizpen-bidean diren produktuak, produktu erdibukatuak, produktu bukatuak, azpiprodukTuak, hondar eta material berreskuratuak, baita beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak eta salgai dauden aktiboak ere.

Orientagarriak dira 30-38 azpitaldeetako kontuen izenak eta kodeak; hortaz, erakunde bakoitzak bere jarduerak eskatu adina kontu gara ditzake.

30. Salerosketakoak.

300. A salgaiak.

301. B salgaiak.

Erakundeak (kontabilitate-subjektua) eskuratutako ondasunak, aldatu gabe saltzeko direnak.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko aktibo korrontean agertuko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta ekitaldi-itxieran bakarrik funtzionatuko dute.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldia amaitzean abonatuko dira, hasierako izakinen inbentarioaren zenbatekoarekin, «Salgai-izakinen aldaketak» 610 kontuan zordunduta.

b) Itxi beharreko ekitaldia amaitzean zordunduko dira, izakinen inbentarioaren zenbatekoarekin, «Salgai-izakinen aldaketak» 610 kontuan abonatuta.

Ekoizpen-bidean erakundearen jabetzako salgaiak egonez gero, ekitaldi-itxieran izakin gisa agertuko dira «Merkataritzakoak» 30 azpitaldeko kontu egokietan. Arau hau ere jarraituko dugu hurrengo azpitaldeetan jasotako produktuak, lehengaiak, eta abar ekoizpen-bidean daudenean.

31. Lehengaiak.

310. A lehengaiak.

311. B lehengaiak.

Elaborazio edo eraldaketaren bidez erakundeak (kontabilitate-subjektua) fabrikatutako produktu bilakatzen direnak.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko aktibo korrontean agertuko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta ekitaldi-itxieran bakarrik funtzionatuko dute.

Kontuaren mugimendua «Merkataritzakoak» 30 azpitaldearenaren antzekoa da.

32. Beste hornikuntza batzuk.

320. Elementuak eta multzo txertagarriak.

321. Erregaiak.

322. Ordezko piezak.

325. Hainbat material.

326. Bilgarriak.

327. Ontziak.

328. Bulegoko materiala.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta beren mugimendua «Merkataritzakoak» 30 azpitaldearenaren antzekoa da.

320. Elementuak eta multzo txertagarriak

Normalean erakundetik kanpo fabrikatzen dira, eta aldatu gabe ekoizpenean eransteko eskuratzen dira.

321. Erregaiak.

Biltegira daitezkeen gai energetikoak.

322. Ordezko piezak.

Antzeko beste pieza batzuen ordez, instalazioetan, ekipamenduetan edo makinetan jartzeko piezak. Urtebetetik beherako biltegiratze-zikloa dutenak barne sartzen dira.

325. Hainbat material.

Fabrikatutako produktuan erantsi behar ez diren bestelako gai kontsumigarriak. Kontu honetan erakundearen (kontabilitate-subjektua) jarduerarekin lotutako hainbat material kontabilizatuko da.

326. Bilgarriak.

Garraiatu beharreko produktuak edo salgaiak babesteko estalki edo bilgarriak, normalean berreskuraezinak izaten direnak.

327. Ontziak.

Jasotzen duten produktuarekin batera salgai egoten diren ontziak edo murkoak.

328. Bulegoko materiala.

Izenak berak adierazitako xedera zuzendutakoa, erakundeak ekitaldian zehar eskuratutako bulegoko materiala bertan kontsumitzeko dela jotzen badu izan ezik.

33. Ekoizpen-bidean diren produktuak.

330. Ekoizpen-bidean diren A produktuak.

331. Ekoizpen-bidean diren B produktuak.

Ekitaldi-itxieran egiten edo aldatzen ari diren ondasunak edo zerbitzuak, «Produktu erdibukatuak» 34 edo «Azpiprodukuak, hondarrak edo material berreskuratuak» 36 azpitaldeetako kontuetan erregistratu behar ez direnak.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko aktibo korrontean agertuko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta ekitaldi-itxieran bakarrik funtzionatuko dute.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldia amaitzean abonatuko dira, hasierako izakinen inbentarioaren zenbatekoarekin, «Ekoizpen-bidean diren produktuen izakinen aldaketak» 710 kontuan zordunduta.

b) Itxi beharreko ekitaldia amaitzean zordunduko dira, izakinen inbentarioaren zenbatekoarekin, «Ekoizpen-bidean diren produktuen izakinen aldakuntza» 710 kontuan abonatuta.

34. Produktu erdibukatuak.

340. A produktu erdibukatuak.

341. B produktu erdibukatuak.

Erakundeak (kontabilitate-subjektua) fabrikatutakoak, eta inorenganatu edo kontsumitu aurretik aldatu edo elaboratu beharrekoak.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta beren mugimendua «Ekoizpen-bidean diren produktuak» 33 azpitaldearenaren antzekoa da.

35. Produktu bukatuak.

350. A produktu bukatuak.

351. B produktu bukatuak.

Azpitalde honen barruan erakundeak (kontabilitate-subjektua) fabrikatutako produktuak jasotzen dira, baldin eta, azken kontsumorako edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek erabiltzeko badira.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta beren mugimendua «Ekoizpen-bidean diren produktuak» 33 azpitaldearenaren antzekoa da.

36. Azpiprodukuak, hondarrak eta material berreskuratuak.

360. A azpiprodukuak.

361. B azpiprodukuak.

365. A hondarrak.

366. B hondarrak.

368. A material berreskuratuak.

369. B material berreskuratuak.

Azpiprodukuak: Fabrikazio nagusiarekiko bigarren mailakoak edo osagarriak diren produktuak.

Hondarrak: Produktuekin edo azpiprodukuekin batera eta ezinbestean eskuratutakoak, berezko balioren bat dutenean eta erabili edo saldu daitezkeenean.

Material berreskuratuak: Berezko balioa dutelako, ekoizpen-prozesuan erabili ondoren biltegian berriro sartzen direnak.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta beren mugimendua «Ekoizpen-bidean diren produktuak» 33 azpitaldearenaren antzekoa da.

37. Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak.

370. Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak.

Erakundeak erositako aktiboak, baita eraikitakoak ere, erakuntzak eragindako sarrerak eta kostuak beharrezko fidagarritasunez estimatzerik ez dagoenean (kontratu, hitzarmen, akordio edo lege-arau egokian oinarrituta), horiek eskuratu edo eraikitzeko prozesua bukatutakoan, ezinbestean beste erakunde bati eskualdatzeko, xede erakundea beren finantzaketan parte hartu edo ez.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Izakinak» II epigrafean, eta beren mugimendua «Ekoizpen-bidean» 33 azpitaldearenaren antzekoa da.

38. Salgai dauden aktiboak.

380. Salgai dauden aktiboak.

Azpitalde honen kontua balantzeko aktibo korrontean azalduko da, «Salgai dauden aktiboak» I epigrafean.

380. Salgai dauden aktiboak.

Hasiera batean ez-korronte gisa sailkatutako aktibo ez-finantzarioak, zeinen kontabilitate-balioa salmentaren bidez berreskuratuko baita, eta ez jarraian erabiliz.

Kontuaren mugimendua honakoa da, oro har:

a) Sailkatzeko baldintzak betetzean zordunduko da, «Salgai dauden aktiboak» 7. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, aktibo ez-korronteko kontu egokietan abonatuta.

b) Abonatuko da:

   b.1) Aktibo ez-korrontea inorenganatzean edo bestela baliatzean, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

   b.2) Aktibo ez-korronteak salmentarako sailkapenean egoteko baldintzak betetzen ez baditu, «Salgai dauden aktiboak» 7. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, aktibo ez-korronteko kontu egokietan zordunduta.

39. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen balio-narriadura.

390. Salgaien balio-narriadura.

391. Lehengaien balio-narriadura.

392. Beste hornikuntza batzuen balio-narriadura.

393. Ekoizpen-bidean diren produktuen balio-narriadura.

394. Produktu erdibukatuen balio-narriadura.

395. Produktu bukatuen balio-narriadura.

396. Azpiprodukturen, hondarren eta material berreskuratuen balio-narriadura.

398. Salgai dauden aktiboen balio-narriadura.

Galera itzulgarriek (izakinak eta salgai dauden beste aktibo batzuk narriatzeagatik) eragindako balioespen-zuzenketen kontabilitate-adierazpena.

Azpitalde honetako kontuek balantzeko aktibo korrontean dagokien partida txikiagotuko dute.

390/.../396. Honako hauen balio-narriadura...

Ekitaldi-itxierako izakinen narriadurak eragindako galera itzulgarrien zenbatekoa; haien inbentarioa egiteak jartzen ditu agerian.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ixten den ekitaldian egiten den zuzkidurarekin abonatuko dira, «Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-galerak» 694 kontuan zordunduta, sail-kontuen bidez.

b) Aurreko ekitaldian egindako zuzkidurarekin zordunduko dira, «Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-itzulera» 794 kontuan abonatuta, sail-kontuen bidez.

398. Salgai dauden aktiboen balio-narriadura.

Salgai dauden aktiboen galera itzulgarriek eragindako balio-zuzenketen kontabilitate-adierazpena.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Salgai dauden aktibo gisa birsailkatutako aktibo ez-korronteen narriadura-zenbatekoarekin, halakorik badago, «Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeko kontuan abonatuta.

a.2) Estimatutako narriadura-zenbatekoarekin, «Salgai dauden aktiboen narriadura-galerak» 6948 azpikontuan zordunduta.

b) Zordunduko da:

b.1) Narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzean, «Salgai dauden aktiboen narriadura-itzulera» 7948 kontuan abonatuta.

b.2) Salgai dagoen aktiboa inorenganatzean edo beste edozein arrazoirengatik baja ematen zaionean, «Salgai dauden aktiboak» 380 kontuan abonatuta.

4 Taldekoak. Hartzekodunak eta zordunak.

Hirugarrenekin egindako eragiketek sortutako kobratu eta ordaindu beharreko kontuak, jatorria erakundearen ohiko kudeaketan dutenak, baita administrazio publikoen kontuak ere.

Talde honetako aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak balioesteko, oro har, kredituen eta kobratzeko partiden, eta, zorren eta ordaintzeko partiden kategorietan sailkatuko dira, hurrenez hurren.

40. Aurrekontu hartzekodunak.

400. Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua.

4000. Kudeaketa-eragiketak.

4001. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4002. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4003. Bestelako zorrak.

401. Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak.

4010. Kudeaketa-eragiketak.

4011. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4012. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4013. Bestelako zorrak.

Aurrekontua gauzatzearen ondorioz erakundearen kontura ordaindu beharreko obligazioak.

400. Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua.

Aurrekontuaren indarraldian aintzatetsitako obligazioak, bertan azaldutako kredituetan zordunduta.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du, obligazioen jatorria edo izaera kontuan hartuta, balantzea egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean, honako hauek izan ezik: «Zorrak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» 4002 azpikontua, «Epe motzeko zorrak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» III epigrafean agertuko baita, eta «Bestelako zorrak» 4003 azpikontua, «Epe motzeko zorrak» II epigrafean egongo baita.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da, aintzatetsitako aurrekontuko obligazioengatik, hauetan zordunduta:

a.1) «Oinarrizko finantzaketa» 1. taldeko kontuetan, epe luzeko pasiboaren ordainketa aurreratua dagoenean eta, epe luzera jasotako fidantzen eta gordailuen itzulketa aurreratua dagoenean, halakorik badago.

a.2) «Aktibo ez-korronteak» 2. taldeko kontuetan, ibilgetu ukiezinean, materialean, finantzarioan, ondasun higiezinetan egindako inbertsioengatik, bai eta epe luzeko fidantzak eta gordailuak egiteagatik ere.

a.3) «Kontu finantzarioak» 5. taldeko kontuetan, epe motzeko pasiboa itzultzean, epe motzeko inbertsio finantzarioetan, bai eta, hala egokituz gero, epe motzeko fidantzak eta gordailuak eratzean eta epe motzera jasotako gordailuak eta fidantzak itzultzean ere.

a.4) «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko kontuak, izakinen erosketengatik, gastuengatik eta galerengatik.

a.5) «Sortutako interesengatik hartzekodunak» 411 kontuan, obligazioaren epemugan aintzatesteko eta likidatzeko egintza egokia jaulkitzen denean.

a.6) «Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak» 413 kontuan, sail-kontuen bidez, aurrekontuan egotzi gabe geratu den obligazioa aintzatetsi eta likidatzen denean.

a.7) «Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak» 5584 azpikontuan, «justifikatu beharreko ordainketak» diren funtsak libratzeagatik.

Justifikatu beharreko ordainketen itzulketa kasuetan, gastuen aurrekontuan egotzi behar badira, egin beharreko idazpena berdina izango da, baina zeinua negatiboa.

a.8) «Libramenduak, ordaindu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko» 5585 azpikontuan, kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeagatik.

a.9) «Zeharkako zergen doikuntza negatiboak» 634 kontua, urteko erregularizazioaren zenbatekoarekin.

Aintzatetsitako obligazioak ezeztatuz gero, egin beharreko idazpena berdina izango da, baina zeinua negatiboa.

Era berean, kontu honetan adierazita dauden obligazioen barkamena gertatzen denean ere egingo da zeinu negatiboko aipatu idazpena, baina salbuespen batekin, kasu honetan zorduntzeko kontua betiere «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontua izango delako.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, dirutan egindako ordainketen zenbatekoarekin, edo «Formalizazioa» 557 kontuan, ordainketa birtualekin.

b.2) «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan, zeharkako zergen urteko erregularizatze negatiboaren zenbatekoarekin.

b.3) «Formalizazioa» 557 kontuan, aurrekontu korronteko itzulketek gastuen aurrekontuan egozten direnean daukaten zenbatekoan. Idazpen honek zeinu negatiboa izango du.

Hartzekoaren batuerak ekitaldian aintzatetsitako aurrekontu-obligazio garbien guztizkoa adieraziko du, gertatu ahal izan diren barkamenak kenduta. Zorrarenak, berriz, benetan ordaindutako aurrekontu-obligazioen guztizkoa.

Saldo hartzekodunak ordaintzeko dauden aintzatetsitako obligazioen zenbatekoa jasoko du.

Urtarrilaren 1ean, irekierako idazpenean, aurreko abenduaren 31n dagoen azpikontu bakoitzaren saldoa «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak» 401 kontuko sail-kontu egokiaren hasierako saldoaren parte izango da. Intsuldaketa hori zuzenean egingo da, idazpenik egin gabe.

401. Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak.

Urtarrilaren 1ean aintzatetsitako obligazioen saldoa jasotzen du aurreko ekitaldietan indarrean zeuden aurrekontuko kredituetan zordunduta, baldin eta hauen ordainketa ez bada egin aurreko abenduaren 31n.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du, obligazioen jatorria edo izaera kontuan hartuta, balantzea egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean, honako hauek izan ezik: «Zorrak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» 4002 azpikontua, «Epe motzeko zorrak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» III epigrafean agertuko baita, eta «Bestelako zorrak» 4003 azpikontua, «Epe motzeko zorrak» II epigrafean egongo baita.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan zordunduta abonatuko da, edo aurrekontu-gastua egotziko zen balantzeko kontuan, aurreko ekitaldietan hutsegiteen ondorioz aintzatetsitako obligazioak gehituta izandako aldaketagatik. Jatorria gastu ekonomikoetan duten eta garrantzi erlatibo txikikoak diren obligazioen aldaketa kasuan, kasuan kasuko izaerazko gastuen kontuetan zordunduta abonatu ahal izango da.

Obligazio horien aldaketa beheranzkoa bada, edo haiek ezeztatzen badira, idazpen honen zeinua negatiboa izango da.

Era berean, kontu honetan adierazita dauden obligazioen barkamena gertatzen denean ere egingo da zeinu negatiboko aipatu idazpena, baina salbuespen batekin, kasu honetan zorduntzeko kontua betiere «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontua izango delako.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, dirutan egindako ordainketen zenbatekoarekin, edo «Formalizazioa» 557 kontuan, ordainketa birtualekin.

b.2) «Ezohiko sarrerak» 778 kontuan, gertatutako preskripzioen zenbatekoarekin.

Hartzekoaren batuerak aditzera emango du zenbatekoa den ekitaldi itxietako aurrekontuen kontura aintzatetsi diren, aurreko ekitaldiaren amaieran ordaindu gabe zeuden eta ekitaldian zehar ezeztatu edo barkatu ez diren obligazioen guztizkoa. Zorrarenak, berriz, ekitaldian zehar ordainketa bidez edo preskripzioagatik ezeztatutako aurrekontu itxietako obligazioen guztizkoa.

Saldoak, hartzekoduna bera, aurrekontu itxietan ordaindu gabeko obligazio guztiak bilduko ditu.

41. Aurrekontuzkoak ez diren hartzekodunak.

410. Jasandako BEZarengatik hartzekodunak.

411. Sortutako interesengatik hartzekodunak.

413. Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak.

4130. Kudeaketa-eragiketak.

4131. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4132. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4133. Bestelako zorrak.

414. Erakunde publiko hartzekodunak baliabideak biltzeagatik.

416. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak.

418. Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak.

4180. Kudeaketa-eragiketak.

4181. Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.

4182. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

4183. Bestelako zorrak.

419. Aurrekontuzkoak ez diren beste hartzekodun batzuk.

410. Jasandako BEZarengatik hartzekodunak.

Jasandako balio erantsiaren gaineko zerga bati (BEZ) dagozkion zorrak, hirugarrenekin hartutakoak, biltzen dituen kontu hartzekoduna, kengarria ez dena, eta ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik sortutakoa.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Ogasun Publikoa, jasandako BEZa» 472 kontuan, sail-kontuen bidez, eskuraketetan jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoarekin.

a.2) «Ogasun Publikoa, jasandako BEZa» 472 kontuan, sail-kontuen bidez, ezeztatutako eragiketetan jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoarekin. Idazpen honek zeinu negatiboa izango du.

a.3) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpikontuko kontuetan, eragiketa ezeztatuak, aurretik ordaindu direnak, itzultzeagatik.

a.4) «Ogasun Publikoa, jasandako BEZa» 472 kontuan, sail-kontuen bidez, prorrata-araua erabiltzen denean egindako erregularizatzeari dagokion jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoarekin. Idazpenak zeinu negatiboa izango du jasandako BEZ kengarria, behin-behineko prorrataren arabera kalkulatuta, behin betiko prorrataren arabera kalkulatua baino handiagoa bada. Hala abonatutako zenbatekoa aurrekontu-zordunen edo -hartzekodunen kontuen aurka ezeztatutako da, erregularizatzearen ondoriozko doiketa positiboa ala negatiboa den.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, hartzekodunei egindako ordainketarengatik.

b.2) «Ezohiko sarrerak» 778 kontua, preskripzioa izanez gero.

Saldoak, hartzekodunak, hartzekodunei ordaintzeko kengarria den jasandako BEZaren zenbatekoa jasoko du.

411. Sortutako interesengatik hartzekodunak.

Ekitaldian sortutako gastu ekonomiko ez-finantzarioen ondorioz haren amaieran mugaeguneratu gabe dauden obligazioak jasotzen ditu.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ondasun eta zerbitzu horien zenbatekoarekin abonatuko da, haiek adierazten dituzten «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6 taldeko kontuetan zordunduta.

b) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta zordunduko da, obligazioaren aintzatespen formala gertatutakoan.

Saldoak, hartzekodunak, ekitaldi-itxieran mugaeguneratu gabeko obligazioen zenbatekoa jasoko du, baldin eta ekitaldi horretan sortutako gastuek edo jasotako ondasunek eta zerbitzuek sortutakoak badira.

413. Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak.

Egindako gastuetatik edo jasotako ondasun eta zerbitzuetatik eratorritako obligazioak jasotzen ditu. Horiek ez dira aurrekontuan aplikatu, berau izanik bidezkoa.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du, obligazioen jatorria edo izaera kontuan hartuta, balantzea egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abenduaren 31n gutxienez, «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko kontutan edo egindako aurrekontu-gastuak adierazten dituzten balantzeko kontuetan zordunduta abonatuko da.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   b.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, aurrekontuan aplikatutakoan.

   b.2) «Justifikatu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-hornidurak» 5581 kontuan, kutxa finkoko aurrerakina birjartzean, aurrez aintzatetsitako haren gastuengatik.

Saldoak, hartzekodunak, aurrekontuan aplikatzeko dauden obligazioak jasoko ditu.

414. Erakunde publiko hartzekodunak baliabideak biltzeagatik.

Entitateak, bilketa-zerbitzua emateagatik, beste erakunde publiko batzuetatik bereganatutako baliabideak jasotzen ditu.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako partidak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Egindako sarrerengatik abonatuko da, «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, egokia denaren arabera.

b) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, sarreren itzulketengatik, edo eragindako baliabideen erakunde hartzekodunek egindako ordainketengatik.

Saldoak, hartzekoduna bera, toki-erakundeak beste erakunde publiko batzuekin daukan zorra jasoko du, haiei bilketa-zerbitzua ematearen ondorioz.

416. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak.

Beste erakunde batzuentzat aktiboak eraiki edo eskuratzeko jasotako aurrerakinak biltzen ditu.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Jasotako aurrerakinaren zenbatekoarekin abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b) Egokia den «Sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik» 707 kontuaren azpikontuan abonatuta zordunduko da, betiere sarrerak egozteko irizpidearen arabera, dela dagokion obraren zatia egitean, dela aktiboak erakunde hartzaileari ematean.

Saldoak, hartzekodunak, beste erakunde batzuentzako aktiboak eraikitzeari edo eskuratzeari aplikatzeko fondoen aurrerakinak bilduko ditu.

418. Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak.

Itzultzeko erabaki egokia eman izanaren ondorioz okerreko sarreretatik eratorritako zenbatekoak sarreren aurrekontuaren kontura ordaintzeko obligazioak jasotzen ditu.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du, obligazioen jatorria edo izaera kontuan hartuta, balantzea egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Oinarrizko finantziazioa» 1, «Aktibo ez-korrontea» 2, «Kontu finantzarioak» 5, «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6, «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7 edo «Diru-laguntzengatiko sarrerak» 94 taldeetako kontuetan, itzulketaren jatorriaren arabera, edo, bestela, «Sarrerak itzultzeko epe motzeko hornidura» 585 kontuan, itzultzeko akordioa ematen den unean.

Aurreko idazpenak zeinu negatiboa izango du, sarrerak itzultzeko akordioak eman ziren ekitaldi berean ezeztatzen direnean.

a.2) «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan, edo, bestela, itzulketa, aintzatetsi den unean, egotzi zaion balantzeko kontuan, hutsegiteen ondorio diren aurreko ekitaldietatik datozen obligazioen goranzko aldaketagatik.

Obligazio horien aldaketak beheranzkoak badira, edo haiek ezeztatzen badira, idazpen honen zeinua negatiboa izango da.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, egindako ordainketengatik.

b.2) «Zordunak bilketa-zerbitzuagatik. Erakunde publiko zordunak bildutako baliabideengatik» 4420 azpikontuan, kontabilitate-subjektuaren titulartasuneko baliabideei dagozkien sarrera-itzulketengatik, baliabide horien administrazioa esleituta daukaten erakundeek eginda badaude.

b.3) «Ezohiko sarrerak» 778 kontuan, preskribitzen diren obligazioengatik.

Hartzekoaren batuerak aditzera emango du zein den sarrerak itzultzeagatik aintzatetsitako obligazioen guztizko zenbateko garbia, hau da, ekitaldian itzultzeko emandako akordioei dagokiena gehi, aurreko ekitaldietan emandakoak izanik, ekitaldiaren hasieran ordaindu gabe zeudenei dagokiena. Zorrarenak, berriz, ekitaldian zehar ordainketa bidez edo preskripzioagatik ezeztatutako itzulketak.

Saldoak, hartzekoduna bera, sarrerak itzultzeagatik ordaindu gabe dauden obligazioen zenbatekoa bilduko du.

419. Aurrekontuzkoak ez diren beste hartzekodun batzuk.

Aurreko kontuetan jaso gabe dauden aurrekontuzkoak ez diren gainerako hartzekodunak jasotzen ditu.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Egindako kobrantzengatik abonatuko da, «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, egokia denaren arabera.

b) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, egindako ordainketengatik.

Saldoak, hartzekodunak, kontzeptu honengatik ordaintzeko dagoena jasoko du.

43. Aurrekontu-zordunak.

430. Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua.

4300. Kudeaketa-eragiketak.

4301. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4302. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4303. Beste inbertsio finantzario batzuk.

431. Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak.

4310. Kudeaketa-eragiketak.

4311. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4312. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4313. Beste inbertsio finantzario batzuk.

433. Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide ezeztatuak.

4330. Likidazioak baliogabetzeagatik.

43300. Kudeaketa-eragiketak.

43301. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43302. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43303. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4332. Atzeratu eta zatikatzeagatik.

43320. Kudeaketa-eragiketak.

43321. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43322. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43323. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4339. Sarrerak itzultzeagatik.

434. Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak.

4340. Likidazioak baliogabetzeagatik.

43400. Kudeaketa-eragiketak.

43401. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43402. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43403. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4342. Atzeratu eta zatikatzeagatik.

43420. Kudeaketa-eragiketak.

43421. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43422. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43423. Beste inbertsio finantzario batzuk.

437. Sarreren itzulketak.

438. Indarrean dagoen aurrekontuaren eskubide baliogabetuak.

4380. Espezietan kobratzeagatik.

43800. Kudeaketa-eragiketak.

43801. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43802. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43803. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4381. Kaudimen ezarengatik eta beste arrazoi batzuengatik.

43810. Kudeaketa-eragiketak.

43811. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43812. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43813. Beste inbertsio finantzario batzuk.

439. Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak.

4390. Espezietan kobratzeagatik.

43900. Kudeaketa-eragiketak.

43901. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43902. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43903. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4391. Kaudimen ezarengatik eta beste arrazoi batzuengatik.

43910. Kudeaketa-eragiketak.

43911. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43912. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43913. Beste inbertsio finantzario batzuk.

4392. Preskripzioagatik.

43920. Kudeaketa-eragiketak.

43921. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

43922. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

43923. Beste inbertsio finantzario batzuk.

Aurrekontua gauzatzearen ondorioz erakundearen alde aintzatetsitako eskubideak.

430. Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua.

Aurrekontuaren indarraldian berari egotzitako eskubide aintzatetsiak biltzen dituen kontu zorduna.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du, eskubideen jatorria edo izaera kontuan hartuta, balantzea egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko bestelako kontuak» III epigrafean, honako hauek izan ezik: «Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 4302 azpikontua, «Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» IV epigrafean agertuko baita, eta «Beste inbertsio finantzario batzuk» 4303 azpikontua, «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» V epigrafean egongo baita.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kobratu beharreko eskubideak aintzatesteagatik, hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Oinarrizko finantzaketa» 1. taldeko kontuetan, epe luzeko zorpetze-eragiketak formalizatzean, besteak beste, bai eta, epe luzeko fidantzak eta gordailuak jasotzean ere, hala egokituz gero.

   a.2) «Aktibo ez-korronteak» 2. taldeko kontuetan, ibilgetu ukiezina, materiala, finantzarioa, ondasun higiezinetako inbertsioak, lurzoruaren ondare publikoa inorenganatzeagatik, kredituak aurrez itzultzeagatik, hala nola, hala egokituz gero,epe luzeko fidantzak eta gordailuak aurrez ezeztatzeagatik.

   a.3) «Kontu finantzarioak» 5. taldeko kontuetan, zorpetze-eragiketak formalizatzeagatik, aldi baterako inbertsio finantzarioak inorenganatzeagatik, emandako kredituak itzultzeagatik, bai eta, halakorik badago, epe motzeko fidantzak eta gordailuak jasotzeagatik eta epe motzera eratutako fidantzak eta gordailuak ezeztatzeagatik ere.

a.4) «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko kontuetan, izakinak saltzeagatik, sarrerengatik eta mozkinengatik.

a.5) «Salgai dauden aktiboak» 38 azpitaldeko kontuetan, aipatutako aktiboak saltzeagatik.

a.6) «Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak» 416 kontuan, jasotako aurrerakinaren zenbatekoarekin.

a.7) «Diru-laguntzengatiko sarrerak» 94 azpitaldeko kontuetan, ondare garbira egotzitako diru-laguntzek sortutako eskubidea aintzatetsi eta biltzeagatik.

a.8) «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak» 2621 azpikontuan, aldez aurretik kitatzean.

a.9) «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak» 443 kontuan, kobratzeko eskubidea mugaeguneratzen den ekitaldian edo, berau aldez aurretik kitatzean.

a.10) «Sortutako sarrerengatik zordunak» 441 kontuan, eskubidea aintzatesteko akordioa ematean.

a.11) «Ziurtatzeko dauden beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboengatik zordunak» 446 kontuan, aurreko ekitaldietako obra gauzatuari dagokion ziurtagiria eman ondoren, ordaindu gabe dagoen zenbatekoarekin.

a.12) «Zeharkako zergen doikuntza positiboak» 639 kontuan, urteko erregularizazioaren zenbatekoarekin.

a.13) Kasuan kasuko izaerazko gastuen kontuetan, sarreren aurrekontura egotzi behar diren ordainketen itzulketengatik, erroreetatik eratorritakoak izan ezik, «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan erregistratuko baitira. Itzulketa horiek garrantzi erlatibo txikia badute, hutsegiteen ondorio izanda zein ez, «Itzulketak» 775 kontuan erregistratuko dira.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, indarrean dagoen ekitaldian aintzatetsitako eskubideak kobratzeagatik.

b.2) «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, aipatutako kontuan aldi baterako aplikatutako sarrerak behin betiko aplikatzean.

b.3) «Bilketa-zerbitzuarengatik zordunak» 442 kontuan, sail-kontuen bidez, kontabilitate-subjektuaren titulartasuneko baliabideen administrazioa esleituta daukaten erakundeen esparruan gertatzen diren sarrerengatik, edo haien kobrantza kudeatzearen ardura duten erakundeen esparruan gertatutakoengatik, betiere aurrez sarrera horien behin-behineko aplikazioa egin ez bada.

b.4) «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan, zeharkako zergen urteko erregularizatze positiboaren zenbatekoarekin.

b.5) «Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide ezeztatuak» 433 kontuan, ezeztatutako eskubideak erregularizatzeagatik. Idazpen hori ekitaldiaren amaieran egiten da, eta 433 kontuaren sail-kontuen bidez, «Kredituak itzultzeagatik» 4339 sail-kontua salbuetsita.

b.6) «Indarrean dagoen aurrekontuaren eskubide baliogabetuak» 438 kontuan, baliogabetutako eskubideak erregularizatzeagatik. Idazpen hau ekitaldi-amaieran egingo da, bere sail-kontuen bitartez.

Zorraren batuerak ekitaldian likidatutako eskubideen guztikoa adierazi behar du. Hartzekoarenak, berriz, erregularizatzeko idazpenak baino lehen, ekitaldian kobratutako ekitaldiko eskubide likidatuena.

Saldoak, zorduna bera, erregulazioaren ostean, ekitaldian kobratzeko dauden eskubide likidatuen zenbatekoa jasoko du.

Urtarrilaren 1ean, irekierako idazpenean, aurreko abenduaren 31n dagoen azpikontu bakoitzaren saldoa «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuko sail-kontu egokiaren hasierako saldoaren parte izango da. Eragiketa zuzenean egingo da, idazpenen beharrik gabe.

431. Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak.

Urtarrilaren 1ean aurreko ekitaldietan aintzatetsitako eskubideen zenbatekoa biltzen du, baldin eta beren kobrantza ez bada egin aurreko abenduaren 31n.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du, eskubideen jatorria edo izaera kontuan hartuta, balantzea egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko bestelako kontuak» III epigrafean, honako hauek izan ezik: «Epe laburreko inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 4312 azpikontua, «Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» IV epigrafean agertuko baita, eta «Beste inbertsio finantzario batzuk» 4313 azpikontua, «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» V epigrafean egongo baita.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan abonatuta zordunduko da, edo aurrekontu-sarrera egotziko zen balantzeko kontuan, aurreko ekitaldietan hutsegiteen ondorioz aintzatetsitako eskubideak gehituta izandako aldaketagatik. Jatorria sarrera ekonomikoetan duten eta garrantzi erlatibo txikikoak diren eskubideen aldaketa kasuan, kasuan kasuko izaerazko sarreren kontuetan abonatuta zordundu ahal izango da.

   Eskubide horien aldaketa beheranzkoa bada, idazpenak zeinu negatiboa izango du.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aurreko ekitaldietan aintzatetsitako eskubideak kobratzeagatik.

   b.2) «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, aipatutako kontuan aldi baterako aplikatutako sarrerak behin betiko aplikatzean.

   b.3) «Bilketa-zerbitzuarengatik zordunak» 442 kontuan, sail-kontuen bidez, kontabilitate-subjektuaren titulartasuneko baliabideen administrazioa esleituta daukaten erakundeen esparruan gertatzen diren sarrerengatik, edo haien kobrantza kudeatzearen ardura duten erakundeen esparruan gertatutakoengatik, betiere aurrez sarrera horien behin-behineko aplikazioa egin ez bada.

   b.4) «Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak» 434 kontuan, bere sail-kontuen bitartez, baliogabetutako eskubideak ekitaldi-amaieran erregularizatzeagatik.

   b.5) «Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak» 439 kontuan, bere sail-kontuen bitartez, baliogabetutako eskubideak ekitaldi-amaieran erregularizatzeagatik.

Zorraren batuerak aurreko ekitaldietan aintzatetsita eta urtarrilaren 1ean kobratu gabe zeuden eskubideen guztizkoa adieraziko du. Hartzekoarenak, berriz, erregularizatzeko idazpenak baino lehen, ekitaldian kobratutako eskubideen guztizkoa.

Saldoak, zorduna bera, erregulazioaren ostean, aurreko ekitaldietatik kobratu gabe dauden eskubide likidatuen zenbatekoa jasoko du.

433. Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide ezeztatuak.

Aintzatetsitako eskubideen ezeztatzeak biltzen ditu.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuko a) idatz-zatian agertzen diren egozte-kontuetan, likidazioa ezeztatzearen ondorioz eskubideak ezeztatzeagatik.

a.2) «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak» 443 kontuan, edo «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak» 253 kontuan, edo «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak» 2621 azpikontuan; kontu horiek atzeratzeagatik eta zatikatzeagatik aurrekontuko eskubideak ezeztatzean sortutako epe motz eta luzerako kredituak adierazten dituzte.

a.3) «Sarreren itzulketa» 437 kontuan, itzulketa-ordainketa egindakoan sarrerak itzultzeagatik eskubideak ezeztatzen direlako.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarren dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, ekitaldi-amaieran ezeztatutako eskubideak erregulatzeagatik, sarrerak itzultzean ezeztatutakoak izan ezik.

b.2) «Sarreren itzulketa» 437 kontuan, ekitaldiaren amaieran, «Indarrean dagoen aurrekontuaren eskubide ezeztatuak. Sarrerak itzultzeagatik» 4339 azpikontuko saldoagatik, sarrerak itzultzeagatik ezeztatutako eskubideak erregularizatzearen ondorioz.

Saldoak, hartzekoduna bera, erregulazioaren aurretik, ekitaldian ezeztatutako eskubideak, horretan aintzatetsitako eskubideei dagozkienak, bilduko ditu.

434. Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak.

Aurreko ekitaldietan aintzatetsi ziren eta «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuan kobratzeke dauden eskubideen ezeztatzeak jasotzen ditu.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan, edo aurrekontuko sarrera egotzi den balantzeko kontuan, likidazioak ezeztatzeagatik eskubideak ezeztatzeagatik. Eragiketak garrantzi erlatibo txikia badu, egokiak diren izaerazko sarreren kontuetan zordunduta abonatu ahal izango dira.

a.2) «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak» 443 kontuan, edo «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak» 253 kontuan, edo «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak» 2621

azpikontuan; kontu horiek atzeratzeagatik eta zatikatzeagatik aurrekontuko eskubideak ezeztatzean sortutako epe motz eta luzerako kredituak adierazten dituzte.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Itxitako ekitaldietako aurrekontuak» 431 kontuan abonatuta zordunduko da, ezeztatutako eskubideak erregularizatzeagatik. Idazpen hau ekitaldi-amaieran egiten da.

Saldoak, hartzekodunak, erregularizatzearen aurretik, aurreko ekitaldietan likidatutako eskubideen ezeztatzeak, ekitaldian zehar egiten direnak, jasoko ditu.

437. Sarreren itzulketak.

Ekitaldian zehar egindako sarrera-itzulketen zenbatekoa jasotzen du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Indarren dagoen aurrekontuaren eskubide ezeztatuak» 433 kontuan abonatuta zordunduko da, «Sarrerak itzultzeagatik» 4339 kontu-sailaren bitartez, sarreren itzulketa ordainduengatik.

b) Bere saldoarekin «Baliogabetutako eskubideak» 4339 azpikontuan zordunduta abonatuko da, ekitaldian zehar egindako sarrera-itzulketak erregularizatzeagatik. Idazpen hau ekitaldi-amaieran egingo da.

Saldoak, zorduna bera, erregulazioaren aurretik, ekitaldian egindako itzulketa guztiak jasoko ditu.

438. Indarrean dagoen aurrekontuaren eskubide baliogabetuak.

Aintzatetsitako eskubideen baliogabetzeak, zorrak ordaintzeko ondasunen esleipena, espezietako beste kobrantza batzuk, kaudimen gabeziak eta beste arrazoi batzuk direla- eta sortutakoak, jasotzen ditu.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) Jasotako ondasuna edo eskubidea adierazten duen balantzeko kontua edo kontuak, espezietako kobrantzengatiko eskubideak baliogabetzeagatik.

a.2) «Kreditu kobraezinen galerak» 667 kontuan, eskubideak kaudimen gabeziaren eta konkurtso-prozeduretako kiten ondorioz ezeztatzeagatik.

a.3) «Diru-laguntzak» 651 kontuan, eskubideak barkatzeagatik hauek baliogabetzean direnean.

a.4) Dagokion egozte-kontuan, bestelako arrazoiengatik eskubideak baliogabetzeagatik.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan abonatuta zordunduko da, ekitaldiaren amaieran, ezeztatutako eskubideak erregularizatzeagatik.

Saldoak, hartzekoduna bera, erregulazioaren aurretik, ekitaldian espezietan baliogabetutako eskubideak eta kaudimen gabezia edo bestelako arrazoiengatikoak, horretan aintzatetsitako eskubideei dagozkienak, jasoko ditu.

439. Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak.

«Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuan kobratu gabe dauden aurreko ekitaldietako eskubide aintzatetsien ezeztapenak jasotzen ditu, ondasunak zorrak ordaintzeko esleitzeagatik, espezietan egindako beste kobrantza batzuengatik, kaudimen gabeziengatik eta beste arrazoi batzuengatik, eta preskripzioagatik gertatzen badira.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   a.1) Jasotako ondasuna edo eskubidea adierazten duen balantzeko kontua edo kontuak, espezietako kobrantzengatiko eskubideak baliogabetzeagatik.

   a.2) «Kreditu kobraezinen galerak» 667 kontuan, zordunaren kaudimen gabeziaren, konkurtso-prozeduretako kiten edo preskripzioaren ondorioz ezeztatzeagatik.

   a.3) «Diru-laguntzak» 651 kontuan, eskubideak barkatzeagatik hauek baliogabetzean direnean.

   a.4) Dagokion egozte-kontuan, bestelako arrazoiengatik eskubideak baliogabetzeagatik.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuan abonatuta zordunduko da, ekitaldiaren amaieran, ezeztatutako eskubideak erregularizatzeagatik.

Saldoak, hartzekoduna bera, erregularizazioaren aurretik, aurreko ekitaldietan likidatutako eskubideen espezietako baliogabetzeak, kaudimen gabeziak eta beste arrazoi batzuk eta preskripzioa, ekitaldian zehar egiten direnak, jasoko ditu.

44. Aurrekontuzkoak ez diren zordunak.

440. Jasanarazitako BEZarengatik zordunak.

441. Sortutako sarrerengatik zordunak.

442. Bilketa-zerbitzuarengatik zordunak.

4420. Erakunde publiko zordunak baliabideak biltzeagatik.

4429. Beste zordun batzuk bilketa-zerbitzuarengatik.

443. Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak.

4430. Kudeaketa-eragiketak.

4431. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4432. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4433. Beste inbertsio finantzario batzuk.

446. Ziurtatzeko dauden beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboengatik zordunak.

449. Aurrekontuzkoak ez diren bestelako zordunak.

440. Jasanarazitako BEZarengatik zordunak.

Ondasunak emateagatik edo zerbitzuak emateagatik jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zerga bati (BEZ) dagozkion zorrak biltzen dituen kontu zorduna.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa» 477 kontuan, sail-kontuen bidez, ondasunak ematean edo zerbitzuak ematean jasanarazitako BEZaren zenbatekoarekin.

   a.2) «Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa» 477 kontuan, sail-kontuen bidez, zeinu negatiboko idazpena eginez, ezeztatutako eragiketei dagokien jasanarazitako BEZaren zenbatekoan.

   a.3) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aldez aurretik kobratu diren eragiketa ezeztatuetan itzulitako zenbatekoarekin.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, edo «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, egokia denaren arabera, jasanarazitako BEZaren sarreraren zenbatekoan.

   b.2) «Kreditu kobraezinen galerak» 667 kontuan, kaudimen gabezia edo preskripzioa egonez gero.

Saldoak, zordunak, zordunek kobratzeko duten jasanarazitako BEZaren zenbatekoa bilduko du.

441. Sortutako sarrerengatik zordunak.

Sortutako eta eskatu gabeko sarreretatik eratorritako kredituak, plan honen beste kontu batzuetan jasota ez daudenak.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eragiketaren sortzapenagatik, edo gutxienez ekitaldi-amaieran, zordunduko da «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko kontu egokian abonatuta, edo «Ondare garbiari egotzitako sarrerak» 9. taldekoan.

b) Eskubidea «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta aintzatesteko erabakia ematen denean abonatuko da.

442. Bilketa-zerbitzuarengatik zordunak.

Kontu honetan, kasuan kasuko zenbatekoak entregatu aurretik, erakundearen aldeko zenbait kreditu jasotzen dira; kreditu horiek kontabilitatean erregistratu behar dituen baliabide batzuei dagozkie, eta haien bilketa kobrantza kudeatzeko ardura egokituta daukaten beste erakunde publiko edo pribatu batzuek egiten dute.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Honako hauek dira biltzen dituen azpikontuen edukia eta mugimendua.

4420. Erakunde publiko zordunak baliabideak biltzeagatik.

Erakundearen aldeko kredituak, baldin eta haiei dagozkien baliabideak kobratzeko gestioa beste erakunde publiko batek egin badu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

a.1) Erakundearen aldeko kreditua sortzeagatik, haren baliabideak administratzen eta kudeatzen dituen beste erakunde publiko batean egindako kobrantzen ondorioz, erakunde publiko kudeatzaileak bildutako baliabideen izaeraren arabera egokiak diren kontuetan abonatuta.

a.2) Aurreko idatz-zatian aipatutako kobrantzen behin-behineko aplikazioagatik, egokia denean sarrerak aplikatzeko erabiltzen diren prozeduren arabera, «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan abonatuta.

a.3) Baliabideak administratzen eta kudeatzen dituzten erakunde publikoei egin beharreko itzulketen ondoriozko ordainketengatik, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Kasuan kasuko baliabideen izaeraren arabera egokiak diren kontuetan zordunduta, erakunde publiko kudeatzaileak egindako sarrera-itzulketen ondorioz entitatearen aldeko kreditua murrizteagatik.

b.2) «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, zer dagokion, baliabideak kudeatzen dituen erakunde publiko kudeatzaileak, biltzeko egindako gestioaren ondorioz, erakundean egindako sarrerengatik.

b.3) «Kontu korronte ez-bankarioak erakunde publikoekin, baliabideak administratzeagatik» 5500 azpikontuan zordunduta, beste erakunde publiko batek bildutako baliabideen behin betiko likidazioagatik, hark kasuan kasuko bilketaren konturako entregak egiten dituenean.

Azpikontu hori beste erakunde publiko batek administratzen dituen baliabideen jabe diren erakundeek baino ez dute erabiliko, betiere erakunde hark behar den informazio guztia ematen badio baliabideen erakunde jabeari, baliabide horien kudeaketaren ondoriozko eragiketa guztiak behar bezala adieraz ditzan bere kontabilitatean, eta aurrekontuan jaso, hori egin behar denean. Horretarako, a), b.1) eta b.3) idatz-zatietan aipatutako idazpenak egitean, oinarritzat hartuko da baliabideen erakunde publiko kudeatzaileak, hurrenez hurren, lortutako bilketaz, egindako sarrera-itzulketez eta bildutako baliabideen behin betiko likidazioaz emandako informazioa.

Saldoak, zorduna bera, erakundearen baliabideak administratzen dituzten erakunde publikoek sartu edo likidatu gabe duten zenbatekoa jasoko du.

4429. Beste zordun batzuk bilketa-zerbitzuarengatik.

Kobrantza kudeatzeaz arduratzen diren erakundeetan egindako sarreren ondorioz erakundearen alde sortutako beste kreditu batzuk, baldin eta, finkatutako kudeaketa-prozeduren arabera, aipatutako sarreren kontabilizazioa haiei dagozkien funtsen harrera materiala baino lehenagokoa bada.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Erakundearen aldeko kreditua sortzeagatik, honako hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) Kontu egokietan, kobrantzaren kudeaketaz arduratutako erakundeek bildutako baliabideen izaeraren arabera.

a.2) «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, hala badagokio sarrerak aplikatzeko erabilitako prozeduren arabera.

b) Kobrantza egitean abonatuko da, «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, egokia denaren arabera.

Saldoak, zordunak, sartzeko dagoen zenbatekoa jasoko du.

443. Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe motzeko zordunak.

Epe motzeko epemugarekin kobratu beharreko eskubideak biltzen ditu, «Zordunak aintzatetsitako eskubideengatik» 430 kontuan eta «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreren aurrekontu itxiak» 431 kontuan aintzatetsitako eskubideak atzeratu eta zatikatzeagatiko baliogabetzeetatik datozenak.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du, eskubideen jatorria edo izaera kontuan hartuta, balantzea egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko bestelako kontuak» III epigrafean, honako hauek izan ezik: «Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 4432 azpikontua, «Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» IV epigrafean agertuko baita, eta «Beste inbertsio finantzario batzuk» 4433 azpikontua, «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» V epigrafean egongo baita.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak» 253 kontuan, edo «Atzerapenengatik eta zatikapenengatik epe luzeko zordunak» 2621 azpikontuan, «Kudeaketa-eragiketak» 4430 sail-kontuaren bidez, epe luzetik motzera aldatzeagatik.

a.2) «Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide baliogabetuak» 433 kontuan, edo «Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak» 434 kontuan, sail-kontuen bidez, aurrekontu-eskubidea baliogabetzeagatik.

b) Kobratzeko eskubidea mugaeguneratzen den ekitaldian abonatuko da, edo berau aldez aurretik baliogabetzean, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

Saldoak, zordunak, epe motzeko epemuga duen ordaindu gabeko zenbatekoa jasoko du.

446. Ziurtatzeko dauden beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboengatik zordunak.

Erakundeak inbertsio-eraikuntza beste erakunde batzuentzat kudeatzen duenean, horretatik eratorritako sarreren egozpena eraikuntzak duen aurrerapen mailaren arabera egiten denean, ekitaldi batean egindako eta, honen amaieran, ziurtatu gabe eta, ondorioz, sarreren aurrekontura egotzi gabe, dagoen obra jasotzen du.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldi-amaieran gutxienez, zordunduko da honetan gauzatutako eta ziurtatu gabeko obragatik, «Egotzitako sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboen aurrerapen mailagatik» 7070 azpikontuan abonatuta.

b) Aurreko ekitaldietan gauzatutako obrari dagokion ziurtagiria emandakoan abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

449. Aurrekontuzkoak ez diren bestelako zordunak.

Aurreko kontuetan jaso gabe dauden aurrekontuzkoak ez diren gainerako zordunak jasotzen ditu.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, egindako ordainketengatik.

b) Egindako kobrantzengatik abonatuko da, «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, egokia denaren arabera.

Saldoak, zordunak, kontzeptu honengatik kobratzeko dagoena jasoko du.

45. Beste erakunde publiko batzuek baliabideak banatzeagatik zordunak eta hartzekodunak.

450. Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak.

451. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak.

4510. Likidazioak baliogabetzeagatik.

4519. Sarrerak itzultzeagatik.

452. Erakunde publikoak, kobratzeko eskubideengatik.

453. Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik.

454. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik sarreren itzulketa.

455. Erakunde publikoak, ordaintzeko dituzten sarrerak itzultzeagatik.

456. Erakunde publikoak, k/k dirua.

457. Beste erakunde publiko batzuen baliabideen ondoriozko sarreren itzulketengatik hartzekodunak.

458. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak.

4580. Espezietan kobratzeagatik.

4581. Kaudimen ezarengatik eta beste arrazoi batzuengatik.

4582. Preskripzioagatik.

Azpitalde honen xedea da erakundeak (kontabilitate-subjektua) beste erakunde batzuen baliabideen gainean egiten dituen likidazio- eta bilketa-jarduerak biltzea (kudeaketa).

Beste erakunde publiko batzuen baliabideak kudeatzen edo administratzen dituzten erakundeek soilik erabili ahal izango dute azpitalde hori, aurreko lerrokadan aipatutako moduan, eta, erabiltze horri dagokionez, bi egoera izan daitezke:

1. egoera: Beste erakunde publiko batzuen baliabideak kudeatzen dituen erakundeak baliabideen jabe den erakundeari behar den informazio guztia ematen dio, egindako kudeaketaren ondoriozko eragiketa guztiak behar bezala adieraz ditzan bere kontabilitatean, eta aurrekontuan jaso, hori egin behar denean.

Kasu horretan, erakunde kudeatzaileak kontu hauek baino ez ditu erabiliko: «Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik» 453 kontua, hartan egoera horretarako ezarritako mugimenduekin; eta «Erakunde publikoak, k/k dirua» 456 kontua, egokia denean.

2. egoera: Beste erakunde publiko batzuen baliabideak kudeatzen dituen erakundea, haien titularra den erakundeari informaziorik ematen ez diona egindako gestio-eragiketei buruz.

Egoera horretan, erakunde kudeatzaileak azpitalde honetako kontu guztiak erabiliko ditu, «Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik» 453 kontua baliatuta, kasurako aurreikusitako mugimenduekin.

450. Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak.

Erakundeak bildu behar dituen beste erakunde publiko batzuen baliabide likidatuak jasotzen ditu.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Erakunde publikoak, kobratzeko eskubideengatik» 452 kontuan abonatuta zordunduko da, kobratzeko eskubideak aintzatesteagatik, hala nola aurreko ekitaldietatik kobratu gabe dauden saldoak zuzentzeagatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, beste erakunde publiko batzuen baliabideen bilketagatik.

   b.2) «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, aipatutako kontuan aldi baterako aplikatutako sarrerak behin betiko aplikatzean.

   b.3) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak» 451 kontuan, baliogabetutako eskubideak ekitaldi-amaieran erregularizatzeagatik. Idazpen hori «Likidazioak baliogabetzeagatik» 4510 sail-kontuaren bidez egingo da.

   b.4) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak» 458 kontuan, bere sail-kontuen bitartez, baliogabetutako eskubideak ekitaldi-amaieran erregularizatzeagatik.

Zorraren batuerak aditzera emango du beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik eta ekitaldian zehar aintzatetsita egonda kobratzeko dauden eskubideen guztizkoa, hala nola aurreko ekitaldiaren amaieran kobratu gabe zeudenena. Hartzekoarenak, berriz, erregularizatu baino lehen, eskubide horiei dagokien ekitaldian zeharreko bilketa.

Saldoak, zorduna bera, erregulazioaren ostean, beste erakunde batzuen baliabideak jasoko ditu, likidatuta eta bildu gabe daudenak.

451. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak.

«Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak» 450 kontuan kontabilizatutako baliabideen baliogabetzeak jasotzen ditu, likidazioak baliogabetzeagatik, likidazioak baliogabetzearen edo sarrerak itzultzearen ondorioz gertatuak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Erakunde publikoak, kobratzeko eskubideengatik» 452 kontuan, «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak. Likidazioak baliogabetzeagatik» 4510 sail-kontuaren bitartez, likidazioak baliogabetzeagatik aintzatetsitako eskubideak baliogabetzeagatik.

a.2) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik sarreren itzulketa» 454 kontuan, «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak. Sarrerak itzultzeagatik» 4519 sail-kontuaren bitartez sarrerak itzultzearen ondorioz eskubideak baliogabetzeagatik, itzulketa-ordainketa egiten denean.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak» 450 kontuan, ekitaldi-amaieran, «Likidazioak baliogabetzeagatik» 4510 sail-kontuaren bitartez, likidazioak baliogabetzeagatik baliogabetutako eskubideak erregularizatzeagatik.

b.2) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik sarreren itzulketa» 454 kontuan, ekitaldi-itxieran, «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak. Sarrerak itzultzeagatik» 4519 sail-kontuaren saldoagatik, sarrerak itzultzeagatik baliogabetutako eskubideak erregularizatzearen ondorioz.

Saldoak, hartzekoduna bera, erregularizatu baino lehen, ekitaldian zehar beste erakunde publiko batzuen baliabideen gainean baliogabetutako eskubide guztiak bilduko ditu.

452. Erakunde publikoak, kobratzeko eskubideengatik.

«Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak» 450 kontuaren kontrakontua da.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak» 450 kontuan zordunduta abonatuko da, kobratzeko eskubideak aintzatesteagatik.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik» 453 kontuan, eskubideen bilketagatik.

b.2) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik ezeztatutako eskubideak. Likidazioak ezeztatzeagatik» 4510 azpikontuan, likidazioen ezeztapena dela eta beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik aintzatetsitako eskubideak ezeztatzeagatik.

b.3) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik ezeztatutako eskubideak» 458 kontuan, beste erakunde publiko batzuek eskubideak ezeztatzeagatik, espezietan kobratzearen, kaudimen gabezien eta bestelako arrazoien eta preskripzioaren ondorioz.

Hartzekoaren kopuruak beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik kobratzeko aintzatetsitako eskubideen zenbateko osoa adieraziko du. Zorraren kopuruak, berriz, bildutako edo baliogabetutako likidazio guztien zenbatekoa, baita ezeztatutakoak ere.

Saldoak, hartzekodunak, bilduko du erakundeak beste erakunde publikoen aurrean duen posizioa, bildu gabe dauden aintzatetsitako eskubideei dagokienez.

453. Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik.

Beste erakunde publiko batzuen kontura erakundeak bildutako baliabideak, horien aldeko kreditua osatzen dutenak.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Ekitaldi-amaieran, saldo hartzekodunak erakundeak baliabideak administratu eta biltzeko baliatzen dituen erakunde publikoekin duen zor garbia jasoko du.

Kontu honen funtzionamenduan erabakigarria izango da zer egoeratan dagoen erakundea bere kontura administratzen dituen baliabideen erakunde publiko jabeei informazioa emateaz den bezainbatean, eta bi aukera egon daitezke:

1. egoera. Beste erakunde publiko batzuen baliabideak kudeatzen dituen erakundeak baliabideen jabe den erakundeari behar den informazio guztia ematen dio, egindako kudeaketaren ondoriozko eragiketa guztiak behar bezala adieraz ditzan bere kontabilitatean, eta aurrekontuan jaso, hori egin behar denean.

Hori gertatzen denean, kontuak mugimendu hau izango du:

a) Abonatuko da:

a.1) Beste erakunde publiko batzuen baliabideak direla eta aintzatetsitako eskubideak kobratzeagatik, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

a.2) Baliabideak ematen zaizkien erakunde publikoen itzulketei dagozkien kobrantzengatik, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

a.3) Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren kobrantzen behin betiko aplikazioagatik, haiek aldi baterako egotzi badira «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, zordunduta egotzi ere.

b) Zordunduko da:

b.1) Beste erakunde publiko batzuen baliabideei dagozkien sarrerak itzultzearen ondorioz egindako ordainketengatik, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

b.2) Erakunde publikoei dagokien bilketa likidoaren zenbatekoa ordaintzeagatik, bilketa horren kontura entregarik egiten ez bazaie, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

b.3) Erakunde publikoei dagokien bilketa likidoaren zenbatekoarekin, bilketa horren kontura entregak egiten bazaizkie, kasuan kasuko sarreren behin betiko likidazioa egiteko unean, «Erakunde publikoak, k/k dirua» 456 kontuan abonatuta.

2. egoera. Beste erakunde publiko batzuen baliabideak kudeatzen dituen erakundea, haien titularra den erakundeari informaziorik ematen ez diona egindako gestio-eragiketei buruz. Kasu horretan, mugimendua hau izango da:

a) Abonatuko da:

a.1) Beste erakunde publiko batzuen baliabideei dagokien zenbateko bilduagatik, «Erakunde publikoak, kobratzeko eskubideengatik» 452 kontuan zordunduta.

a.2) Baliabideak ematen zaizkien erakunde publikoen itzulketei dagozkien kobrantzengatik, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

a.3) Aurreko idatz-zatian aipatzen diren kobrantzen behin betiko aplikazioagatik, haiek aldi baterako egotzi badira «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, zordunduta egotzi ere.

b) Zordunduko da:

b.1) Beste erakunde publiko batzuen baliabideei dagozkien sarrera-itzulketa ordainduen zenbatekoagatik, «Erakunde publikoak, ordaintzeko dituzten sarrerak itzultzeagatik» 455 kontuan abonatuta.

b.2) Bilketa horren kontura entregarik egiten ez zaien erakunde publikoei dagokien bilketa likidoaren zenbatekoa ordaintzeagatik, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

b.3) Erakunde publikoei dagokien bilketa likidoaren zenbatekoarekin, bilketa horren kontura entregak egiten bazaizkie, kasuan kasuko sarreren behin betiko likidazioa egiteko unean, «Erakunde publikoak, k/k dirua» 456 kontuan abonatuta.

454. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik sarreren itzulketa.

Izenak aipatutako eragiketak biltzen dituen kontu zorduna.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak. Sarrerak itzultzeagatik» 4519 azpikontuan abonatuta zordunduko da, sarrerak itzultzeagatik aintzatetsitako eskubideak baliogabetzeagatik. Idazpen hau ordainketa egitean egin beharrekoarekin batera egiten da.

b) Kontrakontu berean zordunduta abonatuko da, bere saldoarekin, ekitaldi-amaieran honen barruan egindako sarreren itzulketa erregularizatzean.

Saldo zordunak, erregularizatu baino lehen, ekitaldian egindako sarreren itzulketak bilduko ditu.

455. Erakunde publikoak, ordaintzeko dituzten sarrerak itzultzeagatik.

Kontu zordun honetan erakundeak baliabideak biltzeko baliatzen dituen erakunde publikoen aurrean duen zorraren murrizketa jasotzen da, aintzatetsitako sarreren itzulketak direla- eta.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Sarreren itzulketaren zenbatekoarekin zordunduko da, itzultzeko akordioa egitean, eta «Beste erakunde batzuen baliabideen ondoriozko sarreren itzulketengatik hartzekodunak» 457 kontuan abonatuta.

b) «Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik» 453 kontuan zordunduta abonatuko da, ordaindutako itzulketen zenbatekoarekin.

Saldo zordunean, sarreren itzulketa aintzatetsiak eta ordaindu gabeak egitean, erakundeak bildutako zorraren murrizketa jasoko da. «Beste erakunde publiko batzuen baliabideen ondoriozko sarreren itzulketengatik hartzekodunak» 457 kontuan saldo hartzekodunaren berdina izango da.

456. Erakunde publikoak, k/k dirua.

Kontu honetan, erakunde biltzaileak ekitaldian zehar bertan egondako diru-bilketa garbiaren arabera egin beharreko behin betiko likidazioaren kontura emandako dirua dela- eta, baliabideak administratzeko eta biltzeko erabilitako erakunde publikoetan dagoen egoera zorduna edo hartzekoduna jasotzen da.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean, saldo zordunak batuta, eta balantzeko pasibo korrontean, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV. epigrafean, saldo hartzekodunei dagokien zenbatekoan.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldian zehar kontura emandako zenbatekoarekin zordunduko da, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta. Idazpen hau ere egingo da konturako zenbatekoak diru-bilketaren zenbateko osoa baino txikiagoak direnean sortzen diren saldo hartzekodunak efektibo egitean.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Erakunde publikoak, likidatzeko dituzten sarrerengatik» 453 kontuan, urtean bildutako zenbatekoarekin, hau da, ekitaldi-amaieran aipatutako 453 kontuak duen saldoarekin, konturako ekarpenak egiten zaizkien erakunde publikoen baliabideetarako.

   b.2) «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, egokia denaren arabera, kontura emandako zenbatekoak diru-bilketa likidoa baino handiagoak direnean eta kopuru horiek itzuli behar direnean, berau egitean.

457. Beste erakunde publiko batzuen baliabideen ondoriozko sarreren itzulketengatik hartzekodunak.

Kontu hartzekodun honetan bidegabe bildutako zenbatekoak ordaindu edo itzultzeko beharraren aintzatespena jasotzen da, beste erakunde batzuen baliabideengatiko sarrerak direnean.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Erakunde publikoak, ordaintzeko dituzten sarrerak itzultzeagatik» 455 kontuan zordunduta abonatuko da, sarrerak itzultzeko akordioa ematen denean.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   b.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, ordaindutako itzulketengatik.

b.2) «Erakunde publikoak, ordaintzeko dituzten sarrerak itzultzeagatik» 455 kontuan, preskribitu diren obligazioengatik.

Hartzekoaren batuerak aditzera emango du zein den beste erakunde publiko batzuen baliabideak itzultzeagatik aintzatetsitako obligazioen guztizkoa; hau da, ekitaldian emandako itzulketa-akordioen guztizkoa gehi, aurreko ekitaldietan emanda egon arren, ekitaldiaren hasieran ordaindu gabe zeudenei dagokiena. Zorrarenak, berriz, ekitaldian zehar ordainketa bidez edo preskripzioagatik ezeztatutako itzulketak.

Saldoak, hartzekodunak, beste erakunde publiko batzuen baliabideetan itzuli gabe dauden obligazioen zenbatekoa jasoko du.

458. Beste erakunde publiko batzuen baliabideengatik baliogabetutako eskubideak.

«Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak» 450 kontuan kontabilizatutako eskubideen baliogabetzeak, zorrak ordaintzeko ondasunen esleipena, espezietako beste kobrantza batzuk, kaudimen gabeziak eta beste arrazoi batzuk direla- eta edo preskripzioagatik sortutakoak, jasotzen ditu.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Erakunde publikoak, kobratzeko eskubideengatik» 452 kontuan zordunduta abonatuko da, ezeztatutako eskubideengatik.

b) «Beste erakunde publiko batzuen baliabideen aintzatetsitako eskubideengatik zordunak» 450 kontuan abonatuta zordunduko da, ekitaldi-amaieran, espezietan baliogabetutako eskubideak erregularizatzeagatik, kaudimen gabezia eta bestelako arrazoiengatik eta preskripzioagatik.

Saldoak, hartzekoduna bera, erregularizatu baino lehen, kaudimen gabeziagatik eta bestelako arrazoiengatik eta preskripzioagatik ekitaldian zehar espezietan baliogabetutako eskubide guztiak jasoko ditu.

47. Herri-administrazioak.

470. Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik zordun.

4700. Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun.

4709. Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptuengatik zordun.

471. Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, zordunak.

4710. Gizarte Segurantza.

4719. Gizarte Aurreikuspeneko bestelako erakundeak, zordunak.

472. Ogasun Publikoa, jasandako BEZa.

4720. Jasandako BEZa.

475. Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik hartzekodun.

4750. Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun.

4751. Ogasun Publikoa, egindako atxikipenengatik hartzekodun.

4759. Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptuengatik hartzekodun.

476. Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak.

4760. Gizarte Segurantza.

4769. Gizarte Aurreikuspeneko bestelako erakundeak, hartzekodunak.

477. Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa.

4770. Jasanarazitako BEZa.

470. Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik zordun.

Kontu honetan, BEZaren likidazioagatik eta bestelako kausengatik, Ogasun Publikoak erakundearen aurrean duen zor-posizioa jasotzen da.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

4700. Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun.

Zerga ekitaldian jasandako BEZ kengarria jasanarazitako BEZa baino handiagoa denean, bien arteko diferentzia adierazten du.

a) Zergaren likidazioa egitean zordunduko da, jasandako BEZ kengarriaren eta jasanarazitako BEZaren arteko diferentzia positiboagatik, «Jasandako BEZa» 4720 azpikontuan abonatuta.

b) «Jasanarazitako BEZa» 4770 kontuan zordunduta abonatuko da, ondorengo likidazioetan konpentsatzen denean,edo, bestela, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, edo «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, itzultzeko eskubidea erabiltzen denean.

Saldoak, zordunak, jasandako BEZ kengarriaren soberakina jasoko du, baldin eta ondorengo likidazioetan konpentsatu ez bada, eta oraindik itzuli ez bada.

4709. Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptuengatik zordun.

Aurreko azpikontuetan adierazitakoak ez diren kausengatik erakundearen alde dauden kredituak jasotzen ditu.

Eragiketen izaeraren arabera egoki diren kontuetan abonatuta eta zordunduta zordundu eta abonatuko da.

471. Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, zordunak.

Erakundearen alde Gizarte aurreikuspeneko erakundeekin dauden kredituak, organismo horiek ematen dituzten zerbitzu sozialengatik.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, ordainketak egitean.

b) Egindako kobrantzengatik abonatuko da, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, edo «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, egokia denaren arabera.

472. Ogasun Publikoa, jasandako BEZa.

Ondasun eta zerbitzuak erosteagatik eta dagokien lege-testuetan adierazitako gainerako eragiketengatik ordaindu beharreko sortutako BEZ.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

4720. Jasandako BEZa

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan, zerga sortzen deneko BEZ kengarriarekin.

a.2) «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan, zeinu negatiboko idazpen bidez, baliogabetutako eragiketei dagokien BEZ kengarriaren zenbatekoan.

a.3) «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan, prorrata-erregelan aurreikusitako erregulazioak egitean BEZ kengarrian sortzen diren diferentzien zenbatekoan. Idazpen hori diferentzien zeinuaren arabera izango da positiboa ala negatiboa.

a.4) «Jasanarazitako BEZa» 4770 azpikontuan, BEZ kengarriaren zenbatekoan, BEZaren arauen arabera kalkulatuta erakundeak bere ibilgeturako ondasunak ekoizten dituenean, bai eta ondasunen helburua aldatzen denean ere.

b) Aldiaren likidazioan konpentsatzen den BEZ kengarriaren zenbatekoarekin abonatuko da, «Jasanarazitako BEZa» 4770 azpikontuan zordunduta. Idazpen hori egin ondoren «Jasandako BEZa» 4720 azpikontuan oraindik saldorik balego, zenbateko hori «Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun» 4700 azpikontuan zordunduko da.

475. Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik hartzekodun.

Kontzeptu fiskalengatik edo bestelakoengatik Ogasun Publikoaren alde dauden zorrak, ordaintzeko daudenak.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

4750. Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun.

Zerga ekitaldian jasanarazitako BEZa jasandako BEZ kengarria baino handiagoa denean, bien arteko diferentzia.

a) Aipatutako aldia bukatzean abonatuko da, esandako soberakinarekin, «Jasanarazitako BEZa» 4770 azpikontuan zordunduta.

b) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, ordainketak egitean.

Bere saldo hartzekodunak Ogasun Publikoan sartu gabe dauden likidazio positiboak jasoko ditu.

4751. Ogasun Publikoa, egindako atxikipenengatik hartzekodun.

Zergei buruz egindako atxikipenak, oraindik Ogasun Publikoari ordaindu gabeak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Egindako atxikipenengatik abonatuko da, erakundea zergadunaren edo atxikitzailearen ordezkoa denean, normalean «Formalizazioa» 557 kontuan zordunduta.

b) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, egindako ordainketengatik.

4759. Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptuengatik hartzekodun.

Zorrak Ogasun Publikoarekin, aurreko azpikontuetan jasota ez dauden kausengatik.

Eragiketen izaeraren arabera egoki diren kontuetan abonatuta eta zordunduta zordundu eta abonatuko da.

476. Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak.

Langileen atxikitako zenbatekoak, edo hauek erakundeari ordaindutakoak, eta ondoren Gizarte aurreikuspeneko erakunde horiei eman beharrekoak.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   a.1) Normalean, «Formalizazioa» 557 kontuan, erakundeko langileei dagozkien kuotak atxikitzeagatik.

   a.2) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, edo «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan, aipatutako kuotak erakundean sartzeagatik.

b) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, egindako ordainketengatik.

477. Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa.

Ondasunak edo zerbitzuak emateagatik eta kasuan kasuko lege-testuetan adierazitako beste eragiketa batzuengatik sortutako BEZa.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

4770. Jasanarazitako BEZa.

Ondasunak eta zerbitzuak saltzeagatik eta lege-testuan adierazitako gainerako eragiketengatik sortutako BEZ.

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   a.1) «Jasanarazitako BEZarengatik zordun» 440 kontuan, zerga sortzen denean jasanarazitako BEZagatik.

   a.2) «Jasanarazitako BEZarengatik zordun» 440 kontuan, zeinu negatiboko idazpen bidez, baliogabetutako eragiketei dagokien jasanarazitako BEZaren zenbatekoan.

   a.3) «Jasandako BEZa» 4720 azpikontuan, eta, egokia bada, dagokion aktiboaren kontuan, erakundeak bere ibilgeturako ondasunak sortzen dituenean, eta ondasunen helburua aldatzen denean.

b) Zergaren likidazioa egitean konpentsatzen den jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoan zordunduko da, «Jasandako BEZa» 4720 azpikontuan abonatuta. Idazpen hori egin ondoren «Jasanarazitako BEZa» 4770 azpikontuan oraindik saldorik balego, zenbateko hori «Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun» 4750 azpikontuan abonatuko da.

48. Periodifikatzeagatiko doikuntzak.

480. Gastu aurreratuak.

485. Epe motzera aurreratutako sarrerak.

480. Gastu aurreratuak.

Ixten den ekitaldian kontabilizatutako gastuak, baina hurrengo ekitaldiari dagozkionak.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Periodifikatzeagatiko doikuntzak» VI epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, hurrengo ekitaldira egotzi beharreko gastu horiek erregistratuta dauden «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko kontuetan abonatuta.

b) Hurrengo ekitaldiaren hasieran abonatuko da, «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko kontuetan zordunduta.

485. Epe motzera aurreratutako sarrerak.

Ixten den ekitaldian kontabilizatutako sarrerak, baina hurrengo ekitaldiari dagozkionak.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Epe motzera periodifikatzeagatiko doikuntzak» V epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldiaren itxieran abonatuko da, hauetan zordunduta:

a.1) Hurrengo ekitaldiari egotzi beharreko sarrerak erregistratuta dauden «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko kontuetan.

a.2) «Epe luzera aurreratutako sarrerak» 186 kontuan, sortzapena epe motzean izango duen zenbatekoaren intsuldaketagatik.

b) Hurrengo ekitaldiaren hasieran zordunduko da, «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko kontuetan abonatuta.

49. Kredituen balio-narriadura.

490. Kredituen balio-narriadura.

4900. Kudeaketa-eragiketak.

4901. Kobratu beharreko beste kontu batzuk.

4902. Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.

4903. Beste inbertsio finantzario batzuk.

Zuzenketak «Aurrekontu-zordunak» 43. azpitaldeko eta «Aurrekontuzkoak ez diren zordunak» 44. azpitaldeko kredituen eta partiden balio-narriaduragatik.

490. Kredituen balio-narriadura.

«Aurrekontu-zordunak» 43 azpitaldeko, eta «Aurrekontuzkoak ez diren zordunak» 44 azpitaldeko kredituen eta partiden balio-narriaduragatiko zuzenketen zenbatekoa.

Kobrantza-eskubide egokia agertzen den balantzeko aktibo korrontearen partida txikiagotuko du.

«Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 4902 azpikontura aldatuko da «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreen balio-narriadura» 595 kontuko eta «Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe motzeko bestelako inbertsio finantzarioen eta kredituen balio-narriadura» 596 kontuko sail-kontuetan dauden narriaduragatiko balioespen-zuzenketen zenbatekoa, zuzenketa horietan aipatutako inbertsio finantzarioak erakundearen sarrera-aurrekontuan egozten badira epemuga iristean.

Era berean, «Beste inbertsio finantzario batzuk» 4903 azpikontura aldatuko da «Epe motzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura» 597 kontuko eta «Epe motzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 598 kontuko sail-kontuetan agertzen den narriaduragatiko balioespen-zuzenketen zenbatekoa, zuzenketa horietan aipatutako inbertsio finantzarioak erakundearen sarrera-aurrekontuan egozten badira epemuga iristean.

Bere sail-kontuen bidez funtzionatuko du eskubideen jatorriaren edo izaeraren arabera.

Mugimendu hau du, erakundeak hartutako alternatibaren arabera:

1. Erakundeak narriaduraren zenbatekoa, ekitaldi-amaieran, zordunen saldoetan dagoen kobraezin-arriskuaren estimazio globala eginez adierazten duenean:

a) Ekitaldiaren amaieran abonatuko da, egindako kalkuluaren arabera, «Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-galerak» 698 kontuan zordunduta, haren sail-kontuen bitartez.

b) Era berean, ekitaldiaren amaieran zordunduko da, aurreko ekitaldia ixtean egindako zuzkidurarekin, «Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-itzulera» 798 kontuan abonatuta, haren sail-kontuen bitartez.

2. Erakundeak narriadura zordunen saldoak jarraitzeko sistema indibidualizatuaren bidez kuantifikatzen duenean:

a) Ekitaldian zehar abonatuko da, zenbatesten diren arriskuen zenbatekoan, «Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-galerak» 698 kontuan zordunduta, haren sail-kontuez bidez.

b) Kontu zuzentzailea banan-banan hornitzeko arrazoi izandako zordunen saldoei baja eman ahala zordunduko da, edo arriskua desagertzen denean, haren zenbatekoan, «Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-itzulera» 798 kontuan abonatuta, sail-kontuen bidez.

5 Taldekoak. Kontu finantzarioak.

Aktibo eta pasibo finantzario korronteak, «Hartzekodunak eta zordunak» 4. taldean jaso beharrekoak izan ezik, periodifikazio finantzarioak eta epe motzeko hornidurak.

50. Jesapenak eta epe motzeko antzeko beste jaulkipen batzuk.

500. Epe motzeko obligazioak eta bonuak.

5000. Kostu amortizatuko obligazioak eta bonuak.

5001. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko obligazioak eta bonuak.

502. Jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk diruzaintzako eragiketengatik.

5020. Jesapenak diruzaintzako kostu amortizatuko eragiketengatik.

5021. Jesapenak diruzaintzako arrazoizko balioko eragiketengatik emaitzetan aldaketak izanda.

506. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen epe motzeko interesak.

5060. Kostu amortizatuko obligazio eta bonuen epe motzeko interesak.

5061. Arrazoizko balioko obligazio eta bonuen epe motzeko interesak emaitzetan aldaketak izanda.

5062. Jesapenen epe motzeko interesak diruzaintzako kostu amortizatuko eragiketengatik.

5063. Jesapenen epe motzeko interesak diruzaintzako arrazoizko balioko eragiketengatik emaitzetan aldaketak izanda.

5065. Kostu amortizatuko bestelako balore negoziagarrien epe motzeko interesak.

5066. Arrazoizko balioko bestelako balore negoziagarrien epe motzeko interesak emaitzetan aldaketak izanda.

509. Epe motzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak.

5090. Kostu amortizatuko bestelako balore negoziagarriak.

5091. Arrazoizko balioko bestelako balore negoziagarriak emaitzetan aldaketak izanda.

Taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek eskuratu gabeko balore negoziagarriak jaulkiz lortutako kanpoko finantzaketa biltzen du, baldin eta beren epemugak edo baliogabetzeak urtebete baino lehenago gertatu behar badu.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko pasibo korrontean agertuko dira, «Epe motzeko zorrak» II epigrafean.

Epemuga edo baliogabetzea urtebete baino lehenago duten epe luzeko zorrak balantzeko pasibo korrontean agertuko dira; hartarako, «Jesapenak eta epe luzeko antzeko beste jaulkipen batzuk» 15 azpitaldeko kontuetatik, epemuga edo baliogabetzea urtebete baino lehenago duten epe luzeko zorrak ere jasoko dira azpitalde honetan.

500. Epe motzeko obligazioak eta bonuak.

Zirkulazioan dauden obligazioak edo bonuak jasotzen ditu, urtebete edo lehenago epemuga edo baliogabetzea dutenak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5000. Kostu amortizatuko obligazioak eta bonuak.

Jaulkitzen diren unean, «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauan adierazitakoaren arabera, «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak» kategorian sailkatu diren obligazioak eta bonuak jasotzen ditu.

a) Abonatuko da:

   a.1) Jaulkitzeko unean jasotako dirua, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

   a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

   a.3) «Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak» 661 kontuan zordunduta, epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldearen egozpenarekin. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Zordunduko da:

   b.1) Jaulkipenari zuzenean egotzi dakizkiokeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   b.2) Balioak amortizatzean, kontabilitate-balioarekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 azpikontuan abonatuta, itzuli beharreko zenbatekoan.

   Aldi berean, amortizazio aurreratua badago, errenboltso-balioaren eta kontabilitate-balioaren artean egon daitekeen aldea «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak» 6655 azpikontuan zordunduko da, edo «Mozkinak kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan» 7655 azpikontuan abonatuko da, positiboa edo negatiboa izan.

   b.3) Beste erakunde batek zorra bere gain hartzen duenean, «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

5001. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko obligazioak eta bonuak.

Jaulkitzen diren unean, «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauan adierazitakoaren arabera, «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak» kategorian sailkatu diren obligazioak eta bonuak jasotzen ditu.

a) Abonatuko da:

   a.1) Jaulkitzeko unean jasotako dirua, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

   a.2) «Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak» 661 kontuan zordunduta, epemugan itzulitako balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldea egotziz. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Baloreak ordaintzean zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

d) Abonatu edo zordundu egingo da, «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan izandako galerak» 6642 azpikontuan eta «Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan» 7642 azpikontuan, arrazoizko balioan gertatzen den aldakuntzarekin, sortutako interesei eta kanbio-diferentziei dagokien zatia izan ezik.

502. Jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk diruzaintzako eragiketengatik.

Epe motzeko kanpoko finantziazioa, balore negoziagarrien jaulkipenen bidez gauzatua, diruzaintza-desfase iragankorrei aurre egitekoa.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5020. Jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk kostu amortizatuko diruzaintzako eragiketengatik.

Jaulkitzen diren unean, «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauan adierazitakoaren arabera, «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak» kategorian sailkatu diren balore negoziagarrien jaulkipenak jasotzen ditu.

a) Abonatuko da:

   a.1) Jaulkipenaren unean jasotako diru-zenbatekoan, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

   a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

   a.3) «Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak» 661 kontuan zordunduta, epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldearen egozpenarekin. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Zordunduko da:

b.1) Jaulkipenari zuzenean egotzi dakizkiokeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Balioak amortizatzean, kontabilitate-balioan, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta, jaulkipenaren balio efektiboa kontuan hartuta, eta «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, errenboltso-balioaren eta jaulkipenaren balio efektiboaren arteko aldea kontuan hartuta.

Aldi berean, amortizazio aurreratua badago, errenboltso-balioaren eta kontabilitate-balioaren artean egon daitekeen aldea «Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak» 6655 azpikontuan zordunduko da, edo «Mozkinak kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan» 7655 azpikontuan abonatuko da, positiboa edo negatiboa izan.

a.1) Beste erakunde batek zorra bere gain hartzen duenean, «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontuan abonatuta.

b) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

5021. Jesapenak diruzaintzako arrazoizko balioko eragiketengatik emaitzetan aldaketak izanda.

Jaulkitzen diren unean, «Pasibo finantzarioak» 9. aintzatespen- eta balioespen-arauan adierazitakoaren arabera, «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak» kategorian sailkatu diren diruzaintzako eragiketetarako balore negoziagarrien jesapenak jasotzen ditu.

a) Abonatuko da:

a.1) Jaulkipenaren unean jasotako diru-zenbatekoan, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

a.2) «Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak» 661 kontuan zordunduta, epemugan itzulitako balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldea egotziz. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Balioak amortizatzean zordunduko da, kontabilitate-balioan, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta, jaulkipenaren balio efektiboa kontuan hartuta, eta «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, errenboltso-balioaren eta jaulkipenaren balio efektiboaren arteko aldea kontuan hartuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

d) Abonatu edo zordundu egingo da, «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan izandako galerak» 6642 azpikontuan eta «Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan» 7642 azpikontuan, arrazoizko balioan gertatzen den aldakuntzarekin, sortutako interesei eta kanbio-diferentziei dagokien zatia izan ezik.

506. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen epe motzeko interesak.

Epe motzera jesapenengatik eta antzeko beste jaulkipen batzuengatik ordaindu beharreko interesak jasotzen ditu.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldian sortu eta hurrengoan epemuga duten interesen zenbatekoan abonatuko da, «Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak» 661 kontuan zordunduta.

b) Interesen epemugan eta aldez aurretik ezeztatzean zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta errenboltso-balioaren eta jaulkipenaren balio efektiboaren arteko diferentzia.

Aldi berean, «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontua abonatuko da, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontua zordunduko da, interesengatik dagoen zor-balioa likidatzean edo kitatzean indarrean zegoen kanbio-tasara doitzearen ondorioz.

509. Epe motzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak.

Balore negoziagarrietan adierazitako bestelako pasibo finantzarioak, epemuga edo baliogabetzea urtebete edo epe motzagoa dutenak, aurrezki publikoari eskainiak eta aurrekoengandik desberdinak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Azpikontuen edukia eta mugimendua, hurrenez hurren, «Kostu amortizatuko obligazioak eta bonuak» 5000 azpikonturako eta «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko obligazioak eta bonuak» 5001 azpikonturako adierazitakoen antzekoak dira.

51. Epe motzeko zorrak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin.

513. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

514. Balore negoziagarrietan adierazitako epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

5140. Kostu amortizatuko balore negoziagarrietan adierazitako zorrak, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak.

5141. Arrazoizko balioko balore negoziagarrietan adierazitako zorrak emaitzetan aldaketak izanda, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak.

515. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako fidantzak.

516. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako gordailuak.

517. Zorren epe motzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

519. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin epe motzeko bestelako zorrak.

Urtebetean edo epe motzagoan epemuga edo baliogabetzea duten zorrak, taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutakoak, beren izaera dela- eta talde honetako beste azpitalde batzuetan jasota egon beharko luketenak barne.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko pasibo korrontean agertuko dira, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin hartutako epe motzeko zorrak» III. epigrafean.

Taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin hartutako zorretan epe motzeko epemuga dutenek balantzeko pasibo korrontean jasota egon behar dute, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin hartutako epe luzeko zorrak» III. epigrafean; hartarako, «Epe luzeko zorrak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» 16 azpitaldeko kontuetatik epe motzeko epemuga duten epe luzeko zorrak azpitalde honetan ere jasoko dira.

513. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin .

Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik jasotako diru-laguntza itzulgarriak, epemuga urtebete edo motzagoa dutenak.

Kontuaren mugimendua honakoa da, oro har:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   a.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, jasotako zenbatekoetan.

   a.2) «Sarrerak diru-laguntzengatik» 94 azpitaldeko kontu egokian, itzulgarria ez den diru-laguntza bat itzulgarri bihurtzen bada emaitzei egotzi gabe dagoen zatiari dagokionez, eta «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan, emaitzei egotzitako diru-laguntzaren zenbatekoan.

b) Zordunduko da:

   b.1) Haiek ematean ezarritako baldintzen arabera, erabat edo zati batean murrizten dituen edozein gertaeragatik, normalean «Hartzekodunak sarrerak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik» 418 kontuan abonatuta.

   b.2) Itzulgarri izateari utziz gero, normalean bere saldoa «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan, «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 941 kontuan edo «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan, edo «Transferentziak eta diru-laguntzak» 75 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

514. Balore negoziagarrietan adierazitako epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.

Taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek emandako maileguengatik eta antzeko beste jaulkipen batzuengatik erakundeak egindako zorrak, epemuga urtebete edo motzagoa dutenak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Beren mugimendua «Epe motzeko obligazioak eta bonuak» 500 kontuarenaren antzekoa da, kontrakontuan taldeko eta talde anitzeko erakundeei eta elkartuei dagozkien kontuak erabilita.

515. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako fidantzak.

Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik, obligazio bat betetzeko berme gisa, jasotako dirua, epemuga urtebeteko epera edo motzagora duena.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, fidantza baliogabetzean, egokia denaren arabera. '

b.2) «Ezohiko sarrerak» 778 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean, edo «Aintzatetsitako eskubideengatiko zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, aplikagarria den araudiak dioenaren arabera.

516. Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako gordailuak.

Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik gordailu irregularraren kontzeptuan gehienez urtebeteko epera jasotako dirua.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, ezeztatzean, egokia denaren arabera.

517. Zorren epe motzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

Taldeko erakundeekiko, talde anitzekiko eta elkartuekiko epe motzeko zorrengatik epe motzera ordaindu beharreko interesak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldian sortutako interesen zenbatekoan abonatuko da, epemuga hurrengo ekitaldian izanda, «Zorren interesak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» 663 kontuan zordunduta, azpikontu egokiaren bidez.

b) Interesen epemugan zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

Aldi berean, «Kanbio-diferentzia positiboak» 768n kontua abonatuko da, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan zordunduko da, interesengatik dagoen zor-balioa likidatzean indarrean zegoen kanbio-tasara doitzearen ondorioz.

519. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin epe motzeko bestelako zorrak.

Taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek emandako maileguengatik eta beste zor batzuengatik sortutako zorrak, azpitalde honetako gainerako kontuetan sartzen ez direnak eta epemuga urtebete edo motzagoa dutenak. Ibilgetua erosteak eta finantza-errentamenduak eragindako zorrak jasoko dira.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Zorra formalizatzean, jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatiko zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan edo, bestela, aktiboko kontu egokian zordunduta.

a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

a.3) Hornitutako ondasunak edo haiek erabiltzeko eskubidea hartzean eta ontzat ematean, «Aktibo ez-korrontea» 2 taldeko kontuetan zordunduta.

a.4) Zorren interesak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin» 663 kontuan zordunduta, sail-kontu egokiaren bidez, epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik.

b) Zordunduko da:

b.1) Zuzenean egozgarriak diren transakzio-kostuekin, jaulkipenean jasotako dirutik kendu ez badira, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Ezeztatutako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.3) Beste erakunde batek zorra bere gain hartzen duenean, «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

52. Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik epe motzeko zorrak.

520. Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

521. Diruzaintzako eragiketen ondoriozko zorrak.

522. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak.

523. Epe motzeko ibilgetu-hornitzaileak.

524. Epe motzeko errentamendu finantzariogatik hartzekodunak.

526. Epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

5260. Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

5261. Epe motzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak.

5266. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

5267. Bestelako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

527. Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe motzeko interesak.

528. Bestelako zorren epe motzeko interesak.

529. Epe motzeko beste zor batzuk.

Balore negoziagarrietan gauzatu gabeko edo taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartu gabeko kanpoko finantzaketa, epemuga edo baliogabetzea urtebeteko epera edo motzagora duena.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko pasibo korrontean agertuko dira, «Epe motzeko zorrak» II epigrafean.

Epe luzeko pasiboetatik, epemuga edo ezeztatzea epe motzera duen zatia balantzeko pasibo korrontean agertuko da; horretarako, «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik dauden epe luzeko zorrak» 17 azpitaldeko kontuetatik, epemuga edo ezeztatzea epe motzera duten epe luzeko zorren zenbatekoa azpitalde honetara pasatuko da.

520. Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

Kreditu-erakundeekin egindakoak, jasotako maileguengatik eta beste zordunketa batzuengatik, epemuga urtebetera baino gehiagora ez badute, diruzaintzako desfase iragankorrak estaltzekoak salbuetsita, «Diruzaintzako eragiketen ondoriozko zorrak» 521 kontuan jasoko baitira.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

   a.1) Zorra formalizatzean, jasotako zenbatekoan, «Aintzatetsitako eskubideengatiko zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

   a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

   a.3) «Kreditu-erakundeekiko zorren interesak» 6625 kontuan zordunduta, epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik.

b) Zordunduko da:

   b.1) Zuzenean egozgarriak diren transakzio-kostuekin, jaulkipenean jasotako dirutik kendu ez badira, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   b.2) Ezeztatutako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   b.3) Beste erakunde batek zorra bere gain hartzen duenean, «Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak» 752 kontuan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

521. Diruzaintzako eragiketen ondoriozko zorrak.

Epe motzeko kanpoko finantziazioa, balore negoziagarrien bidez gauzatu gabea, diruzaintza-desfase iragankorrei aurre egitekoa.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

   a.1) Zorra formalizatzean, jasotako zenbatekoan, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

   a.2) Onartutako pasiboaren arrazoizko balioarekin, «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta.

a.3) «Zorren interesak» 662 kontuan egokia den sail-kontuan zordunduta, epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren artean sortutako aldearen egozpenarekin.

b) Zordunduko da:

b.1) Zuzenean egozgarriak diren transakzio-kostuekin, jaulkipenean jasotako dirutik kendu ez badira, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

b.2) Ezeztatutako zenbatekoan, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, zorraren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

522. Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak.

Beste erakunde batzuetatik edo partikularrengandik jasotako diru-laguntza itzulgarriak, epemuga urtebete edo motzagoa dutenak.

Kontuaren mugimendua honakoa da, oro har:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, jasotako zenbatekoetan.

a.2) «Sarrerak diru-laguntzengatik» 94 azpitaldeko kontu egokian, itzulgarria ez den diru-laguntza bat itzulgarri bihurtzen bada emaitzei egotzi gabe dagoen zatiari dagokionez, eta «Aurreko ekitaldietako emaitzak» 120 kontuan, emaitzei egotzitako diru-laguntzaren zenbatekoan.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) Normalean «Sarrerak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak» 418 kontuan, diru-laguntzak guztiz edo zati batean murriztea dakarren edozergatik, haiek emateko baldintzak kontuan hartuta.

b.2) «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 940 kontuan, «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 941 kontuan edo «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak» 942 kontuan, edo «Transferentziak eta diru-laguntzak» 75 azpitaldeko kontuetan, itzulgarri izateari utziz gero.

523. Epe motzeko ibilgetu-hornitzaileak.

«Aktibo ez-korrontea» 2 taldean zehaztutako ondasunen hornitzaileekin sortutako zorrak, epemuga urtebetetik gorakoa izan gabe.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Hornitutako ondasunak hartzean eta ontzat ematean, «Aktibo ez-korrontea» 2. taldeko kontuetan zordunduta.

a.2) Zorraren errenboltso-baliora iritsi arte sortutako gastu finantzarioarekin, «Zorren interesak» 662 kontuan zordunduta, dagokion sail-kontuaren bitartez.

b) Ezeztatutako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

524. Epe motzeko errentamendu finantziogatik hartzekodunak.

Ondasunen erabilera lagatzeko, aintzatespen- eta balioespen-arauetan ezarritakoaren arabera finantza-errentamendu gisa sailkatu beharreko akordioengatik beste erakunde batzuekin egindako zorrak, epemuga urtebete edo motzagoa dutenak.

a) Abonatuko da:

a.1) Hornitutako ondasunak erabiltzeko eskubidea hartzean eta ontzat ematean, «Aktibo ez-korrontea» 2. taldeko kontuetan zordunduta.

a.2) Zorraren errenboltso-baliora iritsi arte sortutako gastu finantzarioarekin, normalean «Zorren interesak» 662 kontuan zordunduta, dagokion sail-kontuaren bitartez.

b) Zorrak guztiz edo zati batean ezeztatzeagatik zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

526. Epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

Erakundearentzako kontrako balioespena duten deribatu finantzarioekin egindako eragiketen zenbatekoa, epemuga edo likidatzea espero den data urtebete edo motzagoa denean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5260. Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak.

«Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauarekin bat etorriz, estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioen balioespena jasotzen du, erakundearentzako kontrakoa dena.

a) Kontratatzeko unean jasotako zenbatekoan abonatuko da, horrelakorik badago, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, edo «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

b) Likidatzean ordaindutako zenbatekoetan zordunduko da, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta, edo «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

c) Arrazoizko balioaren aldaketengatik abonatu edo ordainduko da, «Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6645 azpikontuan eta «Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan» 7645 azpikontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren, baldin eta, «Kontabilitate-estaldurak» 10 aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, deribatua arrazoizko balioagatik balioetsi behar bada eta aipatutako aldaketa ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotzi behar bada.

d) «Estaldurengatiko mozkinak» 910 kontuan edo «Estaldurengatiko galerak» 810 kontuan abonatuta edo zordunduta zordundu edo abonatuko da, hurrenez hurren, estaldura eraginkortzat jotako tresna deribatuaren arrazoizko balioaren aldakuntzaren balioan,

deribatua arrazoizko balioagatik balioetsi behar denean, eta aipatutako aldakuntza ondorengo ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partidaren hasierako baliora egotzi behar denean.

5261. Epe motzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak.

Estalduren kontabilitatea aplikatuta ez duten deribatu finantzarioen balioespena jasotzen du, erakundearentzat kontrakoa dena.

a) Kontratatzeko unean jasotako zenbatekoan abonatuko da, horrelakorik badago, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, edo «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

b) Likidatzean ordaindutako zenbatekoetan zordunduko da, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta, edo «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

c) Arrazoizko balioaren aldaketen zenbatekoan abonatu edo zordunduko da, «Bestelako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6646 azpikontuan, eta «Mozkinak beste deribatu finantzario batzuetan» 7646 azpikontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren.

5266. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen eragiketengatik epe motzera ordaindu beharreko interesak.

a) Abonatuko da «Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen interesak» 6628 azpikontuan zordunduta, ekitaldian zehar sortutako zenbatekoarekin.

b) Interesen epemugan zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

5267. Bestelako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

Kontuaren mugimendua 5266 kontuarentzat adierazitakoaren antzekoa da, kontrakontu gisa «Bestelako zorren interesak» 6626 azpikontua erabilita.

527. Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe motzeko interesak.

Kreditu-erakundeekiko zorren Interes ordaindu beharrekoak, mugaeguna epe motzera dutenak, diruzaintzako eragiketak barne.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldian sortu eta hurrengoan epemuga duten interesen zenbatekoarekin abonatuko da, «Kreditu-erakundeekiko zorren interesak» 6625 azpikontuan zordunduta.

b) Interesen epemugan zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

Aldi berean, «Kanbio-diferentzia positiboak» 768n kontua abonatuko da, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan zordunduko da, interesengatik dagoen zor-balioa likidatzean indarrean zegoen kanbio-tasara doitzearen ondorioz.

528. Bestelako zorren epe motzeko interesak.

Zorretan ordaindu beharreko epe motzeko interesak, «Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe motzeko interesak» 527 kontuan erregistratu beharrekoak izan ezik.

Kontuaren mugimendua «Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe motzeko interesak» 527 kontuarentzat adierazitakoaren antzekoa da, kontrakontu gisa «Bestelako zorren interesak» 6626 azpikontua erabilita.

529. Epe motzeko beste zor batzuk.

Azpitalde honetako beste kontu batzuetan jaso gabeko maileguengatik eta beste zor batzuengatik hirugarrenekin hartutakoak, epemuga urtebeteko epera edo motzagora dutenak.

Beren mugimendua «Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin» 520 kontuarenaren antzekoa da.

53. Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan.

530. Epe motzeko partaidetzak taldeko erakundeetan.

5300. Zuzenbide publikoko entitateetan.

5301. Merkataritza-sozietateetan.

5302. Beste erakunde batzuetan.

531. Epe motzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan.

5310. Zuzenbide publikoko entitateetan.

5311. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan.

5312. Beste erakunde batzuetan.

532. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

5320. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak.

5321. Taldean eta talde anitzean dauden erakundeen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

5322. Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten baloreak, arrazoizko balioan, emaitzetan aldaketak izanda.

533. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe motzeko kredituak.

535. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe motzeko interesak.

536. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen kobratu beharreko dibidendua.

537. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako fidantzak.

538. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako gordailuak.

539. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak.

Taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako inbertsioak, urtebete baino gutxiagoan epemuga edo inorenganatzea dutenak, beren izaera dela- eta talde honetako beste azpitalde batzuetan jasota egon beharko luketenak barne. Erakunde hauekin egindako epe motzerako fidantzak eta gordailuak ere jasota egongo dira.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Epe motzeko finantza-inbertsioak taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» IV epigrafean.

Epe motzeko epemuga edo ezeztatzea duten taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin egindako epe luzeko inbertsioen zatia balantzeko aktibo korrontean azalduko da, «Epe motzeko finantza-inbertsioak taldeko erakundetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» IV epigrafean; hartarako, «Epe luzera egindako inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 25 azpitaldeko kontuetatik, epe motzera mugaeguneratu edo ezeztatuko diren epe luzeko inbertsioen zenbatekoa azpitalde honetara pasatuko da.

530. Epe motzeko partaidetzak taldeko erakundeetan.

Taldeko erakundeen ondare garbiaren gaineko eskubideetako inbertsioak, urtebetean edo epe motzagoan amaituko direnak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen mugimendu hau dago:

5300. Zuzenbide publikoko entitateetan

a) «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian abonatuta zordunduko da, partaidetza amaitzea erabakitzen denean epe motzera intsuldatzeagatik.

b) Abonatuko da:

b.1) Ekarpenen itzulketengatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Mendeko erakunde publikoen atxikipenean emandako ondasunak itzultzeagatik, ondasunaren kontu egokian zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, itzulitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta partaidetzaren kontabilitateko balioaren aldearen zenbatekoan, zeinuaren arabera.

5301. Merkataritza-sozietateetan

a) «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian abonatuta zordunduko da, partaidetza amaitzea erabakitzen denean epe motzera intsuldatzeagatik.

b) Abonatuko da:

b.1) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarren dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, hala egokituz gero, «Taldeko eta talde anitzeko entitateetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak» 539 kontuan. '.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Atxikipenean emandako ondasunak itzultzeagatik, ondasunaren kontu egokian zordunduta.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, itzulitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta partaidetzaren kontabilitateko balioaren aldearen zenbatekoan, zeinuaren arabera.

b.3) Taldeko eta talde anitzeko erakunde bateko eta elkartu bateko partaidetzak kalifikazio hau galtzen duenean, «Epe motzeko finantza-inbertsioak ondare-tresnetan» 540 kontuan zordunduta, arrazoizko balioan. Era berean, arrazoizko balioaren eta kontabilitateko balioaren aldeagatik, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontua zordunduko da, edo «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontua abonatuko da, zeinuaren arabera.

b.4) Narriadura-zenbatekoagatik taldeko erakunde, talde anitz eta elkartu izan aurretiko ondare garbian erregistratutako balio-hazkundeen mugara arte, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetza-narriadura» 891 kontuan zordunduta.

5302. Beste erakunde batzuetan

a) «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko sail-kontu egokian abonatuta zordunduko da, partaidetza amaitzea erabakitzen denean epe motzera intsuldatzeagatik.

b) Ekarpenen itzulketengatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

531. Epe motzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan.

Talde anitzeko erakundeen eta elkartuen ondare garbiaren gaineko eskubideetan egindako inbertsioak, haiek iraungitzeko esperotako data urtebetetik gorakoa ez izanda.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen mugimendu hau dago:

5310. Zuzenbide publikoko entitateetan

a) «Epe luzeko partaidetzak taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian abonatuta zordunduko da, partaidetza amaitzea erabakitzen denean epe motzera intsuldatzeagatik.

b) Abonatuko da:

b.1) Ekarpenen itzulketengatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. ' Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako,

talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Atxikipenean emandako ondasunak itzultzeagatik, ondasunaren kontu egokian zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, itzulitako ondasunaren arrazoizko balioaren eta partaidetzaren kontabilitateko balioaren aldearen zenbatekoan, zeinuaren arabera.

5311. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan

a) «Epe luzeko partaidetzak taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian abonatuta zordunduko da, partaidetza amaitzea erabakitzen denean epe motzera intsuldatzeagatik.

b) Abonatuko da:

b.1) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarren dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, hala egokituz gero, «Taldeko eta talde anitzeko entitateetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak» 539 kontuan.

Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

b.2) Taldeko eta talde anitzeko erakunde bateko eta erakunde elkartu bateko partaidetzak kalifikazio hau galtzen duenean, «Epe motzeko inbertsioak ondare-tresna salgarrietan» 5400 azpikontuan zordunduta, arrazoizko balioan. Era berean, arrazoizko balioaren eta kontabilitateko balioaren aldeagatik, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontua zordunduko da, edo «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontua abonatuko da, zeinuaren arabera.

b.3) Narriadura-zenbatekoagatik taldeko erakunde, talde anitz eta elkartu izan aurretiko ondare garbian erregistratutako balio-hazkundeen mugara arte, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetza-narriadura» 891 kontuan zordunduta.

5312. Beste erakunde batzuetan

a) «Epe luzeko partaidetzak taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko sail-kontu egokian abonatuta zordunduko da, partaidetza amaitzea erabakitzen denean epe motzera intsuldatzeagatik.

b) Ekarpenen itzulketengatik abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak» 6660 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan» 7660 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

532. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

Taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek jaulkitako obligazioetan, bonuetan edo zorra adierazten duten bestelako balioetan egindako inbertsioak, indizeen edo antzeko sistemen arabera errendimendua finkatzen dutenak barne, baldin eta epemuga edo likidazio-aurreikuspena urtebetean edo epe motzagoan badute.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5320. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak.

Mugaegunera arte mantendutako inbertsioen kategorian sailkatu diren eta urtebetean baino gehiagoan mugaeguneratzea edo inorenganatzea espero ez diren zorraren balore adierazgarrietan egindako inbertsioak jasotzen ditu.

a) Zordunduko da:

   a.1) Harpidetzean edo erostean, emandako kontraprestazioarekin, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.3) Epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 7631 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

   a.4) Salgarri kategoriatik birsailkatzeagatik, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeen edo elkartuen epe motzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak» 2521 azpikontuan abonatuta.

   a.5) Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategoriatik birsailkatzeagatik, «Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten baloreak, arrazoizko balioan, emaitzetan aldaketak izanda» 5322 azpikontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

   b.1) Baloreen amortizazioagatik, inorenganatzeagatik edo aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Era berean, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreetan izandako galerak» 6661 azpikontuan zordunduko da, edo «Mozkinak taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreetan» 7661 azpikontuan abonatuko, eragiketak sor ditzakeen emaitza negatiboak edo positiboak gorabehera.

   b.2) Salgarri kategoriara birsailkatzeagatik, «Taldean eta talde anitzean dauden erakundeen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak» 5321 azpikontuan zordunduta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, inbertsioaren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

5321. Taldean eta talde anitzean dauden erakundeen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

Beste kategoria batzuetan sailkatuta ez dauden zorra adierazten duten baloreetako inbertsioak jasotzen ditu, baldin eta epemuga edo inorenganatze-data aurreikusia gehienez urtebetekoa bada.

a) Zordunduko da:

   a.1) Harpidetzean edo erostean, emandako kontraprestazioarekin, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.3) Epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 7631 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

   a.4) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriatik birsailkatzeagatik, «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak irudikatzen dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak» 5320 azpikontuan abonatuta.

   Era berean, baloreen arrazoizko balioaren eta kostu amortizatuaren aldeagatik, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontua zordunduko da, edo «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontua abonatuko da, zeinuaren arabera.

   a.5) Balioaren narriadura erregistratzeko garaian, ondare garbiari aldez aurretik egotzitako arrazoizko balioaren aldakuntza negatiboen zenbatekoan, «Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea» 902 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

   b.1) Baloreen amortizazioagatik, inorenganatzeagatik edo aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

   b.2) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriatik birsailkatzeagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak» 5320 azpikontuan zordunduta.

c) Kargatu edo abonatuko da bere arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbatekoan, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan, eta «Galerak aktibo finantzario salgarrietan» 800 kontuan, abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, kostu amortizatuari lotutako kanbio-aldeei dagokien zatia izan ezik, «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan erregistratuko baita, edo «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, emaitzaren arabera, eta sortutako interesei dagokien zatia izan ezik.

5322. Emaitzetan aldaketak dituen arrazoizko balioko zorra adierazten duten baloreak.

Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategorian sailkatuta dauden inbertsioetatik, zorra adierazten duten baloreetan egiten direnak jasotzen ditu.

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, emandako kontraprestazioarekin, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 7631 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Abonatuko da:

b.1) Normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, baloreak inorenganatzeagatik edo amortizatzeagatik.

b.2) «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak» kategoriara birsailkatzeagatik, «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak» 5320 azpikontuan zordunduta.

c) Kargatu edo abonatuko da, bere arrazoizko balioaren aldakuntzengatik, «Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioetan» 7640 kontuan, eta «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-tresnetan izandako galerak» 6640 kontuan, abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, kostu amortizatuari lotutako kanbio-aldeei dagokien zatia izan ezik, «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan erregistratuko baita, edo «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, emaitzaren arabera, eta sortutako interesei dagokien zatia izan ezik.

533. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe motzeko kredituak.

Maileguetan eta beste kreditu batzuetan egindako epe motzeko inbertsioak, «Hartzekodunak eta zordunak» 4 taldean egon behar dutenak ez bezalakoak, ibilgetua inorenganatzetik eratorritakoak barne, taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emanak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

a.1) Kreditua formalizatzean, haren zenbatekoarekin, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo ibilgetu-kontu egokietan, ibilgetua inorenganatzeak eragindako kredituen kasuan.

Gainera, diruz lagundutako interesekin emandako kredituei dagokienez, kontu hau «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta abonatuko da, emandako zenbatekoaren eta kredituaren arrazoizko balioaren arteko aldearekin, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauaren irizpideekin bat etorriz.

a.2) Zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen sarrerak» 7632 azpikontuan abonatuta, epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Mugaeguneratzean edo itzulketa osoa edo partziala egitean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, bai eta, kaudimen gabeziengatik galerak izanez gero, «Kreditu kobraezinen

galerak. Taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 6670 azpikontuan zordunduta ere.

535. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe motzeko interesak.

Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituetatik eta zorra adierazten duten baloreetatik kobratu beharreko interesak, gehienez urtebeteko epemuga dutenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baloreak harpidetzean edo erostean, urtebetetik gorako epemuga ez duten sortutako eta mugaeguneratu gabeko interesen zenbatekoan.

   a.2) «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 7631 azpikontuan, edo «Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen sarrerak» 7632 azpikontuan, zer dagokion, sortutako eta mugaeguneratu gabeko interesengatik, ekitaldiaren amaieran eta aurretiko ezeztapenean.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta abonatuko da, epemugan edo interesak kobratzean, eta baloreak edo kreditua inorenganatzean edo baja ematean, zer dagokion.

Aldi berean, «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontua abonatuko da, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontua zordunduko da, ordura arte izandako kanbio-diferentziekin.

536. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen kobratu beharreko dibidendua.

Dibidenduen kredituak, behin betikoak edo aurreratuak, kobratu gabe daudenak, zeinen banaketa dagozkion taldeko erakundeak, talde anitzak edo elkartuak hitzartu baitu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baloreak harpidetzean edo erostean, erabakitako eta mugaeguneratu gabeko dibidenduen zenbatekoan.

   a.2) «Ondare garbiko partaidetzen sarrerak» 760 kontuan, sortutako zenbatekoarekin.

b) Dibidenduak banatzeko aldia hastean abonatuko da, edo haiek kobratzean, «Zordunak aintzatetsitako eskubideengatik. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

537. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako fidantzak.

Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako dirua, obligazio bat betetzeko berme gisa, urtebete baino gehiagoko epera.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo

«Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan fidantza baliogabetzean, egokia denaren arabera.

b.2) «Ezohiko gastuak» 678 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean.

538. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako gordailuak.

Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako dirua, gordailu irregularraren kontzeptuan, urtebetera edo epe motzagora.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta abonatuko da, ezeztatzean, egokia denaren arabera.

539. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak.

Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan ondare garbiko partaidetzetatik egiteko dauden ordainketak, eskatu gabeak, epe motzeko finantza-inbertsioetakoak direnean.

Balantzeko aktibo korrontean azalduko da, partaidetza horiek kontabilizatuta dauden partida txikiagotuz.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Eskatzen diren ordainketengatik zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua. Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 4002 azpikontuan abonatuta, edo «Epe motzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 530 kontuko edo «Epe motzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 531 kontuko sail-kontu egokian abonatuta, kitatu gabeko saldoekin, guztiz ordaindu ez diren partaidetzak inorenganatzen direnean.

54. Epe motzeko beste inbertsio finantzario batzuk.

540. Epe motzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan.

5400. Epe motzeko inbertsioak ondare-tresna salgarrietan.

5401. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko ondare-tresnetako inbertsioak.

541. Epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

5410. Epemugara arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

5411. Epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

5412. Emaitzetan aldaketak dituen arrazoizko balioko zorra adierazten duten baloreak.

542. Epe motzeko kredituak.

5420. Ibilgetua inorenganatzeagatik epe motzeko kredituak.

5429. Epe motzeko bestelako kredituak.

543. Epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

5430. Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

5431. Epe motzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak.

5436. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

5437. Bestelako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

544. Langileei emandako epe motzeko kredituak.

545. Kobratu beharreko dibidendua.

546. Zorra adierazten duten baloreen epe motzeko interesak.

547. Kredituen epe motzeko interesak.

548. Epe motzeko ezarpenak.

549. Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak.

5490. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioenak.

5491. Aktibo finantzario salgarrienak.

Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin zerikusirik ez duten inbertsio finantzarioak, edozein tresnatan gauzatuak, epemuga edo inorenganatze aurreikusia gehienez urtebetekoa dutenak, «Diruaren baliokide diren aktibo likidoak» 577 kontuan jaso beharrekoak izan ezik.

Azpitalde honetako kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Epe motzeko finantza-inbertsioak» V epigrafean.

Epe luzeko inbertsioetatik epemuga edo inorenganatze aurreikusia gehienez urtebetekoa dutenak balantzeko aktiboan azalduko dira, «Epe motzeko finantza-inbertsioak» V epigrafean; hartarako, «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitaldeko kontuetatik, azpitalde honetara pasatuko da epe motzean epemuga edo inorenganatzea duten epe luzeko inbertsioen zenbatekoa.

540. Epe motzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan .

Inbertsioak merkataritzako sozietateen ondare garbiaren gaineko eskubideetan, merkatu erregulatu batean kotizatutako edo kotizatu gabeko akzioetan edo bestelako balioetan; baldin eta, urtebete baino lehenago inorenganatzea edo iraungitzea aurreikusten bada.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5400. Epe motzeko inbertsioak ondare-tresna salgarrietan .

Aktibo finantzario salgarrien kategorian sailkatuta dauden eta gehienez ere urtebeteko epean inorenganatzea edo iraungitzea espero den ondare-tresnetan egindako inbertsioak jasotzen ditu.

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, eta hala badagokio, «Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak» 549 kontuan.

a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Partaidetza inorenganatzea erabakitzen denean, «Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan» 260 kontuan abonatuta, epe motzera pasatzeagatik.

a.4) Narriadura-itzulketarekin, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboan baja emateagatik, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, egin gabeko ordainketak badaude, «Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak» 549 kontuan zordunduta.

Gainera, kostuan balioetsitako partaidetzak egonez gero, «Kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan izandako galerak» 6651 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan» 7651 azpikontua abonatuko da, eragiketak sor ditzakeen emaitzak gorabehera.

b.2) Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoarekin, «Zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako partaidetzen narriadura-galerak» 6963 azpikontuan zordunduta.

c) Ekitaldi-amaieran eta kitatzean arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbatekoan zordundu edo abonatuko da, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan, eta «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontuan, abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren.

5401. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko ondare-tresnetako inbertsioak.

Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategorian sailkatuta dauden inbertsioetatik, ondare-tresnetan egindakoak jasotzen ditu.

a) Harpidetzean edo erostean zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, eta hala badagokio, «Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak» 549 kontuan.

b) Arrazoizko balioko aldakuntzengatik zordundu edo abonatuko da, «Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioetan» 7640 azpikontuan, eta «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-tresnetan izandako galerak» 6640 azpikontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren.

c) Inorenganatzeengatik eta, oro har, aktiboaren bajagatik abonatuko da «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, eta, egin gabeko ordainketak badaude, «Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak» 549 kontuan zordunduta.

541. Epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

Inbertsioak obligazioetan, bonuetan edo zorra adierazten duten bestelako balioetan, indizeen edo antzeko sistemen arabera errendimendua finkatzen dutenak barne, baldin eta epemuga edo inorenganatzeko data gehienez urtebetekoa badute.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5410. Epemugara arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak.

Mugaegunera arte mantendutako inbertsioen kategorian sailkatu diren eta urtebetean baino gehiagoan mugaeguneratzea edo inorenganatzea espero ez diren zorraren balore adierazgarrietan egindako inbertsioak jasotzen ditu.

a) Zordunduko da:

   a.1) Harpidetzean edo erostean, emandako kontraprestazioarekin, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

   a.3) Epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

   a.4) Salgarri kategoriatik birsailkatzeagatik, «Epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak» 2611 azpikontuan abonatuta.

   a.5) Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategoriatik birsailkatzeagatik, «Emaitzetan aldaketak dituen arrazoizko balioko zorra adierazten duten baloreak» 5412 azpikontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

   b.1) Baloreen amortizazioagatik, inorenganatzeagatik edo aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta. Aldi berean, «Kostu amortizatuko inbertsio finantzarioetan izandako galerak» 6650 azpikontua zordunduko da, edo «Mozkinak kostu amortizatuko inbertsio finantzarioetan» 7650 azpikontuan abonatuko da, eragiketak ekar ditzakeen emaitza negatiboen edo positiboen arabera, hurrenez hurren.

   b.2) Salgarri kategoriara birsailkatzeagatik, «Epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak» 2611 azpikontuan zordunduta.

c) Zordundu edo abonatuko da «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, inbertsioaren balioa ekitaldia ixteko edo kitatzeko egunean indarrean dagoen aldaketa-tasaren arabera doitzearen ondorioz.

5411. Epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak.

Beste kategoria batzuetan sailkatuta ez dauden zorra adierazten duten baloreetako inbertsioak jasotzen ditu, baldin eta epemuga edo inorenganatze-data aurreikusia gehienez urtebetekoa bada.

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, emandako kontraprestazioarekin, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Harpidetzari edo erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuengatik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

a.4) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriatik birsailkatzeagatik, «Mugaegunera arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak» 5410 azpikontuan abonatuta.

Era berean, baloreen arrazoizko balioaren eta kostu amortizatuaren aldeagatik, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 800 kontua zordunduko da, edo «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontua abonatuko da, zeinuaren arabera.

a.5) Balioaren narriadura erregistratzeko garaian, ondare garbiari aldez aurretik egotzitako arrazoizko balioaren aldakuntza negatiboen zenbatekoan, «Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea» 902 kontuan abonatuta.

b) Abonatuko da:

b.1) Baloreen amortizazioagatik, inorenganatzeagatik edo aktiboan baja emateagatik, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b.2) Mugaegunera arte mantendutako inbertsio kategoriara birsailkatzeagatik, «Mugaegunera arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak» 5410 azpikontuan zordunduta.

c) Kargatu edo abonatuko da bere arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbatekoan, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 900 kontuan, eta «Galerak aktibo finantzario salgarrietan» 800 kontuan, abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, kostu amortizatuari lotutako kanbio-aldeei dagokien zatia izan ezik, «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan erregistratuko baita, edo «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, emaitzaren arabera, eta sortutako interesei dagokien zatia izan ezik.

5412. Emaitzetan aldaketak dituen arrazoizko balioko zorra adierazten duten baloreak.

Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategorian sailkatuta dauden inbertsioetatik, zorra adierazten duten baloreetan egiten direnak jasotzen ditu.

a) Zordunduko da:

a.1) Harpidetzean edo erostean, emandako kontraprestazioarekin, sortutako baina mugaeguneratu gabeko interesak kenduta, normalean «Hartzekodunak aintzatetsitako obligazioengatik. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.2) Epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Zorra adierazten duten balioen sarrerak» 761 kontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Abonatuko da:

b.1) Normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, baloreak inorenganatzeagatik edo amortizatzeagatik.

b.2) «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak» kategoriara birsailkatzeagatik, «Mugaegunera arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak» 5410 azpikontuan zordunduta.

c) Kargatu edo abonatuko da, bere arrazoizko balioaren aldakuntzengatik, «Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioetan» 7640 kontuan, eta «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-tresnetan izandako galerak» 6640 kontuan, abonatuta edo zordunduta, hurrenez hurren, kostu amortizatuari lotutako kanbio-aldeei dagokien zatia izan ezik, «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontuan erregistratuko baita, edo «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontuan, emaitzaren arabera, eta sortutako interesei dagokien zatia izan ezik.

542. Epe motzeko kredituak.

Hirugarrenei emandako maileguak eta beste kreditu batzuk, urtebeteko epemuga edo motzagoa dutenak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

a.1) Kreditua formalizatzean, haren zenbatekoan, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo kasuan kasuko ibilgetu-kontuetan, kredituek «Ibilgetua inorenganatzeagatik epe motzeko kredituak» 5420 azpikontuan agertu behar badute.

Gainera, diruz lagundutako interesekin emandako kredituei dagokienez, kontu hau «Diru-laguntzak» 651 kontuan zordunduta abonatuko da, emandako zenbatekoaren eta kredituaren arrazoizko balioaren arteko aldearekin, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauaren irizpideekin bat etorriz.

a.2) Zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

a.3) Epemugako errenboltso-balioaren eta inbertsioaren hasierako balioaren artean sortutako aldea egozteagatik, «Kredituen sarrerak» 7620 azpikontuan abonatuta. Aipatutako aldea negatiboa denean alderantzizko idazpena egongo da.

b) Mugaeguneratzean edo itzulketa osoa edo partziala egitean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo, kaudimen gabeziengatik galerak izanez gero, «Kreditu kobraezinen galerak. Beste erakunde batzuekin» 6671 azpikontuan zordunduta.

543. Epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

Erakundearentzat aldeko balioespena duten deribatu finantzarioekin egindako eragiketen zenbatekoa, epemuga edo likidatzeko aurreikusitako eguna urtebete edo motzagoa denean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5430. Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak.

Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioen balioespena jasotzen du, erakundearentzako aldekoa dena.

a) Kontratatzean ordaindutako zenbatekoekin zordunduko da, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta, edo «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

b) Likidatzeko unean jasotako zenbatekoan abonatuko da, horrelakorik badago, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, edo «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

c) Arrazoizko balioaren aldaketen zenbatekoan zordundu edo abonatuko da, «Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan» 7645 azpikontuan, eta «Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6645 azpikontuan, zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren, baldin eta «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, deribatua arrazoizko balioan balioetsi behar denean, eta aipatutako aldakuntza ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotzi behar denean.

d) «Estaldurengatiko mozkinak» 910 kontuan, edo «Estaldurengatiko galerak» 810 kontuan, abonatuta edo zordunduta, zordundu edo abonatuko da, hurrenez hurren, estaldura eraginkortzat jotako tresna deribatuaren arrazoizko balioaren aldakuntzarekin, deribatua arrazoizko balioan balioetsi behar denean, eta aipatutako aldakuntza ondorengo ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partidaren hasierako baliora egotzi behar denean.

5431. Epe motzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak.

Estalduren kontabilitatea aplikatzen ez zaien deribatu finantzarioen balioespena jasotzen du, erakundearentzako aldekoa dena.

a) Kontratatzean ordaindutako zenbatekoekin zordunduko da, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta, edo «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

b) Likidatzeko unean jasotako zenbatekoan abonatuko da, horrelakorik badago, normalean «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, edo «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

c) Arrazoizko bere balioaren aldakuntzengatik abonatu edo zordunduko da, «Mozkinak beste deribatu finantzario batzuetan» 7646 azpikontuan, eta «Beste deribatu finantzario batzuetan izandako galerak» 6646 azpikontuan zordunduta edo abonatuta, hurrenez hurren.

5436. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen eragiketengatik epe motzera kobratu beharreko interesak.

a) Zordunduko da, ekitaldian zehar sortutako zenbatekoarekin, «Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen sarrerak» 7628 azpikontuan abonatuta.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta abonatuko da, epemugan edo interesak kobratzean.

5437. Bestelako truke finantzarioen epe motzeko interesak.

Bere mugimendua «Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen epe motzeko interesak» 5436 azpikontuarenaren antzekoa da, kontrakontu gisa «Kredituen sarrerak» 7620 azpikontua erabilita, «Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen sarrerak» 7628 azpikontuaren ordez.

544. Langileei emandako epe motzeko kredituak.

Erakundeko langileei emandako kredituak, urtebeteko epemuga edo motzagoa dutenak.

Bere mugimendua «Epe motzeko kredituak» 542 azpikonturako adierazitakoaren antzekoa da.

545. Kobratu beharreko dibidendua.

Dibidenduengatik, behin betikoengatik nahiz «kontura» emandakoengatik, enpresak dituen kredituak, zeinen banaketa dagozkion erakundeak hitzartu baitu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baloreak harpidetzean edo erostean, erabakitako eta mugaeguneratu gabeko dibidenduen zenbatekoan.

   a.2) «Ondare garbiko partaidetzen sarrerak» 760 kontuan, sortutako zenbatekoarekin.

b) Dibidenduak banatzeko aldiaren hasieran abonatuko da, edo haiek kobratzeagatik, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, baloreak harpidetzean edo erostean, erabakitako eta mugaeguneratu gabeko dibidenduen zenbatekoan.

546. Zorra adierazten duten baloreen epe motzeko interesak.

Zorra adierazten duten baloreetatik kobratu beharreko interesak, urtebeteko epemuga edo motzagoa dutenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, baloreak harpidetzean edo erostean, urtebetetik gorako epemuga ez duten sortutako eta mugaeguneratu gabeko interesen zenbatekoan.

   a.2) «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan, sortutako eta mugaeguneratu gabeko interesengatik, ekitaldi amaieran eta aldez aurretik kitatzean.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta abonatuko da, epemugan edo interesak kobratzean, eta baloreak inorenganatzean edo aktiboan baja ematean.

Aldi berean, «Kanbio-diferentzia positiboak» 768 kontua abonatuko da, edo «Kanbio-diferentzia negatiboak» 668 kontua zordunduko da, ordura arte izandako kanbio-diferentziekin.

547. Kredituen epe motzeko interesak.

Kredituen kobratu beharreko interesak, urtebeteko epemuga edo motzagoa dutenak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Sortutako eta mugaeguneratu gabeko interesen zenbatekoarekin zordunduko da, ekitaldi-amaieran eta aldez aurretik baliogabetzean, «Kredituen sarrerak» 7620 azpikontuan abonatuta.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta abonatuko da, epemugan edo interesak kobratzean, eta kreditua itzultzean edo aktiboan baja ematean.

548. Epe motzeko ezarpenak.

Saldoak bankuetan eta kreditu-erakundeetan, «eperako kontu»etan edo antzekoetan gauzatuta, urtebeteko epemuga edo motzagoa dutenak. Azpikontuetan behar bezala garatuta, eperako ezarpenetan kobratu beharreko interesak ere jasoko dira, urtebeteko epemuga edo motzagoa badute.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, formalizatzen denean.

a.2) «Kredituen sarrerak» 7620 kontuan, sortutako interesen zenbatekoan.

b) Ezarpena ezeztatzean abonatuko da, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

549. Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak.

Merkataritza-sozietateen ondare garbiko partaidetzetatik egin gabeko ordainketak, eskatu gabeak, epe motzeko finantza-inbertsioak direnean.

Balantzeko aktibo korrontean azalduko da, partaidetza horiek kontabilizatuta dauden partida txikiagotuz.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Partaidetzak eskuratzean edo harpidetzean abonatuko da, ordaintzea falta den zenbatekoarekin, «Epe motzeko finantza-inbertsioak ondare-tresnetan» 540 kontuko sail-kontu egokian zordunduta.

b) Eskatzen diren ordainketengatik zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Epe motzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan» 540 kontuko sail-kontu egokian abonatuta, kitatu gabe dauden saldoengatik, guztiz ordaindu gabeko partaidetzak inorenganatzen direnean.

55. Bestelako kontu finantzarioak.

550. Kontu korronte ez-bankarioak.

5500. Kontu korronte ez-bankarioak erakunde publikoekin, baliabideak administratzeagatik.

5509. Bestelako kontu korronte ez-bankarioak.

554. Aplikatzeko dauden kobrantzak.

555. Aplikatzeko dauden ordainketak.

556. Diruzaintzako barne-mugimenduak.

557. Formalizazioa.

558. Funtsen hornidura justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako.

5580. Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurak.

5581. Justifikatu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-hornidurak.

5584. Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak.

5585. Libramenduak, ordaindu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko.

5586. Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurekin egindako gastuak.

559. Aplikatzeko dauden beste partida batzuk.

Beste azpitalde batzuetan sailkatzen ez diren beste kontu finantzario batzuk jasotzen ditu.

550. Kontu korronte ez-bankarioak.

«Hartzekodunak eta zordunak» 4 taldean egon behar duten eta banku, bankari, kreditu-erakunde zordun edo hartzekodun ez diren pertsona natural edo juridikoekin izandako kontu korronteak.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean, kontu korronte zordunen saldoak batuta, eta balantzeko pasibo korrontean, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean, kontu korronte hartzekodunen saldoak batuta.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Honako hauek dira biltzen dituen azpikontuen edukia eta mugimendua.

5500. Kontu korronte ez-bankarioak erakunde publikoekin, baliabideak administratzeagatik.

Erakundearenak diren baliabideak kudeatzen dituzten erakunde publikoekiko kontu korronteak.

Kontu honen bidez, baliabideen jabe den erakundean, haiek kudeatzen dituzten erakunde publikoetatik jasotzen diren baliabideen bilketaren konturako entregak adieraziko dira, hala nola, bilketa horri lotuta, aldian behin egiten den behin betiko likidazioa.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta abonatuko da, jasotzen diren konturako entregengatik. Idazpen hori bera egingo da beste erakunde publiko batek kudeatutako baliabideen behin betiko likidazioa egitean erakundearen alde ateratzen den saldoa kobratzeagatik, konturako entregak bilketaren zenbateko osoa baino txikiagoak direlako.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Erakunde publiko zordunak baliabideak biltzeagatik» 4420 kontuan, beste erakunde publiko batek kudeatutako baliabideen behin betiko likidazioa egitean, benetan bildutakoaren zenbatekoan.

b.2) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, ordainketa egokia egiten denean, beste erakunde publiko batek kudeatutako baliabideen behin betiko likidaziotik ateratzen den konturako entregen zenbatekoa handiagoa bada benetan bildutakoa baino, eta, horrenbestez, sobera jasotako zenbatekoa itzuli behar bada.

Azpikontu hori beste erakunde publiko batek administratzen dituen baliabideen jabe diren erakundeek baino ez dute erabiliko, betiere erakunde hark behar den informazio guztia ematen badio baliabideen erakunde jabeari, baliabide horien kudeaketaren ondoriozko eragiketa guztiak behar bezala adieraz ditzan bere kontabilitatean, eta aurrekontuan jaso, hori egin behar denean. Horretarako, b.1) idatz-zatian aipatutako idazpena egitean, oinarritzat hartuko da baliabideen erakunde publiko kudeatzaileak bildutako baliabideen behin betiko likidazioaz emandako informazioa.

5509. Bestelako kontu korronte ez-bankarioak.

Aurreko azpikontuan jasotzen direnak ez bezalako kontu korronte ez-bankarioak.

Erakundeak egindako funts-sorta edo -entregengatik zordunduko da, eta erakundearen aldeko funts-hartzeengatik abonatuko, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta eta zordunduta, hurrenez hurren.

554. Aplikatzeko dauden kobrantzak.

Erakundean sortzen diren eta, behin-behineko aplikazio hau behin betiko aplikazioaren aurreko izapidea delako, behin betiko azalpenetan aplikagarri ez diren kobrantzak jasotzen dituen kontu hartzekoduna.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Hauetan zordunduta abonatuko da:

a.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, kobrantzak egiteagatik.

a.2) «Beste zordun batzuk bilketa-zerbitzuarengatik» 442 kontuan, kobratzeaz arduratutako erakundeek egindako kobrantzengatik, kontabilizazioa funtsak jaso baino lehen egiten denean, erabakitako kudeaketa-prozeduren arabera.

b) Kobrantzaren izaeraren arabera egokia den kontuan abonatuta zordunduko da.

555. Aplikatzeko dauden ordainketak.

Kontu zordun honek erakundeak egindako ordainketak biltzen ditu, jatorria, salbuespen gisa, ezezaguna denean, eta oro har, behin betiko aplikatu ezin diren guztiak.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Egindako ordainketekin «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da.

b) Ordainketa behin betiko aplikazioagatik abonatuko da, aipatutako informazioa lortzen denean, egotzi beharreko kontuan zordunduta.

556. Diruzaintzako barne-mugimenduak.

Kontabilitatearen xede den erakundearen diruzaintzako kontuen arteko funts-mugimenduak jasotzen ditu.

Balantzeko aktibo korrontean azalduko da, «Dirua eta bestelako aktibo likido baliokideak» VII epigrafean.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpikontuko dagokion kontuan abonatuta zordunduko da, diruzaintzako funtsen irteeragatik.

b) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpikontuko dagokion kontuan zordunduta abonatuko da, diruzaintzako beste kontu batzuetatik datozen funtsen sarreragatik.

Oharra: Aukerakoa da kontu hori erabiltzea.

557. Formalizazioa.

Diruaren benetako mugimendurik egon gabe berdintzen diren kobrantzak eta ordainketak jasotzen dituen kontua.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Izaera horretako kobrantzekin zordunduko da, kobrantzak sorrarazten dituen eragiketaren izaeraren arabera, aldiko egokia den kontrakontuan abonatuta.

b) Izaera horretako kobrantzekin abonatuko da, ordainketak sorrarazten dituen eragiketaren izaeraren arabera, aldiko egokia den kontrakontuan abonatuta.

Saldoa beti zero izango da.

Oharra: Aukerakoa da kontu hori erabiltzea.

558. Funtsen hornidura justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako.

Justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako libratutako funtsen egoera eta mugimenduak jasotzen ditu, kontabilitate-erakundean organikoki txertatutako kutxazain ordaintzaileen alde.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Zordunak eta epe motzean kobratu beharreko beste kontu batzuk» III epigrafean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5580. Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurak.

Justifikatu beharreko ordainketetarako funtsak jasotzen ditu, haiek erabiliak izan badira, eta onartu gabe badute justifikazioko kontu egokia.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Egindako ordainketengatik zordunduko da, «Kutxa. Justifikatu beharreko ordainketak» 5740 azpikontuan abonatuta, edo, bestela, «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Justifikatu beharreko ordainketak» 5750 azpikontuan, zer dagokion.

b) Justifikazioko kontua onartu ondoren, egindako gastua adierazten duen kontuan zordunduta abonatuko da, edo «Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurekin egindako gastuak» 5586 azpikontuan, aintzatetsita dauden gastuen kasuan.

Bere saldo zordunak justifikazioko kontua onartu gabe duten justifikatu beharreko funts libratuekin egindako ordainketen zenbatekoa jasotzen du.

5581. Justifikatu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-hornidurak.

Erabilitako eta oraindik justifikatu gabeko kutxa finkoko aurrerakineko funtsen zenbatekoa jasotzen du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Egindako ordainketengatik zordunduko da, «Kutxa. Kutxa finkoko aurrerakinak» 5741 azpikontuan edo «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kutxa finkoko aurrerakinak» 5751 azpikontuan abonatuta, zer dagokion.

b) Kutxa finkoko aurrerakina birjartzean abonatuko da, egindako gastua adierazten duen kontuan zordunduta, edo «Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak» 413 kontuan, jadanik aintzatetsitako gastuen kasuan.

Saldo zordunak justifikatu gabe dauden eta kutxa finkoko aurrerakinean zordunduta egin diren ordainketen zenbatekoa jasotzen du.

5584. Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak.

Ordaindu gabe dauden justifikatu beharreko funtsen aurrekontu-libramenduak jasotzen ditu, hala nola aurrekontuan aplikatu gabe dauden eta justifikatu beharrekoak diren emandako zenbatekoen itzulketak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   a.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, justifikatu beharreko ordainketa gisa funtsak libratzeari dagokion ordainketa-proposamena izapidetzeagatik.

   Aurreko idazpenak zeinu negatiboa izango du justifikatu beharreko funts libratuen hartzaileek justifikatu edo inbertitu ez dituzten zenbatekoen itzulketengatik, gastuen aurrekontuan aplikatzen direnean.

   a.2) «Kutxa. Justifikatu beharreko ordainketak» 5740 azpikontuan edo «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Justifikatu beharreko ordainketak» 5750 azpikontuan, zer dagokion, justifikatu beharreko funts libratuen hartzaileek inbertitu edo justifikatu gabeko zenbatekoen itzulketagatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Kutxa. Justifikatu beharreko ordainketak» 5740 azpikontuan edo «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Justifikatu beharreko ordainketak» 5750 azpikontuan, zer dagokion, justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduetatik datozen funtsak kutxan edo ordainketa-kontu murriztuan jasotzean.

b.2) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, sail-kontuen bidez, justifikatu beharreko funts libratuen hartzaileek inbertitu edo justifikatu gabeko zenbatekoen itzulketengatik, sarreren aurrekontuan aplikatzen direnean.

Saldo zordunak justifikatu beharreko funts-horniduretarako libramenduen zenbatekoa jasotzen du, baldin eta haiek gauzatu ez badira eta, horrenbestez, ez badira sartu ordainketen kontu korronte murriztuan, bai eta aurrekontuan aplikatu gabe dauden justifikatu beharreko funts libratuen hartzaileek egindako itzulketen zenbatekoa ere.

5585. Libramenduak, ordaindu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko.

Ordaindu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko egindako libramenduak jasotzen ditu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta zordunduko da, kutxa finkoko aurrerakina birjartzeko libramenduei dagokien ordainketa-proposamena izapidetzeagatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Kutxa. Kutxa finkoko aurrerakinak» 5741 azpikontuan edo «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kutxa finkoko aurrerakinak» 5751 azpikontuan, zer dagokion, kutxa finkoko aurrerakinen birjarpenetatik datozen funtsak kutxan edo ordainketa-kontu murriztuan jasotzean.

b.2) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, kutxa finkoko aurrerakina ezeztatzeagatik.

Saldo zordunak kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko egindako libramenduen zenbatekoa jasotzen du, baldin eta ez badira gauzatu eta, horrenbestez, ez badira sartu kutxan edo ordainketen kontu murriztuan.

5586. Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurekin egindako gastuak.

Justifikatu beharrekoak diren funts libratuen hartzaileek egindako gastuak eta beste erosketa batzuk jasotzen ditu, ekitaldiaren amaieran justifikatu gabe badaude.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldiaren amaieran onartu gabe dauden egindako gastuengatik abonatuko da, «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6 taldeko kontuetan edo egindako aurrekontu-gastua adierazten duten balantzekoetan zordunduta,

b) «Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurak» 5580 azpikontuan abonatuta zordunduko da, justifikazioko kontua onartu ondoren.

Saldoak, hartzekoduna bera, justifikatu beharreko libramenduen kontura egindako gastuak jasotzen ditu, haien justifikazioko kontua onartu gabe badago.

559. Aplikatzeko dauden beste partida batzuk.

Kontu honek kobrantzak jasotzen ditu jatorria eta aurrekontuzkoak diren edo ez ezagutzen ez denean, bai eta, aurreko arrazoiez bestelakoak direla, beste kontu batzuetan behin betiko aplikatu ez direnak ere.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Hartzekodunak eta epe motzean ordaindu beharreko bestelako kontuak» IV epigrafean.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuan edo «Aplikatzeko dauden kobrantzak» 554 kontuan zordunduta abonatuko da, kobrantzak -zeintzuen aplikazioa ez baita ezagutzen- direla-eta egokia denaren arabera.

b) Informazio hori lortu behar de unean kobrantza egotzi beharreko kontuan abonatuta zordunduko da, horren behin betiko aplikazioagatik.

56. Epe motzera jasotako eta eratutako fidantzak eta gordailuak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak.

560. Epe motzera jasotako fidantzak.

561. Epe motzera jasotako gordailuak.

565. Epe motzera eratutako fidantzak.

566. Epe motzera eratutako gordailuak.

567. Aurrez ordaindutako gastu finantzarioak.

568. Aurrez kobratutako sarrera finantzarioak.

Epe luzera jasotako nahiz eratutako fidantza eta gordailuetatik, mugaeguna epe motzera duen zatia balantzeko pasibo edo aktibo korrontean agertuko da; hartarako, «Epe luzera jasotako fidantzak eta gordailuak eta epe luzera periodifikatzeagatiko doikuntzak» 18 azpitaldean eta «Epe luzera eratutako fidantzak eta gordailuak» 27 azpitaldean jasotako kontu egokietatik epemuga epe motzera duten epe luzeko fidantza eta gordailuen zenbatekoa azpitalde honetara pasatuko da.

560. Epe motzera jasotako fidantzak.

Obligazio bat beteko dela bermatzeko, urtebeteko epera edo motzagora jasotako dirua.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Epe motzeko zorrak» II epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   b.1) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, fidantza baliogabetzean, egokia denaren arabera.

   b.2) «Ezohiko sarrerak» 778 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean, edo «Aintzatetsitako eskubideengatiko zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, aplikagarria den araudiak dioenaren arabera.

561. Epe motzera jasotako gordailuak.

Gordailu irregular moduan eta urtebeteko epera edo motzagora jasotako dirua.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Epe motzeko zorrak» II epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan abonatuta zordunduko da, ezeztatzean, egokia denaren arabera.

565. Epe motzera eratutako fidantzak.

Obligazio bat beteko dela bermatzeko, urtebeteko epera edo motzagora emandako dirua.

Balantzeko aktibo korrontean azalduko da, «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» V epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

   b.1) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan fidantza baliogabetzean, egokia denaren arabera.

   b.2) «Ezohiko gastuak» 678 kontuan, fidantzak bermatutako obligazioa ez betetzeagatik fidantzan galera sortzen denean.

566. Epe motzera eratutako gordailuak.

Gordailu irregular moduan emandako dirua, urtebetera edo epe motzagora.

Balantzeko aktibo korrontean azalduko da, «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» V epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Eratzean zordunduko da, emandako zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, aplikagarria den araudiak xedatuaren arabera.

b) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, edo «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan zordunduta abonatuko da, ezeztatzean, egokia denaren arabera.

567. Aurrez ordaindutako gastu finantzarioak.

Erakundeak ordaindutako hurrengo ekitaldiko gastu finantzarioak.

Balantzeko aktibo korrontean agertuko da, «Periodifikatzeagatiko doikuntzak» VI epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, hurrengo ekitaldira egotzi beharreko gastu horiek erregistratuta dauden «Gastu finantzarioak» 66 taldeko kontuetan abonatuta.

b) Hurrengo ekitaldiaren hasieran abonatuko da, 66 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

568. Aurrez kobratutako sarrera finantzarioak.

Erakundeak kobratutako hurrengo ekitaldiko sarrera finantzarioak.

Balantzeko pasibo korrontean agertuko da, «Epe motzera periodifikatzeagatiko doikuntzak» V epigrafean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, hurrengo ekitaldiari egotzi beharreko sarrera finantzarioak erregistratuta dauden «Sarrera finantzarioak» 76 taldeko kontuetan zordunduta.

b) Hurrengo ekitaldiaren hasieran zordunduko da, 76 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

57. Dirua eta aktibo likido baliokideak.

570. Kutxa operatiboa.

571. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kontu operatiboak.

573. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Bilketen kontu murriztuak.

574. Kutxa murriztua.

5740. Kutxa. Justifikatu beharreko ordainketak.

5741. Kutxa. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

575. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Ordainketen kontu murriztuak.

5750. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Justifikatu beharreko ordainketak.

5751. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

5759. Ordainketen beste kontu murriztu batzuk.

577. Diruaren baliokide diren aktibo likidoak.

Azpitalde honen kontuak balantzeko aktibo korrontean azalduko dira, «Dirua eta bestelako aktibo likido baliokideak» VII epigrafean.

570. Kutxa operatiboa.

Baliabide likidoen baliagarritasuna.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Baliabide likidoak sartzean zordunduko da, kobrantza sorrarazi duen eragiketaren izaeraren arabera, aldiko egokia den kontrakontuan abonatuta.

b) Ateratzean abonatuko da, ordainketa sorrarazten duen eragiketaren izaeraren arabera, aldiko egokia den kontrakontuan zordunduta.

571. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kontu operatiboak.

Erakundeak bankuetako eta kreditu-erakundeetako kontu operatiboetan bere alde eta berehala erabiltzeko dauzkan saldoak.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Dirua sartzeagatik edo jasotako transferentziengatik zordunduko da, kobrantza ekarri duen eragiketaren zer-nolakoaren arabera kontrakontu izango diren kontuetan abonatuta.

b) Saldo osoa edo zati bat ateratzen denean abonatuko da, ordainketa ekarri duen eragiketaren zer-nolakoaren arabera kontrakontu izango diren kontuetan zordunduta.

573. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Bilketen kontu murriztuak.

Erakundearen aldeko saldoak bilketen kontu murriztuetan.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Dirua sartzeagatik zordunduko da, kobrantza sorrarazi duen eragiketaren izaeraren arabera, aldiko egokia den kontrakontuan abonatuta.

b) Egindako intsuldaketengatik abonatuko da, azpitalde horretako dagokion kontuan zordunduta.

574. Kutxa murriztua.

Baliatze likidoak justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5740. Kutxa. Justifikatu beharreko ordainketak.

Baliatze likidoak justifikatu beharreko ordainketetarako.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Normalean, «Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak» 5584 azpikontuan abonatuta zordunduko da, justifikatu beharreko eskudiruzko ordainketetarako jasotako funtsengatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurak» 5580 azpikontuan, egindako ordainketengatik.

b.2) «Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak» 5584 azpikontuan, inbertitu edo justifikatu gabeko zenbatekoak itzultzeagatik.

5741. Kutxa. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

Baliatze likidoak kutxa finkoko aurrerakinetarako.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, kutxa finkoko aurrerakina eratzeagatik.

a.2) «Libramenduak, ordaindu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko» 5585 azpikontua, aurrerakina birjartzeagatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Justifikatu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-hornidurak» 5581 azpikontuan, egindako ordainketengatik.

b.2) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, kutxa finkoko aurrerakina ezeztatzean funtsak itzultzeagatik.

575. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Ordainketen kontu murriztuak.

Erakundearen aldeko saldoak justifikatu beharreko ordainketetarako eta kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-horniduren kontu murriztuetan.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

5750. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Justifikatu beharreko ordainketak.

Saldoak erakundearen alde, ordainketen kontu murriztuetan, justifikatu beharreko ordainketak egiteko.

a) «Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak» 5584 azpikontuan abonatuta zordunduko da, justifikatu beharrekoak diren egindako libramenduak direla eta kontu operatibotik datozen funtsen sarrerengatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Justifikatu gabe dauden baina justifikatu beharrekoak diren ordainketetarako funts-hornidurak» 5580 azpikontuan, egindako ordainketengatik.

b.2) «Justifikatu beharreko ordainketetarako libramenduak» 5584 azpikontuan, inbertitu edo justifikatu gabeko zenbatekoak itzultzeagatik.

5751. Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

Erakundearen aldeko saldoak, kutxa finkoko aurrerakinen ordainketen kontu murriztuetan.

a) Hauetan abonatuta zordunduko da:

a.1) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, kutxa finkoko aurrerakina eratzeagatik.

a.2) «Libramenduak, ordaindu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinak birjartzeko» 5585 azpikontua, aurrerakina birjartzeagatik.

b) Hauetan zordunduta abonatuko da:

b.1) «Justifikatu gabe dauden kutxa finkoko aurrerakinetarako funts-hornidurak» 5581 azpikontuan, egindako ordainketengatik.

b.2) «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontuetan, kutxa finkoko aurrerakina ezeztatzean funtsak itzultzeagatik.

5759. Ordainketen beste kontu murriztu batzuk.

Erakundearen aldeko saldoak, ordainketa berezietarako murriztutako kontuetan.

a) Funtsak sartzeagatik zordunduko da, «Dirua eta aktibo likido baliokideak» 57 azpitaldeko kontu egokian abonatuta.

b) Saldo osoa edo zati bat ateratzen denean abonatuko da, ordainketa ekartzen duen eragiketaren zer-nolakoaren arabera kontrakontu izango diren kontuetan zordunduta.

577. Diruaren baliokide diren aktibo likidoak.

Likidezia handiko finantza-inbertsioak, baldintza hauek guztiak betetzen dituztenak:

- Diruaren behin-behineko soberakinak errentagarri bihurtzeko xedez egiten dira, eta erakundearen likideziaren kudeaketa normalaren barruan sartzen dira.

- Formalizatzeko mementoan 3 hiletik gorakoa ez den epemuga izaten dute.

- Diru erraz bihur daitezke, zigor handirik eragin gabe.

- Ez dute balioan aldaketak gertatzeko arriskurik.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Erosketako prezioan zordunduko da, normalean «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kontu operatiboak» 571 kontuan abonatuta, edo «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, eragiketa aurrekontura egotzi behar bada. '

b) Sortutako Interes esplizitu edo inplizituekin zordunduko da, normalean «Bestelako sarrera finantzarioak» 769 kontuan abonatuta.

c) Inbertsioa inorenganatzeko edo likidatzeko unean jasotako zenbatekoan abonatuko da, normalean «Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kontu operatiboak» 571 kontuan zordunduta, edo «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, baldin eta eragiketa aurrekontura egotzi behar bada.

58. Epe motzeko hornidurak.

582. Erantzukizunetarako epe motzeko hornidura.

583. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako epe motzeko hornidurak.

585. Sarrerak itzultzeko epe motzeko hornidura.

588. Transferentzia eta diru-laguntzetarako epe motzeko hornidura.

589. Epe motzeko beste hornidura batzuk.

«Epe luzeko hornidurak» 14 azpitaldeko hornidurak, epe motzera baliogabetuko direnak, jasotzen ditu, baita aintzatesteko unean urtebetean edo gutxiagoan baliogabetuko diren hornidurak ere.

Azpitalde honen kontuak balantzeko pasibo korrontean azalduko dira, «Epe motzeko hornidurak» I epigrafean.

Azpitalde honetako kontuen mugimendua «Epe luzeko hornidurak» 14 azpitaldeko kontuenaren antzekoa da.

585. Sarrerak itzultzeko epe motzeko hornidura.

Zergen eta entitateak urtebetetik gorakoa ez den epe batean egitea espero duen beste sarrera batzuen itzulketak jasotzen ditu, baldin eta haiei buruz zalantza badago zenbateko zehatzaz edo epemugaz.

Oro har, honelakoa izango da kontuaren mugimendua:

a) Ekitaldia ixtean abonatuko da, erakundeak egin behar dituen sarrera-itzulketen zenbateko kalkulatuan, «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6 eta «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7 taldeetako kontu egokietan zordunduta.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   b.1) «Hartzekodunak kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik» 418 kontuan, sarrerak itzultzeko erabakia ematen den unean.

   b.2) «Sarrerak itzultzeko gehiegizko hornidura» 7955 azpikontuan, aurreko ekitaldiaren amaieran zegoen horniduraren zenbatekoaren eta hartan zordunduta egiazki itzulitako zenbatekoen arteko alde positiboagatik.

59. Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

594. Taldeko erakunde, talde anitzeko eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

5940. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeetako, talde anitzetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

5941. Taldean, talde anitzean eta elkartuta dauden merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

5942. Taldeko eta talde anitzeko beste erakundeetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

595. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreen balio-narriadura.

5950. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

5951. Taldeko entitateei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien balore salgarrien balio-narriadura.

596. Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe motzeko bestelako inbertsio finantzarioen eta kredituen balio-narriadura.

5960. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe motzeko kredituen balio-narriadura.

5961. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako fidantzen balio-narriadura.

5962. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan epe motzera eratutako gordailuen balio-narriadura.

597. Epe motzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura.

5970. Mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura.

5971. Balore salgarrien balio-narriadura.

598. Epe motzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

5980. Epe motzeko kredituen balio-narriadura.

5981. Epe motzera eratutako fidantzen balio-narriadura.

5982. Epe motzera eratutako gordailuen balio-narriadura.

Talde honetan sartutako aktibo finantzarioen balio-narriadurengatik izandako galerak direla- eta egindako balio-zuzenketak jasotzen ditu.

«Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldean ageri diren epe luzeko inbertsio finantzarioen narriadurengatik egindako balio-zuzenketen zenbatekoa azpitalde honetara pasatuko da, aipatutako inbertsioak talde honetara pasatzen direnean.

Azpitalde honetako kontuek balantzeko aktibo korrontean dagokien ondare-elementua jasotzen duen partida txikiagotuko dute.

594. Taldeko erakunde, talde anitzeko eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura.

Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko partaidetzen balio-narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbatekoa.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Emaitzetara egotzi beharreko balio-narriadura kalkulatuaren zenbatekoan abonatuko da, «Partaidetzen narriadura-galerak» 696 kontuan zordunduta, sail-kontu egokiaren bidez.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

   b.1) «Partaidetzen narriadura-itzulera» 796 kontuan, sail-kontu egokiaren bidez, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean.

   b.2) «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera egindako inbertsio finantzarioak» 53 azpitaldeko kontu egokian, balioak inorenganatzen direnean edo aktiboan beste edozein arrazoirengatik baja ematen zaienean.

595. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreen balio-narriadura.

Taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek jaulkitako zorra adierazten duten baloreetako epe motzeko inbertsioen balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Balio-narriadura estimatuaren zenbatekoarekin abonatuko da, «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak» 6970 azpikontuan zordunduta.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera» 7970 azpikontuan, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten baloreak» 532 kontuko sail-kontu egokian, baloreak inorenganatzen direnean, edo aktiboan beste edozerengatik baja ematen zaienean.

596. Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe motzeko bestelako inbertsio finantzarioen eta kredituen balio-narriadura.

Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe motzeko gordailuen eta fidantzen eta emandako kredituen balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoan abonatuko da, «Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-galerak» 698 kontuko sail-kontu egokian zordunduta.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Taldeko erakundeen, talde anitzen eta elkartuen zorra irudikatzen duten balioen narriadura-itzulera» 798 azpikontuan, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) Kasuan kasuko aktibo finantzarioa adierazten duen kontuan edo azpikontuan, ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den saldoaren zatia kontuan hartuta.

597. Epe motzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura.

Taldeko erakundekoak, talde anitzekoak eta elkartukoak ez diren erakundeek jaulkitako zorra adierazten duten baloreetako epe motzeko inbertsioen balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoan abonatuko da, «Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak» 6971 azpikontuan zordunduta.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera» 7971 azpikontuan, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) «Epe motzeko zorra adierazten duten baloreak» 541 kontuko sail-kontu egokian, baloreak inorenganatzean, edo edozein arrazoigatik aktiboan baja ematen zaienean.

598. Epe motzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura.

Taldeko edo talde anitzeko erakunde edo erakunde elkartu ez direnetan eratutako epe motzeko gordailuen eta fidantzen eta emandako kredituen balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoan abonatuko da, «Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-galerak» 698 kontuko azpikontu egokian zordunduta.

b) Hauetan abonatuta zordunduko da:

b.1) «Taldeko erakundeen, talde anitzen eta elkartuen zorra irudikatzen duten balioen narriadura-itzulera» 798 azpikontuan, narriaduragatiko balioespen-zuzenketa aintzatestea eragin zuten kausak desagertzen direnean.

b.2) Kasuan kasuko aktibo finantzarioa adierazten duen kontuan edo azpikontuan, ezeztatzen direnean, edo aktiboan baja ematen zaienean zordunaren behin betiko kaudimen gabeziagatik, eta, azken kasu horretan, kobraezina den saldoaren zatia kontuan hartuta.

6 Taldekoak. Izaerazko erosketak eta gastuak.

Erakundeak berriro saltzeko -dela beren forma edo ezaugarriak aldatu gabe, dela aldatu, bihurtu edo eraiki ondoren- eskuratutako salgaien eta gainerako ondasunen hornikuntzak.

Ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikora egotz daitezkeen gastuak jasotzen dituzten kontuak barne hartzen ditu, betiere bere izaeraren edo xedearen arabera.

«Erosketak» 60 azpitaldeko eta «Izakinen aldakuntza» 61 azpitaldeko kontuen izenak eta kodeak orientagarriak dira; hortaz, erakunde bakoitzak jarduerak eskatu adina kontu gara ditzake.

Oro har, «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko kontu guztiak, ekitaldi-itxieran abonatuko dira, «Ekitaldiko emaitza» 129 kontuan zordunduta; horregatik, taldeko kontuen mugimendua adieraztean, zordunketa egiteko arrazoiak bakarrik azalduko dira. Salbuespenak direnean, zordunketa egiteko arrazoiak eta kontrakontuak adieraziko dira.

60. Erosketak.

600. Salgai-erosketak.

601. Lehengai-erosketak.

602. Bestelako hornikuntzen erosketak.

605. Beste erakunde batzuentzat eskuratutako aktiboen erosketak.

607. Beste erakunde batzuek egindako lanak.

600/601/602/605/607. ...(r)en erosketa/Beste erakunde batzuek egindako lanak.

«Merkataritzakoak» 30 azpitaldean, «Lehengaiak» 31 azpitaldean eta «Beste hornikuntza batzuk» 32 azpitaldean sartutako salgaien eta gainerako ondasunen hornikuntza jasotzen dute, saltzeko edo ekitaldi ekonomikoan zehar kontsumitzeko.

«Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak» 37 azpitaldean, sartutako eskuraketak ere barne hartzen dituzte, aktibo horiek erakunde kudeatzaileak zuzenean eraikitzen ez dituenean.

Halaber, erakundearen ekoizpen-prozesuari dagozkion lanak ere jasotzen dira, baina beste erakunde batzuei enkargatu zaizkienean.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Erosketen zenbatekoan zordunduko dira, salgaiak jasotzen direnean, edo bidean jartzean erakundeak garraiatzen baditu, normalean «Aurrekontu-hartzekodunak» 40 azpitaldeko eta «Aurrekontuzkoak ez diren hartzekodunak» 41 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

Zehazki, «Beste erakunde batzuek egindako lanak» 607 kontuan zordunduko dira beste erakunde batzuei enkargatutako lanak.

61. Izakinen aldaketa.

610. Salgai-izakinen aldaketa.

611. Lehengai-izakinen aldaketa.

612. Bestelako hornikuntza-izakinen aldaketa.

610/611/612. .(r)en izakinen aldaketa.

Kontu hauetan, ekitaldi-itxieran, «Merkataritzakoak» 30 azpitaldean, «Lehengaiak» 31 azpitaldean eta «Beste hornikuntza batzuk» 32 azpitaldean amaierako eta hasierako izakinen aldaketak erregistratzen dira.

Hasierako izakinen zenbatekoan zordunduko dira, eta amaierako izakinen zenbatekoan abonatuko dira, «Merkataritzakoak» 30 azpitaldeko, «Lehengaiak» 31 azpitaldeko eta «Beste hornikuntza batzuk» 32 azpitaldeko kontuetan abonatuta eta zordunduta, hurrenez hurren. Kontu hauetan ateratzen den saldoa «Ekitaldiko emaitza» 129 kontuan zordundu edo abonatuko da, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

62. Kanpoko zerbitzuak.

620. Ikerketa- eta garapen-gastuak.

621. Errentamenduak eta kanonak.

622. Konponketak eta zaintza-lanak.

623. Profesional independenteen zerbitzuak.

624. Garraioak.

625. Aseguru-primak.

626. Banku-zerbitzuak eta antzekoak.

627. Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak.

628. Hornidurak.

629. Komunikazioak eta bestelako zerbitzuak.

Erakundeak eskuratutako bestelako zerbitzuak, «Erosketak» 60 azpitaldean sartzen ez direnak, eta ibilgetuaren eskuratze-prezioaren edo finantza-inbertsioen parte ez direnak.

Azpitaldeko kontuetan egindako zordunketak normalean «Aurrekontu-hartzekodunak» 40 azpitaldeko kontuetan abonatuko dira, obligazioa aintzatesteagatik.

620. Ikerketa- eta garapen-gastuak.

Enpresei, unibertsitateei edo zientzia- edo teknologia-ikerketan aritzen diren bestelako erakundeei enkargatutako zerbitzuen ikerketa- eta garapen-gastuak jasotzen ditu, besteak beste.

621. Errentamenduak eta kanonak.

Ondasun higigarri eta higiezinen alokairu edo errentamenduagatik sortutako gastuak, baita jabetza industrialaren edo jabetza intelektualaren hainbat adierazpen erabiltzeko eskubidea emateagatik ordaindutako zenbateko finko edo aldakorrak ere.

622. Konponketak eta zaintza-lanak.

Kontu honetan «Aktibo ez-korrontea» 2. taldean kontabilizatutako ondasunen mantentze-gastuak kontabilizatuko dira.

623. Profesional independenteen zerbitzuak.

Erakundeari emandako zerbitzuengatik, profesionalei ordaindutako zenbatekoak.

Ekonomialarien, abokatuen, auditoreen, notarioen eta abarren ordainsariak jasotzen ditu, hala nola bitarteko agente independenteen komisioak.

624. Garraioak.

Erakundearen kargura hirugarrenek egindako garraioa, ibilgetuaren edo izakinen eskuratze-prezioan sartu beharrekoa ez bada. Kontu honetan salmenten garraioak erregistratuko dira, besteak beste.

625. Aseguru-primak.

Aseguru-primengatik erakundeak sortutako zenbatekoak, langileei dagozkienak izan ezik, zenbateko horiek kontu hauetan sartu behar baitira: «Erakundearen kargurako kotizazio sozialak» 642 kontuaren barruan, gizarte-segurantzako erregimenen kuotak direnean; «Pentsioen sistema osagarrietarako ekarpenak» 643 kontuan, pentsio-planetan edo erretiroko, ezintasuneko edo heriotzako egoerak estaltzeko antzeko beste sistema batean egindako ekarpenengatik; eta «Bestelako gastu sozialak» 644 kontuan, erakundeak beste batzuekin kontratatutako bizitza, eritasun, eta abarren aseguruagatik direnean.

626. Banku-zerbitzuak eta antzekoak.

Banku-zerbitzuengatik eta antzeko kontzeptuengatik ordaindutako zenbatekoak, gastu finantzarioak ez direnak.

627. Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak.

Hiritarrei erakundearen zerbitzuak jakinarazteko dibulgazio, edizio, katalogo, errepertorio eta propaganda eta publizitaterako beste edozein bideren gastuak, kultura, arte eta merkataritzako dibulgazio, orientazio edo sustapeneko kanpainak; gastu eta sarrera publikoen gastuei buruzko informazio-kanpainak, zor publikoaren jaulkipenenak; bide-segurtasunari buruzkoak; prebentzio-medikuntza eta elikadurari buruzkoak, eta, oro har, gizarte-hedabideen bitartez zerbitzu publikoen ezagutza eta laguntza bultzatzen dituztenak.

628. Hornidurak.

Elektrizitatea eta biltegiratu ezin den bestelako edozein hornikuntza.

629. Komunikazioak eta bestelako zerbitzuak.

Telefonoko, telexeko, telegrafoko eta postako edo beste edozein komunikabideko gastuak, baita aurreko kontuetan jasotzen ez diren gainerako gastuak ere.

Kontu honetan kontabilizatuko dira, besteak beste, erakundeko langileen bidaia-gastuak, garraiokoak barne, eta beste kontu batzuetan sartu ez diren bulego-gastuak.

63. Zergak.

631. Zergak.

634. Zeharkako zergen doikuntza negatiboak.

639. Zeharkako zergen doikuntza positiboak.

631. Zergak.

Kontu honetan kontabilizatuko dira erakundeari zergaduna denean eskatutako zergak, beste kontu batzuetan kontabilizatu behar direnean izan ezik, egindako erosketengatik gastua areagotzen dutenak adibidez.

Zordunduko dira, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

634. Zeharkako zergen doikuntza negatiboak.

Erregularizatzeak egin direlako eta erakundearen zerga-egoeran aldaketak izan direlako zeharkako zergetan izandako gastu-gehikuntza.

Prorrata-erregela aplikatuta urteko erregulazioak egiten direnean, jasandako BEZ kengarrian sortzen diren diferentzia negatiboen zenbatekoa jasotzen du.

Urteko erregulazioaren zenbatekoarekin zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

Aldi berean, ondoz ondoko bi idazpen egingo dira. Lehenik, «Ogasun Publikoa, jasandako BEZ» 472 kontuan zordunduko da, bere sail-kontuen bitartez, «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan abonatuta. Idazpen honek zeinu negatiboa du. Bigarrenik, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan zordunduko da, «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan abonatuta.

639. Zeharkako zergen doikuntza positiboak.

Erregulazioak egin direlako eta erakundearen zerga-egoeran aldaketak izan direlako zeharkako zergetan izandako gastu-murrizketa.

Prorrata-erregela aplikatuta urteko erregulazioak egiten direnean, jasandako BEZ kengarrian sortzen diren diferentzia positiboen zenbatekoa jasotzen du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Urteko erregulazioaren zenbatekoarekin abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

   Aldi berean, ondoz ondoko bi idazpen egingo dira. Lehenik, «Ogasun Publikoa, jasandako BEZ» 472 kontuan zordunduko da, bere sail-kontuen bitartez, «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan abonatuta. Bigarrenik, «Jasandako BEZarengatik hartzekodunak» 410 kontuan zordunduko da, «Aintzatetsitako obligazioengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan abonatuta.

b) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, daukan saldoaren zenbatekoan, «Ekitaldiko emaitza» 129 kontuan abonatuta.

64. Langileen gastuak eta zerbitzu sozialak.

640. Soldatak.

641. Kalte-ordainak.

642. Enplegatzailearen kontura diren gizarte-kotizazioak.

643. Pentsioen sistema osagarrietarako ekarpenak.

644. Bestelako gastu sozialak.

645. Zerbitzu sozialak.

Langileei emandako lansariak, ordaintzeko modua edo kontzeptua edozein dela ere, erakundearen konturako Gizarte Segurantzako eta pentsioen erregimeneko kuotak, eta erakundeko langileen gainerako gastu sozialak.

Azpitalde honetako kontuak «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta zordunduko dira, normalean.

640. Soldatak.

Erakundeko langileentzako lansariak, finkoak eta ez-finkoak.

641. Kalte-ordainak.

Erakundeko langileei egindako kalte edo galera baten ordainetan ematen diren zenbatekoak. Kontu honetan sartzen dira, zehazki, iraizpenagatik eta erretiro aurreratuagatik ematen diren kalte-ordainak.

642. Enplegatzailearen kontura diren gizarte-kotizazioak.

Erakundeak (kontabilitate-subjektua) Gizarte Segurantzako eta pentsioen erregimenei langileengatik egindako ekarpenak.

643. Pentsioen sistema osagarrietarako ekarpenak.

Erakundeko langileengatik pentsio-planetara edo erretiroa, ezintasuna edo heriotza aseguratzeko antzeko beste sistema batera egindako ekarpenen zenbatekoa.

644. Bestelako gastu sozialak.

Erakundeak lege-xedapenen bat betetzeko edo bere borondatez egiten dituen gastu sozialak.

Adibide moduan, hauek aipatzen dira: ekonomatu eta jantokientzako diru-laguntzak; langileen prestakuntza eta hobekuntza, kanpoko zerbitzuekin kontratatzean; ikasteko bekak; langileak lantokira garraiatzea; aseguru-kontratuei lotutako primak: bizitza, istripuak, gaixotasunak eta abar.

645. Zerbitzu sozialak.

Funtzionarioek, legeriaren arabera, beren alde edo senideen alde sortzen dituzten erretiro edo biziraupeneko pentsioak jasotzen dira kontu honetan, baita pertsonalki emandako aparteko pentsioak eta nahitaezko eszedentziadunen hartzekoak ere, eta oro har, erakundeak ordaindutako prestazio guztiak, betiere langileentzako lansariak ez badira.

Onuradunen aurretiko prestazioen ondorio ez diren pertsonentzako pentsioak «Transferentziak» 650 kontura egotziko dira.

65. Transferentziak eta diru-laguntzak.

650. Transferentziak.

6500. Erakunde jabeari edo jabeei.

6501. Gainerako erakundeei.

651. Diru-laguntzak.

6510. Erakunde jabeari edo jabeei.

6511. Gainerako erakundeei.

650. Transferentziak.

Bereizitako eragiketak edo jarduerak finantzatzeko asmoz, diruzko edo espezietako ematea xede dutenak, onuradunen aldetik zuzeneko kontraprestaziorik egon gabe.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Hauetan abonatuta zordunduko da:

a) Normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan, transferentzia mugaeguneratua, likidoa eta galdagarria denean.

b) Emandako ondasunaren arabera egokia den kontuan, espezietako transferentziak direnean.

651. Diru-laguntzak.

Onuradunen aldetik zuzeneko kontraprestaziorik egin gabe diruzko edo espezietako ematea egitea xede dutenak, eta xede, asmo, jarduera edo proiektu zehatzera zuzenduta daudenak; halere, onuradunak finkatutako baldintza eta eskakizun guztiak bete behar ditu edo, bestela, emakida itzuli behar du.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Mugimendua «Transferentziak» 650 kontuarentzat azaldutakoaren antzekoa da.

66. Finantza-gastuak.

660. Hornidurak eguneratzeagatiko gastu finantzarioak.

661. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak.

662. Zorren interesak.

6625. Kreditu-erakundeekiko zorren interesak.

6626. Bestelako zorren interesak.

6628. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen interesak.

663. Zorren interesak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin.

6630. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak.

6632. Beste zor batzuen interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

664. Arrazoizko balioko finantza-tresnetan izandako galerak.

6640. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen izandako galerak.

6641. Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak.

6642. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan izandako galerak.

6645. Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak.

66451. Pasibo finantzarioen diru-fluxuen estaldurenak.

66452. Ondare garbiko partaidetzen estaldurenak.

66453. Zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioaren estaldurenak.

66454. Zorra adierazten duten baloreen diru-fluxuen estaldurenak.

66459. Gertatzen ez diren aurreikusitako transakzioenak.

6646. Bestelako deribatu finantzarioetan izandako galerak.

665. Kostuko edo amortizatutako kostuko finantza-tresnetan izandako galerak.

6650. Kontu amortizatuko inbertsio finantzarioetan izandako galerak.

6651. Kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan izandako galerak.

6655. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak.

666. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin dauden finantza-tresnetan izandako galerak.

6660. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan izandako galerak.

6661. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan zorra adierazten duten baloreetan izandako galerak, kostua amortizatuta egonda.

6662. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituetan izandako galerak.

6663. Taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin dauden kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako galerak.

667. Kreditu kobraezinen galerak.

6670. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin.

6671. Beste erakunde batzuekin.

668. Kanbio-diferentzia negatiboak.

669. Bestelako gastu finantzarioak.

660. Hornidurak eguneratzeagatiko gastu finantzarioak.

Hornidurentan finantzak eguneratzeagatik egindako balio-doikuntzei dagokien karga finantzarioaren zenbatekoa.

Doikuntza finantzarioa aintzatesteagatik zordunduko da, kasuan kasuko hornidura-kontuetan abonatuta, «Epe luzeko hornidurak» 14 azpitaldea eta «Epe motzeko hornidurak» 58 azpitaldea barne.

661. Jesapenen eta antzeko beste jaulkipen batzuen interesak.

Ekitaldian sortutako interesen zenbatekoa, zorra adierazten duten balio negoziagarrietan gauzatutako kanpo-finantzaketari dagokiona, taldeko erakundeek, talde anitzek eta elkartuek eskuratu gabekoa, epemuga eta nola gauzatu den edozein izanda ere; epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldea, Interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera, egozteari dagozkion interesak ere barne hartuko dira.

Zordunduko da:

a) Interesak sortzean, «Epe luzeko jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk» 15 azpitaldeko, edo «Jesapenak eta epe motzeko antzeko beste jaulkipen batzuk» 50 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

   Epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko aldea negatiboa baldin bada, alderantzizko idazpena egongo da.

b) Ekitaldian sortutako eta mugaeguneratutako interesen zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta.

662. Zorren interesak.

Jasotako maileguen eta amortizatu gabe dauden bestelako zorren interesen zenbatekoa, baldin eta taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin ez badira, eta interesak gauzatzeko modua edozein dela ere.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Zordunduko da:

a) Interesak sortzean, normalean «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik dauden epe luzeko zorrak» 17 azpitaldeko, eta «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik epe motzeko zorrak» 52 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

b) Ekitaldian sortutako eta mugaeguneratutako interesen zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen kontua» 400 kontuan abonatuta.

663. Zorren interesak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin.

Ekitaldian sortutako interesen zenbatekoa, taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin hartutako zorrei dagokiena, epemuga eta nola gauzatu den edozein izanda ere.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Zordunduko da:

a) Interesak sortzean, «Epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 16 azpitaldeko eta «Epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 51 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

b) Ekitaldian sortutako eta mugaeguneratutako interesen zenbatekoan, «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen kontua» 400 kontuan abonatuta.

664. Arrazoizko balioko finantza-tresnetan izandako galerak.

Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen, aktibo finantzario salgarrien eta emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioen kategorietan sailkatutako finantza-tresna guztiak arrazoizko balioan balioestean sortutako galerak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

6640. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen izandako galerak.

Kategoria honetan sailkatutako aktibo finantzarioen arrazoizko balioaren murrizketagatik zordunduko da, «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko ondare-tresnetako inbertsioak» 5401 azpikontuan abonatuta.

Halaber, «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren 5.2.1 idatz-zatiaren lehenengo lerrokadan aurreikusitako kasuan, estalitako aktiboen arrazoizko balioa txikitzeagatik zordunduko da, aipatutako aktiboak adierazten dituen kontuan abonatuta.

6641. Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak.

Kategoria honetan sailkatutako aktibo finantzarioak inorenganatzean, baliogabetzean edo baja ematean zordunduko da, ondare garbian metatutako saldo negatiboarekin, eta «Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea» 902 kontuan abonatuta.

6642. Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan izandako galerak.

Kategoria honetan sailkatutako pasibo finantzarioen arrazoizko balioaren gehikuntzagatik, pasiboaren kontu egokian abonatuta zordunduko da.

6645. Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen mugimendu hau dago:

66451/66452/66453/66454. .(r)en estaldurenak.

Zordunduko dira:

a) Estalduren kontabilitatean agintzen duten arauak aplikatzean ateratako zenbatekoarekin, «Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 1760 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 2630 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 5260 azpikontuan edo «Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 5430 azpikontuan abonatuta.

b) Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako zenbateko negatiboa ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura transferitzeagatik, «Estaldurengatiko galerak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan» 9110 azpikontuan abonatuta.

66459. Gertatzen ez diren aurreikusitako transakzioenak.

Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako zenbateko negatiboa ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura transferitzeagatik zordunduko da, «Estaldurengatiko galerak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan» 9110 azpikontuan abonatuta, erakundeak uste duenean estalitako transakzio aurreikusia ez dela egingo.

6646. Bestelako deribatu finantzarioetan izandako galerak.

Deribatu finantzarioaren arrazoizko balioaren murrizketagatik zordunduko da, «Epe luzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak» 1761 azpikontuan, «Epe luzeko beste deribatu finantzario batzuengatik aktiboak» 2631 azpikontuan, «Epe motzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak» 5261 azpikontuan edo «Epe motzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak» 5431 azpikontuan abonatuta.

665. Kostuko edo amortizatutako kostuko finantza-tresnetan izandako galerak.

Taldekoak, talde anitzekoak eta elkartukoak ez diren erakundeekin egin eta kostu amortizatuan edo kostuan balioetsitako finantza-tresnak inorenganatzean, baliogabetzean edo baja ematean sortutako galerak, balio fidagarria zehazterik ez dagoen aktibo finantzario salgarriak direnean, «Kreditu kobraezinen galerak» 667 kontuan jaso beharreko kreditu-galerak izan ezik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Egondako galeraren zenbatekoan zordunduko da, «Epe luzeko jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk» 15 azpitaldeko, «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik dauden epe luzeko zorrak» 17 azpitaldeko, «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitaldeko, «Jesapenak eta epe motzeko antzeko beste jaulkipen batzuk» 50 azpitaldeko, «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik epe motzeko zorrak» 52 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» 54 azpitaldeko kontuetan.

666. Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin dauden finantza-tresnetan izandako galerak.

Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin finantza-tresnak inorenganatzean, baliogabetzean edo baja ematean sortutako galerak, «Arrazoizko balioko finantza-tresnetan izandako galerak» 664 kontuan erregistratu beharrekoak izan ezik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Sortutako galeraren zenbatekoan zordunduko da, «Epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 16 azpitaldeko, «Epe luzera egindako inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 25 azpitaldeko, «Epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 51 azpitaldeko eta «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera egindako inbertsio finantzarioak» 53 azpitaldeko dagozkion kontuetan abonatuta.

667. Kreditu kobraezinen galerak.

Kaudimen gabezia irmoengatik eta emandako kredituak eta bestelako kobrantza-eskubideak preskribatzeagatik sortutako galerak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Egondako galerarekin zordunduko da, kreditua edo kobrantza-eskubidea adierazten duen kontuan abonatuta edo, aurrekontuko kobrantza-eskubideen galerak egonez gero, «Indarrean dagoen aurrekontuaren eskubide baliogabetuak» 438 kontuan edo «Aurrekontu itxietako eskubide baliogabetuak» 539 kontuan, dagozkion sail-kontuen bitartez, egokia denaren arabera.

668. Kanbio-diferentzia negatiboak.

Atzerri-monetako diruzko partidetako kanbio-tasaren aldaketek sortutako galerak.

Atzerri-monetako diruzko aktiboak eta pasiboak adierazten dituzten kontuetan abonatuta zordunduko da, ekitaldi-itxieran edo kontuetan baja ematean, inorenganatzean edo baliogabetzean kalkulatutako diferentzia negatiboen zenbatekoan.

669. Bestelako gastu finantzarioak.

Azpitalde honetako gainerako kontuetan jasotzen ez diren gastu finantzarioak.

Dauden gastuen zenbatekoarekin zordunduko da, normalean «Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Indarrean dagoen gastuen aurrekontua» 400 kontuan abonatuta. '.

67. Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste gastu batzuetatik eta ezohiko gastuetatik sortutako galerak.

670. Ibilgetu ukiezinetik sortutako galerak.

671. Ibilgetu materialetik sortutako galerak.

672. Ondasun higiezinetako inbertsioetatik sortutako galerak.

673. Lurzoruaren ondare publikotik sortutako galerak.

674. Salgai dauden aktiboetatik sortutako galerak.

676. Gestio arrunteko bestelako galerak.

678. Ezohiko gastuak.

670/671/672/673/674. .(e)tatik sortutako galerak.

Ibilgetu ukiezina, materiala, ondasun higiezinetako inbertsioak, lurzoruaren ondare publikoa eta salgai dauden aktiboak inorenganatzean, oro har, sortutako galerak, edo aipatutako aktibo horien balio-galera berreskuraezinen ondorioz edo haien artean egindako birsailkapenak direla- eta inbentarioan guztiz edo zati batez baja ematean sortutakoak.

Gertatutako galerarekin zordunduko dira «Ibilgetu ukiezinak» 20 azpitaldeko, «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko, «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko edo «Salgai dauden aktiboak» 38 azpitaldeko kontu egokietan abonatuta.

676. Gestio arrunteko bestelako galerak.

Aurreko kontuetan agertzen ez diren izaera honetako galerak. Zehazki, tresneriaren urteko erregulazioa islatuko du.

Sortutako galerarekin zordunduko da, balio-galeraren arabera egokia den kontuan abonatuta.

678. Ezohiko gastuak.

Ezohiko izaera eta zenbateko esanguratsua duten gastuak eta galerak, duten izaeragatik «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko, edo «Ondare garbiari egotzitako gastuak» 8. taldeko beste kontu batzuetan kontabilizatu behar ez direnak.

Betiere, honako hauek jasoko dira: zehapenak eta isunak; uholdeak eta bestelako istripuak, suteak direla- eta sortutakoak; hirugarrenei eman beharreko kalte-ordainak; eratutako fidantzen galera edo murrizketa; eta abar.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Ezohiko gastuen zenbatekoan zordunduko da, hauen izaeraren arabera egokia den kontuan abonatuta.

68. Amortizazioetarako zuzkidurak.

680. Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa.

6800. Ikerketako inbertsioaren amortizazioa.

6801. Garapeneko inbertsioaren amortizazioa.

6803. Jabetza industrialaren eta intelektualaren amortizazioa.

6806. Aplikazio informatikoen amortizazioa.

6807. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen amortizazioa.

6809. Bestelako ibilgetu ukiezinaren amortizazioa.

681. Ibilgetu materialaren amortizazioa.

6810. Lurren eta ondasun naturalen amortizazioa.

6811. Eraikuntzen amortizazioa.

6812. Azpiegituren amortizazioa.

6813. Ondare historikoaren ondasunen amortizazioa.

6814. Makineriaren eta tresneriaren amortizazioa.

6815. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen amortizazioa.

6816. Altzarien amortizazioa.

6817. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen amortizazioa.

6818. Garraio-elementuen amortizazioa.

6819. Bestelako ibilgetu materialaren amortizazioa.

682. Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazioa.

6820. Lurretan egindako inbertsioen amortizazioa.

6821. Eraikuntzetan egindako inbertsioen amortizazioa.

684. Lurzoruaren ondare publikoa amortizazioa.

6840. Lurzoruaren ondare publikoko lurren amortizazioa.

6841. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen amortizazioa.

6489. Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen amortizazioa.

680/681/682/684. .(r)en amortizazioa.

Ibilgetu ukiezinak eta materialak (erabileragatik), ondasun higiezinetako inbertsioek eta lurzoruaren ondare publikoak jasaten duten urteko balio-galera sistematikoaren adierazpena.

Beren sail-kontuen bitartez funtzionatuko dute.

Ekitaldiko zuzkiduraren zenbatekoan zordunduko dira, «Ibilgetuaren amortizazio metatua» 28 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

69. Narriadura-galerak.

690. Ibilgetu ukiezinaren narriaduratik sortutako galerak.

6903. Jabetza industrialaren eta intelektualaren narriadura-galerak.

6906. Aplikazio informatikoen narriadura-galerak.

6907. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen narriadura-galerak.

6909. Bestelako ibilgetu ukiezinaren narriadura-galerak.

691. Ibilgetu materialaren narriaduratik sortutako galerak.

6910. Lurren eta ondasun naturalen narriadura-galerak.

6911. Eraikuntzen narriadura-galerak.

6912. Azpiegituren narriadura-galerak.

6913. Ondare historikoaren ondasunen narriadura-galerak.

6914. Makineriaren eta tresneriaren narriadura-galerak.

6915. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen narriadura-galerak.

6916. Altzarien narriadura-galerak.

6917. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen narriadura-galerak.

6918. Garraio-elementuen narriadura-galerak.

6919. Bestelako ibilgetu materialaren narriadura-galerak.

692. Ondasun higiezinetako inbertsioen narriaduratik sortutako galerak.

6920. Lurretan egindako inbertsioen narriadura-galerak.

6921. Eraikuntzetan egindako inbertsioen narriadura-galerak.

693. Lurzoruaren ondare publikoaren narriadura-galerak.

6930. Lurzoruaren ondare publikoko lurren narriadura-galerak.

6931. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen narriadura-galerak.

6939. Lurzoruaren ondare publikoko beste ondasun eta eskubideen narriadura-galera.

694. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-galerak.

6940. Amaituta eta ekoizpen-bidean diren produktuen narriadura-galerak.

6941. Salgaien narriadura-galerak.

6942. Lehengaien narriadura-galerak.

6943. Beste hornikuntza batzuen narriadura-galerak.

6948. Salgai dauden aktiboen narriadura-galerak.

696. Partaidetzen narriadura-galerak.

6960. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien partaidetzen narriadura-galerak.

6961. Taldeko merkataritza-sozietateei eta sozietate kooperatiboei, talde anitzekoei eta elkartuei dagozkien partaidetzen narriadura-galerak.

6962. Taldeko beste erakunde batzuetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan dauden partaidetzen narriadura-galerak.

6963. Beste erakunde batzuen ondare garbiari dagozkion partaidetzak narriatzeak eragindako galerak.

697. Zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak.

6970. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak.

6971. Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak.

698. Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-galerak.

6980. Taldeko eta talde anitzeko erakundeei eta elkartuei emandako kredituen narriadura-galerak.

6981. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan eratutako fidantzen narriadura-galerak.

6982. Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan eratutako gordailuen narriadura-galerak.

6983. Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-galerak.

6984. Beste erakunde batzuetan eratutako fidantzen narriadura-galerak.

6985. Beste erakunde batzuetan eratutako gordailuen narriadura-galerak.

690/691/692/693. ...(r)en narriadura-galerak.

Balio-zuzenketa ibilgetu ukiezinean, materialean, ondasun higiezinetako inbertsioetan eta lurzoruaren ondare publikoan gertatutako narriadura itzulgarriagatik.

Beren sail-kontuen bitartez funtzionatuko dute.

Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoan zordunduko da, kontu hauetan abonatuta, hurrenez hurren: «Ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura» 290 kontuan, «Ibilgetu materialaren balio-narriadura» 291 kontuan, «Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriadura» 292. kontuan eta «Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura» 293 kontuan.

694. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-galerak.

Kontu honek bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

«Salgai dauden aktiboen narriadura-galerak» 6948 azpikontua kenduta, sail-kontu guztien definizioa eta mugimendu hauek daude:

Balioaren zuzenketa da, ekitaldiaren itxieran egingo dena, izakinek itzulgarria den narriaduragatik egiten dena.

Estimatutako narriaduraren zenbatekoan zordunduko da, «Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen balio-narriadura» 39 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

Honako hauek dira «Salgai dauden aktiboen narriadura-galerak» 6948 azpikontuaren definizioa eta mugimendua:

Salgai dauden aktiboen narriadura berreskuragarriarengatik egindako balioespen-zuzenketa jasotzen du.

Estimatutako narriaduraren zenbatekoan zordunduko da, «Salgai dauden aktiboen balio-narriadura» 398 azpitaldeko kontuan abonatuta.

696. Partaidetzen narriadura-galerak.

Balio-zuzenketa, ondare garbiko partaidetzen balioa narriatzeagatik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoan zordunduko da, «Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 59 azpitaldeko kontu egokietan abonatuta, eta «Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan» 260 kontuan, «Epe motzeko inbertsioak ondare-tresna salgarrietan» 5400 azpikontuan edo «Ondare garbiari egotzitako sarrerak» 9 taldeko kontuetan abonatuta, aktibo finantzario salgarrien narriadura gertatuz gero.

697. Zorra adierazten duten baloreen narriadura-galerak .

Balio-zuzenketa, zorra adierazten duten baloreen balioa narriatzeagatik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Kalkulatutako narriaduraren zenbatekoan zordunduko da, «Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 59 azpitaldeko kontu egokietan abonatuta.

698. Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-galerak.

Balioespen-zuzenketa, «Epe luzeko inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 25 azpitaldeko, «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitaldeko, «Epe luzera eratutako fidantzak eta gordailuak» 27 azpitaldeko, «Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 53 azpitaldeko, «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» 54 azpitaldeko eta «Epe motzera jasotako eta eratutako fidantzak eta gordailuak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak» 56 azpitaldeko nahiz «Hartzekodunak eta zordunak» 4 taldeko kredituetan, fidantzetan eta gordailuetan gertatutako balioaren narriaduragatik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Estimatutako narriaduraren zenbatekoan zordunduko da, «Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 59

azpitaldeko kontuetan edo «Kredituen balio-narriadura» 490 kontuan abonatuta, dagokionaren arabera.

490 kontuan aurreikusitako bigarren aukera erabiltzean, kontabilitateko definizioa eta mugimendua kontu horretan ezarritakora egokituko dira.

7 taldekoak. Izaerazko salmentak eta sarrerak.

Erakundearen zerga-ahalmenetik eta haren jardueraren errendimenduetatik datozen baliabideak biltzen ditu, bai eta ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoari egotz dakizkiokeen beste sarrera batzuk ere.

«Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik salmentak eta sarrerak» 70 azpitaldeko, eta «Izakinen aldaketa» 71 azpitaldeko kontuen izenak eta kodeak orientagarriak dira; hortaz, erakunde bakoitzak jarduerak eskatu adina kontu gara ditzake.

Oro har, «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko kontu guztiak ekitaldi-itxieran zordunduko dira, «Ekitaldiko emaitza» 129 kontuan abonatuta; horregatik, taldeko kontuen gorabeherak adieraztean, abonua egiteko arrazoiak bakarrik azalduko dira. Salbuespenak direnean, zordunketa egiteko arrazoiak eta kontrakontuak adieraziko dira.

Talde honetan jasotako sarreretan jatorria duten aurrekontuko kobrantzen eskubideen baliogabetzeak «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldean egokia den kontuan zordunketa eginez erregistratuko dira, «Indarrean dagoen aurrekontuko eskubide baliogabetuak» 433 kontuan abonatuta. Halaber, Talde honetan jasotako sarreretan jatorria duten aurrekontu-sarreren itzulketa-akordioak «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldean egokia den kontuan zordunketa eginez erregistratuko dira, «Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuengatik hartzekodunak» 418 kontuan abonatuta, itzulketa-akordioa agintzen den unean.

70. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik salmentak eta sarrerak.

700. Salgaien salmentak.

701. Produktu bukatuen salmentak.

702. Produktu erdibukatuen salmentak.

703. Azpiprodukturen eta hondarren salmentak.

704. Ontzien eta bilgarrien salmentak.

705. Zerbitzu-emateak.

707. Sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik.

7070. Egotzitako sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboen aurrerapen mailagatik.

7071. Egotzitako sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak entregatzeagatik.

700/701/702/703/704. .en salmentak.

Prezio baten truke erakundearen (kontabilitatearen subjektua) trafikoko ondasunak ematea ematea dakarten transakzioak.

Transakzioaren zenbatekoarekin abonatuko dira, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

705. Zerbitzu-emateak.

Zuzenbide pribatuko erregimeneko zerbitzu-ematetik sortutako sarrerak jasotzen ditu; hortaz, kontraprestazio gisa tasa edo prezio publikoa dutenak «Tasak, prezio publikoak eta kontribuzio bereziak» 74 azpitaldean jasoko dira.

Mugimendua «Salgaien salmentak» 700 kontuarentzat azaldutakoaren antzekoa da.

707. Sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboengatik.

Beste erakundeentzat aktiboak eraiki edo eskuratzeagatik sortutako sarrerak jasotzen ditu. Erakundeak eraiki eta sarrera ekitaldiko emaitzara, aurrerapen-mailaren arabera, egotzita duten obrengatik sortutakoak nahiz erakunde hartzaileari emandakoak, ekitaldian egotzi beharrekoak, jasota daude. Halaber, beste erakunde batzuentzat eskuratutako aktiboetatik sortutakoak ere jasota daude.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

7070. Egotzitako sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboen aurrerapen mailagatik.

Beste erakunde batzuentzat aktiboak eraikitzeagatik sortutako sarrerak jasotzen ditu, baldin eta ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako egozpena bere aurrerapen-mailaren arabera egiten bada.

Kontratuarekin lotutako sarreren zenbatekoan abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, «Ziurtatzeko dauden beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboengatik zordunak» 446 kontuan «Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak» 416 kontuan, egokia denaren arabera, gutxienez ekitaldi bakoitzaren amaieran.

7071. Egotzitako sarrerak, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboak entregatzeagatik.

Beste erakunde batzuentzat aktiboak eraikitzeak sortutako sarrerak jasotzen ditu, baldin eta, ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako egozpena aktiboen erakunde hartzaileak jabetzari datxezkion arriskuak eta abantailak bere gain hartzen dituenean egiten bada, normalean emateko momentuan. Beste erakundeentzat aktiboak eskuratzeagatik sortutako sarrerak jasotzen ditu.

Kontratuarekin zerikusia duten sarrerengatik abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, edo «Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak» 416 kontuan, aktiboak eraikitzeko edo erosteko aurrerakinak jaso direnean.

71. Izakinen aldaketa.

710. Ekoizpen-bidean diren produktuen izakinen aldaketa.

711. Produktu erdibukatuen izakinen aldaketa.

712. Produktu bukatuen izakinen aldaketa.

713. Azpiprodukturen, hondarren eta material berreskuratuen izakinen aldaketa.

717. Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboen izakinen aldaketa.

710/711/712/713/717. .(r)en izakinen aldaketa.

Kontu hauen xedea, ekitaldi-itxieran, «Ekoizpen-bidean diren produktuak» 33 azpitaldeko, «Produktu erdibukatuak» 34 azpitaldeko, «Produktu bukatuak» 35 azpitaldeko, «Azpiprodukuktuak, hondarrak eta berreskuratutako materialak» 36 azpitaldeko eta «Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak» 37 azpitaldeko izakinetan izandako aldaketa, hau da, ekitaldi-amaierako eta -hasierako izakinen arteko diferentzia, erregistratzea da.

Hasierako izakinen zenbatekoan zordunduko dira eta amaierako izakinen zenbatekoan abonatuko dira, hurrenez hurren, aipatutako «Ekoizpen-bidean diren produktuak» 33 azpitaldeko, «Produktu erdibukatuak» 34 azpitaldeko, «Produktu bukatuak» 35 azpitaldeko, «Azpiprodukuktuak, hondarrak eta berreskuratutako materialak» 36 azpitaldeko eta «Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak» 37 azpitaldeko kontuetan. Kontu hauetan ateratzen den saldoa «Ekitaldiko emaitza» 129 kontuan zordundu edo abonatuko da, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

72. Zerga zuzenak.

724. Ondasun higiezinen gaineko zerga.

725. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga.

726. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga.

727. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

728. Beste zerga batzuk.

Azpitalde honetan kontraprestaziorik gabeko era guztietako sarrera galdatuak jasoko dira, baldin eta egitate zergagarria izaera juridiko edo ekonomikoko negozioak, egintzak edo egitateak badira, eta hauek, ondare baten jabe izateagatik edo errenta bat lortzeagatik, subjektu pasiboaren kontribuzio-ahalmena agerian uzten badute.

Azpitalde honetako Kontuen mugimendua:

a) Likidatutako zergen zenbatekoarekin abonatuko dira, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b) «Epe motzeko hornidura, sarrerak itzultzeko» 585 kontuan abonatuta zordunduko dira, ekitaldia ixtean, aintzatetsi gabeko aurreikusitako itzulketengatik.

724/./727. ...(r)en gaineko zerga.

Kontu hauetako bakoitzak izenak adierazten duen zerga jasotzen du, bai eta, hala egokituz gero, errekargua ere.

728. Beste zerga batzuk.

Azpitalde honetako gainerako kontuetan sartzen ez diren beste zerga zuzen batzuk jasotzen ditu.

73. Zeharkako zergak.

733. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak.

734. Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga.

735. Luxuzko gastuen gaineko udal-zerga.

739. Beste zerga batzuk.

Azpitalde honetan kontraprestaziorik gabeko era guztietako sarrera galdatuak jasoko dira, baldin eta egitate zergagarria izaera juridiko edo ekonomikoko negozioak, egintzak edo egitateak badira, eta hauek, ondasunen edo gastuaren zirkulazioa dela-eta, subjektu pasiboaren kontribuzio-ahalmena agerian uzten badute

Azpitalde honetako Kontuen mugimendua:

a) Sortutako zergen zenbatekoarekin abonatuko dira, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b) «Epe motzeko hornidura, sarrerak itzultzeko» 585 kontuan abonatuta zordunduko dira, ekitaldia ixtean, aintzatetsi gabeko aurreikusitako itzulketengatik.

733/735. Zergak...

Kontu hauetako bakoitzak izenak adierazten duen zerga jasotzen du.

739. Beste zerga batzuk.

Azpitalde honetako beste kontu batzuetan sartzen ez diren zeharkako zergak jasotzen ditu.

74. Tasak prezio publikoak, kontribuzio bereziak eta hirigintza-sarrerak.

740. Tasak, zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik.

741. Prezio publikoak, zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik.

742. Tasak, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

744. Kontribuzio bereziak.

745. Sarrerak hirigintza-jarduerengatik.

7450. Hirigintza-kanona.

7451. Hirigintza-kuotak.

746. Hirigintza-aprobetxamenduak.

7460. Kanona hirigintza-aprobetxamenduengatik.

7461. Administrazioari dagokion hirigintza-aprobetxamendua.

Azpitalde honetako Kontuen mugimendua:

Tasaren, prezio publikoaren, kontribuzio bereziaren edo hirigintza-sarreraren zenbatekoan abonatuko dira, dagokionaren arabera, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

740. Tasak, zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik.

Zuzenbide publikoko eta zerga bidezko sarrerak, entitateak zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik eskatzen direnak.

741. Prezio publikoak, zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik.

Zerbitzuen prestazio jakin batzuekin eta tasako zerga-izaerarik ez duten zuzenbide publikoko erregimeneko jarduerak egitearekin edo zerbitzuak eskaintzearekin lotutako ondasun-emateen ondorioz eskatutako zuzenbide publikoko sarrerak.

742. Tasak, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

Zuzenbide publikoko eta zerga bidezko sarrerak, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik eskatzen direnak.

744. Kontribuzio bereziak.

Erakundeak obra publikoak egitean edo zerbitzu publikoak ezarri edo zabaltzean lortutako zuzenbide publikoko sarrerak.

745. Sarrerak hirigintza-jarduerengatik.

Hirigintza-jardueretatik eratorritako zuzenbide publikoko sarrerak, zeinak herri-administrazio eskudunen lege-mailako arau baten bidez lizentzien eskatzaileei edo garatzen den urbanizazioaren osagarrizko azpiegiturak ezartzeko lurzoruen jabeei eskatutako ekarpenen ondorio baitira (urbanizazio-kanona), edo erakundeak urbanizatu beharreko lurren jabeei eskatutako ekarpenen ondorio, ekarpenak, oraingo honetan, hirigintza-gastuak finantzatzeko izanik (urbanizazio-kuotak).

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

746. Hirigintza-aprobetxamenduak.

Herri-administrazio eskudunen lege-mailako arau baten bidez ezarritako hirigintza-aprobetxamenduari lotutako kanonetik datozen zuzenbide publikoko sarrerak, hura Interes komunitariokotzat jotako eta lurzoru urbanizaezinean gauzatu beharreko jarduketengatik jasoa izanik, hala nola aurreko kanona ez diren eta Administrazioari dagokion hirigintza-aprobetxamendutik datozenak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

75. Transferentziak eta diru-laguntzak.

750. Transferentziak.

7500. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7501. Gainerako erakundeenak.

751. Finantzarioak ez diren ekitaldiko gastuetarako diru-laguntzak.

7510. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7511. Gainerako erakundeenak.

752. Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak.

7520. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7521. Gainerako erakundeenak.

753. Ekitaldiko emaitzari egotzitako ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak.

7530. Ibilgetu ez-finantzarioa finantzatzeko diru-laguntzak, ekitaldiko emaitzara amortizazioagatik egotziak.

75300. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

75301. Gainerako erakundeenak.

7531. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak, ekitaldiko emaitzari egotzitakoak, inorenganatzea edo baja dela- eta.

75310. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

75311. Gainerako erakundeenak.

754. Aktibo korronteetarako eta gastuetarako diru-laguntzak, ekitaldiari egotzitakoak.

7540. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7541. Gainerako erakundeenak.

755. Ekitaldiko gastu finantzarioetarako diru-laguntzak.

7550. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7551. Gainerako erakundeenak.

756. Ekitaldiari egotzitako eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak.

7560. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

7561. Gainerako erakundeenak.

Jasotako diru-laguntza eta transferentziengatik ekitaldiko emaitzara egotzi beharreko zenbatekoak.

Azpitalde honetako kontuek beren sail-kontuen bitartez funtzionatuko dute.

750. Transferentziak.

Erakundeak jasotako fondoak edo ondasunak, bere aldetiko kontraprestaziorik gabe, bereizi gabeko eragiketak edo jarduerak finantzatzeko direnak.

Hauetan zordunduta abonatuko da:

a) Normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, transferentzia mugaeguneratua, likidoa eta galdagarria denean.

b) Jasotako ondasunaren arabera egokia den kontuan, espezietako transferentziak direnean.

751. Finantzarioak ez diren ekitaldiko gastuetarako diru-laguntza.

Ekitaldian sortutako eragiketa korronte zehatzak eta espezifikoak finantzatzeko erakundeak jasotako fondoak edo ondasunak. Horien barruan erakundeari gutxieneko errentagarritasuna ziurtatzeko edo ekitaldiko gastuak finantzatzeko emandako diru-laguntzak jasotzen dira.

Mugimendua «Transferentziak» 750 kontuarentzat azaldutakoaren antzekoa da.

752. Zor orokorrak kitatzeko diru-laguntzak.

Erakundeak ondare-elementuaren finantzaketa espezifikoa ez diren zorrak kitatzeko ekitaldian jasotzen dituenak biltzen ditu.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Hauetan zordunduta abonatuko da:

a) Normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, diru-laguntza mugaeguneratua, likidoa eta galdagarria denean.

b) Dagokion zorra adierazten duen kontuan, beste erakunde batzuek zorrak beren gain hartzen dituztenean.

753. Ekitaldiko emaitzari egotzitako ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak.

Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzetatik ekitaldiko emaitzara intsuldatutako zenbatekoa.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

7530. Ibilgetu ez-finantzarioa finantzatzeko diru-laguntzak, ekitaldiko emaitzara amortizazioagatik egotziak.

Ibilgetu ez-finantzarioaren amortizazioagatiko diru-laguntza ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan egozten den unean abonatuko da, «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen egoztea» 840 kontuan zordunduta.

7531. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak, ekitaldiko emaitzara inorenganatzeagatik edo bajagatik egotziak.

Inorenganatzeagatiko edo aktiboaren bajagatiko diru-laguntza ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan egozten den unean abonatuko da, «Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen egoztea» 840 kontuan zordunduta.

754/756. Ekitaldiari egotzitako…(eta)rako diru-laguntzak.

Aktibo korronteak eta gastuak eta finantza-eragiketak finantzatzeko jasotako diru-laguntzetatik ekitaldiko emaitzara intsuldatutako zenbatekoa.

Egoztean diru-laguntzaren ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan abonatuko da, «Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea» 841 kontuan, edo «Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea» 842 kontuan zordunduta, xedearen arabera.

755. Ekitaldiko gastu finantzarioetarako diru-laguntzak.

Ekitaldian sortutako finantza-eragiketa zehatzak eta espezifikoak finantzatzeko erakundeak jasotako fondoak edo ondasunak.

Mugimendua «Transferentziak» 750 kontuarentzat azaldutakoaren antzekoa da.

76. Sarrera finantzarioak.

760. Ondare garbiko partaidetzen sarrerak.

761. Zorra adierazten duten baloreen sarrerak.

762. Kredituen sarrerak.

7620. Kredituen sarrerak.

7628. Estaldura-tresna izendatutako truke finantzarioen sarrerak.

763. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioen sarrerak.

7630. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan ondare garbiko partaidetzen sarrerak.

7631. Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreen sarrerak.

7632. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen sarrerak.

764. Mozkinak arrazoizko balioko finantza-tresnetan.

7640. Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioetan.

7641. Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan.

7642. Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan.

7645. Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan.

76451. Pasibo finantzarioen diru-fluxuen estaldurenak.

76452. Ondare garbiko partaidetzen estaldurenak.

76453. Zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioaren estaldurenak.

76454. Zorra adierazten duten baloreen diru-fluxuen estaldurenak.

76459. Gertatzen ez diren aurreikusitako transakzioenak.

7646. Mozkinak beste deribatu finantzario batzuetan.

765. Kostuko edo amortizatutako kostuko finantza-tresnetan izandako mozkinak.

7650. Kontu amortizatuko inbertsio finantzarioetan izandako mozkinak.

7651. Kostuan balioetsitako ondare-tresnen inbertsioetan izandako mozkinak.

7655. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan izandako mozkinak.

766. Mozkinak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin dauden finantza-tresnetan.

7660. Mozkinak taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzetan.

7661. Mozkinak taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen zorra adierazten duten baloreetan, kostua amortizatuta egonda.

7663. Mozkinak taldeko eta talde anitzeko erakundeekin eta elkartuekin dauden kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan.

768. Kanbio-diferentzia positiboak.

769. Bestelako sarrera finantzarioak.

760. Ondare garbiko partaidetzen sarrerak.

Taldekoak, talde anitzekoak eta elkartukoak ez diren erakundeetako ondare garbiko partaidetzetatik ekitaldian zehar sortutako erakundearen aldeko sarrerak.

Jaso beharreko dibidenduen zenbatekoan abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, epemuga ekitaldian duten dibidenduengatik, eta «Kobratu beharreko dibidendua» 545 kontuan, epemuga geroagoko ekitaldi batean duten dibidenduengatik (hitzartuak eta mugaeguneratu gabeak).

761. Zorra adierazten duten baloreen sarrerak.

Taldekoak, talde anitzekoak eta elkartukoak ez diren erakundeen zorra adierazten duten balioetatik ekitaldian zehar erakundearen alde sortutako interesak, epemugako errenboltso-balioaren eta zorraren hasierako balioaren arteko diferentzia, Interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera, egozteari dagozkion interesak barne hartuta.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

   a.1) Interesak sortzen direnean, «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitaldeko, edo «Epe luzeko inbertsio finantzarioak» 54 azpitaldeko kontuetan zordunduta, dagokionaren arabera.

   a.2) Ekitaldian zehar sortutako eta mugaeguneratutako interesen zenbatekoarekin, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

b) Abonatu edo zordunduko da, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako mozkinak egoztea» 802 kontuan, eta «Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea» 902 kontuan zordunduta edo abonatuta hurrenez hurren, Interes-tasa efektiboaren metodoari jarraiki, epemugara arte mantendutako inbertsioan birsailkatu arte ondare garbian aintzatetsitako balio-aldaketak balioen hondar-bizitzan zehar egozteagatik.

762. Kredituen sarrerak.

Taldekoak, talde anitzekoak eta elkartuak ez diren entitateen maileguen eta bestelako kredituen interesen zenbatekoa, interesak ekitaldian sortu badira, truke-finantzarioko eragiketei dagozkienak barne.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Interesak sortzean abonatuko da, normalean «Kredituen epe luzeko interesak» 255 kontuan, «Langileei emandako epe motzeko kredituak» 544 kontuan, edo «Kredituen epe motzeko interesak» 547 kontuan zordunduta, egokia denaren arabera, eta «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, ekitaldian zehar sortutako eta mugaeguneratutako interesen zenbatekoan.

763. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioen sarrerak.

Taldeko erakundeetako, taldea anitzetako eta elkartuetako inbertsioetatik ekitaldian zehar sortutako erakundearen aldeko sarrerak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Sail-kontu bakoitzaren mugimendua taldekoak, talde anitzekoak eta elkartukoak ez diren erakundeentzakoei dagozkienen antzekoa da, kontrakontu gisa «Epe luzera egindako inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 25 azpitaldeko eta «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera egindako inbertsio finantzarioak» 53 azpitaldeko kontuak erabilita.

764. Mozkinak arrazoizko balioko finantza-tresnetan.

Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen, aktibo finantzario salgarrien eta emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioen kategorietan sailkatutako finantza-tresna guztiak arrazoizko balioan balioestean sortutako mozkinak.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

7640. Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioetan.

Aktibo finantzarioen arrazoizko balioa handitzeagatik abonatuko da, «Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko ondare-tresnetako inbertsioak» 5401 azpikontuan zordunduta.

Halaber, «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren 5.2.1 atalaren lehenengo lerrokadan aurreikusitako kasuan, estalitako aktiboen arrazoizko balioa handitzeagatik abonatuko da, aipatutako aktiboak adierazten dituen kontuan zordunduta.

7641. Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan.

Aktibo finantzarioak inorenganatzean, baliogabetzean edo baja ematean abonatuko da, ondare garbian metatutako saldo positiboarekin, eta «Aktibo finantzario salgarrietan izandako mozkinak egoztea» 802 kontuan zordunduta.

7642. Mozkinak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioetan.

Kategoria honetan sailkatutako pasibo finantzarioen arrazoizko balioaren murrizketagatik abonatuko da, ondare-elementuaren kontu egokian zordunduta.

7645. Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen mugimendu hau dago:

76451/76452/76453/76454. .(r)en estaldurenak.

Abonatuko dira:

a) Estalduren kontabilitatean agintzen duten arauak aplikatzean ateratako zenbatekoarekin, «Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 1760 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 2630 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 5260 azpikontuan edo «Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 5430 azpikontuan zordunduta.

b) Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako zenbateko positiboa ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura transferitzeagatik, «Estaldurengatiko mozkinak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan» 8110 azpikontuan zordunduta.

76459. Gertatzen ez diren aurreikusitako transakzioenak.

Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako zenbateko positiboa ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura transferitzeagatik abonatuko da, «Estaldurengatiko mozkinak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan» 9110 azpikontuan zordunduta, erakundeak uste duenean estalitako transakzio aurreikusia ez dela egingo.

7646. Mozkinak beste deribatu finantzario batzuetan.

Deribatu finantzarioaren arrazoizko balio-handitzearen zenbatekoan abonatuko da, «Epe luzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak» 1761 azpikontuan, «Epe luzeko beste deribatu finantzario batzuengatik aktiboak» 2631 azpikontuan, «Epe motzeko beste deribatu finantzario batzuengatik pasiboak» 5261 azpikontuan edo «Epe motzeko bestelako deribatu finantzarioengatik aktiboak» 5431 azpikontuan zordunduta.

765. Kostuko edo amortizatutako kostuko finantza-tresnetan izandako mozkinak.

Taldekoak, talde anitzekoak eta elkartukoak ez diren erakundeekin egin eta kostu amortizatuan edo kostuan balioetsitako finantza-tresnak inorenganatzean, baliogabetzean edo baja ematean sortutako mozkinak, aktibo finantzario salgarrietan arrazoizko balioa zehazterik ez dagoenean.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Egondako mozkinaren zenbatekoan abonatuko da, «Epe luzeko jesapenak eta antzeko beste jaulkipen batzuk» 15 azpitaldeko, «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik dauden epe luzeko zorrak» 17 azpitaldeko, «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitaldeko, «Jesapenak eta epe motzeko antzeko beste jaulkipen batzuk» 50 azpitaldeko, «Jasotako maileguengatik eta beste kontzeptu batzuengatik epe motzeko zorrak» 52 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» 54 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

766. Mozkinak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin dauden finantza-tresnetan.

Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin egindako finantza-tresnak inorenganatzean, baliogabetzean edo baja ematean sortutako mozkinak, «Mozkinak arrazoizko balioko finantza-tresnetan» 764 kontuan erregistratu beharrekoak izan ezik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Sortutako mozkinaren zenbatekoan abonatuko da, «Epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 16 azpitaldeko, «Epe luzera egindako inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 25 azpitaldeko, «Epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 51 azpitaldeko eta «Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera egindako inbertsio finantzarioak» 53 azpitaldeko dagozkion kontuetan zordunduta.

768. Kanbio-diferentzia positiboak.

Atzerri-monetako diruzko partidetako kanbio-tasaren aldaketengatik sortutako mozkinak.

Atzerri-monetako diruzko aktiboak eta pasiboak adierazten dituzten kontuetan zordunduta abonatuko da, ekitaldi-itxieran edo kontuetan baja ematean, inorenganatzean edo baliogabetzean kalkulatutako diferentzia positiboen zenbatekoan.

769. Bestelako sarrera finantzarioak.

Azpitalde honetako gainerako kontuetan jasotzen ez diren sarrera finantzarioak. Hauek aipa ditzakegu, beste batzuen artean: kanpoan egindako finantza-eragiketetako abalen eta aseguruen komisioa, berandutzako interesak kontzeptu guztiengatik, kreditu-erakundeetan irekitako bankuko kontu korronteen interesak, exekuzio-aldiko errekarguak, baita garaiz kanpoko aintzatespenena ere.

Sortutako zergen zenbatekoarekin abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

77. Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak.

770. Ibilgetu ukiezinetik sortutako mozkinak.

771. Ibilgetu materialetik sortutako mozkinak.

772. Ondasun higiezinetako inbertsioetatik sortutako mozkinak.

773. Lurzoruaren ondare publikotik sortutako mozkinak.

774. Salgai dauden aktiboetatik datozen mozkinak.

775. Itzulketak.

776. Errentamenduen sarrerak.

777. Bestelako diru-sarrerak.

778. Ezohiko diru-sarrerak.

770/.../774. .tik sortutako mozkinak.

Oro har, ibilgetu ukiezina, ibilgetu materiala, ondasun higiezinetako inbertsioak, lurzoruaren ondare publikoa eta salgai dauden aktiboak inorenganatzean sortutako mozkinak, edo haien artean egindako birsailkapenen ondorioz sortutakoak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Hauetan zordunduta abonatuko dira:

a) «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan, inorenganatzean lortutako mozkinagatik.

b) Birsailkatzean, «Ibilgetu ukiezinak» 20 azpitaldeko, «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko, «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko edo «Salgai dauden aktiboak» 38 azpitaldeko kontuetan.

775. Itzulketak.

Garrantzi erlatibo txikia duten, eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz, erakundearen sarreren aurrekontura egotzi beharreko gastu ekonomikoetatik sortutako ordainketa-itzulketen zenbatekoa biltzen du.

Garrantzi erlatiboa duten itzulketak izaerazko gastuen dagokion kontuan erregistratuko dira, aurreko ekitaldietan egindako akatsen ondoriozko itzulketak izan ezik. Horiek «Aurreko ekitaldiko emaitzak» 120 kontuan erregistratuko dira.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Aurrekontuko sarrerak aintzatestean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

776. Errentamenduen sarrerak.

Ondasun higiezinak alokatzeagatik edo hirugarrenek erabili edo baliatzeko lagatako higiezinengatik sortutakoak.

Erakundeak era guztietako emakidetatik eta aprobetxamendu berezietatik jaso ditzakeenak ere barne hartzen ditu. Jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik sortutako sarrerak ez dira hemen sartzen, «Tasak, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik» 742 kontuan jasota baitaude.

Kontuaren mugimendua «Itzulketak» 775 kontuarentzat azaldutakoaren antzekoa da.

777. Bestelako diru-sarrerak.

Erakundeak sortutako sarrera ez-finantzarioak, gainerako kontuetan jasota ez daudenak. Adibide moduan, hauek aipa daitezke: hirugarrenei hainbat zerbitzu behin-behinean ematean sortutakoak, arlo guztietako behin-behineko baliabideak, isunak eta zehapenak...

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Aurrekontuko sarrerak aintzatestean abonatuko da, «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta.

778. Ezohiko diru-sarrerak.

Ezohiko izaera duten eta zenbateko esanguratsua duten mozkinak eta sarrerak, duten ezaugarriengatik «Izaerazko salmentak eta sarrerak» 7. taldeko, edo «Ondare garbiari egotzitako sarrerak» 9. taldeko beste kontu batzuetan kontabilizatu behar ez direnak.

Betiere, kaudimen gabezia irmoa dela- eta amortizatu ziren kredituetatik eratorritakoak, obligazioak preskribatzetik eratorritakoak eta diru-laguntzan emandako aktiboak itzultzean edo doan erabiltzeko lagatako aktiboak aldez aurretik itzultzean sortutakoak sartuko dira barruan, onuradunak baldintzak ez betetzeagatik.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

Sarrerak aintzatestean abonatuko da, beren jatorriaren arabera egokia den kontuan zordunduta.

78. Erakunderako egindako lanak.

780. Ibilgetu ukiezinerako egindako lanak.

781. Ibilgetu materialerako egindako lanak.

782. Ondasun higiezinetako inbertsioetarako egindako lanak.

783. Ekoizpen-bidean diren ondasun higiezinetako inbertsioetarako eta ibilgetuetarako egindako lanak.

784. Lurzoruaren ondare publikorako egindako lanak.

785. Ibilgetu ukiezinera egotzitako gastu finantzarioak.

786. Ibilgetu materialera egotzitako gastu finantzarioak.

787. Ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioak.

788. Indarrean dauden ibilgetu eta ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioak.

789. Lurzoruaren ondare publikoari egotzitako gastu finantzarioak.

Azpitalde honetako kontuetan erakundeak, bere ekipamenduak eta langileak erabiliz, bere ibilgeturako egindako lanen kostua jasotzen da.

Halaber, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek, enkargu bidez, ikerketako eta garapeneko inbertsioetarako egindako lanen kostua ere jasota dago.

Ekitaldian zehar, aipatutako lanak egitean sortutako gastuak «Izaerazko erosketak eta gastuak» 6. taldeko kontuetan zordunduko dira, «Aurrekontu-hartzekodunak» 40 azpitaldeko kontuetan abonatuta.

780. Ibilgetu ukiezinerako egindako lanak.

«Ibilgetu ukiezinak» 20 azpitaldean sartutako ondasunak sortzeko egindako ikerketa, eta garapeneko gastuak eta bestelako gastuak jasotzen dituen kontrakontua.

Inbentarioan jasotako gastuen urteko zenbatekoan abonatuko da, «Ibilgetu ukiezinak» 20 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

781. Ibilgetu materialerako egindako lanak.

«Ibilgetu materialak» 21 azpitaldean jasotako ondasunak eta elementuak eraikitzeko edo handitzeko erakundeak izandako gastuen kontrakontua.

Gastuen urteko zenbatekoarekin abonatuko da, «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

782. Ondasun higiezinetako inbertsioetarako egindako lanak.

«Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldean jasotako ondasunak eta elementuak eraikitzeko edo handitzeko erakundeak izandako gastuen kontrakontua.

Gastuen urteko zenbatekoarekin abonatuko da, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

783. Ekoizpen-bidean diren ondasun higiezinetako inbertsioetarako eta ibilgetuetarako egindako lanak.

Ekitaldian zehar egindako lanak, ekitaldi-itxieran bukatu gabe daudenak.

Gastuen urteko zenbatekoarekin abonatuko da, «Ekoizpen-bidean diren ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetako inbertsioak» 23 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

784. Lurzoruaren ondare publikorako egindako lanak .

Erakundeak «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldean sartutako ondasunak eraikitzeko edo handitzeko egindako gastuen kontrakontua, ekitaldiaren amaieran haiek bukatuta egon zein ez.

Gastuen urteko zenbatekoarekin abonatuko da, «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

785. Ibilgetu ukiezinera egotzitako gastu finantzarioak.

Ibilgetu ukiezinera egotzitako gastu finantzarioen kontrakontua.

Gastu finantzario egozgarrien urteko zenbatekoan abonatuko da, «Ibilgetu ukiezinak» 20 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

786. Ibilgetu materialera egotzitako gastu finantzarioak.

Ibilgetu materialera egotzitako gastu finantzarioen kontrakontua.

Gastu finantzario egozgarrien urteko zenbatekoan abonatuko da, «Ibilgetu materialak» 21 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

787. Ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioak.

Ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioen kontrakontua.

Gastuen finantzario egozgarrien urteko zenbatekoarekin abonatuko da, «Ondasun higiezinetako inbertsioak» 22 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

788. Indarrean dauden ibilgetu eta ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioak.

Indarrean dauden ibilgetu eta ondasun higiezinetako inbertsioetara egotzitako gastu finantzarioen kontrakontua.

Gastu finantzario egozgarrien urteko zenbatekoarekin abonatuko da, «Ekoizpen-bidean diren ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetako inbertsioak» 23 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

789. Lurzoruaren ondare publikoari egotzitako gastu finantzarioak.

Lurzoruaren ondare publikoari egotzitako gastuen kontrakontua.

Finantza-gastu egozgarrien urteko zenbatekoarekin abonatuko da, «Lurzoruaren ondare publikoa» 24 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

79. Horniduren eta narriadura-galeren soberakinak eta aplikazioak.

790. Ibilgetu ukiezinaren narriaduraren itzultzea.

7903. Jabetza industrialaren eta intelektualaren narriadura-itzultzea.

7906. Aplikazio informatikoen narriadura-itzultzea.

7907. Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatako aktiboen gaineko inbertsioen narriadura-itzulera.

7909. Bestelako ibilgetu ukiezinaren narriadura-itzulera.

791. Ibilgetu materialaren narriaduraren itzultzea.

7910. Lurren eta ondasun naturalen narriadura-itzulera.

7911. Eraikuntzen narriadura-itzulera.

7912. Azpiegituren narriadura-itzulera.

7913. Ondare historikoaren ondasunen narriadura-itzulera.

7914. Makineriaren eta tresneriaren narriadura-itzulera.

7915. Instalazio teknikoen eta beste instalazio batzuen narriadura-itzulera.

7916. Altzarien narriadura-itzulera.

7917. Informazioa prozesatzeko ekipamenduen narriadura-itzulera.

7918. Garraio-elementuen narriadura-itzulera.

7919. Bestelako ibilgetu materialaren narriadura-itzulera.

792. Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriaduraren itzultzea.

7920. Lurren narriadura-itzulera.

7921. Eraikuntzen narriadura-itzulera.

793. Lurzoruaren ondare publikoaren narriadura-itzulera.

7930. Lurzoruaren ondare publikoko lurren narriadura-itzulera.

7931. Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzen narriadura-itzulera.

7939. Lurzoruaren ondare publikoko ondasun eta eskubideen narriadura-itzulera.

794. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-itzulera.

7940. Amaituta eta ekoizpen-bidean diren produktuen narriadura-itzulera.

7941. Salgaien narriadura-itzulera.

7942. Lehengaien narriadura-itzulera.

7943. Beste hornidura batzuen narriadura-itzulera.

7948. Salgai dauden aktiboen narriadura-itzulera.

795. Hornidura-soberakinak.

7952. Erantzukizunetarako hornidura-soberakina.

7953. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitu delako hornidura-soberakinak.

7955. Sarrerak itzultzeko hornidura-soberakina.

7958. Transferentzia eta diru-laguntzetarako hornidura-soberakina.

7959. Bestelako hornidura-soberakinak.

796. Partaidetzen narriadura-itzulera.

7960. Taldeko zuzenbide publikoko erakundeetako, talde anitzean daudenetako eta elkartuetako partaidetzen narriadura-itzulera.

7961. Taldeko merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako, talde anitzean daudenetako eta elkartuetako partaidetzen narriadura-itzulera.

7962. Taldeko beste erakunde batzuetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan dauden partaidetzen narriadura-itzulera.

797. Zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera.

7970. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan zorra irudikatzen duten baloreen narriadura-itzulera.

7971. Beste erakunde batzuen zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera.

798. Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-itzulera.

7980. Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako kredituen narriadura-itzulera.

7981. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan daudenetan eta elkartuetan eratutako fidantzen narriadura-itzulera.

7982. Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako gordailuen narriadura-itzulera.

7983. Beste erakunde batzuei emandako kredituen narriadura-itzulera.

7984. Beste erakunde batzuetan eratutako fidantzen narriadura-itzulera.

7985. Beste erakunde batzuetan eratutako gordailuen narriadura-itzulera.

799. Ibilgetu materialaren narriadura-itzulera lagatako usufruktuagatik.

790/791/792/793. ...aren narriadura-itzulera.

Ibilgetu ukiezinaren, materialaren, ondasun higiezinetako inbertsioen eta lurraren ondare publikoaren balioa berreskuratzeagatik egindako balioespen-zuzenketa, lehenago kontabilizatutako galeren zenbatekora artekoa.

Balioespen-zuzenketaren zenbatekoan abonatuko dira, «Ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura» 290 kontuan, «Ibilgetu materialaren balio-narriadura» 291 kontuan, «Ondasun higiezinetako inbertsioen balio-narriadura» 292 kontuan eta «Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura» 293 kontuan zordunduta.

794. Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen narriadura-itzulera.

Kontu honek bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

«Salgai dauden aktiboen narriadura-itzulera» 7948 sail-kontua kenduta, sail-kontu guztien definizioa eta mugimendu hauek daude:

Aurreko ekitaldia ixtean dagoen narriadura-zuzenketaren zenbatekoa.

Ekitaldi-itxieran abonatuko da, aurreko ekitaldian kontabilizatutako narriaduraren zenbatekoan, «Izakinen eta salgai dauden beste aktibo batzuen balio-narriadura» 39 azpitaldeko kontuetan zordunduta.

«Salgai dauden aktiboen narriadura-itzulera» 7948 azpikontuan definizio eta mugimendu hauek daude:

Salgai dauden ondasunen balioa berreskuratzeagatik, lehenago kontabilizatutako narriadura-galeren zenbatekoraino, egindako balio-zuzenketaren zenbatekoa jasotzen du.

Balio-berreskurapenaren zenbatekoan abonatuko da, «Salgai dauden aktiboen narriadura» 398 kontuan zordunduta.

795. Hornidura-soberakinak.

Egindako horniduraren eta ekitaldi-itxieran dagokion edo obligazioari erantzutean ordaindutako balioaren arteko diferentzia positiboa.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Balio-zuzenketaren zenbatekoan abonatuko da, «Epe luzeko hornidurak» 14 azpitaldeko edo «Epe motzeko hornidurak» 58 azpitaldeko kontu egokietan zordunduta.

796. Partaidetzen narriadura-itzulera.

Balio-zuzenketa, ondare garbiko partaidetzen balioa berreskuratzeagatik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Balio-berreskurapenaren zenbatekoan abonatuko da, «Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 59 azpitaldeko kontu egokietan zordunduta.

797. Zorra adierazten duten baloreen narriadura-itzulera .

Balio-zuzenketa, zorra adierazten duten baloreen balioa berreskuratzeagatik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Balio-berreskurapenaren zenbatekoan abonatuko da, «Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 59 azpitaldeko kontu egokietan zordunduta.

798. Kredituen eta beste inbertsio finantzario batzuen narriadura-itzulera.

Balioespen-zuzenketa, «Epe luzeko inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» 25 azpitaldeko, «Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk» 26 azpitaldeko, «Epe luzera eratutako fidantzak eta gordailuak» 27 azpitaldeko, «Inbertsio finantzarioak epe motzera taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 53 azpitaldeko, «Epe motzeko inbertsio finantzarioak» 54 azpitaldeko eta «Epe motzera jasotako eta eratutako fidantzak eta gordailuak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak» 56 azpitaldeko nahiz «Hartzekodunak eta zordunak» 4 taldeko kredituetan, fidantzetan eta gordailuetan balioa berreskuratzeagatik.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Balio-berreskurapenaren zenbatekoan abonatuko da, azpitalde hauetako kontu egokietan zordunduta: «Aktibo ez-korronteen balio-narriadura» 29 azpitaldeko eta «Epe motzeko inbertsio finantzarioen balio-narriadura» 59 azpitaldeko kontuetan eta «Kredituen balio-narriadura» 490 kontuan, dagokionaren arabera.

490 kontuan aurreikusitako bigarren aukera erabiltzean, kontabilitateko definizioa eta mugimendua kontu horretan ezarritakora egokituko dira.

799. Ibilgetu materialaren narriadura-itzulera lagatako usufruktuagatik.

Erabilera lagatako ibilgetuaren balioa berreskuratzeagatik egindako balio-zuzenketa.

«Ibilgetu materialaren balio-narriadura lagatako usufruktuagatik» 299 kontuan zordunduta abonatuko da, erabiltzeko lagatako ibilgetuaren balio berreskuragarria kontabilitate-balioa baino handiagoa bada, muga kontabilitate-balioa izanik, narriadurarik egon ez bada.

8 Taldekoak. Ondare garbiari egotzitako gastuak.

Erakundearen ondare garbiaren murrizketak, sortutako ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotzi gabeak.

80. Aktibo finantzarioen balioespenagatiko galerak.

800. Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak.

802. Aktibo finantzario salgarrietan izandako mozkinak egoztea.

Ekitaldian zehar «Aktibo finantzario salgarriak» kategorian sailkatutako aktibo finantzarioen arrazoizko balioan izandako aldaketa negatiboak jasotzen ditu, baita aipatutako aktibo horien arrazoizko balioan izandako aldaketa positiboen (aldez aurretik ondare garbian aintzatetsia) ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako egozpena ere.

800. Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Salgarritzat sailkatutako aktibo finantzarioen arrazoizko balioan izandako aldaketa negatiboekin (birsailkatzean sortzen direnak barne hartuta) zordunduko da, dagokien aktibo finantzarioen kontuetan zordunduta.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, «Balioespen-doikuntzak aktibo finantzario salgarrietan» 133 kontuan zordunduta.

802. Aktibo finantzario salgarrietan izandako mozkinak egoztea.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

   a.1) Aktibo finantzario salgarriei baja ematen zaienean edo inorenganatzen direnean (birsailkatu direnak ere barne hartuta), ondare garbian metatutako saldo positiboarekin, «Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan» 7641 azpikontuan abonatuta.

   a.2) «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioa» delakora birsailkatzean, «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan abonatuta, aktibo finantzarioaren hondar-bizitzan zehar, Interes-tasa efektiboaren metodoari jarraiki, ordura arte ondare garbian aintzatetsitako balio-gehikuntzak egozteagatik.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, «Balioespen-doikuntzak aktibo finantzario salgarrietan» 133 kontuan zordunduta.

81. Estaldura-eragiketetan izandako gastuak.

810. Estaldurengatiko galerak.

811. Estaldurengatiko mozkinen egoztea.

8110. Estaldurengatiko mozkinak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan.

8111. Estaldurengatiko mozkinak egoztea estalitako partidaren hasierako balioan.

«Kontabilitateko estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, ondare garbiari egotzi beharreko estaldura-tresnetako galerak jasotzen ditu ekitaldian zehar, baita aldez aurretik ondare garbiari egotzitako estaldura-tresnetan izandako mozkinen ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako transferentziak ere.

810. Estaldurengatiko galerak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ondare garbian egotzi beharreko estaldura-tresnako galeraren zenbatekoarekin zordunduko da, oro har, «Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 1760 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 2630 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 5260 azpikontuan edo «Estaldura-

tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 5430 azpikontuan abonatuta.

b) Bere saldoaren zenbatekoan abonatuko da, ekitaldi-itxieran, «Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak» 134 kontuan zordunduta.

811. Estaldurengatiko mozkinen egoztea.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

8110. Estaldurengatiko mozkinak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) «Mozkinak estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan» 7645 kontuko sail-kontu egokian abonatuta zordunduko da, estaldura-kontabilitateko arauen arabera ondare garbian zuzenean aintzatetsitako zenbateko positiboak ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura transferitu behar direnean.

b) Bere saldoaren zenbatekoan abonatuko da, ekitaldi-itxieran, «Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak» 134 kontuan zordunduta.

8111. Estaldurengatiko mozkinak egoztea estalitako partidaren hasierako balioan.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Dagokion ondare-elementuaren kontuan abonatuta zordunduko da, konpromiso irmoa betetzean edo aurreikusitako transakzioa egitean sortzen den aktibo edo pasiboaren hasierako baliora egozteagatik.

b) Bere saldoaren zenbatekoan abonatuko da, ekitaldi-itxieran, «Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak» 134 kontuan zordunduta.

82. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenagatiko gastuak.

820. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak arrazoizko balioa gutxitzeagatik.

821. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik.

822. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak bajetako balio-galerengatik.

823. Mozkinak egoztea ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean.

820. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak arrazoizko balioa gutxitzeagatik.

Kontu honetan, erakundeak errebalorizazio-eredua jarraitzen duenean ibilgetu ez-finantzarioko elementuek kontabilitateko balioari dagokionez izandako murrizketa jasotzen da, baita erabilera-aldaketen ondoriozko birsailkapenek eragindakoa ere, murrizketa hauek kontabilitateko errebalorizazio-eredutik kontabilitateko kostu-eredura aldatzea eragiten du.

Halaber, kontu honetan, arrazoizko balioaren arabera jasotako aktiboetan egutegian izandako aldaketen edo zenbateko estimatuan izandako aldaketen edo deskontu-tasan izandako aldaketen ondorioz desegiteagatik, birgaitzeagatik edo antzekoagatik izandako hornidura-gehikuntzak ere jasotzen dira.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zordunduko da:

a.1) Ibilgetu ez-finantzarioaren elementuen arrazoizko balioko aldaketa negatiboen zenbatekoan, aipatutako elementuari dagokion «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuko saldoaren mugarekin, dagozkion ondare-elementuak adierazten dituzten kontuetan abonatuta.

a.2) Desegiteagatik, birgaitzeagatik edo antzekoagatik egindako hornidura-balioespenaren gehikuntzen zenbatekoan, aipatutako elementuari dagokion «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuko saldoaren mugarekin, «Hornidurak, aktiboak eta pasibo kontingenteak» 17. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera hala dagokionean.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuan zordunduta.

821. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak amortizazioengatik.

Kontu honetan, erakundeak errebalorizazio-eredua jarraitzen duenean, kostu-ereduaren arabera ekitaldiko amortizazio-gastua gainditzen duen ekitaldiko amortizazioagatiko gastuaren zatia jasotzen da.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Urteko amortizaziorako zuzkiduraren zenbatekoan zordunduko da, «Ibilgetuaren amortizazio metatua» 28 azpitaldean dagokion azpikontuan abonatuta, eta amortizatutako ondasunaren izaeraren arabera.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuan zordunduta.

822. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntza negatiboak bajetako balio-galerengatik.

Kontu honetan, erakundeak errebalorizazio-eredua jarraitzen duenean, inorenganatzean, bajan edo bestelakoan izandako galera jasotzen da.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Aktibo ez-korronteen arrazoizko balioan izandako aldaketa negatiboekin zordunduko da, ondare-elementu egokien kontuetan abonatuta, aipatutako ibilgetuari dagokion «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuko saldoaren zatiaren zenbatekoan.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuan zordunduta.

823. Mozkinak egoztea ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean.

Kontu honetan, ekitaldian egindako eta aurreko ekitaldietan erakundearen ondare garbiari egotzitako ibilgetu ez-finantzarioaren balio-gehikuntzaren gainean ondarearen emaitza ekonomikora egindako egozpena jasotzen da.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ibilgetu ez-finantzarioari baja ematen zaionean edo inorenganatzen denean zordunduko da, inorenganatutako ibilgetuari dagokion «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuko saldoaren zenbatekoan, «Aktibo ez-korronteetatik, gestio arrunteko beste sarrera batzuetatik eta ezohiko sarreretatik datozen mozkinak» 77 azpitaldeko kontuetan abonatuta, bai eta ibilgetu ez-finantzarioan dagokion kontuan ere.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko da, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» 136 kontuan zordunduta.

84. Diru-laguntzak egoztea.

840. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen egoztea.

8400. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

8401. Gainerako erakundeenak.

841. Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea.

8410. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

8411. Gainerako erakundeenak.

842. Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak egoztea.

8420. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

8421. Gainerako erakundeenak.

840/841/842. ... egoztea.

Aldez aurretik ondare garbira egotzitako diru-laguntzen gainean ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egindako transferentzia jasotzen da kontu hauetan.

Beren sail-kontuen bitartez funtzionatuko dute.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Jasotako diru-laguntza ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egozten denean zordunduko dira, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 75 azpitaldeko kontu korrelatiboan abonatuta. Aktibo korronteak finantzatzeko diru-laguntzen kasuan, haien inorenganatzea edo inbentarioko baja gertatzen denean egin beharko da egozte hori.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko dira, 13 «Diru-laguntzak eta doikuntzak balio-aldaketagatik» 13 azpitaldeko kontu korrelatiboan zordunduta.

89. Aurretiko balio-doikuntza positiboak dituzten taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzen gastuak.

891. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetza-narriadura.

891. Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetza-narriadura.

Ondare garbian zuzenean egotzi beharreko taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako partaidetzen narriaduraren balio-zuzenketak jasotzen ditu, horren aurretiko inbertsioak egin direnean, eta partaidetza hauek, ondare garbira zuzenean egotzitako balio-handitzeengatik, aldez aurretik balioespen-doikuntzak eragin dituztenean. Hori guztia, aintzatespen- eta balioespen-arauetan horri buruz xedatutakoarekin bat etorriz.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Aktibo finantzarioaren balio-narriadura gertatzen denean zordunduko da, aurretiko balioespen-handitzeen mugara arte, «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko, «Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko, «Epe motzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 530 kontuko edo «Epe

motzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 531 kontuko sail-kontu egokian abonatuta.

b) Ekitaldi-itxieran abonatuko dira, «Balioespen-doikuntzak aktibo finantzario salgarrietan» 133 kontuan zordunduta.

9 Taldekoak. Ondare garbiari egotzitako sarrerak.

Erakundearen ondare garbiaren gehikuntzak, sortzen diren ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egotzi gabeak.

90. Aktibo finantzarioen balioespenagatiko sarrerak.

900. Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan.

902. Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea.

Ekitaldian zehar «Aktibo finantzario salgarriak» kategorian sailkatutako aktibo finantzarioen arrazoizko balioan izandako aldaketa positiboak jasotzen ditu, baita aipatutako aktibo horien arrazoizko balioan izandako aldaketa negatiboen (aldez aurretik ondare garbian aintzatetsita) ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako edo dagokion aktiboaren konturako egozpena ere.

900. Mozkinak aktibo finantzario salgarrietan .

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Salgarritzat sailkatutako aktibo finantzarioen arrazoizko balioan izandako aldakuntza positiboekin (birsailkatzean sortzen direnak barne hartuta) abonatuko da, dagokien aktibo finantzarioen kontuetan zordunduta.

b) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, «Balioespen-doikuntzak aktibo finantzario salgarrietan» 133 kontuan abonatuta.

902. Aktibo finantzario salgarrietako galeren egoztea .

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

a.1) Aktibo finantzario salgarriei baja ematen zaienean edo inorenganatzen direnean (birsailkatu direnak ere barne hartuta), ondare garbian metatutako saldo negatiboarekin, «Aktibo finantzario salgarrietan izandako galerak» 6641 azpikontuan zordunduta.

a.2) Tresna finantzarioa narriatzen den unean, ondare garbian metatutako saldo negatiboarekin, zor-tresna bakoitzari dagokion kontuan zordunduta, edo, ondare-tresnetan egindako inbertsioak direnean, «Partaidetzen narriadura-galerak» 696 kontuan zordunduta, haren sail-kontuen bidez.

a.3) «Epemugara arte mantendutako inbertsioa» delakora birsailkatzean, «Zorra adierazten duten baloreen sarrerak» 761 kontuan zordunduta, aktibo finantzarioaren hondar-bizitzan zehar, Interes-tasa efektiboaren metodoari jarraiki, ordura arte ondare garbian aintzatetsitako balio-murrizketak egozteagatik.

b) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, «Balioespen-doikuntzak aktibo finantzario salgarrietan» 133 kontuan abonatuta.

91. Estaldura-eragiketen sarrerak.

910. Estaldurengatiko mozkinak.

911. Estaldurengatiko galeren egoztea.

9110. Estaldurengatiko galerak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan.

9111. Estaldurengatiko galerak egoztea estalitako partidaren hasierako balioan.

Ondare garbira, «Kontabilitate-estaldurak» 10. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, egotzi beharreko estaldura-tresnetako mozkinak jasotzen ditu ekitaldian zehar, baita aldez aurretik ondare garbiari egotzitako estaldura-tresnetan izandako galeren ondarearen emaitza ekonomikoaren konturako transferentziak ere.

910. Estaldurengatiko mozkinak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Ondare garbian egotzi beharreko estaldura-tresnako mozkinaren zenbatekoarekin abonatuko da; Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 1760 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe luzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 2630 azpikontuan, «Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik pasiboak» 5260 azpikontuan edo «Estaldura-tresna izendatutako epe motzeko deribatu finantzarioengatik aktiboak» 5430 azpikontuan abonatuta.

b) Bere saldoaren zenbatekoan zordunduko da, ekitaldi-itxieran, «Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak» 134 kontuan abonatuta.

911. Estaldurengatiko galeren egoztea.

Bere sail-kontuen bitartez funtzionatuko du.

Barne hartzen dituen azpikontuen eduki eta mugimendu hauek daude:

9110. Estaldurengatiko galerak egoztea ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan

a) «Estaldura-tresna izendatutako deribatu finantzarioetan izandako galerak» 6645 kontuko sail-kontu egokian zordunduta abonatuko da, estaldura-kontabilitateko arauen arabera ondare garbian zuzenean aintzatetsitako zenbateko negatiboak ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura transferitu behar direnean.

b) Bere saldoaren zenbatekoan zordunduko da, ekitaldi-itxieran, «Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak» 134 kontuan abonatuta.

9111. Estaldurengatiko galerak egoztea estalitako partidaren hasierako balioan

a) Dagokion ondare-elementuaren kontuan zordunduta abonatuko da, konpromiso irmoa betetzean edo aurreikusitako transakzioa egitean sortzen den aktibo edo pasiboaren hasierako baliora egozteagatik.

b) Bere saldoaren zenbatekoan zordunduko da, ekitaldi-itxieran, «Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak» 134 kontuan abonatuta.

92. Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenagatiko sarrerak.

920. Doikuntza positiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean arrazoizko balioa handitzeagatik.

920. Doikuntza positiboak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean arrazoizko balioa handitzeagatik.

Kontu honetan, erakundeak ibilgetu ez-finantzarioaren balioespenean errebalorizazio-eredua jarraitzen duenean, elementu horiek, beren kontabilitateko balioari dagokionez, erregistratuta dauden arrazoizko balioan izandako gorakada jasotzen da. Halaber, erabilera-aldaketagatik egindako birsailkapenen ondoriozko balio-handitzea ere jasotzen da, kontabilitateko kostu-eredutik errebalorizazio-eredura aldatzea eragiten dutenean.

Halaber, kontu honetan, arrazoizko balioan erregistratutako aktiboetan, egutegian izandako aldaketen edo zenbateko estimatuan izandako aldaketen edo deskontu-tasan izandako aldaketen ondorioz desegiteagatik, birgaitzeagatik edo antzekoagatik izandako hornidura-murrizketak ere jasotzen dira.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Abonatuko da:

   a.1) Errebalorizazio-ereduaren arabera balioetsitako ibilgetu ez-finantzarioaren arrazoizko balioan izandako aldaketa positiboen zenbatekoan, dagokien ondare-elementuak adierazten dituzten kontuetan zordunduta.

   a.2) Desegiteagatik, birgaitzeagatik edo antzekoagatik egindako hornidura-balioespenaren murrizketen zenbatekoan, «Hornidurak, aktiboak eta pasibo kontingenteak» 17. aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera egokia denean.

b) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, «Ibilgetu ez-finantzarioaren balioespen-doikuntzak» kontuan zordunduta.

94. Diru-laguntzengatiko sarrerak.

940. Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak.

9400. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

9401. Gainerako erakundeenak.

941. Aktibo korronteak eta gastuak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak.

9410. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

9411. Gainerako erakundeenak.

942. Eragiketa finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzen sarrerak.

9420. Erakunde jabearenak edo jabeenak.

9421. Gainerako erakundeenak.

940/941/942. Diru-laguntzen sarrerak .(r)entzat.

Ekitaldi batean jasotako eta ondarearen emaitza ekonomikoari egotzi gabeko diru-laguntza itzulezinak, «Transferentziak eta diru-laguntzak» 18 aintzatespen- eta balioespen-arauak xedatuaren arabera.

Beren sail-kontuen bitartez funtzionatuko dute.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoan abonatuko dira, normalean «Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Indarrean dagoen sarreren aurrekontua» 430 kontuan zordunduta, diru-laguntza espezietan bada, edo, diru-laguntza itzulgarri bat itzulezin

bihurtuz gero, «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak» 172 kontuan, edo «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak» 522 kontuan edo «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 163 kontuan edo «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 513 kontuan.

b) Hauetan abonatuta zordunduko dira:

b.1) «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak» 172 kontuan, edo «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak» 522 kontuan, edo «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 163 kontuan edo «Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» 513 kontuan, diru-laguntza itzulezin bat itzulgarri bihurtzen denean.

b.2) Ekitaldia ixtean, «Diru-laguntzak eta doikuntzak balio-aldaketagatik» 13 azpitaldeko kontu korrelatiboan abonatuta.

99. Aurretiko balio-doikuntza negatiboak dituzten taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako partaidetzen sarrerak.

991. Aurreko balio-doikuntza negatiboak berreskuratzea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak.

993. Aurreko balio-doikuntza negatiboengatiko egoztea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak.

Azpitalde honetako kontuetan, zuzenean ondare garbiari egotzitako taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako edo elkartuetako partaidetzen narriaduragatik egindako zuzenketen berreskuratzea jasoko da, partaidetza horiek taldeko eta talde anitzeko erakundeetako eta elkartuetako ondare-partaidetza gisa kalifikatu aurretik inbertsioak egin direnean. Balioespen-doikuntza horiek ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura transferitzea ere hemen jasoko da, narriadura izan denean. Hori guztia, «Aktibo finantzarioak» 8. aintzatespen- eta balioespen-arauan horri buruz xedatutakoarekin bat etorriz.

991. Aurreko balio-doikuntza negatiboak berreskuratzea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Zenbateko berreskuragarria inbertsioen kontabilitate-balioa baino handiagoa denean abonatuko da, aurretiko balioespen-doikuntza negatiboen mugara arte, «Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 250 kontuko, «Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 251 kontuko, «Epe motzeko partaidetzak taldeko erakundeetan» 530 kontuko edo «Epe motzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan» 531 kontuko sail-kontu egokian zordunduta.

b) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, «Balioespen-doikuntzak aktibo finantzario salgarrietan» 133 kontuan abonatuta.

993. Aurreko balio-doikuntza negatiboengatiko egoztea, taldeko erakundeak, talde anitzak eta elkartuak.

Kontuaren mugimendua honako hau da:

a) Aktibo finantzarioaren narriadura gertatzen denean abonatuko da, lehen egindako balioespen-doikuntza negatiboen zenbatekoan, «Partaidetzen narriadura-galerak» 696 kontuaren sail-kontu egokian zordunduta.

b) Ekitaldi-itxieran zordunduko da, «Balioespen-doikuntzak aktibo finantzario salgarrietan» 133 kontuan abonatuta.

4. ERANSKINA
BIZKAIKO TOKIKO SEKTORE PUBLIKOAREN EREMUAN URTEKO KONTU BATERATUAK EGITEKO ARAUAK

Tokiko zerbitzu publikoak ematean gero eta deszentralizazio-prozesu handiagoa dago; deszentralizazio hori erakunde publiko autonomoak sortuz garatzen da, zerbitzuak ematerakoan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko asmoz. Egoera horrek agerian utzi du urteko kontu indibidualak ez direla nahikoak erakunde horiek egindako kudeaketa islatzeko, kontrol-eremu berean dauden erakunde publikoen taldearen kontabilitate-informazioa edukitzeko beharra agerian utziz. Erakunde publikoen taldearen finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoeraren irudi fidela erakusten duten kontu horiek ezin dira izan erakunde horien kontu indibidualak gehitzearen emaitza; aitzitik, erakunde horien urteko kontu bateratuak izan behar dute, eta aurrerapauso handia izango dira tokiko kontabili- tate-informazio publikoaren gardentasunean.

Egoera horren aurrean, eta hala kontabilitate-informazioaren kalitatean nola erabiltzaileen eskura jartzean lortutako aurrerapen garrantzitsuak kontuan hartuta, ezinbeste- kotzat jo da tokiko sektore publikoaren eremuan urteko kontu bateratuak egiteari dago- kionez aurrera egitea.

Tokiko sektore publikoaren eremuko kontuen kontsolidazioa aurrerapauso oso handia izango da kontabilitate-informazio publikoaren gardentasunean, betiere alde batera utzi gabe kontsolidatu edo bateratu beharreko erakundeek kontabilitate-plan desberdiak aplika ditzaketela, kontabilitateko arau-esparru desberdinei lotuta daudelako.

Bizkaiko tokiko sektore publikoaren esparruan urteko kontu bateratuak egiteko arauak onartzearekin batera Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 62.5 artikuluko agindua betetzen da.

Urteko kontu bateratuak egiteko arauak lau kapitulutan eta gehigarri batean egituratzen dira.

Lehenengo kapituluan, «Arau orokorrak» izenekoan, honela definitzen da taldea: erakunde nagusiak eta haren mendeko erakunde guztiek osatzen dute taldea, eta kontrola da, etekin ekonomikoak edo zerbitzu-potentziala lortzeko helburuarekin, finantza-politikak eta beste erakunde baten jarduera zuzentzeko boterea, nagusi-mendeko harremana identifikatzeko gakoa, eta zenbait presuntzio ezarri dira kontrolaren existentziari buruz. Zehazten da ezein toki-erakunde ezin izango dela beste toki-erakunde baten mende- ko izan, eta, beraz, kontuak bateratzeari dagokionez Kontu Orokorra osatu behar duen toki-erakunde orok erakunde menderatzailearen izaera baino ezin izango duela izan. Nolanahi ere, toki-erakundeei atxikitako partzuergoak eta fundazioak atxikitako toki-era- kundearen mendeko erakundetzat hartuko dira beti. Taldea osatzen ez duten baina kon- tsolidazioan esku hartzen duten beste erakunde batzuk ere definitzen dira: talde anitze- ko erakundeak eta elkartuak.

Lehenengo kapitulu horretan, halaber, kontsolidatzeko betebeharra arautzen da hain zuzen ere erakunde nagusia kontsolidatzera behartuta ez dagoen kasuetan, bai eta kontsolidaziotik kanpo dauden erakundeetan ere. Kontsolidatzeko betebeharrari dagokionez, hainbat aurreikuspen jasotzen dira Kontu-hartzailetzak edo kontabilitatea esleituta duen erakundeko organoak urteko kontu bateratuak egiteko behar duen informazioa izan dezan.

Azkenik, kapitulu honetan kontsolidazio-metodoak eta -prozedurak ezartzen dira: integrazio globalaren metodoa, integrazio proportzionalaren metodoa eta partaidetza baliokidetzan edo metodoan jartzeko prozedura; horiek erakunde nagusiek erakundeengan duten eraginaren arabera aplikatuko zaizkie erakundeei. Baliokidetasunean jartzeko prozeduraren aldaera sinplifikatu gisa, baliokidetasunean jartzeko prozedura aldatua sartzen da.

Bigarren kapituluan, «Integrazio globaleko metodoa» izenekoan, metodoa definitzen da eta urteko kontu bateratuak egiteko jarraitu beharreko prozedura deskribatzen da, honako etapa hauen bidez:

a) Aurretiazko homogeneizazioa, aldi baterakoa, baloraziozkoa, barne-eragiketengatik eta urteko kontuen egituragatik izan daitekeena.

b) Gehitzea.

c) Inbertsio-ondare garbia, talde barruko partidak eta emaitzak ezabatzea.

Lehenengo kontsolidazioan inbertsioa-ondare garbia ezabatzeari dagokionez, arauek lehen kontsolidazioaren diferentzia definitzen dute, dela merkataritza-funtsa, dela kontsolidazioaren diferentzia negatiboa, eta kanpoko bazkideen partaidetza arautzen dute.

Sektore publikoaren eremuan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauek aktibo amortizaezin gisa eratzen dute kontsolidazioko merkataritza-funtsa. Hala ere, kontuan hartuta aktibo ukiezin hori berez edo normalean enpresen arteko negozio-konbinazioei dagokiela kontabilitate-printzipio publikoen pean dauden erakundeen arteko antzeko eragiketei baino gehiago, orain onartzen diren arauek aktibo amortizagarri gisa eratzen dute, hau da, irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez onartutako sektore pribatuko kontsolidazio-arauek (eta kontu indibidualetako merkataritza-funtsari buruzko Kontabilitate Plan Orokorrak berak) egiten duten bezala.

Geroko kontsolidazioetan inbertsioa-ondare garbia ezabatzeari dagokionez, nola egin behar den deskribatzen da, eta honako kasu hauek arautzen dira: partaidetza aldatzea kontrola eta inbertsio gehigarria galdu gabe, edo inbertsioa murriztea partaidetza aldatu gabe, bai eta kanpoko bazkideen balorazioa ere.

Inbertsioa-ondare garbia ezabatzea ere arautzen da, mendeko erakundeen arteko zeharkako partaidetzen eta elkarrekiko partaidetzen kasuetan.

Talde barruko partiden eta emaitzen ezabaketei dagokienez, taldeko erakundeen arteko kreditu eta zorren, sarrera eta gastuen, diru-fluxuen eta aurrekontu-gastu eta -sarreren ezabaketa arautzen da, bai eta izakinen, ibilgetuaren, higiezinetako inbertsioen edo lurzoruaren ondare publikoaren, zerbitzuen eta finantza-aktiboen barne-eragiketen emaitzak ezabatzea ere, eta baita balio-aldaketen doikuntzak aplikatzeagatik eta ondare garbian dirulaguntzak aintzatesteagatik, taldeak jaulkitako pasibo finantzarioak hirugarrenei eskuratzeagatik eta barne-dibidenduengatik ere. Garrantzi erlatiboaren printzipioaren arabera, adibidez, aukera egongo da oso esanguratsuak ez diren eragiketak ez ezabatzeko, edo, bestela, zenbateko bera kendu ahal izango da baldin eta erakundeek kontabilizatutako zenbatekoak berdinak ez badira eta haien arteko aldea oso esanguratsua ez bada.

Hirugarren kapituluan integrazio proportzionalaren metodoa eta parte hartzeko baliokidetasunean edo metodoan jartzeko prozedura deskribatzen dira. Integrazio proportzionalaren metodoa integrazio globalaren metodoarekin dituen desberdintasunen bidez deskribatzen da. Baliokidetasunean jartzeko prozedurari dagokionez, honako hauek arautzen dira: informazioaren homogeneizazioa eta prozeduraren lehenengo eta ondorengo aplikazioak, partaidetzaren aldaketa eta inbertsioaren balio-narriadura erakunde partaidetuan.

Hirugarren kapitulu honen amaieran, «baliokidetasunean jartzeko prozedura aldatua» deskribatzen da; prozedura hori baliokidetasunean jartzeko prozedura aplikatzean datza, hau da, erakundeko inbertsioaren balioa ondare garbian duen partaidetzaren ehunekora eguneratzea, aurretiazko homogeneizaziorik egin gabe eta barne-eragiketen ondoriozko emaitzen ezabaketarik egin gabe.

Laugarren kapitulua urteko kontu bateratuei buruzkoa da, eta horiek osatzen dituzten dokumentuak, horien formulazioa eta horiek egiteko arauak arautzen ditu. Kapitulu honetan Kontabilitate Plan Orokorrari egiten zaizkion erreferentziak azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorrari eta haren egokitzapenei egiten

zaizkiela ulertu behar da, baita azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onartu zuen enpresa txiki eta ertainentzako Kontabilitate Plan Orokorrari ere. Era berean, irabazi-asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Planari buruzko aipamenek barne hartzen dituzte bai Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez onartutako izen bereko plana, bai irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen Kontabilitate Plana, organo beraren ebazpen bidez egun berean onartua.

Gehigarrian urteko kontu bateratuen ereduak sartzen dira: balantze bateratua, ondarearen emaitza ekonomiko bateratuaren kontua, ondare garbi bateratuaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxu bateratuen egoera-orria, aurrekontu bateratuaren likidazio-egoera-orria eta memoria kontsolidatua.

Urteko kontu bateratuen ereduak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean aurreikusitako banakako kontuen ereduetan oinarrituta egin dira, toki-administrazioari egokituta, kontzeptuak euren baliokide kontsolidatuei egokituta eta kontsolidazio-prozesutik sortzen diren berariazko partidak gehituta.

Kontu horiek tokiko taldearen egoera eta ikuspegi orokorra, argia eta sintetikoa isla dezaten, ahal izan den guztietan ez da informazioaren banakapenik egin.

Kontsolidazio-prozesuan kontabilitateko arau-esparru desberdinak dituzten erakundeen urteko kontuak inplikatuta egon daitezkeenez, urteko kontu bateratuen ereduetan kontabilitateko printzipio publikoen mende ez dauden erakundeen urteko kontuen egituraren berezitasunak jasotzeko partidak sartu edo egokitu dira.

Azpimarratzekoa da diru-fluxu bateratuen egoera-orriak bi eredu dituela (bata normala eta bestea laburtua), erakunde nagusiak bata edo bestea aukeratu ahal izateko, hori egiteko duen informazioaren arabera.

Memoriaren edukiari dagokionez, bateratze-perimetroari buruzko informazioa nabarmentzen da, baita prozesuaren partida espezifikoei buruzkoa ere: merkataritza-funtsa, kontsolidazio-diferentzia negatiboa, kanpoko bazkideak, talde anitzeko erakundeei dagozkien partidak edo baliokidetasunean jarritako erakundeetako partaidetzak.

Urteko kontu bateratuen eta aplikatutako aintzatespen- eta balioespen-arauen aurkezpen-oinarriei buruzko informazioa ere (gutxienez, erakunde nagusiak erabilitakoekin bat ez datozen arauena eta, betiere, kontsolidazioa egitean sortzen diren partida espezifikoei buruzko arauena) ematen du memoriak. Era berean, balantze bateratuaren epigrafe nagusien berri ematen du, ikuspegi kuantitatibotik (zenbatekoa edo aldaketa aintzat hartuta) edo kualitatibotik, eta, nolanahi ere, «Ondare Garbiak» izandako mugimenduen berri ematen du. Aurrekontu-informazioa ere jasotzen du (hala aurrekontu mugatzailea duten erakundeena nola aurrekontu ez mugatzailea duten erakundeena —hau da, gastuen eta diru-sarreren aurreikuspen-egoerekin—).

Memoriak ohar espezifiko bat du (16.a), eragindako ondare-elementuari dagokion oharrean islatu ez den kontu bateratuei eragiten dien beste informazio esanguratsua islatzeko.

Azkenik, toki-administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren memorian aurreikusitako edukiei dagokienez memoria bateratutik edukiak kentzearen arrazoiak bi dira: edo informazio hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematen zaizkion kontu indibidualetan agertzen da, eta horiei urteko kontu bateratuak gehituko zaizkie; edo garrantzi gutxikotzat jo da tokiko taldearen ikuspegitik.

I. KAPITULUA
ARAU OROKORRAK

1. SEKZIOA
ENTITATE TALDEA

1.artikulua. Entitate taldea

Entitate taldea, kontuak bateratzeko ondorio bakarrarekin, entitate nagusiak eta ha- ren mendeko entitate guztiek osatuta dago, azken horiek eranskin honen 8. artikuluan aurreikusitako kasuetan bateratzetik kanpo geratzearen aukera gorabehera.

2. artikulua. Entitate nagusia eta mendeko entitateak

1. Entitate nagusia toki sektore publikoaren entitatea da, kontabilitate printzipio publikoetara lotua eta, zuzenean edo zeharka, mendeko izeneko beste baten edo batzuen gaineko kontrola duena.

   Haatik, ondorio hauetarako, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 3. artikuluan aipatzen diren toki entitateak eta udalerria baino lurralde eremu txikiagoko entitateak, berezko nortasun juridikoa dutenak, ezingo dira beste toki entitate baten mendeko izan.

2. Kontrol modura ulertzen da beste entitate baten finantza politikak eta jarduera zuzentzeko ahala, errendimendu ekonomikoak edo zerbitzuarekin lotutako balizko errendimenduak eskuratzeko xedez.

   Zehazki, kontrola dagoela irizten da ahalarekin eta ondare garbiarekin lotuta, jarraian zerrendatzen diren, gutxienez, baldintzetako bana betetzen denean, kontrola beste entitate batek duela ari dagoenean izan ezik.

   Ahalarekin lotutako baldintzak:

   a) Entitateak, zuzenean edo zeharka, kontrolatutako entitateen bidez, bozkatzeko eskubidearen % 50etik gorako partaidetza gehiengoa du beste entitatean.

   b) Entitateak, arauan ezarritakoaren edo adostasun formalaren arabera, beste entitateko gobernu organoko kide gehienak izendatu edo baliogabetzeko ahala du.

   c) Entitateak, arauan ezarritakoaren edo adostasun formalaren arabera, beste entitatearen batzar nagusi batean eman litezkeen boto eskubide gehiengoa du.

   d) Entitateak, arauan ezarritakoaren edo adostasun formalaren arabera, gobernu organoaren bilkuretan boto gehien emateko ahala du, eta beste entitatearen gaineko kontrola organo horren bidez gauzatzen da.

   e) Entitateak bere botoekin gobernu organoko kide gehienak izendatu ditu, beren kargua kontu bateratuak egin behar diren unean betetzen dutenak eta aurreko bi urteetan. Zehazki, inguruabar hori mendeko entitateko gobernu organoko kide gehienak taldeko entitateren bateko gobernu organoko kideak direla ulertuko da.

Ondare garbiarekin lotutako baldintzak:

   a) Entitateak beste entitatea desegiteko eta hondar etekin ekonomiko handiak eskuratu edo obligazio garrantzitsuak beregain hartzeko ahala du.

   b) Entitateak beste entitatearen aktiboen banaketan sartzeko ahala du, edo beste entitatearen obligazio jakin batzuen gaineko ardura izan dezake.

3. Edozein kasutan, toki entitate batera atxikitako partzuergo eta fundazioak toki entitate horren mendeko entitatetzat joko dira.

3. artikulua. Boto eskubideen zenbaketa

1. Boto eskubideak zehazteko entitate nagusiak zuzenean dituenei hark menderatutako entitateei edo berezko izenean, baina taldeko entitateren baten kontura, jarduten duten beste entitate batzuei dagozkienak gaineratuko zaizkie.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, entitate nagusiari dagokion boto kopurua, zeharka haien mendeko diren entitateekiko, entitate horien kapital sozialean edo ondarean zuzenean parte hartzen duen mendeko entitateari dagokiona izango da.

2. SEKZIOA
BATERAKUNTZAN ESKU HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK

4.artikulua. Talde anitzeko entitateak

1. Talde anitzeko entitate dira, baterakuntza ondorioetarako soilik, taldean sartuta ez dauden entitateak, bertako entitate batek edo gehiagok kudeatuak, horien sozietate kapitalean edo ondarean parte hartzen dutenak, taldeaz kanpoko bate batekin edo batzuekin.

2. Baterako kudeaketa estatutu edo kontratuzko akordio bat da. Akordio horren arabera bi entitate edo gehiagok ekonomia jarduera baten gaineko finantza politikak eta jarduerak zuzentzeko ahala partekatzea adosten dute. Horrela, erabaki estrategikoek, hala finantza arlokoak nola jardunari dagozkion erabaki operatiboa, baterako kudeaketa gauzatzen duten guztien ahobatezko baimena eskatzen dute.

3. Edozein kasutan, entitate baten gaineko baterako kudeaketa dagoela ulertzen da, sozietate kapitalean edo ondarean parte hartzeaz gainera, inguruabar hauetakoren bat ematen denean:

   a) Sozietateko estatutuetan baterako kudeaketa ezartzea, edo

   b) Entitateko erabakiak hartzeko orduan bazkideek beto eskubidea izateko aukera ematen duten itun edo akordioak egotea.

5.artikulua. Entitate elkartuak.

1. Entitate elkartu izaera izango dute, kontuak bateratzeko ondorioetarako soilik, taldean sartuta ez dauden entitateak, taldeko entitate batek edo ugarik eragin adierazgarria izanik sozietate kapitalean edo ondarean partaidetza bat izateagatik, harekin lotura iraunkorra sortuz, baldin eta horien jardueran laguntzeko entitateak badira.

2. Beste entitate bateko kudeaketan eragin adierazgarria dago bi betekizun hauek betetzen direnean:

   a) Taldeko entitate batek edo gehiagok entitatearen sozietate kapitalean edo ondarean parte hartzea, eta

   b) Partaidetuaren finantza eta jardun arloko politikako erabakietan esku hartzeko ahala izatea, kudeaketa bateratua izatera iritsi gabe, eta kontrola ere izan gabe.

3. Aurreko apartatuan ezarritako betekizunak betetzen direla irizten da, kontrakoa frogatu ezean, taldeko entitate batek edo gehiagok, taldeko kide ez den entitatearen kapitalaren edo ondarearen % 20 duenean gutxienez.

3. SEKZIOA
KONTUAK BATERATZEKO BETEBEHARRA, ETA SALBUESPENAK

6. artikulua. Kontuak bateratzeko betebeharra.

1. Entitate nagusi orok urteko kontu bateratuak arau hauetan ezarritakoarekin bat etorriz eratu beharko ditu ezinbestean.

2. Aldi berean nagusiak diren mendeko entitateak urteko kontuak eratzeko betebeharra izango dute eta, hala badagokio, kudeaketa bateratuko txostena eratu beharko dute, aplikagarri zaien araudian ezarritakoari jarraiki.

3. Urteko kontuak eta, hala badagokio, kudeaketa bateratuko txostena eratzeko betebeharrak ez ditu taldeko kide diren entitateak beren urteko kontu berezkoak eta, beharrezkoa izanez gero, dagokion kudeaketa txostena, eratzetik salbuesten, aplikagarri zaien araudiari so.

4. Bateratzean sartzeko mendeko entitateen, talde anitzeko entitateen eta entitate elkartuen urteko kontuak Kontu-hartzailetzara edo kontabilitatearen zeregina esleituta duen entitate nagusiaren organora igorritako kontuak izango dira, betiere, kontu horiek integraziorako beharrezkoak diren barne koherentziako betekizunak betetzen badituzte, auditoretzako txostena aldekoa edo kontrakoa izan arren, edo iritzi ukatua izan arren. Hala badagokio, ez integratzearen arrazoien berri emango da memoria bateratuan.

   Kontu bateratuak aurkeztera derrigortuta dauden enpresa taldeen kasuan integratzeko kontuak taldearenak izango dira.

   Halaber, baterakuntzak sartu ahal izango dira Kontu-hartzailetzara edo kontabilitatearen zeregina esleituta duen entitate nagusiaren organora igorritako urteko kontuak, legez aurreikusitako epez kanpo.

5. Urteko kontu bateratuak eskuratze aldera, ekitaldi bakoitzaren hasieran, Kontu-hartzailetzak edo kontabilitatearen zeregina esleituta duen entitate nagusiaren orga- noak entitateetako arduradunei jakinaraziko die ekitaldi horretako egoera bateratuetan sartu direla, hurrengo paragrafoetan aurreikusten dena bete ahal dezaten.

   Urteko kontu bateratuetan sartuko diren entitateek beren urteko kontuak igorri behar- ko dizkiote entitate nagusiari, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63 artikuluan aurreikusitako epean eta, hala badagokio, baita dagokion kudeaketa txostena ere, egoki denean, auditoretza txos- tenarekin batera.

   Gainera, urteko kontu bateratuetan integratzeko entitate horiek Kontu-hartzailetzari edo kontabilitatearen zeregina esleituta duen entitate nagusiaren organoari aipatu urteko kontuak eratzeko organo horrek beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio igorri beharko diote. Zehazki:

   a) Urteko kontu bateratuetan sartzen diren gainerako entitateekin ekitaldian zehar egindako eragiketei buruzko informazioa igorri beharko dute, Kontu-hartzailetzak edo entitate nagusian kontabilitatearen zeregina esleituta duen organoak adiera- zitako edukiarekin.

   b) Kontuak modu laburtuan edo enpresa txiki eta ertainen Kontabilitateko Plan Orokorrean xedatutakoaren arabera aurkezten dituzten entitateek, urteko beren kon- tuekin batera, ondare garbian izandako aldaketen egoera orri bat eta diru fluxuen egoera orri bat igorri beharko dute.

   c) Irabazi asmorik gabeko entitateek ondare garbian izandako aldaketen egoera orri bat igorri beharko dute urteko beren kontuekin batera, Kontu-hartzailetzak edo entitate nagusian kontabilitatearen zeregina esleituta duen organoak ezarritako ereduari jarraikiz.

7. artikulua. Kontuak bateratzeko betebeharretik salbuestea.

1. Aurreko artikuluan xedatzen dena gorabehera, entitate nagusia ez da baterakuntza egitera derrigortuta egongo, kasu hauetan:

   a) Kontabilitate printzipio publikoari lotuta egonik, aldi berean, kontabilitate printzipio berdinetara lotuta dagoen beste entitate baten mendekoa denean, betiere, entitate nagusiak kontu bateratuak aurkezten baditu.

   b) Mendeko entitate bakar batek ez duenean interes adierazgarririk, banaka eta elkartuta, ondarearen irudi leialera begira, taldeko entitateen finantza egoeraren eta emaitzen gainean.

2. Derrigortuta egon gabe, urteko kontu bateratuak aurkezten dituzten entitate nagusiek eranskin honetan ezarritako arauekin bat etorriz eratu beharko dituzte kontu horiek.

8. artikulua. Baterakuntzatik kanpo utzitako entitateak.

Baterakuntzatik kanpo geratzen dira jarraian adierazten diren inguruabarretako ba- tean dauden entitateak:

a) Urteko kontu bateratuek irudikatu behar duten irudi leialarekiko interes adieraz- garririk ez izatea. Inguruabar horietan dauden entitateak ugariak izanik, batera- kuntzatik kanpo geratuko dira soilik, guztien artean, adierazitako xedeari begira interes oso adierazgarria agertzen ez badute.

b) Entitate nagusiak ondarearen gainean edo mendeko entitatearen kudeaketaren gainean bere eskubideak erabiltzea modu nabarian eragozten duten murriztapen garrantzitsu eta iraunkorrak daudenean.

c) Kontu bateratuak finkatzeko beharrezkoa den informazioa neurriz gaineko gas- tuekin edo kontu horiek araudi aplikagarrian ezarritako epean eratzea eragozten duen atzerapen saihestezin batekin soilik eskura daitekeenean.

4. SEKZIOA
KONTUAK BATERATZEKO METODOAK ETA PROZEDURAK

9. artikulua. Kontuak bateratzeko metodo eta prozedura aplikagarriak.

1. Hona bateratzeko metodo eta prozedura aplikagarriak:

   - Integrazio globalaren metodoa.

   - Integrazio proportzionalaren metodoa.

   - Baliokidetzan jartzeko prozedura edo partaidetzaren metodoa.

2. Multzo bateragarria integrazio globalaren metodoa edo proportzionala aplikatzen zaien entitateek osatuko dute.

3. Bateratze perimetroa multzo bateragarriko entitateek eta baliokidetzan jartzeko prozedura edo partaidetzaren metodoa aplikatzen zaien entitateek osatuko dute.

10. artikulua. Integrazio globalaren metodoa aplikatzea.

Integrazio globalaren metodoa taldeko entitateei aplikatuko zaie.

11.artikulua. Integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzea.

1. Integrazio proportzionalaren metodoa talde anitzeko entitateei aplikatu ahalko zaie.

2. Integrazio proportzionalaren metodo bat aplikatzea erabakitzen bada, talde anitzeko entitate guztietan modu uniformean aplikatu beharko da.

12.artikulua. Baliokidetzan jartzeko prozedura edo partaidetzaren metodoa aplikatzea.

1. Baliokidetzan jartzeko prozedura edo partaidetzaren metodoa hauei aplikatuko zaie:

   a) Entitate elkartuei.

   b) Talde anitzeko entitateei, integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzen ez bazaie.

2. Aurreko 1. apartatuan aipatzen diren entitateei eranskin hauetako 47. artikuluan deskribatzen den baliokidetzan jartzeko prozedura aldatua aplikatu ahalko zaie.

   Prozedura hori aplikatzea erabakitzen baldin bada, modu uniformean aplikatu beharko da artikuluan aipatzen diren entitate guztietan.

II.KAPITULUA
INTEGRAZIO GLOBALAREN METODOA

1.SEKZIOA
METODOAREN DEFINIZIOA

13. artikulua. Metodoaren definizioa.

Integrazio globalaren metodoa aplikatzeko beharrezkoa da:

a) Entitate nagusiaren balantzera mendeko entitateen ondarea osatzen duten ondasun, eskubide eta obligazio guztiak gaineratzea.

b) Entitate nagusiaren ondarezko emaitza ekonomikoko kontura mendeko entitateen ekitaldiko emaitzak zehazteko erabilitako sarrera eta gastu guztiak gainera- tzea.

c) Entitate nagusiaren ondare garbian izandako aldaketen egoera orrira sarrera eta gastu guztiak, eta mendeko entitateen ondare garbian izandako aldaketen egoera orrian jasotako gainerako partidak gaineratzea.

d) Entitate nagusiaren diru fluxuen egoera orrira mendeko entitateen kobrantza eta ordainketa guztiak gaineratzea.

e) Eta, azkenik, entitate nagusiaren aurrekontuaren likidazioaren egoera orrira gastuen aurrekontu mugatzailea duten mendeko entitateen aurrekontuetako gastu eta sarrera guztiak gaineratzea.

Aurrez adierazitako guztia aldez aurretik, hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, dagozkion homogeneizazioak eta ezabaketak egin ondoren burutuko da.

2. SEKZIOA
AURRETIAZKO HOMOGENEIZAZIOA

14. artikulua. Denborazko homogeneizazioa.

1. Kontu bateratuak bateratzera behartutako entitatearen urteko kontuen data eta epe berean ezarriko dira.

2. Mendeko entitate batek bere ekitaldia urteko kontu bateratuak ixteko datatik hiru hilabete baino gutxiago igaro aurretik edo ondoren ixten baldin badu, baterakuntzan sartu ahal izango da urteko kontu horien kontabilitateko balioekin, betiere, erreferentziazko ekitaldiaren iraupena bat badator urteko kontu bateratuenarekin. Mendeko entitatearen ekitaldia ixteko egunaren eta urteko kontu bateratuak ixteko egunaren artean transakzioak egiten badira edo gertaera adierazgarriak ematen badira, eragiketa horiek doitu egingo dira; kasu horretan, eragiketa taldeko entitate batekin egin bada, dagozkion doikuntza eta ezabaketak egin beharko dira, eta hori guztiori memorian adierazi beharko da.

3. Mendeko entitate batek bere ekitaldia urteko kontu bateratuak itxi eta hiru hilabete baino gehiago igaro ondoren edo egun hori baino hiru hilabete lehenago ixten badu, edo aipagai den epea ez badator bat urteko kontu bateratu horiekin, urteko kontu espezifikoak eratuko dira, urteko kontu bateratuen kasuan aipatutako epealdi eta egun bererako.

4. Taldeak aurreko 2. apartatuan aurreikusten denari heldu badio, eta aurreragoko ekitaldi batean mendeko entitateak bere ekitaldia ixteko eguna aldatzen badu urteko kontu bateratuak ixteko egunera moldatuz, aldaketak kontabilitateko irizpide aldaketa modura tratatuko da, urteko kontu bateratuen formulazioaren ondorioetarako soilik.

5. Aurrekoaren kalterik gabe, entitate bat taldean sartzen denean edo hartatik kanpo geratzen denean, baterakuntzan sartzeko ondarezko emaitza ekonomikoko kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera orria, diru fluxuen egoera orrira eta, hala badagokio, aurrekontuaren likidazioaren egoera orria entitatea taldeko kide izan den ekitaldiko zatiari buruzkoak izan beharko dira soilik.

15. artikulua. Balorazioaren homogeneizazioa.

1. Taldeko entitateen urteko kontuen elementuak metodo uniformeei jarraiki balora- tu behar dira eta Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Oroko- rrean baloraziorako ezarritako printzipio eta arauekin bat etorriz, balorazioarekin lotuta hartan jasotzen ez diren beste printzipio eta arau batzuk taldearen irudi leiala eskura- tzeari begira hobeak izan ezean. Taldeko urteko kontu bateratuen memorian salbuespen hori erabili izanda justifikatu beharko da.

2. Urteko kontuen elementuren bat baterakuntzan aplikatzen direnak kontuan iza- nik uniformeak ez diren irizpideen arabera baloratu bada, elementu hori aipatu irizpidee- kin bat etorriz baloratu behar da berriro eta, baterakuntzaren ondorioetarako soilik eta beharrezkoak diren doikuntzak eginez, balorazio berriaren emaitzak taldearen irudi leiala islatzeari so oso adierazgarria ez den interesa eskaini ezean.

16. artikulua. Barne eragiketen homogeneizazioa.

Taldeko entitateen urteko kontuetan barneko eragiketetatik eratorritako partiden zen- batekoak bat ez datozenean, edo baten bat erregistratu gabe badago, dagozkion ezaba- ketak egiteko doikuntzak egokiak egin beharko dira.

17. artikulua.Urteko kontuen egituren homogeneizazioa.

Taldeko entitateen urteko kontuen egituran behar diren birsailkapenak egin beharko dira hura urteko kontu bateratuekin bat etor dadin.

3. SEKZIOA
GEHITZEA

18.artikulua. Gehitzea.

Urteko kontu bateratuak prestatzeko urteko kontu indibidual homogeneizatutako partida ezberdinak gehituko dira, horien izaera kontuan izanik, hurrengo artikuluetan aipa- tzen diren doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe.

4. SEKZIOA
EZABAKETAK

1. AZPISEKZIOA
INBERTSIOA/ONDARE GARBIA EZABATZEA

19. artikulua. Inbertsioa/ondare garbia ezabatzea.

1. Inbertsioa/ondare garbia ezabatzea entitate nagusiak, zuzenean edo zeharka, dituen mendeko entitateen ondareko tresnen ordezkagarri diren kontabilitateko balioen konpentsazioa da, partaidetza horiek eslei dakizkiokeen aipatu mendeko entitateen ondare garbiko partidaren zati proportzionalarekin, eskurapen egunez.

2. Eskurapen egun modura ulertzen da entitate nagusiak mendekoaren gaineko kontrola hartzen duen eguna.

3. Aurreko apartatuan ezarritakoaren kalterik gabe, entitate bat taldean sartzen dela ulertu ahal izango da entitate nagusiak kontu bateratuak egitera derrigortuta dagoen (edo bere borondatez hala egiten duen) lehendabiziko ekitaldiaren hasieran, betiere, data hori taldean egiaz sartu ondorengoa bada. Talde batek apartatu honetan xedatzen denari heltzen dionean mendeko entitate guztietan izango da aplikagarri.

20. artikulua. Lehen baterakuntzaren diferentzia.

1. Lehen baterakuntzaren diferentzia, positiboa edo negatiboa, esaten zaio entitate nagusiak, zuzenean edo zeharka, mendeko entitatearen kapital edo ondarean duen partaidetzaren kontabilitate balioaren eta mendeko entitatearen kapital edo ondarean duen partaidetza ordezkatzen duen ondare garbiaren zati proportzionalaren arteko aldeari, eskurapen egunez.

2. Baterakuntzaren diferentzia positiboa denean, eta kontu bateratuak eratzeko ondorioetarako soilik, zuzenean eta, ahal den heinean, mendeko entitatearen ondare elementuetara egotziko da, aktiboen balioa areagotuz edo pasiboena murriztuz, eta dagokion ondare elementuaren kontabilitate balioaren eta hark lehen baterakuntzaren egunez duen zentzuzko balioaren arteko aldeari dagokionez entitate nagusiari egotzi ahal izaion mugara arte, hori mendeko entitatearen sozietate kapitalean edo ondarean duen partaidetzaren portzentajearen arabera kalkulatuta.

3. Behin adierazitako egozpena egin ondotik, balantzeko partidetarako ondoriozko emaitzak, hala badagokio, horiei egozpenaren aurretik aplikatutako irizpide berdinekin amortizatuko dira.

4. Baterakuntzaren diferentzia negatiboa denean, eta kontu bateratuak eratzeko ondorioetarako soilik, zuzenean eta, ahal den heinean, mendeko entitatearen ondare elementuetara egotziko da, pasiboen balioa areagotuz edo aktiboena murriztuz, eta dagokion ondare elementuaren kontabilitate balioaren eta hark lehen baterakuntzaren egunez duen zentzuzko balioaren arteko aldeari dagokionez entitate nagusiari egotzi ahal izaion mugara arte, hori mendeko entitatearen sozietate kapitalean edo ondarean duen partaidetzaren portzentajearen arabera.

5. Aurreko apartatutan xedatzen dena aplikatu ondoren lehen baterakuntzan mantentzen den diferentzia baterakuntzarako merkataritza funtsa edo baterakuntzaren diferentzia negatiboa izango da, dagokion eran.

21.artikulua. Baterakuntzarako merkataritza funtsa.

1. Baterakuntzarako merkataritza funts gisa ulertuko da aurreko artikuluan aipatzen den diferentzia edo alde positiboa, aipatu artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz aktiboen balioa handitzearen edo pasiboen balioa murriztearen ondoriozko zenbatekoan gutxiagotuta.

2. Baterakuntzarako merkataritza funtsa balantze bateratuaren aktiboaren errubrika batean inskribatuko da.

3. Hasierako errekonozimenduaren ondotik, baterakuntzarako merkataritza funtsa baloratzeko haren eskurapen prezioari metatutako amortizazioa kenduko zaio eta, hala badagokio, narriatzeagatik balioen zuzenketa aitortuen ondorioz metatutako zenbatekoa.

   Merkataritza funtsa balio bizitza zehaztu bat duen aktibo bat da eta balio bizitza horretan zehar amortizatuko da. Kontrakoa frogatu ezean, bere balio bizitza hamar urtekoa dela ko da eta haren berreskurapena lineala dela.

   Gainera, haren balizko narriadura aztertu behar da, urtean behin gutxienez, Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorrean narriadurari buruz aurreikusitako arauekin bat etorriz. Narriaduraren ondoriozko galera horiek atzeraezinak izango dira.

22. artikulua. Baterakuntzaren diferentzia negatiboa.

1. Baterakuntzaren diferentzia negatibo gisa ulertuko da 20. artikuluan aipatzen den diferentzia negatiboa, aipatu artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz pasiboen balioa han-ditzearen edo aktiboen balioa murriztearen ondoriozko zenbatekoan gutxiagotuta.

2. Baterakuntzaren diferentzia negatiboa ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan kontabilizatuko da, «Entitate bateratuen baterakuntzan izandako diferentzia negatiboa» izeneko 18. partidan, emaitza positibo modura

3. 19. artikuluko 3. zenbakian xedatzen dena erabiltzen denean, diferentzia negatiboak partaidetza duen entitatearen erreserbatzat hartuko dira.

23.artikulua. Kanpoko bazkideen parte hartzea.

1. Kanpoko bazkideen balorazioa mendeko entitatearen ondare garbian duten partaidetzaren arabera egingo da. Horrenbestez, eranskin hauetako 25.1.d) artikuluan berariaz araututakoa salbuetsita, baterakuntzarako merkataritza funtsa ez zaie kanpoko bazkideei egotziko.

2. Partaidetza hori kalkulatzeko kanpoko bazkideek mendeko entitate bakoitzaren kapital edo ondarean duten partaidetza ordezkatzen duen proportzioaren arabera kalkula- tuko da, ondarezko berezko tresnak eta beren mendeko entitateek mantenduak kanpo utzita.

3. Taldekoak ez diren hirugarrenei egotzi ahal zaien mendeko entitatearen ondare garbiko partaidetza balantze bateratuaren ondare garbiaren «Kanpoko bazkideak» izeneko V. epigrafean agertuko da.

2. AZPISEKZIOA
INBERTSIOA/ONDARE GARBIA EZABATZEA GEROKO BATERAKUNTZETAN

24.artikulua. Geroko baterakuntzak.

1. Geroko baterakuntzetan inbertsioa/ondare garbia eskurapen egunerako ezarritako baldintzetan ezabatuko da. Eskurapen egunaz geroztik mendeko entitateak sortutako ondare garbiaren gainerako soberakin edo akatsa irizpide hauekin bat etorriz aurkeztuko da balantze bateratuan:

   a) Entitate nagusiari egotzi ahal zaion zenbatekoaren barruan erreserben partidei dagokion zatia «Sortutako ondarea» izeneko II. epigrafeko «Erreserbak eta aurreko ekitaldietako emaitzak» izeneko 1. partidan agertuko da, eta memoria bateratuan «Erreserbak entitate bateratuetan» izenarekin banakatuko da.

b) Balio aldaketen doikuntzei eta jasotako dirulaguntzei dagokien zatia «Balio aldaketen doikuntzak» izeneko III. epigrafean eta «Jasotako dirulaguntzak, emaitzetan egotzi gabeak» izeneko IV. epigrafean agertuko da, hurrenez hurren.

c) Kanpoko bazkideei egotzi ahal zaien zatia «Kanpoko bazkideak» izeneko V. epigrafean inskribatu beharko da. Memorian, era berean, saldo horren osaerari buruz dagokion xehetasuna gaineratuko da.

Zenbateko horiek kalkulatzeko balio aldaketen doikuntzetako eta jasotako dirulaguntzetako ondarezko emaitza ekonomikoko kontura egindako transferentziak ezabatu egin beharko dira, eskurapen egunez zeudenak.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoaren ondorioetarako, ondare garbiaren bariazioa horrela kalkulatuko da:

a) Ekitaldiaren emaitza baztertuz, eta

b) Taldeko entitateen arteko eragiketen dagokien aurreko ekitaldietako emaitzaren gaineko doikuntzak kontuan izanik, eranskin hauetako 30. artikuluan eta hurrengoetan arautuak.

3. Edozein kasutan, aldez aurretik mendeko entitatearen kapitalean edo ondarean egindako inbertsioari dagozkion balio zuzenketak ezabatu egingo dira, taldean sartu ondoren eginak.

25. artikulua. Partaidetza aldatzea kontrola galdu gabe.

1. Behin kontrola lortuta, entitate nagusiak mendeko entitatean duen partaidetza aldatzea dakarten hurrengo eragiketak, murrizketa kasuan kontrol galera suposatu gabe, kontu bateratuetan berezko ondare tituluekin egindako eragiketa gisa kontabilizatuko dira. Horrenbestez, inbertsioa/ondare garbia ezabatzean eta kanpoko bazkideen kalkulua egitean, arau hauek aplikatuko dira:

a) Ez da baterakuntzarako merkataritza funtsaren edo kontabilizatutako diferentzia negatiboaren zenbatekoa aldatuko, ezta balantze bateratuko beste aktibo edo pasibo batzuena ere.

b) Partaidetza kontrola galdu gabe murrizten denean, urteko kontu indibidualetan kontabilizatutako mozkina edo galera ezabatu egin beharko da baterakuntzaren ondorioetarako soilik, horrek partaidetza murrizten duen entitatearen erreserbetan doikuntza bat ekarriko du.

c) Balio aldaketen doikuntzen eta mendeko entitatetik jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, balantze bateratuan agertu behar dena, taldeko entitateek haren kapital edo ondarean duten partaidetzaren portzentajearen arabera zenbatetsiko da, behin eragiketa burututa.

d) Kanpoko bazkideek mendeko entitatearen ondare garbian duten partaidetza balantze bateratuan agertuko da taldekoak ez diren hirugarrenek aipatu entitatearen kapitalean edo ondarean duten partaidetzaren portzentajearen arabera, behin eragiketa burututa. Horrenbestez, partaidetzaren portzentajea gertatu den aldaketarekin lotutako kontu bateratuetan zenbatetsitako merkataritza funtsean jasoko da.

e) Hala badagokio, a), c) eta d) letretan xedatzen dena betetzeko beharrezkoa den doikuntzak bariazio bat eragingo du partaidetza murriztu edo areagotzen duen entitatearen erreserbetan.

2. Partaidetzaren portzentajean murrizketak entitate inbertitzailearen urteko kontu indibidualetan galera adierazgarri bat sorrarazten duenean, inguruabar hori kontuan izango da baterakuntzarako merkataritza funtsaren narriadurari so.

26.artikulua. Beste inbertsio bat egitea edo inbertsioa murriztea, partaidetza al- datu gabe.

1. Entitate nagusi batek beste inbertsio bat egiten duenean mendeko entitate baten kapitalean edo ondarean, edo desinbertsio bat egiten duenean, mendeko entitatean duen partaidetzaren portzentajea aldatzea eragin gabe, merkataritza funtsa ez da aldatuko, ezta baterakuntzaren diferentzia negatiboa ere.

2. Partaidetza aldatu gabe inbertsioa murrizten denean, hala badagokio, urteko kontu indibidualetan kontabilizatutako mozkina edo galera ezabatu egin beharko da baterakuntzaren ondorioetarako soilik, horrek inbertsioa murrizten duen entitatearen erreserbetan doikuntza bat ekarriko du.

27.artikulua. Kanpoko bazkideak geroko baterakuntzetan.

1. Geroko baterakuntzetan kanpoko bazkideen balorazioa egiteko, kapitulu honetan aurreikusten diren ezabaketak izango dira kontuan.

2. Ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan eta ondare garbian izandako aldaketen egoera orri bateratuko sarrera eta gastu kontabilizatuen egoera orrian kontabilizatutako mendeko entitateen emaitzaren gaineko partaidetza, kanpoko bazkideei dagokiena, modu bereizian aurkeztuko da, emaitzaren esleipen modura, eta ez gastu edo sarrera modura.

3. Zeharkako partaidetzen kasuan, kanpoko bazkideen parte hartzea, hala emaitzetan nola gainerako ondare garbian, mendeko entitateak parte hartutako kanpoko bazkide diren mendeko entitateak integratu ondoren kalkulatuko da.

4. Mendeko entitateen arteko elkarrekiko partaidetzen kasuan, kanpoko bazkideen parte hartzea, hala emaitzetan nola gainerako ondare garbian, entitateen arteko barne harremana kontuan izanik kalkulatuko da.

3. AZPISEKZIOA
KASU PARTIKULARRAK

28. artikulua. Zeharkako partaidetzak.

1. Zeharkako partaidetza kasuan, ondare garbiaren inbertsioa etapen arabera ezabatuko da:

   a) Lehenik eta behin, beste mendeko entitate baten kapital edo ondarean zuzeneko partaidetzarik ez duen mendeko entitateari dagokion inbertsioa/ondare garbia ezabatuko da.

   b) Ondoren inbertsioa/ondare garbian dagozkion ezabaketak egingo dira, aurreko a) letran adierazten denetik eratorritako hurrenkeran, azken hau osatuko duten ondare garbia zenbatestean, aurreko etapetan sortutako entitate bateratuetako erreserbak, balioaren gaineko doikuntzak entitate bateratuetan, eta entitate ba- teratuetan jasotako dirulaguntzak, eranskin hauetako 24. artikuluan aurreikusten dena aplikatuz aurreko etapetan sortuak izan badira.

2. Etapa bakoitzean sortzen den merkataritza funtsa zehazteko, kontuan izan beharko da partaidetzen kronologia.

29. artikulua. Elkarrekiko partaidetzak mendeko entitateen artean.

1. Mendeko entitateen arteko elkarrekiko partaidetzen kasuan, merkataritza funtsa edo baterakuntzaren diferentzia negatiboa kalkulatu beharko da, eranskin hauetako 20. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, eta elkarrekintza horrek ondare garbiaren kalkuluan eraginik izan gabe.

2. Elkarren partaidetza duten mendeko entitateetatik datozen entitate bateratuetako erreserbak kalkulatzeko, eta balio aldaketen doikuntzetan eta mendeko entitateak jasotako dirulaguntzetan partaidetza zenbatekoa den zehazteko, horietako bakoitzaren ondare garbiaren bariazioa kalkulatzeko elkarrekintza hori izango da kontuan.

3. Edozein kasutan, kontuan izan behar da partaidetzen kronologia. Elkarrekiko partaidetzak nagusiak parte hartu aurretik ematen badira, aurreko kontu bateratuak eratzeko aldez aurretik kontuan izan ez ziren elkarrekintzatik eratorritako kalkuluak egin beharko dira. Elkarrekiko inbertsioa kontrola dagoenean ematen denean, ez da merkataritza funtsik kontabilizatuko, ezta baterakuntzaren diferentzia negatibo gehiagorik ere, eranskin hauetako 25. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz.

4.AZPISEKZIOA
TALDE BARRUKO PARTIDEN EZABAKETAK ETA EMAITZAK

30.artikulua. Talde barruko partidak ezabatzea.

1. Urteko kontu bateratuetan talde barneko partidak ezabatu egin beharko dira osorik, eranskin hauetako 14.etik 17.era bitarteko artikuluetan xedatzen denarekin bat etorriz dagozkion homogeneizazioak egin ondoren.

2. Talde barneko partida modura ulertuko dira taldeko entitateen arteko kreditu eta zorrak, sarrerak eta gastuak, diru fluxuak eta aurrekontuko sarrera eta gastuak, eranskin hauetako 38. artikuluan dibidenduetarako aurreikusitakoaren kalterik gabe.

31. artikulua. Barne eragiketen emaitzak ezabatzea.

1. Barneko eragiketa modura ulertuko dira taldeko bi entitateen artean egindakoak, biak taldean sartu ziren unetik aurrera. Azpisekzio honen ondorioetarako, emaitza gisa ulertzen dira emaitzen kontuan jasotakoak zein, hala badagokio, ondare garbian zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak, aplikagarri den kontabilitateko araudiari jarraikiz.

2. Barneko eragiketen ondoriozko emaitza osoa ezabatu eta geroratu egin beharko da taldekoak ez diren hirugarren aurrean egin arte. Geroratu beharreko emaitzak ekital- dikoak zein aurreko ekitaldietakoak dira, eskurapen egunetik sortuak.

   Haatik, barneko eragiketetan izandako galerek balioan narriadura bat dagoela adieraz dezakete, hala badagokio, urteko kontu bateratuetan kontabilizatzea eskatuko lukeena. Modu berean, barneko transakzioetan izandako mozkinak aldez aurretik erregistratua izan zen transakzioaren xede den aktiboaren balioan narriaduran berreskurapen bat gertatu izana adieraz dezake. Hala badagokio, bi kontzeptuok urteko kontu bateratuetan aurkeztu beharko dira, bakoitzaren izaeraren arabera.

3. Aurreko apartatutan xedatzen dena aplikatuko da hirugarren batek berezko izenean eta taldeko entitate baten kontura jarduten duenean.

4. Emaitzak hirugarrenen aurrean sortuak direla ulertuko da eranskin hauetako 32.etik 26.era bitarteko artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, edo barne eragiketan parte hartzen duen entitateetako batek taldeko kide izateari uzten dionean, betiere, emaitza dakarren aktiboa ez bada haren barnean mantentzen. Ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan edo, hala badagokio, ondare garbian izandako aldaketen egoera orri bateratuan emaitzen egozpena, hala dagokionean, dagozkion partiden zenbateko txikiago edo handiago batekin agertuko da.

5. Ondare elementuren batean, urteko kontu bateratuak formulatze aldera, balio doikuntza bat egiten bada, urteko kontu bateratuetan amortizazioa, narriaduraren on- doriozko galerak eta besterentzearen emaitzak edo balantzeko bajak doitutako haren balioa oinarritzat hartuta kalkulatuko dira.

6. Eranskin hauetako 30. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, urteko kontu bateratuetan barne eragiketen ondoriozko emaitzetatik ezabatutako aktiboaren elementuei dagozkien narriaduraren ondoriozko galerak ezabatu egin beharko dira. Era berean, taldeko beste entitate batzuen alde egindako berme edo antzekoetatik eratorritako hornidurak ezabatu egingo dira. Bi ezabaketa horien ondoren, emaitzetan dagokion doikuntza egin beharko da.

7. Ekitaldian barne eragiketen ondoriozko emaitzak ezabatzeak eragina izango du emaitza bateratuen zifran, edo ondare garbian zuzenean egotzitako sarrera eta gastuen zenbateko osoan. Bestalde, aurreko ekitaldietako barne eragiketen ondoriozko emaitzak ezabatzean ondare garbiaren zenbatekoa aldatu egingo da eta horrek eragina izango du erreserbetan, balio aldaketen doikuntzetan edo jasotako dirulaguntzetan, baldin eta ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan egozteke badaude.

8. Emaitzetan, ondare garbian zuzenean egotzitako sarrera eta gastuetan, eta ondare garbiaren beste partida batzuetan egindako doikuntzak ondarea besterendu edo zerbitzua ematen duen entitatean eragina izango du eta, horrenbestez, entitate horreta- ko kanpoko bazkideei egotzi ahal zaien zenbatekoan.

9. Ondare elementuak, sarrerak, gastuak, diru fluxuak eta aurrekontuko sarrera eta gastuak taldearen ikuspuntutik sailkatuko dira, eta ezin dira barne eragiten ondorioz aldatuko. Barne eragiketa taldearen ikuspegitik eragina aldatzearekin batera egiten bada, eraginaren aldaketa hori urteko kontu bateratuetan islatuko da araudi erregulatzailean horri dagokionez ezarritako arauei jarraituz, zehazki, hurrengo artikuluetan adierazten den eran.

32. artikulua. Izakinen barne eragiketen emaitzak ezabatzea.

1. Izakinen barne eragiketatzat joko dira taldeko entitate batek taldeko beste entitate bati izakinak erosten dizkionean, saltzen duen entitatearentzat horiek izakinak, salgai dauden aktiboak, ibilgetua, higiezinetako inbertsioak edo lurzoruaren ondare publikoa izatearen gorabehera.

2. Eragiketa horietako emaitzak burutzen diren ekitaldira geroratu beharko dira, arau hauekin bat etorriz:

   a) Geroratzeko zenbatekoa kontabilitate balioaren eta salmenta prezioaren arteko aldea izango da.

   b) Emaitza sortu dela ulertuko da eskuratutako salgaiak edo eskuratutako izakinen parte diren produktuak hirugarrenei besterentzen zaizkienean.

      Galeren kasuan, era berean, emaitza sortu dela ulertuko da izakinen kontabilitate balioarekiko narriadura bat dagoenean, eta narriadura horren mugara arte. Ondo- rio horietarako narriaduraren ondoriozko galera hori erregistratu egin beharko da.

   c) Eskuratutako izakinak kostu, ibilgetu, higiezinetako inbertsio edo lurzoruaren ondare publikoan integratzen direnean, eranskin hauetako 33. artikuluko arauak aplikatu beharko dira.

3. Barne eragiketa baten ondorioz salmenta egoeran dagoen aktibo bat edo ibilgetuaren, higiezinetako inbertsioen edo lurzoruaren ondare publikoaren elementu bat izakin modura geratzen denean, eraginaren aldaketa hori ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan agertu beharko da, «Izakin bihurtutako aktiboak» izeneko 12.c) partidan, barne emaitzen kostuaren zenbateko garbian.

33. artikulua. Ibilgetuaren, higiezinetako inbertsioen edo lurzoruaren ondare publikoaren barne eragiketen emaitzak ezabatzea.

1. Ibilgetuen, higiezinetako inbertsioen edo lurzoruaren ondare publikoaren barne eragiketatzat hartuko dira taldeko entitate batek taldekoa kide den beste entitate bati aipatu

elementuak erostean, saltzen duen entitatearentzat horiek salgai dauden ibilgetu, higiezinetako inbertsio, lurzoruaren ondare publiko, izakin edo aktibo izatearen gorabehera.

2. Eragiketa horietako emaitzak burutzen diren ekitaldira geroratu beharko dira, arau hauekin bat etorriz:

   a) Geroratzeko zenbatekoa kontabilitate balioaren eta salmenta prezioaren arteko aldea izango da.

   b) Emaitza sortu dela ulertuko da:

      1. Eskuratutako aktiboa hirugarrenei besterentzean.

      2. Kostu modura eskuratutako aktiboaren amortizazioa gaineratu zaion beste aktibo bat hirugarrenei besterentzean.

      3. Amortizazioa aktibo baten kostu modura gaineratzen ez bada, emaitza ekitaldi bakoitzeko amortizazio, narriadura edo balantzeko bajaren proportzioan sortutzat ulertuko da.

      4. Galeren kasuan, era berean, emaitza sortu dela ulertuko da ibilgetuaren, higiezinetako inbertsioaren edo lurzoruaren ondare publikoaren kontabilitate balioarekiko balio narriadura bat dagoenean, eta narriadura horren mugara arte. Ondorio horietarako narriaduraren ondoriozko galera hori erregistratu egin beharko da.

   c) Aktiboaren amortizazioa izakinetara kostu modura gaineratzen denean, eranskin hauetako 32. artikuluko arauak aplikatu beharko dira.

3. Barne eragiketa baten ondorioz izakinak edo ibilgetuaren, higiezinetako inbertsioen edo lurzoruaren ondare publikoaren elementu modura geratzen direnean, eraginaren aldaketa hori ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan agertu beharko da, «Taldeak bere aktiborako egindako lanak» izeneko 6. partida espezifikoan, barne emaitzen kostuaren zenbateko garbian.

34.artikulua. Zerbitzuen barne eragiketen emaitzak ezabatzea.

1. Zerbitzuetako barne eragiketatzat ulertuko da taldeko entitate batek taldeko beste entitate batetik zerbitzuak hartzen dituenean, finantza arlokoak barne.

2. Eskuratutako zerbitzuak aktibo baten kostu modura gaineratzen direnean, eragiketa horietako emaitzak burutzen diren ekitaldira geroratu beharko dira, arau hauekin bat etorriz:

   a) Geroratzeko zenbatekoa zerbitzuaren eskurapen prezioaren edo ekoizpen kostuaren eta salmenta prezioaren arteko aldea izango da.

   b) Emaitza sortu dela ulertuko da eranskin hauetako 32. eta 33. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorriz.

      Galeren kasuan, era berean, emaitza sortu dela ulertuko da aktiboen eskurapen prezioaren edo ekoizpen kostuaren balioarekiko amortizazioaren behin behineko balio narriadura garbi bat dagoenean, eta narriadura horren mugara arte. Ondorio horietarako, narriaduraren ondoriozko galera hori erregistratu egin beharko da.

   c) Zerbitzu horiek ibilgetuaren, higiezinetako inbertsioaren edo lurzoruaren ondare publikoaren elementu modura gaineratzen direnean, ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan erregistratuko dira, «Taldeak bere aktiborako egindako lanak» izeneko partida espezifikoan, barne emaitzen kostuaren zenbateko garbian.

35. artikulua. Aktibo finantzarioen barne eragiketen emaitzak ezabatzea.

1. Aktibo finantzarioen barne eragiketatzat hartuko da taldeko entitate batek taldeko beste entitate batetik aktibo finantzarioak hartzen dituenean.

2. Eragiketa horietako emaitzak, hala badagokio, burutzen diren ekitaldira geroratu beharko dira, arau hauekin bat etorriz:

   a) Geroratzeko zenbatekoa kontabilitate balioaren eta salmenta prezioaren arteko aldea izango da.

   b) Emaitza sortu dela ulertuko da aktibo finantzario horiek hirugarrenei besterentzen zaizkienean.

Galeren kasuan, era berean, emaitza sortu dela ulertuko da aktiboen kontabilitate balioarekiko balio narriadura bat dagoenean, eta narriadura horren mugara arte. Ondorio horietarako narriaduraren ondoriozko galera hori erregistratu egin beharko da.

36.artikulua. Emaitzak birsailkatu eta ezabatzea balio aldaketen doikuntzengatik eta ondare garbian dirulaguntzak kontabilizatzeagatik.

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoa gorabehera, kontu bateratuetan barne eragiketaren xede den ondare elementuari arrazoizko balioa aplikatzen zaionean, barne emaitza, hala badagokio, berriro sailkatuko da arrazoizko balioaren bariazioaren ondoriozko zenbatekoan, ondare garbiaren dagokion partidan.

2. Barne eragiketen ondoriozko ondare garbiaren kontutatik ondare emaitza ekonomikoen kontuetara egindako transferentzietatik eratorrita mendeko entitateek zenbatetsitako emaitzak ezabatu egingo dira, eskurapen egunez zeuden «Balio aldaketen doikuntzak» izeneko III. balantzeko eta «Jasotako dirulaguntzak, emaitzetan egotzi gabeak» izeneko IV. balantzeko epigrafeen zenbatekoekin. Emaitza horiek dagozkien ondare garbiko epigrafeetan integratutzat joko dira, eranskin hauetako 24. artikuluko bat apartatuan ondare garbiaren soberakin edo akatsari dagokionez aurreikusitakoa zehazte aldera.

37.artikulua.Taldeak jaulkitako pasibo finantzarioak hirugarrenei erostea.

1. Kontu bateratuak formulatzearen ondorioetarako soilik, hirugarrenei taldeko entitateek jaulkitako pasibo finantzarioei eskuratzean, hala badagokio, emaitza bat erregistratuko da.

2. Emaitza pasiboak eskurapen egunez zuen kontabilitateko balioaren eta eskurapen prezioaren arteko aldea izango da.

3. Aurreko apartatuetan aurreikusitakoaren arabera zehaztutako emaitza ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuko «Balio narriadura, mozkinak eta galerak aktibo eta pasibo finantzarioekin egindako eragiketengatik» izeneko 24. partidan agertuko da.

4. Hirugarrenei aktibo horiek eskuratu ondoren erregistratutako doikuntzak, arrazoizko balioa edo beste edozein kontzeptu aplikatuz, ezabatu egingo dira.

38.artikulua.Barruko dibidenduak ezabatzea.

1. Barruko dibidendutzat hartuko dira taldeko entitate baten ekitaldiko sarrera modura erregistratuak, baldin eta talde bereko beste batek banatuak izan badira.

2. Dibidendu horiek ezabatu egingo dira, entitate hartzailearen erreserbatzat hartuta.

3. Konturako dibidenduen kasuan, dibidendu horiek banatu zituen entitatean horiek adierazteko ondarearen partidaren kontra ezabatuko dira.

III.KAPITULUA
INTEGRAZIO PROPORTZIONALAREN METODOA ETA BALIOKIDETZAN JARTZEKO PROZEDURA

1. SEKZIOA
INTEGRAZIO PROPORTZIONALAREN METODOA

39. artikulua. Metodoaren definizioa.

1. Metodo integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzea da urteko kontu bate- ratuetara talde anitzeko entitatearen aktibo, pasibo, gastu, sarrera, diru fluxu eta urteko kontuetako gainerako partiden zatia, taldeko entitateek beren ondare garbiaren portzen- tajeari dagokiona, gaineratzea, II. kapituluan deskribatutako aurretiko homogeneiza- zioen eta egoki diren doikuntzak eta ezabaketen kalterik gabe.

2. Aurreko apartatua aplikatuz gaineratzeko talde anitzeko entitatearen kontuak, hala badagokio, entitate horren urteko kontu bateratuak izango dira. Kontu horiek egingo ez balira, baterakuntzaren arauetan salbuesteko aurreikusitako edozein arrazoiri helduz, urteko kontu indibidualetara joko da.

40.artikulua. Irizpide aplikagarriak.

Integrazio proportzionala egiteko, beharrezkoak diren egokitzapenak eginda, eranskin hauetako 13.etik 38.era bitarteko artikuluetan ezarritako arauak izango dira kontuan, integrazio globalaren metodoari buruzkoak, honakoa kontuan hartuta:

a) Talde anitzeko entitatearen urteko kontuko partida ezberdinak kontu bateratuetara taldeko entitateek haren ondare garbian duten partaidetza ordezkatzen duen proportzioan gaineratuko dira.

b) Kreditu eta zorrak, sarrerak eta gastuak, diru fluxuak eta aurrekontuko sarrera eta gastuak eta talde anitzeko entitateekin egindako eragiketen ondoriozko emaitzak aurreko letran adierazitako proportzioan ezabatuko dira.

c) Kontu bateratuetan ezingo da talde anitzeko entitateko kanpoko bazkideei dagokion partida bakar bat agertu.

d) Taldeko entitateek talde anitzeko entitatean egindako diruz aparteko ekarpenek emaitza ekonomikoak sortu badituzte, gainerako parte hartzaileek talde anitzeko entitatean duten ondareari dagokion zatia kontabilizatuko da soilik kontu bateratuetan. Emaitza horiek ezabatzeko dagokion aktiboaren balioa doitu egin beharko da. Edozein emaitza negatiboren zenbatekoa kontabilizatu egingo da eragiketaren ondorioz transferitutako aktiboen balio narriadura bat agerian geratu denean.

2. SEKZIOA
BALIOKIDETZAN JARTZEKO PROZEDURA EDO PARTAIDETZAREN METODOA

41.artikulua. Prozeduraren deskribapena.

1. Baliokidetzan jartzeko prozedura edo partaidetzaren metodoaren arabera, entitate batean inbertsioa, hasiera batean, taldeko entitateen inbertsioaren portzentajeak entitatearen ondare garbiaren gainean ordezkatzen duen zenbatekoarekin erregistratuko da eranskin hauetako 43. artikuluan xedatzen denaren arabera, eta ondoren handitu edo txikitu egingo da inbertitzaileari ekitaldiko emaitzan eta entitate partaidetuak eskurapen egunaren ondotik eskuratutako ondare garbiari zuzenean egotzi ahal zaizkion beste gehikuntza edo gutxitze batzuetan dagokion portzentajea kontabilizatzeko.

2. Entitate bati baliokidetzan jartzeko prozedura aplikatzen zaionean, entitate horren kontu kontabilizatzekoak, hurrengo artikuluetan xedatzen dena aplikatzearen ondorioetarako, hala badagokio, haren urteko kontu bateratuak izango dira. Kontu horiek egingo ez balira,

baterakuntzaren arauetan salbuesteko aurreikusitako edozein arrazoiri helduz, urteko kontu indibidualetara joko da.

42. artikulua. Informazioa homogeneizatzea.

1. Entitate partaidetuak baloraziorako erabiltzen dituen irizpideak ez badatoz bat taldeak erabiltzen dituenekin, beharrezkoak diren doikuntzak egin beharko dira baliokidetzan jarri aurretik, eranskin hauetako 15. artikuluan aurreikusitako eran, irizpide aldetiko ezberdintasun horiek adierazgarriak direnean eta, betiere, beharrezko informazioa baldin badago

2. Entitate partaidetuaren urteko kontuetako datak urteko kontu bateratuko datarekin bat etorri beharko du. Ondorio horietarako 14. artikuluko 2. apartatua aplikatuko da. Halaber, artikulu horretako 3. apartatua aplikatzekoa izango da, betiere, beharrezkoa den informazioa eskuratu ahal bada.

43. artikulua. Baliokidetzan jartzeko prozeduraren lehen aplikazioa.

1. Baliokidetzan jartzeko prozedura lehendabiziko aldiz aplikatzen denean, entitate barneko partaidetza taldeko entitateetako inbertsioaren portzentajeak entitatearen ondare garbiaren gainean ordezkatzen duen zenbatekoarekin baloratuko da balantze bateratuan.

   Zenbateko hori balantze bateratuaren aktibo ez-korrontean agertuko da «Epe luzerako finantza inbertsioak taldeko entitate, talde anitzeko entitate eta entitate elkartuetan» izeneko V. epigrafeko «Baliokidetzan jarritako partaidetzak» izeneko 1. partidan.»

2. Kontu indibidualetan partaidetzarako zenbatetsitako zenbatekoaren eta aurreko apartatuan aipatu den balioaren arteko aldea positiboa baldin bada, baliokidetzan jarritako entitatearen ondare elementuetara egozgarri den alde horretako zatia partaidetzaren baliora gaineratuko da Balantze bateratuan, eranskin hauetako 20. artikuluko 2. apartatuan ezarritako mugarekin.

   Halere, alde positiboa mantentzen bada, mantentzen den alde positibo horrek merkataritza funts bat ipiniko du agerian, eta hura ere partaidetzaren balioan sartuko da eta memorian horren berri emango da.

   Apartatu honetako lehendabiziko paragrafoan deskribatzen den aldea negatiboa bada, hori ezohikoa izan arren, baliokidetzan jarritako entitatearen ondare elementu horietara egozgarri den alde horren zatia partaidetzaren baliotik kenduko da Balantze bateratuan eranskin hauetako 20. artikuluko 3. apartatuan ezarritako mugarekin. Halere, diferentzia negatiboa mantentzen baldin bada, diferentzia negatibo hori ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan kontabilizatuko da, «Baliokidetzan jarritako entitateen baterakuntzaren diferentzia negatiboa» izeneko 28. partidan, emaitza positibo modura.

3. Baliokidetzan jarritako entitateak sortutako emaitzak eragin adierazgarria edo, talde anitzeko entitateen kasuan, baterako kontrola, eskuratzen den egunetik kontabilizatuko dira.

44. artikulua. Partaidetzaren hasierako balioan egin beharreko doikuntzak.

1. Entitateko partaidetzaren balantze bateratuan kontabilitate balioa aldatu egingo da, hura handituz edo txikiagotuz, taldeko entitateei dagokien proportzioan, hasierako baloraziotik entitate partaidetuaren ondare garbian izandako bariazioekin, entitate horren eta taldeko entitateen arteko transakzioetan sortutako egin gabeko emaitzetatik datorren proportzioa ezabatu ondoren, betiere, adierazgarriak badira eta horretarako beharrezkoa den informazioa eskura badaiteke.

2. Partaidetzari eranskin hauetako 20. artikuluan aurreikusten denaren ondorioz, hala badagokio, egotzitako balio handiena eta merkataritza funts inplizituaren zenbatekoa gutxiagotu egin beharko da aurrera begirako ekitaldietan, bateratutako emaitzen edo

ondare garbiko dagokion beste partida baten kontura, eta dagozkien ondare elementuen balioa galdu, horiei baja eman edo hirugarrenei besterendu ahala. Era berean, zordunketak emaitza bateratuak izango ditu entitate partaidetuaren ondare elementuen aurretiaz kontabilizatutako balioaren narriaduragatik galerak sortzean, horiei lehen aldiz baliokidetza jartzeko egunez esleitutako gainbalioaren mugarekin.

3. Prozeduraren lehendabiziko aplikazioaren ondorengo ekitaldi bakoitzean:

   a) Partaidetza balioan izandako bariazioak, entitate partaidetuaren ekitaldiaren emaitzei dagozkienak, emaitza bateratuetan sartuko dira, eta ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan agertuko dira zehazki, «Baliokidetzan jarritako entitateen mozkinetan (galeretan) dagoen partaidetza» izeneko 26. partidan.

   b) Haatik, entitate partaidetuak galerak izango balitu, inbertsioa ordezkatzen duen kontuaren murrizketaren muga inbertsioaren kontabilitate balioa bera izango da, baliokidetzan jarrita kalkulatua.

      Behin partaidetzaren balioa zerora murriztuta, galera gehigarriak, eta dagokion pasiboa, kontabilizatu egingo dira legezko zein kontratuzko betebeharrak, inplizituak ala tazituak, dauden artean, edo entitateen taldeak entitate partaidetuaren izenean ordainketak egin baditu.

      Entitate partaidetuak gerora irabaziak izaten baditu, urteko kontu bateratuetan kontabilizatuko dira, kontabilizatu gabeko galeren zenbatekora iristen direnean.

      Ondare garbira zuzenean egotzitako entitate partaidetuaren sarrerak eta gastuak ondare emaitza ekonomikoko kontuan kontabilizatuak tratatzen diren antze- ra tratatuko dira.

   c) Partaidetzaren balioan ondare garbian izan diren bestelako aldaketa batzuei dagozkien aldaketak, entitate partaidetuaren ondare garbian hark ekitaldiko bere emaitzan kontabilizatu ez dituen aldaketak egon direlako, edo aurreko ekitaldietako emaitzetatik datozen sortutako erreserben ondoriozkoak, ondare garbiaren dagozkion partida edo epigrafeetan azalduko dira, beren izaeraren arabera.

   d) Entitate partaidetuak banatutako mozkinek partaidetzaren kontabilitate balioa murriztuko dute balantze bateratuan, partaidetza duen entitatearen erreserbatzat hartuz. Konturako dibidenduen kasuan, partaidetzaren kontabilitate balioa horiek jaso dituen entitatearen emaitzen kargura murriztuko da.

45. artikulua. Partaidetza aldatzea.

1. Baliokidetzan jarritako entitatearen kasuan partaidetza berriak bereganatzen dituenean, inbertsio gehigarria eta merkataritza funts edo baterakuntzaren diferentzia negatibo berria lehendabiziko inbertsioan bezalaxe zehaztuko dira eta inbertsio horri ondare garbiaren gainean dagozkion portzentajeetan. Partaidetu berarekin lotuta, merkataritza funts bat eta baterakuntzaren diferentzia negatibo bat sortzen badira, diferentzia negatiboa merkataritza funts inplizituaren mugara arte murriztuko da. Inguruabar horrek baliokidetzan jarritako partaidetza gutxiagotzea eragingo du.

2. Eragin adierazgarria mantentzen duen entitatearen kasuan, partaidetzaren murrizketa bat ematen denean, inbertsioa ordezkatzen duen partida baloratzeko aurreko artikuluetan ezarritako arauak aplikatuko dira, atxikitzen den partaidetzaren portzentajeari dagokion zenbatekoekin. Eragiketaren emaitza besterentzearen aurreko emaitza bateratuei egotzitakoen arabera doituko da, honako arrazoi hauengatik:

   a) Entitate partaidetuak eskuratutako emaitzak.

   b) Entitate partaidetuaren ondare elementuetara arrazoizko balioa aplikatzea lehen aldiz baliokidetzan jarritako egunez.

c) Partaidetzaren portzentajean izandako murrizketarekin bat datozen arrazoizko balioaren doikuntzak, ondare garbian zuzenean egotziak.

3. Entitatean partaidetza gehiago eskuratzeak partaidetzaren portzentajea areagotzea eragiten ez duenean, ez da bestelako diferentziarik sortuko lehen aldiz baliokidetzan jarritakoekin alderatuz, eta modu inplizituan kalkulatutako baterakuntzarako merkataritza funtsa ez da aldatu eta, hala badagokio, baterakuntzaren diferentzia negatiboa ere ez.

   Entitatean partaidetzan murrizteak haren partaidetzaren portzentajean murrizketa bat inplikatzen ez duenean, inbertsioa ordezkatzen duen partidaren balioa murriztu egingo da eta baita erreserben balioa ere baliokidetzan jarritako entitateetan murrizketaren ondorioz lortutako zenbatekoan, hala badagokio, entitate inbertitzaileak erregistratutako emaitza ezabatuz.

4. Inbertsio gehigarririk edo desinbertsiorik gertatu gabe, partaidetzaren portzentajea handitu ala txikitzearen ondorioz entitate partaidetuan partaidetzen balioa aldatzen bada, dagokion emaitza kontabilizatuko da ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuko «Baliokidetzan jarritako entitateen mozkinetan (galeretan) dagoen partaidetza» izeneko 26. partidan.

46. artikulua. Balioaren narriaduragatik sortutako galerak.

1. Behin baliokidetzan jartzeko prozedura aplikatu eta 44. artikuluaren arabera entitate partaidetuaren galera kontabilizatuta, entitate nagusiak kontu bateratuetan Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorreko «Aktibo finantzarioak» izeneko 8. puntuko onarpen eta balorazio arauko «Narriadura» izeneko 7.3. atalean ezartzen dena aplikatuko du entitate partaidetuan duen inbertsio garbiarekiko narriadura gehigarrien ondoriozko galerarik aitortu behar ote diren erabakitzeko.

2. Merkataritza funtseko narriaduraren analisia ez da modu bereizian burutuko, baizik eta aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera. Narriaduraren ondoriozko galerak ez zaizkio esleituko partaidetuan egindako inbertsioaren kontabilitate balioaren parte den aktibo zehatz bati, baterakuntzarako merkataritza funtsa barne. Horrenbestez, narriaduraren ondoriozko galera horien itzulketak aurreko 1. apartatuan aipatutako kontabilitate arauan xedatutakoarekin bat etorriz kontabilizatuko dira.

47.artikulua. Baliokidetzan jartzeko prozedura aldatua.

Prozedura honetan sekzio honetan araututako baliokidetasunaren jartzearen edo partaidetzaren metodoa aplikatzen da, aldez aurretik homogeneizaziorik egin gabe eta emaitzak barne eragiketen arabera ezabatu gabe.

IV. KAPITULUA
URTEKO KONTU BATERATUAK

48. artikulua. Urteko kontu bateratuak osatzen dituzten dokumentuak.

1. Urteko kontu bateratuetan sartzen dira balantze bateratua, ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratua, ondare garbian izandako aldaketen egoera orri bateratua, diru fluxuen egoera orri bateratua, aurrekontuaren likidazioaren egoera orri bateratua eta memoria bateratua.

2. Dokumentu horiek batera bat osatzen dute, argitasunez idatzi behar dira eta taldeko ondarearen, finantza egoeraren, ondare emaitza ekonomikoaren eta aurrekontua- ren egikaritzearen inguruko irudi leiala erakutsi behar dute.

3. Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorreko kontzeptuzko esparruan sartutako kontabilitateko informazioarekin eta printzipio eta irizpideekin lotutako betekizunen aplikazio sistematiko eta erregularrei esker urteko kontu bateratuek aipatu irudi leial hori islatu beharko lukete.

4. Kontabilitateko informazioaren eta printzipio eta irizpideen betekizun horiek betetzea aipatu irudi leial hori erakusteko nahikoa ez dela irizten denean, memorian helburu hori lortzeko beharrezkoa den informazio osagarria jasoko da.

5. Betekizun horiek betetzea urteko kontu bateratuek eman behar duten irudi leiala lortzearekin bateraezina denean, hori ezohikoa izan arren, aplikazio hori desegokitzat joko da. Kasu horietan, memoria bateratuan inguruabar hori behar bezala argudiatuko da eta taldearen ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen gainean duen eragina azalduko da.

49.artikulua. Urteko kontu bateratuen formulazioa.

1. Urteko kontu bateratuak entitate nagusiak egin beharko ditu indarreko legerian ezarritako epearen barruan eta urte naturalari buruzkoak izango dira.

2. Balantzea, ondare emaitza ekonomikoko kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera orria, diru fluxuen egoera orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera orria eta memoria bateratuak identifikatu egin beharko dira; dokumentu bakoitzean modu argian azaldu beharko da bakoitzaren izena, zein talderi dagokien eta zein ekitaldikoak diren.

3. Urteko kontu bateratuetan balioak eurotan adieraziko dira.

50. artikulua. Urteko kontu bateratuen egitura.

Urteko kontu bateratuak arau hauen gehigarrian ezartzen diren ereduetara egokitu beharko dira.

51. artikulua. Balantze bateratua, ondare emaitza ekonomikoaren kontu batera- tua, ondare garbiaren aldaketen egoera orri bateratua eta diru flu- xuen egoera orri bateratua formulatzeko arau komunak.

Urteko kontu bateratuak osatzen dituzten egoera orri bakoitzeko arau partikularretan xedatzen denaren kalterik gabe, balantzea, ondare emaitza ekonomikoko kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera orria, eta diru fluxuen egoera orria bateratuak formula- tzean kontuan izango dira arau hauek:

1. Partida bakoitzean, amaitzen den ekitaldiko zifrak ez ezik, haren aurretiko ekitaldiari dagozkionak agertu beharko dira, ondare garbiaren aldaketen egoera orriaren lehendabiziko zatian izan ezik. Haatik, kontu bateratuak formulatzen diren lehendabiziko ekitaldian aukera dago aurreko ekitaldiko zifrak ez jasotzeko.

   Ondorio horietarako, amaitzen den ekitaldiko zifrak aurreko ekitaldiko zifrekin alderagarriak ez direnean, kontuen egituran aldaketa bat egon delako, kontabilitateko irizpidean aldaketa bat egon delako edo akats bat zuzendu delako edo berrantolaketa administratibo bat geratu delako, aurreko ekitaldiko zenbatekoak egokitu egin beharko dira urteko kontu bateratuetan aipatzen den ekitaldian aurkezte aldera, eta memorian hori adierazi egin beharko da.

   Baterakuntzan sartzen diren entitateen osaeran ekitaldi baten zehar aldaketa esanguratsuak izan direnean, memorian elkarren segidako finantza egoeren alderaketa egitean ekitaldien artean izan diren aldaketa nagusiak agertzeko beharrezkoa den informazioa jaso beharko da.

2. Uneko ekitaldian nahiz aurrekoan zenbatekorik ez duten partidak ez dira agertuko.

3. Egoki denean, epigrafe edo partida bakoitzean dagokion informaziorako erreferentzia gurutzatu bat jasoko da memoriaren barruan.

52. artikulua. Balantze bateratua.

1. Balantze bateratuan sartzen dira, behar bezala bereizita, entitate nagusiaren integrazio globalaren metodoa aplikatzen zaien entitateen aktiboa eta pasiboa, dagozkion doikuntza

eta ezabaketen kalterik gabe. Orobat, ondare garbia sartzen da, bereizitako partida espezifikoan taldeko kanpoko bazkideei dagokien zatia barneratuko duena.

2. Gainera, balantze bateratuan sartuko dira integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzen zaien entitateen aktiboak eta pasiboak, taldearen partaidetzak haren sozietate kapitalean edo ondarean ordezkatzen duen portzentajean, eta dagozkion doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe

3. «Zerga geroratuen aktiboak» izeneko aktibo ez-korrontearen VII., «Zerga geroratuen pasiboak» izeneko pasibo ez-korrontearen IV. eta «Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteekin lotutako pasiboa» pasibo korrontearen I. epigrafeak Kontabilitate Plan Orokorra edo irabazi asmorik gabeko entitateetarako Kontabilitate Plana aplikatzen duten entitateei buruzkoak dira berariaz, eta bertan aurreikusten diren arauen arabera zehaztuko dira.

4. Balantze bateratuan, era berean, baterakuntzako metodo eta prozedura ezberdinak aplikatzetik eratorritako partida espezifikoak agertuko dira.

5. Baliokidetzan jartzeko prozeduraren ondorioz edo integrazio proportzionalaren ondorioz ezabatu gabeko zatian baterakuntzak barneratzen diren entitateekin dauden kredituak eta zorrak modu bereizian agertuko dira dagozkien aktiboetan, hau da, aktiboaren «Finantza inbertsioak taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» epigrafean eta pasiboaren «Zorrak, taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» epigrafean.

6. Bateratze perimetroan sartzen ez diren taldeko entitate, talde anitzeko entitate eta entitate elkartuekin dauden kreditu eta zorrak modu bereizian agertuko dira dagozkion epigrafeetan, hau da, aktiboaren «Finantza inbertsioak taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan» epigrafean eta pasiboaren «Zorrak, taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin» epigrafean.

7. Balantze bateratua formulatzeko kontuan izan beharko da Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorreko balantzea eratzeko arauetan ezarritakoa, aurreko apartatutan ezarritakoaren kalterik gabe.

53. artikulua. Ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratua.

1. Kontu honetan ekitaldian eskuratutako ondare ekonomiko bateratuaren emaitza jasotzen da eta entitate nagusiaren eta integrazio globalaren metodoa aplikatzen zaien entitateen sarrera eta gastuek osatzen dute, ondare garbian zuzenean egotzi behar denean izan ezik Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorrean onarpen eta baloraziorako arauetan arreikusitakoarekin bat etorriz, dagozkion doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe; eta ondare emaitza ekonomiko bateratua erakusten du, entitate nagusiari esleitzen zaion zatia eta taldeko kanpoko bazkideei esleitzen zaiena bereizita.

   Gainera, ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan integrazio proportzionaleko metodoa aplikatzen zaien entitateen sarrerak eta gastuak sartuko dira, taldeak horien ondarean duen partaidetzaren portzentajean, ondare garbian zuzenean egotzi behar denean izan ezik Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorrean onarpen eta baloraziorako arauetan arreikusitakoarekin bat etorriz, eta dagozkion doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe.

2. «Norberaren jardueraren ondoriozko diru sarrerak» izeneko 3. partida eta «Laguntzaren ondoriozko gastuak eta bestelakoak» izeneko 11. partida irabazi asmorik gabeko entitateentzat Kontabilitate Plana aplikatzen duten entitateei buruzkoak dira esklusiboki, eta bertan aurreikusten diren arauekin bat etorriz zehaztuko dira.

3. Kontabilitate Plan Orokorrarekin bat etorriz zehaztutako negozioen zifraren zenbateko garbia «Zerbitzuen salmentak eta prestazioak» izeneko 4. partidan agertuko da.

4. Sozietateen gaineko zerga, hala badagokio, «Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk» izeneko 13. partidan agertuko da.

5. «Partaidetza bateratuen kontrola galtzeagatik izandako emaitza» izeneko 17. partida irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuz onartutako urteko kontu bateratuen formulaziorako Arauei jarraituz zehaztuko dira.

6. Negozioen konbinazioan diferentzia negatiboa, irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuz onartutako urteko kontu bateratuen formulaziorako Arauetan erregulatua, «Entitate bateratuen baterakuntzan izandako diferentzia negatiboa» izeneko 18. partidan agertuko da.

7. «Baliokidetzan jarritako partaidetzen edo talde anitzeko entitate baten baterako kontrolaren eragin adierazgarriaren galeraren ondoriozko narriadura eta emaitza» izeneko 27. partida irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuz onartutako urteko kontu bateratuen formulaziorako Arauekin bat etorriz zehaztuko da.

8. «Ekitaldian etendako eragiketengatik izandako emaitza, zergarik gabe» izeneko V.epigrafea Kontabilitate Plan Orokorra aplikatzen duten entitateei buruzkoa da esklusiboki eta bertan aurreikusten diren arauekin bat etorriz zehaztuko da.

9. Ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuan, era berean, baterakuntzako metodo eta prozedura ezberdinak aplikatzetik eratorritako partida espezifikoak agertuko dira.

10. Ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratua formulatzeko kontuan izan beharko da Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorreko ondare emaitza ekonomikoaren kontua eratzeko arauetan ezarritakoa, aurreko apartatutan ezarritakoaren kalterik gabe.

54.artikulua. Ondare garbian izandako aldaketen egoera orri bateratua.

1. Ondare garbian izandako aldaketen egoera orriak bi zati ditu:

   a) Ondare garbiak guztira izandako aldaketen 2. egoera orri bateratua.

   b) Onartutako diru sarreren eta gastuen egoera orri bateratua.

2. «1. Ondare garbiak guztira izandako aldaketen egoera orri bateratua» izeneko lehendabiziko zatian ondare garbian izandako aldaketa guztien berri emango da, hauek bereiziz:

   a) Ondare garbian kontabilitateko irizpideetan izandako aldaketen eta zuzendutako akatsen ondorioz egindako doikuntzak.

   b) Ekitaldian onartutako diru sarrera eta gastu bateratuak.

   c) Entitate jabearekin edo jabeekin egindako ondare eragiketak, horiek halakotzat jardunez.

   d) Ondare garbian izaten diren beste zenbait aldaketa.

3. «2. Onartutako diru sarreren eta gastuen egoera orri bateratua» izeneko bigarren zatian ondare garbian hauetatik eratorrita izandako aldaketak jasoko dira:

   a) Ekitaldiko o ondare ekonomiko bateratuaren emaitza.

   b) Entitate nagusiaren eta integrazio globalaren metodoa aplikatzen zaien entitateek sarrerak eta gastuak, ondare garbian zuzenean egotzi behar direnean Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorrean onarpen eta

baloraziorako arauetan arreikusitakoarekin bat etorriz, dagozkion doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe.

Integrazio proportzionaleko metodoa aplikatzen zaien entitateen sarrerak eta gastuak, taldeak horien ondarean duen partaidetzaren portzentajean, ondare garbian zuzenean egotzi behar direnean Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorrean onarpen eta baloraziorako arauetan arrei- kusitakoarekin bat etorriz, dagozkion doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe.

«Galera-irabazi aktuarialengatik eta bestelako doikuntzengatik» izeneko 5. partida, «Zerga efektua» izeneko 6. partida eta «Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteengatik eta haiekin lotutako pasiboengatik» izeneko 7. partida Kontabilitate Plan Orokorra aplikatzen duten entitateei buruzkoak dira soilik eta bertan aurreikusten diren arauekin bat etorriz zehaztuko dira.

c) Ondare emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partidaren hasierako baliora egindako transferentziak, ondare garbian zuzenean onartutako diru sarrerak eta gastuenak.

«Zerga efektua» izeneko 5. partida eta «Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteengatik eta haiekin lotutako pasiboengatik» izeneko 6. partida Kontabilitate Plan Orokorra aplikatzen duten entitateei buruzkoak dira soilik eta bertan aurreikusten diren arauekin bat etorriz zehaztuko dira.

Ondare garbian izandako aldaketen egoera orri bateratua formulatzeko kontuan izan beharko da Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorreko ondare garbian izandako aldaketen egoera orria eratzeko arauetan ezarritakoa, aurreko apartatutan ezarritakoaren kalterik gabe.

55. artikulua. Diru fluxuen egoera orri bateratua.

1. Diru fluxuen egoera orri bateratuan eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak irudikatzen dituzten moneta partidetan izandako mugimenduen jatorriari eta xedeari buruzko informazioa ematen da, mugimenduak jardueraren arabera sailkatuz eta horiek ekitaldian zehar izandako aldaketa garbia adieraziz.

   Diru fluxuen egoera orri bateratua Arau hauetako eranskinean jasotzen den ereduari jarraituz eratuko da.

2. Diru fluxuen egoera orri bateratuan entitate nagusiaren eta orokorki integratutako entitateen kobrantzak eta ordainketak sartuko dira, behar bezala bereizita, dagozkion doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe.

3. Gainera, diru fluxuen egoera orri bateratuan sartuko dira integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzen zaien entitateen kobrantzak eta ordainketak, taldearen partaidetzak haren ondarean ordezkatzen duen portzentajean, dagozkion doikuntza eta ezabaketen kalterik gabe.

4. Diru fluxuak jardueraren arabera sailkatzeko taldea batasun modura kontabilizatuko da. Beraz, multzo bateragarriko entitateen arteko eragiketen ondoriozko diru fluxuak ezabatu egingo dira, dagokion zatian.

5. Aurreko apartatutan xedatzen denaren kalterik gabe, entitate nagusiak ez badu diru fluxuen egoera orria eratzeko beharrezkoa den informazioa, aukera izango du informazioa kontabilitateko printzipio publikoetara lotuta dauden entitateei dagozkien fluxuak, Kontabilitate Plan Orokorra aplikatzen duten entitateei dagozkienak eta irabazi asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plana aplikatzen duten entitateei dagozkienak bereizita. Kasu horretan, diru fluxuen egoera orri bateratua arau hauetako eranskinean jasotzen den eredu laburtuaren araberakoa izango da.

6. Diru fluxuen egoera orri bateratua formulatzeko kontuan izan beharko da Toki Administraziora egokitutako Kontabilitateko Publikoko Plan Orokorreko diru fluxuen egoera orria eratzeko arauetan ezarritakoa, aurreko apartatutan ezarritakoaren kalterik gabe.

56. artikulua. Aurrekontuaren likidazioaren egoera orri bateratua.

Aurrekontuaren likidazioaren egoera orri bateratuan, gastuen Aurrekontuaren eta sa- rreren aurrekontuaren likidazio bateratua sartzen dira, behar bezala bereizita, eta baita aurrekontu mugatzailea duten taldeko entitateen Aurrekontu emaitza bateratua ere.

57.artikulua. Memoria bateratua.

1. Memoria bateratu osoan, urteko kontu bateratua osatzen duten beste dokumentuetan jasotzen den informazioa zabaldu eta aipatzen da. Berau eratzeko kontuan izango da:

   a) Memoria bateratuaren ereduan gutxienez betetzeko informazioa jasotzen dela; haatik, eskatzen den informazioa adierazgarria ez denean, ez dira hari dagozkion oharrak beteko. Aurrekoaren ondorioz zenbait ohar edukirik gabe eta, horrenbestez, bete gabe geratuko balira, edukia duten oharretarako memoria ba- teratuaren ereduan aurreikusten den zenbaketa mantenduko da, eta memoria bateratua horretan edukirik ez duten oharren zerrenda bat gaineratuko da.

   b) Memoria bateratuaren ereduan jasotzen ez den eta taldeak ekitaldian duen egoera eta bere jarduna zein den jakin ahal izateko beharrezkoa den edozein informazio adierazi egin beharko da, aurkeztu beharreko urteko kontu bateratuen ulermena ahalbidetuz, kontu horietan taldearen ondarearen, finantza egoeraren, ondare emaitza ekonomikoaren eta aurrekontuaren likidazioaren irudi leiala isla dadin.

ERANSKINA
GEHIGARRIA URTEKO KONTU BATERATUEN EREDUAK

Gehigarria urteko kontu bateratuen ereduak

Aurrekontuaren likidazioaren egoera orri bateratua

MEMORIA BATERATUA

MEMORIA BATERATUAREN EDUKIA

1. Taldeko entitateak.
2. Talde anitzeko entitateak eta entitate elkartuak.
3. Entitateen azpitaldeei buruzko informazioa.
4. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak.
5. Kontabilizazio eta balioespen arauak.
6. Doikuntzak eta ezabaketak.
7. Negozio konbinazioak eta enpresak berregituratzeko eragiketak.
8. Baterakuntzarako merkataritza funtsa.
9. Baterakuntzaren diferentzia negatiboa
10. Kanpoko bazkideak.

11. Taldeko entitateetako partaidetzaren portzentajea aldatzea.

12. Talde anitzeko entitateei dagozkien partidak.

13. Baliokidetzan jarritako entitateetako partaidetzak.

14. Balantzearen epigrafe nagusiak.

15. Aurrekontuaren informazio bateratua.

16. Urteko kontu bateratuetan eragin dezakeen bestelako informazioa.

17. Itxieraren ondorengo gertaerak.

1. Taldeko entitateak

a) Entitate nagusia. Identifikazioa.

b) Mendeko entitateak.

c) Baterakuntzan sartzeko entitateak.

1) Baterakuntzan sartzeko mendeko entitateen identifikazioa.

Entitate horiek integratu diren prozeduraren arabera multzokatuko dira, beren izaera juridikoarekin bat etorriz.

Hala badagokio, auditoretza egiten duen pertsonak adierazitako informazioa jasoko da baterakuntzan sartutako kontu bakoitzaren auditoretzako dagokion txostenean.

2) Urteko kontuen ekitaldi ekonomikoa eta ekitaldiaren amaiera eguna, baldin eta horiek baterakuntzan aplikatutakoaz aparteko data edo ekitaldi batekoak badira.

3) Entitate bakoitza taldean sartzeko baterakuntza araua hauetako 2. artikuluan aurreikusten diren egoeretako bat.

4) Taldeko entitateek %100eko partaidetza ez duten entitateetan zuzenean edo zeharka duten partaidetzaren portzentajea, partaidetzaren titularra den entitatea beharrezkoa izanik.

5) Salmentarako mantendu gisa sailkatutako mendeko entitateen identifikazioa.

d) Baterakuntzatik baztertzeko entitateak.

1) Bateratze perimetrotik baztertzen diren mendeko entitateen identifikazioa, bateratzeko arau hauetako 8. artikuluan baztertzeko aurreikusten diren arrazoien arabera ordenatuta, eta horietako bakoitzaren barruan, horien izaera juridikoa.

2) Taldeko entitateek %100eko partaidetza ez duten entitateetan zuzenean edo zeharka duten partaidetzaren portzentajea, partaidetzaren titularra den entitatea beharrezkoa izanik.

3) Ezagutzen den azken urteko ondare garbia, kapital edo ondareari, erreserbei eta emaitzei dagozkien zenbatekoak adieraziz.

e) Taldeko entitateen interes adierazgarria.

Interes adierazgarri hori irudikatzen duen magnitudea dela ulertzen da:

1. Administrazio jardunak egiten dituzten sektore publikoko entitateen kasuan:

- Gastuen beren aurrekontua mugatzailea izanez gero: onartutako obligazio garbien zenbateko osoa,

- Gastuen beren aurrekontua mugatzailea ez bada: jardunetik eratorritako eragiketen ondorioz aitortutako hartzekodunen zenbateko osoa.

2. Enpresa jardunak egiten dituzten sektore publikoko entitateen kasuan: ekitaldiko ustiapen gastuen zenbatekoa.

3. Sektore publikoko fundazioetan: ekitaldiko gastuen zenbatekoa, berezko jardunetik nahiz merkataritza jardunetik eratorriak.

2. Talde anitzeko entitateak eta entitate elkartuak

a) Baterakuntzan sartzeko entitateak

1. Baterakuntzan sartzeko talde anitzeko entitateen identifikazioa.

2. Taldeko entitateek talde anitzeko entitateetan eta entitate elkartuetan zuzenean edo zeharka duten partaidetzaren portzentajea, partaidetzaren titularra den entitatea beharrezkoa izanik.

3. Talde anitzeko entitate edo entitate elkartu modura konfiguratzea ekartzen duen egoera.

Talde anitzeko entitateak

Honi buruzko informazioa emango da:

1. Bateratzeko aplikatutako metodo edo prozedura, eta berau erabiltzeko justifikazioa.

2. Talde anitzeko entitate baten urteko kontuen ekitaldi ekonomikoa eta ekitaldiaren amaiera eguna, baldin eta horiek baterakuntzan aplikatutakoaz aparteko data edo ekitaldi batekoak badira.

3. Hala badagokio, auditoretza egiten duen pertsonak adierazitako informazioa jasoko da talde anitzeko entitateen kontu bakoitzaren auditoretzako dagokion txostenean.

4. Salmentarako mantendu gisa sailkatutako talde anitzeko entitateen identifikazioa.

Entitate elkartuak

Honi buruzko informazioa emango da:

1. Hala badagokio, baliokidetzan jartzeko prozedura aldatua aplikatzeko justifikazioa.

2. Eragin adierazgarririk ez izatearen presuntzioa alde batera uzteko arrazoiak, baldin eta entitate inbertitzaileak, zuzenean edo zeharka, boto eskubide errealen eta potentzialen ehuneko 20 baino gutxiago badu partaidetuan, baldin eta entitate inbertitzaileak ondorioztatu badu eragin hori duela.

3. Eragin adierazgarria izatearen presuntzioa alde batera uzteko arrazoiak, baldin eta entitate inbertitzaileak, zuzenean edo zeharka, partaidetuan boto eskubide errealen eta potentzialen ehuneko 20 edo gehiago badu, baldin eta entitate inbertitzaileak ondorioztatu badu ez duela eragin hori.

4. Entitate elkartu baten urteko kontuen ekitaldi ekonomikoa eta ekitaldiaren amaiera eguna, baldin eta horiek baterakuntzan aplikatutakoaz aparteko data edo ekitaldi batekoak badira.

5. Hala badagokio, auditoretza egiten duen pertsonak adierazitako informazioa jasoko da entitate elkartuen kontu bakoitzaren auditoretzako dagokion txostenean.

6. Salmentarako mantendu gisa sailkatutako entitate elkartuen identifikazioa.

b) Baterakuntzatik baztertzeko entitateak

1. Bateratze perimetrotik baztertzen diren talde anitzeko entitateen edo entitate elkartuen identifikazioa, bateratzeko arau hauetako 8. artikuluan baztertzeko aurreikusten diren arrazoien arabera ordenatuta, eta horietako bakoitzaren barruan, horien izaera juridikoa.

3. Entitateen azpitaldeei buruzko informazioa

Taldeko entitatea, aldi berean, beste entitate batzuetako nagusia denean, azpimultzo horretako egituraren berri emango da, hartako kide diren entitate ezberdinak identifikatuz.

4. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi leiala:

1. Entitate nagusiak adierazpen esplizitu bat egin beharko du adieraziz urteko kontu bateratuetan taldeko ondarearen, finantza egoeraren, ondare emaitza ekonomikoaren eta aurrekontuaren egikaritzearen inguruko irudi leiala islatzen dela.

2. Informazioarekin lotutako betekizunak, kontabilitateko printzipio publikoak eta irudi leialaren helburua eragozteagatik aplikatu gabeko kontabilitate irizpideak eta, hala badagokio, urteko kontu bateratuetan horrek duen eragina.

3. Printzipioak, aplikatutako kontabilitate irizpideak, irudi leialaren helburua lortzeko beharrezkoa den informazio osagarria eta hura memorian lekutzea.

b) Informazioa alderatzea:

1. Ekitaldi honetako urteko kontu bateratuak aurreko ekitaldikoekin alderatzea eragozten duten arrazoien azalpena.

2. Alderatzea ahalbidetzeko aurreko ekitaldiko zenbatekoetan egindako egokitzapenaren edo, hala badagokio, egokitzapen hori egiteko ezintasunaren azalpena.

c) Akatsen zenbaketa eta zuzenketa egiteko irizpideetan egindako aldaketen arrazoiak eta horien eragina urteko kontu bateratuetan.

d) Kontabilitateko zenbatespenetan egindako aldaketei buruzko informazioa, horiek adierazgarriak direnean.

e) Bateratze perimetroko entitateen arteko eragiketak.

Bateratze perimetroko entitateen artean egiten diren eragiketa adierazgarrien berri emango da, horietako baten kontabilitateko ekitaldia kontu bateratuak ixteko egunetik hiru hilabete baino gehiago bereizten ez den data batean amaitzen denean.

Halaber, aurreko ekitaldiko kontu bateratuetan doikuntzak eragin dituzten bateratze perimetroko entitateen arteko eragiketa adierazgarrien berri emango da.

5. Kontabilizazio eta balioespen arauak

Jarraian zerrendatzen diren partidetarako, entitate nagusiak bere kontu indibidualetan erabilitako irizpideekin bereizten diren kontabilitateko irizpideak adieraziko dira gutxienez,

horiek zergatik aplikatu diren justifikatuz. Edozein kasutan, bateratzea egiteko unean sortzen diren partida espezifikoen konta- bilizazio eta balioespen arauak adieraziko dira.

1. Baterakuntzarako merkataritza funtsa eta diferentzia negatiboa; inbertsioa/ondare garbia ezabatzean eta baterakuntzarako merkataritza funtsaren amortizazioa eta narriadura kalkulatzean aplikatutako irizpideak aplikatuta.

   Zehazki, baterakuntzan sartutako mendeko entitateen aktiboak eta pasiboak kontabilizatu eta balioesteko erabilitako irizpideen berri emango da.

2. Bateratze perimetroan sartutako entitateen arteko transakzioak; talde barneko partidak eta barneko eragiketen ondoriozko emaitzak ezabatzean aplikatutako irizpideak adieraziz.

3. Ibilgetu materiala; amortizazioari, horiek narriatu eta itzultzearen ondoriozko balio zuzenketei, finantza gastuen kapitalizazioari, handitu, modernizatu eta hobekuntzak egiteko kostuei, konponketa handi edo ikuskapen orokorrak egiteko kostuei, aktiboa desegin eta haren kokapena berrezartzeko kostuei buruzko irizpideak eta entitateak bere ibilgetu materialari begira egindako lanen kostuak zehazteari buruzko irizpideak adieraziz.

   Ibilgetu mota bakoitzerako erabilitako geroko balioespenaren eredua adieraziko da, kostuare- na zein balioa handitzearena izan.

4. Higiezinetako inbertsioak; lurrak eta eraikuntzak higiezinetako inbertsio modura kalifikatzeko irizpidea adieraziz, horietarako aurreko apartatuan adierazitako irizpideak zehaztuz.

5. Ibilgetu ukiezina; kapitalizazio edo aktibazioarekin, amortizazioarekin eta narriaduraren ondorioz zuzenketak egitearekin lotuta erabilitako irizpideak adieraziz.

   Ibilgetu ukiezin baten balio bizitza zehaztugabe modura kalifikatzeko inguruabarren justifikazioa.

   Ibilgetu mota bakoitzerako erabilitako geroko balioespenaren irizpidea adieraziko da, kostuarena zein balioa handitzearena izan.

6. Errentamenduak; finantza errentamenduko eta antzeko beste eragiketa batzuetako kontratuak zenbatesteko irizpideak adieraziz.

7. Trukeak; jarraitutako irizpidea eta hura aplikatzearen justifikazioa adieraziz, zehazki, truke ikuspegi funtzional edo balio bizitzako batetik antzekoak ez diren aktiboen truke modura hartzeko inguruabarrak adieraziz.

8. Aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak; hauek adieraziz:

   a) Aktibo eta pasibo finantzarioen kategoria ezberdinak kalifikatu eta balioesteko erabilitako irizpideak, nahiz arrazoizko balio aldaketak kontabilizatzekoak.

   b) Aktibo finantzarioetarako:

      1. Hasiera batean ondare emaitza ekonomikoaren kontuan aldaketak dituen arrazoizko balio modura sailkatutakoen izaera, zein sailkapen horretan aplikatutako irizpideak eta, azalpena, entitateak aktibo finantzarioei buruzko erregistro eta balioespenerako arauan adierazitako eskakizunak nola bete dituen adieraziz.

      2. Narriaduraren ebidentzia objektiboa dagoela erabakitzeko aplikatutako irizpideak, eta balioa zuzentzeko eta itzultzeko erregistrorako eta narriatutako aktibo finantzarioei behin betiko baja emateko aplikatutako irizpideak. Zehazki, kudeaketa eragiketen eta kobratzeko beste kontu batzuengatik zordunek egindako balio zuzenketak kalkulatzeko erabilitako irizpideak nabarmenduko dira. Halaber, berriro negoziatutako baldintzak dituzten eta, bestela, iraungita edo narriatuta egongo

liratekeen, aktibo finantzarioetan aplikatutako kontabilitate irizpideak adieraziko dira.

3. Aktibo finantzarioen eta pasibo finantzarioen bajaren erregistrorako erabilitako irizpideak.

4. Finantza bermeen kontratuak; hasierako balorazioan nahiz hurrengoan erabilitako irizpidea adieraziz eta, baita, hala badagokio, zalantzazko modura sailkatutako bermeen ondo- riozko horniduretarako erabilitakoak adieraziz.

5. Inbertsioak taldeko entitateetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan: Narriaduraren ondoriozko balio zuzenketak erregistratzeko aplikatutako irizpidearen berri emango da.

6. Finantza tresnen kategoria ezberdinetatik eratorritako sarrerak edo gastuak zehazteko erabilitako irizpideak: interesak, primak edo deskontuak, dibidenduak, etab.

9. Kontabilitateko estaldurak; estaldura tresna eta estalitako partida balioesteko irizpidea, kontabilizatutako aktibo edo pasiboen estalduren, konpromiso irmoen eta aurreikusitako transakzioen artean bereizketa eginez, zein estaldura eten izanaren erregistrorako aplikatutako balioespenerako irizpideak adieraziz.

10. Izakinak; balioespen irizpideak eta, zeharki, balio zuzenketak egiteko jarraitutakoak adieraziz.

11. Beste entitate batzuetarako eraiki edo eskuratutako irizpideak; eraikuntza edo eskurapeneko kontratu edo akordiotik eratorritako sarrerak eta gastuak kontabilizatzeko irizpideak adieraziz eta, hala badagokio, aurrerapen edo gauzatze maila zehazteko erabilitako metodoa ere adieraziz, eta metodo hori aplikatu ezin izan bada, horren berri emango da.

12. Transakzioak atzerriko monetan; saldoak euroz aparteko monetan baloratzeko irizpideak eta egun edo, jatorriz, euroz aparteko moneta batean adierazitako ondare elementuen kanbio mota eurotan kalkulatzeko erabilitako prozedura adieraziz.

13. Kontabilitate Plan Orokorrari lotutako bateratze perimetroko entitateen mozkinei buruzko zerga; zerga geroratuen aktiboak eta pasiboak erregistratu eta baloratzeko erabilitako irizpideak adieraziz, Plan horretan aurreikusitako arauekin bat etorriz.

14. Sarrerak eta gastuak; aplikatutako irizpide orokorrak adieraziz.

15. Hornidurak eta kontingentziak; baloraziorako irizpidea eta, hala badagokio, hirugarren baten eskutik jasotzeko konpentsazioen tratamendua adieraziz Zehazki, hornidurei dagokienez, arrisku bakoitza zenbatetsi eta kalkulatzeko metodoak deskribatu beharko dira.

16. Transferentziak eta dirulaguntzak; horien sailkapenerako eta, hala badagokio, emaitzetara egozteko erabilitako irizpidea adieraziz.

17. Baterako jarduerak; entitateak parte hartzen duen baterako jarduerari dagozkion saldoak bere urteko kontuetan sartzeko jarraitutako irizpideak adieraziz.

18. Salgai dauden aktiboak: aktibo horiek kalifikatu eta balioesteko jarraitutako irizpideak adieraziko dira.

19. Etendako eragiketak; jarduera bat etentzat identifikatzeko eta sailkatzeko, eta sorrarazten dituen sarrera eta gastuak ere identifikatu eta sailkatzeko irizpideak.

6. Doikuntzak eta ezabaketak

Taldeko entitate ezberdinen artean kontabilizatutako doikuntza eta ezabaketen berri emango da. Informazio hori entitate taldeen arabera aurkeztu ahal izango da.

Horrez gain, puntu honetan taldeko entitateen arteko abal eta bermeen berri emango da, betiere adierazgarriak baldin badira.

7. Negozio konbinazioak eta enpresak berregituratzeko eragiketak

Kontabilitate Plan Orokorrera lotutako integrazio globalaren edo proportzionalaren metodoaren bidez bateratutako entitateen kontu indibidualetan kontabilizatutako negozio konbinazio eta enpresak berregituratzeko eragiketa bakoitzerako, informazio hau emango da:

a) Eskuratutako entitatearen edo entitatearen izena eta deskribapena.

b) Eskurapen eguna.

c) Konbinazioa burutzeko erabilitako forma juridikoa.

d) Negozio konbinazioa edo enpresa berregituraketa eragin duten arrazoi nagusiak, eta merkataritza funtsa kontabilizatzeko faktoreen deskribapen kualitatiboa, esate baterako, eskuratuaren eta eskuratzailearen konbinaziorako eragiketetatik esperotako sinergiak, modu bereizian kontabilizatzeko baldintzak betetzen ez dituzten aktibo ukiezinak edo beste zenbait faktore.

e) Negozioen konbinazioaren xede diren ondare elementuak balioesteko irizpideak kontabilitate balioa aplikatu ez denean.

8. Baterakuntzarako merkataritza funtsa

1. Partida honen mugimenduaren analisia, hauek adieraziz:

   a) Hasierako saldoa (zenbateko gordina, metatutako amortizazioen zenbatekoa eta ekitaldiaren hasieran narriaduragatik metatutako balio zuzenketak).

   b) Gehikuntzak (Epealdian zehar kontabilizatutako merkataritza funts gehigarria).

   c) Ekitaldiko amortizazioa eta, hala badagokio, ekitaldiaren hasieran narriaduragatik kontabilizatutako balio zuzenketak. Zehazki, merkataritza funtsaren balio bizitza zehazteko egindako zenbatespenen eta amortizaziorako erabilitako metodoaren berri emango da.

   d) Ekitaldian zehar kontabilitate balioan izandako beste edozein aldaketa. Eta

   e) Amaierako saldoa (merkataritza funtsaren zenbateko gordina, metatutako amortizazioen zenbatekoa eta ekitaldiaren amaieran narriaduragatik metatutako balio zuzenketak).

   Adierazgarriak diren gehikuntza eta murrizketan eragin dituzten eragiketak deskribatu beharko dira laburki.

2. Azken saldoaren banakatzea, baterakuntzarako merkataritza funtsa ekarri duten partaidetzen arabera.

9. Baterakuntzaren diferentzia negatiboa

1. Ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuko hurrengo partiden osaeraren analisia: 18 «Entitate bateratuen baterakuntzan izandako diferentzia negatiboa» eta 28 «Baliokidetzan jarritako entitateen baterakuntzaren diferentzia negatiboa». Transakzioak epigrafe horietako saldoa zein arrazoiengatik eragin duen deskribatu beharko da, adierazgarriak direnean.

2. Azken saldoaren banakatzea, baterakuntzaren diferentzia negatiboa ekarri duten partaidetzen arabera.

10.Kanpoko bazkideak

Informazio hau jasoko da:

1. Epigrafe honen banakatzea, mendeko entitate bakoitzerako honako hau adieraziz:

   a) Ekitaldian zehar izandako mugimendua eta horri sorrarazi duten arrazoiak.

   b) Saldoaren osaera ekitaldiaren amaieran, sortutako ondarean izandako partaidetza, balio aldaketen doikuntzak eta jasotako dirulaguntzak, emaitzetan egotzi gabeak, bereiziz.

2. Mendeko entitate izaera ekitaldian zehar eskuratu bada, eskuratutakoan kanpoko bazkideen zenbatekoa adieraziko da, eskurapen egunez kontabilizatua.

3. Kanpoko bazkideen partaidetza merkataritza funtsean, urteko kontu bateratuan zenbatetsia, arau hauetako 25.1.d) artikuluan xedatuarekin bat etorriz.

11.Taldeko entitateetako partaidetzaren portzentajea aldatzea

Kontrola galtzea eragiten ez duten mendeko baten jabetzako partaidetzan izandako aldaketek en- titate nagusiari egotz dakiokeen ondare garbian dituzten ondorioen berri eman beharko da. Zehazki, adierazgarria den eragiketa bakoitzerako informazio hau jasoko da:

a) Bariazioa erreserbetan.

b) Bariazioa Balio aldaketen doikuntzak izeneko III. Epigrafean eta Jasotako dirulaguntzak, emaitzetan egotzi gabeak izeneko IV. epigrafean.

c) Hala badagokio, bazkide minoritarioei egotzitako merkataritza funtsa.

12. Talde anitzeko entitateei dagozkien partidak

Balantzeko eta ondare emaitza ekonomikoaren kontu bateratuetako partida adierazgarri bakoitze- rako talde anitzeko entitateei dagozkien zenbatekoak banakatuko dira. Informazio hori talde anitzeko entitate guztietarako jasoko da, modu gehigarrian.

13. Baliokidetzan jarritako entitateetako partaidetzak

Informazio hau jasoko da:

1. Partida horren banakapena baliokidetzan jarritako entitateen arabera, ekitaldiko mugimenduan eta hura eragin duten arrazoiak adieraziz, merkataritza funtsari dagozkion zenbatekoekin batera.

2. Entitateen finantza arloko informazio laburtua. Bertan aktiboen, pasiboen, sarrera arrunten eta ekitaldiko emaitzaren zenbateko metatua jasoko da.

3. Baliokidetzan jarritako entitateen ekitaldiaren emaitza, entitate inbertitzaileari dagokiona. Ondare emaitza ekonomikoko kontuan zenbatetsia eta ondare garbian zuzenean agertzen dena adierazi beharko dira.

14. Balantzearen epigrafe nagusiak

Balantzearen epigrafe nagusiei buruzko informazioa aurkeztuko da, ekitaldian zehar izan duten bariazioa agertzeaz batera. Halaber, bariazioa adierazgarria denean, hura eragin duten arrazoi nagusiak jasoko dira.

Aurrekoaren kalterik gabe, Ondare Garbiari dagokionez, ekitaldian zehar balantzearen partida bakoitzean izandako mugimendua jasoko da, zera adieraziz:

a) Hasierako saldoa.

b) Igoerak.

c) Jaitsierak.

d) Azken saldoa.

«Erreserbak eta aurreko ekitaldietako emaitzak» izeneko lehendabiziko partida, zehaztasun maila honekin banakatuko da:

a) Entitate nagusiaren erreserbak eta aurreko ekitaldietako emaitzak.

b) Erreserbak eta aurreko ekitaldietako emaitzak entitate bateratuetan.

c) Erreserbak eta aurreko ekitaldietako emaitzak baliokidetzan jarritako entitateetan.

15. Aurrekontuaren informazio bateratua

a) Itxitako aurrekontuen obligazioak.

Aurrekontu mugatzailea duten entitateei dagokienez, honi buruzko informazioa emango da, kapitulu mailan gutxienez:

1. Urtarrilaren 1ean ordaintzeke dauden obligazioak.
2. Hasierako saldoari dagokion aldaketak eta baliogabetzeak.
3. Obligazioak guztira.
4. Preskripzioak.
5. Egindako ordainketak.
6. Abenduaren 31n ordaintzeke dauden obligazioak.

ITXITAKO AURREKONTUEN OBLIGAZIOAK

Ekonomia kodea	Deskribapena	Urtarrilaren 1ean ordaintzeke dauden obligazioak	Hasierako saldoari dagokion aldaketak eta baliogabetzeak	Obligazioak guztira	Preskripzioak	Egindako ordainketak	Abenduaren 31n ordaintzeke dauden obligazioak
	GUZTIRA						

b) Aurrerako ekitaldietako aurrekontuetara zamatzeko gastuen konpromisoak

Aurrekontu mugatzailea duten entitateen kasuan, ekitaldian zehar, zein aurrekoetan, gastuei dagokienez eskuratutako konpromisoei buruzko informazioa emango da, kapitulu mailan

gutxienez, ekitaldi jarraituen aurrekontuetara egozgarri direnak, zenbatekoa eta dagokion urtea adierazita.

AURRERAKO EKITALDIETAKO AURREKONTUETARA ZEMATZEKO GASTUEN KONPROMISOAK

Ekonomia kodea	**Deskribapena**	**Jarraian adierazten diren urteetako aurrekontura zamatuz eskuratutako gastuen konpromisoak**				
		(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	Jarraiko urteak
	GUZTIRA.					

c) Itxitako aurrekontuen ondorioz kobratzeko eskubideak

Aurrekontu mugatzailea duten entitateei dagokienez, honi buruzko informazioa emango da, kapi- tulu mailan gutxienez:

1. Urtarrilaren 1ean kobratzeko dauden eskubideak.
2. Hasierako saldoaren aldaketak.
3. Eskubide baliogabetuak.
4. Eskubide deuseztatuak.
5. Zerga-bilketa.
6. Abenduaren 31n kobratzeko dauden eskubideak.

ITXITAKO AURREKONTUEN ONDORIOZ KOBRATZEKO ESKUBIDEAK

Ekonomia kodea	Deskribapena	Urtarrilaren 1ean kobra-tzeko dauden eskubideak	Aldaketak hasierako saldoa	Eskubide balio-gabetuak	Eskubide deu-seztatuak	Bilketa	Abenduaren 31n kobratzeke dau-den eskubideak
	GUZTIRA						

d) Aurrerako ekitaldietako aurrekontuetara zamatzeko sarreren konpromisoak

Aurrekontu mugatzailea duten entitateen kasuan, ekitaldian zehar hitzartutako, zein aurreko ekitaldietan hitzartutako, sarrera konpromisoei buruzko informazioa emango da, kapitulu mailan gutxienez, betiere, hurrengo ekitaldien aurrekontuan eragina izanez gero, zenbatekoa eta dagokion urtea adierazita.

AURRERAKO EKITALDIETAKO AURREKONTUEN KARGURA DOAZEN SARRERA KONPROMISOAK.

Ekonomia kodea	Deskribapena	Jarraian adierazten diren ekitaldietara egozgarri diren sarreren konpromisoak				
		(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	(Urtea)	Jarraiko urteak
	GUZTIRA					

e) Aurrekontu mugatzailerik gabeko entitateen gastu eta sarreren aurreikuspen egoeraren likidazioa

Entitatearen ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrean sartzen diren gastu eta sarreren aurreikuspenaren egoerei dagokien likidazioa aurkeztuko da, gehitua edo bateratua, entitate motaren arabera, bertan agertzen diren ereduei jarraituz eta aurrekontuan sartutako zenbatekoa, egindako zenbatekoa eta izandako desbideratzea, zenbaki absolutu eta erlatiboetan, gaineratuz.

16. Kontu bateratuetan eragin dezakeen bestelako informazioa

Kontu bateratuetan eragina duen beste edozein informazio adierazgarri emango da, eragindako ondare elementuari dagokion atalean islatu ez denean.

17.Itxieraren ondorengo gertaerak

Entitate nagusiak honen berri emango du:

a) Ekitaldiaren amaiera egunez dagoeneko hor zeuden inguruabarrak agerian ipintzen dituzten ondorengo gertaerak, erregistro eta balioespen arauak aplikatzean, urteko kontu bateratuak osatzen dituzten dokumentuetan izandako zifrak doitu beharra ekarri dutenak.

b) Ekitaldiaren amaiera egunez dagoeneko hor zeuden inguruabarrak agerian ipintzen dituzten ondorengo gertaerak, beren izaerarekin bat etorriz, urteko kontuetan jasotako zifretan doikuntzaren bat egin behar izatea eragin ez dutenak, nahiz eta memoria bateratuan jasotzen den informazioa aldatu egin behar den ondorengo gertaera horren arabera.

c) Ekitaldiaren amaieran agertzen ez ziren baldintzak jasotzen dituzten eta, horri buruzko informaziorik jaso ezean, urteko kontu bateratuen erabiltzaileak ebaluatzeko ahalmenean eragina izan dezaketen garrantzi handiko gertaerak.